

DENBORA ZARRETAKO EUSKAL-ELIZAREN EDESTIA

Lenengo Liburua

**Latiegi ta Eraso'tar Bixente**

**EUSKERAZAINTZAKOA**

**Euskal  
Kristautasunaren  
Sorkuntza**

NORK

NOIZ

NOLA

NONDIK

**Euskalerrira Kristautasuna**



IDAZLEA

LATIEGITAR BIXENTE  
Ricardo Buesa, 1-3'garrena  
Umilizkifia (945) 13 22 11  
01008 GASTEIZ

LIBURU ONEN AZALA  
(LAUBURUTIK GURUTZERA,  
JENTILTASUNETIK KRIS

IBER SAENZ andereñoak margoztua

WILSEN EDITORIAL  
Mayor, s/n.  
(948) 54 00 22  
0110barren (Navarra)

ISBN-84-85918-97-5  
Dep45sito Legal: N A-1082-1996

Imprime:  
WILSEN EDITORIAL

LATIEGI ELOSTA ARRIETA IGERATEGI'TAR FELIS  
ORONoz SORABILLA ETXANIZ ELORTZA'TAR JUANA  
ERASO MUÑAGORRI OTAMENDIA ARSUAGA'TAR FRANTZISKO  
IGERABIDE GOIKOETXEA BALDA IRIARTE'TAR JOXEPA  
NERE AITON-AMONEN  
OROIZ



URTE K. a. a. C)	glaciares	GIZONAK (Hombres f. rimitn•	KULTURAK	EUSK A L HERRIKO AZTARNATEGI Algunos yacimientos del Pais Vasco	
800	IZOZTE GEROKO GARAIAK		<	Burdin aroa (Hierro, Fer)	Cortes. Mendabia. Tururmendia, Murugain, La Hova, I miruri, Hena . Irreina, Barne. Orøera 200 harrespil {ctorniechsi i'}
			Eneolitos eta Burdinori aroak (Bronce I	Panicas, Aldeacueva, Atxeta, Ger- radixo. Santimamiñe, Sagasti- gorri, Kobeaga, Lumentxa, At- xuri. Gobaederra, Los Husos, .lentiletxera, Urriaga, Marizulo eta 525 trikuharri doirnerii.	
					Los Husos, Arenaza.
			Tardenois aldia	Marizulo. Arenaza.	
2.000	(Postglacial)				
5.000			Azil aldia	Santimamiñe, Lumentxa. Atxeta, Bolinkoba, Ermittia. Urziaga. Aizpitarte, Berroberria, Isturitze.	
(.000)	WI, JRN1		Magcialen aldia	Santimamiñe, Lumentxa, Atxeta, Bolinkoba, Ermitria, LIRtiaga, Ekain, Altxerri, Aizpitarte, Isru- ritze.	
Solurre aldia			Bolinkoba, Ermitria, A zpirarte, Isurritze.		
Aurignac aldia			Laperra. Santimamifie, Boiinkoba, Lezetxiki, Aizpitarte, Isturitze, Gatxarria.		
Mousrier aldia			Axlor, Lezetxiki, Koskobide, l3l- basa, Olha, Isururitze, Garxarria.		
100.00	RISS				
500.000	MINDEL		Acheul aldia	Haitzabal, Zuiniga. Izarra. Irunbe- rri, Urbasa, Mlarritze, Murba.	
	Gü <sup>N</sup>		Pehble Culture		
1.000.000					

Jeaus Altuna 'k egila

## LIBURU ONTAKO GAIAK'

LABURPENAK..... 15

BIBLIOGRAFIA. ITURRI IZAN ZAIZKIDAN IDAZKIAK ..... 17

NERE USTEZ GARRANTZI AUNDIKO OARRAK ..... 29

Gaurko Euskalerra laburra eta atzoko Euskalerra zabala. Zer Euskalerriz mintzatuko geran. Aita gurea Euskalerrian errezatzen noiz asi ote zan. Ori jakitera |nola iritxi?

JENTILLEN AROA ..... 43

Euskalerraaren eta Euskeraren sorkuntza. men Euskaldunen aurretik bizituta-koen sinispidea. Kronafiondarrak Euskaldunak? Barandiaran'en azken-aitorpena. Euskalerra zar aren mugak. Giza-aro artako kulturik aundiena Euskalerraian: "Franki-Kantauritar" kultura. "Animismo" edo "oro-anitua-keria". Magia. Indouropatarren etorrera. URTZI jainkoa. Keltiarrak eta Iberiarrak. Eusko-jainkotxiki ta izaki sagaratuak. Euskaldunak monoteistak?. Estrabon'en aitorpena. "Jaungoikoa" itza, zarra? ala berria? Euskaldunak enoteistak, ots, jainko askoren gaindiko jainko nagusi baten gurtzailleak?

ERRI LUR-EBASLEEN ETORRERA. .... 71

---

Izki txikiz agertzen diran gaiak, danak, liburu ontan daude. Alare, hadaiteteke, bein edo bein, aipatzen diran tokian ez agertzea. Orren arrazoia? Libu au, eta onen atzetik bereala etorriko dana, V menderari dagokiona, biak liburu bakar batean argitaretzeko izan zirala idatziak, baiña liburu bat bakar ori lodiegia irtetzen zitzaigun ezker, azkenean, bi liburu argitaratzea erabaki dugula. Barka bekit irakurleak.

KARTAGO .....	87
Eusko-gnuariak Kartagotarren gudaroztean. Baal jainkoa, Astarte jainkemea, ¿sartu ote ziran Euskalerrira?	
ERROMA .....	93
Erroma'ko jainkougaitasuna Euskalerra zarrean. Gaur bezala orduan ere Euskaldunok zatiturik. Euskalerra, bere nortasunik galtzeke, arras erromaturik.	
KRISTAUTASUNAREN SORKUNTZA.....	103
Nola zabaldu zan. Erri bat erromaturik egotea, kristau izatera iristeko bearreko aurre-urratsa?. Euskalerra Erri zabala. Euskalerriko erromar-bidengusiak. Euskalerra, bere nortasuna galtzeke arras erromaturitako Erria.	
ELENERAZKO ETA LATERAZKO IDAZLE KLASIKOEN EUSKALDUNEI-BURUZKO IRITZIA.....	119
C. Sallustius Crespus; Titus Livius; Estrabon; M. Verrius Flacus; C. Plinius Secundus; C. Cornelius Tacitus; Sextus Julius Frontinus; C. Silius Italicus; L. Annaeus Florus; Appianus elendarra; C. Ptolomeus, elendarra au ere; Exuperantius, V mendeko edestilaria... Klasiko guztiek, Euskaldunen aurkako itz zakar bat bakarrik ez.	
EUSKALERRIAREN [ZENA ZIKINTZEN.....	145
"Euskaldun izu, basapizti, lapur eta gaizkillearen" kondaira gezurtia.	
LENEN MENDEKO EUSKALERRIAN ZER?.....	149
Erri batek, kristautua izateko, aurretik erromaturia izatea, bearrezko baldintza? Erromatarren eta Euskaldunen arteko arremanak. Euskalerra gaizkilleen erria? Euskalerra basatien erria? Euskaldun aien gogo-zabaltasuna.	
GURE KRISTAUTASUNA NONDIK ETORRIA? .....	165
Gure egoaldeko Ispanietan?, kondaira utzak. Gure iparreko Galietan?, kondaira geiago! Donepaul Tarrako (Tarragona)'n?, bai. Baskoien Biana urian ere bai? Donejakoha (Santiago) Zalduba (Zaragozayn? Baskoien Kalagurri'n ere bai? Zutoitzeko Andramari'ren kondaira. "Apostoluengandiko Zazpi Gizonen" kondaira. Iruña'ko Donerfermii Ven kondaira. "Euskaldun-Beti-Garaillearen" eta "Euskaldun-Beti-Zintzoaren" kondairaak. Lekuona'ren eta Barandiaran'en abu-	

ruak. Tubalkeria. Kantabrikeria.                      Andreamen                      Kristautasuna I  
mendeko Europa'n.

II MENDEAN EUSKALERRIAN KRISTAUTASUNIK BAI ..... 193  
Mende orren lenen erdian mundu zabaleko Kristautasunaren egoera. Trajano-  
ren legea.                      kristautasunik bai ote? Eta Frantzi'n?

GURUTZEAREN ERABILKETA LENEN IRU MENDEETAN ..... 203  
Lekona'ren iritzi ez-ezgun bat. Euskalerrian aurkitutakoa gurutze-ikurrak,  
¿kristauak?

LURREGOSIZKO ONTZIAK..... 223  
Euskalerrian idorotakoak...Kristauak ote? Barandiaran, Mañarikua eta Azkara-  
te Garai-Olaun'en iritziak

II MENDEAREN BIGARREN ERDIA ..... 229  
Lyon'go Eliza. Tarragona'n, gotzai, Iondoni Murtuts, (Fruktuoso Donea).  
Narbona'n zer?

II MENDEAREN AZKENERAKO KRISTAUTASUNA EUSKALDU-  
NONGANA SARTZEN ASIA? 1<sup>a</sup>: IRENEO DONEAREN ITZAK....2, 233

II MENDEAREN AZKENERAKO KRISTAUTASUNA EUSKALDU-  
NONGANA SARTZEN ASIA? 2<sup>a</sup>: TERTULIANO'REN ITZAK .....2 237

ZESAREA'KO EUSEBIO EDESTILARIAREN LERRO BATZUK..251

ANTZIÑA ARTAN EUSKERAZ ESANDAKO AITAGURERIK BAI?  
Liturgi-ekintzetan bai? Liturgitik at?                      255

III MENDEKO GIROA ..... 265  
Eliz orokorraren egoera. Europa'ko kristautasun urria. Dezio, Baleriano,  
Galerio inperatoreak. Kristautasuna, Euskalerrriaren inguruko Elizetan. Euskal-  
dunen artera kristautasuna sartzen asia.

EUSKALDUNENGANA IRISTEKO KRISTAUTASUNAREN BIDEAK.

NARBONA'KO ELIZA .....	267
Narbona Euskalerrri. Zarretik bertan. Bere Elizaren sorketa. Turona'ko Gregorio'k damaizkigun albistek. Paul Apostolu Donea Narbona'n? Kondairak ugari.	
TARRACO (Tarragona) .....	271
Erromatekoan uri aren nortasun aundia. Ego-Euskaldunen lenen I'metropolis". Fruktuoso Donea, "Iondoni Murtutx", dokumentuetan ango lenen gotzaia. "Iondoni" tituloaren garrantzia. Tarragona'ko "Iondoni Murtutx" eta Tolosa'ko "Iondoni Satordi"ren eraginrnamei-buruz ¿zer esan?.	
TOLOSA.....	281
Uri erdi-euskalduna? III mendeko Akitani'ren nolakotasuna. Iondoni Satordi Ipar-Euskaldunen lenen Metropolita. Bigarren metropolita, Iondoni Satordi'ren ondorengo Onorato Donea, ¿euskalduna? Guzti ori... ¿egiazko edestia ala kondaira utsa?	
ZALDUBA (Caesaraugusta, Zaragoza) .....	289
Zalduba Euskalerrriaren muga-mugan. Erroma'n, Dezio inperatore. Elizarentzat zigorra berriro. Zalduba'ko martiriak. Felis, Zalduba'ko gotzaia?.	
BORDELE, .....	295
Uri Euskalduna? Martzial Donea: edestia ta kondaira nasirik. Akitani Euskalduneko lenen mixiolaria, nor ote? Arelate (Arles)'ko kontzilioaren garrantzia guretzat.	
ELUSA .....	303
Akitani euskaldunaren erdi-erdian lenen Euskal-Gotzai-Uria. Nor ote, bere aurreneko mixiolaria? Kondaira ta edestia berriro. Paterno martiri Donea	
GABALI (GÊVAUDAN)'GO ANDERITO (JAVOLS). .....	311
Bituri uriburu zuan I Alcítani <sup>1</sup> n, III mendearen azken-aldera uri gotzaiduna. Iristen ote zan aráitio 111 mendean euskera? Pribato martiri Donea, Anderito'ko gotzaia.	
DIOKLEZIANO. EUSKALERRIKO MARTIRIAK .....	314



Tetrarkia. Diokleziano III mendean paketsu. Bere inperatorekide Gaierio, ordea, gudaroztean kristauak zigortzen.

AGINO ..... 319  
Erromatarren "Aginum"; gaur, frantzeraz, "Agen", Garona ibaiaren ertzean. III mendean gotzairik ez, seguruaski, baiñan bai aski kristaua, IV 'aren asieran martiri ildako Donefides neskatillak eta bere lagunek adierazten digutenez.

EMETERIO TA ZELEDONIO DONEAK ..... 321  
Nor ziran. Noiz izan ziran eraillak. Baskoiak 111 mendearen azkena baiño askoz leenago kristauak? Prudentzio olerkariaren aapaldi garrantzitsu bat. Emeterio ta Zeledonio i,Euskotarralc? Euskaldunak ere bai? Prudentzio bera L,euskotarra? Euskalduna ere bai?

ALFIO, FILADELFO, ZIRINO ETA LAGUNAK... DONE EUSKALDUNAK?..... 341

LORENTZO DONEA ..... 345  
Euskotarra ote zan? Eta, agian, Euskalduna ere bai? "Ueszitar" Euskaldunen kristautasun goiztarra. Orixe'ren iritzi bat.

KALAGURRI'KO PRUDENTZIO OLERKARIA ..... 355  
Nor izan zan. Nolako olerkaria. Erdiaroan arrakasta aundikoa izanen zan eIerti-kera berri baten sortzaillea. Prudentzio'ren eskatologi zabala.

IV MENDEKO GIROA ..... 369  
Diokleziano Eliza zigortzen. Galietan Kostantzio Kloro inperatorekide pakezaleari eskerrak, martiririk ez. Ispanietan martiri ugari; auetako bat gure Bixente Diakono Donea.

"IONDONI BIXINTXO" (BIXENTE DIAKONO DONEA) ..... 373  
Euskotarra jaiotzez. Euskalduna ere bai? Balero Donea Zaiduba'ko gotzaia. Bere "impeclimentum liguae"... i,euskerarik ez jakitea? ¿Eta orregaitik Bixente diakono sagaratu? bai, au euskalduna zalako? Iondoni Bixintxo'ren eriozta. Prudentzio olerkaria eta Iondoni Bixintxo.

BI NESKATIL DONE. SINISMEN IZENENKO NESKATIL DONEA.387

Eusehi Aran'go neskatxa, ta "Sancta Fides" Agino'ko neskatilla. "La Chanson de Sainte Fai".

KAPRASIO, PRIMO ETA FELIZIANO DONEAK..... 396

ENGRAZI ETA EULALI DONEAK ..... 399

AKIZE'KO DONEBIXENTE. BESTE DONEBIXENTE BAT? LETO  
DONEA ..... 403

ARKEOLOGIAREN AZTARNAK ..... 405  
"Sol Invictus" edo "Eguzki Menderakaitza" (IV mendeko sasijaikoa) Kristo biurtu. Kristautasuna ta Kristautasunaren arteko "sinkresi" edo bateraketaren arazoa. Gipuzkoa'n, E,skoriatza'ko mendian aurkitu-berria dan Krismoia.

ARIANIKERIA ..... 413  
Zer izan zan. Sartu ote zan Euskalerrira? Febadio, Agino'ko gotzaia arianikeriaren aurkako idazle ospetsua.

PATERNO GOTZAIA ARIANIKERIAREN ETSAIA ..... 419

PRISZILIKERIA ..... 425  
Zer izan zan. Prisziliano. Euskalerrian izan zuan arrakasta galanta. Zaragoza'ko kontzilioa. Euskalerrian, IV mendean, lekaiderik bai? Bordele'ko Kontzilioa. Prisziliano, ereje izateagaitik, Menen eraildako gizakumea? Turona'ko Iondoni Marti eta Prisziliano. Sulpizio Sebero eta Prisziliano.

TURONA'KO IONDONI MARTI (TOURS'EKO MARTINDONEA).449  
Bere nortasuna. Lekaide. Gotzai. Inperatoreen aolkulari. Mixiolari. Ibilli ote zan Euskalerrian?

VIGILANTIUS APAIZ EUSKALDUN EREJEA ..... 452  
Bere pentsaera. Egiaz ote zan ereje? Jeronimo Donearen erantzun latz eta zakarra.

KALAGURRI'KO ERRI KRISTAUA, ..... 463

Ibero Ibaiaren araneke Baskoien kristautasuna. IV mendean Kalagurri gotzai-urri? Balerio bertako gotzaia? Prudentzio'ren esaldiak nola ulertu?

IV MENDEKO EUSKALERRIAN ELIZA ERAKUNDE ..... 4 75  
Elusa, Akitani euskaldunaren erdian, goigotzai-uri. Beste gotzai-uriak.  
Euskalerriko Eliz ura ¿Eliz Euskalduna? Bere liturgian euskerarik bai ote?

ZALDUBA (ZARAGOZA) ..... 487

AKITANI-ALDEKO ELIZAK..... 497

TOLOSA ..... 497

BORDELE ..... 4 98

ALBIGA (ALBI) ..... 498

KADUR (CAHORS) ..... 499

ERRUTENI (RODEZ) ..... 5 00

KONBENERRIA (LUGDUNUM CONVENARUM. ST. BERTRAND DE  
COMMINGES)..... 502

Euskalerrri Zarreko lurralde ontan IV mendeko Basilika bat. Eta Galietako lenen parroki ezaguna. Eta Lenen parrokoa.

ELUSA ..... 507

ELIZ ELUSATAR ZARREKO DONEAK ..... 511

ELUSA GOIGOTZAI-URI ..... 517

FEBADIO DONEA ..... 519

AZKEN BEGIRALDIA IV MENDEAR1 ..... 533

GEIGARRIA. ESTRABON'EN ATAL BAT ..... 539



## LABURPENAK

(Berealaxe emango dizut, nere lanerako erabilli bear izan ditudan liburuen zerrenda. Oietako batzuk, sarrienik erabillienak, laburpen auen bidez aipatu izan ditut):

- Conc.Colec.Reg. = Concilioturn Colectio Regia Maxima.  
Enc.G.I.P.Vas. = Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco.  
Bib.Vet.Patr.Aut. = Bibliotheca Veterorum Patrum et Auctorum Ecclesiasticorum.  
Bib.Sanc. = Bibliotheca Sanctorum.  
Cath.En. = Catholic Encyclopedia  
CathoL — Catholicisme.  
Con.Col. = Conciliorum Collectio Regia Maxima.  
Corp.Cris. = Corpus Christianorum.  
Corp.Scrip.Lat. = Corpus Scriptorum Latinorum.  
Dic. Bib. = Dictionnaire de la Bible.  
Die.Arch.Chr6. = Dictionnaire d'Archeologie Chraienne et de Liturgie.  
Dic.Gen.Ilus.P.Vas. = Diccionario General Ilustrado del Pais Vasco.  
Dic.Hist.EcI.Esp. = Diccionario de Historia Eclesiástica de España.  
Dic.Hist.Eccl. = Dictionnaire d'Histoire Ecclésiastique et de Gedgraphie.  
Dic.Mo.Ca. = Dictionarium Morale et Canonicum.  
Dic.Theo.Cath. = Dictionnaire de TWologie Catholique".  
Enc.Jud. = Encyclopedia Judaica.  
Glos.Med.In.Lat. = Glossarium Mediae et Infimae Latinitatis.  
Ib. = Ibidem. Toki berean.  
Id. = Idem. Berak.  
L.C. = Loco Citato. Aipatu-berria dan toki berean.  
Nom.His,S. = Nomima Hispanarurn Sedium.  
Not. Dig. = Notitia Dignitatum.

Op.C, = Opus Citatum. Aipatutako Liburuan. Liburuaren izenik ematen ez ba'dut, izendatu-berri dutan idazie orrek liburu ori bakarrik idatzi zualako edo bere liburuetatik nik ori bakarrik erabili dutalako izango da. Liburu ori, aipatua non dagoan? Bere xeetasun guztiekin, iturri izan zaizkidan idazkien zerrendan, liburu onen lenen-orrietan. Zerrenda ortan "liburu aipatua" aurkitzeko, bere idazlearen izena billatu bear duzu.

P.L. = Migne'ren "Patrologia Latina".

S.Ep. = Series Episcoporum Ecclesiae Caratholicae.

Vet.Christ. = Vetera Christianorum.

## BIBLIOGRAFIA

### ITURRI IZAN ZAIZKIDAN IDAZTIAK

Liburu ta aldizkari asko erabili bear izan ditut lan asko eta oso asti luzea kosta zaidan idazki au bere eibururairio eraman aal izateko. Liburu oietatik geien-geienak Gazteiz'ko gure seminarioko liburutegian aurkitu ditut. Besteak, Gazteizen bertan "Santxo Jakintsua" deritzan Erakundearenean.

- M. Agasson de Grandsagne: "Caius Plinius Secundus Maior: Historia Naturalis cum variorum adnotationibus. Trad. par M. Agasson de Grandsagne. Paris. 1829-1833

- Altuna Jesus: "La Prehistoria Vasca". "Euskaldunak La Etnia Vasca"ren I tomoan, lenengo orrialdetik 31'garrenera. Donosti; 1978.

- Altuna, Jesus: "Lehen Euskal Herria. GuLa Ilustrada de Prehistoria Vasca. Guide Illustrée de Praistoire Basque" Bilbao, 1975. Nere ustez, Altuna'tar Josu da Euskal-Edestiaurreko gaietan gure jakintsurik fidagarrienetako bat.

- Antonino: "Itinerarium Provinciarum Omnium Imperii". Nik liburu aun beste ontan aurkitu dut: "Vetera Romanorum Itineraria sive Antonini Augusti Itinerarium, Itinerarium Hierosolymitanum". Amsterdam, 1.735.

Archivo Español de Arqueología. Consejo Superior de Investigaciones Científicas. Madrid.

- Arrinda Albisu Anastasio: "Magia y Religión Primitiva de los Vascos". Bilbao, 1.985. Liburu aundia eta ederra, gaia argi, sakon eta osoki agertzen duana. Arrinda bait da gai auetaz gaur-egun geiena dakiana. Baditu gai oni buruz idazti geiago, baiñan beste onako auek merezi dute aipamen bereizia:

- Arrinda Albisu Anastasio: "Los Vascos del Animismo a la Romanización". Naiz 1.992'ear argitaratua izateko gertuturik egon, arazo batzuen erruz, Bilbao'n 1.994 ontan argitara irten dana,

- Arrinda Albisu Anastasio: "Euskal Aztarnak. Cro-Magnon'etik Erroma'ra". Deba, 1996. Lengo bien laburpena da, baiñan oso ederki Pozik

nindeke ni eta pozik gindezke Euskerazaintzako gwallok, liburu au Euskaldun orok irakurri duala entzungo ba'genu. Arras bait da jakingarria!

- Arrinda Donato, Estomba Manuel: "Historia General del Pais Vasco". Bilbao, 1.980.

(Decimus Magnus Ausonius). Nik, onako liburu ontan erabilli dut: "Oeuvres Completes d'Ausone. Traduction Nouvelle par E. F. Compert". Paris, 1842-1843". Bi liburu dira.

- Aymeric Picaud: "V Liber Sancti Jacobi": "Jakoba Deunaren Bosgarren Liburua". "Gula del Peregrino" edo "Erromesaren Esku-Liburua" ere esan oi zaio. Eta baita "Code,s Calixtinus. Liher V" edo "Kalisto'ren Bilduma'ko Bosgarren Liburua". Izan ere, bera bait da bost liburuk osotzen duten Bilduma artan bosgarrena. 1.124'ean il zan Kalisto Aitasantuak ez zuan Bilduma orrekin zer ikusirik izan, baiñan bere izena eman zitzaion gero, berari Ieporatutako itzaurre apokrifo baten erruz.

Nik, Jeanne Vielliard'ek prantzeraz eta lateraz 1.938'an argira emandako "Le Guide du Pelerin de Saint Jacques de Compostelle" erabilli dut nere lan ontarako.

- Azkarate Garai-Olaun, Agustin: "Arqueología Cristiana de la Antigüedad Tardía en Alava, Guipuzcoa y Vizcaya". Gazteizen; 1.988'an. 553 orri eta argazki ta marrazki askoz eratutako liburu mardul ederra. Gai oni-buruz, orain arte, libururik onena. Egillea, Euskal-kristautasunaren atzeratzailleekin zerbaitxo bat legunagoa dala dirudi, aurreratzailleekin baiño.

- Azcona, Jesus: "La Escuela Hist6rica de Viena y la Antropologfa Vasoa. (Cuadernos de Etiologia y Emografia de Navarra)". 43. 1984. 137-153.

- "Bibliotheca Patrum et Veterorum Auctorum Ecclesiasticorum". Margarinum de la Bigne'k antolatua. Paris, 1.609. 8 liburu dira. Nik 8<sup>a</sup> erabilli dut.

- "Bibliotheca Sanctorum. Instituto Giovanni XXIII nella Pontificia Universita Lateranense". 24 liburu, 1.961'tik I .969'ra. Geigarri bat badu; 1.987'koa; ia osoki "gorrien" aldean eraildakoen berri emanez osotua. Aipatzen dituan donegai oiek egiazko martiriak izan ziranik ukatu gabe, nere ustez oar bat eskatzen zuan zintzotasunak, España'ko gudu nardagarri artan "gorriek" aiña jende edo geiago "zuriek" ere erail zutela esanez.

- Bosh Gimpera: "La Prehistoria de los Iberos y la Etnografia Vasca". Eusko-Ikaskuntza XVI, 1 Oct. 1.926.

- Cange, lateraz, Cangius: Glossarium mediae et infimae latinitatis, conditum a Carolo Dufresne Domino du Cange. Cum suplementis integris Monacho-



urn Ordinis Sancti Benedicti, D.P. Carpinterii, Adelungii, aliorum, suisque digessit G.A.L Hensche]". Paris, 1.840-1.850. 7 liburu dira.

- Caro Baroja, Julio: "Los Pueblos del Norte de la Peninsula Ibica". Madrid, 1.943. Liburu ontako zatirik jakingarriena, 101 garren orrian. Oker dabil nere ustez Caro Baroja, ikusi aal izango dugun bezala, Bordele'ko Ausonio eta Nola'ko Paulino'ren olerki txit ezagunei berenez ez duten garrantzia ematerakoan.

- "The Catholic Encyclopedia". Yorke Berrian 1.907'tik 1.912'ra bitartean argitaratua. 18 liburu dira eta 2 geigarri. Biotan azkenekoa, 1951'garren urtekoa. Gauza askorako idazti egokia da, besteek ematen ez dituzten albisteak berak ematen ditualako. Badakit, orain oso-osoan, berriro, zearo aldaturik eta gaur-eguneraturik birr-argitaratzeko asmotan dabilzela.

- "Catholicisme Hier, Aujourd'hui, Demain. Dirigé par G. Jaquemet, du clerge de Paris". VI liburuz gero "Centre Interdisciplinaire des Facultés Catholiques de Lille" izeneko bazkunaren zaintzapean agertzen zaigu. 1.948'koa du lenen liburua. Eta, 11'garrenean, "propres" itzaraifio iritxi da. Oso Iztegi ederra; baiñan Frantzi'ko gauzei arreta geiago eta jaramon kuttunagoa ematen diela gogoan euki bearra da.

Chadwick, Henry: "The Early Church". Portugalera, "A Igreja Primitiva" izenez erabili dut nik, Maria Helena Albarran de Carvalho'ren itzulpenean.

"Conciliorum Collectio Regia Maxima, ad Philippi Labbei & P. Gabrielis Cossartii e Societate Jesu labores haud modica accessione facta & emendationibus plurimis additis, praesertim ex codicibus manuscriptis; cum novis & locupletissimis indicibus; Studio P. Joannis Harduini ex eadem Societate Jesu presbyteri". XII tomoa. Paris, 1.715.

- "Corpus Christianorum". Bilduma onek iru sail ditu: Aurrenekoa, erromatean lateraz idatzitako idaztiena, 1.954'ean asia. Bigarrena, erromatean eleneraz idatzitakoena, 1.977'an asia. Eta, irugarrena, oraindik azalduz diarduna, erdiaroko idaztiena. Belxika'ko Turnay urian ari da argitaratzen.

- "Corpus Scriptorum Ecclesiasticorum Latinorum". Biena. 1.882.

"Dictionnaire de la Bible publié par F. Vigouroux. Bost liburu lodi dira. Paris'en 1.895'a eta 1.912'aren artean Paris'en argitaratuak. Baiña. gero, geigarri asko argitaratu ditu: Amaika, orain artean. Eta argitaratuz jarraitzen du. Nik, lan eder orren III liburua erabili dut, Erodos Antipas erregearen eta Erodias bere sasiemaztearen eriotza, Flabio Josefo'k idatzi zuan lez Euskaldunen artean gertatu ote zan ikusteko.

"Diccionario de Historia Eclesiastica de España dirigido por Quintin Aldea Vaquero, Marfn Martfnez y Jos. Vives Castell. Instituto Enrique Fl6rez. Consejo Superior de Investigaciones Cientfficas". 1.972'tik 1.975'era bitartean argitara azaldua. 4 Liburu dira eta geigarri bat. Au, 1.987'koa. Garrantziko albiste ta gai asko aipatu ere gabe utzi ditualako, ez da liburu atsegiñegia gertatzen. Gaiñera damaizkigun gaiak billatzeko, ez du batere erreztasunik eskeintzen, eta, orregaitik zaila egiten da bere erabilketa. Ori, españi-zaleegia dala esateke!

- "Diccionario de Historia de España". Revista de Occidente'lc Madrid'en 1.952'an argitaratua. Bi liburu dira. Egille askoren zitua. Edestiaurreari eta Aro Zarrari dagozkien gai guztiak, Antonio Garcia Bellido'k idatziak ditu.

- "Diccionario del Mundo Clasico redactado por catedraticos y profesores de arqueologfa y arte cUsico, fdosoffa griega y latina, especialistas en derecho romano, medicina y ciencias de la antigüedad, archiveros, bibliotecarios y eruditos escritores bajo la direccion del Rvdo. P. Ignacio Errandonea S. (B. Lit. Oxford). 1.954". Bi liburu dira. Arras inteeresgarriak.

- "Dictionarium Morale et Canonicum". P. Pallazzini'k zuzendua. 3 liburu dira, 1.962'tik 1.966'ra Erroma'n argitaratuak. Prizilikeriari-buruz ikustaldi batzuk eman dizkiot. Gai ontaz "Catholicisme" Iztegia duzu iturririk egokienetakoa.

"Dictionnaire d'Archeologie Chr6tienne et de Liturgie publiz par le R.P. Dorn Fernand Cabrel abbe de Saint-Michel de Farmborough (Angleterre)". 1.913'az gero asten da Dom H. Leclercq ere zuzendaritza lanean. Azkenekoa H. Morrou'k zuzendua da. 1.907'an asi ziran iztegi bikain au argitaratzen, eta 1.953'an bukatu. Guztira 30 liburu mardul dira iztegi eder au osotzen dutenak.

"Dictionnaire de Droit Canonique publio sous la direction de R. Naz, ancien professeur de la Faculte Libre de Lille". Zazpi liburu. Paris, 1957.

- "Diecionnaire de Ge;ographie (Suplement au Manuel du Libraire) ancienne et moderne al'usage du libraire et de l'Amateur de Livres, par un Bibliophile", Paris. Urtearen aipurik ez du.

- "Dictionnaire d'Histoire et de G6agraphe Eccl6siastiques. Publio sous la direction de Mgr. Alfred Baudrillart, recteur de l'Institut Catholique de Paris, M. Albert Vogt, docteur lettres, profeseur a l'Universit de Friburg, et M. Urbain Rouzis". 1.912'an asi zuan argitalpena. 24 liburu aundi irten dira, baiñan oraindik "Honolulu" itzara bakarrik iritxi dira. Zuzendari asko izan ditu Iztegi onek. Azkenekoa, R. Aubert, Lobaina'ko Unibersitate Katolikoan irakasle eta Belxika'ko Akademian akademilari dana.

"Encyclopaedia Britannica", Edozein gauzetarako oso maiz erabili oi dedan iztegia.

"Encyclopaedia Judaica". 10 tomo. Jerusalem, 1.972. Oso liburu edarra.. Guk badugu erderazko beste hat, au ere 10 tomotan argitaratua. Mlexiko, 1.948-1.961. Osagaillua, 1.961'ekoa. Badugu doixkerazko bat ere. Au, ordea, neretzat, "hortus conclusus" da, "Iorategi itxia", ez bait dakit nik alenianieraz.

- "Enciclopedia General Ilustrada del Pais Vasco. Cuerpo A. Diccionario Encielop&lico Vasco. Editorial Auñamendi. Estornes Lasa Hnos". Donosti'n 1.968'an asi, ta 34 liburu-zear "Orozko" itzaraiño iritxi da. Baditu gauza onak, eta baditu ain onak ez diranak ere. Agian laisterregi egiña dalako.

- "Enciclopedia Italiana di Science, Lettere, e Arti, publicado sotto l'alto patronato di S. M. il Re d'Italia". Mussolini'k asko maite izan zuan liburua, Itali'ko Elizaren edestirako aski egokia. 1.929 asi eta 1.939'an amaitua. Guk gure lihurutegian ditugun 3 geigarriak, 1.948'ra arteko epea betetzen dute.

Estomba (Manuel) Arrinda (Donato): "Etnia Vasca: Resumen Enciclopédico de la Cultura Euskaldun". Bilbao, .983.

- Estornes Lasa, Bernardo: "Historia General de Euskalerria. 221 a.de C. - 476 d. de C. Epoca Romana. Enciclopedia General Ilustrada del Pais Vasco. Cuerpo B. Enciclopedia Sisterrí<sup>s</sup>tica". Zarautz, 1.978.

- EstorneS Lasa, Bernardo: "Historia General de los Vascos. Epoca Romana: -221 a 476". Donosti. 1.967. Euskalerrariaren edestiari dagozkion gaietatik ugari dira sakonki Estornes Lasa'tar Bernardo'k landu dituanak. Aipatu bearrak ditut bere "Odgenes de los Vascos", eta berak zuzendutako Enciclopedia General Ilustrada del Pais Vasco erraldoiean bere lumaz idatzi dituan lan ugariak.

- Estrabon. "Geographika". Nik, Juan Lopez'en "Libro Tercero de la 2 Geografia de Estrabon que contiene un tratado sobre la España Antigua" erabili dut. Madrid'en 1.797'an argitara emana.

- Fabre, Pierre: "Saint Paulin de Nole et Chrtienne". Paris, 1.949.

Fernandez Alonso, Justo: "La Cura Pastoral en la España Romanovisigoda". Roma 1.955.

- Flórez, Enrique: "España Sagrada". Arras liburu-sorta ezaguna. Aurkezpenaren bearrrik gabekoa, XVIII mendeaz gero atertzeke idazle orok erabilia izan dalako.

- Forceitini: "Totius Latinitatis Lexicon". Snerbergae (Saxoni'ko Schae-erberg). 1.831. Du Cange'ren iztegiarekin batera bee-laterazko itzak aurkitze-ko egokia.

- "Gallia Christiana in Prouincias Ecciesiastleas distributa, qua Series et Historia Archiepiscoporum, Episcoporum et Abbatum Francia vicinorumque ditionum, ab origine Ecciesiarum ad nostra tempora deducitur et prohatur ex authenticis Instrumentis ad calcem appositis. Opera et studio Domini Dionisii Sammartani Presbyteri et Monachi e Congragatione Sancti Mauri. Parisiis, ex Typographia Regia, M.CC.XVI". 16 liburu dira. Aurrenekoa, 1.716'koa. Azkenekoa, 1,865'ekoa.

- Gams P.P.B. "Series Episcoporum Ecclesiae Catholicae quotquot inno-tuerunt a Beato Petro Apostolo. A multis adjutus edidit P. Pius Bonifatius Gams O.S.B. - Zweite Unvenderte Aufiage. Leipzig 1.931.

- Garcia Bellido: "Los Vascos en el Ejt&ccito Romano": "Fontes Linguae Vasconum", I (1969), 102 orr.

-Garcia Villada, Zacarias, "Historia Eclesiástica de España", 5 liburu. Madrid, 1.929-1.936, Oso españi-zalea dala gogoan euki bearra da. Gizagai-xoa, bere azkeneko liburua argitaratu zuan urte ortan bertan, izan zan Madrid'en "gorriek" erailla, Franco Errepublikaren aurka izkilluz jeiki izatearen ondorioz.

- Garefa Villoslada, Ricardo. Bere zuzendaritzapean argitaratu ziran Ma-drid'en, 1.979'an, "Historia de la Iglesia en España" baten 5 liburuak. Au ere, benetan espaholista. Nik, bilduma ortatik, I liburuaren I atala erabilli dut, Manuel Sotomayor y Muro'k idatzia.

- "GER (Gran Enciclopedia Rialp)". Opus Dei'ren goi-gidaritzapean eratua. 24 liburu, danak 1.979'an argira agertuak. Gure liburutegian dugun iztegi onen geigarria, 1.987'koa da.

- Griffe, "La Gaule Chr&ienne a L'Epoque Romaine. Des Origines Chr&iennes h la fin de IV siecle". Paris, 1.964.

- Goñi Gaztambide, José: "Historia de loa Obispos de Pamplona". Edicio-nes Universidad de Navarra. 1.979.

- "Historia de Euskal Herria". Idazle askoren artean egiña. Aurreneko tomoa Bilbao'n 1.980'ean argitaratu zuten. Zazpigarrena, 1 ,923 <sup>s</sup>garren urterai-ño iristen dana, I.982'an. Ez dakit aurrera jarraitu duten. Axal politaz ta irudi askoz ederturik dago. Mamia ez dirudi ain eder oparoa duanik. Gaiñera askoren lana izanik, ez digu atal bakoitza nork idatzia izan dan esaten. Izuga-rrizko akatsa, edesti-liburu batentzat.

- Huerta, Gerónimo de: "Historia Natural de Cayo Plinio Segundo, traducida por el Licenciado Gerónimo de Huerta, Médico y Familiar de la Inquisición, dedicada al Católico Rey de las Españas y Indias don Felipe III nuestro Señor. Madrid". Bi liburua dira. Aurrenekoa, 1.624'koa. Bigarrenena, 1.629'koa.

- Idatius Aquae Flaviae. Gaur Chaves esaten zaion eta len Aquae Faviae zeritzan uri portugaldar ortako gotzaia izan zan V mendean. Ikus "Patrologiae Cursus Completus". Bilduma orren 51'garren liburuan erabilli bait dut nik Idazio'ren "Chronicon" izeneko edestia; naitanaiezkua Ispanietako V mendea ezagutzeko.

- Imbart *de la Tour*: "Les Origines Religieuses de la France, Les Paroisses Rurales du 4<sup>e</sup> au II<sup>e</sup> Siècle". Paris, 1.900.

- Ireneo Donea Lyon'go gotzaia: "Adversus Haereses". Nik erabillitakoak izenburu au du: Sources Chrétiennes. Irdn e de Lyon. Contre les Hérésies. Livre I. Édition Critique par Adelin Rousseau moine de l'abbaye d'Orval et Luis Doutreleau, S.J. Les Editions du Cerf". Paris 1.979. Eleneraz, orrela idatzi bait zuan Ireneo'k lateraz eta frantzeraz dator. Laterazko itzulpena "leenagoko itzulpen zarrak aurrean" omen zituala Erasmo birjaiotzatarrak egin zuana da.

- Isidoro Done Sebillatarra: "De Viris Illustribus". Liburu au eta "Etimologia" nik beste ontan aurkitu ditut: "SS. PP. Toletanorum Quotquot Extant Opera". "Tomus Primus". Madrid 1.782. Lenen tomo ortan Toledo'ko Idefonso'ren "De Viris Illustribus" en aurretik dator Sebilla'ko Isidoro'rena; bere anai onen izen berdiñeko lana osotzeko idatzi bait zuan ark berea.

- Jedin, Hubert: "Manual de Historia de la Iglesia", Jedin'en zuzendaritzapean idazle askok antolatua. Nik, nere lan ontarako, Alejandro Lator Ross'ek gaztelaratutako II liburua erabilli dut (Barcelona, 1.980). Liburu au, Karl Baus, Hans-Georg Beck, Eugen Ewig eta Hrtman Josef Vogt'ek idatzia da.

- Josefo, Flabio: "De antiquitatibus Iudeorum". Nik liburua au, Londres'ko "The Loeb Classical Library" k egindako Josefo'ren idazki guztien argitalpenean aurkitu dut. Bilduma ortako IX tomoa da. 1.969'garren urtekoa.

- Labastide: "Commentaires de Caesar, Traduction Nouvelle Accompagnée Dissertations et Notes, par M. de Labastide, de l'Académie Royale des Belles-Lettres de Montauban. Partie Deuxième, Contenant les Dissertations. Tome Premier. Dissertation sur les Basques". Paris. 1.786'ean argitaratua da. Nik ezin izan dut aurkitu, baiñan fotokopi bat agindu didate, eta emanen dut

bere berri, garaiz iristen ba'zait, anitz aldetik bait da jakingarria. Latxaga'k eskuratu dit, bere kontura berak aterata, fotokopi ori. "Dissertation sur les Basques" au izanen da, Euskaldunon eta gure Euskeraren sorkuntzari-buruzko lenen-lenenetako saiaketa oparoa. Maiz aski, jakina, ametsezko bideetatik ibilli oi da, baiñan maiz aski baitare, gauza bikaiñak esaten ditu. Liburu interesgarria da, eta irakurria izateko atsegiña.

- Labriolle (P. de): "Un episode de la fin du paganisme. La cotTespondance d'Ausone et de Paulin de Nole". Paris, 1.910

Labrousse: "Histoire de la Gascogne des origines a nos jours". Roanne, 1.977.

Lampridius, Aelius: "Vita Alexandri Severi". Liburu au, bilduma ontan aurkitu dut: "Collection des Auteurs Latins publi& sous la direction de M. Nisard". Zenbaketarik gabeko 34 liburu mardulek osotzen dute bilduma. Nik erabili dutanak, izenburu au darama: "Sutone, les Écrivains de l'Histoire Auguste, Lampridius, Eutrope, Sextus Rufus". Paris'en 1.845'ean argitaratua dugu.

Larrañaga, Koldobika: "En torno al caso del Obispo Silvano de Calagurris. Consideraciones sobre el estado de la Iglesia del Aito y Medio Ebro a fines del Imperio. Veleia. Revista de Prehistoria, Historia Antigua, Arqueologia y Filologia Clásicas. N° 6. Año 1.989". Gazteitz'en Euskalerriko Unibersitateak argitaratzen duan aldizkaria da. Larratiaga'ren lana 171'garren orritik 191 'garrenera

- A. Latreille (professeur a l'Universit de Lyon), E. Delaruelle (professeur ñ l'Institut Catholique de Toulouse), J. Palanque (professeur d'Aix-en-Provence): "Hitoire du Catholicisme en France". Editions Spes. Paris, 1957.

Latxaga: "Arkaitzetako Bisigotiko Baselizak Araban". Bilbao, 1.976. Frantzerazko eta Gaztelarazko itzulpenak badaramatza. Merezimendu aundiko liburua da bideak urratuz idatzia izan zalako. Gaur, ordea, jakintzarako bide eta langailluak asko oberagotu diralako, eta Araba'n, arkeologiari dagokion arloan garrantzi aundiko idoroketa berriak egin diralako, beste era batera idatziko liguke liburu ori, eginkizun oiatarako ain ederki gerturik dagoan Joxemari San Sebastian "Latxaga"k. Paris<sup>1</sup>ko Ikastetxe Nagusietan irabazitako iru doktoradutzen jabe bait dugu Euskerazaintzako Akademilari bikain au.

- Mañaricua, Andrs Eliseo: "Introducción del Cristianismo en el Pais Vasco". Facultad de Teologia. Vitoria. 1 Semana de Historia Eclesiastica del País Vasco. Homenaje a D. José Miguel de Barandiaran v D. Manuel de Le-

cuona. Vitoria, 1.981. 27'garren Arritik, 41'garrenera. Asko idatzi zuan Mañarikua'k gai ontaz. Baiñan beti aburu bera arrazoi berdiñen bidez babestuz. Orregaitik, aburu orren laburpen txukuna dan itzaldi au irakurtzea naikoa du irakurleak, gizon onuragarri aren oldozbideak ezagutzeko.

- Mela, Pomponio: "De Situ Orbis Libri III". Nik bi argitalpen erabilli ditut. Bata, 1.831'ean Leipzig'en egiña; eta, bestea, 1.845'ean M. Risard'en zuzendaritzapean Paris'en argira irtendako "Auteurs Latins"eko bilduman datorrena.

- Monreal Jimeno, Luis Alberto: "Eremitorios Rupestres Altomedievales. (Alto Valle del Ebro). Bilbao, 1989". Lauren da ogeitamar orrialde ederreko liburu bikaiña. Aipatzen dituan gaiak ezagutzeko, egokiena.

- Narbaitz, Pierre: "La Cristianizacido del Pais Vasco-Franc6s". "Primera Semana de Historia Eclesiastica del Pais Vasco", 41'garren orritik 67'garrenera. Gazteiz, 1.981.

- Narbaitz, Pierre; "Le Matin Basque Pu Histoire Ancienne du Peuple Vascon". Paris, 1.975. Idazti atsegiña. Egilleak, ordea, ardura geiegi artzen du Euskaldunak basatiegiak uste dituztenen aldean bere burua agertzeko. "Progresikeri-zaleen" bildurrez? Edestia, ordea, "progresista" oien etsai aurkezten zaigu, ikusiko dugun lez.

- "Nomina Hispanarum Sedium". Bere izen osoa au da: "Provinciale Visigothicum sev Nomina Hispanarvm Sedivm de Provinciis Hispaniae. Nomina Civitatum Hispaniae Sedes EpiscopaliVm". Kordoban, 850'aren iguruan idatzitako "kodes" edo "Iarruki-bilduma" mozarabiar baten atal bat da. Naiz IX mendekoa izan IV eta V mendeko albisteak ere jasotzen omen ditu. Nik,

Gotzai-Uri-Zerrenda" ori "Corpus Christianorum" izeneko bilduman erabilli dut.

- "Notitia Dignitatum et Administrationurn Omnium tam Civilium quam Militarium in Partibus Orientis et Occidentis. Comentariis Indicique Illustravit Eduardus Bficking. Bonne, 1.885". V mendean idatzia izan omen da "Notitia Dignitatum" edo aro artako "Kargu Garaien" zerrenda au.

- Oihenart: "Notitia Vtriusque Vasconiae tum Ibericae tum Aquitanicae. Parisiis M.DC.>CXXVIII".

Orlandis, "Historia de España", Madrid 1977. Nik "La España Visigdtica izeneko alea erabilli diot,

Orosius (Paulus): "Adversum Paganos". Ikus "Corpus Scriptorum Ecclesiasticorum Latinorum", Bienan'n 1.882'an argitaratutako bilduma orren 5'garren liburuan aurkitu bait dut nik Orosio'ren iazki ori. Orosio V mendeko idazlea

da, Tarragona'ko semea. Donejeronimo ta Augustin Donearen ikasle eta adiskide aundia.

- Paulinus Nolanus: "Carmina". Guilelrmus Harter'ek Biena'n argitaratua. 1.894

- Paulinus Nolanus: "Epistulae". Guilelmus Harter'ek Biena'n 1.894'an argitaratua.

Petri Pithorei Opera, Sacra, Ivridica, Historica, Miscellanea. Parisiis, MDCIX.

Plinio Nagusia: Nik, idazle onen "Izadi-Edestia", onako liburu ontakoa erabilli dut: "Caius Plinius Secundus. Historia Naturalis Libri XXXVII ad optimorum librorum fidem editi, cun indice rerum. Lipsiae (Leizpzig'en). Ex officina Caroli Tauchnitii. 1.830". Bost tomotan damaizkigu Plinio'k gai orri buruz idatzitako 37 liburuak.

Prosperus Aquitanus: Ikusi ezazu "Patrologiae Cursus Completus" Bilduma orren 51'garren liburuan aurkitu bait ditut nik Prospero'ren liburuak. Prospero ori, olerkari ta edestilari ezaguna, V mendearen asieran Alcitani'n jaio zitzaigun.

- Prudentzio (Aurelius Prudentius Clemens). Olerkari Kalagurritarra. Nik, olerkari au, B.A.0 bilduman Jos 1.950'ean argitaratutako "Obras Completas del Prudencio"n erabilli dut. Aurkibide askorekin, lateraz eta gazte-leraz, egoki eratutako lana da.

Richard, M.: "Collection des Auteurs Latins publiés sous la direction de M. Richard". 35 liburu lodi; zoritxarrez, zenbatu gabeak. 1.843'tik 1.885'ra Paris'en argitaratuak. Oso liburu egokia da, Neste iñon aurkitu ezin daitezkean liburuak bertan bait datoz.

Rogier, Aubert, Knowles. Iru edestilari oien zuzendaritzapeko "Nouvelle Histoire de L'Eglise" (Paris, 1.963).

- Ruiz de Loizaga, Saturnino: "Repoblación y Religiosidad Popular en el Oeste de Alava (S. IX-XII). Gazteiz 1.989. Izugarri españi-zalea da praille prantziskotar au. Alare xeetasun jakingarriak baditu. Badu beste iriazti bat ere lengo onen antzekoa. Jarraian datorkizun au:

- Ruiz de Loizaga, Saturnino: "Monasterios Altomedievales del Occidente de Alava. Valdegovfa. Como Nacen los Pueblos". Biak argital-leku eta urtegarrenaren aipurik gabe.

- Salustius Crispus Caius: "Opera Quae Extant. Lipsiae 1.840". Lipsia, gaur, Leipzig da; Alemani'n Salsoni'ko uri aundia.



Sayas Abengoechea, Juan Jose: "Romanismo y Germanismo. El Despertar de los Pueblos HisOnicos. (Siglos IV-X)". Barcelona, 1.981.

- L. Serrano: "El Obispado de Burgos y Castilla Primitiva desde el Siglo V al XIII". III libururu. Madrid 1955-1936.

Sulpitius Severus: "Libri Qui Superunt Recesuit et Commentario Critico Introduxit Carolus Halm. Vindobonae, 1.866". Austri'ko uriburu dan Biena'ri esan zitzaion Vindobona. Migne'ren "Patrologia Latina"ko XX liburuan ere aurkitu dezazkezu Sulpizio Sebero'ren idaztiak. Onako izenburu auekin datoz: "Chronicorum Libri Duo" ("Historia Sacra" ere esan oi zaio); "De Vita Sancti Martini Liber Unus"; "Dialogi", "Epistolae". Baita idazle oni buruz, idle zarren aburuen kopuru txit jakingarri bat ere.

Sulpizio Sebero, Bordele'ko semea, 361'garren urtearen inguruan jaioa, 410'ean edo 420'ean 11 omen zitzaigun. Nola'ko Donepaulino'ren adiskide aundia, eta Donemartin Turonatarren adiskide aundia ez ez jarrailea ere izan zan.

- Tertuliano. "Adversus Judaeos". Nik, libururu ori, bere idazti danen onako bilduma ontan aurkitu dut: "Quinti Septimii Florentis Tertuliani Opera Omnia ad fidem optimorum librorum recensuit Franciscus Oehler. Lipsiae", ots, Leipzig'en. 1.854.

- Tranoy, Alain: "Hydace. Cronique" "Sources Chrtiennes"en 218 eta 219'garren zenbakietan. Paris 1.974. Idazio'ren lana lateraz eta frantzeraz dator lenen zenbakian; Bigarreanean, berriz, Idazio'ren lanari-buruzko txit azalpen egokiak aurkituko'ituzu.

- Ubieto Arteta, Antonio: "Cartulario de San Millan de la Cogolla. Barentzi'n 1.976'ean argitaratua. Uri artako Unibersitatean irakasle bait da Ubieto Arteta.

- Ubieto Arteta, Antonio: "Introducción a la Historia de España". Bartzelona 1.969. Nik ibillitakoa VI argitalpena da.

- "Vetera Christianorum". Itali'n Bari'ko Unibersitatearen "Litteratura Cristiana Antica" erakundeak argitaratzen duan bilduma. 28'garren urtea darma,

- "Veleia. Revista de Prehistoria, Historia Antigua, Arqueologia y Filologia Euskal Herriko Unibersitate,a". Gazteiz.

Vives, Jos: "Inscripciones cristianas de la España Romana y Visig6tica", por el Rdo. Dr. Josd Vives, Pbro. del Consejo Superior de Investigaciones Cietificas". Barcelona 1942.

Vi es, Jos: "Concilios Visigóticos e Hispano-Romanos" Barcelona-Madrid, 1,963.

Nere ustez  
garrantzi aundikoak diran

## OARRAK

\*

1<sup>a</sup> : Liburu ontako Euskalerria, erromateko Euskalerrri zar zabal edatsua da.

2<sup>a</sup> : Liburu onen elburua, antziña artan Euskaldunak Aitagurea errezatzen noiz asi ote ziran jakitea.

- Elburu ortara iristeko mailla auek igotzen saiatuko gera:

Noiz sartu ote zan Kristautasuna Euskalerrriko gizaseme ta gizalaben arte-ra?

Nondik etorrita?

Nork ekarrita?

Nola erantzun ote zioten Euskaldunek Kristo'ren Berri Onari?

Nola zabaldu ote zan Euskalerrrian?

3<sup>a</sup> : "Zientzien" aidetik dabiltzalakoan, askok esan bait dute Euskalerrira kristautasuna oso berandu sartu zala, mende-aren astapenean Gipuzkoa'-ra sartzeke zegoala ere esan bait zigun Aita Garaia Villada'k! bearrezkoa izango eukela, esan didate adiskide jakintsu batzuek, "atzerazaille" oien arrazoiak banaka eta era argian emen aurkeztea's Ona ba`., agindua betez, Jaun atzerazaille eraspengarri guzti aien arrazoi danak ementxe:

- Dokumenturik eza.

- Euskaldunak zarra-gordezale eta berri-oro-garrotazale aidakaitzak izatea.

- Euskalerrria iñoiz errornartu ez zan erria dala.

---

' "Aurreratzailleen "arrazoiak", bere tokian ikusiko duzunez, maiz aski ipui utsak besterik ez dira.

- Euskaldunen basatikeria.  
- Euskalerrria, mundutik urruti, munduarekin lokarririk gabeko erria izatea.

- Idazle zar batzuek Euskaldunen aurka esandakoak.

Ori da guztia. Ez bait dute beste arrazoirik Euskalerrira Kristautasuna oso berandu sartu zala diotenenk.

Baiñan...:

A) Zerbaiti-buruz, dokumenturik ez izatea, ez da gure atzeratzailleetako askok egiten duten lez zerbait ori ukatzeko arrazoi naikoa. Zerbait ortaz dokumentuen bidez, deus ez dakigula esateko arrazoia besterik ez da.

B): Misteriozko erria, gure Euskalerrria: Bere nortasuna galtzeke, zabalik euki dizkio beti, bai burua eta bai biotza, atzeritik etorri zaion berritasun orori. Ala, izan zuten antziña artan emen ain arrakasta aundia, indouoparren ortzi-erlijioak, erromatarren jaink'ugaritasunak, eta, bein kristautasuna sartuz gero, priszilikeriak. Kristautasuna Euskalerrira martiririk gabe sartu izatea ere, Euskaldun zar aien zabaltasunaren aski adigarri bikaiña dugu.

D): Dirudianez, Palestina'ko "Judaizantes" aiek, kristau izateko aurrena judutar egin bear zala uste izan zuten bezala, badira, erromatekoan kristau izateko aurrena erromatar egin bear zala uste duten "romanizanteak".

Baiña: Erroma'ko Inperioa bera baiño lenago billakatu zan ofizialki Laterri Kristau Osroene'ko Erreiñua; Eta baita Armeni'koa; Beiñere erromartuak izateke, berriz, Kaukaso'ko Erreiñuak eta Atlas-Mendietako Erriren bat. Era berean, lenen mendeetan, Erroma'ren inperio-lurren barruan aiña eta an bezain azkar zabaldu zan kristautasuna, beti Erroma'ren arerio amorratua izandako Perts'i'n, eta eraman zuten Kristo'ren ebangelioa Pertsiarren mende deko Kaldeatarrek.

Gaiñera, uste oi dan baiño askoz geiago erromartu zan Euskalerrria. Leku-ko, gero ta geiago agertzen zaizkigun erromateko aztarnak, eta Euskera beraren erromar-itz-kopuru arrigarria. Alatagutziz, ez zuan gure Erriak bere nortasunik galdu. Ortan datza Euskalerrriaren miraritzza zoragarria.

E) Euskaldun aien basatikeria gezur utsa da. Liburu ontan aurkituko duzu, Erroma'ko idazle klasiko guztien aitortpena: Euskaldunak, jende paketsuak, adiskide zintzoak, leialak... eta txukunak. Ezta itz bat ere, Euskaldunen aurka.

E) Euskalerrria ez zegoan mundutik urruti. Inperiolurreko zazpi biderik nagusienak Euskalerrria zearkatzen zuten. Auñamendia-zear gelditzeke ibilli oi zan aruntz eta onuntz mota guztietako jendea. Ori, azkeneko urteok geroz, ez du iñork zalantzan ipintzen.

F): Euskaldunen aurka itzezin zuten idazleak ez dira erromatekoak; ez dira kristautasuna zabaltzen ari izan zuten arokoak; geroagokoak dira; erdiarokoak: Kristautasuna zabaldurik zegoanekoak; ez dira erromatar klasikoak, barbaro germaniarrek baizik: bisigotak edo frankiarrak: gure etsai amorratuak: Euskaldunen aurka eten gabeko gudan ibillitako jendeak<sup>2</sup>.

4<sup>a</sup> : Ez da zailla Euskaldunek noiz Aitagurea errezatzen zuten esatea: IV mendean. Mende orren asierakoa baita Euskalerriko kristautasunari-buruzko lenen dokumentua.

Zaillagoa da, Aitagurea errezatzen noiz *asi* ote ziran erabakitzea. Ortarako logikaz baliatu bearrean aurkitzen baita gera.

Noiz *asi* ote ziran ba?

Bai, ziurki III mendearen bigarren erdian. Eta, agian, agian... II mendeko bi idazlerik ospetsuenen esari biren araura agian, agian, baita..., Euskalerriko txokoren batean..., II mendearen azken-erdian ere.

Askoz zaillagoa da, berriz, batere dokumenturik ez dugulako *Euskaldunak Aitagurea Euskeraz esaten naiz asi ziran asmatzea*. Bil dezadan lau puntutara gai oni-buruzko nere aburua:

Noiz *asi* ote ziran ba Euskaldunak Aitagurea Euskeraz errezatzen?


Liturgiaren barruan, beñere ez, Ez beintzat IV mendean gero. Biblia laterara bihurtu zan ezker, eta batez ere, inperatoreak kristau egin ziran gero, IZKUNTZA SAGARATUA billakatu baita Elizaentzat latera. Oridalata, lateraz jarraituko digu gaur-egun arte bere liturgiari. Jendeak ulertua ez izatea ez zaio Elizari ajolagarria gertatu. Ala, erantzuten ziguten zer esaten zuten jakiteke lateraz gure meza-laguntzailleek. Ala errezatzen zituan lateraz, kirieleisonak nere ama Benitte'k, Latíñez errezatzen zituan Ullibarrí-Jauregi'ko elizan Antonio Ruiz de Alegria 80 urteko nere sakristau zarrak ere. Ori bai; "foederis arca" esan bearrean "Felix en el area" esaten zuan. Ez zan ordea, ortik, itioentzat kalterik, Batere kezkarik gabe erantzuten baita zion "ora pronobissus" elizako jende guztiak.

- Liturgiatik at? Antziña artako Elizak ez zuan gaurko "arrosarioak" eta "bederatziturrenak" bezalako "liturgitik-at"eko eraspenik. Eta noizbait orrelakorik egin izan ba'zuan ere, ziur, lateraz eginen zuan guzia.

---

<sup>2</sup> Nola'ko Paulino Donea izan ezik. Baiñan, 431'garren urtean il zan Paulino'ren olerkia, nere ustez ez da era zuzenean ulertua izan, agertuko dutan lez.

(KULTURA)  
FRANCO KANTAURI



AREA  
MAGDALENIENSE

Mapa au Arrinda'ren liburutik. Zar gelditu zaigu, igaz, (1995'an), askoz sortalderago. Rodano ibaietik ez urruti, Franki-Kantauriar kulturako aztarna eder eta ugariko leiza bat agertu zaigun ezkeru.

- Guzia? Orniliak ere bai? Bai. Antziñate artan kristauak, danak, urietako jendeak bait ziran, eta, naiz agian batzuk zilipurdika, latera ulertzeko ta lateraz mintzatzeko gai ziranak.

- Ebangelizapena? IV mendea ongi sartu arte ez zan urietatik kanpoko ebangelizaketarik izan, eta urietan, ongi edo gaizki latinez bazekiten danek. Alare, II mendean beintzat ebangelioaren zabalkundea tokian tokiko izkuntzetan egiten zala sinisteko kirten egokia damaigute Lyon'go Ireneo'k eta Kartago'ko Tertuliano'k, "naiz ebangelioa izkuntza askotan aldarrikatua izan, izkuntza oietan aldarrikatutako ebangelioa beti bat bera dala" bait diote erejeen aurka ari diralarik. Balio ote du orrek Euskalerrirako ere? Euskalerriko lurretan ez zan II mendean ebangeliorik aldarrikatzen.

Katekesia? Dotriñaren erakusketa ere Iateraz? Bai, aurreneko lau mendeetan. Gero, IV mendearen erdiaz gero baso eta landak kristautzen asi ziranean, seguruaski ez. Orain ebangelariak bertako apaizak eta bertako lekaideak bait ziran.

Ez dut uste antziña artako Elizak Espaiii'koak gero Ameriketan egin zua-na egingo zuanik.

Alare, baiezkoaren antzeko zerbait esan izan dik Latxaga'k:

Katekistek lateraz erakusten zutela dotriña, katekumenoek ere, itz berak esan eta birresan eta milla aldiz berresan, lateraz entzuten zutena lateraz bururatu zezaten.

Katekumenoek ordea, laterarik ez zekitelako, katekistek Iateraz ondo esandako ura, zer entzuten zuten ulertzeke eta zer esaten zuten oartzeke, -- katekistek ongi esandako ura gaizki entzun eta okerrago esan, egiten zuteia.

Ta, arian-arian, mendea joan eta mendea etorri, *orrela jaio zirala erromantzeak*.

Ez zaio Latxaga'ri arrazoirik falta. Ori ordea, nere ustez, askoz geroago gertatu zan: Erdiaroan; eta ez parroketan, Iekaidetxeetan baizik; ez katekesian, lekaidetxeetako otoizkerari-buruzko gaietan baizik: Abade batzuk kendu ezkerro, kulturazko gaietan oso-oso-oso jakite murrizteko jendeak ziran lekaide eta lekaimetxo aiek. Ta, lateraz egiten bait zan lekaidetxeetan liturgi osoa ta garrantzikoa zan oro..., izkuntza ortan erakusten zitzairen eta izkuntza ortan ikasia ezer askorik ulertzeke buruz ikasia-- izaten zuten lekaide ta lekaime aiek, lekaide-lekaime bizitzarako bearrezkoa zitzairen guzia. Ta, jakiña, ulertua izateke aien ezpaitatitkirtetzen zana gero eta gutxiago zan latera; alderantziz, gero eta geiago zan erromantzea.

Eta erriko jende xea ete, bai fede aundiko jendea zalako, bai urte-aro bereizi batzuetan izan ezik, zer-egiñ aundirik izaten ez zualako, bait garai aietan beste astia-igaro-leku atsegifiik ez zalako, eta baita lekaidetxedeetako elizkizunak txit ikusgarriak izaten ziralako, multzoan eta pozik joaten zan elizkizun arras ugari aietara. An ikasten zituan buruz, zer ikasten zuan jakiteke eta abesten zituan gero bere etxe eta bere soroetan, zer abesten zuan usmatzeke, len gaizki ikasitako eta orain agotik okerrago jaurtitako salmo, ereserki, esaldi, eta gaiñerako latinkeri guztiak.

Orra or latiña erromantze biurtua: lateraz entzuna erromantzez esana: Borondate oneko jendetxo apal aien ezpafiñetatik irtengo bait zan lau aizeetara garaille "felis *en* el area"rik ugari

5<sup>a</sup> : Bedil Euskalerriko elizetan ez zan beñere Aitagurerik Euskeraz erre-zatu. Elizetatik at, ordea, ez ote zan, Euskaldunen etxeetan Aitagurea Euskeraz esaten?

Bai.

Baiezko orren arrazoia?

Dokumenturik ez dugu.

Baiezko ori ontzat artua izateko oiñarriak?

Bi:

Euskalerriko Bertsolaritza. Aro aietan aski orokorra zan mundu guzian bertsolaritza. Eta, **nola ez?** oraindik bertsolaritza gordetzen munduan bakarra dan gure Euskalerra ontan! Gure erria kristautzen asi zanean, ez ziran noski, ez orixe!, illetetan-da emengo oiturak jarraituz, ez ziran gure jendeak Kristo'ren bizitza eta Kristo'ren erakuskintza Euskeraz bertsotan emateke, isilik geratuko!

Eta illeteetaz esan duguna berdin esan genezake Euskal-eztai-kristaue-taz ere.

Guzti ori, edestiztirako, dez dala balio aundiko arrazoia? ¿Zergaitik ez? Ori, gure pelotaiquetara eramango ba'litz, milla eunera izango litzake, gutxienez, bere alde atereziko luken dirua. *Guzti ori naiz* bere aide dokumenturik izan ez Eusko-sikologiarekin foso-osoan bait dator bat! Sikologia, berriz, egi-egiaz izaki Jakintza: Zientzia! Eta zientzia dan aidetik, baita edestirako a ere dukumentu naikoa. Bai beintzat kontuan egukitzekoa.

- Euskaldun zar aien Euskeraganako maitasuna. Maite zuten Euskera. Bestela ez zuan XV mendearen albora arte, 1349'ko Ueska uriko agintarien erabaki batek adierazten digun lez, Euskerak uri artako azokan bizirik iraungo.



XV mendean Ueska'ko azokan Euskeraz itzegiten ba'zan, i sinistekoa al IV mendean Euskera ainbeste maite zan Euskal-sendien altzoan ama Euskaldunek beren besoetan umeei Kristo'z lateraz itzegiten zienik? Ez al da sinesgariagoa, beren umetxoekin Kristo'z mintzatzerakoan Euskera erabiliko zutela?

Diru ederra egingo luke nere iritzi onek ere, ezpairik gabe, gure pelotalekuetako artekarien ezpaiñetan'.

6<sup>a</sup> : Edestiaren mugak.- Edestiaren oiñarria dokumentuak dira. Baiñan dokumentuek ez dute erri baten bizitza osorik besarkatzen. Adibidez, edestiaren arauak zorrotz artuz, Gipuzkoa'n VI mendetik XI menderako tarte guzian iñor bizitu ez zala, esan bearko genuke. Bitarterako ez bait dugu dokumentu bakar bat ere. Krismoi bat Vrekoa. Gero, ezer ez, XI'go larruki bat arte: ez bete larrukirik, ez arri idatzi edo landurilc, ez etxerik, ez elizik, ez illobirik, ez gizakume bat bakarraren ezurrik. Ezer ez.

Orregaitik, txoriak zugaitz-adarretik bezala, edestitaria askotan, dituan dokumentu urrietan oiñarriturik, aburuen eta iritzien zabalgunera jauzi egin bearrean aurkitzen da.

ORRELAKOETAN, IÑOR ATZIPETU EZ DEDIN, BETI ADIERAZIKO ADIET NIK IRAKURLEEI, UNE OIETAN IRAKURTZEN ARI DIRANA, NERE ABURU BAT BESTERIK EZ DALA, eta beti emango dizkiet nere aburu orren oiñarrizko arrazoiak.

\*

7<sup>a</sup> : Denborari dagokionez, liburu au I mendetik V'era dijoa, soilki Euskalerriko kristautasunaren sorkuntza bait du bere gaia. Euskalerriko kristautasunaren sendotza, VI mendetik XII'era joanen dan beste liburu batean aztertu nai nuke Jainkoa lagud.

---

Ueska'ko euskeraz Latxaga'rekin ari nintzala, kezka bat agertu ziran adiskide onek: Ueska'ko euskaldun aiek, I Pedro erregeak Ueska artu zuanean, ara ipar-mendietatik joandako jendeak ez ote ziran, alegia. Baleike, bai noski!, baiña ez dut uste. Uri artze eta uri galtze aietan, Ispanietako sarkaldean batez ere, ez bait zan orrelako jende-aldaketarik izaten. Ontaz, bere lekuan mintzatu-ko naiz luzeago.

Liburu ontan aurreneko bost mendeak aztertzen ditudala, esan dut. Ori bait zan nere asmoa. Baiñan luzeegia irten zait. 800 orrialdetik gorakoa. Orregaitik bere gaia bi liburutan emateko aolku-eman didate. Aurreneko ontan, be-

8<sup>a</sup> : Liburu au norentzat izan dan idatzia? Erdi maillako kulturadun jendearentzat, ots, Euskalerriko jenderik geientzat. Orregaitik, unibertsitateetan ezitako gizakumea ba'zera, gertakizun bat beraz, auzi bat beraz edo azalpen bat beraz, naiz alde ezberdifietatik so-egiñez bein baiño geiagotan itzegitea, alperrikako gauza agian idurituko zaizu. Ezazu pazientzi. Birresaketa oiek eta azalpen oiek zu baiño kultura gutxiagoko irakurleentzat bearrezkoak iruditu zaizkit-eta: Adibidez, Iruña'ko Fermin Donearen kondaira, naiz osoro era berdiñean ez, bi ataletan agertzea.

Nere ustez Donefermifi'i dagokion guztia, kondaira utsa besterik ez da. Baiñan asko bait dira egiazko edestia ba'litz bezala Done orri benetako eraspen zintzo sakona diotenak, goxo-goxo, beren sentimena zauritzeke nere aburura ekarri nai izan ditut.

Esan dezadan, beraz, liburu au, nere liburu guztiak bezala, Euskaldun guztientzat dala: Jakintsuentzat eta ain jakintsu ez diranentzat. Euskeraz irakurtzea atsegin zaien Euskaldun guztiak izan bait ditut begien aurrean, lau bost urte luzez egunero bederatziren bat ordu lanean sartuz, liburu onen idazketan ari izan naizen epe guztian.

Baiñan, batez ere, jakintsuak arbuiaitzeke, "ain jakintsuak ez diran" Euskaldun oiek izan dira nere ariketa luze ta neketsu bezain atsegin eta pozgarri onen elburu berezia.

"Jakintsu", Ikastetxe Nagusietako titulo-dutenei *esan* oi diegu. Eta "ezjakintsu" orrelako titulorik ez dutenei.

Baiñan, ez diogu, ez orixe, orrela mintzatzerakoan, zintzotasunari eraspen geiegirik gordetzen. Ikastetxeetatiko jakintzaz gaiñera, bai bait da beste bat, erriaren errañetan sortua, eta mendetik zear, agoz-ago erria-baitan bizirik gorde dana, eta guri erriaren ezpaiñetatik iristen zaiguna. Ta jakintza ortan azi eta ezitako gizakumea maiz aski izan oi da edozein gauza ulertzeko beste jakintz ura duana bezain trebea, eta baita trebeagoa ere bein baiño geiagotan, gauzak argi ta aratz aurkezten ba'zaizkio.

---

raz, aurreneko lau mendeak aurkituko dituzu, eta EUSKALERRIKO KRISTAUTASUNAREN SORKUNTZA eramanen du izenburu. Bigarrenak, EUSKALERRIKO KRISTAUTASUNAREN ZABLAKUNTZA; V mendea ikertuko du, eta idatzirik dagoalako, konponketarik egin bezain laister argtaruaturik auriktuko duzu. Irugarrena izango da VI m,endetik XII'araifio joango dana eta EUSKALERRIKO KRISTAUTASUNAREN SENDOTZA izeneramanen du.

Gauza zarra, gure Euskalerrian, agoz-agozko erri-jakintz ori. Edestiau --etik datorkigularik, gero, millaka urteko aro luzeak-zear ingurura iritxi zaizkigun erriengandiko eta batez ere Elizagandiko pitxiz osotua, txukundua, ta oparo aberastua.

Asko zor bait dio Euskalerraren jakintzak Elizari. Nondik, adibidez, Zepai, Uztapide, Xalbador, eta beste bertsolari zar aien, eta, bertsolari izan gabe, nere aiton-amonen eta bete ainbeste ta ainbeste aiton-amonen jakinduri arrigarria eta adimenaren zintzotasun zugarra? Gure errietako Apaiz Jaun agurgarrien sermoietatik, ezpairik gabe.

Ori da gure mendietako artzai zarren, gure urietako esk-ulangille yayoan, gure itxasoetako mariñel zimelduen eta gure baserrietako etxejoaun zugarren eta etxejoandre esku-biotz-adimen-zabalen jakintza, Euskalerraren jakintza.

9<sup>a</sup> : Aurreneko aldiz aipatu dut, liburu ontan sarri erabilliko dedan KONDAIRA itza. Larramendr asmatur da, "Historia" adierazteko. "Kondaira", ordea, "lo que se cuenta da". Ez du beraz "historia" adierazteko balio. "LEYENDA"tik askoz bertago dago. Iparraldean "ISTORIO" darabilkite, eta, arrigarriki, naiz ain Haren zaleak izan, atxerik gabe idazten dute "istorio" ori. Nik, beti, EDESTI erabilliko dut "historia" adierazteko, eta, beti-beti-beti, LEYENDA adierazteko bakarrik KONDAIRA<sup>5</sup>.

10<sup>a</sup> : Arrigarriak gertatzen zaizkigu erromatarrek lateraz Loira ibaia eta Iber'Mendien arteko Uriei, Auñamendiaren bi aldeetan, beren idn7kietan ematen dizkieten izenak. Zerbait esan nai nuke izen oiei-buruz. Ez naiz izen oiek danak Euskaldunak diranik esaten ari. Bai ordea Euskal-itxura ederrik badutela! Etimologia ez zaigu oraindik jakintza eskier bat izatera iritxi. Gaiñera, izenbat aldiz ez ote dira aldatu edestiauareaz gero, gure Euskalerra Zar artako toki-izenak!.

Guri, tokiizen zar aiek idatzirik iritxi zaizkigu. Atzerritarrek idatzita. Izen oiek idatzi zituztenetatik asko ez ziran beñere emen izan. Ez ziran beraz be-

---

<sup>5</sup> Beste bi itz ere badamaizkigu Larremendi'k. "Historia, condairal, esagara, lempiztea". Baiñan "kondaira" "lo que se cuenta" dan bezala, "esagara", "lo que se dice" izango litzake; "conjunto de lo que se dice". Eta "lempiztea", "resucitar lo antiguo". Itz-berri-sorketaren aldetik gaitz egin zion Larramendi'k euskerari. Berak iriki bait zizkion atek "garbikerizaletasunari".

raiek entzuten zutena idazten aritu, beste batek edo beste batzuek entzuna, eta, agian, beste oiek beste entzule batzuei entzun ziotena ari izan ziran idazten.

Entzule sail ortakoek, ordea, entzun ote zituzten itz oiek Euskaldunen ezpafiñetatik?, entzundako ori ¿nola buruan gorde ote zuten?, eta, bata-bestei esan?, nola iritxi ote zan idazleengana buruz-buru zetorren ura?, eta, azkenik. Eta, azkeneko entzuleek idatzi ote zizkiguten doiñu zail arrotzeko itz aiek danak beren larrukietan? Ta, gero ere mendeak-zear ;ainbat aldiz izan dira izen oiek berr-idatziak...!

Alare, ezin ukatu, liburu ontan irakurriko dituzun Euskalerrri Zaar Zabal artako toki-izen geienek Euskal-usai nabarmena dariotela.

11<sup>n</sup>: Ortografia.- Erromatarrek errez nasi zituzten beren idazkietan "R" bakartia ta "RR" bikoitza ("Calagurris", "Calaguritani", "Graeurris", "Graeurris"... ) agian Euskaldunen agotik frantzeraren "gr" otsaren antzeko zerbait entzuten zutelako.

Guk, ordea, ederki bereizten ditugu biak, eta orregaitik, nasi ez daitezen, nik biak era ezberdiñean erabilliko ditut itz lotuetan: Adibidez, "ur-ontzi" idatziko dut, "R" goxoa erabilliz urontzi irakurri bear danean. Era berean Zesar-Augusto, gainber'alde eta abar. Alderantziz, "urr-ontzi" idatziko nuke urrak maiean aurkezteko ontziaz ariko ba'nitz. Orrela erabilliko ditut beti RR biak izki ori era gogorrean agoskatu bear danean: gaurr-egun, ezker-alde, eskerr-on, egurr-eze... Itz bat bakarra biurtzen dira orrela alkartzen ditugun itzak.

Ez dezagun gaiñera azturik utzi, Euskalerrrian, **ots, Euskeraren Errian**, Euskera "lengua muy rainoritaria" dala "ele txit gutxiratua", Euskalerrria geien-go aundiz Erdalerrria dala (%75), Euskeraren Errian Euskeraz itzegiteko gai geranok gutxiengo arras txikia gerala: laurden urri bat bakarrik, eta askoz eta askoz txikiagoa oraindik, Euskera naiz oso gutxi zerbait landu dogunok.

Euskera maite ba'dugu: Iltzear dagoan Euskera, salbatu, bizkortu, eta -- Jainkoak nai beza amets au egi biurtzea Euskeraren Errian, ots, ;bere Errian!, gatxiengo txiki bat izatetik geien-go izatera jaso nai ba'dugu, erreztu dezagun al dugun guztia Euskeraren ikasketa, eta ortarako, ;;arren!!! erabilli dezagun, bai irakurketa, bai idazketa, erreztu dezazkean oro, eta jaurti dezagun inpernuetako zokorik beekoenera zaildu dezazkean guzia. A! nola zan ortarako egokia "batukeriaren" aurreko Euskaltzaindiak agindurik zeukan ortografia!!! gaur Euskerazaintzak erakusten duan ortografi bera!

Euskeraren ikasketa errezteko, ez legoke gaizki, "RR" gogorrez amaitzen diran itzak, doixtarren antzera beti "RR" bikoitzez idaztea: "ezkerr", "okerr", "muturr"... eta abar, "ur bezala ("iturriak ura dario") "R" goxoz amaitzen direnetatik errez bereizi daitezten. Aburu ortakoa da Euskerazaintzako Zatarain'dar Anbortzi. Ta, Euskal-gramatikari dagozkionetarako bada noski norbait gure Zatarain!

Milla aldiz poz aundiagoz artuko luke Euskaldun jendeak "&", "LL", eta "Y" ren berr-erabilketa

Guk, itzen azkenean ere "erregiñ", "urdiñ", "berdin". Eta "Errezill", "Usurbill", "borobill", "urbill"... esaten dugu beti-beti.

"Y" izki gaixoari dagokionez berriz, erokeriaren esparrutikoa izan bear du batukerizaleek dioten gorroto gaitza. Erriak ordea argi-argi agoskatzen duan izkia da! Oyartzun ez da beiñere Oiartzun esan. "Yon" giza-izena ere ez du iñork sekulan "Ion" edo "Jon" agoskatu, "Yon" baizik. Egia da, ortan ere -- donostiarrek bere erriari "DonostiYYa" esaterakoan bezala ez dala geiegikerira jausi bear. alataguztiz, egia da beintzat "Y" Euskal-izkia dala, erriak asko maite duan izkia dala, eta "I"z amaitzen diran itzetan, "I" ori diptongo batekoa danetan bereiziki, itz oiek nominatibo-eran ematerakoan, naiz era ixillean, beti agertzen zaigula.

"Maia", adibidez ez du iñork Euskalerrian gaztelerazko "D-I-A", "P-I-0" bezala "M-A-I-A agoskatzen, "M-A-I-y-A" baizik. Era berean, ez dugu "G-0-I-A-N dago" esaten, "G-0-I-y-A-N dago" baizik. Eta sartalderuntz ere, Naparroa'n, "MAIyE" esan oi da, eta "GOIyEN dago"; ta, sarkalderuntz, era be-rean, ez da "Y" ixill ori erabat galtzen; "X" biurtzen da: "MAIXE", "GOI-XEN"...

Nere lengo 6 liburuak aipatu ditut: Sei bait dira Elizaren Edestiari-buruzkoak. Ona emen beraien izenak: "APOSTOLUEN ETA MARTIRIEN DENBORAKO ELIZA", kristautasunaren sorkuntzatik, I Kostantino'k inperiotza artu zuan egunera arte dijoana; "ELIZAK ETA ESTADUAK BAT EGIN ZUTEN DENBORAKO ELIZA (326-476) Erroma'ko Inperio Kristau-eko gertakizunak aztertzen dituana. SAN IÑAZIO'REN DENBORAKO ELIZA, edo, berdin dana, Birjaiotza-Aroko Eliza (1.447-1.623)". "DENBORA BERRIETAKO ELIZA", edo Argikuntza-Aroko Eliza (1.623-1.815); "DEMO-KRAZIAREN DENBORAKO ELIZA, XIX mendeko Eliza (1.815-1914)", eta, "GURE DENBORA AUETAKO ELIZA (1914-1.978)".

Orain, beste bi liburu peitzen zaizkit: EuskALERRIKO KRISTAUTA-SUNAREN ZABALKUNTZA (V mendeko Euskal-kristautasuna), EuskAL-ELIZAREN SENDOKETA (VI mendetik XI'era), Euskal'erri'ko Lenen-Elizaren Edestia buruturik uzteko; eta, Eliz Orokorraren Edestia bukatzeko, beste bi: "GOI-ERDIAROKO ELIZA", (VI mendetik XI'era), eta BEE-ERDIAROKO ELIZA, mendetik XV'era joanen dana).

Baditut beste bi liburu, Euskerari-buruz Oñatibia'tar Dunixi adiskide ta lagun txit maitea zanarekin idatzia: "EuskALTZAINDIARI EPAIKETA", ainzuzen Euskaltzaindiko Lendakari izandako Lekuona'tar Imanol gu guztion maixuaren eskariari erantzunez idatzia, eta, gai berekoa baiña gazteleraz, "EuskERAZAINNTZA EL BATUA Y LA MUERTE DEL EUSKERA".

12<sup>a</sup>: ESKERRAK EMANEZ; Badut noski nori eskerrak eman! Gai bakoitza, gai orren ikasketan sakon arituak diranekin eztabaidatzea hait dut oitura. Ortarako arras egokia gertatzen zait ba Gazteiz'ko Apaizgaitegian Teologi--Falkultateko irakasle jakintsuen sail ugaria. Ortaz gaiñera, badut, aiek bezain jakintsuak diran adiskide-talde bat, nere idazkietara mamuak bezala sartzen diran idatz-akatsak, "erratak" billatzeko. Atal bakoitza, argitaratua izan aurretik bizpairu bidar irakurria izaten bait da.

Aipa dezadan aurrena, ondo merezia du-ta, Zubikarai'tar Joseba Markitia'ko Aita karmeldarra zana, liburu onen asieran eta onen aurreko nere beste sei liburuetan akats'eizaketan alako lan ederra egin zidana. Goian bego. Aipa ditzadan baitare, Olazar'tar Martin Euskerazaintzako zuzendari izkuntzalaria, Agirre'tar Ander apaiz Euskaltzale argia, Ramon Ugarte sendagillea, Mauro Elizondo beneditarren Abata txit gizon argia, Jesus Altuna edestiaurrelari ongi ezaguna, Anjel Ibisate gure liburutegizain arras jakintsua, Guadalupe Lopetegi andereñoa klasik'izkuntzen irakaslea, Joxemari Artzalluz nere Euskerazainkidea, Amalia Mañueko anderefto tilosofilari txit ernea, Andres Ibañez Arana biblilaria, Joxemari "Latxaga" teologilari, antropologilari eta izkuntzalaria iru jakintza oietan Doktore eta Euskerazainkidea, Joxeabier Lopez de Okariz ertizti-jakintzetan doktore ta irakaslea, Bittor Garaigordobil Gotzai mixiolaria, Luis Alberdi Urkiola'ko abade mixiolari izana...

Irakurle: Nere liburu oni-buruz, alde edo aurka, zerbait esan nai ba'didazu, edo, agian, bertako gai batentzat argitasun geiago eskatu, auxe duzu nere NORABIDEA: Seminario Diocesano. Apdo. 86. Vitoria-Gazteiz. Urrutizkiñak berriz, 13 22 11, nere etxekoa, eta 22 00 50 Apaizgaitegikoa. Deitu eidazu

bildurrik gabe. Al dutan ongien erantzungo dizut. Eta nere eskerrik beroenak aurretik zure dei orren truke.





## JENTILLEN AROA.

Noiz egin ote zan Euskalerrriaren kristauketa?

Galde orrek erantzun ziurrik ez du.

Gaiñera, galde orri erantzuna billatzen asi aurretik, iru arazo argitu bearran aurkitzen gera: 1<sup>a</sup>, Kristautu itzaren zentzua. 2<sup>a</sup>, Edestiaren begiak noraiño iristen diran, eta, 3<sup>a</sup>, esan dugun lez, zer Euskalerriz ari geran.

1<sup>a</sup>: Zer adierazi nai izaten da "kristautu" aditza erabiltzen danean? Kristautasunaren "Kerigrna" edo "Lenen Aldarriketa" egin zan eguna? Aurreneko Euskaldun-taldetxoa hataiatu zan unea? Gotzaiak izendatuz Euskalerrrian Elizaren jerarkia ezarri zan urtea? Euskaldunik geienen kopurua kristau billakatu zan aroa? Jentiltasunezko oiturak osoki ezereztu ziranekoa?

Azkeneko baldintza ori bete bearra ba'litz Erri bati kristaua deitu aal izateko, Euskalerrria oraindik kristautu ez dala, esango bearko genduke. Ezta beste iñungo Erririk ere!

Nik, liburu ontan, Euskalerrrian Euskaldunek Kristo'ren Jainkoari noiz Euskeraz errezatzen asi ote ziran billatu nai nuke. Eta, Euskaldunek Kristo'ren Jainkoari errezatzen ziar dutela noiz Euskalerrrian Elizaren jerarkia ezarri zan idoro.

2<sup>a</sup>: Edestiaren balioari dagokionez, erreza da erantzuna: edestiak ez duala Erri oso baten bizitza osoa osorik emateko balio. Edestiaren balio guztia soilki dokumentuetan arrizko, larrukizko edo beste edozein motako dokumentuetan oiñarritzen bait da. Dokumentuek, ordea, soilki gertakizun bereizi batzuen berri eman dezaikigute. Orregaitik, dokumenturik geienak dituan Errian ere dokumentu oiek danak ez dira Erri aren bizitza osoa emateko gauza.

Zergaitik? Mendeak-zear soilki Errietako gertakizun txit garrantzitsuei eta goitasun arras aundiko gizakume ospetsuei zegozkien dokumentuak bakarrik gorde izan diralako. Dokumentuek ez dute gizon-emakume txiro landerren eguneroko ariketa apal "interesgaberik" jaso, eta bein edo bein jaso ba'dituzte ez ditu edestiak aintzakotzat artu, orain arteko edestiak beintzat. Erriko jende

xurnearen eguneroko ianketa arrunt oiek "interesik-ezak" diralako, ez daitezke ha, soilki gertakizun aundietaz mintzatu oi dan edestiarentzat gai egokiak izan.


Europa'ko Sarkaldean, bertan, oso gutxi dira I, H eta III mendee-tako kristautasunari-buruzko dokumentuak, Eta Euskalerriri-buruzkoak, bat ere ez. Ez beintzat emen bertan sortutakorik. Mende oietan eta baita askoz geroago ere Euskalerra zarrean gertatu zitekeana jakiteko, atzerritarrak esandakoaz baliatu bear izaten dugu, eta V eta VI tuendeetatik onuntz ;atzerritar etsaiek esandakoaz!

Bestalde, Erri batek, aro bereizi bateko dokumenturik ez izateak ez bait du, Erri artan eta aro aren epean ezer gertatu ez zanik esan nai. Gipuzkoa'n adibidez, *esan* dugun bezala, VI mendetik XPera arteko epe guzian dokumenturik ez dugu. Ezta bat ere: ez larrukirik, ez arririk, ez burnirik, ez buztinë-gosirik, ez etxe edo txabola baten ondakiñik ez bizitokiren baten aztanarik, ez illobirik, ez ildako baten ezurrik. Ezer ez!


Orrek, ordea, ez du esan nai orduango Gipuzkoa artan iñor bizi ez zanik. Sendo agertzen bait da Gipuzkoa XI mendean jendez, eta sendo baitare kristautasunez, Gartzia Azenariz eta Gaila bere emazteak, Altzo'n zegoan OI I azabal'ko Salvatore Deunaren lekaidetxea Aitzpe edo Peña'ko Jon Donearen lekaidetxeari eskeintzeko idatzierazi zuten larrukian<sup>6</sup>.

---

Gipuzkoa'ko "Jauna", ainzuzen "Ienen Jauna" esan oi zaio Azenariz orri. Berak, ordea, "tenente", ots, "ordezkari" esaten dio bere buruari. Gipuzkoa'n Iruña'ko errege naparraren ordezkari. Errege ori, une artan III Santxo "Nagusia" zan erdel-edeskietako "Santxo el Mayor" "Nagusia" esan oi zitzaion, bizkaierak itz orri ematen dion zentzuaren araura: "Santxo Zarra" Izen ori, beste Santxo bat, Santxo "Gaztea," errege zala jarri bait zioten euskaldunek. Nik, "Santxo" izena, euskalduna daia uste dut. Era berean, ordea, ez dut uste "Santxo" eta "Antso" izen bat bera diranik.



R<sup>o</sup>maniz4cidn. Tariwno de 105 aquitanos. . QUITANIA iC6a.r. Com. 1. 1. 7 Mela, 20: N. H 29. 1); AKKITANI IPtol. 11. 7) PUEBLOS: r'urbeih, Sigerrume, Ptian, Vocures ElusareJ, Gates. Ausr, Gurunni, Sibuiases. COCOSales (C'sax. B. G. 111, 27. ). Sostiaes iC5.a.r B. G. =0. 2 y 3), Conve,ur iStrah. IV. 21. Su..wou.ues (Plinio iV, 29), Vu..swes Ptol.1 11, 5, 111. Aturesnes Lacrorares (Imwr.,N.quileya. C. LOS Tunsos y los Thioswes no pertenecian :4 Novempopulania.



Egia da, edestia dokumenturik gabe aurkitzen danean, oparo agertzen zaizkigula edestiari "taguntzera", kondaira-sortagalantak',

Egia, baitare, kondaira oietatik geienak egiazko gune hat izan oi dutela, baiñan iain zailla gertatzen da bakoitzak ekarri dezakean egiaren apur ori, danek naro dakarten olertizko orri-ta-lorez jositako soñeko dizdiratsutik be-reiztea...!

Argi dakuszu zeñen latza ta zailla gertatzen zaion edestilariari Euskale-riaren ebangelizaketaz ziurki mintzatzea, eta zeñen bearrezkoa zaion, ortara-ko, beti, logikaren eskutik jardutea.

Badugu beste galde bati erantzun bearra ere:

3": Zer Euskalerriaz ari gera mintzatzen?

Oso zarra bait da gure Euskalerrria

Izan ere, dirala 40.000 urte, nondik iñork ez dakiala lurralde ontara etorri-zan "Homo Sapiens Sapiens" aren oiñordekoak bait gera Euskaldunok9.

"Kromationdarra" esan oi zaio dirala 40.000 urte Euskalerrrian bizitzen asi-zan "Homo Sapiens Sapiens" ari, eta emen, Dordoria'tik Asturietara, sortu ta

---

Atzerritarren "historia", nik, beti, "edesti" esango dut. Itz ori bearrezkoa dugulako, eta euskerara zearo sarturik egon dalako, euskaldunek atseginki artua izan zalako, eta gaur bertan euskaldun guztiek errez ulertzen dutelako. "Leyenda" esateko, "kondaira" erabilliko dut, naiz gaztelerazko "contar" a-ditzatik sortua izan, "leyenda"ren esan naia ederki eta osoki ematen duan itza dalako: "kondaira", "lo que se cuenta".

Eusko-Jentillediari-buruzko atal au Jesus **bidalia dut, bere** iritzia eskatuz. Orri-azpiko oar auen bidez azalduko ditut berak eman dizkidan xeetasunak. Jaso bitza, Jesus adiskideak nere eskerrik beroenak.

"...dirala 40.000?, 60-000? urte" neukan nik idatzirik, emen eta 3 lerro beeraxeago, bigarren urte ori, ez arritasunik gabe, irakurri-berria nintzalako. Bi toki oietan ezabatu dit ordea 60.000'ko ori Jesus Altuna'k, eta zalantzarik gabe onartzen diot bere zuzenpena; gai-uetaz berak baiño geiago dakianik ez bait da gaur beste bat izango. Kromañondarrak ez zirala Euskalerrrian bakarrik bizitu. Kanarietarañiñ ere iritxi zirala, ipiñi dit beste oar batean Jesus Altu-na'k. Arrazoi du. Sarkalderuntz Kanarietara iritxi ba'ziran, sortaldean, Indone-si'ko Jaba ugartean ere aurkitu bait dira aien aztarnak. Ni ordea, atal ontan, soilki gure lurralde uetako kromafiondarretaz ari nintzan mintzatzen.

antolatu zigun, munduan ordura arteko kulturik bikaiñena: Franko-Kantabriar Kultura.

Ta, ona nola, Kromariondar aien Euskalduntasuna dan, begien aurrera agertzen zaigun lenengo arazoa:

Euskaldunak al ziran Kromañondar aiek? Alkarrekin Euskeraz mintzatuz iritxi ote ziran orain 40.000 urte gure lurralde ontara? Edota emen bertan eman ote zioten millaka urteen epea-zear gure izkuntz eder oni sortzea? Euskeraz bertso-kantatuz margoztu ote zituzten, ain egoki, gure leize-zuloetako abere miresgarriak?

- "Euskaldunak ote ziran gure leizeetako abereen margolari kromañondar aiek"? galde egin nion bein batean Ataun'go "Sara" bere baserrian On Joxemiel Barandiaran'i, Gazteiz'ko ola-gizon ezaguna ta Euskalzale aundia dan Karrera'tar Joseba'rekin, ari ikustaldi bat egitera joan nintzanean.

Bereala erantzun zigun edestiaurrelari jakintsu arek, eta au izan zan eman zigun erantzuna: "Bai. Euskeraz itzegiten zuten. Guk, gaurko Euskaldunok, ez genieke ulertuko, aien denborara aldatuko ba'giria, baiña Euskeraz ari zaizkigula, bai, oartuko gifiake"<sup>o</sup>.

Ez zuan, ordurako txit agure zarra zan On Joxemiel'ek, ori erantzuteko pentsatzen egon bearrik izan. Lendik astiro eta ongi pentsaturik zeukalako siñale ziurra!

Euskaldunak ote ziran ba? Ala, lez ote ziran Euskaldunak!

Orrelako gauzak, jakiña, ez daitezke bi ta bi lau dirala egiztatu oi dan bezala ziurtatu. Baiñan, baietz pentsatzeko, Euskera beraren izaerak ematen

---

"Orain dala 20, 30, 40.000 urteko Kromañondarrak, ez dakigu (euskaldunak ziran). Orain dala 4.000 urteko Kromañondarrei huruz esango zitun On Joxemierek esan zizun ori", da Jesus Altuna'k nere lanari erantsi dion xeetasunetako bat. Bai ote? Orain dalako 4.000 urteko jende aiek euskaldunak zirala ez du iñork ukatzen. Eta ori nik ere banekiala, eta nere galdea zerbait geiagoren eskean egiña izan zala, Joxemiele'k berak pentsatuko zuala iduritzen zait. Danadala, nik egin nion galde ura, agertu dutan bezala izan zitzaion egiña. "Euskaldunak al ziran kromañondar aiek"? Eta agertu dutan bezalakoa izan zan, batere mugatzeketarik gabe arengandik jaso nuan erantzuna: "Bai, euskeraz itzegiten zuten. Guk, gaurko euskaldunok, ez genieke ulertuko, aien denborara aldatuko ba'giria, baiñan euskeraz ari zitzaizkigula, bai, oartuko giriake".

digun kirten sendoaz arazo auetarako On Joxelniel'en itzaren balioa ain aundia izanik..., gure pelota-lekuetan erabilli oi dan demagintzaren araura "milla irureuni" izango litzake naargolari kroniañondar aien Euskalduntasunaren alde oiukatuko litzaken apustua.

Barandiaran'en aburu berekoa-edo agertzen zaigu L.atxaga'tar Joxemari ere, nere galde bati erantzunez igorri didan txartel ontan:

"Euskera izkuntzaren zar-kutsua, giltzarri batean ikusten dugu: oraingo garaian, buruak ematen ditun urrats berdiñak nabaritzen ditugu, billatzen den gaia -D, gero aditzaren erroa -U-, azkenean eragillea -T, osoan DUT. Oraingo garaia Euskal-aditzaren giltzarria da.

"Len garaia osatzeko eragilleak tokia aldatzen du, irugarrena utzita lenda-bizikoa artzen du. Igesaldi au, erri osoaren buruan gertatua, ez da aste bateko lana, garai luze batena baizik, millaka urteak igaro dire.

"Len garaia arkitzea, gizartearen urratsik aundienetako bat da. Osatze-bide ori Euskal aditzarena da. NOR-NORI-NORK abegañean eraikia".

Dakusazunez, millaka urteak bear izan ditu Euskal Erriak bere aditzaren "orain-aldian" ("tiempo presente") oiñarrituta "len-aldia" ("tiempo pasado") asmatzeko eta len-aldi ori nola adieraztera eman billatu ta aurkitu aal izateko.


Badakit, gaur-egun zabaldurik dagoela Euskera Kristo baiño 3.000 urte lenago sortua izan zala esateko oitura. 3.000 urte ordea ez dira "millaka urte asko". 3 besterik ez dira: iru milla. Baiñan Latxagak aipatzen dituan "milla-ka" urte oiek 3 baiño askoz eta askoz urte geiago dira. Eta Latxaga'k badaki noski zer esaten duan. Paris'ko Sorbona Unibersitatean Euskeriztiko dokto-radutza irabazirik duan izkuntzalaria bai da bera.

Euskera bezalako izkuntz zaar baten gai sakon oiek aski ulerkaitez gertatu lezaizkigukeala oarturik, zurgurki, onako itzulpen au ere bidali dit gaztele-raz:

"El arcaismo de la lengua vasca reside en el hecho de que el tiempo verbal esta" construido a partir del presente, con signos que denotan pasos que aparecen en las operaciones de la mente humana; primero el tema de la acción -D, luego la raíz verbal -U, a lo Ultirno el motor de la operaciOn -T, resultado -DUT-. El presente aparece como fundamento del verbo.

"En el pasado se produce el fenómeno de la fuga del motor de la operackin, que pasa a ocupar el primer puesto, con los signos correspondientes al primer puesto. Esta fuga constituye un gran paso colectivo para la mente humana, cuya formación supone un espacio de miles de años. Lo cual indica que la representación del pasado pertenece a uno de los mayores descubrimientos

# CARISTOS





del saber humano. Este proceso aparece claramente en el verbo vasco, construido sobre los pilares del NOR-NORI-NORK". (Ez dut uste iruzurturik ibilliko naizenik, Latxaga'ren esaldi ori apurtxo bat ulert-errezagotu naiez bere "motor de la operaciÓn" ori, zuk, irakurle, eta nik, "sujeto de la accidn" izendatzen duguna bera dala esaten ba'dizut)".

Zer esan dugu len? Euskeraren zaartasunaren aldeko demak, gure pelotalekuetan "milla bosteuni" egingo lukela? Ezpairik gabe esan dezakegu, Latxaga'k diona entzun ondorean "milla euni"ra ere, errez eta azkar jetxiko litzakela.

\* \* \*

Baiñan gure lur au Euskalerra izan aurretik ere, gure lur ontan bertan, bizitu ziran gizakumeak. Bai noski. Txelentse-aurreko aroan bertan, edestiarrearen asieran, orain dirala 150.000 urte baiño leenago ere bizi bait ziran emen jendeak. Agertu zaizkigu ba antziñate urrun aietako jendeen aztarnak. Eta, baita, jende aiek landu oi zituzten sukarrizko aizkorak ere. Ots: "aitz-korak": "aitzezka lanabesak".

Deus aundirik ez dakigu ordea gizakume zaar aien pentsaeraz. Eiztariak ziran eta basa-uztalariak, ots: eize utsetik eta basa-landareen zituak biltzetik bizi ziran jendeak.

Gurtzen ote zuten Jainkorik? Bai, erantzungo lizuke gure XX mende onen lenen urteetan ospe aundikoa izan zan "Blena'ko Etnologi-Eskola"k.

URTZI ote zuten Jainko aren izena? Izen orrek irauten zuan beintzat XII mendeko Euskaldunen artean ere, Aymeric Picaud erromes frantziarrak idatzi zigunez: "Deum vocant URCIA"; "Urtzi esaten diote Jainkoari".

Onatx, Euskaldunei-buruzko erromes trakets aren esaldi guzia:

"Si illos comedere videres, canibus edentihus vel porcis eos computares. Sique illos loqui audires, canum latrantium memorares, i barbara enin lingua penitus habentur. Deum vocant URCIA..."


Euskeraz:

"Jaten ikusiko ba'zenitu, zakurtzar zurrupatzailleelcin kidatuko zenituzke, edo zerriekin. Izketan entzungo ba'zenitu, zakur zaunkalarietaz oroituko ziña-

---

" Gai orri-buruz geiago jakin nai duanak ikusi beza Sorbona'n Latxaga'k aurkeztutako tesia bera: Jose Maria de Latxaga: "La RepresentaciÓn del Tiempo en Verbo Vasco", Bilbao 1.994, "Zabaltzen" argitaletxea.

# VARDULOS



ke, ain basatia bait da beren izkuntza! Jainkoari URZIA esaten diote ... <sup>it12</sup>

Dakusazunez, ez zuan Euskalerrria asko maite zorioneko erromes arek. Frankiarrak izaki! Ta gure arbasoetatik oso zakarki mintzatu bait zan, garaia iristen zaigunean, luzaro eta astiro ikertu bearko ditugu guk, aren nortasuna... eta esan zituanaren egiztasuna. Itzuli gaitezen orain lendik genkarren ildora:

"Urtzi" bera bezain tinko sartu zan Euskaldunen sinespidera, Urtzi edo Ortzi'ren aurpegia dan Eguzkiaganako eraspina. Oraindik gure folklorean bizi bait dira eraspina aren aztarnak. Adibidez, eguzkiaren irudi ta gurketa-bide izan ziran eta orain folklore-gai bezala darabilzkgun karda-lorea, lauburua ta San Juan hezpera-gaueko sua. Badu noski Eguzkiarekin zer ikusirik bizkaierako "eguenak" ere.

Onela dio Arrinda'k bere liburu oparoan, Joxemiel Barandiaran'en itzak erabilliz: "Según esto, una divinidad llamada ORTZ, OST, ORTZI, UTZ o EGU, personificación del cielo o de la luz celeste, empezó a ser venerada por los vascos al final del período neolítico en que debe situarse la primitiva cultura indoeuropea a juzgar por las interesantes investigaciones de O. Schrader,


"El haber sido expresada la concepción indoeuropea de la divinidad celeste con nombres diferentes en las dos zonas lingüísticas del idioma vasco (OST en Guipuzcoa y EGU en Vizcaya) es quizá" otro indicio de que aquí existían ya diferencias dialectales".<sup>13</sup>

Ortziaren gurketa indoeuropatarrek ekarria dugula esan oi da. Ori... ote dugu? Erri zar guztien lenen gurtutako jainkoak "dii astrales" "izarteko jainkoak" izan dirala gauza jakina da. Euskaldunak, indoeuropatarrek onera etorri ziran, aiek baiño millaka urtez zarragoak ziran. Beste erri zarrek aurrena gurtu zituzten jainkoak izarteko jainkoak izan ba'ziran, zergaitik ez beste erri oiek bezain zarrak edo zarragoak ziran Euskaldunek, indoeuropatarrek etorri baiño askoz aurreragotik jainko oiek berak gurtu ez? Badirudi, beintzat, baietz esan daitekeala. Emen gurtzen ziralako bai Urtzi eta bai

---

<sup>12</sup>) "Errornesaren Eskuliburua", 28'gn. errialdea. Ikusi nere liburu onen asierako Bibliografian "Aymeric Picaud".

"Magia y Religión Primitiva de los Vascos", 79. Nik atal ontan ukitu besterik egiten ez dutan gaia, sakonago aztertu nai ba'duzu, irakurri itzezu liburu orren 63 eta 80'garren arteko orriak. Liburu osoa ere, benetan gomen-datzen dizut, naiz, pittinkeri batzuetan Anes eta ni aburu berekoak ez izan.



Frontera. Vascones

Mapa G.E.Z.

Urtzi'ren begi dan Eguzki. Agian, ori orrela ba indouropatarrak onera ekarritako gauza bakarra, Iauburua izango litzake; Eguzki'ren ikurra.

Indouropatarrak ziran Euskalerrira Krist'aurreko I mendean Europa'ren erdi-aidetik etorri zitzaizkigun Erri berriak ere. "Keltoi", "Keltiarrak", esan zieten Erri aiei greziarrek, eta itz ori "zeiti", biurtu zuten erromatarrek ra.

Ordurako ordea, batzuen ustez, egoaldetik Euskalerriko muga-lurretara sarturik omen zeuden Iberitarrak.

Auek, Afrika'tik etorrira, Mediterran-Itxasoaren ertzean, Frantzi'ko Rodano ibaiaren ibarreraíño zabaldu omen ziran, eta Ibero ibaia-gora, Errioxa'ko lurralde guztiraiño.


Errioxa'n geratutako Iheritar auek, geroago etorri ziran Keltiarren bultza-ketak eraginda, ordura arte Euskalduna zan gaur-egungo Kantabri'raifio iges egin zutela eta gaur-egungo Kantauritarrak Euskaldunen eta Iberitarren naske-tatik sortutako enda baten semeak dirala esaten dutenak badira. Beste batzuek, ordea, Iberitarrak ez baiña Keltiarrak izan zirala, diote, an, Kantauri'n, Euskaldunekin nasi ziranak. Ez bait da erreza, antziñate urrun artan zer gertu zan eskierki jakitea.

Danadala zalantzan ipiíi ez dezakegun gauza da Kantauritarrak Euskaldunen eta beste erri atzerritar baten naasketatik sortutako gizakumeak dirala. Ori adierazten digu edestilari klasikoen jardunkerak ere, beti alkaturik, -- heti bereizita, baina beti alkaturik aipatzen bait dituzte "Kantabri et Vascones", Ispani zarreko Erriak lumaren punttan artu bearrean aurkitzen diranean. Ala, Silio Italiko, I mendeko olerkariak, Trasimeno'ko borrokaldian erromatarrei Anibarek emandako jipoiaz ari dalarik:

Tum, quo non alius venalem in proelio dextram  
Ocior attulerit, conductaque bella provarit  
Cantaber et galeae contempto Uasco".

Euskeraz:

"Kantauritarrek baiño lenago ez zuan iñork,  
soldatalari bezala gudara joateko,



Sarkaldeko Euskalerria, Erromatekoan. Puntuzko lerroak, Krist'aurreko 153'garren urtean Erromatarrak noraiño sarturik geneuzkan adierazten digu. Autrigoiak, Berondarrak, Bardulitarrak, Baskoi menditarrak, eta Aufiamendi'z iparreko Euskaldun guztiak, zerao ziran oraindik yareak. Zenbakiien esannaia: 1, Kalagurri. 2, Bilbilis (Kalatayud). 3, Garray ("Numantia"). 4, Jalon eta Ibero ibaiak alkartzten diran tokia.

diru-truke bere besorik saldu.  
13, batera eraso ziguten Kantauritar oiek  
eta buruan burni-kapelen babesik gabeko Euskaldunek".<sup>14</sup>

Eta geroxeago, poema berean, sarraski ura nola sortu zan esaten ari da-  
nean, ostera berriz egingo digu auñamenditarren goratarrea: Kantauritarrena  
eta Euskaldunena, Kantauri-Mendi-Katea, Auñamendiaren luzapena besterik ez  
bait zan Silio Italiko'rentzat eta orduango geografilaririk geienentzat:

"Subiere leves, quos horrida misit  
Pyrene, populi, uarioque auxere tumultu  
Fluminem latus: affulget coetrata iuventus;  
Cantaber ante alios, nec tectus tempora Uasco".

Euskeraz:


"Arin ekin ziguten Auñamendi bildurgarriak

---

<sup>14</sup>) "De Bello Punico". V, 195-197. Silius Italicus, legiztilaria, politikalaria  
eta olerkaria, gizon arras aberatsa gaiñera, gutxi gora bera Kristo il zan urtean  
jaio zan, 25'ean edo 26'ean, eta 101'ean Bere Olerki lan ori, "is the longest  
epic in Latin literature" (A. Ker, Enc. Brit. "Silius"), "laterazko elertian luzee-  
na da". Nik, M. Risard'en zuzendaritzapeko "Collection des Auteurs Latins"  
izeneko bilduman aurkitu dut. Ikus "Bilduma" ori nere idazti onen asierako  
bibliografian. Itz neurtu auek, eta ondorengoak, Bilduma ortan Italiko'ri dago-  
kion liburuaren 285, 349 eta 359'garren orrietan datoz.

<sup>15</sup> "Horrida Pyrene" k, ots, "Auñamendi izugarriak" bidali zituan beste  
"erri" aiek ere euskaldunak ziran; Ilergetak agian; edo Zeretiarrak. Silio Itali-  
ko'k, "Vasco" -- beti era deklinakaitzean soilki "Baskoiei" esaten ziela  
dirudi. Alare, esan dugun lez, badaiteke, olerki ortan Silio Italiko'k "horrida  
Pyrene" Mediterran-Itxasotik, Galizi'ko Atlantik-Itxasora arteko mendikate  
luze guztiari esan izatea, bein baiño geiagotan mintzatu bait ziran orrela erro-  
matarrek. Zentzu ontan artzen badugu Silio Italiko'ren esaria, "Horrida Pyrene"  
ark gudara bidalitako borrokalari aiek, Kantauritarrak eta sarkaldeko Eus-  
kaldunak izango ziran; Autrigoiak, Karistiarrak, Bardulitarrak eta Baskoiak.

# AQUITANOS



IPAR AKITANI darama mapa onek izen baiñan ipar-Akitani baiña ego-kiago datorkio Ipar-Nobenpopulani izena, Augusto'k izen ortako probintzia eratu zuanean ez bait zuan probintzi orren barrura Akitani Zar osoa bildu. Euskerari dagokionez, Augusto'ren egunetan euskaldunak ziran noski Bituritarrak eta euskera iristen zan agian, bai beintzat basoz eta mendiz, Dordofia'ren Iurretara.



bidali zizkigun Erriek,  
eta oiu-zarataz bete ziguten ibarra.  
Dizdiratsu dager babeski borobillez ornitutako gaztedi-sail ura;  
Aien danen aurrean, herriz,  
Kantauritarrak, eta, buru utsik, Euskaldunak".

Berdin, Paulus gudalburuaren eta Katon aitzindari gaztearen goratzarrea egiten duanean:

Paul ura, "borrokaldia galtzera zijoala ikusi zuanean" ("ut adversam videt increbrescere pugnam") zauritutako basapiztia lez, eriotzaren billa sartu omen zan etsaien artera. Ori bera egin omen zuan Katon gazteak ere, eta Paul arek salbatu omen zuan, Euskaldunen eta Kantauritarren izkilluetatik, borrokalari arras gazte eta txit ausarditsu bizkor ura (l.c. 359):

"At juvenem, quem Uaseo levis, quem spicula densus  
Cantaber urgehat, lethalibus eripit armis"

Euskeraz:

"Ta mutil gazte ura gaizkatu zuan, gaiñean zituan  
Euskaldun azkarren  
eta triku-antzera geziz ornitutako Kantauritarren  
izkillu eriogarrietatik".

Euskaldunak, Kantauritarrak: beti bereizita baiñan beti alkarrekin.

Izkerari dagokionez, berriz, i\_Euskeraz mintzatzen ote ziran oraindik, odol naasiko Kantauritar aiek?

Baleike. Dirudianez, baleikela uste du Caro Baroja'k berak ere; arriturik bait dio Zesar'en denborako gudatean Kantauritarrak Akitaniarrekin izandako

---

<sup>6)</sup> L. c. 229'gn. or. Liburu onek "Uasco", "Gascon" biurtzen du: "le gascon qui combat sans casque" eta "le gascon qui combat la tête nue". Ez du asmo txarrez egiña. Emeretzigarren mendean, euskaldunok "kantauritar" gure buruari esaten bait genion. Orregaitik, liburu onen frantzerazailleak, "Kantaber et Uasco" ikustean "kantauritar" oiek gu giñala usterik, "Gascon" biurtu zuan italiko'ren "Uasko" izena. Gero ordea, oartu zan noski oker zebillela-ta, azke-neko bere aipuan "Uasco", zuzen biurtuko digu".

arreman estua "zailki ulertu daitekeala, bi erri aien arteko ele-kidetasunik gabe.

Ona bere itzak: "Verano del 66 a. C. ("De Bello Gallico" III. 11): Campaña de Ce:sar contra los aquitanos que piden auxilio a los cantabros lo cual indica una vieja comunicaciOn muy significativa" ("Hist. Genl. Pais Vasco", 1,104).

Ikusi duzunez, "lo cual indica una vieja comunicaciOn muy significativa" esan digu Caro Baroja'k, baiñan "vieja comunicaciÓN" ori ere ezin daiteke erreze ulertu bi Erri aien arteko ele-kidetasunik gabe.

Zala Keltiarrena, zala Iberitarrena Kantuari'n Euskaldunenarekin nastuzan odola..., Euskalerrira etorritako Keltiar eta Iberitar aiek zenbat ote ziran? Jakiterik ez dago. Euskalerriko gizartean noraiño sartu ziran? Ez duzu erantzun ziurrik aurkituko, baiña uste izan dan baiño geiago dira Bizkai'n eta Gipuzkoa'n aurkitu diran indouropatarren "kastrurn" edo bizitolci babestuak. Zer ekarri ziguten? Urraidaren (kobreak) eta burniori edo brontzearen ezauguera, *esan* oi danez. Eta burniarena, azken-etorriek.

Jende etorri-berri aiek lur-egosizko ontzigintzan, aberezaitzan eta nekazaritzan arras yayoak izanik, azerbait *ikasi* ote zuten aiengandik gure arbaso Euskaldunek? Bai noski. Aiek etorri aurretik, Euskaldunek yayotasun oien ezaguerarik ez ote zez ote zuten batere-batere-batere? ez da erreza erantzuna".

Ta erlijioari-buruz?

Iberitarrek egon ziran tokietan, "agertu omen dira, ia danak mendi-gaiñetan zeuden jauretze Iberitarren ondakiñetan, burnioriz eta lur egosiz egindako erlijiozko opariak": "religious sanctuaries with votive bronzes et terra cottas almost all in mountainous spots" (W.M. Curtis. "Enc. Brit". "Iberians").

Iberitar auek Keltiarrekin nasi ziranean, ain ezaguna dan Keltiberitarren enda sortu ziguten. Krist'aurreko III mendean: "From the 3'rd century b.C. they inhabited the hill country between the sources of the Tagus and Iberus

---

<sup>1</sup>) "Urraida", gaztelerazko "cobre" adierazteko, Larramendi'k damaigun itza da ("cobre, cobrea, urraid, Lat. cupreum, i cosa de cobre, cobrezco, urraidazcoa, Lat. cupreus". Diccionario Trilingile). Larramendi'k itz ori berak asmatua ez baiña erriarengandik jaso ba'lu, naiko arrazoi izango genuke ordurako euskaldunek urrea ezagutzen zutela esan aal izateko. Ta, urraida bera ere ordurako euskaldunek ezagutzen zutela dionik badugu. Nekazaritzari dago-kionez, berriz, aitzurra, nekazaritzaren ikurra, bere izenak adierazten digunez paleolitik-arokoa dugu Euskalerrian, indouropatarrek onuntz etorri baiño askoz leenagokoa.

including most of the modern province of Soria and much of the neighbouring portions of Guadalajara and Teruel, although all the limits of Celtiberia are ill-defined" (ib).

Euskeraz:

Keltibertar auek, "Krist'aurreko III mendeaz gero Tajo eta Ibero ibaien sort-iturrien arteko lur menditsuetan bizitu ziran; berenak zituzten ia Soria izeneko probintzi guztia eta onen alboko Guadalajara eta Teruel'en zati aundiak, naiz ZeItiberi'ko mugak oso gaizki ezagutuak izan.

EtTioxa'ren bazterren batera ere jetxi omen ziran, Errioxa'ko Berondarren auzokoak zirala bait diosku Estrabon'ek (I.c. 111,4-12). Estrabone'k diosku baitare (I.c.9,16) Keltiberi'tik urbil aurkitzen zala Zalduba (Zaragoza). Baiñan Baskoiak Jalon ibaiaren lurraldean Zalduba'tik 25'en bat kilometrora aurkitzen zirala badakigu, Ptolomeo'k Alauona izeneko uria, gaurr-eguneko Alabona, Baskoia zala esaten bait digu: "Alauona Vasconum" ("Geographike, II,66).

Beraz, Errioxa'ko Berondarrekin ez ezê, Jalon-aldeko Baskoiekin ere izan zuten Keltibertarrek auzotasun esturik.

Ta, auzotasun orren ondorioz, naitanaiez, izan zituzten arremanak Jalon-aldeko Euskaldun aiekin ere. Ibero-Mendi-Lerroa bera Estrabon'ek Indubeda esan zion mendi-lerroa Euskalduna bait zan Monkaio (Mont Aio?)'tik asita Saria probintziko Peñas de Urbión edo Urbion-Aitz eta Burgos-probintziko Oka-Mendiak arte. Luzea zuten beraz Keltibertarrek Euskaldunekingo muga, naiz muga oiei-buruz W. M. Curtis<sup>1</sup>ek esan-berri diguna, beti aztutzeke begien aurrean izan bear: "the limits of Celtiberia are ill-defined": "Ez dirala ogi ezagunak Keltiberr ak izan zezazkean mugak".

"Numantia" omen zan Keltibertarren uririk aundiena: geroago "Afrikarra" esango zitzaion Eszipion buruzagiak Erroma'rentzat borroka latzaren ostean irabazi zuan uri ospetsua.

Iber-Mendi-Katearen egoaldeko maldan zegoan Numantia. Izen ori, ordea,

Numa Pompilio'ren omenez?, erromatarrek eman zioten izena da. Nola esaten ote zioten bertako uritarrek? Zegoan tokiak, beintzat, GARRAI zeritzan.

Egia da, gaurr-egun Garrai izen-duan erriska, Krist'ondoko XI mendean eraikia izan zala.

Baiña Garrai zeritzan tokian izan zan eraikia eta leenagoko uri baten lekuan. Tokiaren izena erriska baiño zarragoa bait da, erriska eraiki baino urte batzuk leenagoko dokumentu batek jakiñerazten digunez.

Dokumentu ori, XI mendearen asierakoa da, 1.016'koa, eta onela dio Naparroa'ko Erreñuaren eta Gaztela'ko Konterfiaren mugak aldarrikatzera-

koan: "usque ad flumen Tera, id est Garrahe antiqua civitate de-serta": "Iera ibaia eta antziñako Garrahe gaur jenderik gabeko urira arte" iristen zala Naparroam,

Keltibetarrek, mundu ontako gauzei-buruz eta beste munduko sineskerari dagozkionetan ezer berririk ekarri ziguten ez dakigu. Ez noski gauza aundirik, aiek ekarri zezaketena ekarri bait ziguten, ordurako, beren gurasoek, ots, Keltiarrek eta Iberitarrek, eta oien aurretik onera lendabizi iritxi ziran indouopar aiek.

Ez dirudi atzerritiko erri auen eta Euskotarren artean guduketa latzik izan zanik, naiz asieran bai, aurrena iritxi ziran Keltiarrekin Garona'ren ibarrean Euskaldunak borrokan ibilli.

Ori dioskute beintzat, jakintsuen artean beti txit ederrikusiak izan diran bi bi edestilari erromatarrek: "Plinjo y Plutarco testimonian que los aquitanos rechazaron a los celtas obligndoles a invadir España por vía marítima desembarcando en las costas cantbricas occidentales y portuguesas" (B. Estorne's Lasa: Enc. Genl. Ilus. Pais Vasco. "Celtas").

Dakusgunez, beren lurraldea babesteko, gudari trebe agertzen zaizkigu Euskaldunak, edestiaren egunsenti ber-berean.

\* \* \*

Danadala, garai zaar aietan gertatu zana jakitea ez da gauza erreza. Oartu zan ortaz, Krist'aurreko lenen mendearen azkenean Estrabon bera ere: Ez zan sekulan Sarkaldeko lur auetan ibilli. Lur auetatik arras urruti idatzi zuan bere "Geographika", bestek esaten ziotenaz baliatuz. Batez ere gudariak eta gudalburuak izan zituan berri-emaille oiek. Eta ez zan noski idazten zuanaz geiegi fiatzen. Entzun dezaiozun berari mintzatzen ari dalarik:

---

<sup>18)</sup> Garrahe itzaren "H" ori, or, "Y" baten orde z dago; pokerlariak "komodifia." bezala erabiltzen bait zuten erdiaroko lumalari aiek "H"a. Beraz, Garraye irakurri bear da, dokumentu geienetan Garray idatzirik agertzen zai-gun itz ori. Aitortu dezagun, ala're, "Garraye" bezala euskal-itxura geiago duala agian. "Garray" eta "Garay" itz bat bera ditugu seguruaski; erromatarrek "RR" eta "R" maiz alkar-trukatzen bait zituzten: "Calagurris", "Calaguris" adibidez. Eta "Gracurris", "Gracuris"; "Biturris", "Bituris"; "Turriasso", "Turriasson"... Danadala, Soria-ondoko Garray edo Garay erromateko Numanzia bera danik ez du gaur iñork zalantzan ipintzen.

"Gauza zailla da leku aietaz ezaguera ziur bat atzematea, alde batetik, jendeek tokiz aldatu oi dutelako, eta bestetik lurralde aiek oso ezezagunak diralako. (...) Lurralde `barbaro' eta urrutietatiko albisteak, urriak izateaz gaiñera, ez dira batere ziurrak izaten. Ainzuzen, greziarregandik urrutien dauden lurralde aiek dira gutxien ezagutuak" (I. e .111,4-19). Euskalerrria izan berriz orduan ezagutzen zan mundu labur artan, Egear-Itxasoaren alde bietan bizi ziran greziarregandik urrutien aurkitzen ziran lurraldeetako bat.

Orra zeñen emeki esan digun Estrabon legunak, Euskalerrriaz ezer ziurrik ez dakila.

Estrabon'en, beste greziarren eta gaiñerako edestilari aien iturria, Euskalerrriko berriak jakiteko, salerosleek eta bereiziki gudariak esaten zieten izan oi zan. Eta, ona, nolako aolkua damaigun beste edestilari batek, Tito Libio'k, mota ortako albiste-iturrietaz ari dalarik; ez dala salerosle eta gudariak esanei sinispen aundirik eman bear, beren buruen aundinaikeriak arrotuta, puztu egiten omen dute ba kontatzen duten guztia.

Ta, ori dana naikoa ez ba'litz bezala, badute edestilari atzerritarrek gure gauzetaz zuzenki mintzatzeko, eragozpen galantik gure izkuntza ber-beraren aldetik ere: Euskeraren itzak zintzo aditu eziña.

Entzun dezaiozun berriro, Estrabon elendarrari: "Izen oien zakartasuna lara2skatzen ez ibiltzearren ez naiz izketan geiago luzatuko; norbaiten, adibidez onako izen auek irakurtzen aritzea atsegin ez ba'zaio beintzat: Plentauroi, Barduetas, Eta badira izen oiek baiño gaiztoagoak eta illunagoak ere" (1.c. 111,4,12)19.

---

<sup>19)</sup> Barduetas oiek Bardulitarrak dira, Estrabon'ek berak beste leku batean jakiñerazten digunez. Izen orren etimologiari-buruz galde au egingo nieke orrelako gaietan jakintsu diranei: "Barduli" itzak Lez ote zuan aurretik erro-matarrek entzun ez zioten "I" bat? Barduli ez ote zan euskeraz Ibarduli? "Ibar" zer dan badakigu. Zer ote da "uli"? Ez beintzat beti "uri"ren aldakuntza. ULI du izena, gaurko bardulitarren muga egiñez, Berastegi ta Leiza artean, bidezabaleko mendatetxo batek, eta an ez da beñere uririk izan. "ULi"z asten diran izenak edo "tli"z amaitzen diranak, asko ditugu. Zer ote tarteko "D" ori? Ez da "DE"ren laburpena (Ibar d'ULi), laburpen ori elendarren eta erromatarren artean oiturazkoa ez zalako. Ez zuten, eztare, "D" ori goxagarritzat erabiltzeko oiturik ere. Ez da beraz "Ibar" eta "ULi"ren arteko itz doifiu-goxagarri bat. Zer ote da ba? Erromatarrek Ibarruli gaizki entzun izatearen ondorio bat? Baleike. Danadala, "Duli"z asten diran itzak baditugu. Dulanzi, adibidez, bardulitarren

Era berean mintzatzen zaigu Appiano Krist' osteko iI mendean: "Metuendae uoces complurium et minaces, p[acatorum iuxta et irascentium": "Asarre dabiltzanean bezala, paketsu daudenean ere bildur-ikara-sortzaiiiek dira geienbat aien izketak" XV,12,2).4

Orra zeñien emeki esan digun Estrabon legunak, Euskalerriaz ezer ziurrik ez dakila.

Estrabon'en, beste greziarren eta gaiñerako edestilari aien iturria, Euskalerriko berriak jakiteko, salerosieek eta bereiziki gudariak esaten zieten izana izan oi zan. Eta, ona, nolako aolkua damaigun beste edestilari hatek, Krist'aurreko Tito Libio'k, mota ortako albiste-iturrietnz ari dalarik; ez dala salerosle eta gudarien sinispen itxurik ipiñi bear, beren buruen aundinaikeriak arrotuta, puztu egiten omen dute ba kontatzen duten guztia.

Ta, ori dana naikoa ez ba'litz bezala, badute edestilari atzerritarrek gure gauzetaz zuzenki mintzatzeko, eragozpen galantik gure izkuntza ber-beraren aldetik ere: Euskeraren itzak zintzo aditu eziña.

Entzun dezaiogun berriro, Estrabon elendarrari: "Izen oien zakartasuna lardaskatzen ez ibiltzearren ez naiz izketan geiago luzatuko; norbaiteri, adibidez onako izen auek irakurtzen aritzea atsegin ez ba'zaio beintzat: Plentauroi, Barduetas, Allotrigas... Eta badira izen oiek baiño gaiztoagoak eta illunagoak ere" (1.e. III,4,12)'.  

---

Iurrean aurkitzen zan Araba'ko Alegria'ren izena dugu, eta Dulanz, Naparroa'n Ergoiena Araneko Lizarraga'ren mendi bat. Dulau, Gorbeia'ko arrupe bat. Eta badira geiago ere.

<sup>29)</sup> Barduetas oiek Bardulitarrak dira, Estrabon'ek berak beste leku batean jakiñerazten digunez. Izen orren etimologiari-buruz galde au egingo nieke orrelako gaietan jakintsu diranei: "Barduli" itzak ote zuan aurretik erromatarrek entzun ez zioten "I" bat? Barduli ez ote zan euskeraz Ibarduli'? "Ibar" zer dan badakigu. Zer ote da "uli"? Ez beintzat beti "uri"ren aldakuntza. ULI du izena, gaurko bardulitarren muga egiñez, Berastegi ta Leiza artean, bidezabaleko niendatetxo batek, eta an ez da beiñere uririk izan. "U11"z asten diran izenak edo "uli"z amaitzen diranak, asko ditugu. Zer ote tarteko "D" ori? Ez da "DE"ren laburpena (Ibar d'Uli), laburpen ori elendarren eta erromatarren artean oiturazkoa ez zalako. Ez zuten, eztare, "D" ori goxagaritatzat erabiltzeko oiturik ere. Ez da beraz "Ibar" eta "Uli"ren arteko itz doiñu-goxagarri bat. Zer ote da ba? Erromatarrek Ibarruli gaizki entzun izatearen ondorio bat? Baleike.

Era berean mintzatzen zaigu Appiano Krist'osteko 11 mendean: "Metiando aizez cumplira'n et minaces, placatorum iuxta et iraseentium": "Asarre dabiltzanean bezala, paketsu daudenean ere bildur-ikara-sortzailleak dira geienbat aien izketak" (Iberik6, XV,12,2).4

Zearo erabilkaitzak gertatzen zitzaizkien, idazteko, gure errien eta jendeen izenak.

Alatagutziz, ez da guztia zakarra gure arbasoei-buruz Appiano'k idatzi ziguna: "Tersi tamen pari diligentia cuneti et, mundi, nee in tractibus illis, maximeque apud Aquitanos uir poterit aliquis uidere uel femina, ticet perquam pauper, ut alibis frustis squalere pannorum" (ib).

Euskeraz:'

"Danak ordea garbi ta txukun ikusiko dituzu; eta, beste nonnai, bai, ikusi oi diran bezala, ez duzu iñoiz aien lurraldeetan, Akitaniarren artean bereiziki, gizon ala emakumezko bat, naiz arras txiroak izan, zarpa zarrez jantzita ikusiko".

Euskaldunak, bai..., Euskaldunak, txukunak, garbiak, dotoreak, baiñan Euskaldunen izkuntza, basatia, belarrientzako entzun-gaitza ta adimenarentzat ulerkaitza. iBai egokia, Appiano'ren izketa ori Mantxa'ko Don Kixote'z idazten ari izan zan urteetako Unamuno'ren oldozkerarekin kidatzeko! Orixe bait zan garai artako Unamuno arroxkoaren jardunkera: Euskalduna gooratu Euskerara begiratu.

Appiano'k, ordea, kontzientzipearen barrendiko aize okerrik gabe, era zintzoan goratu zuan Euskaldunen dotoretasuna, eta iñondiko gorrotorik gabe azpimarratu bere usteko "Euskeraren gogortasun bildurgarria" eta "Euskerazko itzen ulertezintasuna".

Ez da beraz arritzekoa Euskalerra Zar artako leiñu edo tribuen kopurua ta leiñu aien eta leiñu bakoitzeko errien izenak ematerakoan, antziñako idazleek batera ez etortzea. Aiek bezain baldar ibilli bait zaizkigu geroagokoak ere, gaur-gaurr-egun arte, gure erri eta gure jendeen izenak aipatzerakoan.

\* \* \*

---

Danadala, "Duli"z asten diran itzak baditugu. Dulanzi, adibidez, bardulitarren lurtean aurkitzen zan Araba'ko Ategría'ren izena dugu, eta Dulanz, Naparroa'n Ergoiena Araneko Lizarraga'ren mendi bat. Dulau, Gorbeia'ko arrupe bat. Eta badira geiago ere.

Danadala, atzerritik etorri zitzaizkigun Erri zaar aiek, lenen Indouropatarrak, Keltiarrak, Iberitarrak, eta bien nasketatik Keltibertarrak aiek Euskaldunekin pakean bizitu zirala esango nuke nik, Krisraurreko III mendean beste Erri batzuetako jendeak Euskalerrri zabal aren mugetaraiño iritxi ziran arte.

Len etorritako Iheriar eta Keltiar aiek baiño askoz indartsuagoak ziran oraingo Erri berri auek: Afrika'tiko Kartagotarrak alegia, eta Itairtik zetozen Erromatarrak,

Iberiar, Keltiar eta Keltibertarrek gaiñera, Euskaldunekin pakean bizitu ez ezé, Euskaldundu ere laister Euskaldundu ziran, Kantauritarrak izan ezik.

Bi izan ziran azkar-Euskalduntze orren zioak: atzerritar aiek gutxi izatea eta aien eta Euskaldunen ekonomiak alkar-osagarTiak izatea.

- Gutxi ziran, eta beren "kastrum" edo "uri anesituak", agian Bizkai'ko Mungi-aldean izan ezik, bata bestearengandik urruti zeuden. Eta "uri" auek beraiek ere, oso uritxo koxkorak ziran. Oso-oso txikiak!

Uri oietatik garrantzitsuena, emen, Araba'ko Biasteri'ren albo-alboko Laoya<sup>i</sup> n zegoana dan.

---

<sup>21</sup> Ez dira bear bezala Bizkai'ko iKeltiarren? nortasuna, nonditikotasuna, nolakotasuna, ta beren ezahaketaren zergaitia, oraindik bear bezala aztertu Ezta Gipuzkoa'koena ere. Orrelako azterketa hatean saiatzea, ez da liburu onen eginkizuna. Danadala arras kezagarri gertatzen zaizkigu Mungialdean adibidez etimologi txit zailleko ainbat toki-izen aurkitzea. Eta Bizkai'n ez ezé Gipuzkoa'ren barruan ere agertu zaizkigun "kastroak" ere esnaarazi digute gure jakin naia. Zoritzarrez, ez da jende aien siniskerarekin zer ikusirik izan deza-keanetik deus idoro.

<sup>22</sup> "La Hoya idazten dute gaur-egun gure jende gazteleratuek, Iturrieta-Mendiko "Laminoria" ere "La fvfinoria" idazten duten bezala. "Hoya" itza, gazteleraz "Hoyo" itzaren emakuntza da, eta "zulo aundia" esan nai du. Baiña Biasteri'n "kastrum" ori agertu dan tokian zulo aundirik ez da; ez aundirik ez txikirik. Gaiñera, "Oya", agian "OJA" edo "01A"ren senide, hai atzizki bezala ("Arroya", "Arroyabe", "Arroiz", "Arroju", "Arrojueta" Araba'n bertan) eta bai aurizki bezala ere (Araba'n bertan "Oyardo", "Oyarana, "Oyanko" "Oyar") gure toponimian sarri agertzen zaigun itza da. "Oya" "Oja"ren **edo** "Oja" "Oya"ren aldakuntza izan daitekeala esan dut, emen bertan, Araba'tik irten gabe, aipatu duten "Oyanko"z gaiñera "Ojanko" bat ere bai bait dugu,



Ba", uri orren barrungo etxola guztiak bizi-toki ez zirala gogora ekartzen ba'dugu, an ez zan sekulan 100 (eun) biztanle baiño askoz geiagorik bizitu. Ta urrengo "kastum"ik urbillena, Araba'n, Buradon Aitzaren ondoan, gure Errioxa'ren sarkaldeko muga-mugan agertu-berri dana zan.

Orregaitik ainzuzen zabaldu ziran ainbeste jende aiek Euskalerriko lurretan: Gutxi ziralarik Euskaldunentzat arriskugarri ez ziralako. Oso barruan ere aurkitzen bait dira beraien "kastum" batzuk.<sup>23</sup>

- Atzerritar aien eta Euskaldunen ekonomiak alkar-osagarriak ziran. Artzaintza bereiziki, Euskaldunena; bereiziki nekazaritza, atzerritarrena. Ta, nekazaritzaz gaiñera, buziñ-egosziko langintza eta meatzaritza.

---

"OLLA"ren aldakuntza ez dira beintzat itz oiek. euskaldunok "I"ren, "Y"ren, "LL"ren eta "DD"ren doñuak ederki bereizten bait ditugu, naiz oraingo Euskaltzaindi "el batua" zale doakabe onek, "Y"ari dion gorroto zentzurik gabeak eraginda, "payaso" itza "pallaso" biurtu, eta "pallaso" irakurtzeko "pailaso" idatzierazi. Beste batzuetan berriz, batere errurik gabeko "Y" gaixo ori "DD" biurtu. Orrela, Mitxelena'tar Koldobika'k, Euskaltzaindiak, --"el batua" sagaratzeko Bergara'n egin zuan batzar artan, "yayo-yayoa" "ddaddoddaddoa" idatzi bear zala oi u egin zigun. Eta baita olbeltzean izki nagusiz idatzi ere: DDADDODDADDOA.

Biasteri'ko Laoya'n bizitu ziran jendeei-buruz egin diodan galdeari onela erantzun dit Jesus Altuna'k: "La Hoyan (Laoya'n) bizi zirenak bi Erri edo bi kulturakoak ziren: Zarrenak, Brontze garaiekoak, eta gerokoak, zeltiberoak".

<sup>23</sup>) Garrantzi aundiko idoroketa izan bear du. oraindik aztartzeko, eta orregaitik argitara emateke dagoan Buradon'go ori. Burni-aroko ta erromateko aztarnak ez ezê, erromanikera-aurrekoa ta basiliken itxurakoa dan elizatxo bat ere azaldu bait zaigu bertan. Eta 150 (eun da berrogei ta amar) sarkofago edo zerraldo ere bai! 1.990'koa da idoroketa ori, eta 1.993 onen ekainillean izan da jendeari ezagutzera emana. Ikertzailleek aurkeztuko diguten azalpenaren zai gagoz.

Ikerlari oiek diotenez, askoz gauza geiago egon bear omen du lurpean elizatxo aren iguruan, eta, bait, burni-aroz gero luzaroan bizitoki-izan dan uritxoren bat ere. Baiñan oraingoz, aurrena, orain arte aurkitutakoa bakarrik aztartu eta argiratuko omen dute, gaiñerakoa geroagorako utziz; azterketa ori bukatu zai omen dago ba gelditurik, Errioxa-zear Araba egiten ari dan beribi1-bide zabala.

Aurrera jarrai aurretik oarpentxo bat egin nai nuke. Zaragoza aipatu dut goraxeago. Zaragoza ez zan beñere Euskalduna izan; baiñan seguruaski Euskerazkoa dan izen bat badu: ZALDUBA edo Plinio'ren esaeraz -- Salduba. Berdin da; seguruaski, biak izen bat beraren aldakuntza bi besterik ez bait dira, dirudianez beintzat. Badakigu ba atzerritarrei zeñien zailla gertatu zaien beti gure "Z"ren doñua idatziz ematea, Entzun berari:

"Caesarau<sup>g</sup>usta colonia immunis Hiberu adfusa ubi oppidum antea vocabatur Salduba, regionis Edetaniae" (Naturalis Historia, III): "Zesaraugusta (Zaragoza'ri erromatarrek jarri zioten izena), koloni }area, Ibero'ren alboan dago, len SALDUBA zeritzan uri babestua egon zan tokian; Edetatani'ko lurraldean".

Ikerlari españiarrek izen ori Salduba edo Zalduba Ibertarra dala diote, edo Keltiarra, edo Keltibertarra.

Enda oietako jendeen izkuntzak, ordea, oso gutxi eta arras gaizki eza-guntzen ditugu. Aspaldi illak ditugu gaiñera. Ain aspaldi ere! edestiaurreko eleak geiago bait dira edestikoak baiño. Euskera, ordea, naiz ele guzti oiek baiño millaka urtez zaarragoa izan bizirik eta indartsu agertzen zaigu oraindik.

¡Zerdalata jo bear dugu ba izen baten jatorria **aspaldi illik**, eta obiraturik eta usteldurik dauden izkuntza ia-ia osoki ezezagun batzuetara izen orrek Euskeraz zentzu osoa ta arras erreza baldin ba'du?

Batez ere, izen ori daraman uriak, ots, Zalduba'k, antziña artan, hai sartaldetik, bai iparretik eta hai ipar-sortaldetik, Euskaldunak Euskeraz mintzatu-tuz gain-gaiñean ainzuzen bere atari ber-beretan zeuzkala gogoan artzen ba'dugu!!!

---


<sup>24</sup> Zalduba, euskeraz zentzu osoa duan izena dala esan dut. "B" ori oraindik toki batzuetan erabiltzen duan izki soiñu-goxagarri bat izan daiteke. Gipuzkoa'n, Tolosa'ko kaleetatilc iparrera, batez ere "U" eta "A"ren aurrean oparo ibilli oi dan "B" doiñu-goxagarria. Itxasaldean ez dizute beñere esango "ordua da", "orduba da" baizik. Eta "arcluba", "buruba", "munduba... Baita aditzetan ere. Eta baita "U" ta "E"ren artean ere maiz aski. Aurtengo udazkenean, Tolosa'n bertan, denda bateko neskatillak esana dut: "diska ori banuban baiña ez dakit salduba dedan edo emen, orain sartutako berri auben artean, galduba Orrela, "B" goxagarri ori kenduz, "Zalduba" "Zaldua" biurtzen zaigu.

"Zalduba" "Zaldu"- "Ba" ebaki nai ba'dugu, "BA" ori atzizki beetasun-a-dierazle arras ezaguna dugu. "ZAL" aurrizkiz asten diran toki-izenak, berriz, eta baita itzaren enbor bezala oso-osoan "ZALDU" daramatenak ere **eun-**daka aurkituko dituzu gure iztegietan. Araba'n bakarrik (Gereñu 1. "ZAL-

Gabiltzan ba zugar! Nik beintzat, "Zaragoza" eta hear danean "Zesarau-gusta" erabiltzeaz uzteke, geienetan beintzat Zalduba esango diot, naitanaiez, gure egoaldeko kristauketan eraginmen aundia izanen zuan, Ibero-alboko uri ederrari.

---

DU", ogei ta bat lekutan! Ori, geienetan izen bera dan "SALDU" daramatenak kontuan artzeke!. Gauza ber-bera esan bait dezakegu "SAL", "SALDU" eta "SALDO"ri-buruz.



RnmanizarEiin Ve%Lelarne, u vecielan,K. ilergeles y 1)1E-,5 pueblos de habla vasca cenre el pirineo  
 Krist'aurreko 153'garren urtean, Mediterran-itxasoaren aldeko Ego-Euskal-  
 lerrria. Garai artan euskaldunak ziran noski Lazetiarrak eta Bergistarrak ere;  
 eta baita, agian, orain Xirona esaten zaion probintzi osoa.

## ERRI LUR-EBASLEEN ETORRERA

Orrela aurkitzen zan Euskalerrria Afrika'tik Kartagotarrak eta Itali'tik erromatarrak gure mugetara Krist'aurreko III mendean iritxi ziranean.

Naiz ordurako Kantauri galdu, zabala ta luzea zan III mende artan Euskalerrria; Kantauri-Itxasora sartzen dan Ajo edo Atxo mendiaren ingurutik asita, iristen bait zan sartaldetik sortaldera gaur-egungo Katalauni'Iren barrurairño, eta, ematen duanez, baita, Auñamendiaren bi aldeetan basoz-baso eta aranez-aran, Mediterran itxasoaren ertzerairño ere.

Egotik iparrera, berriz, Ibero-Mendietatik Garona ibaiaren aran guztira; eta, Garona'tik iparrera, seguruaski, itzegiten zan oraindik Euskera Dordoña ibaiaren aran zabalean, batez ere mendi ta basoetako artzai eta nekazarien artean.

Garona'ren ibarretarairño iristen zala beintzat, zalantzan ipiñi ez daitekean gauza dala dirudi. Ez naiz ni bakarrik, orrela pentsatzen duana. Aburu berekoa bait da Albert Dauzat irakasle frantziarra.

"Lole Practique des Hautes Études" deritzan lkastetxe Nagusiko irakasle onen ustez, Euskaldunok Iberitarrak gera bai elez eta bai jatorriz ere. Iberitarrak, asko zabaldu omen ziran Galietako lurretan, baiñan gero poliki-poliki iparraldeko lurra galtzen joan omen ziran, eta Iberitarrak eta Iberiera, ots, EUSkERA, "Julio Zesar'ek Frantzi'ri ekin zionean, Garona'ren ezker-ibarreko lurretan omen zueden kokaturik": "Ils dtaient cantonné en Gaule, lors de la conqu'ête de C6sar, sur la rive gauche de la Garonne et dans la r gion pyren&nne" (L'Europe Linguist. op.c.33).

Euskera iristen zan oraindik, dirudianez, Mediterran-Itxasora, naiz Ferran Soldevilla'ren ustez, ordurako, sortaldeko egal ura, agian, ots, agian bakarrik, "probablement", zerbait mozturik eguki: "Probablement l'iberic s'havia superposat al base des de la Cerdanya a la Metlitterrania" (op.c. 22 or.). Baleike iberieraren garaitza ori toki zelaietan-da agian ordurako gertutua izatea, baiñan sinistekoa da Auñamendi'ko baso eta aranetan Euskera oraindik itxasorairño bizirik jarraituko zuala. Zalantzarik gabe uste du ori Albert Dauzat'ek ere, aipatu-berri dugun bere liburuk mapa bitan ikusi dezakezunez (op.c.32).

Izan ere, Ferran Soldevilla'k berak aitortzen du, AMAIKAGARREN mendearen asieran bizirik ziraula oraindik Euskerak Lerida'ren iparraldean: "El vasc va perdurar a Alt Pallars fins als voltants de l'any 1.000 (Resum. d'Hist. Paisos Catal.op.c. 27). Bapo, Ferran! Baiñan ez al zaizu iduritzen Krist'osteko AMAIKAGARREN mendean Lerida'ko iparrean euskerak bizirik jarraitzen ba'zuan, Krist'aurreko IRUGARREN mendean Euskera, Lerida'n ez ezê Mediterran-Itxasoaren ertzetan ere itzegiten zala, kezkarik gabe uste izan daitekean gauza dala? Batez ere, orduan Ausa, edo Auza, izen-zeraman Vien uriaren ingurutik Narbona urira arteko toponimia, agertzen zaigun bezala, nabarmenki, uste orren alde agertzen ba'zaigu?

Ueska uria ez dago mendietan, bere probintziaren gerri-aldeko zelaietan baizik; Zalduba'tik aski bertan. Badakigu, ordea, uri artako agindu baten bidez, naiz zelaiean egon, Ueska'ko azokan Euskeraz egiten zala I.349'an. Krist'osteko XIV mendean Ueska'n Euskeraz egiten ba'zan, eta XTea oraindik Katalaurd'ko mendietan Euskera bizirik ba'zegoan, iruzurturik ibiltzeko zalantz aundirik gabe aitortu daiteke Krist'aurreko III mendean Euskera iristen zala Mediterran-Itxasora Auñamendiko ibarrak eta aranak-zear.

Euskalerrri zabal ori anitz tribu edo leiñutan zatiturik aurkezten digute edestilari erromatarrek; bai eleneraz idatzi zutenek eta bai lateraz idatzitakoek ere. Baiñan ez dituzte danek leiñu berak aipatzen. I mendean idatzi zuan Silio Italico olerkariak, berriz, ez du aipatzen Eusko-leiñurik. Itz bat bakarra erabilli oi du beti (,Euskaldun orentzat? soilki Baskoientzat?): "Uasco"; gaur-egungo ortografiz, "Vasco".

Besteek aipatzen dituzten leiñu-izenak ez dira, itxuraz beintzat, Euskal-izenak. Keltiarrak dirala esan duanik ere izan da. Baleike ordea *izen* oiek erromatarrek oker entzun, okerrago oroitu eta askoz okerrago idatzitako Euskal-izenak izatea. Orrela, adibidez, "vaskones" itzaren "Basko" edo "wasko" bera, gaizki jaso eta gaizki emandako "Eusko" itza heher-bera dala bait dirudi.

Toponimiak erakusten digunez, Leiñu oietako gizakume guztiek izkuntza bat bera itzegiten zuten: Euskera. Ez ordea, Barandiaran'ek oroiterazi digun bezala, danek era berean, Euskeraren batasuna ez bait da lateraren batasuna bezala "monolitikoa", ots, "arritzar baten itxurakoa", eleneraren antzera "pluriforme", "era askotakoa", baizik.

Eta orrela jarraitzen du Euskerak gaur ere: laukoitza; laukoitza izan bait zan, haitare, elertizko eta filosofizko elenera klasikoa bera ere.<sup>25</sup>

Berdiña zuten Euskalerra Zar eta Zabal artan eusko-leifittetako jendeek izkuntza, eta izkuntza bezala berdiña zuten erlijioa ere:

- A): Jainko bat. Jainko Nagusi bat 1->eintzat: Urtzi; Jaun Goikoa. Eta, argiz eta indarrez, Urtzi Jaun Goi-Goiko aren begi eta ordezkari bezala, Eguzkia.

B): Jainkotxiki ta erdijainko eta erdijainkeme ugari: gaiztoak batzuk, onak besteak; Anboto'ko Mari; iturri, ibai eta itxasertzetako Lamiak; Erensu-geak; leiza-zuloetan bizi ziran Tantal'o-ren antzeko gizakume arrigarriak, zezanak, zaldiak, era ezberdiñetako piztiak; lamien itxurako erdi-emakume-ta-erdi-pizti miresgarriak; A! ta Olentzaro bezalako basajaunak... Ta, 1,nola ez? mendi, arri, iturri, landare ta zugaitz sagaratuak. Lizarrondo adibidez.

A<sup>g</sup>ian, iturri eta ibaietako lamiak aipatzen ditu latinezko izenez, Blgorre'n agertu dan aldare-arri batek. "Osasuna eskatuz lamiñei agindua, ondo irabazi dutelako atseginki betez", aldare bat eraiki bait zien "Severio Seranus", -- Seberio Seratarra zeritzan Auñamendi'ko gizaseme batek: "Nimphis Pro Salute Sua Sever(us) Seranus V(otum) S(olvit) L(ibenter) M(erito)", aldare-arri ortan bertan irakurri daitekeanez.

- D): Toki sagaratuak: mendi ta muñoen gaillurrak bereziki, eta iturri batzuk. Ain zuzen lendik sagaratuak ziran toki oietan eraikiko ditu kristautasunak bere eliz eta baselizak. Ala, Anton Done abere-zaindari kristauaren baseliza, adibidez, len Mari jainkeme abere-zaindari jentilla gurtzen zan Urkiolla-Mendi'n.

- E): Denbora sagaratuak. Astero: astelena, asteartea eta asteazkenaz geroko lauak: osteguna, ostirala, larunbata, igandea. Illero: illargi betearen

---

<sup>25</sup>) Ori izan da Euskaltzaindiaren pekatu orokorra: Euskeraren batasuna Latiñarena bezala monolitikoa zala uste izatea. Euskeraren batasuna ordea, Elenera Klasikoarena bezala, laukoitza da: lau Euskalkiz, Bizkaieraz, Gipuzkeraz, Laburdieraz eta Zuberoeraz -- osotua. Eta Euskeraren batasuna, euskaldun bakoitzak bere Euskalkia ondo ezagutzean dago, berea ondo ezagutzen ba'du, besteak ere ulertuko bait ditu. Beste edozein Batasun ez da Euskeraren batasuna, eta, okerragoa dana, zuzenean Euskera eriotzara darama.

eguna. Urtero: ekaiñaren, ots, eguzki-goraren, eta, abenduz, eguzki-beeraren edo negu-mugaren bezperako illunabarra, sua piztuz Eguzkia gurtzeko.'

- F): Liturgia: aipatutako egun oietako su-piztuketara, adibidez. Egiazko liturgia zan, eguneroko bizitzaren <sup>s</sup>uzietarako, magigintza bera ere. "izenik gabeko Jainko baten" omenez, illargibete-gaueko jai sagaratua eta jai ortako erlijio-dantza aien berri, eman zigun Estrabon'ek ere.'

- G): Gauza sagaratuak: Eguzkiaren irudi diran karda-lorea eta lauburua. Ta, Urtzi'k tximistaz jantzita lurrera bidaltzen duan suzko aizkoraren oroigarri dan arrizko aizkora. Oraindik, Euskalerriko artzaiek, edestiarreko aizkorarik aurkitzen ba'dute, arrizko aizkora oiek, lurrera etorri, lurpera sartu, an itzali, eta arri otz bihurturik lur gaiñera irten diran tximistak dirala esan oi dute. Asko ez dala bazuten oraindik gure artzaiek oiñaztarri ta tximisten aurka txabolaren sarreran mingaiñaz gora aizkora bat ipintzeko oitura.

- Eskierki, bizirik ziraun noski Euskaldunen artean kromañondarren denboratik zetorren "animismo" edo izaki bakoitza animaduna dalako siniskeriak. Ortik noski zugaitzenganako, batez ere zugaitz bereizi batzueganako, siniskeria. Erromatekoan beintzat zugaitz batzuk gurtu ere egiten zituztela hait dirudi, Akitani'n agertutako aldare-arri batzuek aditzera eman dezaketenez: Sexarbori Deo, Sexarbori Deo (bigarren aldiz), Sexarboribus

"Sexarboribus": "Arbor", lateraz, zugaitza da. "Sex", zer dan ez dakigun zugaitz-mota baten izena, bearhada. Zugaitz oiek jainko lez gurtuak zirala, berri, ezpairik gabeko gauza da. "Jainko" esaten bait zaie idazki oietan: "Sexarbori Deo". Euskeraz, "Sexarbol Jainkoari".

Zugaitz bati, Artean, eskeiñia izan zala dirudi "Arteh Deo" ren omenez, "Arte Jainkoaren" omenez, eraikitako aldarea. Pagoari eskeiñia berriz "Fagus Deo"ri, ots, "Pago Jainkoari" opaldua.

- Abere sagaratuak bai ote zuten burni-aroko Euskaldunek?

---

<sup>26)</sup> Jakiña da nola sagaratu zituan mundu guztiko jentilledian ain sagaratuak ziran bi gau oiek, negukoan Josu'ren jaiotza eta udakoan Donibane'rena ipiñiz. Eguzkiaren goratarrez piztutzen zan su aren jarraipena dugu gaur-egungo kristauok "San Juan Gabeko Sua".

Aztertuko dugu sakonki, bere tokian, Estrabon'en esakizun ori, eta esakizun ori datorren atala, eleneraz eta euskeraz, liburu onen atzeko eraskiñen artean aurkituko duzu.



Baleike. Baiñan Euskaldunen arteko abere-gurketa, erromatean agertzen zaigu nabarmen. Orduan bai, ugari agertzen dira orduan Akitani Zarreko lur zabaletan abere jainkoei eskeiñiak izan zirala diruditen aldareak: "Baicorrixo (Beigorritxo?) Deo"; "Baigorritxo Deo"; "Asto Illuno Deo"; "Arixo (Aaritxo?) Deo"; "Aherbelste (Akerbeltxe) Deo". Abereak zirala dirudi Euskaldunek Akitani'n gurtutako beste sasijainko auek ere: "Beisiris" (Bei Siris?), "Erge" (Ergi?), "Belixama (Bete Xama? Bei Xama?)", "Balosi" (Bei Osi?). Era askotan idatzia agertzen da Akitani'ko aldare-arrietan ien ere aipatu dugun sasijainko onen izena: "Baigorix", "Baieorrix", "Baigoris", "Baigorixo", "Baieorixo", "Baigorisco", "Baicorrixo", "Buaicorrix", "Buaiorix" (Bei Oritxo?).

- Izen guzti oien enbor-izena "bei" dala egia ba'da, ez zan nolanaikoa, ez orixe, Akitani'ko Euskaldunek, Auñamendipekoek batez ere beiari zioten eraspena!

Aztikerian ere yayoak izan zitzaizkigun gure arbaso aiek. Ain yayoak ere!!! Eginkizun ortan Euskaldunak garaitu izatea gurenda aundizat euki bait zuan mende batzuk geroago Alexander Sebero inperatoreak! Entzun agintari orren bizitza IV mendearen asieran idatzi zuan Elio Lampridio edestilariari:

"Haurispeinae quoque peritissimus fuit, orneoskopos magnus, ut et Vascones Hispanorum et Pannoniorum augures vicerit"<sup>28</sup>: "Aztikeriz ere txit yayo izan zan, egundoko egazti-begiraillea, Ispanieta'ko Baskoiak eta Pannonitarren aztiak garaitzeraiiokoa".'

"Orneoskopos" itza, eleneraz damaigu Lampridio'k: "Egazti begiraille" esan nai du. Egazti bizien egakera eta egazti illen erraiak aztertuz etorkizuna igartzen arras trebeak izan zitzaizkigun, dirudianez, gure arbaso zaarrak, Krist'osteko III mendean, Alexander Sebero'ren denboran. Orrelakoak ote ziran Krist'aurreko III mendean ere, erromatarrak onera etorri ziranean? Ala erromatar aztikerizale portitzengandik ikasi ote zuten "trebetasun" ori?.

---

<sup>27</sup>) "Vita Alexandri Severi", XXVI. Ikus liburu onen asierako Bibliografia. An aipatzen dan bilduman, Lanpridio'ri dagokion liburuko 463'gn. orrialdean bait dago eman dedan esaldi ori.

<sup>29</sup>) Pannoni izeneko probintzia, Danubio ibaiaren bi aldeetara, gaurko Ungari dagoan tokian, gaurko Ungari au baiño audixeagoa zan.

Danadala, aztikeriz egazti-erraiak lardaskatzeari dagokion ortan, Alexander Sebero'ren denborako Euskaldunak beintzat ez ziran noski erein motzeraiño iritxi!

Ori izan zala dirudi, gutxi-gora-bera, Krist'aurreko III mendean Euskalerriko erlijioa: Urtzi Jainkoa, edo beintzat Jainko Nagusi; Eguzki, Urtzi'ren ordezkari; jainkotxiki eta jainkemetxiki batzuk; animismoa; magia; aztikeria, Au dugu beintzat gaur-egungo ikerlari jakintsuen iritzia.

Baiñan, danoi zemaika, eta zemai orri sakonki erantzun-ematera iñor ausartzen ez dala or dakusgu Krist'aurreko I mendean Estrabon'en aitopen arrigarria:

"Batziek diotenez, galiziarrek jainkorik ez dute, eta keltibtarrek, ETA IPARRALDETIK AUEN AUZOKO DIRANEK, IZENIK GABEKO JAINKO BAT GURTZEN DUTE illargi beteko gauetan, beren errietatik irtenda, ingurutxo-dantzak egiñez eta beren sendikoeekin gau-jai bat ospatuz": "Keltiberas kai tous prosbdrous t8n Örndron aittoÏs ANONUMO TINT ZEO taIs pansel&lois nUkr prb tfin puln panoildous te joreiiein kai pannujizein"

Noski, testigu edo lekuko bat bakarra ez da naikoa, jakintzen arauz Euskaldun aiek monoteistak, ots, "jainko-bakar-gurtzailleak" zirala egitzat onartzeko.

Gaiñera, Estrabon'ek ez du ori bere arioz esaten; alderantziz, ori, "beste batziek diotela" esaten digu. Guk ordea, "beste batzu" oiek nor izan ziran ez dakigu; ezta, Euskalerrria kixaz ezagutzen zuten ere; eztare, beraz, aien itzek nolako balioa izan dezaketen.

Baiñan alatagutziz, or dago Estrabon' en esari miresgarria: "Gure asabek izenik gabeko Jainko BAT gurtzen zutela".

Esan dezagun ordea, zintzotasunak eskatzen duan gauza da-ta, Estrabon'en "TINI ZEO" orrek, bere zentzu estuan, ez duala Euskaldunak monoteistak ziranik adierazten. Ez bait du Euskaldunek izenik gabeko Jainko BAKAR BAT gurtzen zutenik esan nai, baizik, soilki, Euskaldunek izenik gabeko jainko bat gurtzen zutela: gazteleraz, "adoraban a un eierto dios innominado"; Euskeraz, "alako jainko izengabe bat" gurtzen zutela. Ori bait da "TINT" itzaren zentzua: "Un indeterminado Dios", gazteleraz; "alako jainko bat", Euskeraz.

Baiñan..., politeismorik uffarieneko aro artan..., Euskaldunak politeistak izan ba'lira..., eta beren "jainko izenge" ori beste jainko askoren artean gurtzen zuten jainko bat besterik izan ez ba'litz..., orrelako jainko ori aipatzeko

esan dezagun berriro politeikeririk nabarmeneneko garai artan... iez zuan Estrabon'ek, ez orixe, nekerik artuko!

Euskaldunek izenik gabeko jainko baten gurtzaille izateak ere ez zezakean Estrabon arritu, "izenik gabeko jainkoak" eta "jainko ezezagunak" bai bait ziran ugari beste errialdeetan ere. Greziarra zalarik Estrabon'ek ederki eza-gutzen zuan "izenik gabeko" jainko oietako bat: Atenas'ko Areopago enparantzan, "Ignoto Deo" edo "Jainko Ezezagunari" **aldare bat hazuan** jainko ura; laister Paul Doneak ospetsu eginen zuana. Aldare aren aurretik itzegin bait zien atenastarrei.

Zalantzaren izpirik gabe aitortu daiteke beraz, Estrabon'ek Euskaldunen erlijioari eskeintzen dion aipu ortan Euskaldunek Jainko Bakar Bat gurtzen zutela, esan nai izan zuala.

Eta, "ezezaguna" eta "izenik gabea" gogoeta bat beraren adierazbide diralako, era berean esan daiteke Estrabon'ek "TINT" itza erabiltzean "Anonumo" itzaren "pleonasmu" edo "gogapen bat beraren birresate" bat damalgula, ainbeste arritu zuan "alako Jainko" aren gurketak sortarazi zion arritasuna era ortan indar geiagoz erakutsiz.

Ori, nik diodan ori, ez da, ez noski ziurtasun oso-osoko egia. Bai ordea probabilitate edo aaltasun arras aundikoa. Bere balioa nolabait neurtzeko, jo dezagun gure pelotalekuetara. An, baiezkoaren alde "milla zazpireurti" oiu egingo lukete artekariak, eta apika, beetik, ezezkoaren alde, iñor sartuko litzaken, Alare, esan dezadan berriro, irakurlerik atzipetu ez dezadan, guzti ori nere uste bat besterik ez dala: uste utsa.

Nere oldozkera zeatzago agertzearren zillegi bezait onako aitorpen bikoitz au: Seguruaski nik eman diodana izanen zala Estrabon'ek esakizun ospetsu orri eman zion zentzua: monoteista. Estrabon'ek eman zion zentzu monoteista ori Euskalerrian benetan egiazkoa gertatzen zan... ez dakigula! Edo, berdin dana, naiz Estrabon'ek Euskalerria rmonoteista uste, Euskalerria monoteista zan ez dakigula. Estrabon'elc berak adierazi digun lez, bere esakizun orren oiñarriak anitz bait dira labairialc! A!, ta, zerbait balio izatekotan ere, esakizun orrek, soilki Erromatarrek onera etorri aurrerako bakarrik balioko lukeala, Erromatarrek etorri ezkeru, politeista edo agian enoteista agertzen bait zaigu Euskalerria: jainko txiki ugariren arteko jainko nagusi baten gurtzaille.

Bai noski bai, egia da ez zala ori izango Estrabon'ek bere "tini deo" ari eman nai zan zion zentzua, enoteistak, erlijio jainkoaskodun guztiak izan bait dira. Ala adibidez Estrabon beraren garaieko greziarrena, jainkoa jainkerne asko Zeos jainko nagusiaren azpian. Beste orrenbeste erromatarrena: jainko jainkeme pillo ugaria, Jupiter jainko nagusiaren esanera. Ez zuan beraz Estra-

bon'ek zertaz arriturik izango, ezta sure asaben "anonumo tini Zeo" ura aipatu bearrik ere, Euskalerriko erlijioa enoteista izan ba'litz. Ez dezagun ordea burutik galdu esan-berria dutana: gauza bat dala Estrabon'ek uste zezakeana, eta beste bat Euskalerrian gerta zitekeana.

\* \* \*

Ta, Estrabon'en garaiean jainkotxikiaskodun Erria agertzen bait zaigu Euskalerrria, eta jainkotxiki aien artean jainko nagusi bat izatea zentzu osozko gauza bait da..., galde bat orain: jainko nagusia ark izenik ez zualako, "anonumo tini Zeo" edo "izenik gabeko Jainko bat" ari, orrexegaitik ainzuzen, izenik ez zualako, esaten ote zioten Euskaldunek "JAUN GOIKOA"? Edo, alderantziz jainko ari euskaldunek "Jaun Goikoa" esaten ziotela entzun zualako izendatu ote zuan Estrabon'ek "anonumo Zeo"?, ots, "izenik gabeko Jainkoa"?

\* \* \*

Badakit, Euskal-gramatikaren araura "gaizki eratuta omen dagoalako", izen ori bera dala askorentzat Euskaldunen jainkobakartasunaren aurkako arrazoietakoa bat. Baita nere adiskide maite dan Arrinda'tar Anastasio apaiz jaun txit jakintsuaren arrazoietakoa bat ere. Ikus bere idazkera:

"Monoteismo. Al libro "AVERIGUACIONES..." del P. Henao, en la edición E. L6pez, se añadió el apndice IV en que se afirma que los cntabros (le'ase vascos), se conservaron en el rnoteismo o conocimiento del culto del verdadero Dios, sin admitir el culto idokitrico y el politeismo...

"Toda la afirmacin se basa en la etimologia del nombre con que hoy se llama a Dios en vasco: JAUNGOIKOA, o Señor de lo Alto. Sobre base tan endehele se sostienen tan graves afirmaciones.

"Julio Cejador afirma que antes que Moiss los vascos invocaban a un Dios con el nombre de JAUNGOIKOA.

"Y Luzuriaga en su "PARANINFO CELESTE: Historia de la mística raza, milagrosa imagen y prodigioso santuario de Arãnzazu", pone a Tubal, nieto de en el puerto de Bermeo, cantando en versos (seria el primer bertsolari?), la idea pura de Dios, creador de Cielos y Tierra... JAUNGOIKOA.

"Y todo esto, cuando probablemente la palabra JAUNGOIKOA, es una composición gramaticalmente de adente y relativamente reciente; pues en vasco puro debiera haber sido compuesto con los t&minus JAUN y GOIKOA

invertidos de modo que dijera GOIKO-JAUNA y no JAUN-GOIKOA, palabra compuesta al modo romance y no vasco" ("Magia y Religión Primitiva de los Vascos" l.c. 69-70).

Barka bezait Arrinda adiskide miñak, eta barka bezaidate ontan Arrinda'rekin bat datozen beste jakintsu agurgarri guztiek, ni, nere ezerezetik, danei, arrazoirik ez dutela esatera ausartzen ba'naiz. Jaungoikoa ez bait da Euskal-gramatikaren araura gaizki eratutako itza. Jaungoikoa itzak ez du "Señor de lo Alto" esan nai. Ori. "Goiko Jauna" izango litzake. Baiña "Jaun Goikoa" itzak ez du "Señor de lo Alto" esan nai, "Señor Alto" baizik: "Señor Excelso" esan nai du, "Jaun Goi-Goikoa" itzak "Señor Altísimo" esan naiko lukean bezala.

Alatagutziz, eta ontan zearo bat nator, gai auetaz nik baiño askoz geiago dakian Arrinda nere lagun Doktoarearekin ez dut nik ziurki uste, aro zaarrenetako Euskaldun aiek jainko bakar baten gurtzailleak ziranik, gauzak urrutitik ezagutzen zituan Estrabon lekuko edo testigu bakarraren lekukotza bakarra ez bait zait ziurtasunera iristeko arrazoi naikoa iruditzen. Alare, egia da, Euskaldunak Jainko bakar baten gurtzailleak ez zirala oi u egiteko ere ez dugula arrazoi borobillik.

Baiñan ezezkorako arrazoirik ez izatea ez da baiezkorako, ots, Euskaldunak Jainko bakar baten gurtzailleak zirala esateko, arrazoi naikoa. Zerbait egizat emateko bearrezkoak bait ditugu oiñarri sendoak. Eta Eusko-jainkobakartasunaren alde oiuka ibiltzeko, orrelako oiñarri sendorik ez dugu. Esan dugun lez, idatzita, XIV menderaiño ez zaigu agertuko "Jaungoiko" itza. Iruña'ko Katedralaren liburutegian gordetzen dan "Pater Noster Chiquito" izeneko sasiotoitz batean ainzuzen.

Ona, "Aitaguretxo" orren itxura baldar arlotea: (Aurretik, ordea, oartu ditzadan nere irakurleak, zentzurik ez duan sasiotoitz orrek Euskeraz eta latinez ida7ten apika zekianen batek eratu ematen duala, edo, naiz idazten jakin, umeei, jostaketarako, "zer-esan-nai-dedan-ezetz-asmatu" izen-duten izkirimiri oietako bat eskeiñi nai izan zien batek sortua).

Ori..., beste ainbat eta ainbat siniskerizko otoitz bezala, erriko jende landerraren siniskerirako eusko-folklore aberatsaren altzoan sortutako loretxo bat ez ba'da! Itxura ortako otoitzak aurkezten bait dizkigu gure folklore na-roak: lortu nai duzu? iOsasuna? Zoaz eguzkia agertu aurretiko intzetan oiñutsik alako baseliz artara, eta errezat u egiozu ango Santuari onako otoitz au iru aldiz; eta era ontara; ora ortara esate ez baduzu otoitzak ez bait dizu bate-re-batere balioko". Ilkus Iruña'ko lore pinpirin ura:

"Virgo todauja cletnens, Virgo pia, Virgo Dulcis        todauja.  
 Pater noster chigia Deus peretencia lur(r)a.c da(ca)r og...  
 coÇa ardan bustia,, baradizu menda verde macu onac ard...  
 liburuetan iracurten, arduiÇaigi eraieten  
 dauilca Jaungoikoaren apostru mestru jaun d...  
 arima salvatu"

Ez da ori, Jaungoikoaren izena ematen digun XIV mendeko otoitz bakarra, "Principe de Viana" aldizkarian (LXVI, 241) agertu bait ziguten D. J. Grifford eta M. Molhe'k "Aitagure" parragarri orren antzeko beste bat, au ere Iruña'ko liburu batean aurkitua<sup>30</sup>.

Eta, onek ere "jaungoiko" izena badakarkigu-ta, ikus emen bere itxura baldarra::

"çoÇac ardan bustia badarku menda uerde incicuonac...  
 liburuetan iracurten arguic aguertmten. Cera bar...  
 e,culca jaungoikoaren... apostolu...  
 Agnus Dei qui tollis peceata mundi egunean  
 celu meo guara dela Gure guomendatu gucla iru...  
 arima saluatu".

Saiatu zitzaigun Mitxelena, ziuarki geienak beintzat Euskaldunak diran itz oiei zentzu bat billatu naiez, baiñan alperrikakoak irten zitzaizkion alegin guztiak. Magikerirako asmatua dan lelo bateko itzek zearo galtzen bait dute berenez duten zentzua. Orregaitik, amaiera dotorea damaiote bi jakintsu aiek Mitxelena'ren saiaketari.

"Dado que abundan dificultades en este texto, y visto io enigintieo que resulta la impresidn general, puede ser, sin embargo, que nos encontremos frente a una oraciÓn popular, tal vez algo supersticiosa y con valor ma'gico" (ib).

Apika bi otoitz parregarri oiek aipatuak izaterik ere merezi zuten. Gauza bat besterik ez bait digute erakusten: Jaungoiko itza noiz izan zan idatzia. Ez, noiz izan zan sortua. XIV mendera arte ez zala izan idatzia.

---

" Liburu ori Andr6 de Barbazan zeritzan batek gogo-bizitza bizkortzeko idatzia omen baiñan bertan, sasiotoitz au ziri bat bezala indarrez sarturik dagoala omen dirudi. „Geroago beste norbaitek sartua ote?"

Eta zer? XIV mendera arte, eta ainzuzen anitz gerorago arte ere, XVI, XVII eta VIII mendera arte ibai al dakizu zenbat Euskal itz egon diran idatziak izan gabe? Danak!!! Orrek ordeaz ez du esan nai, ordurarte ez zirala itz oiek sortuak izan, eta Euskera itzik gabeko izkuntza izan zanik. Auxe besterik ez du esan nai: zoritxarrez Euskalduna ez dala idaztearen, batez ere bere izkeraz idaztearen adiskide

\* \* \*

Indar geiagokoa da, itxuraz, Arrinda'ren bigarren arrazoa:

"Probablemente la palabra JAUN-GOIKOA, se compuso hace a lo sumo nueve siglos, porque Aymeric Picaud, en el CODICE compostelano de CALIXTO II, Aymeric, del siglo dice que los Vascos llamaban a Dios con el nombre de URCIA" (ib).

Egia da Arrinda'k dioskun lez Aymeric Picaud'ek ori esan zuala XII mendean. Ona, erromes frantziar aren itzak: "Barbara enim lingua... Deum vocant Urcia": "Izkera basatiz... Jainkoari Urzia esaten diote".

Baiñan, gero astiro aztertuko dugun erromes trakets arek XII mendean esan zuanetik, Arrinda'k dion bezala "Jaun-Goikoa" itza XII mendean sortua izan zala esatera..., badago noski tarteko zulo galanta.

- Lendabizi, "Arrinda'k dioskuna babestu aal izateko, "Jaungoikoa" itza "Urtzi" itza baiño zarragoa ez ote dan jakin bearke genuke. Eta baietz, seguruaski zarragoa izan bear duala, erantzungo ligukete "Biena'ko Etnologi-Eskola"ren jarraileek.

"Urtzi" itza, "Jainko" adierazi naiez noiztik datorren badakigu: Neolitik-erotik. Baiñan, ez ote da zarragoa, ez ote da paleolitik-arokoa "Jaungoikoa" itza? Baietz, orrela dala seguruaski, erantzungo digute berriro, aipatutako Eskolaren jarraileek.

---

<sup>31</sup> Mitxelena'tar Koldobika'k ere jaso du "pater noster chiquito" ori bere "Textos Vascos ArcMcos" izeneko idaztian (57-58 or.). Ainzuzen liburu ortatik jaso diot nik emen aurkeztu dedana.

") "Guide du P lerin de Saint-Jacques de Compostelie", 28'garren orrian. Ikus liburu onen asierako bibliografia. Aymeric Paicaud'di-buruz. Eta merezi dezakean sinispenaz, XII mendera iristerakoan astiro mintzatuko gera.

Bigarren: Arrinda'ri bete-betea arrazoia emateko, onako au egiztatu bearko genuke: Jainko batek bi izen izatea arrazoizko gauza ez dala:

"Urtzi" itza eta "Jaungoikoa" itza ezin zitezkeala alkarrekin batera pakean bizi. Eta ori ez da egia. Ederki bizi zitezkean biak batera.

Gaur bertan berdin esaten dio Jainkoari Elizak batzuetan "Deus" ("Urtzi") eta heste batzuetan "Altissimus" ("Jaungoiko"). Bibliak ere ezpairik gabe erabiltzen ditu "Yahve" ("Urtzi") eta "El" ("Jaungoikoa"). Eta, "elohim" ("goikoak"), sasijainkoetaz ari danean. "Elohim", baitare, egiazko Jainkoaz ari danean ere, baiña "El" en ugarikera edo plural orren bidez Egiazko Jainkoaren gurentasuna, ots, beste-ororen-gaindiko-goragotasuna adierazi nai duanean.<sup>4</sup>

---

<sup>33</sup>) Bainan, au guztia, nere iritzi utsa besterik ez da. Benetan aitortzen dut Arrinda'rena ere ez dala txantxetako gauza, eta arekin bat egiñik daudela gaur-egungo ikerlari guztiak. Jarraitu dezakezu, beraz, irakurle aren iritzia, orrela atsegin ba'zaizu. Ez diozu nolanaiko gizonari jarraituko: Anes Arrinda'tarrak, gai auetan Doktore izateaz gaiñera, Euskalerriko edestiarre ta jentiltasunari-buruzko arazoak asko-eta-asko landu bait ditu, eta ugari beraietaz idatzitako gizona ere bai bait da.

<sup>34</sup>. "Elohim" en bakarkera edo singularra "Eloh" da, Baiñan Bibliak, "El" erabiltzen du. "EL es el nombre semita mas antiguo de Dios. Significa 'el primero', 'el padre de los otros dioses' el superior a todos" ("danen gaiñekoa", ots, "Jaun Goikoa"). La superioridad (goikotasuna) es lo que define ante todo el carkter de una divinidad. En los textos ugariticos 'F.J' apareee como dios supremo (goikoa) padre de Baal. Algunos nombres arabes del sur, por ejemplo 'El Brilla', 'El Apareee', 'El Deslumbra' indican una divinidad astral". (H. Haah - A. Van Der Borre "Dicelonnarios de ia Biblia"n),

Gauza bera diosku Grabner Haider'en "Vocabulario Prkctico de la Biblia" k: "Elohirn, plural de plenitud, es aquel que posee todas las cualidades de El. Los epitetos que se le aftaden a El subrayan la excelsitud (goikotasuna) de la divinidad. Asi que El significa excelso (goikoa). A menudo se le añade "el yon", altisimo (goi-goikoa).

"El" eta "Jaungoikoa", izenez, jainko senideak dira. Ez ote dira Jainko bat bera?

Euskalerrian ere "Jaungoiko" izena oso izen zarra dala dirudi. Gutxienez "El" bezain zarra. Baleike gaiñera "Urtzi" ren beste izen bat izatea, eta "Urtzi" bezain zarra, gutxienez. Eta, "El" "divinidad astral" ba'zan, "divinidad astral"



Egia, Euskaldunen jainkoa izenik gabeko jainkoa zala, esan digula Estrabon'ek. Ez litzake ordea arritzekoa izango, Estrabon'i ori esan ziotenek, Euskalerriko urietan, bein cia berriro euskaldunen ezpañetatik "Jaungoikoa" itza entzutean, Euskaldunen "Jaun Goiko" orrek izenik ez zuala uste izatea.

Bestalde, gure asaba zar aiek neolitik-aroan gero, bi itzak batera, batzuetan "Urtzi" eta besteetan "Jaungoiko", ibilli aal izateak ez du altaguztiz Euskaldunak monoteistak ziranik esan nai. Aiztintxe idatzirik utzi dedan lez, ederki izan bait zitezkean enoteistak, ots, "jainko askoren gaindik aurkitzen zan Jainko Guren baten gurt2,ailleak". Ala, Urtzi izeneko Jaun Goiko ori, "Dominus Altissimus" ori: bera bezain "altissimi" edo "goiko" ez ziran beste jainko batzuen Jainko Erregea.

Enoteistak ote ziran ba Euskaldunak? Baleike. Baiña , au ere esanik utzi dugun lez, ez dirudi orrelako gauza batek Estrabon ainbeste arrituko zezakeanik, ori enoteitza --lurralde orotan ikusi zezakean gauza bait zana.

Eta or dagerkigu begien aurrera berriro, kilikagarri, Estrabon'en oiua zaarra: Euskaldunek Tini Zek Jainko Bati, dannaiote gurteta"! . Eta esan dugu, ori idaztean Estrabon'ek, ezpairik gabe, "tint" itzari, "bakartasunaren" zentzua ematen ziola. "Alako Jainko izenge bat" baiño zerbait geixeago esan nai izan zuala: "Alako Jainko Izenge BAKAR Bat", alegia, gurtzen zutela Euskaldunek.

Kontuz ordea! Ori dana nik Estrabon'en itzetatik arrazoiketa-bidez aterata ta eraturako uste bat besterik ez bait da! Eta, oar-eman dedan bezala, lez dirala gauza bat bera Estrabon'ek pentsatzen zuana eta Euskalerrian gertatzen zana!

Alare, or gelditzen da dizdizlari Estrabon'en esari miresgarria. Estrabon'ek ori, Euskaldunek izenik gabeko jainko bat gurtzen zutelako ori... i;berak ikusia ez baiña bestek esana duala? Bai, ziurki. Bera ez bait zan sekulan gure lurralde auetan ibilli. Baiñan, Euskaldunen jainko bakarraz dioskuna ez ba'diogu orregaitik ontzat artu nai, Estrabon'en liburu osoa bota bearke dugu zaramategira. Liburu ortan dionetik geien-geiena, eta bereiziki liburu ortan Sarkaldeko errietaz dion gurtia... ibestek esana bait du.

Ta, emen datorkigu berriro belarrietara Kriseaurretiko oiua zaar ori: "Jainko Bat": "Tini Zeo". "Anonimo ZZeo". "Izenik gabeko Jainko Bat" gurtzen zutela Euskaldunek.

---

zan Urtzi Jaungoikoa ere Euskalerriko meatz-aroan: "izartegiko jainkoa". Baleike ordea "Jaungoiko" izena "I3rtzi" baiño zaarragoa izatea. Izan ditekeala, diot. Ez orrela danik.

Baiñan testigu edo lekuko bat bakarra, oso ziurra ez dan lekukoa gaiñe-  
ra **■** naikoa ez dala Euskaldunen jainkobakartasuna bezain arazo mardul bat  
zientzien araura ziurki oiñarritutzeko?

Egia. Baiñan orrek berdin balia du Estrabon'ek idatzitako gauzarik geie-  
nentzat, gauzarik geien oiek izan dezaketen egiztasunaren lekuko bakarra  
Estrabon bera bait da.

Alare, zerbait zientzitasunaren maillara jasotzeko lekuko bakar baten  
aitorpena naikoa ez dala egia bait da, antziñate artako Euskaldunen jainkoba-  
kartasuna posibilitate edo aalpen utsa besterik ez dala aitortu bearrean gera.

Baiñan posibilitatea, aalpena, orixe beintzat bada.

Alatagutziz, Euskal-Etnografiak bildu dituan mito-ipuiek Euskaldun zar  
aien erlijioa seguruaski enoteismoa zala uste izatera bultzatzen gaituztela  
dirudi: Jaun Goiko Nagusi bat, Urtzi; leizezulo, iturri eta oianetako jainkot-  
xikien gaindik: eta, eguneroko arazoak zuzentzeko, magia, ta aztikeria. Garai  
artako Euskaldunen erlijioa orrelakoa zala ematen bait du.

Ori ere ziur aitortu aal izateko, ordea, ortaz mintzatzen zaigun gaur-egun-  
go etnografiaren emaitza oiek noiz sortuak diran, ziurki jakin bearko genuke;  
orrelako mito eta siniskeriak, kristautasuna zabaldu zanez gero ere sortu bait  
zitezkean eta sortu ere, ziurki, sortu bait dira batzuk sorginkeriaren  
barrutian adibidez.

Pentsatu ere pentsatu izan dut, gure etnografiaren erlijioari-buruzko ernai-  
tza oiek umeei atsedean aldi bat ematearren sortutako ipui parregarri batzuk  
besterik ez ote diran. Ipui oietan kristauak jakintsu bezala agertzen bait zaizki-  
gu beti, eta parregarriki iñozoak bezala kristauen etsaiak, bitez jentillak bitez  
mairuak.

Bestalde, "jentillak" eta "rnauro" edo "mairuak" gure folkloreko ipui  
oietan nasirik ibiltzeak zer esan nai ote du? Transposizio edo "izen-aldaketa"  
besterik ez ote da? Ots, aurrena jentillei leporatutako gertakizunak gero mai-  
ruei leporatu izatea?

Egia, izen-aldaketa ori txit erreza dala, mairuak jentillak ziran ezkeru.

Emen, ordea, ez zan VIII mendera arte mauroen ezaguerarik izan. Ta  
jentillei mauro esatea bezain erreza edo errezagoa bait da mauroei jentil  
esatea..., guzti orrek kezka bat sortzen du nere-baitan: Euskalerrriaren kristau-  
ketari-buruz gure etnologiak gaur damaizkigun esamesa oiek danak ote dira  
VIII mendeaz gero sortuak? Orrela zero galduko lukete gure erlijioaren  
edesti zaarraz zerbait erakusteko izan dezaketen garrantzi-apur oro.

Alatagutziz, badakit sekulan maurorik izan ez dan euskal-txokoetan ere  
toki-izenetara sarturik, "mauro" edo "mauri" itza aski sarri agertzen zaigula.

Baleike, beraz, gure mauroek Afrika'tik etorritakoekin zer ikusirik ez izatea, eta Afrika'koek etorri baiño mendeak eta mendeak aurretik, "Basajaunak", "Lamiak" eta "Mari" bezala Eusko mitologian jainkotxiki batzuk izatea, Orrek, gure folkloreko ipuiei beren garrantzi apur ura, biurtuko lieke.

Aburu-naspil ortan zer aburuk izan lezakean onartua izateko posibilitate edo aalpen geiago? Ez dakit. Nik, milla millaren aurka, azkenekoaren alde jokatu nuke: Mauro oiek eusko-etnologi zarreko izakiak dirala.

Buka dezagun ikerketatxo au, bi gauzatxo bereizi ostera birr-ai patuz: 1 a, Estrabon'ek Euskaldunen gurketari-buruz esan nai izan zuana; eta, 2<sup>a</sup>, Estrabon'ek esan zezakeanaz landa, Euskaldun aien gurketaren egiazko izakera:

- Nere ustez, Estrabon'ek, Euskaldunak jainko bat bakarra gurtzen zutela esan nai izan zuan: monoteistak zirala.

Bañan, beti nere ustez, Euskaldunak ez ziran monoteistak; monoteistak ez baiña, enoteistak baizik: jainko txiki askoren gaindik Jaun Goiko hat, Urtzi, gurtzen zuten jendeak.

Guzti ori, jakiña, erromate-aurreko Euskaldunen erlijioaz esana; eta eskiertasun geiegirik gabe apaltasun aundiz esana.

Eta izan bedi, beraz, au, jorratu dugun guztiaren azken ondorioa:

ERA ZIURREZ EZ DAKIGULA nolako erlijioa bizitu zuten Euskaldunek Krist'aurreko irugarren mendean edestira sartzera zijoazen unean. Baiñan uste izatekoa dala, bere inguruko errialdeen antzekoa izanen zala: Jaun Goikoa Urtzi zuala, oroanimakeriz, magiaz, eta, sasijainkotxikeriz osotutako enoteismoa.

Ziurki ezer ez jakiteko, ez dakigu ziur JAUNGOIKOA itza noizkoa dan ere. Nik uste dedan lez, antziña-antziñakoa izan daitekean bezala, Arrinda'k uste duan lez izan hait daiteke kristautasunaren eragiñez sortua.

Egia da, beraz, "Urtzi" itza "Jaungoiko" itza baiño lenago agertzen zaigula. Baiñan orrek ez du esan nai "Urtzi" "Jaungoiko" baiña itz zarragoa danik. "Urtzi" XII mendean asmatutako itza ez dan bezala, "Jaungoiko" ere ez bait da XIV mendean sortua. Paperetan bakarrik da beraz zarragoa "Urtzi" "Jaungoikoa" baiño.

Nere ustez antziña-antziñakoa da antziña-antziñako "etohin", "altissimi" eta "dii excelsi" atzerritarren erara sortutako itza dalako; oroi Elizak Itun Zarretik artua duan eta "zu bakarrik goigoikoa" esan nai duan "tu solus altis-

simus" esaria--. Baiñan antziña-antziñakoa *izan* daitekean bezala, izan daiteke kristautasunaren eragiñez sortua ere.

Gure frontoietara joz, baiezko-ezezkoaren arteko eztabaida au pillota-partidu biurtuko ha'genu eta baiezkoa gerriko gerriz jantzi, milla zortzireunen aurka gorria irtengo litzake dirua, eta baita agian milia zazpireunen aurka ere. eta baita agian-agian milia bederatzireunen aurka ere. Baiña, gai auetarako Arrinda bezain jakintsu bikain bat nere iritziaren aurka egoteak, asko izango lirakela, esan nai du, urdiñaren alde sartuko lirakenak.

Ez dizut ukatuko, Arrinda'ren bidetik jarraituz bat baiño geiago izango liralcela urdiñaren aldekoak. Auek, ordea, beren iritzia babesteko ezin izango lukete "Jaungoiko" itza Euskal-gramatikaren araura okerki sortutako itza danik arrazoitzat aurkeztu. Azaldurik utzi dugun lez, okerki ez baiña arras egoki eratutako izena bait da: "Jaun Goikoa" = "Dominus Exceisus", "Alto Señor", edo gaztel-senaren araura, askoz obeki, "Altísimo Señor".

## KARTAGO

Krist'aurreko III mendean agertu ziran Kartagotarrak Euskalerra zabal artako mugen aurrera. Ez zetozen Euskalerra menderatzera. Erromatarren aurka pizturik zeukaten gudu eriogarriak ekarri zituan gure lurralde auetara. Adiskide bezala geiako, etsai bezala baiño.

Kriseaurreko VIII mendean izan zan eraikia Kartago gaur-egungo Tunez uriaren alboan. Feniziarrek izan ziran uri aberats ura sortu zutenak, eta Feniziarrek ziran endaz, Krist'aurreko III mendean Euskalerrira urbildu zitzaizkigunak ere: Feniziarrek; Kanaandarrak, beraz.


Baiñan Kanaan'go Feniziarrek ez bezala, borrokalariak izan ziran Kartago'koak, eta asko zabaldu ziran Mediterraneo-Itsasoaren sarkaldera. Zabalketa orren ondorioz egin zuten, beraiek bezain borrokalariak ziran erromatarrekin talka.

Erroma, Kriseaurreko VI mendean izan zan eraikia, Kriseaurreko 575'garren urtean ainzuzen. Berealaxe asi zan bere aalmena zabaltzen. Eta Kartagotarrekin topo egin zuanez gero ez zan bi Laterri aien artean pakerik izan, bietako bat, Kartago, zearo ezereztua izan zan arte. "Delenda est Cartago" izan zan guduketa artan Erroma'ko Jaurlaritzaren ikur-oiva. "Delenda est Cartago": "Ezabatu bearra dugu Kartago": Erroma'ko Senatuan Katon legiztulariak jaurti zuan erronka, eta bereala Erroma osoaren elburu biurtu zana.

Euskaldunekin ederki konpondu zitzaizkigun Kartagotarrak, eta ugari izan ziran Kartagotarren gudaroztera sartutako gudari Euskaldunak. Pozik auek! Jendetzaren geiegizko ugaritasuna beti izan bait da Euskalerrian egiazko arazo.

Ala, badakigu Euskaldun asko alkartu zala Anibal buruzagi ospetsuarekin, onek, Erroma'ko uria ber-bera menderatu nairik, Kriseaurreko 218'garren urtean Ibero ibaia igaro zuanean. Eta Erroma'ko idazleek beraiek dasaigute, Anibal'ek Trasimeno'ko eta Kannas'ko borroka odoltsuetan lortu zuan garaitza bikoitz artan bikain jardun zirala Eusko-gudariak. Krist'aurreko 217'urtekoak dira gurenda ospetsu bi oiek.

ESPAI WRIST P'AURREKO IMENDEAN



1 **Laredo - aldea**

2 **Oka mendiak**

3 - **Iber - mendiak**

4 - **Jalon ibaia**

5 - **Zalduba**

6 - **Alkublerre mendiak**

7 - **Illiberri (571'ean gotssai **uri**)**

8 **Ibero ibaia**

Irikerik zeukan Anibal'ek Erroma'ralco bidea, baiñan Kapua deritzan urian egon zan geldí sei urtez, eta, edestilariék esan oi dutenez, nagikeriz eta lizun-keriz auldu omen zitzaion an bere gudaroztea. Orregaitik, kemen oro galdu izatearen ondorioz izan omen zan Erroma bir-piztuaren lejióek zearo porroka-tua, ordurarte baztar guztietan garaille izandako Anibal aundiaren gudarozte menderakaitz ura. Krist'aurreko 2I l'garren urtean gertatu zan ori.

Laister bizian itzuli bear izan zuan Anibarek Afrika'ra Kartago ber-bera babesteko, baiñan an ere garaille irten ziran Erroma'ren lejiolariak Zama'ko borrokaldian berriro, eta, oraingoan, bein betirako, Eszipion'en esanera Anibal zearo zapalduz. (Kriseaurreko 202'garren urtea).

6 urte leenago ordea, Krist'aurreko 208'an, burua birjaso naiean dirudia-nez, Anibarek, Ispanrn zeukan Asdrubal bere anaiari eskatu zion laguntza, eta ederki bete zion Asdrubal'ek eskaria, Appiano erromatar edestilariak idatzi zigunez ("Iberike", 28):

"forro Asdrubal, Amilcaris filius, dum circa Septentrionalem Oceanum novos delectus habet, a fratre Annibale in Italiam accersitus, per septentriona-lis litoris oram ut Scipionem lateret, iter paciens in Galliam trajecit, cum mag-na Celtiberorum mercenariorum manu":

Euskeraz:

"Bitartean Asdrubal, Amilkar'en semea, iparraldeko itxasozabalaren alboan gudulari berri bilketan zebillen, Anibal bere anaiagandik Itali'ra joateko deia jaso zuanean; aal izan zitzaion azkarren jarri zan bidean; eta, Eszipion atzipetu naiez, iparraldeko itxasoaren ertza jarraituz egin zuan ibillaldia, gudari keltibertarrez, sari truke, osotu zuan gudaroztearekin".



Maiz aski, idazle erromatarrek, Euskalerritik urruti idazten zuten-da --, nasketa aundiak sortzen dituzte Keltiarren, Iberitarren. Keltibertarren, Akita-niarren eta Baskoien berri ematerakoan. Batzuetan Auñia-Mendien egoaldeko lur guztiari, "Iberi" esan oi diote; "Keltzi", ots, "Keltiarren Erri", berriz, ipa-rraldekoari.

Orregaitik, zuzen dabil noski Estornes Lasa'tar Bernard, Astrubaren arazo oni-buruz itz auek idazten dituenean ("Enc. Genl. Ilus. Pais Vasc." VI,417): "Asdrubal rectuta nuevos contingentes de celtiberos, vascos y galos. Con estos efectivos pasa disimulaclamente a la Akitania por la Gosta vasca incorpora'ndose al ej&cito cartagine's".

Orra or, nola itxasaldeko Euskaldunak ere Kartagotarrekin arremarik aski izan zezaketen. Beste gauza bat ere adierazten digu Appiamo'ren aapaldi or-rek: Naiz Amiano'k bere "Itinerarium" izeneko liburuan aipatu ez, itxasertze-tik ere bazala Euskalerrian, Ispanietatik Galietara igarotzeko bide zabal egoki

— ..... l,ma.e de departament,  
 .4.4.; 1701)1.ePe frence -espapole  
 ..... — lim,tz ij,pros,retive ae i.19. fitame  
 ib.?,r,9.e. de temes de Ce.sar  
 ..... itn.ce erpeenz,r,onle de ia  
 i wzr. arnsateen a.: deel. .: d... meyen  
 S-oe d'opres Adenedez i'dd'al  
 itirr th. oasque d'apres te  
 caree ffe gmea (1675)  
 A.rz mixte ( sq,....e nt zosbilaz  
 — d'apres 13rec

**m**



Bi mapa auk, A. Dau-  
 zat'en ai patutako  
 buruko 29-20 orri eta-  
 tik artuak dira bi ma-  
 pa auk. Goi koak, Eus-  
 kerak erromatekoan zu-  
 an zabal kunea damai gu:  
 Mot, z, agi an, barreti k.  
 Garona ta Dordona arte-  
 an seguruaski i rauten  
 bai t zuan orai ndi k Eus-  
 kerak. Luzeegi al deran-  
 tzi z, beekoak. Euskera  
 e2 bai t zan, noski, be-

i<sup>9</sup>ere, Bartzelona' rai<sup>90</sup> i rixi, nai z bere gaurko probi n-  
 tzi ko i parral dera agi an bai. Orai n "VI CH" esan oi zai on  
 uri ak, AUSONA izan zuan antzi ñatean izen, eta AUSONIA,  
 berri z, bere inguruko lurral deak. Egoal derago ere, aski  
 izen kil i kagarria du ECi ARA daurr-egungo TARRASA r k. An,  
 inguru artan, zegoan non bai t, Ftolomeo k ai patzen duan  
**EGOSA** ere, **Bik**, auk, euskal-itxurako izenak, **Itxur a**,  
 ordea, ez beti arrazoi naikoa!



bat. Bai beintzat aski zabal eta aski egokia Asdrubal <sup>1</sup>ek bide ori jarraituz egoaldetik iparraldera "gudarozte aundi bat" -- "magna manus" Itali'runtz erantateko.

"Delenda est Cartago"! Eta ala gertu ere zan. Kartago Feniziarra zeero ezereztu, eta aren lekuan, beste uri bat eraiki zuten erromatarrek: Kartago Erromatarra. Doneziprian gotzaiaren, Tertuliano jakintsu kristauaren, Perpetua ta Felizitas martiri maitagarrien uria, eta Donaugustin aundiaren lurraldeko uri nagusia!

Anibal Kapua'n asti-galtzen ari zan bitartean, Euskalerrian, aren jardunbideaz aspertuta, erromatarren alderdira igaro ziran bi buruzagi ilergetar ospetsu: Indibil eta Mandonio.<sup>35</sup>

Geroxeago ordea, emandako itzik erromatarrek betetzen ez zietelako, Erroma'ren aurka jeiki ziran biak; baiña garaituak izan ziran.

Asieran, Indibil'ek ondamen aundia egin zion Krist'aurreko 211'ean Eszipion erromatarrari borrokaldi gogorren bitartez; baiñan urte batzuk geroago, Kriseaurreko 206'ean, Eszipion'ek garaitu zuan bera.

Mandonio'k jarraitu zigun gudua. Baiñan au ere garaitua izan zan. Eta gurutze bati josirik amaitu zuan bizia, Krist'aurreko 204'ean. Indibil'en azken-egunen berririk ez dugu.

Ilergetek Erroma'ren aurka guda zegiten artean, beste leiñu Euskaldunak, ez dakigu zergaitik, ezer-ez-egite utsean gelditu ziran.

\* \* \*

Nolako eragiña izan ote zuten Kartagotarrek Euskaldunen siniskeran?

Kartagotarrak, Feniziarrek ziran endaz eta kulturaz, eta Feniziarren sinispidean oiñarriturik zegoan beren sinispidea: Jainko Nagusi bat, Baal, eta Jain-

---

<sup>35)</sup> Ilergetak, orain Lerida esaten zaion lurraldeko jendeak, euskaldunak ziran. Indibil eusko-buruzagiaren izenak, gaurr-egun Euzkadi'n aski ugaria ditugun Mendibil abizenak eta Araba'ko erritxo baten izena oroitzen dizkigu. Ez dira gutxi, enbor lez "Indi" aurrizkia daramaten izenak ere. Mandonio, -- "NI" "f4" irakurri bear dan ezkerro Mandoño biurtzen zaigu, ots, Mandotxo. Ori orrela dala egia ba'litz, erdiaroan gizakumeei abere-izenak ipintzeko oitura bazan ezkerro, oitura ori leenagotik zetorrela uste izatera bearturik egongo giñake.

keme Guren bat: Astarte. Itun Zarreko Liburu Doneetan ainbeste atdiz agerzen diran Jainko-Jainkemeak, biak.

Bearbada, salerosketaren ondorioz, Kartagotarrak etorri baiño leenago ere alkar ezagutu zuten noski Euskaldunek eta Feniziarrek, zerhaitetan yayoak eta ausartak ba'ziran auek, itxasoak-zearko salerosketan bait ziran berdiñik ga-beak. Baal'en iruditxo bat aurkitua izan da gure itxas-ondoan. **Fenizia**-rrek izan ezik, ekarri zezaketen jainkotxo ori gure lurraldeetara? Asdrubal'en gudariak agian? Baleike. Baiñan gudarozte ura, ikusi dugun *lez*, geienik Ispanietako jendez osoturik zegoala ematen du.

Danadala. ez dirudi, ez aurrena salerosle etorritako Feniziarren bitartez, ez geroago gudatearen eragiitak onera ekarritako Kartagotarren bitartez, Baal'-ek eta Astarte'k gure artean lurmen egokirik aurkitu aal izan zutenik. Ez bait da aien aztarnik euskal-folklorean ere gelditu.

## ERROMA

Kartagotarrak bezala Krisraurreko III mendean iritxi ziran Erromatarrak Euskalerrira. Eta, naiz agian sasijainkoen gurketa aiek ekarria izan ez, aitortu bearra da noski izugarrizko indarra eman ziotela, gure artean ordurako pizturik egon zitekean jaink'ugarizko gurketari.

Erromatekoak dira beintzat Euskalerrian Akitani'n bereiziki, baiña baita gure beste lurraldeetan ere aski ugari aurki daitezkean sasijainkoen omenezko idazkiz ornitutako arri-olak.

Iraduz eta laburki landuko dut nik emen, antziñako Euskalerrri edatsu artako gure Asaben artean Erroma'ko jainko, jainkeme, jainkotxiki ta jainkemetxiki ugari aiek baike izan zuten arrakastari-buruzko arazoa. Ederki, zabal, eta sakonki, azterturik eman bait digu gai ori Arrinda'tar edestiaurrelari yayo ongi ezagunak, bibliografian aipatu dugun bere liburu mardulean: "Los Vascos del Animismo a la Romanidad".

Emendik aurrera, lateraz idatzitako euskal-izenak maiz erabilli bearko ditugu. Ez dezagun aztu, gure izenak izugarri zaillak gerta oi zaizkiela beti, baita gaur egun ere, Euskalerrian azi ez diran guztiei. Eta, orregaitik, oso era baldarrean beti eta askotan era zearo ulert-eziñean izan dirala idatziak.

Orixe berbera gertatu zitzairen, Erromatarrek idatziak izan ziran orduango izen euskaldunei ere. Idazle aiek beraiek arriturik damaigute gure izen euskaldunak zeñen agoskatu eziñak -- eta idatzi eziñak gertatzen zitzaizkielaren aitortpena. Entzun Estrabon greziarrari:

"Atseginkaitza zait aien izkuntzako izen itxuragabeak ematen jarraitzea: Izan ere, norentzat gerta daiteke atsegiña, Pletauros, Bardietas, Allo-

trigas, eta oraindik auek baiño zakarragoak eta uierkaitzagoak diran izenak entzuten egotea"?

Esan dugun bezala, izen oiek, geienak beintzat, Akitani'n sasijainkoei jasotako aldare ugarien arri-oletan izan dira aurkituak, eta Akitani'ko euskalkia galdua dugulako, eta, galtze orren ondorioz, Akitaniarren euskalkia nolakoa zan ezagutzen ez dugulako, zail egiten zaigu, Akitani'ko jainkoizenik geienen adiketa ziurra.

Alatagutziz, B. Estornes Lasa'k eta A. Arrinda'k beren liburuetan bildu dituztenetatik askok, itxuraz beintzat ukatu eziñezko euskal-usai nabarmena badutela aitortu bearra dugu<sup>2</sup>.

Erromatarrek etorri aurretik ere izan zuten noski euskaldunek, sortaldekoek beintzat, Erroma'ko jaink'ugarikeri orren ezaguera, mediterran-itxasoaren ertzean kokaturik zeuden kolordetako greziarren bidez; naiz

---

' "Pletauros" eta "Allotrigas" oiek nor izan zitezkean, iñork eskier ez daki daki, "Bardietas" Estrabon berak, eta beste idasle klasikoek, "Bardulos" izendatutako Giputzak zirala uste oi da. Beste toki batean, bildur aundiz eta atzipe-turik ibiltzeko kezka biziz, ausartu naiz "BarduII" itzaren etimologi bat ematera. Itz orren aurrean, galdurik gelditu zitzaigun "I" bat egon daitekeala esan dut: Erromatarrek Euskaldunen ezpafiñetatik jasotzeke utzi zuten "I" bat. Eta "Barduli"ren "D" izkia erromatarrek sartutako izki doiñu-goxagarri bat izan dezakegula, "Bardulia", euskeraz, agian IBAR-ULIA izanen zala. Baña Estrabon'ek orain damaigun beste izen orrek, "D" ura, itzari sartutako goxagarri bat ez baiña itzaren gorputzeko izki bat dala adierazten digu noski; "Bardietas"ek "Barditarrak", ots, "Bardi'koak" esan nai bait digu, nik galdua uste dedan "I" a aurre-ipintzen ba'diogu, "Ibarditarrak", IBARDI'koak. Eta bi izen zarrak alkartzen ba'ditugu, IBARDIULI irtengo zaigu; euskaldunok beti egiten dugun elisia egiñez, IBARDULI. Beraz, "Bardull'a" IBARDULI'a izango litzake. Ori ote zan Euskaldun aiek beren lurraldeari ematen zioten izena? Nork jakin!

B. Estornes Lasa: "Historia General de Euskalerría" (Ene. Genl. Ilus. Pais Vas. Grupo B. Enciclopedia Sistemkica), 581- 591 or. Luzeago, zabalago ta sakonago A. Arrinda'k: "Los Vascos del Animismo a la Romanización". Baita onen aurretik argitaratu zigun "Magia y Religión Primitiva de los Vascos" izeneko liburuan ere.

izenak aldatu, ia bat bera bait zan osoki greziarren eta Erromatarren jainko ta jainkedia. Greziarrekingo arremanak, ordea, ez dirudi Euskalerrian erro aundirik bota izan zutenik.

Baiñan atzeritarrek gure mugetara iritxi aurretik ere, emen, euskaldunen artean, eusko-jatorrizko jaink'ugaritasunaren antzeko zerbait ez ote zan emen bertan sortu? Ziur ez dakigu. Baiñan euskaldunak enoteistak izan zirala, egia dirudi.

Eusko-jaink'ugaritasunaren urrezko aroa, Erromate-aroa izan zan zalantzarik gabe.

Feniziarrek, Greziarrek eta Kartagotarrek lur ontan botatuko sustraiak urriak eta ezerezak izan ba'ziran ere, alderantziz aundiak eta ugariak eta sakonak izan ziran gure orduango Euskalerra zabal artan Erromatarrek bota zituztenak. Izan ere, askoz aundiagoak, ugariagoak eta iraunkoragoak izan bait ziran gure asabek auekin izan zituzten arremanak.

Arreman oiek laister azalduko ditugu. Erromatarrek Euskalerriaz zuten iritzia aztertzerakoan, ainzuzen.

Baiñan badugu beste galde bati erantzun bearra ere. Aipatutako jainko oien aldarerik geienak, Auñamendiaren iparrea izan dira aurkituak: Zabaldu ote zan Erromate-usaieko sasijainko gurruta ori Euskalerraren beste lurretara? i,Gaurko gure Euzkadi txiki ontako lurretara ere bai ote?

Bai. Zenbaiteraiñoko ugaritasunaz, noraiñoko zabaltasunaz, eta nolako sakontasunaz ez dakigu, baiñan, bai: edatu zan lurralde ontan ere sasijainko eta sasijainko-irudien gurruta. Aurkitu bait dira emen ere orrelako aldare eta omenezko arri-olak. Araba'n geienak: amasei; Napparroa'n gero: amar; Iparraldean bi; beste bi Gipuzkoa'n. Ainzuzen antziñako Oiasso'ren lurretan biak; eta, Bizkai'n, bat.

Ots, ordea: Zenbaki oiek arras zaturik geldituko zaizkigu, eta ez dute iadanik balio. Euskalerra osoak izan zuan erromartze aundiaren adigarri lez erromateko aztarnak egunetik egunera geiago ta geiago ari bait zaizkigu gaur egungo Euzkadi ontako lurretan agertzen.

Jainko guzti oietatik, batzuk jainko Erromatarrak dira: Jupiter (Napparroa'ko Aibar, Eslaba, Uxue eta Arellano'n, eta Araba'ko Saratxo'n); Minerva (Araba'ko Payueta'n); Marte (Napparroa'ko Monteagudo'n); Nymphae (Araba'ko Araia'n eta Kabriana'n, eta Napparroa'ko Leire'n); Tudela (Araba'ko Iruña'n); Lares (Araba'ko Biasteri'n)...

Zearo izen uterkaitzekoak ere badira: Peremusta (Naparroa'ko Eslabela'n eta Rokaforte'n); Liucma (Araba'ko ComuniOn edo Osingairren); Bealisto (Bee-Aritso Beeko Aritxo?) Araba'ko Angostina'n. Bizkai'ko Fortrn agertutako, "Ivulia", ziurki "Julia" da. Osoki ulerkaitzak dira Liucma, Tullonio, Helasse...

Alare, esan dezadan, kako-artean bederen, azkeneko iru izenok, oker entzun eta okerrago ziriztatutako euskal-izenak izan daitekeala. Adibidez,

Tullonio, agoskeraz "Tulofio" dalako, eta, "o" betidandik errez "u" biurtu izan dalako, ederki izan daitekeala "Totofio", ainzuzen Araba'ren egoaldeko mende-lerro baten izena.

Helasse'k, ots, Elasse'k, senide izan dezazkean gutxienez iru toki-izen baditu: Elasabieta, Elasaldea, Elaseolaza (Lz. Gereñu op. c.). Gaiñera, Helasse, (irakurri dezagun Elatse), laister aipatuko dugun Salatse'rekin antz aundia duan bezala antz aundia du Salatse'k ere "Saratsa" izeneko zugaitzarekin. Zugaitz sagaratu baten gurrketa? Agian.

Liucma'z, berriz, zer esan ez dakit. Izen ori, Liucma, seguruaski LLukma (i, Lluukma?) irakurri bear dalako, izan dezake bearbada aidetasunik Lz. Guerefurk (op.c.) damaizkigun "Iluz" asitako 5 izen arabatar auekin: "11"z asten diranak: Lluerka, Lluerzas (Llu-ertza?) Lluesa, Lluerro, Llurridal, Llubitartea.

Badira, nolabait euskal-itxurakoak izan daitezkeanak ere: Lakubegi (Naparroa'ko Uxue'n); Aituneo (Araba'ko Araia'n); Salatse (---- Saratse?) Naparroa'ko Barbarifi'en. Sandao Vimunburu (Araba'ko Artzeniega'n). "Sanda", Plinio'k esan zigunez, Autrigoi en lurraldeko ibai bat omen zan. Vimun-buru'ren "buru" zer dan badakigu. Ez ordea zer izan daitezkean bere "vimun" edo "uirnum" ura.

Naiz etimologi zaillekoak, euskaldunak izan daitezke Naparroa'ko Lerate'ko ta Argifiastiz'ko "Losa" eta "Loxa", Akitant`ko "Baigorrix" eta "Baigorriso"... Gauza bera esan dezakegu Araba'ko Kabriana'ko "Uharna"-ri-buruz ere (ib).

Beste batzuk argi-argi izen euskaldunak daramazkite: "Arixa", "Asto", "Aher" (Aker), "Illuno"...

Ikusi aal izan duzunez gaur-egungo Euzkadi'ko sasijainkoen aipurik geienak, Araba'koak eta Naparroa'koak dira. Ez dugu zertaz arritu. Araba eta Naparroa izan bait ziran geien erromartutako euzko-lurraldeak. Baiña badira Bizkai'n ere; eta baita bateren bat Gipuzkoa'n.

Bizkai'ri dagokionez, arrigarria da an agertzen zaigun, aski erromate goiztarreko, idazki ta marrazki duten arri-olen kopurua. Tamalez, arri-ol ugari oiek ez dira kristauak, berrietako batzuetan ikusi dezakegun gurutzea Kristo'ren gurutzea ez bait da. Ez zuan ba Elizak oraindik, III mendean, gurutzerik erabiltzen! Ezta IV'ean ere, orokorki beintzat.

Gaurko Euzkadi labur onen mugetatik at ere, orduango Euskaljerri Zabalaren lurraldeetan, oso ugariak dira gure aro ontaraiño iritxi zaizkigun erromate zarreko aztarnak. Eta oraintxe bertan ere, geiago ta geiago ari zaizkigu agertzen.

Orain arte agertutakoak, ordea, geienak akitaniarrak diralako eta jainko akitaniar oien zerrenda aski oso bat P. Narbaitfek ("Le Matin Basque", op.c. 398)'an dakarrelako, zerrenda ori emanen dizut nik alboan. Baiñan Eusko-sasijainkotasunaren albiste geiago idoro naiean ba'zaude, jo ezazu aipatu dizudan A. Arrinda'ren liburura<sup>3</sup>.

---


<sup>3</sup> Jainko-izenekin batera agertu dira Akitani'ko arri-oietan giza-izenak ere. Batzuk, arras ulert-errezak: ANDEREXO, HARBELEISIS, URJA, NESKATO, ANDERESENI... Beste batzuek zailtxagoak, eta oso zailak, berriz, beste batzuk. Laterazko dokumentuetan euskal-izenak ulertzeko, gogoan artu itzezu oarparentxo auek:

rgoa: Izen oiek, lateraren eraz deklinaturik agertzen dirala, geienetan datibu edo genitibu eran giza-izenak, ablatibu eran toki-izenak **eta orrek**, askotan, euskal-antz oro ezabatzen diela. "ILLUNO Deo" datibu-eran dago. Jainko orren izena, ILLUN zan.

2'gna: lateraren atzizkiz jantzirik etorri oi dirala maiz aski. Orrela, adibidez, genitibu-eran dakusgun ANDERESENI", nominatibu-eran ANDERESINUS zan: "Andere"- "sinus". Euskeraz, "Andere"- "tarra", "Andere'n sendi-koa".

3'gna: Sarri aski, naiz itzak berak arras ulerkaitzak gertatu, errez ikusten zaizkiela argi-argi euskaldunak diran aurrizki edo atzizkiak: "ren", "en", "ri", "ari", "iz" ("itz") "di", "ti", "ko", "on", "o", "no", "ona", "ara", "aran", "ka", "oka", etabar.

4'gna: Izki askori ematen zitzaion otsik ez dugula ezagutzen. Adibidez ez dakigu zer adierazteko erabilli oi zituzten, "Ç", "ss", "zz", "x" eta "h" berbera.



Romanizaci6n. Red viaria romana en el entorno del istmo pirenaico

Mapa ontan, lenen-mallako bideak bakarrik. "Petra miliaria" edo neurri-  
 arrien biartez, anitz hibe gelago -- bigarren mallako bideak --, emen  
 bazirala bai bait dakigu.

eta atzinaako beste eusko-lei-  
 Erronkarieraren eta Zube-  
 arantzuko euskalki guztiak  
 2 stia-zear, oker idatziak.



¿Zer jende-moeta ote ziran Euskalerriko sasijainko-gurtzailleak?

- i, Erroma'ren inperio-lurretik Euskalerrira etorritako salerosle. ta laterri-serbitzari "Erromatarrak" ote ziran?

- HEmen, Araba'ko Iruña uri-gazteluan ala Erromatarrek Euskalerrian eraikitako beste babes-urietan gudari izandako lejiolariak adibidez? Beren gudarozte-aroa bukaturik, bertako emakumeekin ezkondata emen bertan bizitzen jarri ziranak? Baleike. Bai bait zuten Erroma'ren lejiotako gudariek ori egiteko oitura.

- LErroma'ren lejiotara sartutako mutil euskaldun gazteak? Inglannderitik Mesopotarni<sup>1</sup>ra, ta Mauritani'tik Germani'ra inperio-lurreko bazter guztietan Erroma'ren serbitzura ibilliz gudaroztean goiko edo ez ain goiko gradueta igo ondorean, agian jopuz inguraturik, gizon adintsu biurtuta Euskalerrira itzulitako mutil euskaldunak? Baleike.

- emen jaio ta iñora irtetzeke beti emen bizi, emen bertan erromartutako euskaldunak ote ziran?. Baleike.

- ¿Naiz erromartu gabe gelditu eta latiña ikasi gabe euskera utsez mintzatuz jarraitu, beren eusko-sinispide zaarra uzteke sinkresi edo nasketa bat egiñez Erromatarren sinispidea ere ontzat artu zuten euskaldunak ote ziran? Baleike.


- LErromatarren sinispiderik artu gabe, beren eusko-sinispidea Erromatarren erara agertu besterik egiten ez zuten euskaldunak, agian? Baleike ori ere.

Galde oiei erantzun eskier bat ematerik ez dugu. Antziñate artan ez bait zan estadistikarik jasotzen.

Aipatu ditugun mota guzti oietako gizon-emakumeak egonen ziran noski sasijainko aien gurtzailleen artean.

Alatagutziz, Akitani'n euskal-izena daramaten sasijainkoen gurtzaille aiek hai, aietako geienak beintzat, euskaldunak ziran ezpairik gabe: Erromatar biurtutako euskaldunak; sasijainko aien aipurik ugarienak oso toki menditsueta izan bait dira aurkituak. Eta ez gutxi gaiñera.

Sarritan euskal-itxurako jainko aiek arri-oletan era ezberdiñean batzuk eta beste batzuk era baldar ulerkaitzean idatziak agertzen zaizkigu. Eta orrek, nere ustez onako au esan nai du: sasijainko gurtzaille euskaldun aiek latiñez ez zekitela; ez zekitela arri-lantzen ere; arri-lantzaille atzeritarren laguntza eskatu zutela; arri-lantzaille auek, euskeraz ez jakitean, oker aditu



Romanizacifm. lialJazDasde c poca romana en Laburdi. Gipuzkoa y Bizkaia. hasta 1984.

Nfilazros Esieban Delgado. fl P(tis ahinuco en epoca mrnon.: en < Mundai i>. Der, se Fhs,oriu (199()).

Euskalerrri Zarreko lurralde zelaietan Erromateko aztarnak, arras ugari ditugu. Ona emen Kantauri-itxasaldeko lurralde menditsuetan agertutakoak. Oar gaitezen mapa egiñaz gero ere asko dirala or agertu zaizkigun eta oraindik ere agertzen ari zaizkigunak.

zituztela eusko-jainkoen izen euskaldunak, eta oker ezarri zituztela izen oiek arrien bizkarretan.

Ona, adibidez, nasketa oien adigarri bat, BEIGORRI jainkoaren izena sei arri-ol ezberdiñetan idazterakoan arri-lantzaille atzerritar aiek egiña: Seietan agertzen bait da izen ori era ezberdiñean idatzia: Baigorriso, Baicorrixo, Buaicorrix, Baigorrix, Buaiorix, Baigorisco.



## KRISTAUTASUNAREN SORKUNTZA

Kristo'ren sinispidea "Erroma'ko lejiolarien urratsak jarraituz zabaldu zala" idatzi zigun Pëguy idazle frantziar izentsuak: "Les pas des 14ions avaient marchë pur lui".

Ori, ordea, ez da oso-osoa egia. Egia, bai, geienetan orrela gertatu zala. Ez, ordea, beti.

- Lenen Laterri kristaua, Erroma'ren inperio-lurretik at zegoan errialde bat izan zan: Osroene. Mesopotami'ren iparraldean; Eufrates eta Tigris ibaien artean; eta Edesa zuan uriburu.

Oso goiz sartu zan Osroene'ra kristautasuna; II mendea asi baiño leenago ere bazuan ba Edesa'k bere gotzaia: Palut zeritzan osroenetar bat. Baiñan III mendearen asieran, 206'aren inguruan, Jaurerria ofizialki kristau egiñez "Kristo'ren sinispidea aurrena artu zuan erregea, IX Abgar izan zan": "The first King of Edessa to embrace the Christian Faith was Abgar IX (c.206)" (Cath. Encyc. op.c. Edessa itzean). 206'ean. Kostantino'k kristautasunari pakea eman baiño 107'ren bat urtez leenago, beraz; eta I Teodosio'k kristautasuna Erroma'ren erlijio ofiziala egin baiño 200'nen bat urtez leenago!

Erromatarren menpera jausita ondorean ere arras aundia izan zan Sortalde Urrutian Edesa'ko Eliz osroenetarraren eraginmena. (Ikus nere "Apostoluen eta Martirien denborako Elizan 238'garren orritik aurrera).

- Aski "erromarturik" aurkitzen zala ordurako Osroene, zegoan tokian zegoalako? Baleike, Baiñan ez zegoan noski ain "erromarturik" Erroma'k adiskide baiño geiago etsai izan zuan Armeni.

---

"Lan Guztiak". La Pleiade argitalpena. 1941. 852 or. Nik, aipu ori Pierre Narbaitz'i zor diot: "Le Matin Basque", Paris 1975, 367 or.

Ba, Erreiñu yarea zan Armeni au izan zitzaigun, Erroma baiño lenago au ere, ofizialki kristau egin zan bigarren Laterria. 300'garren urtearen inguruan; 111 Tiridates errege zala, Baiñan, aurretik, II mendean bertan, oso zabaldu zegoan Armeni'n kristautasuna.

- Bai baiña... Armeni ere, *nai*z Erroma'ren maitale aundiegia izan ez..., alatagutziz..., Erroma'ren aginte-lurraren rñugan aurkitzen zalartk..., ordurako poliki erromartutako jaurerria izatea... baleiken gauza dala? Bedi. Baiñan ez digu noski iñork esango Pertsu borrokalaria indartsua erromartuta egon zitekeanik.

Pertsu, Erroma'ren etsai porrokatua izan zan beti. Ez zuan sekulan Erroma'k Pertsu menderatu aal izan. Ezta Pertsu'k ere Erroma'ren larrutik erabateko garaitzarik lortu. iIzan ziran bâ luzeak, gogorak eta odoltsuak Erroma ta Pertsu'ren arteko gudu zakar aiek!

Pertsu'ra beintzat ez zan "kristautasuna sartu Erroma'ko lejiolarien urratsak jarraituz". Baiñan sartu zan! Oso goiz sartu zan gaiñera. Eta arras zabaldu. Eta sendo iraun. Erroma'koak bezain zigorketa gogorak jasan. Eta martiri-sorta bikain aintzatsua lortu!

Ez zuan beñere "erromartasunak" Pertsu'rik ukitu. Alatagutziz, "en la antigua Persia existfan ya en el siglo 111 numerosos cristianos, cuyo centro puede señalarse en Seleucia-Cte,sifonte" (Llorca, op.e. 481). Seleuzi ori izan zan III mendean gero Pertsu'ren uriburua, I eta H Sapor, I Isdejerdes, V Bahram, II Isdejerdes eta I eta II Kosroe Pertsu'ko "Erregeen-Errege" ospetsu aien agintaritzakoan.

Ez da beraz, ikusi daikezunez, "kristautua" izateko, aurretik "erromartua" izan bearrik.

Orixe berbera erakusten digu sekulan "erromartuak" izan ez ziran beste lurralde batzuen kristauketak ere:

- Jeorji'ko Jaurerria ez zan beñere erromartu, baiñan sartu zitzaion IV mendean kristautasuna, eta bere altzotik zabaldu, gero, inguruko barbaritarrengana. A!, ta auek ere, ziurki, ez zueden erromarturik!

- Arabi'ko erdiugartearen egora ez ziran lejiolarien urratsak iritxi kristautasunari bideak irikiz, baiñan kristautasuna bai, iritxi zan gaur Yemen esan oi zaion lurraldera. Badakigu beintzat an ihilli zala mixioketan Teofilo gotzai arianitarra IV mendean erdialdeko urteetan.

- Erromarkera oroz yare bizitu zan beti Abisini, baiñan ez kristautasunetik urruti. IV mendean asieran an bai ziran ebangelizaketan Frumentzio

eta Edesio anai mixiolariak. Frumentzio ori izan zan abisinitarren lendabiziko gotzaia. Alexandri'ko Atanasio Patriarka ospetsuak sagaratu.

- Ural mendietaz aruntzko lurralde asiarretara, Txina'ra bereiziki, ez zan Erroma'ko kultur dizdiratsurik urbildu. Bai ordea kristautasuna. Lurralde urrun ezezagun aietan eta Txina'n bertan bai bait ziran kristauak, VII mendeko mixiolari nestoritarren ekintzen ondorioz.

- Erromartuak izan gabe egin ziran kristau gotiarrak ere. Eta auen bitartez, beste Erri germaniar asko.

- Afrika'ren iparraldean bai, orokorra izan zan erromartasuna, Kartago bezalako urietan. Baiñan Atlas mendietako berebertarren arteraiño ez zan kultur aren dizdirarik eldu. Alare, ugari omen ziran mendi aietan kristauak. Baita Doneziprian, Doneaugustin eta Perpetua ta Felizitas martirien Kartago'tik ain urruti bizi ziran "Berebere" marrokiarren artean ere.

Ez da, dakusazunez, erromartasuna kristautasunarentzat aurre-urrats naitanaiezkoa.

Ez dute beraz arrazoirik, Euskalerrriaren barru-lurretara Kristautasuna oso berandu iritxi zala esateko, gure mendi, baso eta arantako euskaldunak erromartuak izateke gelditu zirala oiudagitenek. Bada Espāñi'ko edestilarietako bat, Aita Garcia Villada ainzuzen, "cuando la libre entrega de Guipuzkoa a Castilla", ots, XIII mendearen astapenean, Gipuzkoa'ra kristautasuna iristeke zegoala idatzi ziguna.

Saiatu zan gero, esaldi latz ori goxatzen, baiñan Euskalerrirako kristautasunaren sarrera atzeratzeko zale jarraituz. Eta bere jardunbide orregaitik, atzerazaille guztiek beroki txalotua izan da. "Ilutrehistoriador" dasaio oso apaiz-jendearen adiskide aundiegia ez dan Julio Caro Baroja'k ere. Ezin uka dezaieke iñork gure atzerazaleei beren aburua aurkezteko eta babesteko eskubiderik, baiñan bai, esan bear zaie, balio aundirik gabea dala, aietako geienek erabilli oi duten arrazoaia: aipatu dugun, erromartaren beartasunari-buruzko arrazoi ura:

- Lendabizi, ikusi dugunez, jendearen biotzetara iristeko kristautasunak "erromartasunaren" bearrik ez dualako.

- Bigarren, gure Euskalerrria iñork uste izan duan baiño askoz eta askoz geiago erromartu zalako.

Gure "aurrena-erromartu" zale auek, arako "judaizantes" edo Palestina'ko "aurrena-judutarrerazte zale" aiek dakarzkidate neri gogora. Aiek, teologiaren aldetik mintzatuz, kristau egiteko, aurrena kulturaz, eta erlijioz,

judutar egitea bear-bearrezko gauza zala esaten zuten. Beste auek, beren ustez edestiaren aldetik mintzatuz, erromatean Erri bat kristau egiterik ez zegoala, uste dute, Erri ori aurretik kulturaz erromatar egin gabe.

Oker zebiltzan aiek, oker dabilta auek ere.

Ez dugu ukatzen "erromartasunak", kristautasunaren zabalkuntzari asko ta asko lagundu zionik. Soilki laguntasun orren beartasun gorria da, ukatzen duguna.

Ikus dezagun nolakoak izan ziran Erroma eta Euskalerriaren arteko arremanak.

Lzan zan borrokarik Krist'aurreko mendeetan Eusko-Leiñuen eta Erromatarren artean. Borroka oietara ez ziran sekulan Eusko-Leiñuak alkaturik agertu.

Belen'en Kristo jaio baiño lentxeago Julio Zesar'ek menderatu zituan Akitaniar aiek izango ditugu, Zesarauguto'ren agintaritzaren asieran, berriro iraultzan jeikita, Erroma'ren aurka guda egingo duten azkeneko Euskaldunak. Alperrik.

Arrezkero, pakean bizitu ziran bost mende luzez Erromatarrak eta Euskaldunak, Germani-aldeko Eruldarrek beren errege Odoakro'ren esanera Erroma artuta Inperioa ezereztu zuten arte.

Itz bitan agertu daiteke beraz Euskaldunen eta Erromatarren arteko bizikera luzea:

- A): Kristo jaio aurreko denboretan, gudua. Baiñan sekulan ez ziran guztiak gudarako alkartu. Ezta Errornatarren aurka borrokan ibilli ziran leiñu aietako batzuei laguntzeko ere.

Ilerda (gaurko Lerida) uriburu zuten Ilergetarrak, Jaka'ren inguruko Jazetiarrak, gaur Zaragoza probintzikoia dan Sos uriaren inguruko Suesita-



rrak eta batez ere Akitaniarrak izan ziran Erroma'ren aurka gudan ziran euskaldunak<sup>6</sup>.

Gudan zebiltzalarik, ez zuten leiñu oiek sekulan beste leiñu Euskaldunen aldetik laguntzarik izan. Ai!, Euskaldunen norberekoikeri makurra!

Alderantziz, izan genduan bere anaien aurka etsaiekin alkaturik gudan ibilli zan leiñu Euskaldunik ere. Ala, Jazetiarrak Erroma'ren aurka beren askatasunaren alde borrokan zebiltzanean, Erromatarrekin alkartu ziran Suesitarrak, eta beren anai Jazetiarren aurka sartu gudara. Menderatuak izan ziran, jakiña, Jazetiarrak. Garaitza ituna Suesitarrentzat. Urte batzuk geroago beraiek izan bait ziran izkilluz Erromatarrek garaituak... eta mendeen artuak. Euskalduna Euskaldunaren aurka borrokan! Zarra izaki, dirudianez, Euskaldunon "kainkeria"!!!

Ez dirudi beste leiñu Euskaldunek Erroma'rekin guduketarik izan zutenik.

Baskoiak bai gogor ibilli ziran "Erromatar" batzuen alde, beste Erromatar batzuen aurka, Euskalerrriari iñongo aldetik ajola ez zitzaizkion auziengaitik, Erroma'n, Sila diktatore egin zanez gero, sortu zan anai-arteke guda izugarrian.

Okerragoa dana, iñongo aldetik Euskalerrriari deus ajola ez zitzaion Erromatarren gudate artan eroen antzera Baskoiak berak beren artean ibilli zirala dirudi borrokan: Ponpeyo'ren alde Iruñaldekoak, Sertorio'ren alde berriz, beste aien aurka, Kalagurri'koak. Ez da noski atzo goizekoa, Euskaldunok gure Erriaren zori onaren aurka, Aberria odolustuz, orrelako atzerritarkerietan sartzeko dugun zalekeri txoroa!

Dirudianez, urte batzuek geroago, berriro eroen jardunkera erabilliz, Zesar'en alde batzuk eta Ponpeyo'ren alde beste batzuk, beren artean bo-

---

<sup>5</sup>. "Sause" esan diote, euskaldun izan diran bitartean erronkariarrek, orain Sos del Rey Cakilico esaten zaion eta Naparroa'ren ondo-ondoan aurkitzen dan uritxo aragoitar politari.

"ilergeta" "g" goxoz idatziko dut nik beti, eleneran dagokionez. Orrela idatzi bait zuan izen ori aipatzen aurrenekoa izan zan Estrabon elendarrak. "Ilerjeta" idaztea, izen ortako "g" orri gazteleraren doiñua ematea izango litzake. Erromatarrek lateraz nola agoskatu zuten, ziurki jakiterik ez dugu. "G" seguruaski, "lege" itzarena bezala.

rrokan ikusiko ditugu Erroma'ren laterkide-arteko gudarik zitalenean. Zer ajola ote zitzaien Euskaldun txoro aiei Erroma'n Zesar'ek ala Ponpeyo'k agindu?

B): Kristo jaio osteko mendeetan, pake orokorra eta adiskidetasun sendoa.

Pake orren giroan asi ziran lurralde Euskaldun batzuk beren Euskalduntasuna galtzen. Aundia bait zan Euskalerrriaren inguruko edo Erroma'k Euskalerrriaren barruan eratu zituan Urietako kulturaren itzala.

Oroi gure inguru-birako urien artean iparraldeko Narbona, Bordele, Tolosa, (berauek ere ez ote ziran noizbait Euskaldunak izan?), egoaldeko Tarragona, Bilbilis (Kalatayud) eta Zalduba (Zaragoza). Eta Agiña (Aginnum), Akize (Dax), Elusa, (Eauze), Ilerda (Lerida), Oska (Ueska), Jaka, Kalagurri, Iruña biak (arabarra ta naparra), ta Euskalerrri-barrungo beste ainbat eta ainbat uri erromartuak, edo, beintzat, erdi-erromartuak.

Sortu zan gaiñera uri oietan gizon ospetsu aundirik aski: Martzial bilbilitarra, laterazko epigramalaririk bikaiñena, garai artako Euskalerrriaren ego-mugatik naiko bertan zegoan Bilbilis (oraingo Kalatayud) urian: Kintiliano kalagurritarra gramatikaren sortzaillea; kalagurritarra baitare Prudentzio olerkari kristaua, IV eta V mendean olerkaririk onenetakoa, onena bera ez ba'da. Ta ezagunak ditugun izen aundiko bi bordeletar aiek: Donepaulin Nola'ko gotzaia eta Ausonio, aren maixu ta adiskide leiala. Eta baita beste batzuk ere. Ala, adibidez, Ausonio'k, bakoitzari olerki bat eskeifilz, poema batean goraiatzuten dituan zortzi edo bederatzi erretorika-irakasle bordeletar ospetsu aiek. Izan ere, bai Bordele eta bai Tolosa, kultur-kabi oparoak zirala bait diote garai artako edestilariek.

Orduango Euskalerrri zabal arek bide ugari ta ederrak zituala, diosku Antonino'k III mendean idatzi zuan bere "Itinerarium" izeneko liburuan. Oroi bigarren eta irugarren mailletako bideetaz "G.E.R."tik jaso duguna. Ta, aruntz, onuntz, bide oietatik jende asko ibilli zala diosku berriz Caro Baroja'k.

Oroi gaiñera Euskalerrriko kaiak ederki ezagutzen zituztela Erromatarrek. Gaiñera, kai oietaz baliatu ere ederki baliatu zirala. Ona, diodan ori sendotzeko nere arrazoitxo batzuk:

Augusto inperatoreak, kantabritarrei itxasoz ere ekiteko, Kantauri Itxasoan bere gudu-ontzidia ipiñi izatea. Ontzidi ura, eusko-kaietan egon

zan, eusko-kaietaz baliatzeke ez bait zuan ezertarako balioko; ez bait zuan itxaso artan luzaro egoterik ere izango.

Bermeo'ren inguruko lurraldea, an agertutako aztarnek adierazten dutenez, ain erromarturik egotea.

Erkoriatza'ren gaiñean Gipuzkoa ta Araba'ko mugan Aitzorroz mendiaren alboko lur garaietan, orduango bide zarraren ertzean buztinagosizko zati txit ugarien artean agertu dan VI mendeko, agian V mendearen azkeneko krismoia. Krismoi orrek ez du balioko, bakarra dalarik, bidegain artan bizi zan jendea kristaua zala adierazteko, baiñan dotore balio du Tolomeo'k Trizium Tuborikum izendatu zuan Bardulitarren kai zar artarako bide zar ontatik jenderik aski ibiltzen zala ziurtatzeko.

- Irun, Ondarrabi ta Endaia-arteana Txingudi itxas-kolkoaren inguruan, ots, Erromatarren Oiasso'ko lurretan ainbeste ta ainbeste Erromatarren aztarna agertu izatea.

- Erromatarrek Euskalerriko aberastasunak lortzearen alako arreta ipiñi izatea. Nolako arreta gaiñera! Oroi Oiartzun'go zillar-berunezko meatzak. Meatz aietan lan egiteko eta meatz aietako aberastasuna andik ateratzeko beste gabe bide bereizi bat egiteraiño iritxi bait zan Erroma! Euskalerrira iritxi ziran erromar-bideetatik lendabizi aipatzen dana: Tarrako-Oiasso bide zabala. Beste gure bide guztiak baiño leenago Estrabon'ek aipatzen diguana. Baiñan Oiartzun'go meatzetako zillarrantzat eta berunarrantzat, ez zan bide ura, Pasai'ko kaia baizik, irten-biderik egokiena. Oiasso'ko kaia. Ezpairik gabe, erromatarrek erabilliko zutena. Nola ez? artarako, ots, beste ezertarako asmorik gabe, soilki Oiasso'ko meatzez baliatzeke, bide zabal bat eraikitzeraiño iritxi ziran-da!

Eta, azkenik, Euskaldunen eta Erromatarren arteko alkarrizketa, mendeak-zear luzea, adiskidetasunezko giroan sarri erabillia ta etenik gabe sakonki eta arduraz egiña izan zalako adigarri bikaiña dugu euskerak lateratik jasotako itz-mordo ugaria. Jendeak uste duan baiño askoz ugariagoa. Egia, bai, erdiaroko liturgiatic ere sorta polita jaso zuala, baiña liturgiatic itz oiek izpirituaren munduari dagozkionak dira. Beste guztiak, Erromatekoan bilduak ditu.

Ez du beraz ezer askorik balio Euskalerraren kristauketa atzeratzeko ipiñi oi dan argumentuak: Gure Erri au, alegia, **ERROMARTU GABE GELDITU ZALA**, eta erromartu gabe gelditu zalako, kristautua ere izan gabe gelditu zala oso berandu arte. Ainzuzen, gure Erri misteriogarriaren

Ona emen Narbaitz'en liburutik, Akitani'ko jainkoak.

(A-3) *Inscriptions Aquitaines* Tire de J. Sacaze, *Inscriptions anciennes des Pyrénées* :

Narbonne : *Ilunno Andose* Moux (Aude) : *Larrasoni* Couserans : *Hannaro*, *Sembexonis*, *Illixonis* St-Lizier, St-Girons, Prat) — St-Bertrand de Comminges : *Andosso*, *Silex*, *Ilurberixon*, *Lohitton*, *Hahanni* Haut-Comminges : *Gizon*, autel avec swastica, *Bonxus*, *Ilurbe Lixon* (Ilixon ?) — Valcabriere : *Harsorio*, *Hautensoni Halscorraris*, *Sembeconni*, *Lohisi* — Barsous : *Attacconi*, *Siricconis*, *Erhexoni*, *Hotarris*, *Estenconis*, *Silexconis* — Labarthe de Riviere *Deo Buacorrxe Andossus* Cison *Senhennis* — Ardiege : *Arseris* *Leherenn (o)*, *Leheren (no)* Marti *Lehereno deo Bambix* Marti *Leherenni*, *Harspi*, *Leherenno deo*, (bis) *Osson* — *Leherenno deo* — *Lerenno deo* — *Lerenno Marti* *Leheren deo* *Leherenno Marti* - *Leherenno Marti* *Lehereni Uriaxc Ilunosi filia* — *Lehereni votum* — *Leherenn Marti* — Boucou Bocco *Harnosoni* *Senico* *Senixconis* Cier-de-Riviere : *Andosten* *Lexeia* — *Ombexonis* — Gourdan : *Baeserte deo Harbelex Harsi* *Bai* (osi) *Huos* : *Baigorixo* *Balesta* : *Baigorise deo* *Edunnis* — St-Gaudens : *Bonexsi Senixsonis* — St-Marcet : *Utohoxo Ulucirris* *Cardeilhac* *Arpennino deo Belex Belexconis* *Sdrnbus Uriassi* — *Abellioni deo* — Larcan *Andereni* Alan : *Lahe numini Mondilhan* : *Deo Iluront* Castelnau : *Lahe deae...* *Lahe pro salute dominorum...* — Martres Tolosane : *Dunoxsis f. Andere filia* *Boussens* : *Bihotarris* *Amoena Sembettenia* *Abbas* : *Xuban deo* — Arguenos : *Bonsi. lexi Sembexon* — Ohasserts St-Pe d'Ardet : *Artehe deo* — *Lexeia* *Artehe* *Deo Artahé* *Deo Idiatte* — Ore : *Garre deo* - *Siradan* : *Aereda Cugur* Salechan : *Nescato uxor* — St-Beat : *Abellioni deo Ilumber* *Deo Bascei Andosso* — Melles : *Andoxus* *Eup* : *Ele deo* — *Sembetten Bihoxinis f. Elhe votum* *Gand* : *Alar* — *Alardossi Alardosto deo* **Deo Garri** — *Iluni deo* **Harbelsis** *Uria* — Burgalais : *Asto Hunno Deo* *Abelliono* *Ciery* *Sembetto f.* *Hotarri Sembeti f.* *Anderene Baisoar* <sup>E</sup> *Luchon* : *Ilixonis deo* (bis) *Deo Ilixo* — *Deo Lixont* *Berhaxsis* *Andereseni* *Cazaril* : *Ereseni Halsconis* — *Hontharri Orcotarris f.* *Senarri Eloni filiae* — *D(iis) M( ardbus)* *Andostenno Andoxi Bihoxus fil(jus).* *Montmajou Baicorrigo deo Hannaxus Axionnis fd(ius)* *Vallee de l'Arbou.st* : *Abellioni* *Cisonten Ci,sonbonnis fil(ius)* — *Aherbeiste deo* *Iscitto deo Hunnu Ulohoxis filius* *ValMe d'Oneil* : *Bonbelex Harbelexis f. viva)* *Anderex Uria Harbelexis fil(ia) mater* *Val d'Aran Ilurberrixo* — *Anderexo* *Swastica* sur base d'autel — *Lexi deo* *Nimphis pro salute Lexeia* — *Erda Belix* — *Vallee de Louron* : *Marti Arixonis* — *Arixo deo* *Harsori* *Senixsonis filia* — *Oxson* *Gerezso* *Vallee de ia Nesle* : *Erge deo* *Anderé Sapalonis* — *Erge deo Ennebox* — Bigorre, Barbazan : *Bihossi* — *Bagneres Sembendonis* — *Aste Aghoni deo* — *Beaudean Montibus Ageioni. Etc.,,*

merezimendurik aundiena bait da, naiz ainbeste eta ain naroki eta ain sarkonki erromartua izan, bere NORTASUN ARRIGARRIA GALDU EZ IZATEA.

\* \* \*

Kristo Zesaraugusto'ren agintzakoan jaio eta Tiberio'ren denboran il zala, gauza jakiña da. Kristautasuna azkar zabaldu zala esan oi da. Eta egia da. Baiñan zabalkunde laister ori Sortaldeko lurretan izan zan. Askoz geldiago zabaldu bait zan Sarkaldean.'

Noiz iritxi ote zan Euskalerrira gure folkloreak KIXMI izendatu zuan Kristo'ren Berri Ona? Eta Kristo'ren Berri ona jasoz, noiz kristautu ote zan Euskalerrira?

Oso goiz, I mendean bertan, batzuen ustez. Oso berandu berriz beste batzuen iritzi: Euskalerriren kristautzea XII menderaiño atzeratzen dutenak bai hait dira. XIII mendea ere aipatzen du edestilari españiar batek, ikusi dugun lez. Bai batzuen eta bai besteen arrazoiak, mendez-mende Euskalerriko kristauketa aztertzerakoan ikusiko ditugu.

Saia gaitezen, korapillo zail, neketsu eta garrantzitsu onentzat al dugun aska-biderik zintzoena billatzen.

Danadala, erromatarrekin adiskidetasun paketsuan, bere inguruan eta baita here baitan ere, uri bikaiñez orniturik, eta lenen maillako bide zabalen oparo gurutzaturik, ederki gertutua aurkitzen zan Euskalerrira, bai beintzat gizarte-bizitzaren aldetik, Kristo'ren Berri Onaren etorrerako.

\* \* \*

Ala ote zegoan bere erlijioaren aldetik ere?

Gizarte bizitzari dagokionez, pakean zegoan gure erria Julio Zesareek Akitania irabazi zuan ezker. Leenagokoak bait ziran Euskalerriren egoaldean Sertorio'k Baskoien laguntzarekin Sila diktatorearen jarraitleen aurka izan zituan borrokak. Egia, Zesar il da gero ere berriro, Krist'aurreko

---

<sup>7)</sup> Ikus kristautasunaren zabalketari buruz, nere "Apostoluen eta Martirien Denborako Eliza".

38'garren urtean Erroma'ren aurka jeiki zala Akitani, baiñan aski errez izan zan berriro menderatua<sup>8</sup>.

Arrezkero, pakea izanen da Euskalerrian nagusi, iparraldeko barharitarrak V mendean, gure lur auetara iristen diran arte.

Pake giro ortan, munduari egoki irikia zegoan Euskalerrri guzia.

Baiñan Euskalerrriaren kristautzea atzeratuzaleen arrazoietakoa bat, gure erri au mundutik kanpo bizi zala eta iñorekin arremanik gabe esparru zearo ertsia izan zala esatea bait da, naitanaiezkua dugu arrazoi ori baliozkoa dan edo ez jakiteko, kristautasuna zabaltzen asi zanean Euskalerrriaren egoerari ikustaldi bat ematea. Eta mundutik baztertua ez baiña kate sendoez lau aldeetatik munduari lotua eta munduarentzat irikia zegoala ikusiko dugu.

Kate aiek, eta Euskalerrriak munduari zabaltzen zizkion atea, bere lurra zearkatzen zuten bideak ziran. Arras bide egokiak. Eta ugariak!

Ikus:

Antonino'k III mendean idatzi zuan bere liburua. Erroma'ren inperio-lur osoak zituan biderik nagusienen berri emateko. "Itinerarium" izeneko liburu ortan 34 bide aipatzen ditu. Ba, 34 bide oietatik, 8'k, Euskalerrria zearkatzen zuten!:

"Los romanos construyeron vfas de comunicacidn, muchas veces sobre rutas existentes desde la prehistoria con la doble finalidad de facilitar el tdfico comercial y el desplazamiento de los ej&ccitos. Cinco de los treinta y cuatro caminos que componfan el famoso itinerario de Antonino pasaban por el Pafs Vasco".

Bost, esaten du "Historia de Euskal Herriaren lenen liburuko atal baten idazleak, baiñan 5 ez baiña 8 ziran bide oiek berealaxe ikusiko duzun bezala.'

Zoko gutxi izango zituan Erroma'ren inperioak, bidez Euskalerrria bezain oparo ornituak. Inperio guttiko 34 bide nagusietatik, 8, Euskalerrria

---

Apiano: Rom. Hist. V, 386. A. Tibulo'k dionez, Messala izan zan iraultza artan lejiolari erromatar garailleen buruzagia.

<sup>9</sup> Aurreneko liburua lau idazleren lana da: Lopez Atxurra; Aguirreazkuenaga; Basurto Larrañaga; Mieza Mieg. Zoritxarrez ez du esaten bere ataletako bakoitza nork idatzia izan dan. Akats aundia, edesti-liburu batentzat. Nik jaso diodan aipua, aurreneko liburu orren 88-89 orrialdeetan dago.

bezain lurralde aski txiki batean, naiz Euskalerra zar ura, orduango Euskalerra zabala

Ona Antonino'ren 8 bide oiek:

- "De Italia ad Hispanias trans Alpes Cottias": "ItaIrtik Ispanietara Alpemendiak-zear": Ilergeten, Baskoien, Errioxa'ko Berondarren, eta Autrigoen lurra-kear Okamendietan Euskalerra-ri agur eginda, Ispani'ko sarkalderuntz zijoana. Bide egokia, bide auxe, Kristautasunaren onuntz-eto rketarako " .

- Astorga'tik Zalduba'rakoa, Garray edo Numantzrtik, ia Zalduba berberairio Baskoien lurretik, igarotzen zana. Zalduba'ren atarietaraiño iristen bait ziran Baskoiak Jalon ibaiaren lurretan.

- Astorga'tik Tarragona'ra zijoana, au ere Autrigoen Berondarren Baskoien eta Ilergeten lurretatik zebillena, baiñan aipaturik utzi dugun beste arek ukitzen ez zituan urietatik igaroz. Ainzuzen, bide onen alboko erri Ilergetar batek, Mendikuleia, ots, "Mendikotarrena" zuan izena.

- Zalduba'tik Akitanrra zuzenean Jaka uritik barrena Baskoien lurretatik beti Akitanitarrengana zijoana <sup>12</sup>. Ez noski bide makurra kristautasunaren zabalkunderako.

- "Iter de Aquis Augustas Tarbellicis (in) Burdigalam": Akize edo Dax uritik Bordele'ra Akitani'ren iparreko Euskaldunak alkartzen zituana.

Akitani'ren sortaldeko Euskaldunak alkartuz Akize'tik Tolosa'ra zijoana. Bide ontan bazan Antonino'k "Calagorris" esaten dion erri bat, izenez Baskoien "Calagorris" uri ospetsuaren senide.

- Bordele'tik aruntz Akitani'ren ipar-muga ibilliz Argantomago'ra zijoana. Badute noski Euskaldun-itxura, ipar-muga urruti artan, bide ontako errien izen auek: Ussubium (Usobio?, Usabio?) eta Aginnum (Agino edo

---

<sup>10</sup>. "Itinerarium Provinciarum Antonini Augusti".

"Alper Cottias" gaur-egungo Alpemendiei esaten zioten erromatarrek. Beste Alpe ospetsuak, Auñamendiak zituzten. "Alper" arri gorritzko mendi-lerro guztiei esaten bait zieten.

Estrabon'ek lazetanos izeneko eusko-leiñu bereizi bat aipatzen du Jaka uriaren inguruan, baiñan beste idazle zaar aien ustez, Iazetiar oiek, eta baita Ueska'ren inguruko Ueszitarrak ere, baskoiak besterik ez dirala dirudi.

Agiño?) izenek. Eta baita agian Sirione (Siriona)'k eta Argantornago berak ere.<sup>13</sup>

- Eta Atonino'k aipatzen dizkigun bideetan garrantzitsuena, berak "De Hispania in Aquitaniam: Ab Asturica (in) Burdigalam" izendatzen duana: oso-osoan, Dordoña eta Garona ibaiak alkartzen diran tokitik, Bordele'tik, Ibañeta'n Auñamendia igaroz, Autrigoiien Oka Mendiak arte, Euskalerriguzia zearkatzen zuana. Ez nolanaiko bidea Kristautasuna Euskalerrriaren harrunbeetara sartzeko.

- Ta, ura bezain garrantzi aundikoa, I mendearen asieran Estrabon'ek aurkeztu zigun bidea ere: "Tarrako-Oiasso" esaten zitzaiona, Oiartzun'go berun-zillar meatzetatik, orduan bi probintzi soilletan zatiturik zegoan Españi'ren bi probintzi oietatik "Hispania Citerior" zeritzanaren urihuru zan Tarragona'ra zijoan. Guretzat garrantzi aundiko bidea, Baskoiengandik Ilergeten azkeneko mugaraiño Ego-Euskalerrriaren sarkalde gutzia ipintzen bait zuan bide orrek munduarekin arremanetan, Erromatarrek Ispanietan zuten kairik garrantzitsuena Tarragona zalako. Au, bai, au, bide bikaiña Erroma'tiko mixiolari kristautentzat!

Onela damaigu Estrabon'ek bide orren berri:

"Ilerda (Lerida)'ko lurralde ontatik igarotzen da Itxaszabalaren alboko Baskoirik (waskonas) urrutienetaraiño doan bidezabala: Pompeina (Iruña)'tik zear Itxaszabalaren ertzean dagoan Oiasouna (Oiartzun)'eraifio. 2.400 estadio dituan bide au Akitani'ren (tes Akitanias) eta Iberi'ren (tes Iberias) arteko mugaraiño iristen da".

---

<sup>13</sup>. "Siribel". "Sirisolo", "Siraola", "Sirolaz" eta "Siraolaza", oraindik atzo arte euskalduna izandako Araba'ren lurretako toki-izenak dira. "Ariento"ri dagokionez berriz, "to" atzizki euskaldun bat dala badakigu; "Arien" zer izan daitekean ez dakit, baiña "ARIE"z asten diran toki-izenak ugari ditugula bai: "Ariegi" adibidez Barakaldo'n, "Ariekoarana", Araba'ko Bernedo'n, "Ariegana" Araba'ko Durana' "Arieltz" Naparroa'ko Urraul 'en, "Arieta", Araba'ko Aretxaga'n, eta abar. "Argantomago"ri dagokionez zer esan? Nominatibu-eran Armantomagus dala, orrela esaten dio Antonino'k berak ere **eta izen** orren, zentzua, "Arganto'koa" izan daitekeala. "Ar-gan-to", "Ar-gain-to", baiño izen euskaidunagorik bai al daiteke?



Bide ortan, "Pompel(ina" (Iruña), Euskaldunen uririk ederrena zala, diosku Estrabon'ek.

Bide orren garrantzia neurtzeko, orduan zibilizazio ororen gunea Mediterran Itxasoa zala burura ekartzera naikoa dugu".

Erromatarrentzat ere ez zan balio txikiagokoa izan bide ori: "El eje "Tarraco-Oeaso" produjo un interés grande a los romanos" (Caro Baroja, Hist.GnI. P. Vasco, 122 ss.).

Bi bide aukerak, Bordele'tikoa eta Tarragona'tikoa, Iruña'n alkartzeko ziran, Arrazoi zuan beraz Estrabon'ek Iruña Baskoien uririk garrantzitsuen zala esateko.

Badator Antonino'ren liburuan bete bidezabal baten aipua. Bordele'tik Arelate'ra, gaurko Arles'era, zigoan bide orrek zearka Akitani'ko sortalde guzia igarotzen zuan.

- Naiz dokumentuetan agertu ez, aipatutako bide nagusi guzti oien artean baziran Euskalerrri-barrungo erriak alkartzeko zituzten beste bide batzuk ere. Euskalerrrian agertu diran "milliaria" edo arri legua-adierazleak dira bide auen lekuko.<sup>15</sup>

- Baziran baitare Erromatarren liburuetan agertzen diran Laburdi'ko Gipuzkoa'ko eta Bizkai'ko kai bakoitzetik "Asturica-Burdigala" zeritzanera zetozen bideak. Auek ere ez dituzu dokumentuetan aurkituko, baiñan naita-naiezkoak ziran. Biderik gabeko kai batek ez bait zuan Erromatarrentzat ezertarako balio; ezta aipatua izateko ere. Sinistekoa da beraz bide oiek bazirala. Milla berreunera izango litzake pillotalekuetako artekarien ezpaitan esan dedan orren balioa. AKIAKI

---

<sup>14</sup>. "GeographiW, 111. 4, 10. Estrabon'entzat, eta erromateko beste idazleentzat, Oiartzun, Altza'tik Endaia'ra arteko lurralde guztia zan.

<sup>15</sup> Aipagarriak dira legua-arri oien artean Nafarroa'ren erdialdeko egosarkaldean aurkitzen diran aukerak: Santakara'n bi, bat 14'garren urtekoa, Zesaraugusto il zan urtekoa; eta, bestea, Tiberio'ren denborakoa, 32'garren urtekoa, gutxigorabera Kristo il zan urtekoa. Santakara'ren alboan, 134'garren urtekoa beste bat, Adriano'ren denborakoa; Nafarroa'n badira beste bi ere: III mendekoak biak: Eslaba'n bat 238'garren urtekoa eta Karo'n bestea, 282'koa. ("Caro Baroja'k zuzendutako "Historia General del Pais Vasco"; 122'garren orrialdetik aurrera.

Gaiñera, bide oietako baten alboan, ainzuzen Asturika-Burdigala bide nagusitik, Tritium Tuboricum (Motriko? Astigarribi?)'ko kaiera, Arlabaiir-en gaindik zijoan bidearen alboan agertu zaigu, orain arte arkeologiak Bardulitarren eta Karistiarren arteko muga-lurretan eman digun kristau-gauzarik zaarrena; esan-herri dedan lur egosizko ontzi krismoiduna.

Bazan, baitare, itxas-ertzaren luzaroan gure kai guztiak bata bestearekin alkartzen zituan beste bide bat. Arrazoi du Ander Mañarikua'k: "Un dltimo camino de penetraci3n desde Akitania ha de mencionarse y es el de la costa que, si no lo documentamos expresamente en tiempos romanos, lo vemos frecuentado por los peregrinos medievales, y es sabido que stos utilizaban antiguos caminos rornanos" <sup>1</sup>.

Iritzi berdiñekoa dugu Pierre Narbaitz ere: "Es verdad que de Espa3a a Lapurdum y de allf a Burdigala (Bordele) existfa un camino m3s o menos frecuentado, pero no figura en las vfas dichas romanas", (Azpimarraketa, berea) .

Ez dabiltz noski oso-oso zuzen bi edestilari ospetsu oiek: Egia da itxasondoko bide ori izan zala. Egia baitare, Narbaitz'ek dion bezala "en las vfas dichas romanas" bide ori ez dala agertzen. Bi dira "Vfas dichas Romanas" oien berri ematen diguten erromateko liburuak: Antonino'rena eta Rabena'ko "Anonhnus" edo "Izenge"arena, eta ez bata ez besteak ez digute bide ori hazanik esaten. Baiñan ez da egia, Narbaitz'ek eta Mailari-kua'k aditzera eman diguten bezala, errornatetiko batere dokumenturik gabeko bidea danik.

Ori egiztatzeko, birresan dezadan goraxeago esanik utzi dedana: Mola, Itall'n borrokan zebillen Anibal anaiari laguntzeko, Ispanietatik Galietara gure itxasoaren albotik gudari askoko, "magna manu"ko, gudarozte aundi bat Asdrubal'ek eraman zuan: Eta, nola, ori, Appiano edestilari erromatar ongi ezagunak ber-berak ematen digun albistea dan. Eta, azkenik, nola

---

<sup>16</sup>. "Introducci3n del Cristiarnsimo en el Pa3s Vasco. Primera semana de Estudios de Historia Eclesi3stica del Pais Vasco", 31'garren or.

<sup>17</sup> "La Cristianizackin del Pa3s Vasco Frances. I Semana de Est. Hist. Ecle. del Pais Vasco", 46'garren or.

edestilari txit ospetsu orren aapaldi ori, gure bide itxastar arek bere izatearen alde naiko dokumentu duan!

Bide guzti oietaz gaiñera, gogoan artu bearra da, Ibero ibaia bera ere, Lucronium (Logrotio)'ren alboan zegoan Bareia Berondarren uri nagusiaraiño ubide egokia zala, oso aundiak ez ziran ontzi-mota guztientzat.

Zan guztia zegoan beraz lau aizeetara zahalik gure Euskalerria, Kristautasuna mundura zabaltzen asi zan unean. Ez du beraz asko balio kristautasunaren etorrera geiegi atzeratzeko erabili oi dan lenengo arrazoiak: Euskalerria mundutik hazterturik eta munduari zearo itxirik aurkitzen zala-ko arrazoi ustel orrek.

Ikus dezagun orain, zenbat balio duan gure kristautasunaren atzeratzaileek beren iritziaren alde aurkezten diguten bigarren arrazoiak, ots, Euskaldunen basatikeriak.

Basatiak eta "barbaroak" izateaz gaiñera, lapurrak, gaizkilleak, odol-tzaleak, eta pizti bildurgarriak omen ziran Euskaldunak.

Aztertu'itzagun Euskalerriaz mintzatu ziran Erromate osoko idazle guztiak, gure arbasoei-buruz nola pentsatzen zuten jakiteko eta zaude adi, benetan adigarriak bait dira idazle zar aiek, eleneraz batzuek, lateraz besteek, emango dizkiguten albisteak.

Ikus:



## ELENERAZKO ETA LATERAZKO IDAZLE KLASIKOEN EUSKALDUNEI-BURUZKO IRITZIA

Asi dezagun Krist'aurreko lenen mendetik antziñate artako idazle aien azterketa:

- Kriseaurreko I mendean jaio zan, 65'garren urtean ainzuzen, Estrabon elendarra, naiz bere libururik garrantzitsuena, "Geographika", Krist'osteko I mendearen aurreneko urteetan argitaratu. Krist'osteko 20'garren urtearen inguruan il zan bera. Badu liburu orrek, gaizki ulertua izan dala-ko, euskaldunen gizabidearen aurka erabillia izan dan atal bat (Geogr. III, V, 7-8; IV, 16-19).

Erromatarren Spani'z ari dalarik, Spani orren iparraldeko errialdeak aztertzen ditu lendabizi, Estrabon geografilariak. Berak dion bezala, "Iberi'ko iparraldean aurkitzen diran leiñuak, Galiziarrek, Asturitarrak eta Kantauritarrak, Baskoiak eta Auñamendia arte": "Borelon pleuran aforizontas tes Iberias Kallaikous kai Astouras kai Kantabrous mejri OuaskemOn kai tes Pyrenes".

Eta iru leiñu oietako jendeei, ots, galiziarrei, asturitarrei eta kantauritarrei, onako akats auek leporatzen dizkie:

- Kulturgeak eta basatiak izatea.

Gizartearen eta gizatasun beraren zentzua galdu izatea.

Zesaraugusto'k menderatuak izan ondorean ere batzuek, Kantauri'n eta Kantuari'ren auzoan, oraindik lapurkerian ibiltzea.

---

' Kantauritarren eta Baskoien artean, Autrigoiak eta Bardulitarrak zeuden. Ez ote zituan Estrabon'ek ezagutzen? Bai noski, baiñan danak Baskoien leiñuaren altzora sartzen ditu. iGaur oraindik toponimiak adieraztera damaigunez, bi leiñu aiek Baskoiekin bai endaz eta bai izkuntzaz, Erri bat bakarra osotzen zutelako? Bai noski.

Beren basapizti-grifien araura garbitasunik gabe era zirtzillean bizi izatea eta gizonezkoek eta beren emakumeek ("tas ginaikas autÖn") beren buruak pixaz garbitzea, eta, soñia ikuzi eta ortzak arazteko, ontzi aunditan pixa gordetzea.

Orixe dugu Estrabon'en salaketa guztia. Baiñan salaketa ori, ez du Euskalerraren aurka egiña; soilki Galizi, Asturi eta Kantauri'ren aurkakoa da. Argi esaten du berak: "Kallaikous, Astouras kai (eta) Kantahrous, Baskoiak eta Auña-Mendiak arte: "MEJRI Ouasl ~n kai tes Pirenes".

Elenerazko "mejri" orrek, laterazko "usque ad"ek bezala **aditzak** berekin daraman esaldiaren arnaia adierazten du: "Baskoiak eta Auñamendia arte": "Usque ad": "Mejri".

Gure arazo oni dagokionez, "Mejri" orren bitartez, bere esan-naietik kanpora uzten dizkigu Estrabon'ek "Baskoiak eta Auñamendia".

Beraz, salaketa ortan esaten duan guztia galiziar, asturitar eta kantauritarrei bakarrik dagokie,

- Baiñan auen aurka diona ere ez da gauza lotsagarria: Grezi ta Erroma'ko kulturaz ederki jantzitako idazle txukun bati, Españi'ren iparraldeko mendietan bizi ziran jende aiek kulturik eta gizabiderik eta garbitasunik gabeko basapiztiak iduritzea ez bait da arritzeko gauza.

Zesaraugosto'k menderatu zituan kantauritarren eta auen auzoko jendeen artean lapurrak izatea ere ez da noski gauza arrigarria. Bere tokian ikusiko dugun lez, aro artan lapurkeria Erroma'ren inperio-lurretan zoko guztietako gaitza bait zan:

"Il fenomeno diI brigantaggio (lapurkeria) assume (artu zuan) vera e propria gravita solamente nella storia del mondo romano, e non solamente sotto l'Impero, ma anche (baita) sotto la Repubblica" (Enciclo.Ital).

Ona zer esan nai duan orrek: Lapurkeria, batez ere, eta gogorrenik, Erromar-Inperio-Lurreko gaitza izan zala, eta bereiziki, Inperiotza sortu zanez gerokoa, naiz leenago ere, Errepublikar-aroan, anitz izurri gaitzoa gertatzera iritxia izan. Ala, "gravissimo" omen zan "il pericolo" Julio Zesar'en garaiean, eta ez gozoagoa Zesaraugosto'ren agintaritzapean. Ekin omen zuan onek gaitz aren aurka, Asi Txikian, Españi'n, eta Itali'n bertan; baiñan deus aundirik lortu gabe: "la sua opera fu poco fruttuosa".

Kantauritarrek beintzat bazuten arrazoirik aski lapurretan ibiltzeko. Izan ere, inora jo zezaketan gudan menderatuak izan ondorean esklabutzatik edo gurutzean josiak izatetik iges egitea lortu zuten gudari Kantaurita-

rrek, mendi eta basoetan bizirik jarraitzeko? Bearrezkoa eta naitanaiezko bait zuten lapurreta. Ez da noski arritzeko gauza!

Lapur aiek, ordea, gutxi izatea ere eta gutxi zirala diosku Estrabon'ek-- ez zaigu arrigarria gertatu bear. Izugarria izan bait zan guda artan Zesaraugusto'k kantauritarren artean egindako sarraskia. Estrabon'ek berak aitortzen digu gurutzeari iltzez josia izaten zala katigu arrapatutako borrokalari kantauritar oro.

Nor ibilli ote zan hasatiago? Errukirik gabe gudari baitua gurutzatzen zuten Zesaraugusto'ren gudari erromatar "zibilizatuak" ala gurutzeari iltzaturik, eriotzari kantari dei egiten zioten gudari kantauritar "barbaruak"?. Ori ere, abestuz eriotzari aurpegi emate ori, basatikeri lez gaitzesten bait du Estrabon'ek

Badu alatagutziz Galizi-Asturi-Kantauritarren aurka salaketa gogorragorik: aker eta zaldiekin batera, odolezko eskeintzan, "Adur" edo "Fortuna" izeneko jainkemearen omenez, gudan baitutako etsaiak ere erailtzen zituztela.

Bai ote? Ez bait da argia Estrabon'ek jakiñerazi nai izan ziguna. Erabi-Ii zuan itzak, berez, "gudan irabazitako ondasunak" esan nai du: lateraz, "praeda beili", gazteleraz, "botIn de guerra". Baiñan, "puede tambib signitlear prisioneros", diosku Ander Ibariez irakasleak.

Ar dezagun egiazkotzat Kantauritarrek Adur jainkemeari eskeintzen zizkiotela aldare gaiñean bizia kenduz, gudan baitutako etsai gudariak. Egia esan bearra da-ta, Erromatarrek ez zuten heñere orrelako "erailketa done-rik" egiten. Baiñan etsaia jainko baten aldare-gaiñean iltzea baiño gauza txukunagoa, goxoagoa ta "zibilizazio" geiagokoa al da, iru iltzez josita, eguna joan eta eguna etorri, karraixika ezin etsaia gurutze batean josirik uztea?

Kontuz gaiñera! Estrabon'ek erabillitako itza zentzu okerreanean artzen ba'dugu ere, Iberi'ren iparraldeko jende aiei, Estrabon'ek bakarrik leporatzen die, etsai baitua sasijainko baten omenez iltze ori. Beste iñork ez.

---

<sup>2</sup> Liburu onen azkenean damaizut, osoki, Estrabon'en atal au. Gazteleraketa, Gazteiz'ko Teologi-Fakultatean irakasle dan Ander Ibaitez adiskideari eskatu diot.

Estrabon berriz ez zan sekulan lurralde auetan izan. Damaizkigun albisteak besteren agotik jaso zituan. Bere aurrekoek idatzitako liburuetatik eta kantauritarren aurka guda gogor artan ibilli ziran gudari erromatarren ezpaitatik. Eta gauza jakiña da nola mintzatzen diran gudari garailleak ain gorrotogarri izan dituzten etsai garaituetaz.

Bedi ori kantauritarren goraipuz esana.

Bestalde, oraingoan ere yare gelditzen dira euskaldunak salaketa oieta-tik.

Egia da: Lapurkeria Kantauritarren eta auen auzoko jendeen arteko gaitza zala esaten zigun Estrabon'ek. Baiñan berak esaten digu baitare "auzoko jende" aiek nor ziran: Zesaraugusto'k Kantauritarrekin alkartuta zeudelako aiekin batera menderatu zituan jendeak: Asturitarrak beraz; eta Galiziarrek, agian. Baiñan ez Autrigoitarrak. Izan ere, aiek, Kantauritarrak, Erroma'ren aurka jeikiz sartu ba'ziran ziran guda artara, ez bait zuten Autrigoitarrek alakorik egin. Auek, alderantziz, aspaldidanik etsai zituzten Kantauritarren aurka jardun zuten; ez, izkilluz, baiñan bai, Akitani'tik janaria ekartzeko bide yarea Erromatarrei emanez.

Pixaren bitarteko garbikuntzari dagokionez, berriz, Estrabon'ek adieraztera damaigunez, alako oitura bitxi ura ez bide zan Kantauritarrena bakarrik. ¿,Euskalerrikoa ere bai ote zan?

Nonbait, ez dakit non irakurria dut, Euskalerriko txokoren batean gaur-egun ere zauriak pixaz sendatzeko oitura badala. Ori, ordea, mundu guztian zabaldurik dagoan oitura da! Geiago oraindik: Indi'ko zenbait errialdeetan, goizera, iedan egiten omen dute edanontzi bat pixa! Asko zabaldu zan dirala urte batzuk, egunari asiera edari ori artuz emateko oitura, Amerika'ko Laterri Alkartuetan batez ere. Dossier oso bat argitaratu bait zuan gai ori aztertuz "Tiene" aldizkariak.

Beraz, Estrabon'ek ez du deus erdeinugarririk euskotarren aurka esaten, eskuetan daukazun liburu onen azkeneko eraskifietan ikusi aal izango duzun lez. An emango bait dizut osoa, bere liburuaren atal ori. Alderantziz, goratarre aundi bat bai! badagi gure Arbasoen alde atal ortan bertan: Alegia, euskaldunek "izenik gabeko Jainko bat gurtzen zutela", len ere irakurria duzun bezala.

\* \* \*



- Kriseaurreko I mendean (83'gerrenetik 35'garrenera) bizitu zan Erroma'k izandako edestilaririk aundienetako bat. Salustio. "Gaius Sallustius Crispus". Danetan txukunena beintzat, dotoreena, eta irakurtzeko atsegiñena.

Orra Jende zintzo ta jende atsegiñaren erria da, Sertorio'ren gudaz mintzatzerakoan Salustio'k agertzen digun Euskalerrria: (Historia Romae, III, 21).

Gudu ark Inperio-lur osoan sortu zituan zalapartak, baiñan orduango Euskalerrri zabalaren inguruan batez ere gogorrenak. Erroma'n agintaritza lortu nai zuten Mario eta Sila buruzagiek piztu zuten guda izan zan ura: Laterkideen arteko guda.

Erromatarren Ispanietan Pompeyo, ainzuzen bere izena emanez

"Pompaelo" deitu zion ura bera -- izan zan silatarren buruzagia eta Sertorio mariozaleena.

Bein baiño geiagotan aipatu bearko dugu gudu zital ura, garrantzi aundikoa izan bait zan Euskalerrriarentzat: Baskoientzat bereiziki.

Salustio eta beste edestilari erromatar guztiiek **gudu artan**, Erroma'n agintaritza bere eskuetan euki zuan Sfia'ren aldekoak izan zitzaikigun. Orregaitik, gogoan euki bear dan gauza da, aiek "erromatarrak" esatean, "silatarrak" esan nai dutela; eta, "Erroma'ren gudaroztea" esaten dutenean, Sila'ren gudaroztea.

Euskaldunak, eta Baskoiak berak, bi alderdietan ibilli ziran bata bestearen aurka borrokan. Jatorrizko pekatu zarra dugu dirudianeaz euskaldunok beti zatituta eta beti alkarren artean borrokan ibilli bear ori! Gure jatorrizko oben orren ondorioa dugu, baitare, guri batere ajolik ez zaigun atzeritarren arteko gudu orotara sartu nai izateko gurari zoro nazkagarria. Eta ongi erroturik daukagu noski gure baitan pekatu zar ori, naiz bein Altabella kanonigoak, euskaldunon ustez gudan jatorrizko pekatua indargea dala, gaur ia osorik galdua dan liburu batean idatzi.

Orregaitik, liburu ori eskuratzeko arras zailla dalako, eta gaia euskaldunon kristautasunari dagokiona dalako, ementxe emango dizut, oar onen bidez, liburu ortako esaldirik bizkorrena<sup>36</sup>.

A!, ta, mariozaleen eta silazaleen gudate artan bi alderdietako erromatarrek ibilli ziran gustora beren euskaldun adiskideen artean. Ala bait dio Salustio'k Pompeyo, atsedean artzera ta era paketsuan garia lortzera Bas-koiengana etorri zala bere gudarozte osoarekin: "Tum Romanus exercitus frumenti gratia remotus in vascones est": (1.e.).

Ez du Salustio'k Krist'aurreko lenen mendean euskaldunen aurka zer-esanik.

---

<sup>3</sup> "Para los separatistas vascos la raza es un "TO" ABSOLUTUM (azpimarraketa berea) que vive y alienta y diversifica y perfecciona e inspira y une y tiene vida independiente para darla luego a los individuos y dar ella a las personas ideas y me'ritos.

"La cultura, la civilización y los sentimientos todos tiene su raíz en la raza. La substancia nacional esta en la raza. Unicamente la raza dicta el bien La raza vasca es una realidad substancial y substancialmente distinta de las otras razas.

"La raza vasca es raza isla, que no data, y superior a cualquier otra. Su cultura es superior a toda otra. Las razas con las que tiene que rozarse son inferiores, viles, decré'pitas, Orficlas. Y por eso ha de salvarse hoy a la raza vasca de la impiedad latina (azpimarraketa au berea; besteak, nereak)

"Claro esta que como catalicos defienden al existencia del pecado original. Pero en el vasco está latente. "Esta' manifiesto el en el carcter y las costumbres del español, y al contacto del hijo de España con el euskariano se enciende y manifiesta en este y altera sus costumbres" (ez diosku nondik artua duan esaldi ori). Es que la raza vasca es pura y el pecado original no tiene en ella nada que hacer; la raza española es el vehículo del peado original" ("El catolicismo de los Nacionalistas Vascos". Editorial Nacional, 1.939. 195-196 or.)

Iñoiz iñork esan al du euskaldunen aurkako erokeri aundiagorik? erokeri orri, "para que conociendo el problema vasco en toda su significación amemos todos juntos a la Iglesia con su cabeza visible el Papa y a España con su incomparable caudillo Franco" esanez, euskotarrentzat ain oroipen makurrekoa dan Xabier Lauzurika gotzaiak idatazi zion itzaurrea (ib.11 or).

Alderantziz, liburu ortan esaten danaren doñuari adi jartzen ba'gera, errez oartuko gera, Euskalerrian arras atseginki aurkitzen zirala erromatarak, bai Sertorio'ren bai Pompeyo'ren aldekoak. Bakoitza bere aldeko euskaldunean artean, jakiña!

\* \* \*

- Kristo'ren ondorengo I mendean, Titus Livius izan zuan Erroma'k edestilaririk ospetsuena. Padua'n jaio zan Krisraurreko 59'garren urtean, eta Zesaraugusto'ren lagun izan ondorean Krisrosteko 17'garrenean il zan.

Baskoien lurretan, Kalagurri'n eta uri onen inguruan erromatarrek izandako gduetaz oparo mintzatzen da, baiñan ez duzu bere idaztietan "Baskoi sarraski-zaleen" aipurik aurkituko.

- Gure I mendearen asieran Flaccus M. Verrius'ek ere Baskoien lurraz itzegiten digu, eta Gracchus buruzagiak Illurcis izeneko uri Baskoia, bere izena emanez Grachuris, ots, Grakuri, nola biurtu zuan esaten digu.

Tito Libio'k ere badakar izen aldaketa orren berri.

Baiñan ez bata ez besteak, ez Tito Libio'k ez Flako Berrio'k, ezta tutik ere deabrua bera izutzeko diña bai omen zan Baskoien basapiztikeriari-buruz.

\*

- Sextus Julio Frontinius ere I mendekoa dugu; mende ortan egin bait zuan bere lana, naiz 103'garren urtean Jaio, 43'an jaio zan. Euskaldunen eta erromatarren arteko guduen edestia egiterakoan, Eszipion'ek "Jazetiarrak" menderatuta Jaka uria nola kendu zien esaterakoan bi eusko-leiñu aipatzen ditu bere "Stratagemata" edo "Guduketak" izeneko liburuan: "Jazetiarrak" eta guda artan Erroma'rekin bat eginda Jazetiar anaien aurka ibilli ziran "Suesitarrak" .

Euskaldunen basatikeriaz ordea, ezer ez Frontino'k, naiz azaltzen zituan eginkizunetan euskaldunak Erroma'ren etsaiak izan.

Orduan erromatarrekin bat eginda ibillitako euskaldun Suesitarrei-buruz berriz, "gudarako batere prestaketarik gabeko jendeak" zirala esaten digu: "rnaxime imbelles". Sarraskilari odoltzaleak izatetik ongi urruti zeuden noski euskaldun aiek!

lazetiarrak, laka izeneko uriaren inguruan bizi ziran, geroago Aragoi izanen dan lurraren guneguneean. Suesitarrak, berriz, gaurko Sangotza eta Sos izeneko inguruetan. Bai auek eta bai aiek leiñu Baskoiaren adartxo bi zirala dirudi.

\* \* \*

Oso-osoan Krist'osteko 1 mendekoa dugu, 22'an jaio eta 101<sup>1</sup>ean ilzan Silius Italicus olerkariak, "De Bello Punnico" deritzan olerti-lan zaba-lean, "Uasco", ots, "Vasco", esaten dio euskaldun orori, eta iru gauza esaten ditu "Vasco" orri-buruz:

1<sup>a</sup>: Ez zala burnizko guda-kapela jantzita erabiltzearen zale;

2<sup>a</sup>: alare, izkilluak erabiltzera bai, ederki oitua zala; eta,

3<sup>a</sup>: "levis", ots, borrokarako "azkarra", "ariña", "bizkorra" ere bazala.

Anibal buruzagi Kartagotar ospetsuaren gudaroztera sartu ziran enda ugarietako izkillularien artean, Kantauritarrak eta Euskaldunak aipatzen ditu; beti bata bestearen ondoan, baiñan beti bata besterengandik bereizita.

Aurrena Kantauritarrak eta Euskaldunak aien atzetik aipatzeak ez du ezer esan nai, poema idazteko artu zuan laterazko olerki-erak eskatzen bait zion ori, bertsoa ondo neurturik irten zekion.

Ez duzu I mendeko Silio Italiko'ren itz neurtuetan euskaldunen basatikeri, odol-zaletasun eta gaiztakerien aipurik aurkituko. Alderantziz, estrofa edo aapaldi aien doiñuak agertzen duanez, goratarre eder bat besterik ez dira euskaldunei-buruz idatzi zituan itzneurto guztiak. Ori..., une artan Euskaldunak, Anibaren gudaroztean, jerrromatarren etsai zirala!

Ikus:

"Aut uasco insuetus galeae ferre arma morati". "Burnizko buru-babesa erabiltzearen etsai, baiñan izkilluketara oitua dan euskalduna":

Orixe bera esango digu beste iru aldiz. Ala, erromatarrentzat ain kaltegarria izan zan Trasimeno'ko borrokan Anibal kartagotarraren esanera borrokatu ziran enda ezberdiñetako borrokalariak oroitzen dituanean: "Cantaber et galeae contempto tegmine Uasco", ots, beste batzuen artean "Kantauritarra eta burnizko burukoaren babesa ezesten duan Euskalduna".

Berdin Cannas'ko borrokan erromatarrek jasan bear izan zuten ondamenaren berri ematerakoan: Anibaren esanera borrokatu omen ziran "Kantaber ante alios nee tectus tempora Uasco": "Danen aurretik, Kantauritarra eta burutsik doan euskalduna"

Eta, Paulus buruzagiaren goratzarrea egiterakoan, oraingoan kantauritarren aurretik Euskaldunen izena emanez:

"At iuvenem, quem Uasco levis, quem spicula densus  
Cantaber urgehat, lethalibus eripit armis":

Euskeraz:

\*

"Euskaldun zauliak eta triku-antzerak geziz ornitutako  
Kantauritarrak mendean zuten gaztea, berak  
(Paulus'ek) salbatu zuan izkillu erioigarri aietatik".

\* \* \*

Appiano elendarrak, II mendearen asieran eman zuan argitara "Rho-nanike" "Erroma'rena" izeneko bere liburua. Ejito'ko Alexandri'n jaioa zan, I mendearen barruan, eta eleneraz idatzi zuan.

Era atsegiñean ematen dizkigu erromatarrek Aufta-Mendiaren bi aldeetan egindakoen berri: Nola, Ponpeyo eta Mela, au silatarren buruzagi nagusia, negua igarota Auñamenditik, ots, "ffin Pirenaion"dik Ibero ibaiaren zelaietara jetxi ziran; nola Sertorio'k Kalagurri'ren alboan garaitu zituan; nola gero, buruzagi au Sertorio — sortaldeko euskaldunen artean Oszitarren eta Ilergetarren artean zan; eta Ilergeten Ilerda (Lerida) eta oszitarren Oska (Ueska)'tik barrena "Kalagurri Baskoien urira" "Kalaguri Waskoni3rn poli"ra bildu zan: azkenean, bere lenen ordezkari zuan Perpena'k gertutu zion saldukerizko otordu batean erailla izan zan arte.

---

Izan ziran beste bi "Kalagurris" ere, eta Euskalerrian biak Bat Ueska'ren ipar-sarkaldera Ueszitarren lurraldean; bestea Akitani'n Auñamendi'ren erdialdeko maldetatik ez urruti. Ta, Euskalerritik at, noizbeinka Kalagurri esan izan zaio Donedomingo Guzman'darraren sort-erriari: KaIeruega'ri.

XIV mendean oraindik euskalduna izan zan Oska edo Ueska urian gertatu zan ori. Krist'aurreko 72'garren urtean ("Rornainik VI, 54).

Euskalerrria aipatzen duan une guztietan ez du Appiano'k II mendearen asieran Euskaldunentzat laidogarri izan daitekean itz bat ere: ez Akitania-arentzat ez Ilergetarrentzat, ez Oszitar edo Ueszitarrentzat ez Baskoitarrentzat, ez Errioxa'ko Berondarrentzat. Ez Pompeyo'k ez Metelo'k ez Setorio'k, ez bi mende geroago aien ibilleraren edestilari izan zan Appiano alexandritarrak ez zuten euskaldunik iraindu; ez zuten Euskalerrrian gizakume basati odol-egarririk aurkitu.

Alderantziz gure Euskalerrria gizakume paketsuen eta adiskidetsuen Erritzat euki zutela dirudi.

Sertorio'k beintzat Baskoien artean, bereiziki kalagurritarren artean izan zituan bere lagunik zintzoenak Ponpeyo'ren aurkako borrokan. Era berean Ponpeyo'k ere, Sertorio'ren aurka, Baskoiak izan zituan jarraile leialak. Iruña'ren ingurukoak, onek.

Atzera berriz, bata besteren aurka borrokan euskaldunak, berentzako ajolik ez zuten arazo atzerritarretara sarturik.

\* \* \*

Esaldi politez eman zigun, I mendean guda-zaldundiko buruzagi izan zan G. Velleius Paterculus edestilariak "Historiarum Romanorum Libri II" idaztarian Sertorio'ren eriotzaren albistea:

"Perpena...Sertorium inter cenam Oscae interemit romanisque certam victoriam, partibus suis excidium, sibi turpissimam mortem pessimo auctoravit facinore". "Perpena'k, Ueska'ko apartan erail zuan Sertorio, eta au da gaiztakeri arras makur orren bidez, lortu zuana: erromatarrentzat garaitza ziurra, bere alderdikoentzat erailketa, eta bere buruarentzat eriotzarik lotsagarriena" (Beleio Paterkulo 1.c. 1,30,1).

Oroi, edestilari erromatarrek Erroma'ko Jaurlaritzaren alde egon zirala Sertorio'ren gudatekoan. Ala, "Perpena'ren gaiztakeriak "erromatarrei"

---

Apiano, Alejandri'n jaiotako lege gizon eta idazleak, 11 mendearen lenen erdian idatzi zuan Erroma'ren edestia 24 liburutan zatitua. Berak Edesti orri eman zion izena "Romailca" da.

garaitza eman ziela." esan zuanean, garaitza ori "silatarrei" eman ziela adierazi nai zuan.

Sertorio, naiz begi atsegiñez ikusia, Erroma'ren aurka jeiki zan iraultzalari bat izan zan aientzat.

Eriotz lotsagarria benetan Perpena'k, Sertorio'ri egin zion zikinkeria-  
ren truke lortu zuan saria: Lepoa moztu bait zioten garaitua izan ondorean,  
silatar garailleek.

Pompeyo Akitanrra abiatu zan paketsu: Euskaldunen artera. Euskaldunen artera an ere: Jende adiskideen artera.

Ikus dezakezun bezala, Beleio Paterktdo'k ere, gudu ura zala-ta, Euskalerriko lurretaz mintzatzerakoan, ez zuan emen, gure lur auetan, euskaldun erdi-deabrurik aurkitu.

\* \* \*

Mintzatu ziran gudu artaz Erroma zarreko beste edestilaririk geienak ere.

Ala, adibidez, Lucius Annaeus Florus, H mendearen lenen erdian, bere "Epitome de Gestis Romanorum" edo "Erromatarrek Egindakoen Azalpen Laburra" deritzan liburuan gudate aren amaia ematerakoan. Baiñan ez da liburu ortan euskaldunentzat Ioigarri izan daitekeanik azaltzen. Azkena errenditu zan uria, Kalagurri Baskoia izan zala diosku Floro'k, baiñan "gosetearen gaitz guztiak jasan ondorean" errenditu zala, "fame nihil non experte Calagurris" (Epit. II). Ori esatean, erromatarra zalarik, egin zezaiekan goratzarrerik aundiena egin nai izan zien Floro'k Baskoiei, Sertorio'ri emandako itza betez jarraitu bait zuten auek, Sertorio ilda gero ere borrokan, aren izenari zioten leialtasun alako era arrigarrian erakutsiz.

Ori, jardunketa ori, txit aintzagarria iduritu zitzaion Floro erromatarra-ri. Guri ortea, euskaldunoi, aintzagarri ez baiña arras tarna lgarria iduritzen zaigu. Kalagurri'ko Euskaldunek egin zuten ikaragarrikeri ura, izugarriz-ko ikaragarrikeria, giza-aragia ere jatera iritxi ziralako, euskaldunei batere ajolik ez zitzaien atzerritarren arazo baten alde egiña izan bait zan!

Exuperanzius V mendekoa da, eta idatzi zuan onek ere Sertorio'ren guduaz, gauza berak kontatzeko.

Eta, Erromatarren agintaritzaz bere amaiera iristera zijoan unean Erroma'ko Edesti osoa aurkeztu ondorean Euskalerra zabal artako lurraldeetan gertatutakoaz ari dalarik, ez du Euskaldunen amorrakeri gaizkillerik aipatzen.

Alderantziz, beste idazle guztien idazkietan lez, edestilari onek idatzitakoan ere, Euskaldunak ez baiña Erromatarrek izan ziran piztikoiak, ankerak, eta benetan gaizkilleak jende-erailketan eta uri-kiskalketan: "Pompeius...Anxumen, Cluniam, Calagurrim civitates delevit": "Txikittu ta ezereztu egin zituan Pornpeyo'k Artxuma, Kluni eta Kalagurri'ko uriak (Hist.5.IV).

\* \* \*

- Zesaraugusto Inperatoreak, Akitani'n erromatarren aurkako azken eusko-iraultza menderatu ondorean, Krist'aurreko 29'garren urtean, Kantabri'ri eraso zion, ortarako Auñamendia igarota, Akitani'tik Autrigoni'ra, euskaldunen lur guztia zearkatuz. Are geiago, Krinagoras olerkari epigramagilleak ("Anth. Palat". IX, 419, eta Suetonio'k ("Aug". 82) digutenez, Euskalerrak izan zezakean tokirik basatienean, Auñamendiko baiñutegi batean egon zan, lasa-lasa, atsedean artzen.

Zesaraugusto'ren garaiean euskalduna zan itxasotik itxasora Auñamendi guzia. jEz al zan ain eroa izango Zesaraugusto, Auñamendiko zoakoetara lasaitasun billa joateko... Euskaldunak, idazle españiar askok uste duten lez, basapizti arriskugarriak izan balira!!!

Garrantzi aundiagokoa dan beste zerbait ere esaten digu Suetonio'k, erromatarrek euskaldunengan zuten uste ona zenbateraiñokoa zan adierazteko, unerik arriskugarrienetan inperatoreek, eskiertasun orokor baten billa, gudari euskaldunez inguratzen bait zuten beren burua. Badakigu zer egin zuan Gamba'k. Ikus zer egin zuan Gamba'k baiño leenago Zesaraugusto berak:

"D'après Su&one (Ib.II.49) des empereurs auraient eu parmi leur garde une cohors calagurritana" (Dic.Hist.EcM. XI. 268).

orain, E.López Soto'k gaztelaturik, Zesaraugusto'ri-buruz, Suetonio'k bere "Leengo Amabi Zesar'en Bizitzak" deritzan liburuan dioskuna:

"Augusto distribuyb entre las provincias, de las fuerzas militares, las legiones y las tropas auxiliares; establecid una flota en Mesina y otra en IUvena para la defensa de los mares Adrikico y Tirreno; el resto de los



efectivos los asignó parte a la custodia de Roma parte a la de su propia persona, una vez que hubo licenciado la tropa de los calagurritanos a los 2 que había tenido consigo hasta la derrota de Antonio como guardias de corps". (Vida de los Doce C6ares". Barcelona 1978. 85).

E? Arrisku-aroan, bere burua babesteko, ¡Baskoiak! Eta arrisku-aroak irauten duan bitartean, bere inguruan, ¡Baskoiak! ¡Soilki Baskoiak! Arrisku aro ori ezabatzen zaionean bakarrik emango die bere zaintzako Baskoiei, -- eta, ez noski esker onik erakutsi gabe --, beren etxeetara garaille biurtzeko baimena.

¿Euskaldunen giza-ontasunari nor -- eta nola! -- goratarre aundiagorik, ederragorik, bikaiñagorik egin dezaioke?

Gaizkille eriozale amorratuen artean ez baiña, jende paketsu adiskideen artean sumatzen zuan noski Zesaraugusto'k bere burua, Auñamendiko atsedeen-toki goxo artan pozik egon zanean... eta bere burua zaindari baskoiez ikusten zanean.

\* \* \*

Amar urte iraun zuan Kantauritarren arteko gudate ark; Krist'aurreko 29'tik 19'ra; eta amar urte oien epean "el ej&ecito romano pudo tener como base de algunas operaciones algunos puntos marftimos del Golfo de Vizcaya tanto como las fronteras terrestres". (Ez dakit non, baiñan Caro Baroja'en idazki batean irakurria dut ori).

Guzti orrek, ezpairik gabe, Euskalerrria ez zala, adierazten digu, gaizkille lapur atzerritar-erailleen errria. Alakoa izan ba'litz, aro artan ain garrantzi aundi-aundikoak ziran Auñamendia ziurkatzen zuten bideetako pakea ta eskiertasuna eragozten zuten euskaldun gaizkilleen aurka Erroma'ko gudarozteak nola zigorkera erabilli zuan, esango bait ziguten idazle erromatar guztiek. Batez ere Kantauri'ko gudu artaz idatzi zuten edestilariek. Erroma'rentzat Auñamendi Euskalduna lenen maillako garrantziduna izan bazan ere, orduan bait ziran iñoiz baiño garrantzitsuak mende ura zearkatzen zuten bideak.

Orra ba, ez zigan orrelakorik idazle bat batek ere aipatu!

Esan ziguten, bai, idazle aiek, xeetasun ugariz gaiñera, Kantauritar garaituak nola izan ziran milla era ezberdin ankerrez, -- gurutzezko eriotzez asko ta asko --, eruririk gabe zigortuak.

Baiñan, amar urteko gudu luze artaz ari diralarik, Erroma'ko idazleen liburuetan ez duzu euskaldunen gaiztotasunaren aipurik txikienarik aurkituko.

\* \* \*

- I mendean idatzi zuan M. Valerius Maximus edestilariak "De Deste Factisque Mernorabilibus" edo "Esakizun eta Eginkizun Oroigarriak" izeneko liburua. Eta, liburu ortan, Sertorio il ondorean ere, kalagurritarrek aren alde borrokan jarraitu zutela diosku.

Eta, Sertorio'ren gudariak ezabatuak izan ondorean, Afranio, Pompeyo'ren ordezkariaren gudarozteak inguratutik, goseak eraginda beren emazte ta umeak jatera irixi zirala kalagurritar kementsu aiek len numanziarrak bezala agorako belartxo bat ala zomorrotxo bat ere gabe gelditu ziranean.

Eta gudan jarraitu aal izateko gatzatu egiten zituztela beren emazte ta ume aien okelak.

"Execrabilis impietas", "sendikoen aurkako oben gaitzesgarria" esaten dio kalagurritarren giza-aragi jate orri. Eta ez du euskaldunen aurka beste ezertxorik agertzen (I.c. VII,6).

"Execrabilis" esan zion kalagurritarren jardun-bide ari..., baiñan aapaldi guziaren barruan aipu osoak duan zentzuaren araura, ekintza ikaragarri ura miresgarri ta aintzagarri ere iduritu zitzaiola ematen du.

Ots, ordea! i,Euskotarrak ote ziran kalagurritar aiek ala soilki Kalagurri'n bizi ziran Erromatarrak? Bietatik agian, baiñan "ia-ia" danak Euskotarrak, eta, "ia-ia"ka ibiltzeke, DANAK ziran Euskotarrak, eta baita agian euskaldunak ere, I mendeko 47'garren urtean jaio zan Jubenal olerkari ospetsuari ongi merezi duan uste ona ematen ba'diogu; Antropofagi edo gizajateaz mintzatu ondorean onela bait dio:

"Vascones, haec fama est, alimentis talibus olim produxere animas": "Orrelako jakiari eskerrak gorde zutela, esan oi da, Baskoitarrek bizia".

Gero, ain ederki zuritzen du itzneurtu politez Kalagurri'ko Baskoitarren jardunkera-ta, Euskaldunen goratzarre biurtzen da Jubenaren aapaldi ontan ere sarraski aren aipua.

¡Euskaldunen goratzarre! "Vascones", bait ziran kalagurritar aiek Jubenarek dioskunez. "Vascones", esaten du batere zalantzarik gabe. Eta gertakizunetik ain bertan zegoalako Jubenarek bazekian ongi, Kalagurrrn

zer egin zan eta egin zana zeñiek egiña izan zan: "Vaskones": Baskoiak! (Satira XV, 93).

Egia da Jubenal, Decimus Junius Juvenalis, olerkaria zala; onenetakoa, goretsienetakoa, baiñan, alatagutziz, olerkaria, eta olerkariak ez dirala edestirako lekukorik ziurrenak. Bai ordea oraingo ontan; Jubenarekin bat egiñik agertzen bait zaizkigu edestilari guztiak. Danentzat, Baskoiak dira Kalagurri'ko biztanleak. Iñork ez dizu Kalagurri'ko Erromatarrik edo Kalagurri'n bizi zan Erromatarrik aipatuko. Kalagurritarrak? Baskoiak! Danak Baskoiak, dokumenturik baliotsuenek, ots, garai artako edestileriek aitortzen digutenez.

Kalagurri'n gertatuaren berri ematerakoan, lentxeago Keltibertarren Nurnantzi'n gertatu zana zeukaten edestilari ta olerkari aiek gogoan.

Keltibeltarra esan oi zaio Numantzi'ri, baiñan ango toponimi euskalkoia ez dator bat esakera orrekin.

Ala, Erromatarrek menderatua izan aurretik Garrai -- edo Garai — esaten zitzaion, eta gero Erromatarrek seguruaski Numa Pompilio'ren omenez hurr-izendatu zuten "Nurnantia"; baiñan Garai edo Garrai izanez jarraitu zuan bertako jendeen izkeran. Orrela agertzen bait da Naparroa'ko Erregeen dokumentuetan ere.

Ezaguna da Garaitarrek Erroma'ko lejiotarren eskuetara bizirik ez erotzeagaitik. su eman ziotela beren uriari, eta sute artara bota zituztela beren ume beren emakume eta, baita, beren buruak ere.

Ba ekintz izugarri ura ekintz onuragarritzat gorestua izan zan bezala izan zan aintzaldua Garaitar aiena bezain ikaragarria zan Kalagurritarren beste ekintza berri au ere; eta uste ortan goraiatu zuten Erroma'ko olerkariek eta Erroma'ren inperio-lurreko jende guztiek.

Deus ez, oraingoan ere, iñondik eta ifiorengandik ezer ez Euskaldunen zintzotasunaren aurka. Ezer ez! gure asabentzat iraingarri daitekeanik.

Gaiñera, Kalagurrrn piztikeri iguingarririk izan ba'zan, eta izan zan, ez zan Kalagurritarren aldetik gertatu, Erromatarren aldetik baizik. Ikus zer idatzi zigun Orosio edestilariak:

"Calagurrim Afranius iugi obsidione confectam atque ad infames estas miseranda inopia coactam ultima caede incencloque, delevit": "Atranio'k, (Pompeyo'ren gudarozteko buruzagia zan Afranio'k) estu inguratu zuan eta azkenean eriotzez eta su-emanenez ezabatu zuan, goseak eraginda aragi-jate gaitzesgarrira bearturik aurkitu zan Kalagurri".

Dakusazunez, Erromatarrek, uria kiskali ondorean, aitzoz il zituzten bizirik arrapatu zituzten gizon, emakume, ume eta agure guztiak. Ori esan nai bait du "ultima caede delevit" deabrukoi orrek (Hist.IV-V).

\* \* \*

M. Terrentius Varro (K.a.116-K.a.28). Idazle lez, oso-osoan Krist'au-  
rreko lenen mendekoa dugu, Tito Libio bezala, Erroma'k izan zuan gizonik jakintsuenetako au: edestilari, erretorikalari, izkuntziltzitari, nekazaliltzitari, olerkari eta politikari, jorratu zituan gai guzti oietan izan zan benetan izentsua. 1,Nola ez?, aipatzen ditu Euskaldunak, baiñan beiñere "euskaldun" izenari izenondoko zatarrrik erantsi gabe. Ori, Barron'ek Euskaldunak ederki ezagutzen zituala. Narbona'n jaioa bait zan bera, Kriseaurreko 11 mendean, 116'garren urtean, eta aldi zar aietan, Narbona, bearbada, Euskalerrian aurkitzen bait zan oraindik, eta urian bertan ere Euskera an oso ugari ziran salerosle sortaldetarren elenera aiña eta seguruaski latera baiño geiago itzegiten bait zan!

ezer ez, iñolaz ere euskaldun jendea ederki ezagutzen zuan eta Erroma'ko gizonik jakintsuenetakoa izan zan gizon onen agotik Euskaldunen aurka!

\* \* \*

Ez zan edozein ori idatzi zuan Paulus Orosius IV mendearen azkenal-  
dera jaiotako idazle tarragonatarra: teologilari ona, edestilari izateaz gaiñe-  
ra; apologilaria pelajikeriaren aurka, eta Ipona'ko Augustin Donearen ikasle, adiskide ta laguna. Ainzuzen Donaugustifl'ek eskatuta idatzi ere zuan bere "Edestia".

Baiñan teologilari, apologilari ta edestilari onek ere, V mendean, ez dio Euskalerriari Erri bezala deus okerrik leporatzen. Lapurretaz mintzatzen da, baiñan orduan, Erroma'ko inperioa ankaz gora zijoanean eta iñon autoritate sendorik ez zegoan unean eta ekonomia lur jota aurkitzen zanean, lapurkeria lurralde guztietako kontua izan zan; goseak eriotzaren atarariraiño estututako jendeak izaten bait ziran askotan lapur aiek. Askotan, soldatarik gabe zebiltzan lejiolari berberak ere bai.

Iritxi ziran V mendean ugalde aren ziprizitiñak gure Euskalerrriaren ego-egoaldeko Baskoiengana Ibero ibaiaren lurraldeetan, baiñan ziprizitiñak soilki. Gaiñera orduango lapurkeri artaz laister mintzatuko gera; eta orduan ere askoz pake geiago zala Euskalerrrian, ikusiko dugu, bere inguruko errialde guztietan baiño.

Ez du Orosio'k, bere denborako, ots, V mende artako Euskaldunak jentillak ziranik esaten. Ez du, adibidez, Erromatarrak Dordoña eta Ibero ibaien artean zebiltzanean, "inter gentes aduc paganas" zebiltzanik esaten.

Ori, Orosio'k, Euskaldunak ongi ezagutzeko egokitasun bikaiña zuala! Orduango Euskalerrriaren sortaldeko muga ez bait zegoan Tarragona'tik urruti, eta Orosio, berriz, esan dugun bezala, Tarragona'koa bait zan.

ifflogarren mendean aski zabaldurik ote zegoan ba euskaldunen artean kristautasuna?

Mintzatzen da Orosio ere, mola ez?, Kalagurri'ko gudu izugarri artaz, eta "Infames" esaten die, "gaitzesgarriak", kalagurritarren giza-aragizko jaki aiei; hairian kalagurritarrak ortara bearturik aurkitu zirala argi jarritz. Era ortan, gaitzesgarri baiño geiago aintzagarri biurtzen da kalagurritarren jardunkera Orosio'ren esarian ere.

Ala ikusi zuan eta ala goraipatu zuan Erroma'ko erriak ber-berak ere, Kalagurri'ko Euskaldunen ekintza izugarri ura, arrezkero gosete haten larritasuna adierazteko "fames calagurritana" esakizun portitza sortu zuan; eta zentzu eraspentsu ortan goraldtu zuten olerkariek ere, aipatu dugun Jubenarek bezala.

\* \* \*

- Tazito (C. Cornelius Tacitus) izan zan ezpairik gabe, Erromatarren edestilaririk aundiena. Geroagoko edestilari bikatrienen eredu!

Ba Tazito ere mintzatu zan Euskalerriaz. Ez ordea Euskaldunak basapiti gorrotogarriak bezala kiratsez heztutzeko.

Alderantziz adiskide leial eta zintzo bezala agertzen ditu eusko-gudariak, 69'garren urtean Rin ibaiaren aranean, ia zearo ezerezturik zegoan Erromatar-gudarozte Baskoien "cohortes" edo batalloiek nola salbatu zuten idazten duanean.

Batalloi Euskaldun aiek, oraindik Tarraconense probintziko jaurle zalarik Galba inperatoreak eraturakoak ziran. Galba'k ere Euskaldunen leiaitasunean zuan uste onaren adigarri pertxenta!

Ikus Tazito'ren idazkera apaiña:

Larri aurkitzen dira Erroma'ko Tejlolariak. "Eques prorruptit, exceptusque compositis hostium ordinibus, terga in suos vertit. Caedes inde, non pradium...sic ad legiones perventum, quae amissis signis inter vallum sternebantur: cum regente, novo auxilio, fortuna pugnae mutatur. Vasconum lectae a Galba cohortes, ac tum accitae dum castris propinquant, audito praeliantium clamore, intentos hostes a tergo invadunt latioremqe quam numero terrorem faciunt..."

Euskeraz:

"Larritasun artan, (Erromatarren) "zaidundiak eraso zien etsaiei; aiek ordea, beren lerroak austeke erantzun zioten: eta zaldundiak, bizkar-emandada, arin itzuli bear izan zuan atzeruntz.

"Arrezkero, sarraskia geiago zan, borroka baiño, an gertatzen ari zana. Iritxi zan sarraski ura, kapardegiaren esietan, ikurriñak galdata, illik-jausi-ta-jausi ari ziran lejiolariengana.

Orduan ordea, bat batean, laguntza berri bat iritxi zitzaielako, zearo aldatu zan borrokaren zoria. Lendik deituak izanik, Galba'k eraturako Bascoien batalloiak kapardegira urbildu ziranean borrokaren zarata entzutean, bizkarretik eraso bait zioten etsaiari, beren kopuruak eragin zezakeana baiño bildur-ikara aundiagoa sortaraziz",

Euskaldunek salbatu zuten egun artan Erroma'ren gudaroztea, germaniarrek ezereztua izatetik.

"Latioremque quam numero terrorem faciunt": "zabalagoa sortu zuten ikara sortu zutenaren kopurua baiño: ots, naiz euskaldun aiek gutxi izan, aundia izan zala sortu zuten bildur-ikara. ¿Zer egokiagorik esan daiteke gudari gutxi batzuen kemena gorestekoko?

Ez zan nonbait nolanaikoa izan, ematen duanez, orduango borrokaldi ura. "Egun artan ildakoetatik, geienak, gureak", bait dio Tazito'k itunki: "Caesorunique illa die, in partibus nostris maior numerus" (Hist. Libr.4).

\* \* \*

Sertorio'ren gudua bukatuta bela ekin zion Julio Zesar buruzagiak Galia Errorna'rentzat irabazteari, eta berak idatzi zituan "De Bello Gallico" -- "Galietako Gudua" -- deritzan liburuan, borroka artako gertakizunak.

Luzaro mintzatzen da Akitani'az eta Akitani'ko leiñu Euskaldun asko aipatzen ditu, baiñan ez du Euskaldunen aurka ezer lotsagarriarik esaten: Ugari zirala Akitani'ko biztanleak..., gudari kementsuak zirala..., Akitani'n meatz asko zalako meatzari trebeak ere bazirala..., eta ezer ez geiago.

A! Bai! "Barbari" izen-ematen die, baiña ori esatean ez zuan egia besterik esaten: Erroma'ren mendekoak ez zirala, alegia; atzerritarrak zirala; "Barbarus", atzerritar orori, eta soilki atzerritarrari, esaten bait zioten Erromatarrek,

Aulus Hirtius. "Distinguido historiador latina, ilustre general romano y lugarteniente de Csar, fue electo consul con Cayo Vibio Pansa ei 711 de la fundaciÓN de Roma (43 a. d C.), y ese mismo año murió ese mismo año de las heridas recibidas en la batalla de MODena" (R. de Miguel: "Diccionario", XXIV or.). Ez zan beraz edozein gizon au; Errepublikak-a-roan, Errepublikaren lendakaritza bi kontsulek osatutako bikoteak izaten bait zuan. Julio Zesar bezala au ere Krist'aurreko I mendean bizitutako idazlea dugu. Julio Zesar'ekin batera gudan ibilli zalako, aren "De Bello Gailieo" osotzearren, liburu bat idatzi zuan. Bereak omen dira " De Bello Alexandrino" eta "De Bello Hispaniensi" izenekoak ere. Mintzatu zan edestilari au ere, jakiña, mintzatu zan Euskalerriaz, baiña gure Asaben izenik ezertan itxusitu gabe.

- Julio Zesar il da gero, Augusto Kriseaurreko 38'an inperatore egiña izan eta bela, Erroma'ren aurka jeiki zan ostera Akitani, Gudu artan zan Albio Tibulo olerkaria, eta ez noski gogo onez, berak abestu zigunez (I.X.12-13).

Nunc ad bella trahor, et iam quis forsitan hostis  
Haesura in nostro tela gerit latere":

" Gudara beartu naute,  
eta agian yadanik eskuetan du etsairen batek,  
nere saietsean sartzekoa dan gezia"

Garaille irten ziran ordea Erromatarrek eta, alaitzu abestu zuan Tibulo'k beretarren gurenda. Itztxo bat ez ordea Euskaldunen basatikeriari-buruz.

Pakeratu zan Akitania. Ainzuzen gudate labor baiña gogor artaz mintzatzerakoan Akitani'ko leiñu Euskaldun bat, "Tarbelitar"ena, aipatzen digu Tibulo'k era bereizian, adiskide zuan Mesala buruzagiaren goratarrea egiterakoan. Auñamendi Tarbelitarra" izan omen zan **Mesala orren** garaitzen lekuko: "Tarbella Pyrene testis".

"Tarbelitar", gaurko Laburdi, Benabarra, Zuberoa ta Landetako Euskaldunei izen-eman zieten Erromatarrek.

Tarbelitar auek borroka artan beste leiñu Euskaldunak baiña gogorrigo jardun zutelako, agian? Edota, soilki, egoalderuntz Akitani'ren muga zirala-ko ekarri ote zituan gogora olerkari edestilari ark? Baiñan baziran Akitani'ren egoaldeko muga Auñamendia-zar leiñu Euskaldun geiago: Ilusoniarrak (Berno'n), Bigorriondarrak (gaurko Bigorre'n), Andosindarrak (Andorra'n); eta aruntzago oraindik, Zerretiarrek oraingo Zerdafia'n eta Tarustarrak itxasalderago

Azkena aipatutako bi leiñu oiek Euskeraz mintzatuz jarraituko dute XI mendean ere 1000'garren urtera sartuz gero: "El base va perdurar a Alt Pallars fins als voltans de l'any 1000" (Ferran Soldevilla: "Resum d'Historia dos Paisos Catalans". Barcelona 1.974. 67 or.).

\* \* \*

Egin-bide zuten noski zerbait arrigarri Tarbelitarrek, Tibulo'k alako era bereizian aipatuak izateko.

---

<sup>5)</sup> Zerretiarren izena, "zerri" itzetik sortua dala dio Bosch Gimpera'k. Ez nintzake ni bi itz oien arteko aidetasuna egia danik esatera ausartuko. Baiñan, - eta au bai gauza pitxia! Estrabon'ek bere GeographikaTh, Zerretiarrek arras zerri-azitzaille yayoak zirala diosku, eta izen eder aundia lortu zutela aiek saltzen zituzten urdaiazpikoe, eta dirutza oparoa lortzen zutela salketa ortatik.



- Ta, naiz Euskaldunak Erroma'ren aurka ain gogor borrokan ibilli, ez duzu, guda artan bertan Euskaidunen aurka Erroma'ko lejiotan borrokalari izan zan Tibulo olerkariaren itz neurtuetan Euskalerrria itxusitu dezakean itz bat bakarrik aurkituko.

Akitani'ko borroka aren ondorean, pakea izan zan, bost mendeen luza-roan, Euskalerrrian nagusi: "Pax Romana": "Erroma'gandiko Pakea".

Orrek ez du esan nai pake giro orokor artan gaiztakeririk gerta ez zanik. Mundu guzian gertatu ziran okerkeriak. Baita Euskalerrrian ere. Baiñan Euskalerrrian iñon baiño gutxiago, ederki ikusi aal izango dugun

"Pake-giro" aren oiñarri zan Erroma'ko Inperatoreen Almena makaltzen joan zan neurrian joan zan aultzen eta urratzen "pake" orokor aren giroa ere. Batez *ere* III mendeaz gero. Baiñan urraketa ori ere, aundiagoa izan zan nunnai Euskalerrrian baiño. Ez gaitezen arritu. Orixe bait da orduango idazki zarrak aztertzetik atera dezakegun ondorio bakarra. Ondorio bikaña! Eta atsegiña, benetan.

Alare, naitanaiezkoa dan gauza, izan zan gaizkilleren bat edo beste Euskalerrrian. III mende ortakoak zirala bait dirudi Oteitza'n mutil bat il zuten lapurrak: "Calaetus Equesi filius) a latronibus oceisus Aenon (i,?) mater d(e) p(ecunia) s(ua)", dio bere illobiko arri-olak: "Kaletto, Ekessio'ren semeari, Aknon (i,?) amak egin zion bere dirutik" illobi au.6

Oteitza bezain zoko bakarti batean lapur batzuk izkutataturik bizitzea, arritzeko gauza al da?. Gaiñera... i,euskaldunak ote ziran lapur aiek? Baleike. Baiñan gogoan jasotzekoa da, basoetatiko lapurkerira jotzen zutela esklabutzatik edo lejiostatik iges egindako gizaseme gazteek ere.

Askok okerrago zebiltzan gauzak Euskalerritik at.

Ikusi dugun lez, Erroma'ko idazle klasikoek, ez zuten sekulan Euskaldunen aurka izen zakarrik erabilli: ez lateraz ez eleneraz idatzi zutenek. Ezta, Tazito bezala edestilaririk bikairienak izan ziran aiek ere! Euskaldunnei-buruz zerbait esan zutenean, Euskaldunentzat aintzagarria izan zan, esan zuten ura.

---

<sup>6)</sup> Semearen izena, I(aletto", agian "Kaletto", ez da euskal-usairik gabeko izena. Eta ezin irakurri omen dan amaren izena, "Aknon" ez baiña "Amon" ba'litz?

Pakean eta pozik ibilli ziran Erromatarrek. euskalerrria-zear Kriseaurreko 28 eta 27'garren urteetan Akitani'ko Euskaldunen azkeneko iraultza zapaldua izan zan ezker. V mendean, 476'ean, barbaritarren erasoaren ondorioz Erroma'ren Inperiotza Sarkaldean ezereztua izan zan arte.

Lasai ziurkatzen zituzten "Saltus Vasconum" menditsuko bideak eta aundia izan zan mendate oietako jende-ibilketa. Era berean, lasai jartzen ziran "Ager Vaskonum" go alor mamitsuetan hizitzen. Ikara aundirik gabe aritu ziran Oiasso'ko meatzetan lanean. Bildurrik gabe joaten ziran ibar estuak zear Bardulitarren Karistiarren eta Autrigoitarren itxas-ertzeko kaie-tara, eta hildurrik gabe itzultzen ziran ostera bide berak erabilliz

Lur adiskidea zuten Euskalerrria. Orrek ordea ez du esan nai Euskaldunek beren eskubideak gordetzeaz arduratzen ez ziranik. Ala Eusko-leiñurik sortaldetarrenetako Euskaldunek, Zerretiarrek ainzuzen, bide-zerga eskatu zioten Sertorio gudalburuari, au gudagintzak beartuta bere gudaroztearekin aien Auñamendia-zear igaro bearrean aurkitu zanean. Zintzoki ordaindu zien Sertorio'k aiek eskatzen zioten zerga ura,

---

Bi zati ezberdin aipatzen zituztela idazle erromatarrek Ego-Euskalerriaz mintzatzerakoan, esan oi da: "Ager Vasconum" edo "Baskoien Landa" eta "Saltus Basconum" edo "Baskoien Oiana". Ez da egia. Erroma'ko idazleek ez baiña, idazle bakar batek, Tito Libio'k, eta esaldi hat bakarrean esaten bait du "Ager Basconum", eta beste idazle batek bakarrik, Plinio Zarrak, eta onek ere soilki bein, erabiltzen "Saltus Basconum" itza.

Auñamendia, bai, sarri aipatzen dute Auñamendia idazle zar aiek. Auñamendia-zear, aundia izan zan ba ibiltarien multzoa: "Las relaciones comerciales entre la Peninsula y Ocasión fueron importantes durante la época imperial (ots, Krist'osteko lenen bost mendeetan) utilizkidose la ruta sefialada para la exportación de aceite y salmuera con destino a Burdeos".

Inperioaren asiera-asieratik izan zan aundia aruntz-onuntzko ibilketa ori: "La excavación del yacimiento arqueológico de Donezaharre (Saint-Jean-le-Vieux) ha puesto de manifiesto la importancia del tráfico comercial terrestre entre Hispania y Galia en los siglos I y II de nuestra era" (Egille askoren lana dan "Hist de Eusk, Herria", I, 89 or. Donezaharra, Benaparroa'ko Donibane Garazi'ren ondoan dago).

Dakusazunez, Auñamendiko euskaldun "lapur", "gaizkille" ta "jende-erailleen" bildur aundirik ez zuten saierosle aiek!

ikusi dugu Kris'aurreko lenen mendean eta Krist'osteko lau mendeetan, idazlerik ospetsuenak Euskaldunei-buruz zer esaten diguten, ots, zer esaten diguten IDAZLE OSPETSU GUZTIEK! Idazle oietaz ganera, izan ziran mende aietan beste idazle batzuk, oso gutxi eta askoz mailla beeragokoak naiz irazean Euskalerriaz idatzi zutenak. **ez duzu guzti** auen liburuetan ere Euskalerrria loitu dezakeanik ezer-ezer-ezer aurkituko!

Beraz, logikarik xumeenaren araura, ikusi dugunetik, naitanaiez, onako ondorio auek ateratzera bearturik aurkitzen gera:

- Euskalerrria ez zan mundutik aparte bizi zan Erria.

Alderantziz, bide nagusi ederrez beste Erriak hezain ederki edo obeki orniturik zegoalako, beste edozein Erri bezain ongi, eclo obeki, mundu guztiarentzat zabal-zabalik aurkitzen Erria izan zan gure Euskalerrri zahal ura.

- Euskaldunak ez ziran basati gaizkilleak. Alderantziz, jende zintzo eta atsegiñak ziran. Ori da Krist'aurreko lenen eta Krist'osteko lau mendeetako idazte klasikoen lekukotzatik, ots, testigutzatik, atera bearra dan egia.

- Eta baita beste egi au ere: Euskalerrria erri paketsua eta adiskidetsua zan atzeritarrentzat. Ikusi dugu nolako lasaitasunaz ibilli oi ziran emen, Erromatarrak. Oroi, Auftamendian atsedean artzen egon zan Zesaraugusto, eta mendi ori-zear aruntz-onuntz ibilli oi ziran olio-ta-jakigazitu-saltzailleak.

Oroi, baitare, Erroma'ren gudarozteko lejiolari Euskaldunak: eta ez Baskoiak bakarrik, Bardulitarrak eta Karistiarrak ere sartu bait ziran lejiore-

tara. Eta gauza bera esan daiteke beste Eusko-leirluetako Euskaldunetaz ere.

Oroi, baitare, Anibal kartagotarraren gudaroztean ibilli ziran Baskoiak eta beste Euskaldunak. Baskoiekin batera aipatzen bait ditu Zerretiarrek eta Auñamendi'ko Euskaldun-leiñuetako gudariak ere: "Quos horrida misit Pyrene poputi": Auñamendi latzak bidalitako jendeak" (IX, 229).

Euskalerrria ez da lur aberatsa. Beti izan du arazo larria bere barrengo jendeen geiegitasuna. Erroma'ko lejiokak, irten-bide egoki aintzatsua eskeintzen zien Euskalerrriko gazte kernentsuei.

Ez du beraz deus balio, Euskalerrriaren. kristautzea atzeratzeko, arrazoitat Euskalerrria mentalitatez ERRI ertsia zala esaten ibiltzeak, Euskalerrria jende paketsuen. ERRIA izateaz gaiñera, bidez eta kamioz bezala mentalitatez ere rrunduari eta munduko kulturari irikirik zegoan ERRIA bait zan.

Lekuko dugu ori esateko, Erromatarrengandik Euskalerrriak bere izkuntzarako jaso zuan itz-mordo ugaria eta bere erlijiorako artu zuan jaink'ugarikeria, eta Erromatarrek onera etorri baiño askoz lenago ere iparralde-tiko indouopar aiengandik arturik, sinispiderako eta eguneroko langintzarako bereganatu zuan kultura.

---

Ezaguna da iparraldeko Breszi'n burniori edo brontze batek aipatzen duan Karistiarren batallai bat: "Cohors Carestum et Veliaesium". (Azkeneko auei "velienses" esaten die Plinio'k). Veleia urikoak ziran, uste danez gaur-egun Gazteiz'tik bertan dagoan Iruña'koak. Danadala, Karistiarrek. Ptolomeo'k (11,64) Veleia edo Beleia uri Karistiarra zala esaten bait digu.

Aski aipatuak dira baitare Britani'ko borroketan 1 mendean ospetsu egin ziran Bardulitarren gudari-taldeak ere. Talde oietatik lenengoa aipatzen duan burniori bat izan da aurkitua. "Cives romani" edo "Erroma'ko urikideak" ziran gaiñera "Cobors Prima Vaseoram" artako gudariak. Tazito'k damaigu berriz Rin ibaiaren alboan garaitza aundi bat lortu zuten Baskoien "eohors" edo "taldeen" berri zeatza.

Gai auetaz zerbait geiago jakin na: duanak, ikusi beza Garda Bellido'ren "Los Vascos en el Ejército Romano" "Fontes Linguae Vasconum" aldizkarian (1969, 102 orrialdetik aurrera).

Erromatekoan, Eusko-leiñu bat beste Eusko-leiñu baten aurka Erromatarrekin bat egiñik ibilli izateak, lez da zoritxarrez ori orduan bakarrik gertatu! .ez ote du esan nai Euskaldunok, betidandik, gure anaiengana bairio atzerritarrengana irikiagoak izan gerala... eta gerala?

Euskalerrria, ERRI itxia ez zala, ots, Auñamendiko basoetaa izkutaturik munduari bizkar eman ez eta gizadia gorrotatuz bizi zan ERRIA ez zala adierazteko, txit egokiak iduritzen zaizkit Julio Caro Baroja'ren itz auek: "Dejernos el adanismo, el tubalismo y el primitivismo a un lado. Dejemos el cliché del perpetuo aislamiento que explica fácil pero engañosamente la conservación de una lengua, que, sin duda, es lo más peculiar del vasco. Porque en la Europa Occidental tal aislamiento es, y ha sido, físicamente imposible, y el País Vasco está en una de las más complicadas encrucijadas del Continente. Para repetir lugares comunes no vale la pena estudiar".

Itz oiek, Euskalerrria-okerki-goratzailleen aurka izan ziran idatziak, baiñan berdin balio dute Euskalerrria-okerki-beeratzailleen aurka ere.

Nola, nondik, eta noiz sortu ote zan ba Euskaldunak basati lapur jende-iltzaille hildugarriak ziralako uste zikin ori?

Laugarren mendeaz gero, konfiantza aundirik merezi ez duten eta gaizki ulertuak izan diran iturrietatik, oraintxe azaldu nai gendukean bezala.

Esan dezagun, ordea, atal au amaitu aurretik, TV mendean Prisziliano'k eta priszilikeriak izan zuan arrakasta arrigarriak ere, Euskaldunen mentalitatea kanpotik etorri zezaiozkean gogoeta berri ororentzat zeñen zabala zan erakusten digula: zeñen zabala zan... eta zenbaiteraiño zegoan irikia! Luzaro mintzatuko gera priszilikeriaz 345'eau jaio zan Prisziliano'ren mendea aztertzerakoan.

Oker dabiltz, oker zearo, gure arbasoak buruz ertsiak zirala oiuka dahiltzanak. Alare, asmo zuzenez ibilliko dira noski, Euskaldunen kristautasuna al duten guztia "atzeragotzeko", oiñarriztat Euskaldunen buru-gogortasuna eta basapiztakeria aurkezten dizkigutenean.

Baiñan zearo atzipeturik dabilta.

---

"Sobre la Religión y el Calendario del Pueblo Vasco. Edición Txertoa". Donosti'n, 1.980'eau. 8' garren or.



## EUSKALERRIAREN IZENA ZIKINTZEN

Laugarren mendearen luzaro osoan ez duzu Euskaldunen basatikeri zakarra aipatuko dizun idazlerik aurkituko, V mendekoak bait dira "Edesti" bat argitara ernan zigun Orosio eta itz neurtuz idatzitako "Ora Maritirna" edo "Itxasertzak" izeneko Poerna idatzi zuan Rufus Festus Avienus. IV'aren azken-azkenekoa, mentalitatez V'goa, berriz, Nola'ko Paulino Donearen "Eskutitz" bat, au ere itz neurtuz idatzia.

Edestilari bat eta bi olerkari, beraz. Ez noski azkeneko bi auek, olerkari izanik, edestigintzarako oso lekuko ziurrak.

Bat aren eta bi auen atzetik, V mendez gero, bat eta bi baiño geiago izango ditugu Euskaldunen izena zikintzen saiatuko zaizkigunak. Orregaitik, V mendeko Euskal-Kristaukera aztertuz idatzirik daukadan eta berealaxe argitaratuko dutan liburuaren lenen atalean mintzatuko naiz luzaro iru Idazle aietaz, Paulino'z bereiziki, Abieno'k eta Orosio'k Euskalerrriaren kristautzea mendez eta mendez atzeratuzaleen artean Paulino'k aiñako itzalik izan ez duten ezkerow.

Iru idazle oietatik bi, Rufus Florus Avienus erromatarra eta Pontius Meropius Anicius Paulinus bordeletarra -- Nola'ko gotzai izandako Paulino Donea biak, batez ere Paulino, arras sendi aberatsetako semeak izan ziran; kultura aundiko gizonak biak; eta Inperioko politikaren mailladian kargurik garaienetan lan egindako legiztilariak.

Orosio, Tarrako'n jaioa dugu: sendi aheratsean edo sendi txiroan... ez dakigu. Ez dakigu, eztare, Laterriaren politika-lanetan kargurik izan zuan

---

Egia esan, liburu berri ori, ia osoro idatzirik dago, eskuetan daukazun onekin liburu bat bakarria osotzen zualako. Baiñan orrela osotutako liburu ori luzeegia gertatzen zala-ta, bat ori bitan banatzeko aolkua eman didate.

edo ez; baiñan bai, badakigu Elizaren serbitzura izan zuala zeregin ederrik.  
AKIAKI

Askoz garrantzi aundiagokoa dugu Paulino, Euskaldunaren izena zikindua izateari-buruzko auzi oni dagokionez.

Iru idazleak izan dira oker adituak, baiñan bereiziki Paulino. Kristautasunaren Euskalerrirako sarrera atzeratu naiean saiatzen diranak ez dituzte Abieno ta Orosio ia-ia aipatu ere egiten. Luzaro ordea Paulino.

Izan ere...:

Abieno'k ez du Euskaldunetaz gaizki itzegiten. Sertorio ta Pompeyo'-ren arteko gudate latzaz ari dalarik "inquietos" urduriak" izen-damaie aldi artako euskaldunei. "Urduriak"? Ez da arritzekoa une artan Baskoiak urduriturik aurkitzea, batzuek

Ez du Orosio'k ere, ordurarte klasiko danen liburu guztietan ain orokorra izandako gu Arbaso zar aien Euskalerraren aipu onik kirasten. Soilki, V mendean, Baskoi lapur batzuk aipatzen ditu. Ez noski mirarizko aipua. V mende artan, Inperioa lurjota zegoanean Inperio usteldu aren lurralde guztiak bait zeuden Iapurrez beterik. Eta, esana bedi au gure euskaldun zar aien laudorioz beste iñon baiño askoz eta askoz lazarfas, — au ere bereala ikusiko bait dugu birr-aitor dezadan berriro, lapurrak beste iñon baiño urriago, emen ainzuzen, gure Euskalerrri Zar artan izan ziran.

Ezin dezakete beraz euskal-kristautasunaren atzeratzailleek bi oien itz banaka batzuetatik ateratako koipez Euskalerrria arras berandu ebangelizatua izan zala oles egin aal izateko kixazko argumenturik oretu. Oridalata, bat edo bestek izan ezik aipatu ere egiten ez dituzte. Alare guk, aztertuko ditugu bi aien esanak onen ondorengo liburuan.

Orregaitik Paulino'ren olerki batera jotzen dute. An bai, an bai bait ditu Paulino'k Auñamendiko baskoien aurka esakizun baldarrak.

Baiñan, au ere luzaro eta sakon aztertu nai nuke gaizki ulertu dituzte Paulino'ren esakizun oiek, edo okerragoa litzakeana **Paulino'k** esan zuanetik Patdino'k esan ez zuana atera nai lukete beren aburuak edes- tiagandiko argumentu sendoz ongi oiñarritutako **EGIAK BAIT LIRAN AGERTZEKO**.

Paulino'k ordea ez du esaten gaizkilleen, lapurren, eta jende gaiztoen artean **EGON NAIZ**. Alderantziz, gaizkilleen, lapurren, eta jende gaiztoen artean **EGON BA'NITZ**, esaten du Paulino'k: **SAIa** egon ba'nitz ere zerda-



lata biurtu bear nuan nik aien antzeko? Orixe hait da olerki artan Paulino'-ren arrazoiketaren ardatza!

Izan ere, Paulino ez zala, bere ibillaidien edestiak argi erakusten digu:

Dakigunez, IRU ALDIZ beintzat igaro zituan Paulino'k Auriamendiak: Andregaiaren billa etorri zanean; Andregaia emazte biurturik arekin Bordele'ra itzuli zanean; eta, bein betirako Bordele utzita, bere emaztearekin Ispanietara itzuli zanean.

Badakigu nolako oparotasunez ibiltzen ziran bideetan erromateko jaun aberats aiek. Ba, Paulino'ri, iru ibillaldi oietako bat bakarrean ez zion iñor Baskoien lurraldeak igarotzerakoan txanpontxo hat ere lapurtu, ez zion iñork gaitzik txikien-txikienik egin, ez berari, ez emakume gazte polit eder guragarri ari!

Auñamendiko Baskoi aiek lapurrak ba'ziran... ibeniaigu jainkoak aien antzeko lapurrik eta gaizkilterik ugari!!!

Nai nuke, beste xeetasun hati-buruz ere, irakurleen oarmena esnaerazi. "Atzerazaleek" euskaldunen basatikeria bait dute Euskalerrira kristautasuna oso berandu sartu zala esateko arrazoirik garrantzitsuena.

Orra iñor ez Euskalerrian, Paulino'k aipatzen dituan Auñamendiko artzai, egurgille ta ikazkiñ aiek baiño basatiagorik. Basoa bait zuten beren betiko bizi-leku bakarra!

Baiñan Paulino'k ez du esaten Euskaldun basati aiek jentillak ziranik. Eta is lik ezin utzia zuan ori esatea Paulino'k basati aiek jentillak izan ba'lira, bere idazki aren mamia Ausonio bere maixu maite oraindik jentillari edo beintzat axal-axal utseko "kristauari"-- Kristautasunaren hikaintasun orokorra ikusteraztea bait zan.

Euskaldun basati aiek "atzerazaleek" uste duten bezain gaiztoak ba'ziran, ezin zezakean Paulino'k ori pasatzen utzi, Ausonio'ri jentiltasunak gaiztakeriarekin zezakean lotura adierazteko saiaketatxo bat egin gabe.

Birr-esan dezadan Euskalerra Zarreko kristautasunari-buruzko Ienen liburu au amaitzeko, gaizki ulertuak edo oker erabilliak izan dirala iru idazle zar aiek, iruetatik ez bata ez bestea, ez bait zuten sekulan esan Euskaldunak gizakume gaiztoak, lapurrak eta gaizkilleak ziranik.

Guzti ortaz, ordea, liburu onen zati zalako idatzirik dagoan eta

zuk ala nairik laister zure eskuetan izango duzun bigarren liburu batean. Inzaroago mintzatuko nazaizu.°



## I MENDEKO EUSKALERRIAN,.. ZER?

Esan dezagun, galde orri erantzuna eman aurretik, garai artako Euskal-erri Zabalaz ariko gerala mintzatzen liburu guzti ontan. Bai beintzat erro-mateko aroari-buruzko albisteak aztertzerakoan.

Esan dezagun baitare, galde orri erantzuterakoan ez zaigula edestilari-  
en artean bateratasun aundirik agertu.

Batzuek geiegi aurreratu nai dute Euskalerrriaren kristauketa. Baita I mendearen aurreneko urteetaraiño ere. Euskalerrria azkarregi kristauturik ikusi nai duten auei, "Aurreratu-zaleak" esango diet, edo, nere ustez jatorrago, "Aurreratze-zaleak".

Beste batzuek, geiegi atzeratzen dute gure Erriaren kristauketa. XIII mendean bertan jentiltasuna euskaldunen artean sendo zegoala esan duanik ere izan bait da. Ta ez nolanaiko edestilaria, bere tokian ikusiko dugun lez. Orrelako guzti auei, "Atzeratu-zaleak" edo "Atzeratze-zaleak" emango diet izen.

Ezberdintasun oiek ulertzeko bi gauza ditugu gogoan euki bearrak:

- Euskalerrria bera bere sorkuntza, bere izkuntza, bere erlijiojera zaarra, bere izaera ta bere besterik-ez-bezalakotasuna beti izan dirala, ikerlarien aburuak batera erakartzeko arras arazo zailak. Ez zaigula, beraz, miresgarria gertatu bear, Euskalerrriaren kristauketari-buruz ere, edestilarien iritziak batera ez etortze ori.

- "Kristauketa" bera itz naasgarri eta ezbaida-sortzaillea dala. Esanik utzi dugun bezala. Erri bat noiz kristau egiñik dagoan esatea, gauza erreza ez bait da!

- Eta beste irugarren zerbaittxo bat ere gustora erantsiko nieke nik goraxeagoko bi oiei: Mingarria dala eta, rnaiz aski, iruzurgarria gertatzen dala edestilariarentzat, euskaldunek ezer idatzi ez zutelako, beti, atzerritarrek eta, maiz aski, euskaldunen etsai ziran atzerritarrek idatzitako liburuetara jo bear izatea.

Eta beste laugarren bat ere aipatu nai nuke: erlijioak, politikak eta abertzalekeriak, abertzalekeri bikoitzak, ots, eusko ala españiar abertzalekeriak, arazo ontan zer ikusirik badutela, dirudianez beintzat. Zenbat eta kristauago eta zenbat eta eusko-abertzaleago edestilaria, ainbat eta "aurreratze-zaleago" agertu oi bait da, eta, alderantziz, zenbat eta erlijiotasunez otzago eta zenbat eta españizaleago, ainbat eta neurri berean atzeratze-zaleago.

\* \* \*

Ta, orain, birr-egin dezagun galde kilikagarria:  
Euskalerrian bai aI zan kristaurik lenengo mende artan?  
Zer erantzun?

Edestia, dokumentuen agerketa besterik ez ba'da, ez daiteke esan I mendeko Euskalerrri eder artara kristautasunik ez zala sartu. Ori esateko ez bait dezake edestiak dokumentutxo bat ere aurkitu. Baiñan, era berean, ez daiteke esan sartu zanik ere. Ori esan aal izateko ere, dokumenturik ez bait dugu.

Edestia ordea, dokumentu-zerrenda utsa baiño askoz balio geiagoko gauza bait da..., eta, dokumenturik ezin eskuratu duanean ere, edestilaria, egiaren billa, arrazoiketaren bidetik elburu ziurretara iritxi bait daiteke..., bide ortatik zalantzarik gabe aldarrikatu aal izango dugu guk gure azterketa amaitu ondorean eta beste mendeak gerorako utziz..., I mendean EZ ZALA oraindik Euskalerrira kristautasunik sartu.

Kondairak, bai. (Gaztelaradunek "leyenda" esaten diotenari, "kondaira" esaten diot nik euskeraz beti, "ipui" esatea arras esakera okerra dala iduritzen bait zait. Jakiñaren gaiñean gelditzen da b irakurlea: "Leyenda", euskeraz esateko "Kondaira" erabilliko dut liburu ontan ere: "kondaira": "cosa que se cuenta").'

Esan dutanez, egiatzko arrazoi ziurren ordez, badugu Euskalerrian kondaira politik aski, lenen mendeko kristautasunari-buruz. Mintzatuko gera

---

' Badakit, eman diodan etimologi orrek agertzen duan bezala, "kondaira", gaztelarazko "contar" aditzatik datorren itza dala, baiñan aspalditik euskerara sarturik dagoalako, aski euskaidundurik aurkitzen zaigula derizkiot.

kondaira oietaz; eta kondaira oiek izan dezaketen balioaz, Kondaira, beti ere, kondaira besterik ez bait da.

Ikusi dugu:

Ongi prestaturik zegoala gure Euskalerra ura, kanpotik zetorkiokean oldozketa berri bat onartzeko, lentsuago erromatarren jaink'ugarikeria ain nabarmenki, eta, askoz leenago, Indouoparren ortzikerizko Erljioa artu zituan bezala;

- bide nagusi ugariz eta orduango itxas-ontzientzako beintzat kai ederrez atzerriari ederki lotua aurkitzen zala;

gizarterako zabaltasunari legokionez ere, gizabidez erri zabal atsegiña zala; len iberitarrekin, keltiarrekin eta kartagotarrekin bezala orain erromatarrekin arremen ugariz alkartua, hai salerosketarako, bai gudagintzarako eta, baita, erlijiorako ta kulturgintzarako ere.<sup>2</sup>

Berdin ote zegoan bere erlijio zarrari zegokionez, kristautasunerako gerturik?

Izan dira baietz uste izan dutenak. Orrela uste dutenak, Estrabon'en "jainko bat" ura; Ayrnerik Pieaud'en "Urtzi" zeritzan Jainko bakar ura. eta beren euskalduntasun zintzoak eraginda antziñako euskaldun aientzat amestu dituzten biotz-zabaltasuna, adimen-argitasuna, onhide-ororako-zaletasuna eta edozein ekintzarako zintzotasuna, izan dituzte beren ustearen oiñarri.

Uste tinko orren ondorioz, auek ere, antziñako euskalduna basapizti utsa zala esaten zuten atzerazale aiek euskalduna deabru biurtu zuten bezala

beste auek ere, ots, aurrerazaleek zeruko aingeru biurtu ziguten antziñako euskaldun ura bera, Euskalerriarenganako zaletasun zintzoak eraginda. Ez auek ez aiek, ez dute arrazoirik. Euskaldunak, orduan, beste edozein Erriko jendeak bezalakoak ziran. Eta orrelakoxeak gera gaur-egungo euskaldunok ere.-

---

Erljio eta kultur-gaietarako euskaldunek erakutsi zuten adimen irikiaren adigarri dira:

- Indouopatarren erlijioa ain oroki artu izatea;
  - Erromatarren jaink'ugaritasuna ain errez (mende baten epean?), eta ain oparo Euskalerra osora zabaldu izatea;
- Euskerak lateratik artu zituan itzen ugaritasun aundia.

Alatagutziz, naiz geiegikerira sarritan jausi, euskaldunen gorazaleek beti izango dute beren alde, euskaldunen beerazaleentzat beti ulerkaitza gertatuko dan garrantzi aundiko "zerbait" arrigarria:

Aro gogor artan, Euskaldunen aldetik, Elizak, Euskalerrian iez zuala martiririk izan!

Bañan naiz ori ukatu ez daitekean gauza gertatu, txolinkeri izugarriak esan dira asmo garbiko edestilari eusko-goratzaille oien aurka. Entzun, zori makurreko esaldi auetan ain arroxko agertzen zaigun Pierre Narbaitz apalzari:

"Que los primeros evangelizadores no fueron los vascos mismos, es ahora una evidencia". (Ori, Pierre, ez dizu iñork ukatuko).

- "Hace tiempo que ningnn escritor serio se atreve a proclamar que los vascos, sean del Norte o del Sur, fueron sus propios evangelizadores, como han intentado hacer creer algunos "mitbmanos" más o menos inocentes que no imaginaban a vascos sino "cristianos" desde el primer momento de la evangelizaciin apostnlica". (Barkatu, Pierre, baiñan ez dut ulertzen orrelako gauzarik esatera nola ausartu zifiazkean. Emengo "mitomanoak" — naiz gaur apika bat bakarrik gelditu ez dira ba Frantzi'koak ala Españi'koak ala beste iñongo "mitornano" ugariak baiño txorakeri-esale aundiagoak izan. Ezta adimen motxagoko iñozoak ere).

- "iComo si el vasco primitivo e inocente desde la creaci6n del hombre, hubiera sido preservado, en su pureza primitiva y detinitiva, de todo pecado y aun de toda debilidad!"

Ori bai, Pierre, ori, zuk orain bezala, esan omen zuan ori, Españi'ko gudu iguingarria bukatuta laister, Franko'ren diktatura beltzaren aroan, Tolosa'ko Santa Mari parrokiaren pulpitutik Altabella kanonigoak: "Eusko-abertzaleek ez dute sinisten eusko-abenda jatorrizko pekatuak orbandu zuanik". Al, ta Altabella ori ez zan eusko abertzale buru-beroa. Franco-zale sutsua baizik, bera Tolosa'ra ekarri zuan Wenzeslao Mayora parrokoa bezalaxe.

Ezin ziurtatu dut Altabella<sup>1</sup>k, agian eusko-odolaren garbitasunaz idatzi oi danak atzipetuta ori esan zuan edo ez, nik neronek entzun ez nion ezkerro, eta Franko'ren omenez "Españi'ko Gudaroztea Aintzagarriaren Jeikitze Txit Aintzagarria" gorai patuz kanonigo arek idatzi-berria zuan liburua ezin aurkitu izan dedan ezkerro.

Alare, ainbeste astakeri esan zan pulpituetatik eusko-abertzaleen aurka!

Barka bezaigu Altabella'k ori esan zuala egia ba'da, eta barka bezaigu ura Tolosa'ra ekarri zuan Mayora Frankozale sutsuak. baiñan eusko-ahertzajek ez dute sekulan orrelako txepelkeririk esan. Ez, esan; ez, sinistu.

Ederki dio oraingoan Narbaltz'ek

- "Leyenda insfida y ridicula que no han admitido los mismos vascos, demasiado sensatos para ereer tal tonterfa... aun sin leer a aut&Iticos conoedores del alma vasca como Barandiaran, Satrustegi, Lecuona, Thalamas, Caro Baroja, Goñi Gaztambide y otros sabios, o simplemente hombres de sensatez",

(Otar batean sartu dituzu zuk, Pierre, sei gizon oiek, baiñan ez dut uste nik, beroiek otar ortan oso atseginki aurkituko diranik. Eusko-gogoaren egiazko ezaguleak dirala diotsu, baiñan ziur nago, gure gai oni dagozkion arazoei-buruz, askok eta askok ez lituzketela guzti oien iritziak ontzat artuko. Orrela, adibidez, berak ere antziñateko eusko-gogoa arras ederki ezagutzen duan Agustin Azkarate Garai-Olaun antziñizti]ariak).

Kondaira parregarri oiek ez dituala gaur inork ontzat artzen, esan duzu. Zergaitik orduan zuk zerorrek orren era gogorrean aipatu dituzu? Zure burua "progresista" agertzeko?

Aurkitu aa] izan dut azkenean Altabella'ren liburu ori, eta ziur aitortu dezaket Altabella'k ez zuala, leporatu zaion ori ez esan **pulpitutik ez** liburu ortan idatzi.

Bai, ordea, idatzi zuan jende xea atzipetu dezakean txorakeri aundi bat. Orregaitik, eta liburu ori ia orokorki gaur galdua dalako **egokia** iduritzen zait euskaldunen jatorrizko pekatuaz diona emen aurkezten. Ikus, bera: "Para los separatistas vascos la raza es un "th" absolutum (azpimarraketa berea) que vive y alienta y diversifica y perfecciona e inspira y une y tiene vida independiente para darla luego a los individuos y dar ella a las personas ideas y meritos.

"La cultura, la civilizacido n y los sentimientos todos tienen su rafz en la raza. La substancia nacional esta en la raza. Unicamente la raza dicta el bien comdn, La raza vasca es una realidad substancial y substancialmente distinta de las otras razas.

"La raza vasca es raza isla, que no data, y superior a cualquier otra. Su cultura es superior a toda otra. Las razas con las que tiene que rozarse son inferiores, viles, deerepitas, perfidas. Y por eso ha de salvarse

hoy a la eraza vasca de la impiedad latina. (azpimarraketa au berea; bes-teak, nereak)

"Claro esta que como catdlicos defienden la existencia dei pecado original. Pero en el vasco esta latente. "Esta manifiesto en el caracter y las costumbres del español, y al contacto del hijo de España con el euskariano se enciende y manifiesta en este y altera sus costumbres" (ez diosku nondik artua duan esaldi ori). Es que la raza vasca es gura y el pecado original no tiene en ella nada que hacer; la raza española es el vehiculo del pecado originai" ("El catolicismo de los Nacionalistas Vascos". Editorial Nacional, 1.939. 195-196 or.)

Iñoiz iñork esan al du euskaldunen aurkako erokeri aundiagorik? Ba, erokeri orri, "para que conociendo el problema vasco en toda su significación amemos todos juntos a la Iglesia con su cabeza visible el Papa y a España con su incomparable caudillo Franco", euskotarrentzat ain oroipen makurrekoa dan Xabier Lauzurika gotzaiak idatazi zion itzaurrea (ib.11 or).

\* \* \*

I mende osoan, Alpe-Mendietatik sarkaldera, España bakarrik izan zan bere lurretan Apostolu bat artzeko zoria izan zuan lurralde bakarra: Ezta-baidan ipiñi ez daitekean egia bait da bere lurretara Paul Done Apostolua berbera etorri zitzaiola mixiolari; Paul berak adierazten bait die Erroma'ko kristauei, ibillaldi ori egiteko arturik daukan asmoa:

Entzun eiogun berari: "Baña orain, lur auetan zer egiñik ez dutan ezkeru eta aspaldiko urteotan zuek ikustera joateko gogoz egon naizelako, Esparil'rako bidea artzen dutanean (cum in Hispaniam proficisci coepero), ortik (Erroma'tik) igarotzean ikusiko zaituztetala uste dut". (Rom.XV.23-24).

Paul'ek Espaua abiatzeko asmoa agertzen du Epistola ortan. Ez du asmoa bete zuanik esaten.

Baían I Klemente Aitasantuak 94'garren urtearen inguruan korintotarrei idatzitako eskutitz batean, Donepaul "Sarkaldekoko azken-lurretara" iritxi zala esaten die (Kor.V). Ta I Klemente'k bazekian noski zer esaten zuan, Kepa Deunaren atzetik Elizaren irugarren Aitasantua izan bait zan bera; Kepa'k berak gotzai sagaratua, uste oi danez; eta, seguruaski, izan bait zuan Erroma'n Paui ezagutu aal izaterik ere, bai ura Esparii'ra etorri aurre-



tik, eta, baita, Esparii'rako bidaldia egin ondorean, eraila izan zan arte Erroma'n katigu bizitu zanean.

Gaiñera, II mendearen lenen erdian idatzi zan "Muraturi'en Kanon"ek ere aipatzen digu Donepaul'en Espaili'rako ihillaldia, eta VI inendean Donejeronimo'k "fait allusion a ce voyage par mer dans son commentaire d'Isaie": "Isaias profeta aztertzerakoan aipatzen du, Paul'ek itxasoz egindako ibillaldi ara" (Griffe I.c.16).

Donepaul Tarragona'ra etorri zala esan oi da, baiñan ori ez da ain gauza ziurra. Baiñan izan daiteke egiazkotzat artua, garai artan Ispania'ko uririk garrantzitsuena Tarragona zan ezkerro.

Tarragona'ra etorri zala egia ba'da, ez zan Euskalerritik urruti ibilli, euskaldunak bait ziran orduango Illergetak, gaur-egungo Lerida'ren lurrean bizi ziran "Illergetes" aiek. Ez zeuden, eztare, Tarragona'tik urruti. Auñamendiaren sortaldeko goi-aranetan, Ilergetarrak bezain euskaldunak ziran Zerretiarak ere.

Ibero ibaia-gora, berriz, Zaragoza'tik urrats gutxi batzuetara aurkitzen ziran Jalon ibaiaren aranean Baskoiak. Eta, Tarragona'tik, Ibero-ibaia gora Zaragoza'ra iritxi aurretik, uri ortatik ipar-sortalderuntz ogei t'amarren bat kilometrora, Alkubierre-Mendietan asten zan Ueszitarren leiñu euskalduna.


Izan ote zuan Paul Doneak toki oietako gure arbasoekin arremanik?

Kondairak badira, bereiziki Baskoien artean.

Baiñan dirudianez, Espafii'ra, Donepaul'ek, ez zuan etorri besterik egin, ez bait zuan bertan bere mixioketak batere zitu ezagunik eman. Zergaitik? Bearbada sinagogan juduei itzeginda, bere endakide aien artean arrera onik izan ez zualako, esango nuke nik, nere iritzia ematea zillegi ba'zait. Donepaul'en oitura bait zan, soilki judutegi bat bazan urietara joatea. Eta, an, aurrena juduei sinagogetan itzegitea. Eta. gero, sinagogan irabazi zituan juduen bitartez eta aien laguntzaz haliatuz, jentillak mixiokatzeten astea.

Dokumentuen bidez ez dakigu ziur I mende artako Tarragona'n judutarrik ba'zan, baiñan, Tarragona Españi'ko uririk aundiena izateaz gaiñera, alako azoka aberatsa izanik, sinistekoa da an ez zala judurik faltako.

Ederki Jerusalem'Qo "Encyclopaedia Judaica"k: The jewish settlement there, (Tarragona'n), was of ancient date; Jews apparently established themselves in the harbor town during the Roman era. A laver discovered



Bautismo de San Fermín de manos de San Saturnino. Pintura sobre tabla, fechada en 1497, en el retablo del altar mayor de la iglesia del Cusco. de Antonio (N.A.).

there bearing the inscription `Peace over Israel, over ourselves, and our children' probahly beiong to this Derio".

Euskeraz:

"Oso antziñakoa da Tarragona'ko judutegia. Dirudianez, erromatekoan ezarri ziran juduak kai-uri artan. Seguruaski garai artakoa da aurkitu izan dan soin-garbiketarako ontzi bat. Ontzi orrek esaldi au darama idatzirik: "Bedi pakea Israel'entzat, bedi pakea guretzat, eta gure umeentzat".

mendean Tarragona'n judutarrak bazirala ziur-ziurki esan aal izateko, dokumenturik ez dugu. Uste bat besterik ez da, beraz, bai noski. Baiñan egi-itxura sendoko uste zintzoa.

Pentsa daiteke, beraz, Donepaul etorri zala; Sinagogan mintzatu zala: arrera onik ez zuala izan; Jentillengana urbiltzeko judurik aski ez zuala bataiatu aal izan; Orregaitik, jentillen arteko mixioketa asi aal izaterik ere izan gabe, Erroma'ra itzuli zala; eta egoitza antzu orren ondorioz ez zitzaigula Donepaul'en etorreraren aztarnik gelditu: ez gotzairik ez apaizik ez kristaudi txikirik: deusez!

Batere arrazoirik gabe dio beraz "Dictionnaire d'Histoire e de Geographie Chr&ienne"k, "Donepaul'ek Españi'n gotzai batzuk utzi zituala, ikustatzen zituan urietan oiturazkoa zuan bezala": "La prdication apostoli-

---

Eusko-Elizaren sorkuntzari-buruz, sorkuntza ori "atzeratuzale" diran ez-apaiz jakintsuek maiz jaurti oi diote, beren ustez (orrela dirudi beintzat) be-raiek bezain jakintsuak ez diran apaiz sorkuntza ura "aurreratuzaleei" uste utsak diran eritzietan oiñarritzen dutela beren edestigintza. Baiñan nik, bai inglanderaz, ("apparently", "probably", "it seems", "is acceptable"...), bai frantzeraz, ("semble", "est a croire" "peut **ta bai** gazteleraz **oien** antzekoak diran "hay que suponer", "es muy probable", "no parece exagerado", "quith", "probablemente"..., ta oien antzeko esaerak, "jakintza urriagoko"(!) apaiz "aurreratuzaleen" liburuetan ez eze, ugari aurkitzen ditut "atzeratuzale" ez-apaiz "jakintsuen" liburuetan ere. Naitanaiezko gauza, esakizun oiek edestigintzan erabiltzea! Edestia dokumentuen pillaketa utsa ez dalako, dokumenturik ez dagoenetan, dokumenturik gabeko arazo oiek argitzeko, inguruko dokumentuetan oiñak ezarriz, iritzi zugarrak asmatzea zillegi ez eze bearrezkoa ere bai bait da.

que aurait lais  en Espagne comme r sultat quelques petites chr tientes, avec leurs propres  glises-presbytres dans le genre paulinien".'

Gotzai-bereter oiek uzteko oitura bazuan, bai an ez dirudi **ORI** egin zuanik. Ez dirudi lztegi orrek aipatzen dituan kristauditxo aiek sortu zituanik ere. Guzti orren aztarnatxorik txikienik ere ez bait zan Paul'en ibilketaren atzetik Espa n'n gelditu. Seguruaski, etorri, Tarragona'ko sinagogan judutarrei itzegin, eta, i,arrera onik aurkitu ez zualako? --, len-bait-len alde egin zuan Donepaul'ek uri ortatik.

Tarragona'n bertan ere ezin izan zuan noski, Eliz txiki aietako bat irasi, ordura arte, ikustatu zituan tokietan egin oi zuan bezala. Jaki na izango duzu noski, aro zaar aietan gaur-egun "Elizbarruti" esaten diogunari esaten zitziola Eliza.

Tarragona'ko lenen gotzaia askoz geroagokoa da: III mendekoa: Fructuoso, izenez; Augurio ta Euljio bere bi diakonoekin 256'ean Baleriano inperatorearen zigorketakoa martiri il zana. Urrengo gotzaia berriz, Imerio, IV mendearen azkenekoa. Ainzuzen gotzai au, 385'ean Sirizio Aitasan-tuarekin arremantetan egon zalako dugu ezaguna.

259'tik 385'era, Tarragona, Espa n'ren erdia bazan Tarrakonense izeneko ipar-probintziaren burua, Espa n'ko uririk garrantzitsuena, 126 urte luzez gotzairik gabe egona zala i,sinistekoa ote da? Ez noski. Orrek, soilki au besterik ez du esan nai: Epe luze artako gotzaien izenik ez dugula eza-gutzen. Dokumenturik ez izatea, ez baita berez, beste ezer aldarrikatzeko oi arri ziurra. Ori edestilari orok kontuan euki bear duan gauza da.

Eta, arrazoiketa egoki baten bidez ere edestilariak argi-egiteko gauza ez diran auzietan, kondairan asmaketara jotzen du bizkor jendeak, zerbait-jakin-naiak eraginda. Orrelako kondairak ugari dira bazter guztietan.

Adibidez, Espa n'n bertan, "Apostoluengamdiko Zazpi Gizon" edo "Los Siete Varones Apost licos" esan oi zaien mixiolarien kondaira.

---

"Gotzai-bereter edo presbitero oiek maiz agertzen dira Itun Berri'ko "Bidalien Egifietan". Presbitero aiek eta gotzaiak, danak berdi nak zirala dirudi, danak gotzaiak, eta aien artetiko "gotzai" esaten zitzaion ura, beste guztien Iendakaria besterik ez zala; "berdi nen artean, aurrenekoa": "prinus inter pares". Ikus nere "Apostoluen eta Martirien Denborako Eliza".

Donekepa Aitasantuak eta Donepaul Apostoluak aukeratu omen zituzten Zazpi Gizonezko aiek, beren ikaslerik bikaiñen artetik, eta Espafii'ra mixiolari bidali.

Erroma'tik itxasoz etorrita, Betika'n (Andaluzi'n) legorrera jauzi egin, eta, zuzenean, pestetan zegoan "Acei"ra, (gaurko Guadix'era) joan omen ziran. Jupiter sasijainko nagusiaren omenezkoak omen ziran pesta aiek, eta asarre atera omen ziran Jupiter-gurtzaillerik sutsuenak asmo txarrez beteta, "Zazpi Gizonak" Jupiter gaitzestera eldu zirala jakin zutenean.

Ikaraturik, Gaudix'en alboko ibaia zubiz igarota igesari ekin omen zioten "Zazpi Gizon" Doneek. Ta, jentil-talde jazarle ura aien atzetik zubira sartu zanean, bat-batean jausi omen zan zubia, eta illik erori omen ziran jentil guzti aiek ere zubiarekin batera. Ondorioz, uri osoa egin omen zan kristau.

Gero, Españietako lurretara zabaldu omen ziran Zazpi Gizonezkoak, eta zazpi uritan beste orrenbeste Eliz sortuta, heraiak izan omen ziran Eliz berri oietako lenengo gotzaiak.

\* \* \*

Euskalerritik askoz eta askoz hertago zegoan Zalduna, ots, Zaragoza, Tarragona baiño. Baskoiez inguraturik iparretik eta sarkaldetik. Zalduba'tik bai errez sartu zitekeala Euskalerriko lurretara erlijio berria Jalon ibarreko Baskoien bidez, edo Alkubierre mendietako Ueszarren bitartez, Santiago Apostolua Zalduba'n mixiolari ibilli zala egia izan ba'litz.

Baiñan kondaira utsa da, Santiago Apostolua Espāñi'n izan zalako "edesti" ori. Eta kondaira utsa da, haitare, Miren Neskutsa, oraindik mundu ontan bizirik ziardula, aidez, Zalduba'ra etorri zala, nekaturik eta asper-turik aurkitzen zan Santiago gaixoari ats-ematera.

Ongi benetan sinistra izan ditu ba Espāñi'ko erriak, eta baita Euskal-erriak ere, Santiago Apostoluaren mixiokuntza eta, batez ere, zutabe baten gaiñean aingeruek ekarrita, Miren Neskutsaren etorrera;

"Bendita sea la hora en que la gloriosa Madre de Dios vino en carne mortal a Zaragoza", nere ama Benite zanak ere maiz esan oi zuan otoitza da.

Erriaren eraspén hiotzkoi orrek ordea ez du edesti biurtzen kondaira besterik ez dana.

Santiago, Erodes Agripa erregearen aginduz, Jerusalem'en izan zan erailla; 43'garren edo 44'garren urtean.

Doneztebe berriz, 36'garrean edo 37'garrean.n. Santiago baiño 6 edo 7 urte leenago.

"Bidalien Egifik" ordea, 6 edo 7 urte oietan Amabi Bidaliek, Palestina'tik irten gabe egon zirala esan nai duala dirudi: Eztebe illa izan zan "egun aretan, eraso aundia sortu zan Jerusalem'go Elizearen aurka; eta guztiak, Apostoluak izan ezik, Judea ta Samaria'ko bazterraldeetara zabaldu ziran" (13.E. VIII, 1. Kerexeta'ren euskeraketa).

Bibliako itz oien araura, Santiago ere ez zala Palestina'tik inora irten, dirudi. Ez zala, beraz, Espafirra etorri.

Baiña bada geiago ere:

Gure Santiago'ren eriotzaren berri, itz auekin ematen du: "Aldi aretan, Erodes erregea eliztar batzuk aurrean erabiltzen asi zan. Eta Santiago, Joan'en anaia ezpataz ilteko agindu eban" (ib, XII, 1-2. Kerexeta'ren Bizkaierazko Bibliatik). Gero, Jerusalem'go Kontzilioaz mintzatzen zaigu, 49'garren urtean egin zan kontzilio artara "Apostoluak eta Zarrak" bildu zirala esanez.<sup>5</sup>

Esakizun orrek, ordurako erailla izan zan Santiago eta bere bokazioari jarraituz beti jentilledian zebillen Paul izan ezik, Kontzilio ura egin zanean Apostolu guztiak oraindik Jerusalem'en zeudela adierazi nai digula dirudi, eta ez zala aietatik inor Doneztebe arrikatua izan zanez gero Palestina'tik irten.

Epe ortan Palestina'ren barruan Kepa ibilli zala badakigu. Ori, Bidalien Egiñek esaten bait digute. Kepa'renak ez ez Felipe diakonoaren ibillerak kontatzen dizkigute. Itun Berriko liburu orrek diakono uts baten ibillerak aipatzen ba'ditu, Amabi Bidalitako baten eriotza, Amabi Bidalien arteko lenen-Martiriaren eriotza kontatzerakoan, aren ekintzak ere aipatuko zitua-

---

1. XV, 6. "Zarra", ospe aundiko gizonei esan oi zitzaien, naiz adifnez zarrak izan ez. Zentzu bera dute laterazko "Senior" eta gaztelerazko "Señor" itzek ere: "Zarra" esan nai duan "Senex" itzetik datoz, eta "zarragoa" esan nai dute: "besteak baiño zarragoa"; gizarteko izkeran, "besteak baiño duintasun geiagokoa". Esannai bera eta zentzu berbera dute eleneraz "Presbiter" eta "Presbiteros" itzek ere: "Zarra" eta "Zarragoa".

la, al da sinisteko gauza? Batez ere, kondaira egia izatekotan **Santiago** izanen zala, Amabi Bidalien artean atzerria ehangelizatzen aurrenekoa, kontuan artzen ba'dugu!

Gaiñera. Santiago'k ez zuan Españi'n ibiltzeko betarik izan. Ar dezagun ontzat Doneztebe il da, urrengo urtean irten zala, Altagutziz, 5 edo 6 urte oien epean ez zuan naiko astirik izan, bere kondairak aipatzen dituan gauza guztiak egiteko:

- Palestina'tik Espaffi'ra etorri; orduan arras denbora luzea bear zuan ibillaldia bait zan ori.

- Españi'n ebangelioaren azia ereiten ibilli. Ereintza orrek ziturik ematen ez zio'lako, aspertuta, gokaituta, guzia bertanhera utzita etorri zan bidetik Palestina'ra itzultzea erabaki; izan ere ain erabat lur-jota zegoalako Miren Neskutsak berak etorri bear izan bait zuan Apostolu arras akitu ari indar ematera. (Eta, Apostolu bat ez zan noski ain zearo ezereztuko, ordurako gogor eta luzaro lanik egin gabe);

Miren Neskutsaren etorrerak berbizkortuta, berriro mixioketari indar berriz ekin; eta, oraingoan bai, izugarrizko zitua lortu; eta ziturik geiena jasotzen ari zan unean... Palestina'ra itzuli!!!

Ez da ulertzen, itzulpen orren arrazoia!

Edestiaren aldetik, Santiago'ren Espaiii'rako etorreraz lenen mintzatzen zaigun dokumentua V mendetik VII mendera artekoa da: Sortaldean idatzitako "Breviarium Apostolieurn" deritzan liburu bat. Eta askoz beranduago-koa da, berriz, Zutoitzeko Miren Neskutsaren etorreraz mintzatzen zaiguna.

Gaur ez du iñork zalantzan ipintzen Santiago'ren etorrera kondaira utsa besterik ez dalako ori<sup>6</sup>. Ta? Miren Neskutsaren etorrera?

---

<sup>6</sup> Roger, Auhert, eta Knowles'ek zuzendutako "Nouvelle Histoire de l'Eglise" k ez du aipatu ere egiten. Ezta Jedin'ek ere, Daniel Ruiz Bueno'k gaztelarrera biurtu dion "Manual de Historia de la Iglesia" n. Eztare A. Fliche'k eta V. Martin'ek "Histoire de l'Eglise" n. Azkeneko auek onako auxe esaten digute Españi'ko Elizaren astapenari-buruz: "La nuit qui enveloppe les origines chrétiennes de l'Espagne après la prédication de saint Paul, donc les suites immédiates nous khappent entièrement, est tout au plus traversée d'une loueur": "Gau illun baten illunpean datza Españi'ko kristautasunaren astapena. Donepaul'en mixioketaren ondorioetaz ez bait dugu batere ezaguera ziurrik, alako dizdiratxo-apur bat izan ezik" (I,285). Baiñan, tamalez, dizdiratxo ori ere edes-

Zutoitzeko Miren Neskutsaren etorreraz mintzatzen zaigun lenen dokumentua XIII mendearen azkeneko urteetakoa dugu, edo, seguruaski, beranduxeagokoa, XIV mendekoa!

Ez bisigoten ez mozarabeen liturgian, ez da "Andra Mari Zutoitzekoa-ren" izenik agertzen. Ez da aipatu ere egiten.

Ez dute aipatzen, ezta, garai artako idazle españiar done aundiek: Kordoba'ko Eulojio'k, Sebilla'ko Leandro'k, onen anaia zan Sebilla'ko Isidoro ospetsuak, neskustasunari-buruz liburu ondo ezagun bat idatzi zuan Toledo'ko Ildefonso'k, Kukulla'ko Donemilian'en bizitza idatzi zuan Zalduba bertako Braulio'k

ezta, oiek baiño leenagokoa zan Prudentzio olerkari kalagurritarrak ere, naiz au aski epe luzez Zalduba'n bizitu. Izan ziran orduan gizon ospetsu geiago: Toledo'ko Julen, Liebana'ko Beato, Tajon, au ere Zalduba'ko gotzaia, Jon "Bielarense" Balklara'ko abata kronika-idazle ezaguna... Ez dizu iñork Zalduba'ko misteriorik aitatu.

Ezbaiean jarri ez daitekean gauza da beraz Zutabeko Miren Neskutsaren etorrera kondaira utsa besterik ez dala.

Ona zer dion, Zutabeko Miren Neskutsaren etorrera ori borondate onez sinisten duan Lorea edestilariak berak ere ("Historia de la Iglesia Católica" I, 134):

"En realidad parece que dichos autores debfan neesariamente haber consignado la tradición. Asf, Prudencia, aunque no fuera originario de Zaragoza, estuvo ciertamente allf, y en esta ciudad redactó aquel himno verdaderamente inspirado en honor de los dieciocho martires de Zaragoza. La ocasión parece le brindaba a conmemorar la gloria básica de la ciudad cuya fe ensalzaba con los colores po&icos mas subidos. Pero no hace ninguna alusión a la tradición del Pilar. No menos sorprendente es la ornisiÓn de San Braulio Obispo de Zaragoza (619-631)".

---

tiak ez baiña kondairak damaigun dizdira da! Batere baliorik gabekoa. "Diccionario de Historia Eclesiástica de España" idazlan luze batean saiatzen da kondairari itxura-apur bat eman naiean, baiñan bere arrazoiketa ez zaigu erangin-garria iduritzen.



Era berean esan zezakean aski arrigarria dala, Toledo'ko Ildefonso'k, birjintasuna.z idaztean, oraindik aragi ilkorraz bizi zalarik Palestina'tik España'ra etorritako Birjintasun ooren Erregiña ez aipatu izatea!

Arrigarria baitare, VII mendean Zalduha bertako gotzaia izan zan Tajon'ek, igaro bear izan zituan neke larrietan ain ondoan zeukan Zutoitze-ko Miren Neskutsaz ez oroitu izatea eta ain urbil zeukan Zutoitzeko Miren Neskuts ura sekulan aipatu ez izatea. Bazan ba' norbait Tajon Zalduba'ko gotzaia: Teologilari, bibilari eta idazlea, "fue uno de los prohombres de la cultura cristiana visigoda. Su intervencióN en los Concilios de Toledo da una idea de la parte decisiva que le cabe en el apogeo de la (España visigoda" (Llorca, 790). Alare, "Pillareaz", tetik

Alatagutziz, ixiltasun astun guzti oien gaindik, begira nolako arrazoiak asmatu dizkigun idazle iñakitar España-zale aundi orrek, nolabait bere eta beste ainbeste ta ainbesteren sinispena dan Zutoitzeko Miren Neskutsaren etorrera babestu nairik: "Los milagros obrados por Dios en torno al Pilar de Zaragoza, sobre todo el tan conocido del cojo de Calanda y los hechos maravillosos de nuestra guerra de 1936, sÓlo indican que Dios aprueba este culto y se complace con la veneración trihutada a su Santfsima Madre".

Baiñan bereala, esan dituan itz oiei buruz, onako au, apalki diosku: "De hecho no pueden traerse como pruebas convincentes de la verdad de la tradición" (Ib).

Ez, Lorka Aita, ez. Ez daitezke ekarri. Ez beintzat 1.936'ko gudate zikin artako "hechos maravillosos" oiek!



## GURE KRISTAUTASUNA, ,NONDIK ETORRIA?

Egoa aiña ajola zaigu iparra guri, bi aldeetatik sartu bait zitzaigun kristautasuna. Ez noski I mendean! I mende artan ez Espāñi'n ez Frantzi'n oraindik kristautasunik ez bait zan. Baiñan gure Errira kristautasuna bi alde oietatik iritxi zaigulako, etorrera ori nolakoa izan zitekean ulertzeko, egoan Zaiduba'ko Eliza bezala, iparrean batez ere Bordele ta Tolosa'ko Elizak euki bearko ditugu gogoan.

Lenengo mendean Frantzi'n ere kristautasunik ez zala esan dugu. Izan ere, Frantzi'ko Elizaren "sustrairik zarrenak, II mendearen erdialdera Sartaldetik Lyon'go urira etorri ziran mixiolari sortaldetarrak bait dira": "Ses plus lointaines origines remontent aux missionnaires orientaux qui vinrent Lyon vers le milieu de II'eme (Griffe, "La Gaule Chretienne l'Époque Romaine", 78).

II mende orren erditik aurretiko kristautasun frantziarrari-buruz iñork deus ez daki.

Orregaitik ainzuzen, Euskalerritik at gure iparrean ere, zerbait jakin naiak eraginda, ez ziran Espāñietakoak baiño motelago ibilli Galietako kristauak kondairen asmaketan:

Martseila'ko lenen gotzaia, Josu'k berbiztutako Lazaro izan omen zan. Arekin etorri omen zan Marta bere arreba. Eta baita Mari, erriaren ustez Mari Madalen bere beste arreba ere.

Kondaira asko ditu Mari Madalen'ek. Danak nasi ezkeronako kondairatxo pitxi onen antzeko zerbait aterako litzaiguke: Gogo Deunaren etorreraz gero, lekaro legor batera izkutatu zala eta an bizitu izan zitzaigula penitentzigintzan giro gogorreko lurralde aren negu otzei eta uda kiskalgarriei jaramonik egiteke "biliutsik eta ezer jan gabe": "sena beste et cibo", "soiftekorik eta janaririk gabe"; eta andik, aingeruek eraman zutela "sena beste" beren egaletan arturik aidez Martsella'ren albora, an ere, "senza

beste et eibo" penitentzigitzan jarrai zezan ("Bibliotheca Sanctorum": Maria Magdalena).

Beste kondaira baten ustez, Erodes Agripa erregeak kristauen aurka piztu zuan zigorketatik igesi, Lazaro, bere bi arrebak eta Maria Salome eta Maria Jakobe aize-oialik gabe aurkitzen zan itxas-ontzi txiki batean izkutatu omen ziran, eta naiz ontziak oialik ez, aizeak iraduz Galietako Rodano ibaiaren agora eraman omen zituan.

Dakusazunez kondaira-asmaketan ez ziran gure iparreko kristauak gure egokoak baiño motelagoak izan. Entzun A. Fliche eta V. Martin edestilariei:

"On a imagine la venue en Provence de Lazare, l'arni de Jesus, qui aurait ete le premier Mque de Marseille, et de ses soeurs Marthe et Marie, dont le souvenir reste attache a la ville de Tarascon et aux grottes de Sainte-Baume; on a Onëreusement octroy aux plus en vie des siges piscopaux francais des fondateurs disciples direets de saint Pierre, comme Trophime, premier d'Arles, au de saint Paul, comme Denis, l'illustre converti de l'Ar Šopage d'Athnes, rriu en &&lue de Paris, ou de Jesus lui-méme, comme Martial de Limoges, qui ne serait autre que l'enfant portant des pains et des petits poissons lors du mirage de la multiplication des pains!

"Legendes naïves qui font r ver ou sourire, mais ne relvent que de l'imagination et des amours-propres de clocher" (Histoire de 280).

Euskeraz:

"Uste izan da, Lazaro, Josu'ren laguna Probentza'ra etorri eta emen Martsella'ko lenen gotzaia izan zala: Onera etorri zirala aren bi arrebak ere, Marta eta Mari; Taraskon uriari eta San-Bome'ko leizeei loturik dirau auen izenak. Gure frantziar-gotzaigorik ospetsuenen sorkuntza Apostoluen ikasleei erantsi zitzairen. Ala, Donekepa'ren ikasle izan omen zan Trofimo Arles'ko elizbarrutiaren iraslea; Donepaul'en ikastea berriz Dionisio, Atenas'ko Aeropago'an kristau egindako gizaseme ospetsua, gero Paris'ko lenen gotzai biurtua; ta Josu ber-beraren ikaslea Martzial, Limoges'ko lenen-gotzaia. Umetan, Martzial au izan omen zan, Ebangelioko ogi-arraien ugarietako mirariaren aurretik ogi ta arraitxo batzuekin agertu zan mutil-koxkor ura"

"Irudimen utsak eta nork-bere-txokoaganako-maitasunak sortutako kon-dairatxo umekoiak, soilki amets eta irripar egiñerazteko balio dutenak.

Ez dakit zergaitik, baiñan Fliche'k eta Martin'ek ez digute Bourges'ko Ursino'rik aipatu. Ursino au, Nikoderno omen zan bere izenez. Azken aparian, berak egin omen zuan oiturazkoak ziran bibli-zatien irakurketa-lanak, Josu'ren nekaldian egon omen zan, Pentekoste-egunean Miren Nes-kutsarekin eta Apostoluekin batera artu omen zuan Gogo Deuna, egon omen zan Doneztebe'ren nekaldian ere, eta berak bildu omen zuan martiri aren odola;

Kepa Donearen jarraile egiñik, arekin Erroma'ra etorri eta aren nekaldian ere egon omen zan, eta azkenik, Doneklemente Aitasantuak bidali omen zuan Galietara mixiolari, eta, bein Galietan bera izan omen zan Bourges'ko, Erromatarren Biturrko, lenen gotzaia, eta mirari aundiak egin omen zituan "bituriges" edo bituritarren artean (Bib. Sanct. Ikus Bolandisten "Atta Sanctorum" ere).

Ipui-sorta politagorik?

\* \* \*

Ez giñan Euskalerrian ere orrelako pitxi kuttunik gabe gelditu.

Kuttunkereri oietan ezagutuena Iruña'ko Donefermin dagokiona dugu noski. Kondaira polit orren aldakuntzetako bat Iruña'ko San Zernin (San Saturnin) Parrokian gordetzen da. Baiñan bai berak, Donefermifi'ek, eta bai bere kristautzearen eragille izan zan Saturnino Doneak, badituzte beste kondaira batzuk ere:

Saturnino, Jon Batailariaren ikasleetako bat izan omen zan; gero, Josu'ren irurogei ta amabi ikasleetako bat, Jon Batailariaren agindua jarraituz, Josu'rengana urbildu zanez gero. Donekepa'k bidali omen zuan Akitani'ko Tolosa'n Berri Ona zabaltzera.

Saturnino Doneari, maitasunezko izen kuttun bat eman dio Iparr-Euskal-erriak: IONDONI SATORDI, JONDONI XATORDI, eta orrela deituko diot nik ere emendik aurrera.'

Bein batean, Iondoni Satordi ori Tolosa'n ebangelioa aldarrikatzen ari zala, Nimes'tik etorritako gazte batek entzun omen zion. Gazte nirnestar onek Onesto zuan izena. Kristau egin, Iondoni Satordi beraren eskuetatik bataioa artu eta bere maixu aren onespenearekin, Akitani'ren barrura sartu zitzaigun mixiolari, izan ere, Iondoni Satordi bere maixuari Tolosa ez Tolosa'ren inguruak ere eman bait zizkion Kepa Doneak mixio-lurtzat.

Baiñan lur oietako batzuk, **geienak** euskaldunak ziran oraindik. Bai beintzat Akitania. Onesto ordean nimestarra zan. Nimes'era joandako euskaldun baten semea zalako-edo, bai ote zekian euskeraz? Nimes ez bait zegoan orduango Euskal-erriaren mugatik ain urruti. Soilki Akitani'ko uri ta uritxoetako erdaldunetara izan ote izan zan bidalia? Egia esan, Onesto'ren euskalduntasunari-buruzko galde orrek, izateko arrazoirik ez du. II mendean mixiolariak, Iandak ukitzeke, soilki urietan egiten bait zuten beren lana, eta ordurako, bai noski, latera ongi ikasirik bait zeukaten urietako eusko-akitaniarrek?

Danadala, ez du Onesto'ren ibillera ezagutzen saiatzeak asti aundirik galtzea merezi. Izan ere kondaira utsa besterik ez bait dira aztertzen ari geran "gertakizun" auek... I mendeari dagokionez beintzat.

Akitania ebangelizatuta, lasa-lasa igaro omen zituan Auñamendiko baztarrak eta pake santuan zoriontsu iritxi omen zan Irufta'ra. (Dakusazunez, kondaira au GXII mendean? eratu ziguten kristauek ez zuten, V mendean gero idazle atzerritarrek Auñamendiari eta ango biztanleei-buruz asmatutako ikaragarrikerien ezaupenik).

---

"Deituko diot", idatzi dut. Obeki legoke "esango diot", baiñan erriak onaturik dauka beste esakera ori-ta, legezkatat artu dezakegula derizkiot. Izkuntzak bear du gaiñera lasaitasuna, bizirik jarrai nai ba'du. Izan ere, gramatikarizko "kortse" estuegiak gure izkuntza estutzen asiko ba'gafia, liraindu ez baiña lertu egingo genuke gaixoa. Arrazoi aundiz idatzi zuan gramatikaren sortzailletzat eukia izan dan Kintiliano baskoi kalagurritarrak: "Ez da gaizki esana (non invenuste dictum est) gauza bat dala izkuntza baten gramatikaren araura mintzatzea (gramatice loqui) eta beste bat izkuntza ori mintzatzea (latine loqui" esan zuan berak).

Iruña'n, jai aundia omen zuten Onesto iritxi zan egun artan Diana jainkemearen omenez, eta Diana'ren jaurettxera omen zijoan Firmo senatorea, jainkeme aren lepotik parrez zegoan Onesto'rekin topo egin zuanean. (Diana'ren ordez Jupiter jarri nai dute beste batzuek).

Diana edo Jupiter, Onesto'ren algarak zirala-ta lotzen dira gure bi gizon aiek alkarrizketa beroan, mintzatzen zaio Onesto Tolosa'ko Iondoni Satordi'ren jakintzaz eta santutasunaz, eta Firmo'k, ain gizon jakintsu eta done arekin itzegiteko zaletasuna agertzen dio.

Lortu zuan Onesto'k londoni Satordi Iruña'ra ekartzea, eta onen irakaspentak entzun ondorean, Firma bera, Eujeni bere emaztea, eta beste senatore batzuk, kristau egin omen ziran, eta baita beste 40.000 irunseme ere urrengo iru egunetan.

Tolosa'ra itzuli zan Iondoni Satordi. Onesto'k ordea Iruña'n jarraitu zuan mixioketa-lanean.

Firmo'k eta Eujeni bere emazteak bazuten seme bat, Fermin, agian Iondoni Satordi'ren mixioketakoa Iruñatik at zebillena. Onesto'k kristautu ta bataiatu zuan. Beste batzuek ordea, Saturnino'k bataiatu zuala diote.

Ori dana, jakiña, kristautasuna mundura zabaltzen asi bezain laister gertatu omen zan; Donekepa oraindik munduan bizi zala; I mendean beraz.

Fermin, 18 urterekin asi omen zan mixioketan. 16'rekin esaten dute beste batzuek. Eta Tolosa, Agiña (Agen), Auberni ta Pikardi'n ebangelioa aldarrikatzen ibilliz gero Amiens<sup>i</sup> era iritxi zanean, an 3.000 bataiatu omen zituan, eta, ez da arritzekoa-ta, bereala bertako gotzai egin omen zuten amienstarrek: Amiens'ko lenen-gotzaia.

Baiñan beste kondaira batek dionez, Iruña'ko gotzaia izan omen zan Fermin, Iruña'ko lenen-gotzaia ainzuzen.


Gaur-egun bi uri oiek diote Fermin Doneari eraspen aundia.

Kondairak ez daude bat, Fermin noiz bizitu zan azaltzerakoan ere: I mendean? III'enean? IV'enean?, V'enean ote? ala VI'ean? Amiens'en 555'-eko iraillaren 25'ean martiri il zala bait dio kondaira oietako batek.

Gaur, Iruña'ko San Zernin eliza, antziña artan Diana'ren jauretxea zegoan toki berean omen dago, batzuek diotenez.

Naiz gure kondairarik garrantzitsuena Fermin Doneari dagokion ori izan, baditugu Euskalerrian beste batzuk ere. Ausardi aundiagokoak gaiñera. Adibidez, gu ebangelizatzeraz Paul Donea bera etorri zitzaigula diona:



 Montagnes aL-cissus de 7.000"

*EXTENSION DU CHRISTIANISME AU MILIEU DU TROISIEME SIECLE*



Entzun zer albiste polita damaigun Yorke Berrian argitaratutako "The Catholic Encyclopedia" liburu mardulak Kalagurri'ko Elizaz mintzatzera-koan: "It has been asserted, but without historical foundation, that Saint Paul preached at Calahorra and ordained as its first bishop one of his disciples: Felix".

Euskeraz: "Naiz edesti-oiñarririk gabe, Paul Donea Kalagurri'n mixiolari zala esan oi da, eta bere ikasleetako bat, Felix, utzi zuala bertako lenen-gotzai". Nik uste baiño geiago zabaldu zan, dirudianez, kondaira orren lurrin gozoa. Iritxi zan beintzat Yorke Berriraifiol

Ez da gaiñera Ipar Amerika'ko Entziklopedi ori, gauza berbera esaten bakarra. Entzun Frantzi-aldetik damaiguten onako berri au:

"Si comme on l'admet couramment, Saint Paul débarquant à Tarragone precha dans l'Iberie, on peut supposer qu'il passa par Calahorra et y laissa quelque disciple. Mais ce n'est là qu'une conjecture. Les premiers témoignages certains du christianisme à Calahorra datent du milieu du III

Euskeraz (Dictionnaire d'Histoire et Géographie Ecclésiastiques: "Calahorra" itzean):

"Geienek ontzat artzen duten bezala Tarragona'n legorerratu zan Paul Doneak Iberi'n, (ots, Ibero ibaiaren aranean), Berri Ona erein bazuan, uste izatekoa da Kalagurri'ra iritxiko zala eta bertan bere ikasleetako bat utziko zuala. Ori ordea uste bat besterik ez da. Kalagurri'n aurki daitezkean lenen kristautasunaren aztarna ziurak III mendearen erdi-aldekoak bait dira".

(Azpimarraketa bi oiek, nik egiñak; haiñan oker dabillega uste dut izen aundi ederreko Iztegi ori, Kalagurri'ko lenen kristau-aztarnak III mendearen erdikoak ez haiña mende orren azken-aldekoak bait dira: Galiano inperatorearen garaiekoak).

Kondaira orren mamia, arri biurturik, Naparroa'n, Biana urian aintuzen, galdua dan arri-ol batean ikusi zitezkean. Onako au esaten omen zuan arri-ol artako idaztiak:

"Saulus, praeco crucis,  
fuit nobis primordia lucis":

"Saulo gurutzearen iragarlea,  
Guretzat, lenen Argi-ekarte"

Poiitak benetan arri-ol ortako itz neurtu oiek. Bai noski..., X mende-koak ez balira!

\* \* \*

Kondaira guzti oietaz zer esan?

Kondairak, berez, ez dira ipuiak. Ez dira mitoak. Ez dira parabolak.

Parabola bat, oso-osoan, irudimen utsaren zitua da bere aurreneko itzetik. Egi bat erakustearren, adimenak irudimenari sortarazten dion zitu polita. Mitoak ere badu parabolaren itxura, baiñan paraboiak bereiziki aurreruntz begiratzen duan bezala, atzeruntz begiratzen du bereiziki mitoak, eta bere elburu nagusia izadiko gertakizunei, eta izadi beraren sorkuntzari esplikazio edo azalpen bat ematea da.

Bestelakoa dugu kondaira. Kondaira olertizko lorez jantzitako edestizati--xatitxo bat da. Kondairak, kondaira izateko, bere gunea egiazkoa izan hear du.

Ala, badakigu Bibar'ko Errodrigo, gaztelar-elertiko "Cid Campeador" ura Urbei ibaiaren ertzeko Bibar erritxoan jaiota, egiaz bizitu zan gizakumea dala. Badakigu, Iruña'ko Iondoni Satordi, egiaz Tolosa'ko gotzaia izan zala. Eta badakigu baitare seguruaski Sortaldetik etorri zala, eta, ziurki, Tolosa'ko lenen gotzaia izan zala.

Gertakizun oiek, ordea, erriko jendearen jakin naiarentzat Iaburregiak, otzegiak eta motelegiak dira-ta, kondairak olertizko asmakizunetz luzatu, berotu eta goxatzen ditu.

Asmaketa oiek, maizenik, erraldoien munduko ekintza izugarriak izaten dira: adibidez, Bibar'ko Errodrigo'k il da ondorean garaitu zituala maometarrak Balentzi'n; Bibliak aurkezten digun Sanson arek asto baten masaill-egur bat erabilliz milla thisteitar il zituala; Iondoni Satordi'k Iruña'n, iru eguneko epe motzean, 40.000 iruñseme bataiatu zituala...

Kondairaren mami-mamikoa da gertakizunak antziñatzea, ots, al dan antziñera botatzea, eta zenbakiak puztutzea. Bi gauza oiek erri-elerti edo

"literatura popular" esan oi zaion elertikeraren muiña ber-bera bait Kondaira, berriz, erri-elertiaren zitua izaki!

Erri-elertiarentzat zenbakiak ez dira zenbatekoa adierazten duten matematiketako ikurrak, gramatikako itz laguntzailleak (adjetiboak) edo aditz-ondoko edo "adberbio" ugaritasun agerleak baizik. Ori kontuan euki bearra da, edesti zarrak eta Biblia bera irakurtzerakoan, edestilari aiek aipatzen dituzten gertakizun asko erri-elertiak sortutako kondairak bait dira: edestilariak, entzun zituzten bezala beren idaztietara sartuak.

Aipatu ditugu Sanson'ek ildako milla filisteitarrak eta Iondoni Sator-di'k Iruña'n iru egunen epean bataiatutako 40.000 iruñ seme aiek. Fermin doneak berak ere 3,000 bataiatu omen zituan Amiens'era iritxi bezain azkar. Oroi baitare, Termopiletan 400 espartarrek garaitutako 100.000 millatik gorako pertsiar aiek.

Orregaitik, eta erriaren altzoan ezpaiñetatik ezpaiñetara zilipurdika ibilli oi diralako; eta, beste batzuetan, politikaren giroak sakonki aldatzen ditualako, zail izaten da kondaira batek bere erraietan daramakian egiaren apurra billatzea. Zaillagoa berriz apur oiek aurkitu **ziurki jakin aal** izatea.

Ori dana kontuan artuta, zer pentsa euskaldunon kristautasunari-buruzko kondaira guzti oietaz?

\* \* \*

Iruña'ko Donefermitl'enak badu alako sendotasunaren itxura pixka bat: itxura utsa ordea, ezpairik gabe.

---

Zenbakien puztuketa, bearrezkoa du erri-elertiak: ori, erriko jende landerren sikologiak eskatzen dion gauza bait du. "Asko", "gutxi", "asko xamar" "oso gutxi" eta oien antzeko itzak ez dira erri-elertiaren itzak. Aitonak adibidez billobari Saturnino Doneak iruñ seme asko hataiatu zituala esaten ba'dio, billoba ez zaio "asko" orrekin lasai geldituko. "Zenbat?, zenbat? aito-na"! galdetuko dio. "40,000!" izango da aitonak emango dion erantzuna. Eta sukaldeko suaren galdari begira, pozik geldituko zaio billoba, 40.000'ko kopuru ori, nolako multzo ikaragarria izan ote daitekean pentsatzen. Erriko jende landerra berriz, punttu askotan umeen antzekoa izaki.

- Aspaldidanik eraspen sendoa dio erriak Baskoien artean, naiz eraspen ori aurreneko aldiz dokumentuetan XII mendean agertu. Amiens'tik, Fermin Donearen erreliki bat Iruña'ra II Pedro Iruña'ko gotzaiak ekarri zuanean; ainzuzen; 1.186'garren urtean.

- Amienstarrek ere jaiera aundia diote beren lenen gotzaia izan omen zan Donefermifi'eri. Baiña aiek ospatzen duten Fermin, badaiteke beste Fermin bat izatea. Txit Done zaarren kondairetan maiz gertatzen bait dira naasketa oiek. Orrela nasi ziran bi Mari pekatarien kondairak ere: Erdiaroan kristaudiak ain maite izan zituan Mari Malen eta Mari Ejipziarraren kondairak.

Amiens'en bertan bi Donefermin onesten dituzte. Biak, bertako gotzai izan omen ziranak; eta oraindik ez dakite bi Fermin aiek izen bereko bi gotzai izan ziran ala bat bakarra. Arrazoi aundiz bait dio "Bibliotheca Sanetorum"ek "Donefermifi'en bizitza kontatzen digun "Vita Firmini"ren edesti-balioa oso txikia dala": "il valore storico de la 'Vita Firmini' u minimo".

Izan ere, Fermin Iruña'tik, Frantzi'ren iparr-iparreraño joan izatea, zentzu aundirik ez duan gauza da. Ibilketa luzeak ordea, Done guztien kondaira danetan aurkitu aal izango dituzu: ibilketa oiek, ordea, bere Done aundien aunditasuna geiago aundiagotzeko, erri kristauaren biotz sutsuak asmatuak izan oi dira, mendeak zear ikusiko dugun bezala.

- iritxi izatea Fermin, zurrago pentsatutako gauza izango litzake; an gotzai sagaratu omen zuan ba Iondoni Satordi'k. Beste kondaira batek, ordea, sagaraketa ori Iondoni Satordi'k berak Iruña'n bertan bataioaren atzetik bereala egin zuala, diosku.

- Donefermifi'en gotzai-sagaraketa Tolosa'n egin zala dioskun kondairak, ori, Iruña'ra Iondoni Satordi'ren aurretik mixiolari etorri zan eta Iondoni Satordi Tolosa'ra itzuli ondorean ere Iruña'n gelditu zan Onesto Donea apaiz utsa izan zalako ustean esaten digu.

Baiñan alako mixio-lana zekarren Onesto ura, "Onesto (santo martire) sarebbe stato (izan omen zan) mandato ad evangelizzare Ia Navarra" (ib) apaiz izanik, gotzai ere ez izatea, garai aietarako gauza arrigarria da. Ez zuan Tolosa'ko Iondoni Satordi'k bere lagun sendo ura era artan bidaliko, Ez noski. Ez bait zan bera ere Tolosa'ra era ortan bidalia izan.

- Ona, ordea, non agertzen zaigun Fermin Donearen bizitzara beste gizon Santu bat, Tolosa'ko Onorato, itxuraz arazo guztia zaillagoa biur-

tzera: Tolosa'ko gotzai izan omen zan Onorato; eta bera izan omen zan Fernin gotzai egin zuana ere: "Onorato vescovo di Tolosa. Sappiamo poco di questo personaggio e le scarse (orri) notizie conosciute sono incerte. Egil (bera) figura al secondo posto nella lista episcopale di Tolosa, fra (onako hi auen atzetik) San Saturnino martire verso il 250 e Rodanio morto nel 358. Ma il nome de Onorato proviene dalla leggenda di San Firmino martire, racconto tra il piu favolosi" (azpinnarraketa berea).

Azpinnarratutako esakizun ori Duchesne edestilari frantziarrarengandik artua du, eta au esan nai du: "Racconto" edo kondaira ori, izan daitekean ipui-itxurarik aundiena duten kondairetakoa dala. Eta onela jarraitzen du gure Iztegi italiar orrek:"

"Kondaira orrek dionez, Onorato vescovo di Tolosa avrebbe (omen zuan) istruito e consacrato vescovo Firmino, figlio del senatore spagnolo Firmus, lui stesso (au ere) convertito da San Saturnino".

- Seguruaski, nere ustez beintzat, kondaira auek damaizkiguten Onorato Onesto gizon bat bera dira: Iondoni Satordi'ren ikasle kutuna zala ikusi dugun Onesto ura bera, au ere, nere ustez, gotzai izan zana. Bere izenik Tolosa'ko gotzaidian agiri ez ba'da, Tolosa'ko gotzaia izan ez zalako da. "Di Tolosa" esaten ba'dio kondaira onek, mixiolari bezala Tolosa'tik bidalia izan zalako da, eta Iruña'ko gotzai bezala agertzen ez ba'da, Iruña'n bertako gotzaia ez baiña, soilki gotzai mixiolari bat besterik izan ez zalako da.

Iondoni Satordi Tolosa'ko gotzaia da, dakusazunez, kondaira guzti onen ardatza, bere inguruan untza zugaitz-enhorraren inguruan bezala txirikordatzen bait dira gertakizunak oro. Baiñan Iondoni Satordi egiazko giza-kumea izan zala, edestiak ongi ziurturik daukan gauza da. Baita Tolosa'ko lenen gotzai izan zala ere.

Iondoni Satordi berari ere aspalditik izan zaio eraspen irmoa Eraspen orren adigarri da bere izena daraman parroki zaarra: San Zernin.

- Baiñan Iondoni Satordi III mendean bizitu zan. San Fermin, alde-rantziz, ↑ mendekoa zala esaten digu kondairak, Ez genuke, ortik, eragozpen larririk. Esanik utzi bait dugu kondaira guztiak antziñaruntz jotzeko duten zaletasuna. Kristautasunaz ari diranean, kristautasunaren asieran, I

mendean, jarriko dituzte beren santuak eta santu oiei-buruz kontaktzen dituzten gertakizunak.<sup>9</sup>

- Guzti ortatik ondorio bikoitz au aterako nuke nik:

A): Donefermin ez dala I mendeko gizakumea;

B): Izatekotan, III mendekoa dala. Baiña Iruña'ko gotzaia izan zala esateko, batere arrazoirik ez dugula, baiñan, alatagutziz, ori benetan sinisten duan kristauari nik ez niokela, orregaitik, kontzientziko kezkarik sortuko.

Eta, puntu ontan kondairak egia diola-ta, Fermin Donea Iruña'ko gotzai izan zalako ori egia gertatuko **bera izan ote zan Iruña'ko** lenen gotzaia? Orixe bai jakiterik ez dagola!

Guzti orrek frontoira eramane ezkerer zer diru egingo lukean? Ez dakit. Danadala're, nik ez nuke ori frontoietako artekarienez zaiñetan jarriko.

Baiñan, Donefermin Iruña'ko lenen gotzai santua bezala, eraspenez aundiz eta sinispen sendoz omentzen duala esango lidakenari, ez nioke oker dabillenen erantzungo.

Baiñan, eundaka urteren epe luzean kondaira oiek danak zalantzarik gabe egiazkotzat artu dituzten, eta orregaitik kristautasuna euskaldunen artera aurreneko mendean sartu zala uste izan duten millaka eta millaka kristauei, merezi duten begirunerik galdu gabe, uste onean atzipeturik ibilli dirala noski, esango nieke nik. Begirunerik galdu gabe, ori bai, zaborretik urrea bereizteko, ez bait zuten aiek guk aiñako adiontasunik izan. Oroi dezagun Garibai edestilari arrasatearra.

\* \* \*

Irten gaitezen kondairaren lur labain illunetik, edestiaren alor sendo ta argiagara sartzeko.

Gaur ez da iñor Euskalerrira kristautasuna I mendean sartu zala uste dezakeanik.

---

Joera ori erri-elertiak berekin daraman gauza da: "Antziña artan..." asiko dira erriko jende arruntak kontaktzen dituan gauza guztiak.

Alare izan dira, bat baiño geiago gaiñera, uste orrekin bizi izan diranak. Batzuk, kondaira zaar batek, ots, Tubal'en kondairak eraginda. Beste batzuk arkeologia ulertzerakoan atzipetuta.

Ez daki iñork noiz sortua dan, Bibliako izenak erabilliz, Tubal'en kondaira ori; baiñan gure egunotaraiño iritxi dala, edozeiñek dakian gauza da. Nik neronek, ume txiki nintzala, onako au ikasi nuan liburutxo batetik: "Los primeros pobladores de España fueron Tubal, hijo de Jafet y Tarsis su nieto".

Entzun XIII mendean X Alfontso Gaztela'ko errege "Jakintsuak" idatzi ziguna: "Mas (bainan) del quinto fijo de Japhet, que hobo nombre Thubal, donde (beragandik) vinieron los españoles, so linaje daquel (bere jatorrikoak izanik) anduvieron (Tubal eta bere sendikoak) por muchas tierras, buscando lugar gora poblar de que se pagassen (atsegin ba'zuten)) fasta que llegaron a parte d'occident a los grandes montes que son llamados Pirineos que departen Espanna Ia mayor de la otra (Rodano ibaia ta Auñamendia artean Frantzi'ko Mediterran Itxasoaren ertzean zegoan "Marka Hispanika"), y estos montes comiencanse a la grand mar mayor cabo la villa que es llamada Bayona que yare (datza) en essa mar misma contra cierco (iparraldera)...

"E aquesas gentes de vox dixiemos, pues que fallaron (aurkitu bait zuten) aquella tierra, comenzaron a poblar todas essas montañas e hicieron muy grandes pueblos fueron descendiendo al llano facta que llegaron a un rio que es dicho Ebro... e porques (por que se) pagaron (onzat artu) mucho daquel agua poblaron cabo della (aren alboan)... poblaron I (an) quatro villas: Ia una ha nombre Oca, que es suso (goian) en la montaña que llaman Monte Oca, e otra poblaron cabo Ebro contra parte d'Orient e llamaronle Calahorra, otra poblaron mas adeiante, otrossf cabo Ebro, a quien pusieron nombre Taracona e desf (orrela) poblaron la quarta, cabo esse rio mas adelant, e llamaronla Auripa; mas despu6 el Emperador Cezar Augusto cuando la ganÓ por fuerça camiol (aldatu zion) nombre e llamol Cezar Augusta, a la que agora dicen Caragoea".'

---

<sup>10</sup> "Crónica General de España". Zaragoza'n 1.955'an egindako argitalpe-  
netik (III, 48-49) artuak ditut lerro oiek

Oartu zera noski zeifien ederki mugatu duan X Alfontso'k, berak bere denboran ezagutzen zuan Euskalerrria: Baiona'tik Oka Mendletaralfio, eta Oka Mendietatik, Kalagurri eta Tarazona-zear Zalduba'ren gain-gaifieraifio, XIII mendean Euskaldunak ziran Zalduba'tik aurrera Arkubierre mendikatearen iparreruntz Auñamendiaren inguruko lurraldeak ere i,noraifio? -- baiñan Alfontso'k, muga ziurrez inguratirik, berak ezagutzen zuan Euskalerrriaren zatirik nagusia damaigu.

Alfontso'k jasotzen duan kondairaren ustez, beste iñon baiño leenago Euskalerrrian jarri ba'zuan Tuba.rek bere egoitza, eta, Euskalerritik zabaldu ba'ziran Tubal'en semeak inguruko lurretara, eta, ortaz gaiñera, kondairak dionez ill aurretik Noe bera etorri ba'zan Ararat mendiaren maldetatik Euskalerriraiño emen Tuhil billoba maitea bedeinkatzera, ez da arritzekoa Euskalerrria euskaldunentzat toki santu sagaratua biurtu izatea, eta "tubalke-ria" beste iñon baiño sakonago Euskalerrrian sustraitu izatea.

Kondaira ori sortu zan ezkerro Tubal dala uste izan dute gure arbasoek euskaldun guztien Aita. Oraindik atzo, XIX mendean, kristautasuna azturik bizitu zan eta kristautasuna azturik il zan Chaho idazle zuberotarrak eleberri baten bidez arbaso aien serneontzat beste Aita bat asmatu zigun arte: Aita berri onen izena, "Aitor".

Florian Ocampo'k jaso zigun, kondairatik, Noe ber-bera Tubal ikus-tatzera etorri zalako ori: "El Sefiorfo de Vizcaya fue poblado por Tubal, nieto de N(A. Nunca usaron (bizkaitarrek) tener escritas sus leyes porque Noe cuando vino a España a visitar a su nieto y las poblaciones que tenia echar, les dio la adoraelÖn de un solo

Egiazko Jainkoa gurtzeak eta lege idatzirik ez izateak, **ote dute** alkarrekin zer ikusirik? Ez digu Ocampo'k galde orri erantzuteko argirik ematen

Ocampo'ren "un solo Dios" orren atzetik Estrabon'en "izenik gabeko Jainko" ura dago.

¿Nola ikasi zuten euskaldunek Jainko bat besterik ez dala?

---

Aipu ori Mailarikua'ren "Historiograffa de Vizcaya"tik artu dut Liburu orren 164'garren orrialdean dago.



Noe bera etorri zalako, beste egitekorik gabe, Tuhai bere billobari eta billoba orren ondorengo guztiei, ots, euskaldunei, "Izenik gabeko Jainko" ura nor zan erakustera.

Jainkoak salbatu zuan bizirik Noe Ugalde Aunditik, egitea agindu zion eta nola egin erakutsi zion **Kutxa** aren bitartez. **orain, Jainko** ura bera zan, berak Ur Aundietatik salbatutako Noe aren bidez, euskaldunei egiazko gurraketa-bidea irakastera zetorrena.

Ez da arritzekoa ori sinisten zuten euskaldunek bere jatorriaz ain arrotza pozik egotea: "Nec est alia natio tan grandis quae habeat deos appropinquantes sibi sicut Deus noster adest cunctis ohsecrationibus nostris": "Ez da Erri bat bere jainkorik, guri gurea bezala, urbiltzen zaionik" (Deut. VI,7).

Gaiñera, Ugalde Aundian ludiko gizon-emakume guztiak il ziralako, Noe da izadi osoaren Bigarren Aita. Baiña batez ere euskaldunena era bereizian; orrexegaitik ainzuzen etorri zan Euskalerrira, Tubal billoba ikustatzeaz gaiñera, euskaldunoi egiazko erlijioa erakustera. Etorrera orren ondorioz, ordurako, Tubak'en bitartez, Euskaldunen Aita zana, Noe, orduzkeroko bazan euskaldunen lenengo Profeta ere. Zein? eta Noel Izadi osoaren sort-iturria... era bereizian Euskaldunen Aita eta askoz era bereiziagoan oraindik Euskaldunen Profeta!

Bai gauza polita guzi ori..., guzi ori kondaira utsa besterik ez Kondaira baiño gutxiago oraindik: Ipuia!

Kontuz ordea! Ipuia oiek eusko-endarentzat izan daitekean goratzarrerik aundiena ziran, baita txit atsegiñak ere euskaldunen belarrientzat, baiña ez dirudi Euskaldunek asmatuak diranik. X Alfontso Gaztela'ko erregea, Elio Antonio Nebrija andaluziarra, eta Florian Ocampo zamoratarra lez bait ziran euskaldunak!

Tubalkeriak indarra artu zuan unean, XVI inendean, sortu zan beste ipui txoro bat: Kantabrikeria. Erromatarren aurka borrokan ibilli ziran aiek euskaldunak ziralaren eta euskeraz itzegiten zutelaren ustea.

Noiz sortua izan zan ez dakigu. Uste ori agertzen digun dokumentua, Mieres'ko "Udice" edo "Bilduma" da. Liburu orren orri-ertza batean onako itz aiek idatzi bait zituan azterlari ezezagun batek: "Las Montañas y Bizeaya: Murieron sus naturales por no perder sus leyes y costumbres no queriendo tomar las leyes de los emperadores romanos, que, asf en estas

provincias quedd el lenguaje antiguo que era el vascuence. En España se hablÓ e! romance"12,

Dakusazunez azterketalari ezezagun aren ustez:

- "Las Montafias"ko jendea, ots, eta "bizkaitarrak" ERRI bat bereko jendeak ziran:

- Bai aiek eta bai auek izkuntza bat bera zuten: EUSKERA.

- Izkuntza orren eragiñez, Kantabri edo Euskalerra, ez zan erroman-tzez mintzatzen zan Espāñi bezalakoa.

Kantabrikeri agertu berri orri indar aundia ernan zioten Florian Ocampo'k eta batez ere Antonio Nebrija ospetsuak. Ori, kantabrikeriaren lenengo aurkezleak beroiek izan ez ba'ziran!

Nebrija'k bere "Hispania I/Iustrata"n (52-34, eta 993). "Oeaso" edo Oartzun-aldeko Iger mendi-muturretik "a templo Veneris ad Oeasonem"-dik -- asita Galizi'rairio ez ditu bi Erri besterik ipintzen: "Cantabros y Astures"".

Nebrija'ren ustez Bizkai, Araba eta Gipuzkoa, Kantabri ziran. Ez dugu beraz zertaz arriturik, orri batzuk aurreraxeago Gazteiz "Cantabrica" dala esaten ba'digu.

Ocampo'k ere Kantabri Logrofio'ko uriraiño iristen zala idatzi zuan. antxe izan zan Kantabri izeneko uriak atzipeturik. Antonio Morales zeritzan beste idazle batek berriz, kantabritarren eta erromatarren arteko guduari

---

"La Montafia", Santander'ko probintziari esaten zitzaion, eta esaten zaio. Gaur-egungo auntonornidun "Cantabria"ri. "Bizkai", berriz, euskeraz itzegiten zuan IUrvalde guztiari: Donefrantzisko Xabier'tarrak "mi lengua es la bizcaina" idatzi zien Malabar'tik Erroma'ko bere Josulagundikideei. Beste askotan Santander'ko probintziari "Las Asturias de Santillana" esaten zitzaion; eta sarkaldeko iru probintzi euskaldunei, "Kantabri".

<sup>13</sup> "A templo Veneris" "Benus jainkernearen jauretaketik": Esana dugu Ondarrabi'n itxasora sartzen dan Iger izeneko aitzari, "Iugum Veneris", "Benus'en Aitza" deitzen ziotela erromatarrek. An lizunkeriaren jainkeme ari eskeiñitako jauretxe bat egon zalako, noski. Arrigarriki, Iffer'ek sortaldera itxasoari eskeintzen dion babes-tokiak, Asturiaga deritza. An dago gaur-egungo Ondarrabi'ko kaia. Erromatarren "Iugum Veneris" Iger'ko arkaitza dan ordea, ziur-ziur ez dakigun gauza da.

eskeintzen dion atalari izenburu au eman zion: "De la Guerra que hizo Augusto Cesar a los Vizcafnos, Asturianos y Gallegos". Kantabri ta Bizkai Erri bat beraren bi izen besterik ez ba'dira zertarako itzak nasten ibilli? "Vizcafnos", eta kitto!

Beste zerbait ere izkutaturik egotea baleike, Kantabri kenduta, Bizkai bakarrik aipatze ortan. Antonio Morales'entzat eta baita agian Nebrija, Ocampo eta beste idazle batzuentzat, Santander'ko probintzia Asturi bait zan. Bi Asturi ziran ba garai artan: Obiedo'koa, ("Las Asturias de Oviedo") Sella deritzan ibaiaren ertzeraíño, eta Santillana'koa ("Las Asturias de Santillana") ibai ortatik Ajo edo Axo izeneko arkaitz-muturraren ingura-raíño. Bi Asturi oien alkarteari esaten zitzaion zentzu osoan Asturieta: "Las Asturias".

Arrasate'n jaioa zan Garibay'k ere, bere "Compendio"ren izenburuan, bera "de nacidn dntabro, vecino de Mondragön zala dio, eta kantabritarrak ziralara iru probintzietako guztiak eta baita "los de las montañas de Nauarra que confinan con Guipuzkoa y con la tierra de Vascos de Francia" (Comp.-Hist.27).

Ona nolako ondorioak atera zituzten kantaurikeri-zaleek kondaira orren sabeletik:

- Santander'ko probintzia ez zala Kantabria, Asturi baizik. Kantabri, Bizkai zala, ots, euskeraz itzegiten zuan lurralde guztia. Beraz,

- "Kantabritarrak, santandertarrak ez baiña euskaldunak ziralako, Estrabon'ek kantabritarrei-buruz esaten duan guztia, egitan, euskaldunei--buruz esana izan zala.

- Bigarrena: Kantabritarren aurkako guda ez zala Santanderr'en gertatu. An, egindako gudua asturitarren leiñu baten aurka egiña izan zala.

Kantabritarren aurkako borroka, ez zala, ezta, Biana'ko Printzipeak bere "Kronika"n nai duan bezala Naparroa'n gertatu. Kantabritarren aurka-

---

<sup>14</sup> Orrela "Kantabri" itza Euskal-erriarentzat bakarrik gelditu zan. "Cantabro = Bizcaino". Soilki bizkaitarrak, kantabritarrak; besteak, sarkalderuntz, asturitarrek; eta, aruntzago, galziarrak. Orregaitik, Zesaragusto'ren gudua, "a Vizcainos, Asturianos y Gallegos izan zan egiña" (Morales). Atzipeturik, bai noski, baiña idazle erromatarrek "Kantabri" aipatzean Bizkai aipatzen zutela uste izan bait zuan Morales orrek.

ko borroka Gipuzkoa'n gertatu zala, Ernio mendiaren in<sup>g</sup>uruan gertatu zala.

Garibai'k "Compendio Historiaren VII liburuan luzaro agertzen dituan uste ustel oiek danak, gero, XtX mendean, Arakistain'ek zabaldu zituan bere "Tradiciones Vasco-Cantabras" izeneko liburuaren bidez.15

- Estrabon'ek ("Geographica" 111,4,18) aipatzen dituan gurutzean josirik garaitza-abestiak kantari iltzen ziran aiek ere, euskaldunak ziria, eta Santander'en ez baiña Gipuzkoa'n izan omen ziran gurutzatuak, eta gurutzean iltzeak ematen zien pozak eraginda abesten ornen zituzten gurendazko abesti aiek.

- Kristo jaio aurretik ere gurutzeari eraspen aundia omen zioten euskaldunek, euskaldun aiek, nolabait usmatzen bait zuten gurutzea izango zala Salbatzailleak gizadiaren salbarnenerako erabiliko zuan izkillua. (Noe'k irakatsita ote?).

- Sortu zan baitare "Euskaldun Menderakaitzaren" mamua ere, Euskalduna, beti Garaille!!! Erromatarrek ez zuten isekulan! Euskalerrria menderatu. Borroka guztietan Euskaldunak irten ziran beti garaille.

Alperrik idatzi zuan Garibai'k, ori. pentsatu ere ezin daitekean gauza dala. Ez bait zion iñork sinistu.

Banaka aurkeztu ditugun kondairetatiko uste oiek buruan zituztela sartu dira ia gaur-gaur arte euskasildun asko. Euskalerriko kristautasunaren asierari dagokion auzia arakatzera; eta kristautasuna Euskalerrira oso goiz sartu zala, izan da atera duten ondorioa:

Onatx, azterlari oien oidozbidea:

---

Deba'n jaio zan gure Arakistain au. Bereak ditu beste liburu aiek ere: "Leio-Kantua", "El Baso-Jaun de Etumeta", "Cuadros del Evangelio" (oso polita Magdalena'ri dagokiona). "Sus obras, modelo de literatura romantica, tuvieron gran acogida y popularidad" (B. Estornes Lasa: "Enc. Genl. Ilus Pafs Vasco"). Idatzi zituan, erriak atsegiñez artu zituan antzerki batzuk ere, "Laura" adibidez, "representados con xito en todo el Pais" !id). (id). Gogoan dut, nolako poz atsegingarriz irakurri genituan liburu oiek batxilleratoko gazte-sail batek eta nolako ziurtasunaz uste izan gengan, erromatar eta euskaldunen arteko pakegintzan, egiazko garailleek euskaldunak izan zirala. Euzkadi zorretan dago Arakistain'ekin, liburu oiek naiz eleberri utsak izan, oso eleberri ederrak bait dira, eta arras egokiak gure erriaganako maitasuna sortarazteko.

Euskalerrian Jainko bakar bat gurtzen zan;  
Euskalerrian bazan gurutzearen balioaren zentzua;  
Euskalerria, aspaldi ezkerko zegoan kristautasunerako ederki gertuturik;  
Ori guztia dala-ta, Euskalerriak ez zion kristautasunari eragozpenik  
ipiñi;

Alderantziz, besoak zabalik, egin daitekean arrerarik ederrena egin  
zion; ta, kristautasuna bere mugetara agertu bezain laister egin zan Euska-  
lerria kristau;

Ori, gaiñera, oso goiz gertatu omen zan: "Bien poco después de la  
gloriosa Ascensión del Señor", Coscojales lekaideak Nere "Historia General  
de Vizcaya, Alava y Guipuzkoan idatzi zuan lez (1,216).<sup>16</sup>

Giroa geiago berotzeko, "agertu" zan XVI mendearen inguruko garai  
artan illobi baten gaiñeko gaur galdua dan arri-oI kristau bat. Bizkai'n  
agertu zan. Mungi'ko Berrega mendian. Aipatzen du Garibark arri-oI ori.  
Au omen zeraman gaiñean idatzirik:

HIC IACET CORPUS BILELLE SERVAE IESU CHRISTI  
OBIIT ERA CXV.

Euskeraz: "Emen datza Viela Josukristo'ren mirabearen gorputza. Eun  
da amabost garren "eran" il zan".

"Era" Iaterazko itza da. Guk orain "urte" esaten diogunari "era" esaten  
zioten, "Hispania"ko lurraldeetan batez ere, baiñan ez zan era-sailla gure

---

<sup>16</sup> Coscojuela ont-buruz deus ez dakigu. Soilki, XVI eta XVII mendeen  
artean bizitu zala, eta aipatutako liburu ori idatzi zuala. "Kantabritarra" izan  
zala esan zuan norbaitek. Baiñan orduan "kantabritar" euskaldun guztiei esaten  
zitzaiela gogoan euki bearra da, Nik, bere abizena kontuan artuz, arabarra izan  
zala esango nuke. Santandertarra izan baTiz gaiñera, ez bait da uste izatekoa  
idatzi zuan liburua idatziko zuanik.

urte-sailla asten dan une berean asten". CXV "era", Vilela il zan urtea, gure 77"garren urtea cla.

Garibay, Coscojales, Henao, Floranes, Llorente bera eta beste asko eta asko izan ziran idazki aren egiazkotasunaren alde jarri ziranak. Zer esanik ez, euskaldunak.

Ikus zeñen ederki agertzen digun "Dictionnaire d'Archeologie" frantz-iarrak, irriño jostalariz, euskal-jendearen poza:

"C'est sur cette terre privit4i& que des gens de Biseaye dkouvrent un jour cette pierre tombale dont la formule concise dissait plus qu'un long pome: "Hic iacet corpus Uilellae servae Iesuchristi. Obiit era CXV."

"Des explications eopieuses et irrefutables Umontraient qu'il s'agissait bien de la femme de mhage d'il Sauveur.

Euskeraz: "Lur zorionsu ontan gertatu zan. Alako batean, Bizkai'ko jendeek illobi gaiñeko arri-ol bat aurkitu zuten. Arri-ol orren gaiñeko idazki laburrak Poema batek baiño irakaspen aundiagoa zekarren: Emen datza Vilela Josukristo'ren miraberaren gorputza. 77'an il zan".

"Asmatu ziran bereala iñork ezeztatu ez zezazkean azalpen ugariak, emakumezko ura Salhatzaillearen neskame izan zala egi borohiltzat aldarrikatzeko".

- "To"! oi u egin zuten, gure Errira kristautasuna "bien poco después de la AscensiOn" sartu zala uste zuten guztiek Egia duk Santiago'ren etorrera! Egiak duk Iondoni Satordi ta Fermin Donea I mendean aritu

---

"Era" orri "Aera Hispanica" esan oi zaio. Iñork ez daki ziur, zer gertakizun artu zuten antziña artan "hispaniarrek" urte-zenbatze-kera orren oiñarritzat. "Comenz6 con quedar Augusto dueño de España el año 38 a. de C." dio D. E. Saivarek. Barka bezait, bañan ez nator bat berekin, eta ori esaten duten beste guztiekin. Zesaraugusto Españi'ko jabe Crist'aurreko 19'an egin zan, kantauritarrak erabat menderatu zituanean. 38`an ez zan Españi'n ez deus garrantzitsurik asi ez deus garrantzitsurik bukatu. Kantauritarren aurkako gudua, 29'an asi zan, eta 25 amaitu gudarozteari zegokionez, eta 19'an berriz ertzaintza-lana; urte ontan izan bait ziran kantauritarrak osoki menderatuak. Dana dala, "era" ori Kristo'ren jaiotzean oiñarritutako gure urte-zenbatze-kera baiño 38 urtez zarragoa da. Naikoa dugu beraz "era"ren urteari 38 urte kentzea gure urtea idorotzeko.

zirala! 77'garren urtean il zan ha emen, Euskalerrian, bere buruari Josu-kristo'ren mirabe esaten zion emakume kristau hat!

Orrek, 77'garren urterako kristautasuna gure Errian zabaldurik zegoala esan nai du!".

Egiazkoa izan ba'litz ere, arri-ol arek gauza bat bakarra esan nai zuan: 77'garren urtean emakume kristau hat emen izan zala. Ez, aren inguruetatiko besteren hat kristaua zanik. Askoz gutxiago emakume aren inguruko jendeak danak, edo ia danak, kristauak ziranik. Eta askoz eta askoz gutxiago oraindik gure Erria osoro kristaua zanik.

Ezta, Vilela zeritzan emakume ura euskalduna zanik ere; atzerritik etorritako norbait izan hait zitekean.

Gaiñera, arri-ol bat bakarrik ez da naikoa aburu sendo bat oiñarritze-ko: "Uno teste" "lekuko bat" besterik gabe, epaiketarik ez daiteke!

Eta, bedi au azkeneko tankatakoa: arri-oI ura ez zan 77'garren urte-koa!, askoz berriagoa baizik, Mariana edestilariak eta baita Labairu'k ere argi utzi zuten bezala. XVI mendekoa zan, edo, agian, apurtxo bat leenago-koa.

Kondairetatik irten da, Edestira sartzera ninjoala esan dut, baiñan ezin izan gera kondairen saretik yaretu.

Gaur-egun ez du iñork esaten Euskalerrira kristautasuna I mendean sartu zanik, baiñan Euskalerrria kristautasunari arrera on bat egiteko era bereizian gertuturik zegoalako ori, naiz xomorroturik, nolabait agiri da Barandiaran, Lekuona eta beste batzuen esakizunetan: Biena'ko Eskolaren jarraille diranen aietan, ainzuzen.

Adibidez, jentiitasunetik kristautasunera, Euskalerrria goxoki, zailtasu-  
nik gabe, berezko indar batek eraginda bezala igaro zala adieraztera eman  
nai duten esaerak darahilzkitenean.

Agian zorrotzegi epaitzen dute Barandiaran, A. Azkarate'k (o.c.) eta Azkona'k, heraiak aipatzen dituzten Barandiaran'en esakizun guztietan, onek, Barandiaran'ek, arrazoi osoa bait du:

- "Ei ser vasco es tener un ideario específico, una concepción caracte-  
rística del hombre y del mundo, que es lo que en euskera se denomina  
gizabidea (humanismo).

- "Ese humanismo de rafees autUtonas (azpimarraketa, nerea) ha  
venido durante siglos refrendado, fortalecido y aun enriquecido por 2:1  
cristianismo, que vino anunciando a Cristo como modelo concreto a quien

imitar en el amor a Dios y al prójimo, fundamento de la vivencia humana y base de la justicia social y de los valores que forman o deben formar el entramado de la vida social. Pero también medio para que cada uno llegue a ser fiel a su programa de vida y para cumplir su destino y lograr su felicidad eterna

- "En el pueblo vasco situado en una encrucijada de civilizaciones van formándose grandes poblaciones donde dominan la técnica, la mitología y un ideario indiferente o materialista en contraste y en conflicto con los valores intelectuales, religiosos y morales de tipo tradicional que fueron elaborados durante siglos en función de un mundo conceptual ya, en parte, desaparecidos".

- ¿Gure kultura nola gorde? "Inyectando la sabiduría de la vieja cultura en los nuevos modos de vida resolviendo de acuerdo con sus tradiciones los problemas de la industrialización del país, la avalancha de la población inmigrante, la alarmante despoblación de sus caseríos, la radio, la prensa, el cine, la televisión y, sobre todo la exclusión de su lengua y de su historia cultural de los programas de enseñanza".

- "Yo, lo de ETA, me lo explico por que ellos son marxistas que no tienen bastante freno ideológico para ir en contra de lo que están haciendo. Si hubieran sido verdaderos cristianos, habrían dicho: 'Si estos señores me han hecho a mí esto, tengo que hacer de manera que estas cosas no existan, pero, naturalmente no iré a la violencia como ellos han empleado conmigo, porque así no se arregla nada',"

Orri, "explicar fenómenos tan complejos de forma candorosamente simple" esaten dio Azkona'k. Baiñan ez Barandiaran da ain "candorosoa" ezta or diona ere ain "candorosamente simplea",

Bai Azkarate'k, bai Azkona'k, batera jakintsu eta apaiz diran gizonei alako zerbait kezgarriren bildurra dietela dirudi, eta, agian berak nai gabe, "zientzia" eta erlijioa alkarrekin aixa konpontzen ez diran gauzak dirala-edo, adieraztera eman dezaketela iduriten zait.

\* \* \*

---

<sup>18</sup> Jesus Azcona: "La Escuela Histórica de Viena y la Antropología Vasca". "Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra", 43 (1984), 137-153.



Dokumenturik ez dugu I mendean Euskalerrian kristautasunik ez zala esateko; bai ordea Europa-zear I mende artako kristautasunaren ibillera ezagutzeko:

I mendean, Europa'n ez zan kristautasunik. Ta Erroma'ko kristauak aurpegira jaurti nai ba'dizkidazu, beste erabatera aurkeztuko dizut esan dizutana: I mende osoan, apur batzuk izan ezik, europar kristaurik ez zan.

I mende guztian, bi bakarrak ziran Europa'ko Elizak: Bat Erroma'koa; bestea, Itali'ra bertan, Eliz koxkor bat, Napoles'en alboan aurkitzen zan Puzoli izeneko uri txiki batekoa. Baiñan, bi Eliz aietako elizkideak, bateren batzuk izan ezik, sortaldetarrak ziran danak eta sortaldetik etorritakoen seme-alabak; eleneraz mintzatzen ziranak, danak.

Bai. Grezi'n eta Mazedoni'n baziran Elizak, baiñan, orduan, Adriatik itxasotik aruntz eleneraz mintzatzen ziralako, Erri aiek, gaur Europa'ri eteten diogun zentzuan, ez ziran Europa bezala ikusiak. Erri aiek, Ejito, Palestina, Siri eta Anatoli osoarekin alkaturik zeuden elez eta kulturaz, eta beste "mundu" bereizi bat osotzen zuten danen artean: SORTALDEA.

Beste erabatekoa zan Adriatik-Itxasotik onuntz, Itali berak eta Germani Gali, Britani, Ispani, eta Kartago'tik Tarsi'ra lateraz mintzatzen ziran Afrika'ko Erriek, osotzen zutena: SARKALDEA: iEuropal

Ori gogoan neukala esan dut Europa'k ez zizuala aipatutako bi Eliz oiek besterik izan I mende guzian: Puzoli, eta Erroma. Eta Europa'ko bi Eliz bakar oietan ere elizkideak ere ez zizala "europarrak" sortaldetarrak izan zizala: eleneraz mintzatzen ziranak: Ejito, Palestina, Siri, Asi Txiki eta Grezi'ko jendeak.

II mendearen azken aldera arte Erroma'ko Aitasantuak ere, danak,--edo beintzat ia danak -- Sortaldetarrak izan bait ziran! Mintzoz, elendarrak. Eleneraz egiten zan Liturgi guztia, eta eleneraz idatzia izan zan Paul Doneak erromatarrei bidalitako Epistola ere.

Aurrena lateraz idatzi zuan Aitasantua, 199'an ildako 1 Bitor izan zan. Eta au ere ez zan italiarra, afrikarra baizik.

Orregaitik esan dizut I mendean europar kristaurik ez zala.

Giro ortan eta gauzak ola, Euskalerrian bai, Euskalerrian kristauak bazirala esatea, ez al litzake pentsa daitekean txorakeririk aundiena izango?

\* \* \*

mendeko euskotarrik ospetsuena, Kintiliano izan genduan, kalagurritarra, laterazko idazle txit ezaguna, gramatikaren sortzaillea, Erroma'n 98'garren urtearen inguruan II zana. Benetan ote zan euskotarra? Bai noski, idazle guztiek bait diote kalagurritarra izan zala. Kalagurritarrak, ordea, baskoiak ziran, berreun urtez aurretik, ots, Krist'aurreko I mendean gero idazle erromatar guztiek esaten ari izan zaizkigun lez. 45'garren urtearen inguruan jaio zan, Kalagurri'n; berriz, 120'garrenaren inguruan il zan, Erroma'n.

Euskotarra izateaz gaiñera, Euskalduna ere bai ote zan? Baleike, euskaldunak bait ziran Baskoiak. Urietako euskaldun guztiak ote ziran, ordea, euskeraz itzegiteko gauza? Ez ote zan aien artean, gure gaurko urietan bezala, euskera aztuta soilki erderaz itzegiten zuanik?

Naiz idazle erromatarrek aipatu ez, atzerritarrak ere biziko ziran noski Kalagurri'n; gudariak, adibidez, edo Erroma'ko Jaurlaritzaren ordezkariak; eta baita, noski, erdi-atzerritarrak ere, atzerritiko gudarien eta emakumezko euskaldunen umeak. Auetako edo aietakoa izan ote zan Kintiliano? Edo euskaldun osoa izan ote zan? Bere izena "Quintilianus" laterazko izena izateak ez du ha deus esan nai, orrelakoak bait dira gaur bertan daramazkigun izenik geienak. Idazle danek kalagurritarra zala esan izateak, gutxienez, Kalagurri'n jaioa beintzat bazala adierazten digu.

Gaiñera, badugu beintzat Kintiliano'ren euskalduntasunaren aldeko posibilitate edo aalpen bat: XV mendera arte Ueska urian euskeraz itzegiten bazan, eta itzegiten zala badakigu sinistekoa dala noski, 1.300 urte leenago, I mendean, euskera bizirik egongo zala gure Kalagurri'n.

Zana zala, Kintiliano'k ez zuan Kalagurri'n Kristo'ren aipurik entzun; I mendean kristautasunik ez bait zan oraindik ez Kalagurri'n, ez Euskalerrian, ez Sarkalde guztian. Bai ordea Erroma'n. Ala, naitanaiez, eta maiz gaiñera, entzuna izanen zuan an, kristautasunaren izena. Ainzuzen, berrogei ta bi urte leenago amaitu bait zan, 68'an, Neron'en zigorketa, 24 urte leenago, 96'ean, Domiziano'rena, eta soilki iru leenago 117'an Trajano'rena. Iru zigorraldi ederki ezagutu zituan, beraz, irurogei ta bost urtekin 120'ean iI zan Kintillano'k. Zer pentsatzen ote zuan Kristo'z eta Kristo'ren sinispi-deaz?

Ez dezagun beintzat Kintiliano kristau egin zanik pentsatu. Jopuz eta sortaldetiko neskame ta esku-langille txiro arloz osotutako kristautasun ura, Erroma'ko jakintsuentzat jende zikiñaren bilduma nazkagarria besterik

ez bait zan. Egia, Domiziano'ren zigorketan aristokrazikume bat edo beste martiri eraila izan zala, baiñan orduan odolez, aberastasunez, aalmenez, edo jakintasunez aundi ziran guztien ustez, kristautasuna Erroma'rentzat gauza lotsagarria zan: len-bait-len ezereztu hearra!

\* \* \*

Eliza, ordurarte, soilki Sortaldeko Erakundea zalarik..., aurreneko zigorketen ondorean bere burua bir-sendotu bearrean zegoalarik..., eta, gaiñera, sortzen ari zitzaizkion ercjietatik, gnostikeriaren erasotik bereiziki, sinispidea zintzo gorde bearrean aurkitzen zalarik..., eta, baita, Erroma'ko Eliza bera sortaldetarrez, — sortaldetar arlozez **osotua ez da** noski arritzekoa, Elizak Sarkaldea, I rñendean, eta baita II'aren zati eder batean ere, azturik bezala euki izatea. Ez, noski, ez. Ez da, iñolaz ere, arritzeko gauza. Gaiñera, Neron'ez gero, eta batez ere Domiziano'z gero, bere burua kristau agertzen zuan orok eriotzazko zigorra ziur gaiñean zualarik, ez bait zan ura Elizarentzat zabalkunde-lanerako aro txit alaigarria.

Bi aldiz gogoerazten digu ori Griffie edestilariak (op.c.24):

"L'Eglise de Rome, qui occupait pourtant une place a part parmi les autres Églises et dont le prestige tait si grand, ne manifesta pas une bien grande force d'expansion en pays latin pendant une bonne partie du

"II mendearen zati eder batez, ez zuan Erroma'ko Elizak, naiz beste Elizen artean bere nagusitasuna eta bere itzala ain aundia izan, latinezko lurraldeetara zabaltzeko ardura aundiegirik agertu".

Eta beeraxeago go<sup>o</sup>eta bera azalduz:

"Nous ne soupeonons nulle part l'action missionnaire de l'eglise de Rome en pays latin avant le milieu du Ire sieele": "Guk ez dugu beintzat uste, Erroma'ren mixio-ekintza II mendearen erdia igaro zan arte Sarkaideko lurraldeetan iñun asi zanik"(ih).

Ondorioak:

- I mendean ez zala Europa'n mixioketarik izan;

Europa'n izan ez ba'zan, askoz gutxiago izango zala, geografiaren aldetik, Afrika ta España eta Frantzi ta Gernani'ren artean orduango Sarkaldearen biotza zan Euskalerrian;



(.11it

Λ/ //ni ><./f ?'1///;'

A

11.11.,11.1.

1.

Kristautasunik ez dala, aurretiko "kerigma" edo mixioketarik gabe: "Fides ex auditu": "Entzutetik fedea". "Quomodo credent si non audierunt?" "Nola bañan entzuteke sinistu"? "Quomodo autem audient sine praedicante"? "Nola entzun, ordea, mixiolaririk gabe"? (Rom.X,14).

- I mendeko euskaldunak ezin zitezkeala kristauak izan, naiz I mendeko euskaldunak, kondaira-zaleek amestu oi duten lez, aingeruak bezain biotz aratz, garden eta garbiko jendeak izan.

Alare, euskaidunak kristautasuna onartzeko beste iñongo jendeak baiño obeki prestatu zeudela uste izan dutenen lepotik ez zaio iñori par egiterik zillagi. Bai bait dute beraien alde izugarritzko argumentu bikain eta sendo bat: Euskalerrian ez zuala Elizak martiririk izan. Or dago ori, Jaun Jakintsu agurgarriok. Ori or dago. Gertakizun arrigarri ori, Elizak Euskalerrian martiririk ez izate ori azalpen argi baten zai, ozenki oiuka ta deadarka daukazute Jaun Jakintsu agurgarriok. Ezin daiteke zuen Jakintza, deadar orri erantzuteke gelditu.

- Eta zuei, kondairen ildotik ibilliz, Euskalerrira Iruña'ko Fermin Deunaren bitartez-edo kristautasuna I mendean bertan sartu zala uste izan duzutenoi, onako auxe besterik ez nizueke nik esan nai: Ez dala lotsagarria, I mendean Euskalerrian kristaurik ez izatea.

Erroma'ko eta Napoles'en ondoan aurkitzen zan Puzzoli izeneko uritxo bateko kristau txiro ta urri batzuk izan ezik, europar guztiak jentillak bait ziran orduan. Ez gaitezen besteak baiño aundiagoak gerala uste izaten saiatu!

Ikus dezagun II'ean kristau euskaldunik izan zan edo ez.

Aurretik ordea, kristautzat artuak izan diran illarriak eta gaiñerako arri-olak aztertu beariko ditugu.



## II MENDEAN EUSKALERRIAN KRISTAUTASUNIK BAI?

Pake-aroa izan zan II mendea Erroma'ren inperio-lur guztian. Eta baita, paketasun orren altzoan, aberastasun-mendea ere. Agintari yayoak izan bait ziran "antonini" edo "andonitar" esan oi zaien inperatoreak'

I Mendearen azken aldera Neron'en eta Domiziano'ren zigorketa odoltsuak jasan zituanez gero, Pakean bizitu zan Eliza ere II mendearen luzaro guztian, errietako jendillaje irudi-gurtzailleek eta jaurle edo gobernadore zipotz bat edo batek an-emen sortutako iraunpen laburreko zigorketa bakan batzuen azpian izan ezik.

Trajano'k Plinio Gazteari emandako "edikto" edo "erabakiaren" araura izan bait zan erabillia Eliza II mende ortan eta III'aren lenen erdian Inperatoreen aldetik.

Trajano, jaiotzez Betikatarra, 98'an izan zan inperatore autatua eta 11 Taraifio egon zan agintaritzan.

Bazuan adiskide maite bat, gizon zintzoa, ta jakintsua, inperio-lur osoan entzute aundikoa: Plinio Gaztea, elertilari bikaiña.

Adiskide au, Bitini probintzi`ko Jaurle izendatu zuan. Bitini, gaurko Turki'ren ipar-sarkaldera zegoan, Marmara'ren eta Itxaso Beltza'ren ertzetan, Bosforo deritzan itxas-lepo estuaren aurre-aurrean; Orduan Bizantzio eta gero Kostantinopla eta gaur Istanbul esaten zaion uriaren aurrean.

Arriturik gelditu zan Plinio, bere probintzia kristauez beterik zegoala ikusi zuanean. Esan dugun bezala, izugarri azkar zabaldu bait zan kristautasuna Sortaldean.

---

"Antonini", Erroma'ko inperatore-talde bateko inperatorei esan zitzaien, 98'garren urtetik, 192'garren urteraiiio egon ziran agintzen. Auek izan ziran: Nerba, Trajano, Adriano, Antonino Pio, Marko Aurelio ta Luzio Bero; eta, azkenean, Komodo.

Ta, ori ikustean Plinio'k erabilitako jardunkerak lege txit garrantzitsu herri bat sortuerazi hait zuan..., eta lege herri orren ondorioak nere ustez beintzat Apaiz Jaunentzat eta baita irakurle kristau ororentzat ere arras izan bait daitezke jakikingarriak..., lege ospetsu ari-huruz emen itz batzuk esatea, egoki gertatuko zaigula iduritu zait.

Entzun, ba, zer dion jaurle bezala Trajano'ri bidali zion agerpen batean:

"Neque civitates tantum, sed vicos etiam atque agros superstitio istius contagio pervagata est": "Okerkeri kutsukor onek uriak ez ezê, erriak eta baserriak ere orbandu ditu"

Gero, sasijainkoen jauretxeak utsik daudela, esaten dio. Eta Sasijainko aien odol-opariketarako ez dala abererik saltzen, eta, orregaitik, abere saltzailleak zearo asarreturik aurkitzen dirala, eta kezkatu bera. Saiatu omen da okerkeri ori ezabatu naiez, kristau batzuk galdekatu omen ditu eta baita aietako bat edo beste eriotzara galdu ere, Erroma'ko jainkoen eta inperatorearen irudia gurtu nai izan ez zutelako.

Eta ez omen da ortaz damutzen ori egitea bearrezkoa zuala uste zualako: "Neque enim duhitabam, qualem curnque esset quod faterentur, pervicaciam certe et inflexibilem obstinationem debere puniri": "Zalantzarik gahe uste bait nuan, erantzuten zidatenari jaramonik egiteke, aien setakeri menderakaitza ta bururik makurtu nal eza, zigortu bearra nuala".

Eta, orrelakoa bait zan --kristauei-buruz garai artan aristokrazikume ta jakintsuen pentsaera, Erroma'ko jainkoak ez gurtze utsagaitik il zituan Plinio jakintsu zintzo biotzberak eriotzara galdu zituan kristau aiek; batere kezkarik gabe aitortzen bai du berak, ez zuala kristau aiengan heste okerkeririk aurkitu.

Bere probintzian ainbeste kristau zitualarik, aiek danak erail bearrean aurkitu zitekeala pentsatzeaz (arriturik, kristauekin zer egin galdetuz idatzi zion Trajano inperatore lagunari:

Ikus, kristautasuna eriotzez zigortua jarraitzen duala ezbaiean ipintzeke, Trajano'k eman zion erantzuna:

- Ez da kristauen "billa ibilli bear": "conquirendi non sunt";

Norbait kristautzat salatua ba'da, norbait oiek epaituak izan bear dute, eta egiaz kristauak dirala ikusten ba'da..., "zigortuak bitez orrelakoak": "puniendi sunt".



- Bainan kristau izateari uko egiten diona, ukapen ori gure jainkoak gurtuz egiztatzan ba'du, bere damu orren ondorioz, barkatua izan bear du, naiz len kristau lez oso ezaguna izan": "Ita tamen ut qui negaverit se ebristianum esse, idque re ipsa manifestum fecerit, id est supplicando diis nostris, quamvis suspectus in praeteritum fuerit, veniam ex poenitentia impetret".

- Eta "salatariak izenpetu gabeko salakatarik ez da ezertarako aintzat artua izango, dana dala salatzaileak salatzen duanaren gaiztakeria; salaketa oiek, eredu txarrak izateaz gaiñera, ez bait dira gure garai oni dagozkionak": "sine auctore vero propositi libelli, nullo crimine loeuin habere debent, nam et pessimi exempli, nec nostri saeculi sunt".<sup>2</sup>

Ori duzu Trajano'ren "Erabakia"; ta, kristau-eizaketa galerazten zualako, eta kristauen aurkako salaketa guztiak izenpeturik aurkeztea agintzen zualako, on aundia egin zion Elizari, batez ere Adriano'k, bereala, gezurrezko salaketen aurka zigorpen zorrotza aginduz gaiñera, kristau izate utsa zigorketagai ez zala erabaki zuan ezkeru.

Adriano, 117'tik 138'ra izan zan inperatore. Trajano'ren urrengo Inperatorea beraz. Ba, Ptinio Gazteak Trajano'ri bezala idatzi zion Adriano'ri Asi esaten zitzaion Probintzi'ko jaurleak, onek ere bere probintzian aunitz ugari zituan kristauekin zer egin bear zuan galdetuz; bere probintzi artan errietako jende landerra, amorruek, kristau-ilketan ibiltzen omen zitzaion

Ona, Adriano'ren erantzuna:

Ez dituzte jaurleak, kristauen aurka, kontuan artu bear urietako jendillajearen oivak, eta kaleetatik egin daitezkean eriotz-eskariak;

- Legearen araura egindako salakatarik gertatzen ba'da, zu zerori izan bear duzu salaketa ori aztertu ta epaitu bear duana:

- Salatuek legearen aurka zerbait egin dutela azaltzen ba'da, egin dituzten gaiztakeriei dagozkion neurritz izango dira zigortuak: "Pro merito peccatorum etiam supplicia statues";

- Salatari gezurtiak, zigortuak bitez: "Zalata quis a calumnia gratia quemquam horum postulaverit reum, in hunc pro sui nequitia suppliciis severioribus vindices": "Norbaitek gezurretan (kristau) auetako bat salatzen

---

= Plinius Secundus: "Literae". Ikus nere "Apostoluen eta Martirien Denborako Eliza", 156'garren orritik aurrera,

ba'du, zigor gogorragoa emango diozu orrelako orri, bere gaiztakeriaren ordaiñez".

Oartuko ziñan noski, "kristau izate utsa ez dala arrezkero zigortua izan daitekean gauza. Legearen aurkako beste gaiztakeri bat egin bearko duala kristauak, zigortua izateko": "Ainsi, le fait d'être chrétien n'est pas un crime qui devrait être puni. Un chrétien n'est coupable que s'il viole une loi" (Dic, Hist. et Geogr. Eccie.)

Ori, Elizarentzat pake osoa zan. Ez ordea luzerako. 44 urte geroago, Marko Aurelio'k ostera Trajano'ren araupeko denboretara atzeratuko bait du kristauen egoera: "Ez bitez billatuak izan, baiñan eriotzez salatuak bitez, salatuak izanez gero Kristo ukatzen ez ba'dute". Agindu orren araura, an-emen, izango dira urietako erri jentillaren zalapartetan kristau-erailketak, baiñan oso banaka, aski gutxi, eta ez beñiere pake orokor ura urratzeko aiña.'

III mendean ausiko da pake-aro luze ori Dezio inperatore ankerraren aginduz. Baiñan bitartean egin zuan lan ederra Elizak bere berri ona zahaltzeko. Iritxi ote zan langintza eder ortan Euskalerriraiño?

\* \* \*

Euskalerrira iristeko, gure inguruko bi errialde aundiak, Españi ta Frantzi ebangeiizatu bear zituan Elizak aurrena, baiña ez dugu dokumenturik aski, bi lurralde zabal oietan garaitza aundiak egin zituanik esateko.

Kondaira sortzailleak hai, gogor ari izan ziran beren olertziko lanketa loretsuan: Bai Frantzi 'n eta bai Espafii'n: Alde guztietan bait ditugu kondaira-zale, errietako jende landerrak... eta haita, ain lander ez diranak ere.

Entzun Espafii'ri-buruz "Dictionnaire d'Archeologie Chretienne et de Liturgie" k dioskuna: "Aucun pays n'a vue eclore une vegetation legendaire plus deconcertante, mettant au service de ses affirmations: cartes, reliques, inscriptions avec une intrepidite qui semble voisine de l'inconscience".

Euskeraz:

---

Xeetasun geiago, nere "Apostoluen eta Martirien Denborako

"Ez da iñun, Esparirkoaren antzeko kondairazko sasi txorabiagarrik sortu. Aal zan guztia erabili zan, mapak, erlikiak, idazkiak burugabe-keriaren kide dan ausardiz, kondaira oiei egiazkotasunaren itxura emateko".

Bere inguru guztia akatsez beterik ikusteko zale oi dira frantziarrak, baiñan kondairakeriaren akats orri dagokionez, ez zan Frantzi bera Españi baiño txukunago Ez bait da Frantzi'n Eliz bat, bere sortzailletzat, ebangelioetako norbait aurkezten ez duanik. Kristo bera, eta Kristo'ren ama, Miren Neskutsa, izan ezik, Itun herriko gizaseme ta gizaalaba guztiak erabili dituzte frantziarrek beren Eliz bakoitza dizdiraz edertzeko. Baita Josu'ri, mirarizko ogi-arraien ugariketarako, bost garagar-ogi eta arrain bi eskeiñi zizkion mutiko gaixo ezezagun ura ere.

Kondaira oiek, parregarriak dira batzuk, ulerpen arras illunekoak beste batzuk, eta badira, sukautsak altzoan txingarra bezala, egiaren txinparta barnean daramatenak. Danadala, gauetik egunera igarotzen geran bezala igarotzen gera kondairan lairiopetik Edestiaren argi-printzen eskiertasunera. Ala-olako eskiertasuna, sarri aski: edestia ere ez bait zaigu hein baiño geiagotan oso tidagarria iduritzen.

Orrela, Fliche ta Martin edestilariak, Europa-zear kristautasunaren zabalkundeaz ari diralarik, "II mendeko Esparirri-buruz diotenak ederki balio du mende orren erdira arteko Frantzi'rentzat ere: "Gaueko illunheak estalirik agertzen zaigula kristautasunaren astapena<sup>r</sup>: "La nuit enveloppe les origines chr&iennes de l'Espagne" (l.c. I. 285).

Alare,, "Naiz Paul Donearen mixioketaren ondorioak zearo ezezagunak geratu ("nous dchappent entierement), bai omen dator mixioketa artatik alako argi-dizdiratxo pattal bat "une lueur" (ib). Bai omen datorkigun "une lueur" ori ez dakit nondik etorri dezaikegun, kondairetatik ez ba'da; baiñan auzi oni-buruzko kondairek uste ziurrik ez dutela merezi esanak gera noski.

\* \* \*

Alatagutziz, Donepauzez ari gentalarik, garrantzizkoa derizkiot, idazle frantziar guztiek agertzen duten ustea, ots, Donepaul'ek Esparirra etortzean edo Esparii'tik itzultzean Frantzi'n oiñak jarri zitualako ustea, ez zaidala batere ustela danik iduritzen,

Aztertu dezagun laburki arazo ori, Euskalerrira kristautasuna gure inguruko Errietatik etorri zitzaigun ezkeru, naitanaiezkua bait dugu, bai

frantzi'n eta hai Españi'n Elizak eman zituan urratsak arduraz ezagutu bearra.

Frantzi, Zesaraugusto'k egindako eraketaz gero, lau probintzitan zegoan zatitua:

- "Gallia Narbonnensis": Auñamenditik Alpeetara Mediterran-Itxasoaren ertzaren luzaro osoan. Julio Zesarr'ek Galiak osoki menderatu aurretik, Erroma'k Galietan zuan Probintzi bakarra. Orregaitik, lateraz, besterik gabe "Provincia" esaten zioten. Ortik, erdiaroz gero gelditu zaion izena: "La Province", "Probentza". Tolosa'ko uria probintzi ortara izan zan sartua.

Galietako lurralderik aberatsena eta dotoreena zan orduan "Gallia Narbonnensis" ori. Ia Itaii biurtua. Entzun Plinio Zaarrari: "Agrorum cultu, virorum morumque dignatione, amplitudine opum, nulli provinciarum postferenda, breviterque Italia verius quam provincia": "Alorrera lankera oparoari, gizakumeen eta aituren txukuntasunari, eta ontasunen aberastasunari dagokienez, ez da beste iñongo probintzien atzetik gelditzen. Guztia itz batez esanez, probintzi bat baiño geiago bait da Itali bera" (Hist. Nats. 111,31).

"Itali bezain ederra" zan probintzi orrek ordea, egoaldean Euskalerrriaren zati bat artzen zuan bere barruan: ainzuzen Estrabon'ek esan zigunez, ain urdaiazpiko goxoen eratzaille yayoak ziran Zerretiarren leifita, eta, Zerretiarren mugatik itxasoraifio, ipar eta egoaldera, Auñamendiaren arantetan bizi ziran beste euskaldunak, I mende artan eta baita geroago ere, "inperioaren erorketa-aroan", ots, V mendean, esanik utzi genduan bezala, Auñamendiko izkera, euskera, Mediterran itxasoraiño iristen zala bait zan seguruaski. Ori damaigu aditzera Bosch Gimpera'k ere.

- "Gallia Lyonnensis", garrantzi aundiko lurraldea Europa'ko Elizaren edestian, "Erroma'ko Elizaren ondorean. Lyon'go Eliza bait da, Europa'ko Sarkaldean ezagutzen diran Elizen artean zaarrena: 150'garren urtearen inguruan irasia": "L'Eglise de Lyon est la pretniere Eglise connue de l'Occident aprs Rome. Fondée c. 150" (id.ib).

Ainzuzen, Europa'ko Eliz zaarren ortako bigarren gotzaiak, Ireneo Donea'k, zer-esanik baduala dirudi Euskalerrriko kristautasunaren zabalkundeari-buruz, ikusiko dugun lez.

- "Gallia Belgica", Euskalerritik urruti, naiz I mendeko Euskalerrria ain luzea ta zabala izan. Probintzi ura, Belxika, Olanda, eta Frantzi ta Alerna-ni'ren puska batzuk batera alkartuz osotua zegoan.

- Akitani, ots, Ipar-Euskalerrria. Baiñan ez, bere zahalera guztian Euskalerrri. Zesaraugusto'k asko luzatu bait zuan Euskalerritik kanpora, len osoki euskalduna zan Akitania, izen ortako probintziaren muga berriak, iparreruntz, oraindik seguruaski neurri ederrean euskalduna izan zitekean Dordofia'z gora, Loira ibaieraiño eramanez.

Probentza zaigu une ontantxe, lau probintzi oietan axolagarriena. Probentza'ko kaltetakoren batean Donepaul'ek lur-artu zuala bait diote frantziarrek, aren Espafii'rako etorri-ta-joan artan:

Eta arrazoi dute seguruaski. Donepaul Korinto 'tik abiatu zan Espafir-ra. Itxazoz, jakiña, garai artan itxasoko ibilketak anitz errezagoak, lasaia-goak eta azkarragoak bait ziran lurrezkoak baiño. Gaiñera, Donejeronimo'k eman digu aditzera ibillaldi ura itxasoz egiña izan zala.

Paul, Erroma'n gelditu zala badakigu, berak agindu bait zien erromatarrei, ikusi dugun lez, geldi-une ori egingo ziela.

Erroma'tik, Zerdefia'n atsedean bat artuta zuzenean Balear Ugartedira etortzera ez ziran mariñelak ausartzen. Alderantziz, Ostia deritzan Erroma'ren kaltetik iparreruntz artuta, kaiaz-kai itxas-ertza jarraituz etortzen ziran. Ez itxas-bide ori ziurragoa zutelako bakarrik, baizik eta, baita, janariz eta edariz itxas-ontzia maiz ornitu bearrean aurkitzen ziralako ere. Ez bait zuten orduan gaur-eguneko otzgaillu eta janari-gorde-tresna egokirik.

Ziur uste dezakete beraz frantziarrek Donepaul Probentza'n une batez gelditu zala. Martsella'n? Rodano-alboko Arles'en? Narbona'n? Martse-Ila'n, uste dute edestilariek; salerosle-toki txit aberatsa omen zan ba uri aundi ori.

Narbona'n gelditu ba'zan berriz, ziur, bazuan an, Donepaurek, euskaldunik aski, Aufiamendi'ko euskal-lurretatik oso bertan bait zegoan Narbona.

Baiñan ez dugu orrekin deus esan nai; Paul ez bait zan Probentzan asti labor bat besterik gelditu: Egun bat edo bi geienez: mariñelek janariz, urez, eta beste bearrezko gauzez ontzia betetzen zuten bitartean. Agian, sinagogan itzezin besterik ez zuan Paul Doneak Probentza'n egingo.

Orregaitik, Españi'n bezala, Frantzi'n ere ez zuan Paul Donearen etorrerak aztarna txikienarik utzi.

Kristautasunari zegokionez antzu jarraitu zuan beraz Frantzi'k II mendaren lenen erdi guztian, eta antzu jarraitu zuan Espāñi'k ere. Eta antzu baitare bi antzu galant oien artean Euskalerrriak ere.

\* \* \*

Alatagutziz, ez da ori, gure Erriari dagokionez, eusko-ikerlari guztien aburua.

Euskalerrrian, batez ere Bizkai'n, aurkituak izan diran arri-oI eta buztñ-egosizko ontzietako idazki eta marrazkietan oiñarriturik, II mendean gure Erri au kristauturik zegoala edo beintzat aski kristauturik zegoala uste dutenetakoak izan bait dira bat baiño geiago, eta oraindik ere bai bait dira.

Mintzatuko gera bere lekuan, **bai pozik!** erromate-arotik iritxi zaizkigun arri-oI eta buztñ-egosizko ontzietaz, auetako bat ziurki kristaua bait da.

Arri-oI eta ontzi oiek danak beste iñork ez bezala Agustin Azkarate Garai-Olaun'ek bikainki aztertuak izan diralako, berari jarraituko diot nik, arri-ol eta ontzi oietaz mintzatzerakoan.<sup>4</sup>

Noizkoak diran arri ol eta buztñ-egosizko ontzi oiek? Ez datoz ikerlari guztiak batera, galde orri erantzuna ematerakoan: Batzuentzat, II mendetik III'enera bitartekoak; beste batzuentzat, III'etik IV'era bitartekoak; eta badira IV eta V mendeen artekoak dirala diotenak ere.

---

Agustin Azkarate Garai-Olaun: "Arqueología Cristiana de la Antigüedad tardía en Alava, Guipuzkoa y Vizcaya", 77'garren orrialdetik aurrera. Azkarate'k baiño leenago ikertu zituzten eusko-arkeologi-gai oiek A. Rodríguez Colmenero'k eta M. C. Carrerio'k: "Epigraffa Vizcaffia. RevisiOn y nuevas aportaciones e interpretaci6n hist6dea" "Kobie" 11 (1950), 81-163). Tesis-liburuen mentalitatez egindako icn7lcia da, bere egilleen asmoa, al duten guztia Euskalerrira kristautasuna goiz sartu zala adieraztea bait da. Aiatagutziz, beren aburuak, ziurtasun osoko giak ez baiña aalketa edo posibilitateak besterik ez dirala lotsarik gabe aitortzeko badute apaltasunik aski. Eta lankintza auetan auresku izan bait dira, merezimendurik aski ere zor zaie gure aldetik. Gero atzesku etorri diran beste ikerlari bikain batzuk ederki aien utsuneak zuzendu eta bete dituzte, ta, beste iñor baiño askoz obeki, Azkarate'k.

Ontzi eta arri oiei-buruz, onako au aurr'esan nai nizuke: beren "epigrafia" edo "gairiidazkia"ren irakurketa oso zaila gertatzen dala, idatzi oien egille zaar aiek izki asko idazteke uzten ziwztelako. Orduan, eskierki, jendeak, idazteke gelditutako izki oiek errez igartzen zituan. Gaur, ez da ain erreza gertatzen. Ez zaitez ba arritu idazki oiek ez ha'dituzte danek berdin irakurtzen. Auzi ontan ere, nik, A.zkarate'k onartzen duana artuko dut ontzat.

\* \* \*

Danadala. ikusi dugun lez, ez dira kondairetan bakarrik oiñarritzen kristautasunaren sarrera lenen-lenen mendeetara aurreratatu nai duten ikerlariak. Badituzte kondairak hai oiñarri sendoagoak eta astunagoak: Aipatutako arri eta buztiii-egosi oiek ainzuzen. Batez ere Bizkai'n aski ugari agertu zaizkigun illarri ta gaiñerako arri-olak. Bearrezkoa dugu, beraz, arri eta ontzi oietako gurutzeetaz astiroago zerbait esatea.<sup>5</sup>

---

<sup>5</sup> Ekintza ontan lanik geiena egin dutenak onako ikerlaria auek dituzu: M. Ganad Moreno: "De Epigrafia Vizea(na)".

A. Rodriguez Colmenero; A.C. Carreño: "Epigraffa Vizea(na. Revisión y nuevas aportaciones e interpretación histórica. Kobie", XI (1981).

A. Azkarate Garai-Olaun: "Arqueologfa Cristiana de la antigüedad tardia en Alava, Guipuzcoa y Vizcaya". Gazteiz, 1.988.

Ta, ,nola azturik utzi? Andres Eliseo Mañarikua. Gogoan dauzkat beste batzuk ere, baiñan ezin izango dut orriazpiko oarpen au geiegi luzatu. Ongi merezia dute danek gure eskerrik onena.





## GURUTZEAREN ERABILKETA LENEN IRU MENDEETAN...

Atal ontan Euskalerriaren Egoaldean agertu diran erromateko illobi eta gaiñerako arri-oletan eta Iurregosizko ontzietan idatzia ta marraztua izan zana aztertu nai nuke. Lan guzti ontan, batez ere Bizkai'ko arkeologiaz mintzatzerakoan, Augustin Azkarate Garai-Olaun ikerie ongi ezagutuari jarraituko diot oso-oso; bera bait da arlo ontan lanik aundiena eta onena egin duana.

Euskalerriko toponimian ugari agertzen zaigu gurutzearen izena. Bi erara, ainzuzen, bere enbor-itzari dagokionez: "GURU" bezala (Gurutzeta, Gurutzeaga) batzuetan, eta "tORO" bezala (Gorospe, Gorosabel) beste batzuetan.

Gogoan dut, nola, On Manuel Lekuona'k bein batean, Añorga'ko apai-zetxean, bertako parrokoa zan Juanmari Gaztañaga'ri eta neri, "GORO" zeramaten toki-izenak biltzen saiatzeko eskatu zigun. Laterazko "Cruz" itza "U" izkia galdu gabe egoaldeko izkuntzetara sartu omen da. Adibidez, gaztelerazko "cruz". Iparraldeko izkuntzetara, ordea, "U" ori "O" biurtuta. Oroi inglanderaren "cross", ala frantziarren "croix". Ortaz, Euskalerrian "guru" baiño "goro" geiago aurkituko ba'lira, ori, Euskalerrira kristautasuna egotik ez baiña iparretik sartu zalako siñale izango omen litzake.

Toponimiak, eta gurutzeari opal dutako ainbat eta ainbat eliz eta baselizek eta mendi-gaiñetan eraikitako ainbeste gurutze lerdenez, eta, baita bidegurutzetako beste oiek ere euskaldun jendeak gurutzeari izan dion eraspeneren adigarri sendoak dira.

Baiñan eraspen ori ez datorkio arri-ol zar aietako gurutzeetatik.

Izan ere, marrazki aiek I, II, eta III mendekoak dira, eta mende oietan ez zuan Elizak, agirian, gurutzerik erabiltzen.

IV mendea izan zan Gurutzearen garaitza-mendea. Kostantino'k Elizari pakea eman ziolako, bai noski, baiñan batez ere Milbi-Zubiko gurenda-bezperan, garaitza aginduz zeruan gurutze bat agertu zitzaiola Kostantino'k berak zabaldu zualako.

"Before the peace of the Church under Constantine, Christians were extremely reticent about the portrayal of the cross, lest too open a display of it expose them to ridicule or danger. In general they preferred to employ a cryptic substitute (crux dissimulata) of which the commonest examples on burial slabs are the anchor, ax, trident, and swastica" (Enc. Brit):

Euskeraz:

"Gurutzearen irudiari-buruz, izugarri ixilkari (extremely reticent) ibilli zan Eliza, gurutzea agirian erabiltzeak, jendearen aurrean parregarri uzteaz gaiñera, arrisku aundian ipiñi zezakealako. Ia beti, naiago izan zuan gurutzearen ordeaz aren izkutuzko irudi bat erabili (a cryptic substitute). 'Cruz dissimulata', 'izkutuzko gurutzea' esan oi zioten irudi izkutu orri: Eta, geienetan, auek izaten ziran illarrietan marraztu oi zituanak: Aingura, aizkora, iruortzekoa, eta lauburua".

Jentillei gauza parregarria eta isekagarria gertatzen zitzairen Jainkoa gurutze batean il zitekeala pentsa utsa. Ala zion, Paul Doneak gurutzearen izena bera, jentillentzat, "iñozokeri utsa", "stultitia" besterik ez zala. (I. Kor.I,18).

Ez zezakean beraz Elizak agirian gurutzerik erabili. Ori egiteagaitik iñozo parregarri lez gelditzen ba'zan, ezin izango bait zuan jentillik bereganatu. Izatez, izan zituan orregaitik bere altzoan bertan erejeak ere: "misterium crucis", gurutzearen misterioa, "Jainko Gurutzean Josi" bat, "ezin ulertu zutelako erejira joan zitzaizkion kristauak": "chrétiens devenus hérétiques par incapacité de concevoir un Dieu crucifié" (Dic.Arch.Chré.Lit.).

Ala, Basilitarrek, "azkeneko unean Josu'ren lekua Zirenetarrak artu zuala, eta au izan zala aren ordeaz gurutzean josia" esanez jausi ziran erejira. Eta Martziondarrek, "Kristo, gurutzean, ez zala il" esaten zutenak; "ez zala il eta ez zuala, an, oiñazerik ere jasan; bere gorputza aragizko gorputza ez baiña, mamu baten gorputzaren antzera, izpiritu utsezko gorputza zalako".

Izan ere, ¡alako bait zan gurutzeak jendeari ematen zion nazka!

Ez da arritzekoa, gurutzeko eriotza zeinien izugarria zan gogoratzen ba'dugu. Era bat baiño geiago zituzten erromatarrek, gurutzera galdutako gizagaixoa gurutzean ezartzeko. Danak ikaragarriak.

Katekumeno beraiei ere zail egiten omen zitzairen beren eziketarakoan, gurutzearen misterioa ontzat artzea": "c'était une difficulté grave dans l'éducation des catéchumènes" (ib).

Ebangelizaketari zegozkionetaz gaiñera bazuan Elizak eta bazuten kristauek ere heste arrazoi astun bat: beren buruak eriotzetik gordetzea. Zigor-aroa bait zuten ura. Eriotza zuan zigor kristau izate utsak. Erokeria zan gurutzea agirian erabiltzearen erruz, bearrik gabe nork bere burua

kristau agertzea, batez ere, Elizak here elizkideei, naita martirioaren billa ibiltzea galerazten zien ezkeru.

IV mendera arte iraun zuan zigor-peko egoera mingarri orrek. 313'an eman zion Elizari pakea, Milbi-Zubi'ko borrokan Majentzio'ren aurka garaille irten zan Kostantino inperatoreak. Eta borroka ura gurutzearen babespean eta, bai beintzat Kostantino'ren ustez, gurutzean il zan Josukristo'ren laguntzarekin lortua izan zalako, ordura arteko eriotzgaillurik nazkagarriena garaitzaren ikurriñik dizdiratsuen biurtu zan:

Arrezkero Erroma'ko Inperioaren ikurriña izango da Kristo'ren gurutzea. VI mendekoa da, inperatore kristauaren ikurriñean margozturik zegoan Kristo'ren gurutzea goستن duan eta bi bertso auekin asten dan ereserki pol ita:

Vexilla Regis prodeunt  
Fulget Crucis mysterium.

Euskeraz:

Badoaz. aurrera, Erregearen ikurriñak.  
Beraietan dizdiz dagi misteriozko Gurutzeak'.

Ikurrin aietako gurutze dizdiratsua guk Ander Donearen gurutzea esaten dioguna zan. X izkiaren itxurakoa. X orri "ji" esaten zioten elendarek, oraingo gaztelerazko "J" bezala agoskatzen zutelako. Kostantino'k

---

Izatez, ereseke au beranduagokoa da: VI mendekoa. Bere egillea, Benazio Fortunato ("Venatius Honorius Clementinus Fortunatus) italiarra za; 530'-ren inguruan jaioa. 565'an etorri zan Turona'ra, eta bertako gotzaia zan Gregorio edestilari txi ospetsuaren adiskide aundia *egin* zanez gero, Poffiers'era joan zan; an il zan 602'an. Bertako gotzai, batzuen ustez; apaiz uts, ordea, beste batzuen aburuz. Bere olerki au, 569'ko Azaroaren 19'an abestu zan aurreneko aldiz, Poitiers'en zegoan Gurutze Donearen Lekaidetxean, Sortaldetik II Justino inperatoreak bidalitako Gurutze Donearen erliki bati ongietorria ematerakoan. Doneen bizitzak eta Doneen omenez olerkiak idatziz, ospetsu egin zuan bere izena Venantius Honorius Clementianus Fortunatus zeritzan apaiz arek.

"P" bat ezarri zion erdian, goitik beera zutik. "P" ori, elenerazko izkidian "ro" esaten zitzaiona zan, eta gure Raren doñuz agoskatzen zan.

Orrela, Kostantino'k bi izki oiek alkartzean Kristo'ren ikur bat eratu zuan, Eleneraz, Kristo, "IRISTOS" esaten bait da. Kristo'ren ikur orri, "krismon" esan zitzaion, eta oraindik ere esaten zaio.

Krismoi ori zan, laterazko olerki polit aren egilleak antziñako aro artan inperatore kristauaren ikurriñean ikusi zuan gurutze dizdiratzaina.

Laister asi zan Kostantino'k asmatutako krismoi ura era ezberdiñean azaltzen. Aurrena, lerro etzin bat ezarri zitzaion "X" izkiaren erdian. Era ortako krismoietik sortu zan, "P" kenduz, lau besoak berdiñak dituan sortaldetarren gurutzea: "+". Gero, lau beso berdiñetako gurutz orren beso zutiarri burua kizkurtuz "P" izkiaren itxura eman zitzaion.

Izan dira Euskalerrian, erromatetiko arri-zaarretakoren batean krismoi ugari ikusi nai izan duten ikerketalariak, baiñan arri oietan krismoirik ez dago. Gaiñera, ikusi dugun lez, krismoiak IV mendean gerokoak dira. Gure arri zar oietako irudiak berriz, I, II, eta, geienaz, III mendekoa. Idazkiak, bai, arri oietako idazkiren bat edo beste izan daiteke IV mendearen azkenaldekoa, eta baita geroagokoa ere, baiñan irudiak ez. Len ere esanik utzi dugun bezala, irudiak, III mendez aurrekoak bait dira.

Buztiñ-egosizko ontzietan bai. Antziñako olerkari yayo arek Inperatorearen ikurriñetan ikusi zuan ura bezain dizdiratsua agertuko zaigu, ontzi oietako batean, krismoi dotore bat.

- Naiz orrelako arri-olak beste tokietan ere agertu izan, orain emen aztertuko ditugunak Bizkai'n aurkituak dira, eta danak izan ditugu batek edo bestek kristautzat artuak.

Bizkai'koak dirala esan dut. Baiñan zerbait geixeago ere esan bearko nuke: ainzuzen Bizkai'ko txoko batean izan dirala aurkituak, bat edo beste izan ezik. Txoko orrek, Mungi du biotza, eta bere lau ertzak urez mugaturik agertzen zaizkigu: iparrean Itxasoko uren. Beste iru ertzetan iru ibai dituzte muga: egoan, Ibaizabal, sortaldean, Oka-Urdaibai, sarkaldean, Nerbion.

- Zenbat diran? Bai beintzat ogeiren bat, oraiñarte agertutakoak. Ager-tzen ari bait dira orain ere, eta agertuko bait dira geiago. Aurrenekoa, 1.777 agertu zan.

Oraintxe agertu berriak ditugun oietatik geienak, beren azterketa amaitzeke daukate oraindik. Baiñan danak, lengoak eta oraingoak, itxura bereberkoak omen dira.

Itxura berdin ori, danek edergaillu berdiñak erabiltzetik datorkie; eta edertze-gai oiek danak era berean eratuak izatetik. Orrek lantegi edo taller batetik sortuak izan dirala, eta garai bat berekoak dirala, esan nai du. "Eskola" bat bereko giroan landuak dirala.

- "Eskola" orrek erabilli oi zituan apaingailuak oso landerrak eta errezak ziran: Gurutzeak ugari, "triskel" eta "tetraskel" edo "iruburu" eta lauhuruak", sei orriko lore xumeak, borobilkiak, kanporuntzko-izpidun kurpil bat edo beste, zerra-ortzeko lerroak, eta apainketarik gabeko lerro uts billutsak.

- Apaingailu oiek danak ez dira, jakiña, arri-ol guztietan agertzen; bakoitzean, bi, iru edo lau baizik. Eta batzuetan, bat bakarra.

Edergaillu oiek, jatorriz, emen bertakoak omen dira. Agian keltiarrengandik ikasiak izan omen daitezke.

- Ziurtasun aundiz esan dezakegu gaur, arri-ol oiek noizkoak diran, Ferreira de Almedo'k egin duan lan bikaiña ezkeror.'

Jaun orren ikerketa sakonak oiñarriztat artuz, atzipeturik ibiltzeko bildurrik gabe aurkeztu dezakegu azalpen irukoitz au:

1<sup>a</sup> - Krist'aurreko I mendean, alderdi auetan, orrelako arri-lanketarik ez zala egiten:

2<sup>a</sup> - Krist'osteko I mendean asi zala emen arri lanketa ori;

3<sup>a</sup> - Bigarren mendean izan zuala bere arorik oparoena:

4<sup>a</sup> - III mendean asi zala ezabatzen, eta mende ortan bertan ezabatu zala, ordurarte beraiek bete oi zuten lekua, erromatarrek ekarritako irudi berriei utziz.

---

"Estudos de Cultura Castrexa (Kastroetakoa) e de Historia Antigua de Gabeia, Arkitektura e arte castrexa. A sua lic;ao para os fendmenos de assimié laÇão e resistencia". Azkeneko idazlan au, Eusko-Unibersitateko "Asimilación y resistencia a la romanización en el norte de Hispania"n daukazu. Bilbao, 1.985.

5<sup>a</sup> - Beraz, orrela ornitutako arri-ol oiek I'go, Irgo edo III'go mendeetakoak ditugula. Batez ere, Irgoak'.

6<sup>a</sup> - Arri-ol oietako batzuek idazki bat ere badaramate beren gañean, obiratutakoen izena eta illobi oiek eraikitakoenak -- adierazteko.

7<sup>a</sup> - Idazkidun illarri oietako bakoitzean, idazkia berriagoa omen da bertako edergailluak baiño. Aurrena, argin batek, edergailluak ziriztatu omen zituan, eta urte-sail eder bat geroago, beste batek, lengoak egindako edergailluen gañean, ildakoaren omenezko idazkia. Eta, orrela, lendik zer elburu zuan ez dakigun arri "apaindu" ura, illarri biurtu omen zigun.

8<sup>a</sup> - Idazketa ori edergailluen gañean egiña izan dala argi agiri omen da, idazkien izki asko edergailluen zatitxo bat edo bestea zanpatuz agertzen diralako.

Bedi, Azkarate'k ori dion ezkerero. Baiñan nik pentsatu izan dut, lengo lerroa zanpatzen duana izkia izan bearrean ez ote dan, alderantziz, lerroa, izkia zapaltzen duana.

Illarri oiek, ta au garrantzi aundiko gauza da baselizetan izan dira aurkituak, danak, edo beintzat ia danak; "moraliter omnes": "esate baterako, danak".

Ta, bat baiño geiagok bait daramate gurutzearen irudia, eta gurutzearen irudi oiek izan bait dira, kristautasunaren gure Errirako sarrera oso goiz egin zala aldarrikatzeke erabili oi diran arrazoietatik aipatuena, naitanaiezkua gertatzen zaigu, Elizaren lenen mendeetako gurutzearen erabilketari-buruz zerbait esatea.

---

Orra orain emen nere zalantza txiki bat: Krist'aurreko I mendean orretako arri olik ez ba'da, nola izan daitezke Krist'osteko arri-oletako edergaillu oiek keltiarrengandik ikasiak? Agian ordura arte gure Asabek, keltiarrengandik Krist'aurreko mendeetan ikasi zituzten edergaillu oiek aitzoz zurezko oletan marrazten zituztetako? Keltiartasunari dagokionez, esan nai nuke beste zerbait: Mungialdean, ainzuzen edergaillu oiek daramazkiten arri-olak agertu diran toki ortantxe, ugari dirala, euskeraren aidetik etimologi arras zailla duten toki-izenak. Izen oiek keltiarrak izan daitezkeala uste du Olazar'tar Martiñ'ek, eta berekin bat dago Arrinda'tar Anes ere. Ain ugari ibilli ote ziran ba keltiarrak gure lurralde polit ortan? Ez naiz baietz erantzutera ausartzen. An agertutako "kasturn" keltiarrak ere ez bait dut ezagutzen.

\* \* \*

Ikertu'itzegun ordea, lendabizi, idazki ala gurutze ala idazki-ta-gurutze dituzten arri-olak. Euskalerrri guztian agertu dira, geienik ordea Bizkai'n, eta auek izango dira guk bereiziki aztertuko ditugunak, auen balio berekoak bait dira, kristautasunari dagokionez, beste guztiak ere.

Ona emen, Zaldu'n agertua. Zaldu, Gordejuela'ren auzo bat da. Ikus arri-ol orrek dioskuna:

DM  
EMA ME AE AVANDI  
OPFAXX

Eta au da Gómez Moreno'k itz-erdi eta izki sail oietan irakurri al izan duana: "D(iis) M(anibus) (C)ema Me(li)ae Avandi(c)o P(osuit) F(ilio) A(nnorum) XX": "Sendi-Jainkoen omenez. Melia'ren Zema'k eraiki zion (illobi au) XX (ogei) urteko serneari".

Beste era ontara irakurri dute berriz Colmenero'k eta R.Carrefio'k: (L)uciae Mameae Avand(us) P(onere I(ussit) A(nnorum) XX": "XX urteko Luzia Mamrnea'ri (illobi au) eraikitzea Abandiko'k agindu du".

Oartuko ziñan onezkero arri-ol zarren irakurketa zeñien ekintza zailla dan.

Arri-ol orri kristau-usaia nondik artzen dioten? Luzia Mammea gazteari illobi ura eraikitzea agindu zuanaren izenetik: "Avandus parece antropônimo de ascendencia cristiana. Ello, de confirmarse, postularfa iÚntica naturaleza para la inscripcidn misma y serfa un argumento mas a favor de la temprana introducciOn del cristianismo en tierras vizcafnas" (Carreño-R.Colmenero I.c.).

Jaun oien oldozkera argiagotzeko, zillegi bezait auzi au nere erara borobiltzea:

Gure illarriko jaun aren izena, Carrefio'ren eta R. Colmenero'ren ustez, "Avandus", izen euskalduna izateaz gaiñera izen kristaua ere izan omen daiteke.

Izen kristaua omen da, Liturgi Kristaueko "adventus" itzetik sortua omen dalako. "Abandus", "Adventus"tik oso urruti gertatzen dala? Ez,

Bizkai'n bizi zan antziñako Abandus ura euskalduna zala kontuan artzen ba'duzu.

Izan ere, laterazko "adventus" itzak, gazteleraz "adviento" eman duan bezala, euskeraz "abendu", "nominatibu" edo "izenuts" eran "Abendus" eman bait du. Ta dakusazunez, urruti ez baiña alkarrengandik oso bertan daude "Abandus" eta "Abendus".

Askoz bertago oraindik bi izen oiek berenez ABANDU eta ABENDU dirala oartzen ba'zera, nik "abendu" izenuts-eran "abendus" idatzi dutan bezala, argin zar arek, latifizaz ari zalako, "Abandu" ere izenutséeran "Abandus" idatzi bait zuan.

Birr-esan dezagun na, bata bestearrengandik oso urbil daudela "ABANDU" eta "ABENDU".

Arrazoi ote dute ba Colmenero'k eta R.Carrerio'k, "Abandu", "abendu" bitarte "adventu"tik datorrela esatean?

Galde ori egin omen zion Azkarate'k Mitxelena'tar Koldobika irakasle jaunari: ea Abandus alegia Liturgiko "Adventus"etik etorri daitekean, eta ezetz erantzun omen zion arek. Oridalata, "parece mas razonable **dio** Azkarate'k-- seguir manteniendo la interpretación que propusiera GOMEZ Moreno leyendo en el "Avand" del texto un "Avand(ic)o" de clara tradición indeuropea"

Bedi. Nik ez diot Azkarate'ri "Abandiko" ori indeuropatarra ez danik esango. Baiñan euskalduna ederki izan daitekeala, ori bai, esango diot ori. Abando bezain euskalduna!

"Aband" aurrizkia daramaten toki-izen eta abizenak, asko ditugu Euskalerrian: "Abando" hera; "Abandegi"; "Abanzabalegi"; "Abantza", "Abantza". "Abanzulo", Ataun'go leiza baten izena da; "Abandi", Bermeo'ko abizena..

Orra or "Abando"tik "Abandi"ra zeñen errez igaro daitekean. Eta ori oraindik egokiago agertzeko Araba'ko Ondategi errian baditugu toki-izen bitxi bi: "Abandookelu", 1.792'ko dokumentu batean. Eta 73 urte leenago, 1.719'n, "Abandiokelu" beste dokumentu batean.

Ori guztia, "Abandiko "Abandi'ko" izan daitekeala esaten ibilli gabe.

Guzti orrek ordea ez digu gure elbururako ezer balio. Arrazoi osoa bait du Azkarate'k onako au esaten digunean: "Debe tenerse en cuenta que AVAND(us) es una reconstrucción hipotética".



Egia; illarriak ez bait du AVAND" besterik esaten. Ez du arrazoirik ordea "Abandus"en antzeko giza-izenik ez dugula esaten duanean, Abando bera eta nik aipatu ditudan izenik geienak, toki-izenak izateaz gaiñera abizenak ere bai bait dira.

Baiña arrazoi du berriro onela jarraitzen duanean: "Su pretendida relacion ("Abandus"ena) con un onomastico cristiano no deja de ser un supuesto gratuito que, en cualquier caso, habrfa que demostrar con argumentos de caracter filológico". Ondo esana:

- Arri-ol ontako izena nola zan, ziur ez bait dakigu.

- Izen ori ABANDO, edo ABANDIKO, euskalduna izan edo euskalduna izan ez, izen kristaua zan edo ez jakiterik ez bait dugu, ADVENTUS'tik datorrela esateko arrazoirik ziurrik ez dugun ezkerero.

- Ta arri-olako izena Adventus dala egia baTiz ere, ez dakigu izen ori zeraman gizakume ura kristau zan; ezta, kristau batek sekulan orrelako izenik eraman duan ere.

Ez digu beraz illarri onek ere ezertarako balio.

\* \* \*

Gernika'ren alboan dago oituraz kanpoko izena duan erri bat. Morga'ko Mekaur. Or aurkitzen da Gerekiz'ko Doneztebe'ren haselizatxoa, ta baselizatxo ortakoak dira, aspaldidanik ezagunak izan diran arri-oi batzuk, iturriza'k ere aipatzen ditu, Morga'ko elizaurreaz mintzatzerakoan: "Hay en esta jurisdicción (...) siete ermitas. La de San Esteban de Guerequiz fue antiguamente parroquia como se desprende de varias sepulturas y huesos de muertos que se ballaron enterrados en el año 1.770 al reedificar(la), (...) asf como también se sacaron varias piedras con inscripciones, una de las cuales que tiene media vara en cuadro esta colocada en la pared contigua a la puerta de esta ermita y en ella se lee: F. Sempronie conjugii sue possuit memoria. Cons. CCCC."9

Gaur ez omen da erreza bere irakurketa, izkiak aski ezabaturik dauzkalako. Goiko puska falta zaiola argi ikusten omen da gaiñera. Eskerrak

---

Iturriza y Zabala Juan Ramón: "Historia de Vizcaya, General del Señoría". Barcelona, 1.885. 410'garren orrialdean.

Iturriza'k ongi irakurri zuala! Soilki, oraingo arkeolariek, arek "F" ikusi zuan tokian "E" ikusten dute, batzuek "ET", beste batzuek "TE" irakurtze-ko.

Guk Gonzalez Moreno'ren irakur-kera ontzat artuko dugu: Ona bera:

ET SEMPRONIE  
CONIUGI SUE  
POSUET  
MEMORRIA  
CONS.CCCC.

Au duzu berriz, euskeraz, idazki orrek damaigun mezua: "Eta Senpro-  
nia bere emazteari jarri zion oroigarri au. Kontsulen Eraren 400'garren  
urtean" .10

Idazti ortaz ari dala, ikus zer dion aipatu-berria dugun J. Vives, arri-ol  
onen kristautasunaren babesle aundiak: "Esta inscripeidn, no cabe duda, es  
cristiana, del año 362, la mŠs antigua española bien constatada".

Ori esateko, bere eta arri-ol au kristautzat daukaten beste guztien --  
arrazoia auxe bakarra duzu:

"Posuet memoria", "oroigarri au jarri zion" esaten duala, eta S.T.T.L  
ez duala esaten. Baiña arrazoi bikoitz ori, baliorik ez duan arrazoia da.

Orregaitik, askoz zuzurrago dabil gure Maitarikua: "En cuanto a la  
Wida de Guer&luiz, que en el fragmento que presentamos no tiene indieio  
alguno cristiano ni pagano, es de desear que una escavacidn cuidadosa de  
los eimientos de la ermita nos devuelva los fragmentos que faltan. Si un dia

---

"Era" ori, "Aera Ilispanica" deritzana dala, esan dugu. J. Vives'en ustez  
("Inseripeiones Cristianas de la Esp. Romana y Visig.", 177 or.) Asturi eta  
Kantauri aldean izan omen zan sortua III mendean. Iñork zer gertakizunetik  
sortua dan ez dakian "Aera Consularis" hat ere agertzen da antziñako idaztie-  
tan. Gure arri-ol ontan adibidez. "Kontsulen Era" au eta len aipatutako "Ispa-  
niar Era", urte-zenbatzekera bat beraren bi izen besterik ez dirala uste dute ia  
ikerlari guztiek.

Oarpen au eta urrengoak, Azkarate'ren aipatu dutan liburutik artuak  
ditut. 79-80 or.

se demuestra que es cristiana, no habrfa que exagerar las conclusiones. Se tratarfa de un testimonio aislado. La presencia de una familia cristiana no implica cristianizaci3n". Ederki esana!

Izan ere ondotox bait zekian Mariarikua'k idazki kristau zarretan, "oroigarri au jarri zion" agertzen ba'da, jentillen idazkietan ere agertzen dala. Ainzuzen esakizun ori dakarten eta ziuarki jentillak diran idazki-sorta bat bai bait damaigu herak.'

"S.T.T.L." "Sit Tibi Terra Levis" = "Ariña Bezaizu Lurra" --, baiki, jentillen illobietako arri-oletan, idazkia bukatzeko ipiñi oi ziran itzak dira. Ez dakit illobi-gaiñera botatzen zitzaion lurra ariña izateak ildakoari atsegin aundirik eman zezaiokcan, baiña aide maitea zuloan sartzerakoan, maitasunaren adigarri, beti opa oi zitzaion gaiñeko lurraren arintsun ori: "Ariña bezaizu lurra": "S(it) T(ibi) T(erra) L(evis)": itzez itz euskeraturik, "B(edi) "Z(ureztat) L(urra) A(rifia)".

Baiña ez dakigu, eta ezin jakin omen dezakegu, gure arri-ol onek esakizun ori bazeramakian edo ez, txit errez ikusi daitekeanez goiko puska peitzen zaion bezala, beekoa ere peitzen omen zaio

Egia dio beraz Mafiarikua'k: arri-ol orrek ez digu ezertarako balio

\* \* \*

Jarrai dezagun gure azterketa, au ere ederki II mendekoa izan daitekean beste arri-ol onekin. Au ere Morga'n, Mekaur'en, Gerekiz'ko Doneztehe'ren baselizatxo artan aurkitua da.

Urratua du ezkerreko saietsa, baiña ederki irakurri daiteke erdian dakarren idazkia; eta errez ikusi daitezke idazki orren gaiñeko marrazkiak. Ona, idazkia:

VERINIA CO  
NIGI SVO SAL  
V NIO CERTIMIO

Onela irakurri oi zan idazki ori:

---

<sup>12</sup> "La Inscribeidn de Sempronía". "Estudios Vizeatnos", 3 (I.972),51-74).

(Se)verinia conivgi svo Salv(ia)nio Certimio.

Eta onela zuzendu zuten (irakurkera ori) Rodriguez Colmenero'k eta Carrerio' k:

(SE)verinia Colni(v)gi svo Salv(ica)lo Certimio. Euskeraz, "Severinia'k Salvicalo Certimio bere senarrari".

Dakusazunez, bi irakurkera oietan itz bat bakarrik dator aldaturik: "Salviano = Salvicalo".

Idazkiak, ordea, ez du guretzat garrantzirik. Bai ordea idazkiaren gainean ageri diran marrazki biak: Irutasun Deuna'ren adigarritzat artuak izan diran marrazkiak: erdian zulodun irukakozko edo triangulo bat, eta bere azpian ageri diran iru giza-iruditxo txiki, oso baldarki landuak.

Irukakozkoa, baiki, ugari erabili du Elizak aspaldi-aspalditik Irutasun Deunaren iruditizat. Bai beintzat III mendearen azken aldiak gero.

Gure arri-ol ori ederki izan daiteke II mendekoa, eta izugarria izango litzake bere garrantzia, marrazki oiek Irutasuna'ren adigarri dirala egia ba'litz, ain goiz, II mendean, kristautasuna, Euskalerriko txoko urrun artaraino iritxi zitzaigula oiukatuko bait !uke.

Baiñan irudi baldar oiek Irutasuna'ren itxurapenak ote dira?

Ez, noski:

Baña, erdian txulo bat duan irukakozko orrek ez ote digu iru Pertsonak Jainko bat dirala adierazi nai?

Ez, noski.

Eta ona zergaitik:

" Los primitivos cristianos recurrieron, en efecto, a la expresión grafica deI misterio de Ia Trinidad por medio de una figura geom&rica o de un signo alfabético (la alfa y Ia omega fundamentalmente). Pero como seriala Guarducci, ello refleja un razonamiento sutil que no debid de estar al alcance de la generalidad de los fieles. No sorprende por tanto que sean tan pocos los ejemplos que se puedan recoger en Ia primera epigraffa cristiana donde el triangulo aparezca de manera inequfvoca como sfmbolo trinitario. Unos pocos son los que presenta Colmenero. No existen, ciertamente, muchos mas entre los miles de epfgrafes que pueden consultarse en la bibliograffa ya citada. Entre las casi seiscientas inscripciones que recoge Vives para la Hispania romana y visigoda no hemos hallado ni un solo caso en el que el triangulo aparezca como motivo iconografico. Tampoco lo hemos encontrado en otras publicaciones que recogen restos materiales

paleocristianos. Es cierto que aparece la delta griega (maydscula unas veces y mindscula casi siempre), pero es hhito frecuentfsimo entre los lapicidas de los primeros siglos cristianos intercalar graffas griegas entre las latinas y nada se puede, por tanto, deducir de ello" (Azkarate, l.c. 90 or.)

- Ez dirudi irukakozkoaren azpiko iru giza-irudi baldar aiek ere Irutasunaren adigarri izan daitezkeanik. Alde batetik lenen kristauek Jaungoikoa eta, areago oraindik Irutasuna, izaki bizien irudien bitartez emateko izan zuten kezka mingarria ongi ezaguna dalako, eta, beste aldetik, Irutasuna era ortan lendabizi V mendean agertzen dalako. Ainzuzen, ori dugu Nola'ko Paulino bordeletarrak bere gotzai-uriko Donefelize'ren elizan ikusten zuan bezala bertsoz abestuko zigun irudia:

"Pleno coruscat Trinitas misterio.  
Stat Christus agno; vox Patris coelo tonat.  
Et per columbam Spiritus Sanctus tluit"

Euskeraz:

"Bere misterio osoan, dizdiratsu Irutasuna:  
Kristo bildots-itxuran. Trumoika, zerutik Aita.  
Ta, uso bezala dator Gogo Donea"

Zer esan nai ote dute ba, gure arri-olako iru gizakumetxo trakets oiek?

Iru irudiak irudi bat izan omen daitezke. Irudi bat bera, iru aldiz tajutua. Jainkotxiki biurtua izan dan ildako baten irudia, bere jainkotxikitasunaren indarra, almena eta aunditasuna adierazteko, iru bider aurkeztua. Indoeuropatarren kulturaren oiturazkoa omen zan ori egitea.

Bai Ez dakit ba ori egia izan daitekeanik.

Askotan, ildakoaren irudi irukoitz oietatik bat, adibidez, emea eta beste biak arrak, edo, alderantziz, bi emeak eta bestea arra izaten bait dira. Baleike ordea ildako baten irudia irukoiztatze orren bidez, ildako ori jainkotua izan dan ezkeroko kuntzekeri ororen gaindik yare dagoala, edo ta, bi kuntzeen gaitasun guztiak badituala adierazi nai izatea.

Danadala, aipatu dugun Zaldu'ko arri arek ere, bai omen dakarki irukotasunarekin zer ikusirik duan zerbait: "tres crecientes lunares con el central de mayor tamaño que los laterales" (edergaillu utsak?). Danadala ilgora irukoitz orren ondorean jainko sendi-zaintzailleenganako deia omen

dakar: D.M. Eta, beeraxeago, "tres nichos que acogen otros tantos restos humanos muy deteriorados" (Azkarate (I.c.82).

Zer ote da guzti orrek esan nai duana? Baduzu, eman dizkizudan abuerako bat artzeko, ala beste bat asmatzeko eskubidea.

Danadala, ez daiteke Irutasun Deunaren adigarri diranik esan. Irutasun Deunaren lenen adigarria, V mendekoa da, ikusi dugunez. Gureak berriz, seguruaski III'goak: "Nuestra modesta estela de Morga ha sido fechada -- junto a la mayor parte del resto de los epigrafes vizcafnos -- entre los siglos II y III por Gdmez Moreno, II y IV por Garcfa Bellido y III y IV por Marco Simdn. En cualquier caso, excesivamente pronto para seguir manteniendo el carakter cristiano de su representacidn trinitaria. Habrfa que admitir en caso contrario, la antelacidn en, probablemente, más de un siglo del lapicida que trabajd en Guerricalz (Mecaur de Morga) sobre los artistas italianos" (Azkarate,I .c.91).

"Mas razonable nos parece, en cambio, interpretar esta pieza como una más del grupo de estelas con representacidn de tres personajes, tfpico del area navarro-alavesa (azpimarraketa nerea) y de sus territorios mis proXimos (Vizcaya, Rioja, Cantabria, Soria y Burgos)" (Ib). Azkeneko 5 probintzi auetatik, 1<sup>a</sup>, euskalduna da oraindik, 2<sup>a</sup> oso osoan une artan, eta baita beste iruak ere zati eder batean. Irudi irukoitz ori, emen bertan, Euskalerrian, jaiotakoa ote dugu? Gogora datozkit Zuberoa'n iru torre dituzten elizak.

\* \* \*

Arrigorriaga'n dago Abrisketa'ko Donekepa'ren basiliza. Eta bertan, izen aundiko arri-ol zar bat.

Ezaguna zan aspalditik, arri-ol orren alde kristaua. Alde ortan gurutz greziar bat, ots, lau besoak berdiñak dituan gurutze dago ziriztatua, eta "alfa" bat eta "orrega" bat dararnazki gurutze orrek zintzilik ezker-eskubiko beso etzanetatik. Alfa eta omega greziar-izkidiko lenen eta azkeneko izkiak dira, asieraren aurretik bazan eta azkenaren ondorean ere izango dan Kristo Jainkoaren irudiak.

Alde orri dagokionez, Españi'n bisigotiarrek agintzen zuten denborakoa dala dirudi Abrisketa'ko arri-ol au.

Badu ordea beste alde bat ere, eta arri-olaren beste alde ori ez da luzaroan ezaguna izan, baselizaren orman sartuta egon dalako. Baseliz ortan berritze-lan batzuk egiterakoan agertu zan. Alde ortako zirizketak beste aldekoak baiño baldarragoak diralako, marrazkiek zarragoak dirudite; IV edo V mendekoak, Carreño ta Coimenero-ren ustez.

Oker dabiltz ordea bi ikerlariok. Gure arri-oletako marrazkiak, danak, seguruaski III mendea baiño zarragoak bait dira, len ere esan dugun bezala.

Ez dute arri-ol ontako marrazki oiek azterketa bereizirik merezi, naiz bertan Carrerio'k eta R. Colmenero'k martirien ikurra dan palma-osto bat eta "krismo" ugari ikusi nai izan. Beste edozeinek ez bait ditu batere garrantzirik gabeko marrazkiak besterik or ikusiko: argiñak soilki apainketa-asmoz ziriztatu zituan marrazkiak.

Eta, beste aldetiko marrazkiak bisigotiarren denborakoak diralako, eta alde ontakoak kristauak diranik ezin esan dezakegulako arri-ol onek ez digu balio kristautasuna gure Errira goiz sartu zala adierazteko.

\* \* \*

Lemona'n Elorriaga'ko Donekepa'ren baselizan agertutako ZAZPI arri-olak. Goiti-bera eta alde-z alde gurutze aundi bana daramatelako kristautzat artuak izan diranak. Baiñan orrelako gurutze oiek ez daitezke kristautzat artuak izan. laister ikusiko dugun bezala. Batek, gaiñera, argi-argi jentilla dan idazki au darama gurutzea zearkatuz:

D M  
GRACIL  
RUSTICI  
NE VILL  
POSVI  
D SVO ANN XX  
\*

Idazki jentil orren agerketak ez gaitu geiegi arritu bear. Arri oietako marrazki eta lerroak, heraien gaiñean arria birr-erabilliz --egin ziran idazketak baiño zarragoak dirala badakigun gauza bait da.

Leenagoko irakurketa hatzuk utzita, azkenean onela ol cia, irakurria idazki gaitz ori: "D(ii)s M(anibus). Gracil(is) Rusticine Vill(anae) Posui(t)




Fig. 10. Esquema de la estela de Jainko (M. C. CARREÑO, A. RODRIGUEZ COLMENERO, 1981).



De Suo. Ann(orum) XX". Euskeraz, "Sendi-Barrungo Jainko zaindarien izenean. Garzila'k ogei urteko Rustizina Villana'ri eraiki dio (illobi au)".

Ara or, batera, etxeetako zorionaren zaindari ziran "Dii Manes" sasi-jainko jentillak eta Kristo'ren gurutzea, benetan gurutz ori Kristo'rena dala egia ba'litz. Ez da ordea Kristo'rena, ikusiko dugun lez.

Idazki-duten arri-olak badira geiago ere Elorriaga'ko zazpi oien artean, baiñan idazki oiek, guretzat, garrantzi-gabeak dira.

\* \* \*

Izen bitxia du Bizkai'ko lurralde batek: Jainko. Bertan badu Andra Mari'k eliz zaar bat. Ba, eliz zar ori eraberritzaerakoan beste arri-ol bat agertu zitzaigun, eta ezin omen daiteke zalantzan ipiñi "la indudable naturaleza cristiana de esta estela de Jainko a causa de la gran cruz, que luce encima de sus caras laterales. "Y puede ser datada en la época de las de Lemona adornadas con cruces, o sea, en los siglos IV o V de nuestra Era" (Carreflo, R. Colmenero),

Oker dabiltz bein berriro arri auei adiña ezartzerakoan; uste duten baiño askoz zarragoak bait dira, arri-ol guzti auen noizkotasunaz mintzatzean esanik utzi dugun bezala.


Arri-ol onek lauburu hat dakar erdian: bere lau adar-mutturrak alkar-tuz borobilki itxi bat eratzen duan lauburu aundi bat. Borobilki ortatik sei lerro bikoitz irtetzen dira, saietsetara dijoztenek "X" bat tajutuz. Luzeena, goruntz dijoana, zearka datorkion lerro bikoitz batekin alkartzen da orrela gurutze aundi bat sortuz.<sup>13</sup>

Baiñan ez gurutze orrek ez "X" bat eratuz lauburutik irtetzen diran lerroek, ez dute Euskalerriko kristautasunaren asierari adin bat eman aal izateko balio, naiz aipatutako ikerlari bi aiek baietz uste.

Alare, arrazoi izan dezakete arri-ol ori agertu zan lekuak izena "jainko" izateari egiazko garrantzia eman nai izatean. Nere ustez, Azkarate'k (I.e.102-103) ariñegi ukatzen die arrazoi ori. Oituraz kanpoko izen sagaratuak edo sasisagaratuak daramazkiten beste tokiek bezala, "Jainko" toki-izena daramakian orrek ederki adierazi bai dezake toki ura jentillaroko ala

---

<sup>13</sup> Ikus "A-0-3" ikurra daraman orriko irudia.



Ceramica gris estampada con motivos cristianos. Cueva de Iruaxpe 111  
(Aretxabaieta. Guipuzcoa. Segùn M. URTEAGA).

intxauspe (Eskoriatza). Lurregoszko  
agian V'goak. Zati batean, 2 kristnoi ta beste

Vi mendekoak omen:  
asiera.

erromateko jainkoxikiren baten omenez sagaratutako lekua dala. Eta jakiña da euskalerrian toponimi sagaratuak duan garrantzi uka-eziña, Toki oietan, beti, zerbait, adibidez dolmen baten idoroketa, ala beste orrelako gauzaren bat beti-beti gertatzen bait da.

Orregaitik damaiot nik ere egiazko garrantzia "Jainko" toki-izen orri, eta arri-ol ori bezala, beste arri-olak ere, ia danak, baselizetan aurkituak izateari.

Ez diot, ori, gure kristautasunaren goiztasuna adierazteko naikoa danik. Bai ordea egiazko garrantzi-duan gauza dala.

\* \* \*

Azkenik, illarri oietako irudi zar oiek danak zer esan dezaketen ez dakigula, aitortu bearrean aurkitzen gera. ¡Zerbait esan nai duten ere ez bait dakigu ziur! Indeuoparren arotikoak dirala eta gizakume aientzat zentzu argia zutela? Baleike laburuari eta onen antzeko beste ikurren batzuei dagokienez. Baleike. Bañan besteak nere ustez arri-olen itxura politagoa ta txukunagoa biurtzeko, argiñak an landu zituan edergailluak beste-rik ez dira.

Bañan ori ere eskier ez dakigulako, zuk, eta beste edozeiñek, zabalik dituzute ate guztiak bide ezberdin batetik jotzeko, eta yare zerate egokiena derizkiozuten iritziari zuen onetsia emateko.

Nik, aurkeztu dizuet leialki nerea.

\* \* \*

Aipatutako arri oiek danak baiño geroago, beste 13 agertu zaizkigu:

- Bat Zaratarno'ku Lorentzo Deunaren elizan.
- Lau, Mesterika'ko elizan. Donelorentzo'ren elizan auek ere.

Beste zortziak Mungi'ko Berreaga-Mendin. Auek gaiñera, ez, besteak bezala, eliz eta baselizetan, Krist'aurreko uritxo batean baizik. Zortziak, "estela" edo "zutarriak" dira.

Arnairuok len aztertu ditugun guztiak bezala lauburuz eta gurutzez beterik daude. Ez dute, orregaitik, ardura geiegirik merezi, azkeneko zortziak izan ezik. Auek Kriseaurrekoak diralarik, onako auxe argi adierazten bait digute: gure arri-oletako gurutzeak ezin daitezkeala kristauak izan. Bañan ori ere esana genduan.



Lám. I. Jarrito lituoi de Mañara (Vizcaya)  
queológico. Etnográfico e Histórico V2

Ontzi au liturgian erabilli oi ziran, antzekoa da. Baiñan orrelako ontziak ugari eta zeregin ugarietarako erabilliak bait ziran, esan daiteke Mañari'ko au kristau-liturgirako ontzia zanik.

## LURREGOSIZKO ONTZIAK

Buztiñ-egoszko ontzi zarretako marrazkietan ere ikusi nai izan da Euskalerriko kristautasunaren sorkuntza goiztarra.

Emen, Bizkai'ko Berriatu'n eta Foru'n agertutakoak aztertuko ditugu. Beste guztiak, Aitzorrofkoa izan ezik, gure ekintzarako Foru eta Berriatu'ko aien antzekoak bait dira.

Mañarikua'tar Ander Eliseo izan zan ontzi auei iñork baiño lenago kristau-balio apur bat eman ziena.

Onela dio, apalki, Berriatu'koei-buruz. "Aunque una simple decoracin de cruces no sea por sf sola un argumento (...) es un indicio digno de mencionarse la ceramica de barro fino, como el saguntino, decoracla con cruces en relieve hallada junto a restos humanos en la cueva de Goiko-laua (sic). Segdn su descubridor J. M. Barandiaran es de tipo de la Edad de Hierro y parece ser de los primeros siglos del Cristianismo en el pafs, desde luego anterior al siglo V: Mas ceramica de este tipo y con la misma decoracin de cruces dentro de cfrculos ha sido hallada en Forua" (Azkarate, I.c.57).

Atzipeturik dabiltz, bai Mañarikua eta bai Barandiaran. "De los primeros siglos del cristianismo", bai, badira, eta baita leenagokoak ere, bearbada. Baiñan "de los primeros siglos del cristianismo en ei pais", ez. Ez bait zan oraindik Euskalerrira kristautasunik sartu. Gurutze oiek berolek ere ez dira gaiñera kristauak; jentillak baizik. Agian, zentzurik gabeko edergai-lu utsak besterik ez!

Gurutzea, askotan, erromateko gure arri-ol eta buztiñ-egoszko ontzietan, bera bakarrik agertzen da: gurutze soilla; apaingailurik gabe; beste batzuetan berriz, obo edo zirkulo baten barruan, orrela kurpil baten itxura artuz

Gurutze bakarra -- eta baita oboan sartutako gurutzea ere — edestiarreaz gero mundu guztian agertzen omen da, ugari gaiñera, Txina'tik Es-

kandinabrra, eta Eskandinahrtik Iberiar-Erdiugartera. "Erromatearen azken aldian bereiziki eta sarritan gaiñera": "constituye un motivo muy frecuente en la iconografía tardorromana" (Azkarate, I.c.62).

Asmatzeko gai izan ziñezkean esannai guztiak ezarri oi dizkiote gurutze soillari eta obo-barrengoari. Bereiziki bai bata eta bai bestea, eguzkiaren irudiak omen ziran, eta, Kristo'ri Lenen-Elizak "sol invictus", ots, "eguzki menderakaitza" esaten omen ziolako, bere-egin omen zuan Elizak antziñako ikur ain zabaldu ori: gurutzea.

Eta, ainzuzen, orregaitik izan omen zan lau beso berdiñeko gurutzea, lendabizi erabilli zuana, begien aurrean obo-barrengo gurutzea zeukalako.

Arritzekoa da, beste aburu batzuen aurrean, batez ere kristautasunaren gure errirako etorrera goiztar egitearen aldekoak diran aburuen aurrean ain zorrotz eta estua dan Azkarate, orrelako oifiarrik gabeko aburuen aurrean ain onartzaille gertatzea. A! Jokaera ezberdin ori, ez da Azkarate'rena bakarrik. Euskalerrira kristautasuna oso berandu etorri zalaren alderdiko guztiena baizik.

Zerbait esan nai nuke Eliza-eta-Gurutzea aipatu dizkigun aburtt ortaz.

- Sol Invictus" orren erlijioa, naiz monoteista izan, erlijio jentilla zala. Ain zuzen Kostantino'k, agian 1 Kostantzio Kloro bere aitarengandik jasota, Kristau egin aurretik gurtzen zuan erlijioa.

- Kristauek ez ziotela beñere Kristo'ri "Sol Invictus", edo "Eguzki Menderakaitza" esan. Ez "Eguzki Menderakaitza" ez "Eguzki", metafora edo "itxurazko jokuz" bezala izan ezik. Adibidez, gero Miren Neskutsari "Rosa Mystica" esan zioten bezala.

Ainzuzen eguzkia Kristo izan zitekeanik galdetzen zutenei adarra joz, onela mintzatu zan Augustin Donea: "Manichaei solem istum oculis carneis visibilis, expositum et publicum non tantum hominibus sed etiam pecoribus ad videndum, Christum Dominum esse putaverunt".

Euskeraz:

"Manikeriza leak izan ziran, aragizko begiz ikusi daitekean eta gizonak ezezik ahereek ere ikusi izan dezaten, danentzat agertzen dan eguzki au Kristo zala uste izan zutenak".

- Elizak aurrena erabillitako gurutzeak lau beso berdiñak izatea, Elizak gurutzearen ikurra obo-barrengo gurutze jentillatik artu zualako dala, dion aburu ori oso aburu motza ta zentzurik gabea dala:

Elizak agerian erabillitako lenen ikurra, ez bait zan gurutzea izan, Kostantino'ren ikurriñako krismoia baizik. Krismoi ortako "X" izkitik sortu zan, bere tokian esan dugun bezala lau besoko gurutzea. Azalpen geiagoren billa ibilli gabe, izki orren bi besoei bultzaketatxo txikienik txikiena naikoa bait da Xristos'en ikurra zan izki ori ("x"), Xristos il zan gurutzearen antzirudi biurtzeko (" + ").

Ez da beraz egia, Azkarate'k arazo orri-buruz dioskuna: "estamos por lo tanto ante un ejemplo sobresaliente de sincretismo entre un símbolo preexistente y la nueva religiön "(ib).

Elizak, bere apostolutza errezteko, erabilli izan zuan, baik, sinkretigintza; jentillen ikur, izen, jai-egun eta toki sagaratuan kristautzeari sinkretigintza esatea zillegi ba'da.

Baiñan gurutzearen erabilketa, ez zan sinkreti bat izan:

- Elizak ez zuan kanpotiko laguntza bearrik, gurutzea, bere Kristo'ren Gurutze Donea, maite izateko, eta eraspenik aundienarekin erabiltzeko. Beraz, gurutzea erabiltze ori ez zala sinkreti edo "bateratze" baten ondorio izan.

- Sinkretitza baten ondorio izan ba'zan, ezin ulertu daitekeala zergaitik Eliza, Kostantino'k pakea eman zion arte, iru mende luzez gurutzerik erabili gabe egon zan. Zer dala-ta ibilli bear zuan "cruz dissimulata" edo "izkuzko gurutze" aiek erabiltzen?

- Sinkretigintza egin aal izateak, Elizak gurutzea orokorki erabillia ikusi zuala esan nai du.

Baiñan gurutzea orokorki erabillia ba'zegoan, eta jentillak gurutzearen erabilketa orokor ortara oiturik ba'zeuden, Elizak ez zuan gurutzea agirian erabilliz "parregarri agertzeko" eta ondorioz bere buruari "mixioketa zearo eragozteko" bildurrik izan bear. Baiñan izan zuan bildur ori, eta ez zuan gurutzerik agirian erabilli.

Ez zuten kristau soillek ere, gurutzea agirian erabiltzeagaitik eriotzara epaituak izateko arriskurik izan bear. Baiñan izan zuten arrisku larri orren bildurra, eta ez zuten gurutzerik erabilli.

Ez da ulertzen bildur orokor ori. Ez da ulertzen Elizak eta elizkideek zergaitik ez zuten Kostantino'ren pakera arte gurutzerik erabilli. Ez bait zuten erabilli! Ezta katakunbetan ere!

- Sinkretitzaren aburu ori ontzat artuko ba'gendu, istillu gorriak izango genituzke gure arri-oletan eta buztifiegosizko ontzietan agertzen zaizkigun gurutze oiek kristauak diran edo ez erabaki aal izateko.

Gurutzea, Krist'aurretik ere, Euskalerrian, gauza-edertze-lanetarako apaingailu lez, anitz zabaldurik zegoala dirudi, ezpairik gabe. Nola jakin dezakegu orduan lenen euskaldun kristauak, kristau eginda gero, beren illarrietan gurutzea marraztuz jarraitu zuten edo ez?

Izan ere, kezkarik gabe egin zezaketen ori, emen jentillek ere ikur ori erabiltzen zutelako.

Baita bildurrik ere gabe, emen eriotzaren arriskurik ez zutelako. Orain arte dak.igunaren araura esan daitekeanez, ez bait zan Euskalerrian, euskaldunek eraildako martiririk izan.

Nola jakin orduan gure arri-ol eta buztiñ-ontzietako gurutze oiek kristauak diran edo ez?

Jentillak dirala, daramazkiten idazketa jentillak, geroa <sup>g</sup>o, gurutzeen gaiñean idatzia izan ziralako? Baiñan, badaiteke ori alderantziz izatea. Aurrena, idazkiak, eta gero, gurutzeak: aurrena, I mendean, edo Kristo jaio aurretik bearbada, jende jentil batzuek, jentillen illobietarako idazki aiek egin izatea, eta, geroago, beste jende batzuek, kristauek auek, III edo IV mendean, idazki jentillen gaiñean gurutzea ziriztatzearen bidez arri bakoitza kristaututa, beren illobi kristauetarako birr-erabilli izatea.

IV mendekoa dala esaten duan idazki bat badugula? Bai, baiña idazki orrek, ainzuzen, jentillek ere bai, baiñan batez ere kristauek erabilli oi zuten esari bat dakar!: "Posuet memoria". Itzegin dugu esari orretaz.

Badira gaiñera idazkirik gabeko gurutze-duten arriak.

Zer pentsa beraz gure arri-ol oietako gurutzeetaz?

- Gurutzeari dagokionez Elizak ez zuala sinkretitzarik egin.

- Beraz, sinkretitzaren alde ortatik begiratuz, gure gurutze oiek ezin daitezkeala gurutze kristauak izan.

- Beste alde guztietatik so-egiñez ere, ezin daitezkeala kristauak izan, esan dugun lez, IV mendera arte Elizak gurutzerik erabilli ez zualako, eta IV mendean erabilli zuan "gurutzea" ere ez zala gurutzea izan, krismoia baizik. Eta krismoiarenean ondorean "monogramatiarra" esan oi zaion gurutzea, ots, krismoia bera, baiñan "X" idazkia kenduta, ala X izkiari "Ro" izkiaren kizkurra erantsiz.



Kristauok orain erabiltzen dugun gurutzea, bat edo beste izan ezik, V mendearen azkeneraiño, eta, batez ere VI menderaiño, ez du Elizak erabilliko,

Baña gure buztifi-egosziko ontzi oiek IV mendeaz gerozkoak dira-ta, beren tokian aztertuko ditugu astiroxeago.



## II MENDEAREN BIGARREN ERDIA

Guri, naitanaiez, Iparretik eta Egoaldetik iritxi zitzaigun kristautasuna. Iritxi ote zitzaigun II mendearen bigarren erdia amaitu baiño len? Ez ziurtasun osoz, baiñan, naiz bildur aundiz, baietz esan daitekeala dirudi.

Bai ote?

Oka-Mendietatik aruntz. gure Egoa, "albiste oroz antzu egon omen zan II mendearen epe osoan": "En Espagne, c'est l'obscurité, Fliche eta Martin edestilari doixtarren ustez (1.e.). Baiñan ez zitzaizkigun aburu ortakoak izan garai artako idazle ospetsu bi: frantziarra bat, Ireneo Donea, ainzuzen Lyon'go bigarren gotzaia, eta afrikarra bestea, Tertuliano, Elizak orduan izan zuan idazlerik trebeena.

Aztertuko dugu zer esan zuten: eta esan zuten aren balioa.

Gure Iparra, alderantziz, zalantzarik gabeko dokumentuen bidez daé kusgu kristautzen asia. An, bat-batean, dizdiratsu agertzen bait zaigu Elizaren aurpegia: Orduan, gaur bezala, indar aundikoa zan Lyon'go uri ederrean. Bat-batean gaiñera. Illunpetik eguzkia bezala. I77'garren urtean. Dizdiratsu, martirien odolaren dizdiraz.

Urte ortan eta ondorengoetan Lyon'go Elizak dagerkigun sendotasunak eta indarrak, eskier adierazten digu, an, kristautasuna askoz leenagoa dala, baiñan, a! dokumentuak aurkeztu bearraren naitanaiezkotasuna! -- edestiarentzat I77'aren aurretik Lyon'en Elizik ez zan!

H mendean pakean bizitu zan Eliza inperiulur guztian Trajano'k emandako legearen araura, batez ere Adriano'k lege ura, ikusi dugun bezala, kristauen alde, sendoagoa egin zuan ezkerero. Baiñan esan dugu baitare noizbeinka an-emen, probintzietako jaurleen batzuen aultasunaz edo beste probintzi hatzuetako jaurleen kristauenganako gorroto ixillaz baliatuz, urietako jendillaje sasijainko gurtzaillea kristau-ilketan ibilli izan zala.

Ori gertatu zan Lyon'en ere I77'garren urte artan.

Marko Aurelio filosofilari estoitarra zan une artan Inperatore. Ez, jendea zigortzen ibiltzearen maitalea. Bere zaletasunik aundiena filosofia lantzea, filosofia sakontzea eta filosofiaz idaztea bait zan. "Podr famos decir que Marco Aurelio superò a sus predecesores en generosidad para con los cristianos" (Llorca, 148).

Erroma'n berriz, Eleuterio Donea zan Aitasantu; edestian apika ezagutua dan Aitasantua. Eta Lyon'en gotzai, Potino; bere elenerazko izenez, Pothinos.

177 aren dagonillean, kristauen aurka marruka agertu zan Lyon'go karriketara jentiledi landerra. Probintziko Jaurleak, Trajano ta Adriano inperatoreen aginduak aztu balitu bezala, "erdelfmrik zakarrena erabilli zuan kristauen aurka": "le gouverneur Wmoigna d'un m pris profond pour les chrMens" (Griffe, op.c. 34).

Gaiztakeria egiña izan zanez gero bai, eskatu zion aolku Marko Aurelio inperatoreari, kristauekin nola jardun galdetuz, eta arek, Adriano'ren zuzenketak azturik utziz, Trajano'ren aginduaren itzekin erantzun zion: Salatua dan kristaua, kristautasunari uko eginda gure jainkoak gurtzen ba'ditu, yare bedi; alderantziz, eriotzaz zigortua bedi".

Orrela, legezko itxura artu zuan, Lyon'en 177 eta 178'garren urteetako kristau-zigorketak.

Orra or Lyon'go Eliz bikaiña martiriek aintzagarri egiña. Laister izango da jakintzaz ere dizdiratsua. Bere bigarren gotzaia, Ireneo, garai artako Elizaren idazlerik ospetsuenetakoa izan bait zan.

"Lyon'go Eliza: Erroma'koaren ondorean Sarkaldeko lenen Eliza", oiudagi pozik, ezaguna dugun Griffe edestilari frantziarrek. Egia dio, eta badu pozik agertzeko arrazoirik aski.

Eliz bikain arek izan ote zuan kristautasuna zabaltzeko arretarik?

Euskalerrri Zarra ez zegoan orduan Lyon'dik gaur bezain urruti. Ez da erreza, toponimi-azterketa orokor baten faltaz, Frantzi'ren erdiruntz euskara noraiño iristen zan jakitea, baiñan danadala, euskalerrria ez zegoan Lyon'dik gaur bezain urruti.

Iritxi ote zan euskaldunengana Lyon'diko mixioketa? Baietz esateko arrazoi txiki bat ere ba'genu, askoz balio aundiagoa izango luke, laister Ireneo'ri entzungo diogun esakizun alaigarri batek. Ez dugu ordea tamalez orrelako arrazoirik. Ezta txikienik ere!

Ez ote zuan Lyon'go Elizak mixioketarako ardurarik?

Ez! Ez noski. Eta ori, geienbat, bere izakera berberaren ondorioz.

"La premiere Eglise de la France", esanen dio Griff'e'k Lyon'go Elizari, baiña "la Premiere Eglise dans la France" esan bearko lioke, Eliz ura ez bait zegoan frantziarrez osotua, sortaldetarrez haizik, batez ere: Ejito, Siri, Palestina eta Grezrtik, baiña bereiziki Asi izeneko probintzitik eta Asi'ren alboan zegoan Friji'tik, aspalditik etorritako jendez osotua.

Ala, bi Probintzi sortaldetar oietako "senideei" idatzi zieten eskutitz eder unki garri bat "Lyon'go Elizako eta Biena'ko Elizako senideek", zigorketa artan martiri il ziranen berri emanez.

Frantzi'ko Biena au, Lyon bezala sortaldetarrez beteta, Rodano ibaia-  
ren ertzean zegoan. Lyon'dik oso-oso bertan, egoaldera.

Bere gotzai ta guzti Eliz yarea zan ala Lyon'go Elizaren parroki zan, ez dakigu. Zana zala, Biena ere Frantzi'ko Mediterran-ertza eta Rodano ibarra bezala sortaldetarrez beterik zegoan ezkeru, ez da arritzekoa, Lyon'go kristauen apostoladutza, sortaldetarrengandik sortaldetarrengana, Biena'rairio iritxi izatea.

Esan dut len ere, dokumentu utsei sinistekotan, Il mende osoan ez zala europar kristaurik izan, Europa'ko kristau "guztiak", bai Erroma'n eta bai Lyon'en sortaldetarrek zirialako. (Ez dut noski esan bearrrik izango. "guztltasun" ori "moraliter omnes" ulertu bear dala, ots, "esate baterako danak", eta ez matematikeen erara).

Ala, Lyon'en Il ziran berrogei ta zortzi martirien artean badira latiñezko izena dutenek ere. Baiñan orrek ez dio, esana dutan "guztitasunari" indarrrik murrizten, Lyon'go izen latindar oiek eta Erroma'n izan zitezkean beste orrenbeste aiek, esana sendotzen duten salbuespenak besterik ez bait dira.

Ori, latiñezko izenez agertzen diran oiek egiazko beren izen elendarra latindu ez ba'zuten, edo beren izen elendarrari, izengoiti bezala, latiñezko izen bat aurre-erantsi ez ba'zioten. Ala, gotzaiaren egiazko izena Potheinos zan, eta berak Pothinus biurtu zuan. Epagathos izeneko beste martiri batek berriz, Vettius Epagathus biurtu zuan bere izena latiñezko aurre-izen bat artuz eta herea al zuan guztia latiñeratuz.

Naiz Lyon'go elizbarrutia orduango Euskalerritik ain urruti egon ez, Lyon'go lenen gotzaiak, Potino'k, ez zuan euskaldunekin arremanak izan. Ezta bigarrenak ere, 203'aren inguruan martiri il zan Ireneo'k. Ez da beintzat iñoiz arreman oien aipurik egin.

Baiñan Ireneo'k Frantzi'ri eta Espaili'ri-buruz bere liburu batean idatzi zuanetik, Euskalerriko kristautasunari dagokion zerbait, --garrantzi aundiko zerbait errez atera daiteke: Kristauak bazirala alegia 11 mende artako gure Euskalerrian. Gauza bera esan daiteke ogeiren bat urte geroago Tertuliano'k idatzitakoari-buruz ere.

H MENDEAREN AZKENERAKO KRISTAUTASUNA  
EUSKALDUNONGANA SARTZEN ASIA?  
1<sup>a</sup> : IRENEO DONEAREN ITZAK

Garrantzi aundia eman diete españiarrek eta frantziarrek itzal aundiko bi idazle oiek Ireneo'k eta Tertuliano'k idatzi zutenari:

Entzun Llorca iñakitarrari: "San Ireneo, lumbrera de la Iglesia de Ledn nos proporciona el primer testimonio históricamente bien comprobado sobre la situación del cristianismo en España. Hacia el año 180 compuso en Poitiers su c&bre tratado "Contra los Herejes" y como argumento fundamental contra los gnósticos, pondera la gran extensión alcanzada ya entonces por la iglesia romana, y habla de las iglesias de Iberia. Se ve pues claramente que San Ireneo propone las iglesias de España como modelo de prosperidad a fines del siglo 11. Ahora bien si hacia el 180 disfrutaba la Iglesia Española de esta relativa prosperidad no hay duda de que hacfa ya tiempo que el cristianismo habia penetrado profundamente en España" (I.c.153).

Guzti ori, alaitasun geiegirekin esana dala derizkiot. Ikus ditzagun Doneireneo'ren itzak, berak idatzi zituan bezala ("Adversus Haerexes", 1,10.2):

Ireneo'k, erejeei, Eliz orokorrak, baztar guztietan sinispide bat bera aldarrikatzen duala diotse. Mundua-zear izkuntzak ezberdiñak dirala, baiñan sinispidea bat berdiña.

Eta, jarraian, bere garaieko Eliz aiek aipatzen asten zaigu Ireneo Donea:

"Nam et si in mundo loquaelae dissimiles sunt, sed tamen uirtus traditionis una et eadem est. Et neque hae quae in Germania sunt fundatae Ecclesiae aliter credunt aut aliter tradunt, neque hae quae in Hiberis sunt, neque hae quae in Celtis, ("dute en tais Iberfais oute en Keltois)" Ireneo'-

ren e.leneraz), neque hae quae in Oriente, neque hae quae in Aegypto, neque hae quae in Libya, neque hae quae in medio mundi sunt constitutae":

Euskeraz:

"Naiz munduko izkuntzak ezberdiñak izan, bat eta berdiña da danetan agoz-ago iritxitako sinispidearen sendotasuna. Gauza bera sinisten eta erakusten dute, Germanrn sortutako Elizek, eta Iberitarren ala Keltiarren artean sortutakoek; eta baita Sortaldean, Ejito'n, Libi'n, eta mundu osoa-- baitan sortu diran beste guztiek ere".

Eta, ondorean, oso dotore, mundu osoa argitzen duan eguzkia bat dan bezala, kristaudia goiargitzen duan sinispidea ere bat dala dio, eta ori esaé nez amaitzen du bere idazketa.

Dakusazunez, ariñegi mintzatu zaigu Llorca.

Ez bait da egia, Doneireneo'k "las Iglesias de España como modelo de prosperidad a fines del siglo 11" aurkezten ditualako ori. Soilki aipatu besterik ez bait ditu egiten: "Hae quae in Iberis sunt", "Iberitarren artean dau-den (Eliz) oiek": "Dute en tais Iberiais".

Era berean ez ta zearo egia, Doneireneo'ren itzetatik ateratzen duan ondorioa: "No hay duda de que el crist.ianismo habia penetrado profundamente en España, ez baita egia esakizun orren sustraia ere: "No hay duda de ello si (es verdad que) hacia el año 180 disfrutaba la Iglesia Española de esa relativa prosperidad". Ez du ba Doneireneo'k Españi'ko Elizaren oparotasunaz deus esaten!

Ez dabil askoz zugarago izen aundiko beste edestilari iñakitar ospetsu bat, Zakarfas Garcfa Villada, Irene.o'ren esaldi ari-buruz. Era ontan jarraitzen du erdiaroan sortutako kondaireta mintzatzuz gero:

"Afortunadamente poseemos argumentos mas antiguos y autorizados que disipan (benetan?) en parte las tinieblas que han entenebrecido esta cuestitn. Al rededor del año 180 compuso San Ireneo ohispo de Poitiers su precioso tratado contra las herejfas. En dl prueba aquel genio ardiente y batallador la Unidad de la Iglesia Catdlica contra las novedades gndsticas; y para demostrarlo de una manera contundente (uste duzu?), saca a plaza a todas las iglesias del orbe, tanto a que estan establecidas en Germania como las de Iberia, las de las Galias, las de Oriente, las de Egipto, las de Libia, y cuantas hay fundadas en medio del universo mundo', las cuales todas creen y enseñan la misma cosa.



"Por Iglesias de Iberia se entienden las de España, y a fines del siglo II su fuerza es tan manifiesta y tradicional, (zergaitik besteena baiño geiago?) que se podfa apelar a ellas en las controversias dogmatica.s". (Azpitnarraketak, bereak)

Ikusi aal izan duzu, nolako españizalekeriz dagoan idatzia esaldi luze ori.

Atzipeturik dabilta gure bi iñakitar oiek. Ireneo'ren aitortpena ez bait da, edestiaren aldetik, españiarrek uste duten bezain erabatekoa. Aitortpen ori dakarren liburua ez bait da edesti-liburua. Teologiaz ari da Ireneo Eliz osoaren sinispidetik aldendu diran erejeekin solasean. Ez da edestiaz ari. Teologizkoa da beraz bere liburu au, eta, ez, edestizkoa. Orregaitik, teologiaren aldetik izan bear du epaitua bere egitasuna; ez, edestiaren aldetik.

Saiatuko gera egitasun orrek edestiaren aldetik ere izan dezakean indarraren billa.



II MENDEAREN AZKENERAKO KRISTAUTAUTASUNA  
EUSKALDUNONGANA SARTZEN ASIA?  
2<sup>a</sup> TERTULIANO'REN ITZAK

Era berdiñean, mintzatu bearrak gera Tertuliano'k idatzi zuanari-buruz ere. Luzea izango dugu egingo diogun aipua. Luzea, eta irakurria izateko neketsua; baiñan bearrezkoa, bere itzak, berak eman nai izan zien balioaz, ulertu aal izateko. So-egiegun bere esaldi naroei:

Antziñako Profeta danak Kristo'z mintzatu zirala esan ondorean, Isaia-ren itz auek gogorázten dizkie juduei:

"Sic dicit Dominus Deus Kristo meo domino, cui tenui dexteram, ut exaudiant illum gentes: fortitudines regum disn. impam, aperiam ante illum portas, et civitates non claudentur

"Quod adimpletum videmus. Cui enim dexteram tenet Pater Deus nisi Christo filio suo? quem exaudierunt omnes gentes, id est eui omnes gentes crediderunt, cuius et praedicatorum apostoli in psalmis David ostenduntur: in universam, inquit, terram exiit sonus eorum, et usque ad terminos terrae verba eorum.

"In quem enim alium universae gentes crediderunt nisi in Christum qui iam venit? Cui enim gentes crediderunt, Parthi, Medi, Elamitae, et qui habitant Mesopotamiam, krineniam, Phrygiam, Cappadociam, et incolentes Pontum et Asiam, et Pamphyliam, immorantes Aegyptum, et regionem Africae quae est trans Cyrenem inhabitantes, Romani et incolae, tunc et in Hierusalem Iudaei, et ceterae gentes, ut iam Getulorum varietates, et Maurorum multi fines, Hispaniarum omnes termini (azpimarraketa nereá), et Galliarum diversae nationes, et Britannorum inaccessa Romanis loca, Christo vero subdita, et Sarmatarum, et Dacorum, et Germanorum, et Scythaeorum, et abditarum multarum gentium et provinciarum et insularum multarum nobis ignotarum, et quae ennumerare minus possumus?




Fig. T\_S H.T. decorada a molde (Drag. 37 t) (A. MT7'. SALCEDO, M UNIZIJE-  
 TA PORTILLA, "Estudio de los materiales romanos de nueva de Peña Forun  
 (Forua, Vizcaya)", en Cuadernos de Arqueología de Deu 11 (1988), fig. 26.  
 n.º 75).

"In quibus omnibus locis Christi nomen qui venit iam regnat, utpote ante quem omnium civitatum portae sunt apertae, et cui nullae sunt clausae, ante quem serae ferreae comminutae, et valvae aerae apertae.

"Quarquam et ista spiritaliter sunt intelligenda (...) attamen perspicue sunt adimpleta..."<sup>14</sup>

Euskeraz:

"Onela dio Jaunak bere eskutik daukan Errege nere Jaunari, jende guztiak entzun dezaioten: Erregeen gazteluak ezereztuta urien ate guztiak irikiko dizkiot. Ez da bere aurrean uri bat ere itxirik geldituko"

"Beterik dakusgu gaur, iragarpen ori. Aitak eskutik daramana ez al da ba Kristo bere Semea? Erri guztiak entzun diote Kristo'ri, guztiak aren itza sinistu dute. Izan ere, Dabid'en salmoek dasaiguten bezala, Apostolu mihiolarien bidez mundu guztira zabaldu bait da aren abotsa eta ludiaren ertzetaraño aren mintzoa.

"Izan ere, toki oietan danetan, Errege da, etorria dugun Kristo. Uri guztietako ateak iriki zaizkio, uri bakar batek ere ez bait dio aterik itxi. Alderantziz, bere aurrean, burnizko zerrailuak birrindu egin dira; eta, burniorizko ate-orriak berriz, zabaldu!

"Ori guzia izpirituzko argiz da ulertu bearra (...) Altaguztiz, argi dago, bete dala guztia".


Españiarrei aunitz atsegiñak gertatu zaizkie beti eta gertatzen zaizkie oraindik Tertuliano'ren itz mardul oiek. Adibidez, ona zer esaten digun, Santiago'ren, Donepaul'en eta "los Siete Varones Apotólicos" edo "Apostoluengandiko Zazpi Gizonen" etorreraz mintzatu ondorean, J. Vives'ek, "Diccionario de Historia Eclesiástica de España" izeneko iztegian, "evangelización de España" itzean:

"Si bien se puede discutir sobre la historicidad de estas tres tradiciones apostólicas, que la Iglesia Española prcticamente desconoció en la antigüedad, habrii que tener por cierto y seguro (zergaitik?) que hubo verdaderos y muy eficaces evangelizadores en España ya en tiempo de los Apdstoles; (baduk ori zerbait esatea!). Prueba apodfctica de ello (bai ote?) es en si el

---

<sup>14</sup> "Adversus Iudaeos", VII. Liburu onek zenbakidun ataltxorik ez du, baiñan, zure begiz ikusi nai ba'dituzu, VII atalaren asieratik laister daude nik jaso dizkiodan itzak.

La figure qui accompagne la présente, dit-on, permettra à chacun de première partie sur la représentation qui orne cette lampe provenant de Medinet el Fayoum. Sa forme, son style, la grosseur de sa fabrication ne permettent pas de douter de son origine chrétienne. On y voit certainement un crocodile R,4 cAté de lui, homme ou une figure entièrement nu, appuyé sur un objet quelconque, bAton, pedestal, fût colonne, et tenant levé un disque crucifère. La barbarie de cette petite sculpture est extrême, on peut y voir quelque essai de représenter une légende en cours : un martyr tue un crocodile sacré en faisant le signe de la croix (fig. 3354).



3351. Lampe ANE el Fayour.  
D'après *Zeitschrift für ägyptische Sprache*, 1890,  
t. xxvtr, p. 63.

Gurute au eta Foru'ko ontziaren 7 gurutzeak berdiñak dira. Kristauak ote dira Foruko'ak ere? Ejito'ko au kristaua omen da bñ! Baiñan, jakiña dugun lez, kristautasunaren zabalkundeari dagokionez, Lenen 4 mendeetan Ejito ta Bizkai berdiñak ez izaki.

gran interés de Pablo por nuestra tierra. Dado su dinamismo y celo devorador es evidente (¿benetan?) que algo efectivo hubo de hacer por dicha evangelización, ya personalmente, como es lo más probable, ya también, por medio de sus discípulos y colaboradores (¿nola jakin?). Cuando él decía a los Romanos "fines vestra annuntiat in universo mundo", sin duda quería (¿bai?) y debía incluir (¿zer dala-ta?) en universo mundo a la España tan querida (¿olé!).

"De la fecunda y fructífera (!) labor apostólica de estos evangelizadores nos ofrecen indicios muy significativos algunos testimonios de los siglos siguientes. Tertuliano en los primeros años del siglo III habla de que estaban ya sujetos a Cristo, *Getulorum varietates et maurorum multi fines, Hispaniarum omnes termini et Galliarum diversae nationes et Britannorum inaccessa Romanis terra*". (Azpimarraketa, berea).

"Adviértase que sólo para España dice omnes termini para indicar que era la provincia en la que estaba más extendido el cristianismo, ya que era la más romanizada" (Gizona, gizona! Ez ote da berdin, *Hispaniarum omnes termini*) edo *Galliarum omnes diversae nationes* esatea?)

Ikusi dezakezunez, ez dio Iztegi espanyar onek istoriologi edo edestiztari omen aundirik egiten!

Itzal aundikoa da espanyarren artean aitzintxe irakurri dugun Zakarias García Villada edestilari inakitarra, baiñan ez zait iduritzen oraingo ontan ere zugurregi dabillenenik. Ikus:

"Contemporaneo de San Ireneo fue aquel hombre fth-reo e intransigente, cuya severidad e intemperancia le hicieron caer en el montanismo: Quinto Septimio Florente Tertuliano.

"El testimonio Irrecusable del gran polemista africano en favor de la difusión del cristianismo en España, es el que se lee en el capítulo primero de su 'Libro contra los Judíos' de la misma época. Lo que dio ocasión al Libro fue una disputa entre un cristiano y un hebreo. Tertuliano con argumentos irrefragables, acusa al judío para convencerle de que la gracia de Dios, rechazada ciega y culpablemente por el pueblo de Israel, se había refugiado entre los Gentiles. Para apretar más al adversario, enumera las regiones que habían abrazado la fe de Cristo, entre las cuales se contaban las diversas razas de Gétulos, grandes extensiones de la Mauritania, todos los confines de España Citerior y Ulterior, diversas naciones de las Galias, el Territorio de los Britanos, inaccesible a los Romanos, pero sometida a

Cristo, y los Sarmatos, los Dacios, los Germanos, los Escitas, etc. en cuyos pafses reina Cristo que ya vino (Juduek ez bait dute Kristo etorria danik sinisten).

"Se ha dicho, a fin de aminorar la fuerza de este testimonio, que todas estas expresiones son exageradas, nacidas de la fogosa y virulenta pluma de un polemista, que paso la vida en lucha con los demas, y en lucha consigo mismo; pero, aun admitiendo que pueda haber algo de exageraciOn en ellas, preciso es admitir que, para que la argumentaciOn de Tertuliano no se bambolee, es necesario que estas frases respondan a una cierta verdad ohjetiva; y siendo asf, no se debe pasar por alto la diferencia que en el parrafo se establece.

"Mientras que para las otras regiones emplea el autor palabras generales o restrictivas, de España dice que han recibido el Evangelio todos sus confines. Ahora bien, dada la cercanfa de Cartago con nuestra patria y sus mutuas relaciones comerciales (ez, orduan, ainbesterakoak) se puede sin temeridad asegurar que Tertuliano conocfa bien la cristiandad española"- (ib).

O!, euskaldunon poza, ori guztia egia ba'litz!

Guri, euskaldunoi, zer ajola lezaiguken Frantzi'ko eta Españi'ko kristautasunari-buruz Tertullano'k eta Ireneo'k esan edo esan ez zezaketenagaitik?

Ez aztu irakurle, gaurko gure Euzkadi txikia bezala, Frantzi'ren eta Españi'ren artean zegoala orduango Euskalerra zabala ere, kantauritarren mugako Atxo menditik, Auñamendia-zear Mediterrana itxasoraiño luze, eta Dordoña'ren lurretatik, bearbada, Iberi-Mendietaraiflo.

Zer esan ordea, Tertuliano'ren idazketaldi luze orretaz?

- Orokorki, Ireneo Deunaren liburuko idazti-zatiaz esan genduan gauza bera: Ez dala edesti-liburu baten zatia, teologizko batena baizik. Orregaitik, bere egitasuna, teologiaren aldetik billatu bear zaiola. Ez, edestiaren alde-tik.

Ez du, orrek, besterik gabe, Tetuliano'k eta Ireneo'k idatzia, edestia-ren aldetik ere egia izan ez daikeanik esan nai. Soilki, beren asmoa, teolog-lzko liburu bat idaztea izan zala, esan nai du: ez zala edesti liburu bat idaztea izan. Beraz utsik ez egiteko ardura teologiari dagozkion gauzetan ipiñi zutela bereiziki, eta ez edestiari dagozkionetan



- "Kristo'ren fedea mundu guztian aldaketarik gahe gordetzen zala", teologizko argumentu bezala erabili zuan gnosizaleen aurka Ireneo Doneak. Eta baita Tertuliano'k ere, oraindik Kristo etorri-zai dauden juduen aurka: "Etorri dala Kristo; Belen'en jaio zala Kristo". Eta esaten dien orren alde aipatzen dituan arrazoietakoa bat, Ireneo'k gnosizaleen aurka erabillitako arrazoi bera da: teologizko arrazoia: teologian "Tradizio Donea esan oi zaion arrazoia: "Belen'en jaiotako Kristo'ren dotriña, Idazti Doneek iragarri zuten lez, mundu guztian izan dala onartua".

Baiñan, zenbaketa, mundu guztiko Elizen zenbaketa, dialektika-arrazoi bezala ez haiña, teologizko arrazoiari indar emateko erretorikazko izkillu bezala erabili zuan Tertuliano'k. Eta baita Ireneo'k ere, naiz askoz neurri txikiagoan; berez ez bait da erretorika teologiaren **Ez dezagun aztu** gaiñera, Ireneo'ren "Erejeen Aurka" liburua, teologiaren barrutikoa aiña dala apologetikaren alorrekoa.

"Amplificatio", "anpaketa", esaten zioten garai artako erretorikariek arrazoi bati indarra emateko erabiltzen dan erretorika-joku polit orri. Eta, "hiperbole" ematen zioten izen, esaten zanari indar-emateko zenbakiak eta zenbatasunaren adierazle diran itzak anpatzeari. Ta iperbole-zale bortitza izan zitzaigun Tertuliano.

Eliz-Zenbaketa ori logikazko argumentu ez haiña erretorikazko edergaillu dala igartzeko naikoa da Tertuliano'ren zerrendari so-egitea. Eliz ezagunetako kristauekin batera aurkezten bait ditu ba, "toki eta probintzi ta ugarte ezezagunetan bizi diran kristauak". Ezaguna ez dana berriz ezin izan egiazko argumentu bezala erabillia!

Ondotxo zekian ori erretorika-zale bikaiña zan Tertuliano'k berak, eta ondotxo zekiten, baita, Tertuliano'ren liburu ark artzaille ta irakurle izan bear zituan juduek ere. Juduentzat bakarrik izan zan ba idatzia. Ortik, Tertuliano'k Kristo aipatze bakoitzean "etorria dan Kristo" esatea.

Alatagutziz, ariñegi esana derizkiot Griff'e'k España'ko kristautasun zarras esan duana: "Pour connahre les debuts de l'Eglise d'Espagne, il faut aller jusqu'au milieu du III siècle, a l'époque de la persecution de Dèce. On ne trouve auparavant qu'une allusion bien vague dans saint Irén e et dans Tertullien" (1.e.25. Azpimarraketa, nerea).

Ori ere..., ez bait da egia!

- Españi'ren (eta Frantzi'ren) aipua, ez da "une allusion", "iraizean egindako aipaketa bat". Alderantziz, zentzu osoz eta ongi naita eta zer egiten zan ederki oartzuz egindako aipua da.

- Ez da, "une allusion bien vague", batez ere Tertuliano'rena. Españi'-ri dagokionez bezala Frantzi'ri dagokionez ere zertzelada borobillak ematen bait ditu

- Bai Ireneo, eta bai Tertuliano, ez dira edozein II mendeko idazle eta eliz-gizon jakintsuen artean; arras gizon aundiak baizik, bai bata eta bai bestea, naiz bere erara bakoitza.

- Ireneo, asko ibillitako gizona, sortaldetarra zan jatorriz. Esmirna'n jaioa seguruaski eta an, berak esaten duan lez, Donibane Ebangelaria eza-gutu zuan Polikarpo Donearen ikasle izana. Gazterik etorri zan -- mixiolari -- Galietara. Oraindik apaiz besterik ez zala bidali zuten -- ordezkari -- Aitasantuarengana Lyon'go kristauek. Ta Lyon'go gotzai egiña izanda gero ere aolkulari bikaiña izan zuan Aitasantuak.

Ireneo izan zan, Aitasantu au pazko-jaia zer egunez ospatutzeari-buruz gogorregi ibiltzetik atzeratuz Sortaldearen zati eder bat zismara erortzetik salbatu zuana. Alakoa bait zan Eliz osoak eta Aitasantuek beraiek Ireneo'ri zioten eraspina.

Jakintsua, Eliz orokorrari-buruzko arduraz betetako egizale tinkoa, berdiñik gabeko testigu edo lekukoa dugu Donireneo Lyon'go gotzaia, bere Galietan eta bere Galiekin muga egiten zuten Ispanietan II mendeko Elizaren egoera jakiteko.

Naiz iraduz esan, alare, esan bearra dugu, Griffen'k berak -- sarri aipatu oi dugun bere liburuaren beste atal batean -- ontzat artzen duala Ireneo'ren esaldi guzti ura: "Le même Saint Irénée nous apprend que des évêques (azpimarraketa berea) avaient été fondés jusque dans la Germanie" ("La Gaule Chrétienne". op.c. I,405).

Euskeraz: "Ireneo Doneak berak erakusten digu Germani'ren barruan ere Elizak sortu zirela".

Ederki, Griffen Jauna. Zu, gaur Frantzi'ko eliz-edestilarien artean onenetakoa zera, onena ere zu zerori ez ba'zera. Baiñan, Ireneo'k dioskunak Germani oraindik "barbaru" noiznai-arerio-biurt'errezarentzat balio baldin ba'du, ez al dezake balio, Kris'aurreko I mendeaz gero ain erromarturik eta konfiantza-osoko-adiskide-biurturik zegoan Euskalerrri Zabal - Tertuliano, berriz..., -- nork ez du noizbait Tertuliano'ren izenik entzun? --,

izugarri kultur aundiko gizona, bere mende osoko idazlerik onena izan zan lateraz. Ez jentillek izan zuten ez kristauok izan genduan latindarren artean ura bezalako lurnalaririk. Naiz Kartago'ko abogadu yayoa, ala-olako gaztaro baten ondorean kristau egin zanez gero, mundu ontako auziak ez baiña Elizaren arazoak izan zituan bere ardurarik beroenen gai.

Maite zuan Eliza, naiz azkenean setakeriz erejira jausi. Ainzuzen, bere Eliz maitearentzat eskatzen zuan geiegizko garbitasunaren erruz, jausi zan Montanitarren ereji latzera. Elizaren araztasuna izan zan ba bere leiarik aundiena, eta, Elizaren garbitasun ori zaintzearren, mundu guztiko Elizari begira egon zitzagun adi. Ezin ukatu lezaiokie iñork Españi eta Frantzi'ko kristautasunaren ezaguera.

Bi gizon aundi oiek Frantzi'ko eta Españi'ko kristautasunaz esanda-koari-buruz, nere iritzia zer dan?:

Ireneo ta Tertuliano'ren esaldi aiek ez dirala erabateko arrazoiak bi lurralde oietako kristautasunaren alde, edesti ziur bat egiteko idatziak izan ziran liburuetan aurkitzen ez diralako;

Baiñan, alatagutziz, balio aundikoak bai, badirala. Ireneo donea bezain gizon zugarri eta gauzak ongi neurtu ta mugatzearen zale batek ez bait zuan Españi'ko ta Frantzi'ko kristautasunik aipatuko, Españi'n kristautasuna pizturik zegoala eta pizturik baiño geiago aski azirik ere bazegoala jakin izan ez ba'lu. Frantzi'ri dagokionez, berriz..., nola ez jakin Ireneo'k ango kristautasunaren egoera? Bera zan-da kristaudi artako buruzagirik aundiena!

Gauza bera esan bear da Tetuliano'z. Ez zituan onek ere Españi ta Frantzi alako xeetasunekin aipatuko Españi'n eta Frantzi'n kristautasuna ongi errotua zegoala jakin ez ba'lu.

Xeetasunak anpatuegiak dira, ziurki, ez bait dugu alperrik Tertuliano, elertian izandako erretorikalaririk aundienetako bat.

Guzti orren ondorioa?

Auxe:

11 mendeko Frantzi'n eta Españi'n kristautasuna aski bizkor zebillela; eta, ori, kezka aundirik gabe esan daitekean gauza dala. "Milla berreunera" izango litzake gure pelotalekuetan aitopen orren aldeko dirua.

Orrek ordea ez du esan nai, oraindik Frantzi'n eta Españi'n jenderik geiena jentilla ez zanik. Soilki, idatzi duguna esan nai du: bi errialde aundi oietan kristautasuna bazala, eta aski bizkor zebillela.




Fig. 9. Estelas con decoraci3n cruciforme (San Padre ce Elorriaga, Vizcaya).  
 (Segun J. M. UGARTECHEA, 1962)

\*

- Euskalerrari-buruz ordea zer esan genezake?

Atal onen asieran II mendeko kristauak, Europa'n, danak sortaldetarrak zirala esan dugu, jatorrizko europar gutxi batzuk izan ezik. Eta gutxi oiek, esandakoaren egitasuna sendotzen zuten salbuespenak zirala.

Ori ordea, Europa'ko Elizaren sorkaldetasun orokor ori, dokumentu utsetako albistea dugu, eta Ireneo'k berak, eta bereala ikusiko dugun lez baita Tertuliano'k eta Eusebio'k ere adieraztera ematen digutenez, 11 mendearen erdiaz gero aldatzen asia zala dirudi, eta ordurako ari zirala sarkaldetarrak ere, ugari, Elizaren altzora sartzen.

Orregaitik, ez zaitez arritu, sortaldetarrez osotutako Eliz bateko gotzai sortaldetar batek, Ireneo Doneak, sortaldetarrak ez baiña Keltiarrak ziran Galietako kristauak aipatzen ba<sup>s</sup> dizkigu. Eta, Iberi edo Espafirri-buruz, sortaldetarrak ez baiño Iberitarrak ziran Españi'ko kristaue<sup>t</sup>az mintzatzen ba'zaigu.

Ta Gotzai santu, jakintsu ta erne arek bazekian noski Eliza nola zegoan Españi'n; eta zer esanik ez, nola zegoan Galietan.

Frantzi'ren eta Españi'ren artean, Euskalerrria zegoan. Baiñan ireneo'k ez du Euskaldunik aipatzen: Keltiarrak iparreak eta Iberitarrak egoan: Bi oien artean ezer ez ba'lego bezala.

Eta ortan dago, bearbada, euskaldunak aipatu gabe uzte orren azalpena: Ireneo'ren buruan, Ireneo'k ori idatzi zuanean, Keltiarren eta Iberitarren artean ezer ez egote ortan ainzuzen. "Keltzia", edo "Galia", Auñamenditik iparralderako lurralde guztiari esaten bait zion Ireneo'k, orduango idazle danek bezala, eta "Hiberia" edo "Hispania", Auñamenditik egoalderuntz zegoan lurralde osoari.

Orixe bera egiten bait zuan orduango idazle orok, Euskalerrriko jendetza, Baskioiak adibidez, edo Akitaniarrak edo Ueszitarrak, bereiziki beraue<sup>t</sup>az ari ziranean bakarrik aipatzen zituzten idazle zar aiek.

Ziur nago, orrela pentsatzen zuala Ireneo'k lerro oiek idazterakoan, eta bete-bete<sup>n</sup> arrazoi ematera datorkidala Tertuliano ere, kristautasunak "Hispaniarum omnes termini et Galliarum omnes nationes", ots, "Ispanietako zoko guztiak, eta Galietako nazio danak" irabazi zituala idatzi zuanean, Auñamendiren bi aldetako jende ta errialde guztiak bait zeuzkan buruan.




Fig. 8. Estela de S. Pedro de Abrisketa (Arrigorriaga, Vizcaya). (Escala aprox. 1:10).

Arri idatzien irudi danak, Azkarate Garai-Olaun'en liburutik artuak

Ispanietako baztar guztiak, oiur dagi Tertuliano'k. Ispanietako baztar bat zan, berriz, Euskalerrria. Ez gaiñera txikia! Berdin Galietan: Tertuliano'k oroitzen dizkigun Gaiietako "nazio" aietako bat bait zan Euskalerrria. Eta, ez noski, ez orixe, naziorik txikiena.

Jakiña, Tertuliano'k ez du esan nai Ispanietako baztar guztietako jende guztia, eta baztar oiekin batera, Ispanietako baztarrrik aundienetakoa zan Euskalerrriko jende guztia eta Galietako nazioetan, eta nazio oien artean naziorik aundienetakoa zan Euskalerrrian bizi ziran jende danak kristauak ziranik. Erretorika-joku ori ederki ulertzen zioten irakurle guztiek. Baita liburu aren artzaille izan bear zuten juduek ere. Baiñan danek zekiten erretorika orren barrungo muiña egiazko mezu bat zala.

Tertuliano, izen aundiko abogadua, erretorikalari txit yayoa zan. Idazten ari zan liburua berriz apologi-liburu bat zuan. Ez zan teologi utsezko liburua. Teologia jakintza "garbia" dugu, zientzi utsa. Bere elburua, soilki, egia zintzo billatzea eta aurkitutako egia aratz ematea da. Teologia, nean gizakumeen adimenari mintzatzen zaio. Erretorikak ez du orrelako zientzi utsezko liburu batean zer egiñik.

Beste erabatekoa dugu apologetika. Apologiaren elburua bikoitza da: Egia billatzea, bai noski, baiña batez ere, egi orren etsaiei, egi ori egitzat arrezte. Adimenari eta naimenari mintzatzen zaie apologetika. Orregaitik erretorika, oso izkillu egokia izan lezaioke apologilariari.

Erretorika ez da gezurra. Ez daiteke gezurra izan ere! Naiz sedaz jantzi, tximua beti tximu agertzen dan bezala, gezurra ere gezur agertzen bait da beti, naiz erretorikaren edergaillu oroz apaindu. Ori bazekian Tertuliano'k beste iñork baiño obeki. Bazekian, ori bazekitela juduek ere, eta orregaitik arreta aundiz ibilli bearra zuala, naiz Tertuliano'k, gezurretik iges egiteko, bere egiaganako maitasun zindo soilla naiko eragille eraginkor izan.

\* \* \*

EZER pentsa Ireneo'k eta Tertuliano'k eman diguten lekukotzari-buruz?

- Egia dala, ez zirala ez bata ez bestea edestia idazten aritu. Apologia idazten aritu zirala.

- Ori ordea bi gizon aundi aiek esandakoaren egitasunaren alde datorela. Beste iñorentzat baiño garrantzi geiagokoa bait da apologilariarentzat

gezur-itxura dezakean orotik iges egitea. Edestilariak zerbait esateko idazten du. Apologilariak alderantziz, ez soilki zerbait esateko bakarrik, baizik eta zerbait ori egia lez aldarrikatzeko, eta zerbait orren etsaiak diranei, zerbait ori egiazkotzat on-arrerazteko. Ez daiteke, beraz, neurritik kanpo ezertan ibilli. Uts batean arrapatua izatea, naiko aitzaki bait lukete etsaiek, berenez ere, ark diona ez-onartu-naiean aurkitzen diran etsaiek ark esan dezaiekan guztiari, pozik uko egin aal izateko.

Alare, lain zeastasun-ororen-gaindikoa da, bi gizon onuragarri aien izkera...! eta II mendea ere ain goiztarra bait da kristautasunaren etorreraz mintzatzeko...! ez dut uste esan zutena oiñarriztat artuta ordurako Euskalerrian kristautasuna erroturik zegoala esan daitekeanik.

¿Orrek gure pelotalekuetan zer diru egingo Zukean? Milla euni, ezezkoaren alde.

Alare, bi gizon bikain aiei zor zaien eraspenean oiñak ipiñiz, sartuko nintzake ni beetik baiezkoaren alde. Baiñan baldintza bikoitz bat ipiñiz. Eta ona emen nere baldintz ori:

- Ziur <sup>P</sup>agola Euskalerrian ez zala oraindik /I mendearen azkenaldera kristau-kopuru mardulik, baiñan Euskalerra Zar Zabal ura, bai galieta eta bai Ispanietan naziorik aundienetakoa zalako, baita agian aundiena ere, bi gizon aien esaria kontuan artuz, ziur uste dutela, gure orduango Aberri zabal artan an-emen kristauak bazirala, kezka aundiegirik gabe esan dezakegun gauza dala.

Euskalerra Zar Edatsu artako kristau aiek, ez zirala, une artan, Sarkaldeko beste naziorik geienetako kristauak baiño urriagoak izango.

Alare, esan dezadan, iñor iruzurpera jausi ez dadin, ori dana nere aburu bat besterik ez dala.



## ZESAREA'KO EUSEBIO'REN LERRO BATZUK

Badugu ordea beste idazle bat ere II mendeko Eliz galitarretaz mintzatu zitzaiguna. Au, bereiziki edestilaria gaiñera, eta nolako edestilaria! Elizak izan duan onenetakoa eta zintzoenetako edestiko gertakizunak aztertzerakoan eta gertakizun oiek era zutenean ematerakoan: Eusebius Pamphili, sortaldetarra, III mendearen erdialdera, 260'garren urtetik 264'garrenera bitarteko epean, Palestina'n seguruaski, eta bearbada Zesarea'n jaioa. Uri ontako gotzai izan zan. Orregaitik bere izenik ezagutuena, "Zesarea'ko Eusebio" izan du mendeak-zear.

Kostantino inperatorearen adiskide eta rñiresle aundia izan zan. Oridalata, ez dute inperatore ortaz idatzi zituan gauzak artaraiñeko sinispenik merezi. Baiña berak ukitutako beste gai guztiei dagokienez, edestilari gutxi izango dira Eusebio bezain fidagarriak.

Teologilari yayoa, batez ere edestilari bezala da ezagutua. Guk jasoko dizkiogun albistek, ainzuzen bere edesti-liburu batetik artuak izango dira. Eta, ez, Ireneo'ren eta Tertuliano'renak bezalako teologi ala apologi-liburuetatik, Eusebio'ren edesti-libururik garrantzitsuenetik baizik; bere "ELIZ-EDESTIA deritzanatik.

Orra liburu ortan gure Eusebio, Ireneo'ri eta Tetuliano'ri arrazoi ematera datorkigu, II mendean zismarako arrisku larria sortu zezakean arazo batez Pazko-Egunariéburuzko arazoan ainzuzen mintzatzan zai-gunean, II mende artako Galietan kristau-taldeak bazirala esaten bait digu. Ikus nola:

Pazko-Egunaren arazo orrek kristaudi guztia nasi zuan, eta Ireneo Doneak Biktore Aitasantu Donea baretu zualako ez zuan Sortaldeko Eliz batzuetan zismarik eragin. Eliz aietan, oitura oien araura, egun ezberdiñetan ospatzen bait zan Josu'ren berbizkundera. Erroma'n igandez beti. Baiña ez ala Sortaldeko Eliz batzuetan.

189'an afrikar bat izan zan Aitasantu egiña, I Bitor, eta Aitasantu onek Eliza-baitako pakea urratu zezakean auzi ari amaia ematea erabaki zuan, ortarako Eliz-Probintzietan sinodoak egiteko aginduz.

Palestina'n egindakoaz mintzatzerakoan aipatzen dizkigu Eusebio'k Galietako kristau-taldeak. "Parrokiak" esaten du berak: "parece" eleneraz. Parroki utsak? Gotzai-ta-guzti benetako Elizak?

Parroki utsak, Griffe'ren ustez. Bainan ez dirudi Eusebio'k zentzu ori ematen dienik. Entzun dezaiozun berari':

Kristaudian nola sinodo eta batzar asko egin zirala esan ondorean, "omnes convenerunt" -- dio --, "danek bat egin zutela" pazko-eguna igandez ospatzeari-buruz, eta "gutun bereizien bidez adierazi nai izan ziotela kristaudiari beren iritzi ori": "universis fidelibus per epistolas tradiderunt".

"Exstat etiamnum epistola sacerdotum, qui tunc in Palaestina congregati sunt: quibus praesidebant Theophilus Caesareae Palaestinae, et Narcissus Hierosolymorum episcopus"...

"Gurekin dugu oraindik Palestin'ako Zesarea'ko eta Narziso Jeruslen'go gotzaiaren lendakaritzapean Palestina'n batzartu ziran gotzaien eskutitza"

Aurrera jarraitu aurretik, esan dezadan eleneratik laterarako itzulpen au 1.857'an Henricus Valerius zeritzan edestilari batek egin zuala. Eusebio'ren esaldi ori itzultzerakoan ordea, Eusebio'ren itz bat, nola itzuli ez zekialako, aipatu gabe utzi digu: len esan dugun "parroikfa" itza. Onela mintzatu bait zan esaldi ortan Eusebio: "Zeofilos tes en Kaisereia parroikfas episcopus" kai Narkissos tes en Ierosolumois".

Balerio'k ez zekian "parroki" oiek "Eliz" ala "parroki" itzuli eta ixilean utzi ditu. Velasco'k ordea "Eliz" egin ditu, eta onela eman digu esaldi guztia

"Todavfa se conserva hasta hoy un escrito de los que se reunieron en Palestina; los presidieron Teofilo obispo de la iglesia de Cesarea, y Narciso, de la de Jerusalën. También sobre el mismo punto se conserva otro

---

<sup>15</sup> "Hist. Eccl." V, 23, 3; V, 24, 9-13. Eusebio'k jakiña, eleneraz idatzi zuan. Nik Migne'ren "Patrologia Greea" erabilli dut Eusebio'ren lanak eleneraz eta lateraz dakarzkialako. Bada, baitare, eleneraz eta gazteleraz Argimiro Velasco'k argitaratutako liburu bat ere bi tomotan.

escrito de los reunidos en Roma que muestra a Victor como obispo; y tambi&I otro de los obispos de Ponto a los que presidfa Palmas, que era ei rnas antiguo, y otro de las iglesias de Galia, de las que era obispo Ireneo" (l.c. I, 330 or.).

Ireneo'ri dagokion aipu ori onela egiten du Eusebio'k berak: "Artu zan gutun bat "baita Ilario'k zuzentzen dituan Gali'ko parrokiatik": "kai ton kata Galiian de parroiki6n, as Eirenaios epeskopei": "Epistola quoque Ecclesiarum Galliae exstat quibus praeerat Irenaeus (Valerius). Berealaxe (V. 24, II) Galietatiko gutun ura aipatzen digu: Arazo ontan esku izan zuten gotzaien artean "Galletako anaien izenean Ireneo'k idatzitako eskutitza dago, bera bait zan aien zuzendari": "cuyo jefe era" (Velasco); "quibus paerat" (Valerius), "prosöpuu .fin "šgeito".

Eta orain, ona emen guretzat egiazko garrantzi duan galdea: Eusebio'k esaldi *guzi* ortan "parroki" itza darabilki. Parroki oiek zer ziran? Parroki utsak? Orduango mintzatzeko eran Elizak? ipaurko gure mintzatzeko eran Elizbarrutiak?

Ikusi dugunez, Valerius ez da ausartu galde orri erantzun hat ematera, eta aipatu gabe utzi du Eusebio'ren itza: "paroikfas". Alare azkeneko lerroan Eliz biurtu du "parroikfai" itza: "Galliae Ecclesias quibus praeerat Irenaeus". VeIasco'k "Eliza" biurtu digu beti. Berdin Griff'e'k, (l.c. 68 or.): "Les eglises de Gaule., dont le'veque etait Ir&t&": "Gall'ko elizak: Ireneo zan aien gotzaia". (Ireneo'k ez du ori esaten).

Bafan, bereala, "eliza" eta "parroki" itzak errez alkar aldatzen zirala diosku, biak maiz zentzu berean erabiltzen ziralako, eta esaldi ortan Eusebio'k itz orri ematen dion zentzuan, Galietako parrokiak egiazko parrokiak zirala, presbitero edo bereter batek zuzendutako kristau-taldeak.

Beraz, Ireneo zala Galietako gotzai bakarra. Parroki aiek danak berak zaintzen zituala Lyond.i'k, *Ortiz*, Galietako lurralde gutzia elizbarruti bat hakarra zan: 1...yon'go elizbaarutia.

Baiñan ez dirudi Eusebio'k orrela pentsatzen zuanik, bere lurnaren bitartea damaigun dokumentu ontako itzei beti halio bat bera ematen ba'-diegu:

Esaldiaren lenen lerroetan aipatzen dituan "parrokiak", Zesarea'ko "parrokia" eta Jerusaletfgoa, egiazko Elizak ziran gotzai-ta-guzti. Ala, "parroki" aietako buruzagiak, Teotilo eta Narziso, egiazko gotzaiak ziran.

- "Gotzai" esaten die Itxas Beltza'ren egoan aurkitzen zan Ponto zeritzan probintziko sinodoan bildu zirane. Aien "parrokiak", beraz, egiazko Elizak ziran.

Gali guztia Lyon'go elizbarruti izan ba'litz, eta alako elizbarruti tantai artako gotzai bakarra Ireneo izan ba'litz, "Ireneo Lyon'go parrokioko gotzaia" idatziko zuan Eusebio'k.

Eusebio'k esaldi oietan bi aldiz aipatzen du Ireneo. Ez dio beñere Galietako "parrokien" gotzai esaten. Ireneo'z mintzatzerakoan aditz bat darabilki bi aldi oietan; ez, beñere, izen bat. Ona bi aditz oiek: "epeskopei" eta "ágeito": "pros8pon Ôn 4eito".

Epeskopei aditza, nere asmakizun zatar au barkatzen basdidazute, "gotzaitu" biurtu genezake. Kontuz ordea! Ez gaitezen iruzurtu! "Gotzaitu" aditzak, gaur, "gotzaitza egitea" esan nai du. Eusebio'k idatzi zuan garai artan ordea, "begiztatu" esan nai zuan, "episkopos" itzak "inspektore" esan nai bait zuan.

Bigarren aditza, barka'eidazute bigarren enaskeri baldar au "ien-dakaritzatu" biurtu dezakegu euskerara. "Lendakaritzen zituan anaien izenean idatzi zuan Ireneo'k eskutitza" izango litzake Eusebio'ren lerroaren euskerakuntza.

Bi aditz oien zentzuak aurkezten digun bidetik joz, Lez al dezakegu Ireneo Lyon'go gotzaia Galietako Metropolita izan zala pentsatu?

- Oroi, gaiñera, bere anaien izenean idatzi zuala Irenw'k eskutitz ura, Eusebio'k argi-argi esaten digunez. Oroi Eusebio gotzaia zala, eta gotzai bezala, kristau soillei baiño geiago, bereiziki beste gotzaiei ematen ziela "anai" izena, orduango gotzai danek oiturazko zuten lez.

Ortaz, esan genezakegula dirudi:

- Galietan Lyon'goaz gaiñera beste gotzai batzuk ere bazirala II mendearen azken-aldera;

- Aien metropolita edo goigotzaia Ireneo Lyon'go gotzaia zala;

Eusebio'k aipatzen dituan Galietako "parroki" aiek egiazko Elizak zirala, beren gotzai-ta-guzti.

- Ori orrela dala sinistu aal izateko eragozpen bat besterik ez zaigu begien aurrera jeikitzen: Dokumentuek ez dutela II mende guztian, Galietarako, Lyon'go gotzaia besterik ematen.

- Ekar dezagun ordea gogora, dokumentuak esaten dutena egia dala, egiazko dokumentu fidagarriak ba'dira, baiñan dokumentuek ez dutela egi

guztia esaten. Batez ere, lenen mende aietako kristaudiaren sarkaldean gauza asko ta asko gertatu zirala, naiz dokumentuetan azaldu ez. Izugarri gutxi bait dira antziñate artako Kristaudiaren Sarkaldetik gure eskuetara iritxi zaizkigun dokumentuak. Izugarriki gutxi!!!

Orregaitik, ez dezagun aantzi logikak baduala zeregin galantik aro artako Eliz europarraren ibillera argitzerakoan eta logikaren araura,

Tertuliano'k, eta Eusebio'k esan zigutena eraspén aundiz kontuan artzera bearturik gaudela. Len ere esan dut ori, baionan esango dut berriz ere. Garrantzi aundiko punttua bait da.

## ANTZIÑA ARTAN EUSKERAZ ESANDAKO AITAGURERIK BAI?

Asi dezadan atal au oldozkera onen bidez:

I: Bai Ireneo'k eta bai Tertuliano'k Ispani eta Gali seriotasun osoz aipatzen dituztelako...

2: Euskalerrria bi Iurralde aien tartean aurkitzen zalako...

3: Bi Iurralde aien tartean egoteaz gaiñera, bi Iurralde aien barruan,

Orduango Ego-Euskalerrri Zar ura Ispanietako "omnes Iimites" edo "bazar guztien" kopuruan "limes", edo "bazar" aundia zalako...,

Eta Orduango Ipar-Euskalerrri Zar ura Galietako "omnes nationes" edo "nazio guzti" aiek osotzen zuten sortan naziorik aundienetakoa zalako...

4: Eta, orrela, Ego ta Ipar Euskalerrrian erri bat beraren bi zati besterik ez ziralarik EUSKALERRIA orduango Europa'ren Sarkaldeko enda bat bereko ERRIRIK aundiena edo beintzat aundienetakoa zalako...,

5: Eta, Inperio Iurreko zazpi bidezabalik nagusienak Euskalerrrian zeudelako...,

7: Eta garai artako euskaldunak iñor martiri egin zaleak ez ziralako...,

8: Eta euskaldunak orduan inguru guztiarekin pakean bizi ziralako...,

9: Eta pake-giro artan kanpotiko gogoeta berriek orduango Euskalerrri Zar aren muga danetako sarrerak eta era berean baita euskaldun beraien biotzetako atek ere zabalik zeuzkatelako...,

10: Eta, indeuoparren erlijioa lendabizi, eta erromatarren jainkugari-keria gero ta priszilikeria geroxeago lekuko ditugularik, euskaldun aiek kanpotiko gogoeta berriak errez artzen zituztela badakigulako...,

11: Nik, ez noski kezka aundirik gabe, iesango nukela 11 mendearen azkena-aurretik Euskalerrri Zabal artara, naiz tantokaétantoka, kristautasuna sartzen asia zalal Eta Euskalerrrian. Euskalerrri Zabal artan. Kristo'ri, beren etxeen barruan. Euskeraz otoi egiten zioten Euskaldunak bazirala... ez asko, ez baiñan alatagutziz bazirala satera usartuko nintzakeala.

12: Kristo'ri euskeraz otoi egiten zioten euskaldunak, naiz oso gutxi izan, agian guk uste baiño geiago izan zitezkeala, bearbada, ain eromarturik zegoan Euskalerrri Zabal artako urietan...

(Diodan guzti ori, irakurle, ez duzu dokumentuetan erkier oiñarrituta-ko egi ziurra; garai artako kristautasunak, arian-arian ikusiko dugunez, Sarkaldean ez bait zigun apika dokumenturik utzi. Orregaitik, esandako guzia, nere ustea besterik ez duzu: logika ausardi geiegirekin noski --erabailliz eraturako *aburu bat beterik ez duzu*).

13: Eta esango nizuke, baita, onako beste au ere: Naiz ugari ez, Euskalerrriko landa ta aranetako errixka, baserri eta bordetan, Kristo'ri euskeraz otoi egiten zionik ba'zala bat baiño geiago, eragozpen aski larri batek bildurtuko ez ha'nindu.

Eragozpen ori II mendeko Elizaren izaeratik datorkit. Orduango Eliza ez zegoan mundua-zear gaurkoa bezala eraturua. Gaur, elizbarrutiko uririk nagusienean bizi da gotzaia, eta elizbarrutiko erri guztiek "parroki" biurturik daude eta badu bakoitzak bere apaiz parrokoa. Antolaketa ori ordea IV mendeaz gerokoa da. Len, orrelakorik ez zan.

Kristautasuna, soilki urietako erlijio zan. Gotzaia, lurralde bateko uririk aundienean bizi zan, eta berarekin batera bere apaiz, diakono, eta gaiñerako elizgizon eta kristau guztiak. Uri aundi aietan, aski talde txiki bat osotzen zuten oraindik kristauek urikide jentillen artean. Gotzaiaren zaintzapeko talde txiki orri esaten zioten Eliza. Adibidez, Errroma'ko Eliza, Lyon'go Eliza, Korinto'ko Eliza...

Urietatik at, kristaurik ez zan; landak eta mendiak jentillak ziran oro, baita urietan kristautasunak alako indarra zuan Sortaldean ere. Ez bait zuan

oraindik Elizak lur irikietako ebangelizaketa indar eta kemen osoz asi aal izateko astirik izan. Ezta egokitasunik ere Inperatoreen aldetiko **eta erri** lander jentillaren aldetiko -- zigorkera ikaragarri aien erruz. Izan ere, Kristau izena utsa eriotzez zigortua zegoalarik, nola lur irikietan kristautasuna oiukatzen asi? Naitanaiez izan bear zuan kristautasunak uri aundi-xamarrren barruan, gotzai baten inguruan izkutuan edo erdi-izlcutuan bildutako taldetxo baten erlijioa.

Ortik nere kezka, -- eta kezka onek berdin balio du Esparii'rentzat eta Frantzi'rentzat ere Lyon'dik eta, agian, Lyon'en itzala zan **Biena'tik** kanpo, ez bait dugu II mendeko gotzai-urien ezaguerarik bi lurralde aundi aietan eta bien artean zegoan gure Euskalerrri zabal artan,

Eta, antziñate artan batez ere II eta III mende aietan gotzairik gabe, kristautasunik ez!

Itxuraz, Euskalerrrian, ebangelizaketarako, Elizak alako arriskurik ez zuala?

Bai; badakit Euskaturian ez zala sekulan kristautasunaren aurkako zigorketarik izan. Elizak, Euskalerrrian, euskaldunek zgortutako martiririk ez bait du!

Gaiñera... gaiñera... ain bene-benetan mintzatzen dira Ireneo ta Tertuliano, Ispanietako eta Galietako kristautasunaren sendotasunaz...!

Ireneo'k gaiñera, ezbaiketarako zirriku guztiak itxiz, Galietako eta Ispanietako **iELIZAK!** aipatzen dizkigu: "Neque hae quae in Germanis sunt fundatae Ecclesiae aliter credunt aut aliter tradunt, neque hae quae in Hiberis sunt, neque hae quae in Celtis, neque hae quae in Oriente, neque hae quae in Aegypto, neque hae quae in Libia sunt"<sup>o</sup>: "Germani'n sortutako Elizak ez dute beste era batera sinisten eta erakusten. Ezta Iberitarren eta Keltiarren artean eta Sortaldean Ejito'n eta Librn dauttenek ere".

Argi mintzatzen zaigu Donireneo: II mendeko azken-aldera, Elizak badira, ots, gotzai-urriak beren gotzai ta guzti badira Ispanietan. Bat baiño geiago gaiñera, Ireneo'ren idazkeraren zentzuak adierazten duanez. Eta Eliz oiek, "Iberitarrez" osotuak dira. Berdin Galietan: Badira, an ere, eta bat baiño geiago gaiñera, "Keltiarrez", ots, galitarrez osotutako Elizak.

Esan dedana ziurragotzeko, oroi dezagun Gali eta Ispani'rekin batera Ireneo'k aipatzen dituan beste lurralde aietako Elizak, egiazko Elizak zirala Libi'n eta Ejito'n, gotzai baten inguruan bildutako kristauez osotuak.

Baiñan, "quae in Germanis fundatae sunt Ecclesiae" aiek, ots, "Germaniarren artean irasitako Eliz" aiek ere, egiazko Elizak ote ziran, ots, Gotzai baten inguruan bizi ziran kristau-taldeak? AIda batetik, ezetz dirudi. Beste alde batetik ordea, "gotzairik gabeko kristau talderik" ez zan II eta III mende aietako kristaudian. Askoz gutxiago "Eliz" izena merezi zezakean talderik!

Ireneo'k ordea "Elizak" esaten die ago betez, aipatzen dituan kristau-talde guzti aiei.

Alperrik ibilliko zera dokumentuen bidetik Ispanietan edo Galietan edo Germani'n Rin ibaieko urietan garai artako gotzai baten billa. Dokumentu utsei sinistekotan, II mende guztian ez zan Ispani osoan kristau bat bakarrik izan! Ezta Galia guztietan ere, Lyon'go eta Biena'ko sortaldetar aiek izan ezik.

Zer pentsa? Gezurra esan zuala Ireneo Doneak? Edota, Ispanietako eta bere Galietako kristautasunaren egoerari-buruz deus ez zekiala Ireneo elizgizon jakintsuak?

Ez ote logikaren araudien bidetik zurragoa izango, Ireneo Doneak gogoerazten dizkigun Elizetako kristauen buruzagi aiek beren izenak dokumentuetan utzi gabe il zitzaizkigula uste izatea?

Osoki logikaren arauekin zerao bat datorrela dirudi, beraz, II mendearren bigarren erdian Ispanietan eta Galietan gotzaiak izan zirela uste izatea.

Ta... Euskalerrian? Ispanietako zatirik zabalenetakoa eta Galietan naziorik aundienetakoa zan Euskalerrian...zer?

Bai ote ziran gotzaiak Baskoien uririk ederrenetakoa zan Kalagurri'n, eta Baskoi beroien urinagusi zan Iruña'n? Ala, Akitani zar euskaldunaren erdi-erdian zegoan eta laister Akitani euskaldun artako kristaudiaren "metropoli" edo goigotzai-uri izanen dan Elusa'n? Euskalerrian zeuden, Auñamendiren iparraldeko maidetatik aruntz, erromatarrek "Konbene" ta "Konzorani" izendatu zituzten uriak. Konbnerri'koa da Galietan eta Ispanietan aurkitutako Basilikarik zarrena. Angoa baitare, Ispanietako eta Galietako parrokorik zarrena. Naiz gauza oiek gerroxagokoak izan, II mendean ez ote zuan Konbenerriak gotzairik?

Naiz erromatarrek Galietako probintziak eratzerakoan Akitani zarretik at utzi, Bordele, Tolosa eta Agino, Garona ibaiaren ertzean zeuden eta Akitaniarrak ziran jatorriz. Euskaldun jarraitzen ote zuten? Bai Agino'k agian. Bordele ta Tolosa, seguruaski, XVIII mendeko Iruña ta Gazteiz bezalakoak



izango ziran antziñako mende aietan: Alde guztietatik euskaldunetz inguratuak eta beren karriketan ere euskaldunetz aski bazutenak. Bai ote zuten gotzairik?

Ta, Zaragoza'k? Ez zan sekulan, bera, euskalduna izan, Baiñan, bai sarkaldetik eta bai iparraldetik, gainégaiñean zeukan garai artan euskaldun-jendea. Bazuan, Zaragoza'k izen euskaldun bat ere: Zalduba edo Salduba. Ikerlarien ustez Keltiarra edo Keltibertarra omen da izen ori. Baiñan euskeraz zentzu osoa duan izen baten zentzua billatzeko, oraindik bizirik diraun euskera baztarrean utzita, aspaldi galdu ziran eta aski gaizki ezagunak ditugun izkuntzetara zergaitik jo?

Tarragona? Ilergeta euskaldunetatik ez zegoan ain urruti Ispanietako Probintziarik aundienaren uriburua zan Tarragona.

Bi uri aundi aukeratu ere, Zaragoza'k eta Tarragona'k ez ote zuten gotzairik izan II mendearen azkenalde artan?

Soilki dokumentuak artzen ba'ditugu egi-iturri, ez, III mendearen erdikoak bait dira uri oietarako dokumentuek damaizkiguten lenen gotzairik izenak: Iondoni Satordi Toiosa'rako, Iondoni Murtuts Tarragona'rako. Iondoni Murtuts, Tarragona'ko Fruktuoso Doneari esan zioten euskaldunetz; eta Tolosa'ko Saturnino'ri, berriz, Iondoni Satordi edo Saturdi; eta orrela esaten diete oraindik ere gure iparraldean.

Dokumentuen bidetik itxirik ditugu noski ataka guztiak. Baiñan logikaren bidetik sartuz, eta Ireneo ta Tertuliano'ren aipuak bide-rnakiItzat artuz, batere bildurrik gabe esango nizuke, *seguruaski* II mendearen azkenalde, edo Tolosa'n, edo Bordele'n, edo Zaragoza'n edo Tarragona'n gotzairik izan zala, eta, orregaitik, Euskalerrri zabal aren ertzetako euskaldunetz kristau izateko ez zutela gotzairik-faltarik izan.

Ori guztia, dokumentuen gaindik naitanaiezko jauziak egiñez esana bedi, utsune aundiak bait dituzte dokumentuak. Adibidez, III mendearen erdian Iondoni Murtuts aipatuta gero, IV mendearen azkeneraiño ez bait dute Tarragona'rako beste gotzairik aipatzen. Sinistekoa al da orrelako tarte izugarri orren luzaro osoan Tarragona, Ispanietako uririk aundiena, gotzairik gabe egon zala? Logika zapalduz ibilliko litzake ori sinistuko lukeana.

Tolosa'n Iondoni Satordi eta Tarragona'n Iondoni Murtuts III mendearen erdian gotzairik zizala, ziurki dakigu. Anitz sinisgarria iruditzen zait Zaragoza'k ere bere gotzairik izatea. 274'ko Felix'ek, bera agian bertako gotzairik ez ba'zan ere, kristaudi sendo baten ordezkari beintzat bazala bait dirudi.

Dokumentuetako orrietan, beranduago, IV mendean, agertzen zaizkigu Agiño (Agen), Bordele, ala Narbona' ko gotzaiak. Orrek ordea ez du esan nai ez zala uri aietan leenago gotzairik izan. Soilki, dokumentuetan uri aietako gotzairik ez zaigula agertzen esan nai du. Entzun, adibidez, Narbona'z zer dioskun maiz aipatu dugun L Griffe edestilariak (1.c. 74'gn. or.):

"Les cites de la c8te mediterranéen nous J'avons dejä not<sup>i</sup> --ont det compter, d'assez bonne Neure, des chrétiens, sourtout parmi leurs colonies d'Orientaux. Au cours du II'me ces communautes de fitMes n'ont pu que prospérer. Si l'on peut d s lors parler des chretiens de la Gaule celtique et des Germanies, comme le fait Irenée, comment ne pas admettre l'existence de petites comtnunautés chrétiennes a Meseille, a Arles et, probablement aussi, de l'autre cette du Rheme, a Nimes eta Narbonne?"

Euskeraz:

"Mediterran Itxasoaren ondoko urietan, batez ere beraietan bizi ziran Sortaldetarren artean, ba'ziran noski jende kristauak, aurren -aurreneko uneetatik. Naitanaiez II mendea-zear ugariagotu eginen ziran kristauen taldetxo aiek. .Iadanik zillegi bazan, Ireneo'k egin zuan lez galietako kristau keltiarretaz, eta germaniarretaz, mintzatzea, mola uste izan ez, Martsella'n, Arles'en eta, seguruaski, baita Rodano ibaiaren beste alde ontan ere kristau-talde batzuk bazirala, adibidez Nimes'en eta Narbona'n"?

Ez da ori egiazko argumentu bat edestiaren esparruan. Baiñan logikaren aldetik so-egin ezkerero, i, Griffe oker ibilli danik esan al daiteke? SEz ote zaigu guri zillegi, gure albo-alboko Zaragoza'z eta gure iparreko Bordele'z eta Tolosa'z eta, naiz bildur geixagorekin, gure barru-barruko Kalagurri'z era berdiñean pentsatzea?

Ta nola ez aipatu Elusa, Akitani euskaldunaren erdi-erdian orduan Nobenpopulani esaten zitzaion Akitani Zar guztiko metropolitaren, ots, goigotzaiaren eta era berean probintziko jaurlearen egoitza laister izanen zan uri euskalduna! "Bien d'etonat qu'Eauze soit pourvue d'un evUhe. Cette petite ville nait devenue, vers la fin de III'me siècle, la capitale de la Novempopulanie, losque l'Aquitaine fut divisee en deux provinces" (id. 1.c. 125).

Euskeraz: "Ez dugu zertaz arriturik Elusa gotzai-uri biurturik ikusten ba'dugu. Uri txiki au, III mendearen azkenaldera, Akitani bitan zatitu zanean, Nobenpolani'ren uriburu egiña izan bait zan".

Entzun, berriz, Dictionnaire D'Histoire et de Geographie Ecclesiastiques" iztegian CH. Higounet idatzi ziguna: "A la fin du IV'me sicIe la cite d'Euaze etait nommée en tête des cites de la province de Novempopulanie; sa province ecclesiastique dut correspondre exactement cette organisation de l'administration romaine".

Euskeraz: "IV mendearen azkenean Nobenpopulani probintziko urien buru egiña izan zan Elusa. Bere eliz-pobintzia, oso-osoan, Erroma'ko Jaurlaritzak bere laterri-probintzi ari eman zizkion neurrietakoa izan zan". Ederki esana, Ori bait zan orduan Elizaren oitura: bere probintziei Laterriaren probintzien mugak ematea.

Ez da erreza Akitani'ren zatiketei-buruz argirik askiren lorketa. Zatiketa oiek ,zenbat izan ziran? Zer urtetan egiñak? Baiñan, gure Akitani Euskaldunari dagokionez beintzat, onako au eskier esan dezakegu:

Julio Zesar'en denboran, Akitani, Garona ta Auñamendi arteko lurra zala. Ez dut esan nai Garonatik iparreruntz eta sortalderuntz Euskera itzegiten ez zanik. Bai, ordea, Akitani, Garona eta Auñamendia arteko lurrari esaten zitzaiola;

- Zesar Augusto'k Akitani orri iparreruntz Loira arteko lurraldea eta sortalderuntz Vivarais artekoa erantsi zizkiola, orrela, 275.300 kilometro laukoiko probintzi bat eratuz. Izugarri probintzi aundia. Bai beintzat gaurko Frantzi'ren irurden batekoa,

- Laister bereizi zala Akitani Aundi ortatik lengo Akitani Zar euskalduna. Bearbada, Akitani Zarreko jendeak egindako eskarien ondorioz. Ori eskatzera joan omen zan b inperatorearengana Verus Asparren'go jaupari jentilla.

Gaiñerako Akitania, bi puska egin zan "Aquitania Prima" sortaldean, "Akitania Secunda" iparraldea. Akitani zar euskaldunari "Aquitania Tertia" esan zitzaion; eta, baita, "Novempopulania" ere.

Itzuli gaitezen, ordea, gure arazo elizkoietara, inperioaren jaurretari zegozkion beste oiek utzita.

\* \* \*

Badugu beraz Euskalerriaren barruan gotzai-uri bat. Goigotzai bat Gams'ek dioskuna egia ba'da. Ikerle beneditar onek bere "Series Episcopo-

rum" idazti mardulean "Archiepiscopi" esaten bait die Elusa'ko Gotzai guztiei aurrenekoak asita.

Eta ez nuke inoiz ere parregarriztat artuko Euskalerriaren barrurago ere euskaldunek gotzai-urriak izan zituztela uste izatea. Ta au esatean Kalagurri baskoia daukat buruan. Eta Akitani'ren ego-sortaldean Auñamendi'ren kerizpean zeuden Konbene ta Konsorani! Ez ote da kontuan artzekoa, naiz soilki lanerako ipotesi bat bezala, III mendean bi uri aietakoren batek gotzaia izan zezakeanik?. Dokumentuen bidetik heren lenen gotzaiak V eta VI mendekoak dira: Konserani'n 451'ko Balerio, eta Konbene'n 506'ko Suabe (Suavis). Baiñan, bai, sinistu daiteke gotzai ezagun oien aurretik beste gotzai ezezagun batzuk agian izan zirala lurralde euskaldun aietan. Ona zergaitik:

Konbene'n bai omen ziran kristauak 111 mendean: "La premiere communauté chretienne, qui exista certainement dans la cite des Convenae et principalement a son chef-lieu, des la moitie du III<sup>e</sup>me dut s'accroitre lentement comme dans le reste de la Gaule, jusqu'a de Constantin (313) qui acorda la paix et la tolerance **C'est a** partir de ce moment que va commencer la christianisation en grand de toute la région".

Euskeraz:

"Ziurki III mendearen erditikoa da Konbenetarren uriaren lurraldean eta bereiziki urian bertan izandako lenen kristau-taldea, eta talde ori naitanaiez azitzen joan zitzaigun geldi-geldi, Galietako beste lekuetan bezala, Kostantino'ren erabakiak 313'an Elizari pakea eta yaretasuna eman arteko denboran. Orduzkerok asi zan lurralde guztiko kristautze-lan orokorra"16.

Irakurri duzun bezala, III mendearen erdian, ziurki, "certainement", kristauak baziran txoko urrutikoi artan ere.

Zer diru egingo lukean II mendearen erdiaz gero, II mende ortan bertan, mendearen azken-aldera batez ere, aipatu ditudan uri aietatik bat baiño geiagotan gotzaiak izan zirala esateak gure frontoi batean?

---

Lizop, Raymond: "Histoire de deux eites gallo-romaines: Les Convenae et les Consoranni". Toulouse, 1931, 340 or. Nik aipu au Griffes'ri zor diot (o.c. 184 or.). Griffes'k ontzat artzen ditu Lizop'en itz oiek, eta "Galietako kristautzearen aroak Lizop'ek ederki azpimarratu dituala" dio.

Nik ez nuke ori jokuan jarriko. Baiñan norbaitek balio berdiñez, ots, milla deadar egingo ba'lu, nik, eskiertasun aundiegirik gabe, uri oietatik batzuek beintzat gotzaia bazutelaren alde jokatu nuke. Eta, segu-ruaski, irabazi egingo nuke.

Kontuz ordea! Uri oietatik at, Frantzi'n, eta Itali'n bertan bezala Euskalerrian ere jenderik geien-geiena, esate baterako dana, jentilla zan oraindik: Urtzi'ren gurtzailie animista; eta, tokirik erromartue-netan, erromatarrei ikasitako erlijio irudigurtzaillearen jarrailea.

Eta aztikeri-zaie trebea, Erroma'ko edestilari batek diona egia ba'da beintzat. Txori-erraietan eta txorien abesti ta egakeran etorkizuna irakurtzen arras yayoa zan Alexander Sebero II mende artako inperatoreak berak gauza aunditzat euki omen zuan ba gure asaba euskaldunak baiño azti bikai-ñagoa zala uste izatea.'

Alatagutziz, bedi onako au atal onen azken itza: Frantzi'n eta eta Itali'n bezala Euskalerrian jenderik geien-geien-geiena oraindik jentilla izan, 11 mendearen erdiaz gero, batez ere mende orren azken-aldera, Euska-lerri artan ere KRISTO'RI EUSKERAZ OTOI EGITEN ZITZAIOLA uste duana... baleikela zearo atzipeturik ez ibiltzea.

---

<sup>17</sup> "Orneoskopos magnus" izan omen zan ba Alexander Sebero --; ut et Bascones Hispanorum et Pannoniorum augures vicerit: "Txorien bidez etorki-zunaren asmatzaille aundia; Ispanietako Baskoiak eta Pannonitarren aztiak ere garaitu bait zituan"!

(Elio Lampidio: "Vita Alexandri Severi, XXV).



### III MENDEKO GIROA

I mendearen azkeneko urteetan eta II'aren lenengoetan Trajano inperatore zala igo zitzaigun erpiñera Erroma'ko inperio mardula. Naiz barbaritarrekin borroka bizian, erpiñean iraun zuan ala-ola II mendea-zear, baiña mende orren azken aldera, asi zitzaigun aldapa-beera, eta poliki-poliki aldapa-beera jarraitu zuan III mende osoan ere.

Bazuan alare mende oietan oraindik giartasunik eta indarrrik aski Inperio zaar arek, naiz epe ortako inperatorerik geienak balio aundiko gizonak izan ez. Agintari oien artean, inperatore bezala, Erroma'rentzat bikaiñiena -- eta Elizarentzat makurrena III mendearen azkenekoa izan zan: Diokleziano: Gaius Valerius Aurelius Diocletianus.

Bi aldi ezberdiñetan zatitu dezakegu III mendea: Aski pake leguneko aroa, mendearen aurreneko erdia; baiña, alderantziz, bi zigorketa izugarri odoltsuen aroa, bigarrena.

Ez pentsa, mendearen aurreneko erdi artan ere, osoa izan zanik Elizarentzat pakea. Legeak ez ziran aldatu. Eriotzez zigortua jarraitzen zuan kristau izate utsak, eta an-emen ez zan martirien faltarik izan. Aipa ditza-gun Kristo'rengattik bizia eman zuten oien artean, Erroma'ko Justino, eta, orduango Euskalerrri zarretik ez urruti, Lyon'go ziñopa edo martiri ugariak.

Alatagutziz, Trajano'k emandako erabaki ospetsu aren araura inperio--lurraren zabalera osoan Eliza naiko paketsu bizitu zala, iruzurtutzat geldit-zeko bildur aundirik gabe esan daiteke.

Ezaguna da Trajano'ren erabaki ura: Ez bitez kristauak eizatuak izan. Baiña eriotzara galdua bedi, kristautzat salatutako kristau oro, bere fedea ukatzen ez ba'du.

Ala, aski giro paketsu aren babespean ederki azi zitzaigun Eliza, zabal-tasunean ez ez'e sakontasunean ere. Ta azketa ori ez zan eten 251'garren urtean Dezio inperatoreak lege baten bidez berriro Elizaren aurkako zigor- ketaren galda piztu zuanean.

Mende ontakoak dira ainbat eta ainbat gotzai aundi ta teologilari yayo: Ipolito, Origenes, Kalisto Aitasantua, Klemente ta Dionisio Alexandritarrak, Kartago'ko Zipriano, Fabian Aitasantua..,

Zenbat ziran Kristauak mendearen asieran, eta zenbat mendearen erdian ala azkenean, ezin, gutxigoraberaka ere, agertu aal izango dugu. Ez bait zan antziñako garai aietan estadistikarik jasotzen. Alatagutziz, balio beza agerbide lez onako albiste labur baiña ziur onek:

11 mendearen asieran bi ziran Sarkaide guztian elizbarruti ziurrak. Itali'ra biak: Erroma'koa, jakiña, eta, Napoles'tik ez urruti, PuzoI'koa. Badira ordea ogeitabat III mendearen erdirako: zortzi Itali'n, beste zortzi Frantzi'n eta bost Españi'n. Frantzi'ko oietatik bat, Lyon'goa, ziur, II mendekoa da; eta, baita, ziur aski, beste bat ere: Galietako Biena urikoa. Ari bai zan iparraldetik ere kristautasuna orduango Euskalerra zabalera alderatzen.

Mediterran-Itxasoaz aruntz, berriz, bederatzi ziran elizbarrutiak latiñez itzegiten zuan Afrika'n.

Ari zala, esan dugu, kristautasuna poliki-poliki gure Errira urbiltzen. Izan ere, III mendearen erdialdeko gotzai-uri aietatik iru, Narbona, Zalduba (Zaragoza) eta Tolosa, orduango Euskalerritik oso bertan zeuden, azkeneko ori, Tolosa, oraindik euskal-erriz inguraturik aurkitzen ez ba'zan!

Zalduba, berriz, sarkaldetik eta iparraldetik Euskalerra ukitzen zuala zegoan, Baskoiak Jalon ibaiaren Iurretatik eta Ueszitarrak Alkubierre mendia-aren arantetik 25'en bat kilometrora iristen bait zitzaizkion.

LEz ote zuan oraindik gotzairik Kalagurri Baskoiak?



## EUSKALDUNENGANA IRISTEKO KRISTAUTASUNAREN BIDEAK, NARBONA'KO ELIZA

Narbona'ko lenen gotzaia noizkoa dan eta nor izan zan, ziur ez daki-  
gu. Tours'eko Gregorio Doneak VI mendean, Paul zeritzan mixiolari bat  
izan zala diosku: "Sanctus Paulus qui Roma in Gallias ad praedicandum  
evangelium missus est", "Donepaul, Erroma'k Galietara ebangelioa alda-  
rrikatzera bidalia"`.

P.B.Gams beneditarrak itz auek erasten dizkio Gregorio'k eman digun  
albiste orri: "De tempore disputatur. Nos, qui primo saeculo christiano  
tidem in Galia meridionali praedicatam esse non dubitamus, hunc Paulum  
saeculo I vixisse censernus"(Series Episcoporum op.c. 583).

Euskeraz:

"Noizkoa izan zan, eztabaidan dago. Guk, ordea, Frantzi'ko egoaldean  
mendean bertan kristautasuna aldarrikatu zala uste dugunok, Paul ori  
mende ortan bizitu zala uste dugu".

Atzipeturik dabil beneditar jakintsua.

Alare, I mendea, bai, goiztarregia iduritzen zait I mendea, Galietan  
kristauak bazirala esateko, baiñan eunen bat urte geroago, II mendean,

---

"Historia Francorum" (Frankiarren Edestia) I, 28. Tours, Loira ibai  
aundiaren ondoan dago. Ibaiaren egoaldeko ertzean. Turones esaten zioten  
erromatarrek. Bere inguruko lurrari, berriz, Turona esan oi zaio. Au ote zuan  
bere egiazko izena? Danadala, azkeneko izen au euskal-belarrientzako atsegiña-  
goa dugulako, Turona'ko Gregorio esango diot nik beti VI mendean uri artako  
gotzaia izan zan Donegregorio edestilariari. "Turones", berez, giza-izena da.  
Turona'n bizi ziran gizakumeen izena.

Galieta egoaldean kristauak bazirala uste izatea, naiz ortarako dokumenturik izan ez logikaren aldetik ez zait txolinkeria danik iduritzen

Mende ortan ain zuzen izan bait ziran Galieta gotzai, Lyon'go Gotzai Pontziano aurrena eta, aren atzetik, Ireneo gero.

II mendearen erdikoak ditugu gaiñera Lyon'go martiri ugariak, eta orrek, jakiña, II mendearen erdirako Lyon'en Eliza tinko sustraiturik zegoala adierazten digu.

I mendea, ordea, beste gauza bat bait da, gure beneditar orrek irristaketa aundia egin duala derizkiot, Narbona I mendean gotzai-uri egiñik zegoala eta uri ortako gotzaia Paul zala esatera ausartu danean.

Itun berria bera ere ez zegoan oraindik osoturik I mendea amaitu zanean. Ordurako Frantzi'ren egoaldean kristautasuna erroturik zegoala eta osoki eraturik Eliza, eta Narbona'k gotzaia bazuala esatea, geitxo baiño geiago ere esatea badala esango nuke nik.

Donepaul ori iñoiz Narbona'ko gotzai izan ba'zan, III mendean izan zan. Orrela uste dute gaur Frantzi'ko edestilariak, eta orrela izan ere izan zala ematen du. Turona'eko Gregorio'k Tolosa'ko Donesaturnino'ren adiskide bezala aitortzen bait du Narbona'ko Paul. Erroma'ko Aitasantuek zazpi mixiolari bidali omen zituzten mende ortan, diosku ba Turona'eko Gregorio'k Galieta lurralde oro kristautzera.

Eta Zazpi aietako bat omen zan Paul ori, Narbona'n gotzai lez gelditu zana. Beste bat, Tolosa'ko Saturnin, laister Iruña'ko euskaldunekin maitasunezko lokarri sendoak eratuko zizkiguna, kondairak dionez.

Baiñan, Gregorio Donea, elertiaren aldetik idazle aski baldartxoa izateaz gaiñera, edestilari bezala erriak sortutako esamesak errezegi sinisten zituan gizona zan. "Su estilo es imperfecto y su critica muy deficiente" (Llorca), eta Erroma'tiko zazpi mixiolarien arazo orrek, kondaira geiago dirudi egiazko edestia baiño.

Baiñan kondairek, geienetan izaten bait dute egiazko gune bat, baleike III mendean Narbona gotzai-uri biurturik egotea, eta ango lenen-lenen gotzaiaren izena Paul izatea. Baiñan, ori, III mendean. Tolosa'ko Saturnin mende ortakoa izan zala ziurki bai bait dakigu.

Narbona'ri dagokionez, ordea, argitu bearra dugu, dokumentuen argira, V mendekoa dala uri artako lenen gotzai ziurra: 4I7'an agertzen dan Ilario.

Alatagutziz, Gams'ek (1.c.) aipatzen du orren aurreko beste gotzai bat ere lii mendekoa lez: "Stephanus qui in catalogis tantum invenitur": "Eztebe, gotzai-zerrendetan bakarrik aurkitu daitekeana".

Danadala, Akitani eta Auñamendiko "Andosiar" (gaurko Andorratar) eta "Zerretiar" euskaldunak ez zeuden Narbona'tik urruti. Euskera bere-bere ere luzatzen zan seguruaski III mende artan bai beintzat mendiz-mendi Mediterran-Itxasoraiño. **ote zan gure Arbasoengana Narbona'ko Elizaren dizdira?**

---

"Zerretiar" eta orren antzeko izen arrotzen esannaia aztua izan dezakezularen ustean ona emen, sartaldetik sortaldera erromatarren liburu zarretan aurkitzen diran euskal-leiñu edo "tribuen" izenak: "Autrigones" edo "Austrigones", "Caristii", "Varduli", egoaldean Ibero ibaiaz aruntz "Beronen"; sortaldera, "Vascones", "Suesetani", "Iacetani", "Osquidates" edo "Vescetani", "Renosii", "Ilergetes", "Andusini", "Zeretes" edo "Zerretes". Akitani, leiñu askotan zatiturik agertzen zaigu liburu zar aietan.



## TARRAGONA

Erromatarrentzat, "Tarraeo". Erroma'k bi probintzitan erdibitu zuan Iberiar-Erdiugarte irabazi-berria: "Hispania Citerior" eta "Hispania Ulterior". Aurrenekoaren uriburu egin zuan Tarrako. Gero, bi probintzi oiek geiago zatitu zituanean, aundienari, Españi'ren iparralde guztia arrapatzen zuanari, "Tarrakonensis" izen-eman zion, eta, jakiña, Tarrako'k jarraitu zuan probintzi orren "metropolis" edo uriburu.

Elizak berriz, zabaltzen zijoan eran, Inperio'ko eraketa ori bera artu zuan bere eraketagintzarako: Eliz-probintziei Laterri-prohintzien muga berberak eman zizkien, eta Laterri-probintziko "metropolis" bera biurtu zuan Eliz-probintziaren "metropolis", eta "metropolita" esan oi zion bertako goigotzaiari.

Dakusazunez, bai politikaren aldetik bai erlijioaren aldetik, Tarrako'ren eliz-eta-laterri-probintziaren barruan egon zan erromate guztian Ego-Euskalerra guzia.

Nolako eta noraiñoko eraginmena izan ote zuan Tarragona'ko Elizak orduango gure Euskalerrairen baitan?

Ez sakonegia ta ezta luzeegia ere seguruaski.

Ez sakonegia; lenen mendeetan Eliza ez bait zan orietatik at landetako gizakumeak kristautzen asi.

Ezta luzeegia ere; arrazoizkoa dirudian Iez, bere itzal onuragarria, iristekotan ere, urbillen zeuzkan euskaldunen leifiuetara bakarrik iritxiko bait zan: Zerretiarren eta Ilergetarren leifiuetara.

Ala ere, bazituan Tarrako'k bi beso luze bere kristau-azia urrunagora bidaltzeko: Erroma'ko Inperioak eraikitako bi bide zabal eder: Bat, Ibero ibaiaren ondoko bidea: Ibero ibaia-gora. Zaragoza, Tudela (erromatarren Muskari), Kalagurri, eta Errioxa-zear autrigoitarren lurraldean Asturika--Burdigala bidearekin alkartzen zana. Eta, bestea, Tarragona'ko kaiatik Oartzun'go zillar-berun meatzetara zetorrena.

Aurrenekoak, Zaragoza igarota bela, egoaldeko Baskoiak, Beroiak eta Aurtigoiak alkartzen zituan Tarrako'rekin. Bigarrenak, berriz, Ilergetak, Ueszitarrak eta Napparroaren iparraldeko Baskoiak.

Bazuan Tarrako'k beste irugarren bide bat ere: Galieta zijoana, eta Zerretiarak Tarrako'ra urbiltzen zituana.

Ta... ez bedi aipatzeke gelditu Tarrako'ri arras egokia gertatzen zitzaion beste laugarren bide bat ere. Nork eta izadiak ber-berak zabal eskeintzen ziona: urezko bidea: Ibero ibaia bera ainzuzen, aski txalupa ederrenztat ere, Zaragoza igaroz gero Baskoien lurraldea zear, Bareia, Errioxa'ko Berondar euskaldunen uri nagusiaraiño orduan irikirik aurkitzen zana.

Bareia ori, gaurko Logroilo'ren ondoan aurkitzen zan.

Ez zegoan, beraz, Euskalerra zarra bere metropolitarengandik ain bidegabeturik.

\* \* \*

Esan dugu kondaira utsa dala Santiago'ren Espafli'rako etorrera. Eta, ondorioz, kondaira utsa dala Santiago Ibero-ondoko bidea-gora, Zaragoza'ra ta Kalagurri'ra etorrira, Kalagurri'tik ebangelioa gure artean zabaltzen ibilli zalako ori guztia,

Alderantziz, esan dugu baitare, egiazkotzat artu bearra dala Paul donearen Espatii'rako etorrera, eta seguruaski Tarrako'ra etorri zala. Baiñan kondaira besterik ez da, Ibero ibaiaren ondoko bidetik, Baskoiengana iritxi zitzaigula dion ipuia.

Donepaul'en etorreraz gero, III mendearen erdira arte Tarragona'ko Elizan gerta zitekeanaren berririk ez dugu, dokumentuetan agertzen dan lenen gotzaia, 259'an martiri il zan Fruktuoso Donea bait da.

Ez du orrek esan nai leenago an gotzairik izan ez zanik. Soilki, an izan zitezkean gotzai aien izenik ez digutela dokumentuek ematen. Ez du besterik esan nai. Izan ere, Tarrako bezain uri garrantzitsu eta Erroma'rekin ain loturik zegoan uri nagusi bat Donepaul'ez gero orrenbesteko denbora luzean gotzairik gabe egon zitekeala... ez bait da logikaren aldetik sinisgarri.

Ta, edestilariak, bear du baiki lekaide beneditar baten antzeko dokumentu-irakurle txukunaren pazientziaz eta zintzotasunaz gaiñera, Aristote-

les'en logikazko trebetasunaren ttantta bat. Eta, baita, Sherlock Holmes'en zentzumenaren txinparta.

Ederki dio, beste arazo batez ari dala, A. Azkarate arkeologilariak: "Si bien es cierto que carecemos de evidencias concluyentes, no podemos tampoco cerrar los ojos ante los numerosos indicios que apuntan en un sentido" (Arq.Cris. Gazteiz 1988; 487 or.).

Ori maiz gertatzen zaio edestilariari: dokumenturik ez duala, alde bate-tik; baiñan, bestetik, ez duala, ezta, logikak eskeintzen dion argiari be-giak isterik.

Izan ote zuan Frkutuoso Doneak Euskalerraren ebangelizaketan zer ikusirik? Ez dugu ziñez orri erantzun aal izateko dokumentuetatiko babesik.

Baiñan or dago oraindik bizirik Done ari euskaldunen artean eman oi zaion izen maitagarri politta: Iondoni Murtuts; era goxoagoz, londoni Murttux. Ta azaldurik utzi dugu, Izen goiti orrek (Iondoni) eta izena ain kuttunki goxatze orrek (Murtuts, Murttux), bi gauza adierazten dizkigutela: Donefrukuoso, arras Done maitea izan dutela euskaldunek; eta, beraganako eraspena oso goiz sartu zala euskaldunen artera. Izan ere, maitasuna ta esker ona adierazteko, deikera xamur ori baiño era egokiagorik, eta politta-gorik, nork aurkitu? Erriko jendearen izkera goxoan... iIondoni Murttux!

Era berean, dira kuttunak eta goxoak beste izen auek ere: Iondoni Xatordi, Jondoni Bixintxo, Jondoni Martti.

Guzti orrek zer esan nai duan? Eskier-eskier ez dakit. Baiñan zerbait esan naiko du noski. Nere ustez, baietz esan nai du: Orrelako izen ezti ori irabazi zuten beste Doneek bezala, izan zuala Iondoni Murtuts'ek ere gure arbasoen kristautzeraketan zer-ikusi galantik. Ori, ordea, ez diot kezka-a-purtxo zalantzagarririk gabe. Eta, ona zergaitik:

Fruktoso Doneak Euskaldunen artean izandako eraspén eta jaiera guztia Prudentzio'k bere olerkietan aipatua izatetik sortua izatea badaitekean gauza bait da. Izan ere "Peristephanon" deritzan poemako VI ereserki osoa idatzi zuan bâ arentzat eta arekin il ziran aren bi diakonoentzat **garai** artako kristaudiak izan zuan olerkaririk onenak: "Hymnus in Honorem Beatissimorum Martyrum Fructuosi Episcopi Ecclesiae Tarraconensis, et Augurii et Eulogii Diconorum". Ta,..ialako arrakasta aundia izan zuten kristaudi guztian Prudentzio kalagurritarrak abestu zituan done guztiek!

\* \* \*

Fruktuoso'z gero, ia eun urteko utsunea agertzen zaigu Tarragona'ko gotzaidiaren edestian. Urrengo gotzaia, Himerius, 384'garren urtekoa bait da! Utsune ori, Jarogei ta bat urte oietan Tarragona'n gotzairik izan ez zalako? Bai zera! Dokumentuek epe ortako gotzai-izenik jaso ez zutelako baizik!

384"ko Imerio gotzai orri, Metropolita esan oi zaio. Orrek, garai artarako, Elizak Españi'n bere probintzien eraketa egiñik zeukala esan nai du. Dokumentuz, Ego'uskaldunen lenen metropolita, ots, lenen goigotzaia dugu beraz Imerio.

imerio'ren izena ere dokumentu bat bakarrari eskerrak zaigu ezaguna. Silesio edo Sirizio Aitasantuak idatzi zion eskutitz bati eskerrak:

"Himerlo recibí dei papa San Silesio en 11-11-385 la primera decretal autentica en la que le recomienda comunique su contenido a los sufraganeos de la Tarraconense y a los metropolitanos de Cartagena, **Lusitania y Galicia**" (Dic. Hist. Eccl. de Esp.)<sup>3</sup>.

---

385'eko otsaillaren 11'koa da Sirizio Aitasantuak bidali zion "dekretal" edo lege-gutun ori. Gaur, orrelako gutun batek ez luke batere garrantzirik izango. Badu ordea, eta aundia gaiñera, III mendeko gutun arek:

Lendabizi, egiazkoa dala ziurki dakigun lenen "dekretala", bera dalako. Eta, bigarren, Tarragona'koaz gaiñera Ispanienn elizbarruti geiago bazirala erakusten digulako.

"Metropoiita" edo goigotzaia zan Tarragona'koa. Sirizio Aitasantuak, gutun artan agintzen zuana Tarragona'ko Metropolitaren "mendeko" gotzaiei jakiñerazteko agintzen zion, eta baita Kartajena, Betika (Andaluzi) Lusitani (Portugal) eta Galizi'ko Metropolitei ere.

Tarragona'koaz gaiñera baziran, beraz, Ispanietan beste lau metropolita, beren "esane" gotzaiekin.

Gutun ori izan ez ba'litz, ez genuan ori jakiterik izango. Baiñan naiz ordurarte beste dokumenturik izan ez, gotzai eta goigotzai aiek baziran

Dokumentu utsek ez bait dute antziñako erri baten egoera ta biziera, ots, antziñako edesti osoa osoan eta osoki adierazteko balio.

Danadala, orduango Euskalerrri zabal artan Tarragona'ko metropolitak bere "esane" gotzai bat izan zezakean jakiteko, aztarna txikienik ere ez dugu Sirizio'ren Dekretal ospetsu artan aurkituko. Ez ote zan ba gure artean <sup>g</sup>otzairik?



Orren ondorean, urterik eman gabe, Prospero zeritzan bat aipatzen du Gams Benedittarrak bere "Series Episeoporurn" idaztarian, Tarragona'ko gotzai lez. Aipatu-berri dugun "Diccionario de Historia Eclesiástica de España" orrek ordea, ez du gotzai au aipatzen, baiñan bai, Garns'k aipatzen ez duan beste bat: Ilario. 402'garren urtean ipintzen du gotzai 465'ekoa dan Askanio'ren aurretik.

Askanio ori, danek aipatzen dute. Ospetsua izan bait zan, Zaragoza'ko gotzaiaren eskariz Euskalerriko gotzai bat Erroma'ra salatu zualako. Gotzai salatua, Kalagurri'ko Silbano, Salaketaren mamia, egiazkoa: Silbano'k, kanon-legearen aurka, gotzai-sagaratu batzuk egin zituala.

Alatagutziz, askoz gogorrago erantzun zion Aitasantuak Askanio Tarragona'koari Silbano Baskoiari baiño. Auzi ortaz, ordea, V mendera iristen geranean mintzatuko gera.

Urrena aipatzen duten Tarragona'ko gotzaiak Jon izan zuan izen, eta VI mendera sarturik il zan.

Gotzai oiek danak, metropolitak ziralako, Ego-Euskalerra Zaar aren lenen Eliz-Buruzagi garaiak izan ziran. Beren Eliz-Probintziko zatirik aundienetakoa bait zuten antziñako Euskalerra zabal eta luze aren Egoalde guzia.

Gotzai oiek, ordea, metropolitak lez, Ego-Euskalerraaren ebangelizaketan nolako lana egin ote zuten galdetzea, alperrikako galdea da. Bat edo bestek zerbaittxo bat izan ezik, beren izenetaz landa, ez bait dute dokumentetan ezer geiagorik utzi.

Tarragona'ko Elizak euskaldunen artean izan zezakean eraginmenari-buruzko atal au bukatzeko, itzuli nadin, goraxeago aipatu besterik egin ez dutan puntu batera:

Iondoni Murtuts'ek euskaldunen artean izandako arrakastaz itzegitera-koan, arrakasta aundi ori Prudentzio'ren olerkiek izan zuten zabalkunde aunditik etorri zezajokeala esan dut. Ez dut uste, ordea, nik, arrakasta

aundi aren iturria Prudentzio'ren bertsoak izan daitezkeanik. Ikus zergaitik pentsatzen dutan orrela:

Garai bereko Donesaturnino Tolosa'ko gotzaiak Iondoni Satordi'k -- ere, "Iondoni" titulo eta izen aldaketa maitetsu bera irabazi zuan euskaldunen artean. Prudentzio'k, ordea, ez zuan bere bertsoetan Donesaturnino'rik iñoiz abestu! Aregeiago, ez zuan sekulan bere izenik aipatu ere!

Ez zitzaion ba aipu ori egiteko adiontasunik peitu. Iru aldiz mintzatzen bait zaigu bere olerkietan Saturno sasijainkoaz. Eta Saturnino izeneko lau martiri ere goratzen bait ditu. Ikus nola: bakoitza bere izenarekin martiri ospetsuenak abestuz gero, "Zalduba'ko kristaudi zarrak `Saturninoak esaten omen zien" lau martiri goraiatzten ditu: "quos Saturninos memorat uocatos prisca uetustas" (Perist. op.c.4,I63)

Alare, Saturnino Tolosa'ko gotzai Done aintzatsuari-buruz, ezer ez. Ezta aren izenik eman ere.

Au ordea, Iondoni Satordi, Iondoni Murtuts aiña eta au bezain azkar izan zan euskaldunek maitatua.

Ikus, berealaxe astiro aurkeztera goazen Tolosa uriko gotzai aundi artaz, IX mendeko larruki bat aztertzerakoan Euskerazaintza aldizkarian (XXVII, 5) idatzi nuana4:

"Emen, (larruki ontan), Saturnino Donearen izena, Dondisle-Aran'eko lurraldean toki-izen bihurturik agertzen zaigu. Ta ori garrantzi aundiko gauza dugu, Euskalerriko kristautasunaren edestian ez bait da edozein Saturnino Donea.

Tolosa'ko Gotzaia izan zan III mendearen erdian. III mendean, Tolosa, Garona ibaiaren ertzeko uri ospetsua, Akitani euskaldunaren muga-mugan zegoan, eta seguruaski erdi-euskalduna zan bera ere.

Naitanaiez izan zituan, beraz, Donesaturnino'k euskaldunekin arremak.

---

Larruki ori Kukulla'ko Donemillan'en Lekaidetxeko larrukietako bat da. "Euskerazaintza" aldizkarian aztertuak ditut Lekaidetxe ortako IX mendeko dokumentu guztiak. Joan dan urteaz gero, Euskerazaintzan oraingoan ere, Balpuesta'ko gotzaitegian idatzi ziran mende bereko dokumentuak aztertzen ari nauzute.

Edestiak ez digu arreman oietaz, oso berandu arte, deus esaten. Kondairek, ordea, EuskaIdunen ebangelarietako bat Donesaturnino izan zala dioskute: **etorri zitzaigula, eta kondaira oietako baten** ustez, berak bataiatu zuala eta berak sagaratu ere zuala Iruña'ko lenen Gotzaia: naparrek ain maitea duten Fermin Donea<sup>5</sup>.

Kondaira geienek izaten dute olertizko fili ugarien azpian egiazko aletxoren bat. Eta ale ori badutela dirudi, Saturnino Donearen oroitza gordez, mendeak-zear gure denborotara iritxi zaizkigun eusko-kondaira zaarrek.

Ori adierazten dute Saturnino IJoneari euskaldunek eman dizkioten izen maitetsuek. Eta, baita, Saturnino Donearenganako eraspena Euskalerrian ain goizik zabaldurik egon Izateak<sup>6</sup>.

Izenei dagokienez, frankiarren erara, "Zernin" biurtu zuan NIaparroa'-ko erromantzeak Saturnino'ren izena. Baiñan askoz leenago "Satordi" edo "Xatordi" deitu zioten euskaldunek goxoki. Iparreuskalerrian berriz, aurretik "Iondoni" izengoitia ezarri zioten. Done oso zar eta txit maitatuei bakarrik ezarri oi zitzaien oorezko izengoitia! Orrela, Saturnino Donea, londoni Satordi, Iondoni Xatordi biurturik gelditu zan Euskalerrian.

Guk, larruki ontan toki-izen biurturik aurkitzen dugu Iondoni Sator-di'ren izena.

---

"Edestia", gazteleraZ "Historia". "Kondaira", gazteleraZ, "Leyenda": "Lo que se cuenta".

III mendeari dagokion atal au Martin Olazar'ek irakurria dut. Eta aapaldi onen alboan oar auxe utzi dit idatzirik: "Burgos'ko lurraldean, Angosto'tik urren SAN ZADORNIL err;a da<sup>g</sup>o". Bai, Martin: Baide obi edo Gobiaran'en dago; <sup>g</sup>aur Burgos'koa dan Gobiaran'en zatian. Lidala<sup>g</sup>da; eta, beste Done baten izena daraman erri bat du udal-buru: SAN MILLAN. Orra ordea orain nere kezka. Millan, bertako Done bat izan zitzaigun, Berondar euskalduna, Oso ezaguna, bere bizitza VII mendean Braulio Doneak idatzi zualako, eta Kukulia'n bere izeneko lekaidetxeak ospe aundi eman diolako. i,ZADORNIL ere, izenez aldatuta Tolosa'ko ZERNIN ez baifia, ez ote dugu Millan bezala, naiz ura bezin ezaguna ez, emen bertako Done bat, erriak berak kanonizatutako gizon zintzo eraspengarri bat. Orrela bait dira, eskierki, gure mendi eta lurraldeei izen-eman dioten beste Done asko.

Lurralde batean Done baten izenak toki-izen biurtua izatera iristeko, ordea, askoz eta askoz leenagotik, ezagutua, omendua, eta maitatua izan bear du Done orrek lurralde artan.

Gure larruki au zarra da: IX mendekoa. Mende ortan Iondoni Satordi'ren izena toki-izen biurturik egoteak, beraz, Iondoni Satordi'ganako eraspena Dondisle'ko Aranera mendek leenago iritxi zala esan nai digu. Zenbat mendez leenago?

Gaur Burgos'ko ipar-mendien artean aurkitzen dan Dondisle Arana, Euskalerrian, sarkaIde-sarkaldeko lurra zan. Sarkalderuntz Autrigoitarren lurraldearen ertza: eusko-lurralde urrutienetan urrutiena, zokoratuen artean zokoratuena, bide nagusi orotik baztertuena. Iondoni Satordrk ibilli omen zituan Akitaniarren eta Baskoien eskualdeetatik aldenduena, urruntuena.

Autrigoitarren azkeneko muturreraiño ain era sakonean IX menderako iritxiz, Iondone Satordrrenganako maitasuna Euskalerraren zabaltasun osoan ain goiz zabaldu ba'zan, naitanaiezkoa dugu, euskaldun guztiak, zerbait oso aundiaren truke, Iondoni Satordi'ri zor bereizi bat baziotelaren jakitun zirala, ezpairik gabe aitortu bearra.

Orrela, IX mendeko larruki zar au, kondaira aien barrengo egitasunaren alde mintzatzen zaigula dirudi: edo, berdin dana, III mendean gure asabek Iondoni Xatordi ebangelari izan zutelako ori, egia izan daitekeala erakustera datorkigula dirudi.

Ez da, ori, ez noski, istoriologi edo edesiztiaren alorreko arrazoi sendo bat. Bai ordea logikaren baratzatiko "aigarritasun" edo "posibilitate" bikain bat. Ez dezagun, berriz, aztu, edestia ez dala, bera bakarrik, antziñako giza-biziera osoaren berri-emateko gauza; bearrezkoa duala Logikaren laguntza".

\* \* \*

Iondoni Satordi'ri-buruz esan duguna esan dezakegu euskaldunek izen kuttungarri ta antziñatasunezko tituloz jantzirik daukaten Turona'ko Iondoni Martin Doneaz ere, antziña-antziñako dokumentuetatik agertzen bait da Euskalerrri zabal artako zoko guztietan izan zitzaion eraspén biozkoa. Alare, Prudentzio'k ez du Iondoni Martti'k aipatu ere egiten!!!

Beraz Euskalerrian Iondoni Murttux, Iondoni Xatordi eta Iondoni Martttri izan zaien jaiera bereiziaran iturria ez da Prudentzio'ren olerki-sorta. Beste iturri bat eskatzen du. Zer iturri?: gure asabek bazekitela iru Iondoni laztan oiekin zorretan aurkitzen zirala zerbait aundiren truke. Zer izan daiteke ordea "zerbait" ori, iru Iondoni aiek nolabait Euskalerrriaren kristauketarako zerbait egin izatea ez ba'da?



## TOLOSA

Orrela deitu zioten erromatarrek ere. Eta bertako biztanieei Tolosates. Tolosa uriburu zuan leifiuko jendeei, berriz, Tectosates.

Tolosa aipatzearekin, sartu gera Akitani'ra. Garona ibaiaren alboan Tolosa bait zan Akitani Zabaleko uririk aundiena eta ederrena.

Akitani Zabala esan dut, Zesaraugosto'k Kriseaurreko 30'garrert urtean Akitani'ren muga Loira ibaieraiño jasoz eratu zuan probintzi aundi ura adierazi naiez. Akitani ori eta Julio Zesar'en Akitania ez bait ziran berdiñak.

Julio Zesar'en garaieko ura, Auñamendia eta Garona ibaiaren artean zegoan edaturik. Ura izan zan, Kriseaurreko 38'an eta bereala 27'an berriro erromatarren aurka borrokan azkena jeiki zan euskal-leiflua. Zesaraugosto'k eraturako Akitani zabal aren barritan, Akitani zaar euskaldunari "Novempopulania" edo "Beatziurieta" esango zaio.

Ori guztia egitean zer billatzen ote zuan Zesaraugosto'k? Garona ta Auñamendia arteko euskaldunekin Dordoña ta Loira arteko atzeritarrak probintzi batean nastuz, iraultza berriak sortzeko euskaldunek eratu zezaketen asmo ta ekintzak eragozte?"

---

' Akitani zarreko euskaldunak ez ziran beintzat Zesaraugosto'ren ekintza arekin pozik gelditu. Ez zuten noski beren nortasunik galdu nai. Ala, azkenean lortu zuten, Loira aldeko ez-euskaldunengandik beren errialdea bereiztea. Iru probinizitan zatitu bait zan III mendearen azken-aldean, Diokleziano inperatore zala, Zesaraugosto'k eraturako Akitani aundi ura: Ona, iru probintzi oien izenak: Akitania Prima, (uriburu, Bituriges, gaurko Bourges); Akitania Seeunda, (uriburu Burdigala, frantziarren Bordeaux, gure Bordele); Akitania Tertia, (uriburu Elusa, gauréegungo Fiauze. Ainzuzen Euskalerriko lenen gotzai-uria izan zana!) Iругarren Akitani au, beste izenez, Novempopulania hera da.

Akitani zarreko jendea, ots, Julio Zesar'ek aipatzen duan Akitani'ko jendea, euskalduna izan zala, iñork iñoiz zalantzan ipiñi ez duan gauza da. Ederki dio Manuel Gaud'ek "las dos vertientes de los Pirineos son de lengua vasca, porque el antiguo aquitano lo es" (Hist. Gnl. Pafs Vas. op.c. 39 or.). Berdin M. Labrousse'k bere "La Gascogne avant la Gascogne" liburuan: "El Pafs Vasco podrfra ser el dltimo reducto de una cultura común a los pueblos aquitanos en la antigüedad y los vascos actuales podrfan ser los últimos aquitanos fieles a su lengua" (ib. 74 or.).

Laister oartu ziran erromatarrek ere, ez zirala akitaniarrak beste gali-tarrak bezalakoak: Ala adibidez Julio Zesar bera (Bel.Gal. 1,1,1), edo Amiano Martzelino (op.c. XV,11,1). Estrabon'ek, borobilki dio "Lakkita-nia"ko biztanleak, "Auñamendiren egoaldeko jendeak bezalakoak zirala" (op.c.III).'

\* \* \*

Tolosa, Garona ibaiaren ertzean, seguruaski euskaldunez inguraturik zegoan III mendean eta bere arresien barruan ere ugari ziran noski euskeraz mintzatzen ziran jendeak. Erdera (latera) ta euskera bere baitan nasirik zituala, bazuan, dirudianez, garai artako Kalagurri, Iruña, Osca (Ueska), eta gaur-egun "Santotomas" jaietako Donosti'ren antza.

Ez zan nolanaiko uria Tolosa zar ura, kultura aundikoa baizik, Martzi-aI olerkariak bere "Epigrama" edo "Olerkittipretako batean, IX'ean ainzuzen "Minerba'ren uri", izen-ematen dion Tolosal9.

---

"Nobenpopulania" edo III Akitani, I eta II Akitanietatik bereizte artan Verus Asparren'go jaupari ospetsu ark nolako eskua izan zezakean jakin nai ba'duzu, zoaz, adibidez, B. Estornes Lasa'ren "Historia General de Euskal-lerria"ren I liburuko 286'garren orrira ala P. Narbaitz'en "Le Matin Basque<sup>o</sup>-ren 182'garrenera.

Minerba, jakintzaren jainkeme zaindaria zan. Jupiter sasijainko nagusiaren burutik jaioa.



Martzial bilbilitarrak esandakoaz landa ere, badakigu kultura aundiaren jabe izan zala I mendean gero Tolosa. IV'ean ere ikastetxeak bazituan beintzat eta Galietan, garrantziz, irugarren uria zan".

Ezin esan genezake noiz iritxi zitzaion kristautasuna, baiñan badakigu bere lenengo gotzaia, dokumentuen orrietan beintzat --, III mendean erdian, Saturnino Donea izan zuala.

Ziur dakigu baitare zer urtetan iritxi zan Tolosa'ra Saturnin Donea: *Detius et Gratus* konsul zirala. 250'ean beraz. Urte ortan izan bait ziran konsul aipatutako bi erromatar aunditsu aiek. Zer urtean il zan ez dakigu, baiña martiri il zala, bai. Baita erriko jende arlote jentillaren matxinada baten ondorioz il zala ere. Bere jai eguna, azaroaren 29'an ospatzen du "Erroma'ko Martiritegiak". Baita, "Jeronimo'ren Martiritegiak" ere".

Saturnino Donearen eriotza kontatzen digun "Historia Passionis" edo "Nekaldiaren Edestia" oso zarra da, V mendean lenen erdikoa, eta "uste on osoa merezi duana": "La Passio Saturnini stato scritta tra il 420 e il 430 al piu tardi. Il suo testo chiaro (argia), motivato (arrazoiez ornitua), con indicazioni cronologiche e geografiche che offrono oggi garanzia di autenticita" (Bibliotheca Sanctorum).

"la Passio Saturnini costituisce il pid prezioso documento letterario per la conoscenza dell'antica Chiesa della Galia" (ib).

Laister ordea nasi zitzaion kondairaren olertikeria. V mendean bertan, iñork ez daki nondik aterata, Apostoluen ikasle egin zuan Zesareo Arles'ko gotzai Doneak.

---

Bilbilis, Kalatayud'ko uriari esan zioten erromatarrek. Marcus Valerius Martialis, I mendeko olerkari izentsua, "Epigrama" esaten zaien olerkitxo gaxi-goxoen egillea izan zan. Ortan, EtToma'k izan zuan bikaiña.

"Martirologium Hieronimianum" esan oi zaio, baiñan, soilki, Jeronimo'ren gutun bat sarrera lez daramalako. Ez bait da Done ark idatzia. "Martirologium" edo "Martiritegi" auek, martiri bakoitzari-buruz xeetasun labur batzuk emanez, tokian-tokiko martirien zerrendak besterik ez dira. Eliz aundi bakoitzak hazuan bere martirologioa. "Jeronimo'ren" onek bi argitalpen izan zituan. Itali'n aurrenekoa, V mendean, 431'z gero laister. Bigarrena, eunen bat urte geroago VI mendean, Frantzi'ko Auxerre'n.

Ortik sortu zan agian Donesaturnin I mendekoa izan zalako ustea, Zesareo'k idatzi zuana Turona'ko Gregorio'k zabaldu bait zuan gero, VI mendean, bere idaztiño baten bidez.

Egia da, argi esaten duala Gregorio'k berak "Historia Francorum" izena daraman idazti nagusian Jondoni Satordi III mendean, 250'garren urtean ainzuzen, etorri zala Tolosa'ra.

Alatagutziz, ondo erroturik gelditu zan kristau arrunten idurimenean, Jondoni Satordi Apostoluen ikaslea izan zalako ori. Apostoluen ikaslea...eta Tolosa'ra I Klemente Aitasantuak I mendean bidalia! Ainzuzen gure arroke-ritxoax goxatzeko sortuak izaten diralako, arras atsegiñak gertatzen bait zaizkigu kondairak.

Ona emen, Iondoni Satordi'ren eriotzaz zer dion Turona'eko Gregorio'k berak:

Tarragona'ko Jondoni Murtuts bezala, bi diakonorekin batera omen zegoan Tolosa'ko Jondoni Satordi ere, atxilotua izan zanean. Baiñan Tarragona'ko diakono aiek Jondoni Murtuts beren gotzaiarekin batera martiri 11 ziran bezala, Tolosa'ko auek, arriskuaz oartu ziran bezain laister igesari eman omen zioten Jondoni Satordi beren gotzaia laguntzarik gabe bakarrik utzita.

"Esan oi danez, otoitz au egin omen zuan Jondoni Satordrk bere burua era artan bakarrik utzia ikusi zuanean: Entzun eidazu zeru santu ortatik, Josu Kristo nere Jauna, eta egizu ez dedila sekula-sekuletan uri ontako gotzai izatera tolosar bat iritxi. Ta, badakigu eskari ori bete dala gaur-egun arte".

Ikusi Gregorio beraren itzak bere latera baldarrean: "Itaque cum se ab illis videret derelictum orasse fertur: Domine Jesu Christe exaudi me de coelo sancto tuo ut nunquam haec Ecclesia de is civibus mereatur habere pontificem in sempiternum. Quod usque nunc ipsa eivitate ita evenisse cognovimus".

Gure Donesaturnin au da, Ireneo'ren ondorean Galietako gotzairik antziñekoena. Bera da beintzat Lyon'go Ireneo aren atzetik dokumentuetan

---

Nik Turona'ko Gregorio Donearen id2ztiak, "Monumenta Germaniae Historica"n aurkitu ditut. Orain aipatutako itzak, Bilduma Bikain orren I tomoaren I° zatiaren 23'garren orrian daude.

lenen agertzen dan gotzaia. "II primo Vescovo (gotzai) gallo menzionato dopo Ireneo" (ib).

la III mendean bertan asi omen zan ernetzen Tolosa'ko lenen gotzai Done arenganako eraspina. Ala diosku VI mendeko Gregorio turonatarak VI mende artarako zarra zala Saturnin Donearen Basilikari Galietako jendeak zion jaiera. Ederki "Bibliotheca Sanctorum" italiarrak: "Saturnino, dunque (beraz), uno dei santi della Galia il cui culti gode (gozatzen du) delle attestazioni pid antiche e pid solide" (ib).

Alatagutziz, ez da antziñatasun ori bere garrantzi aundiaren oiñarri bakarra:

"La vita de Saturnino in s non presentarebe che relativo interesse se no toecasse, indirettamente, quasi tutti i problemi circa li origine de la Chiesa gallica" (ib).

Galietako kristautasunarekin loturik dagoalako da beraz garrantzitsua Saturnino Deunaren bizitza: Galietako kristautasunarekin, eta, batez ere, Euskalerrikoarenarekin. Tolosa'n bizitu zan Saturnin; Garona ibaiaren ertzean. Irugarren mende artan, Garona'tik iparraldera, Dordoña ibaiaren ibarrera arte, euskalduna zan oraindik seguruaski, landa ta basoetako jendea. Garona'tik Aufiamendrra arteko lurra, berriz, Akitania zan. Ziurki Euskalerria.

Euskaldunen artean igaro zuan, beraz, Saturnino'k bere gotzai-bizitza guztia.

Etorri ote zan, kondairak nai duan lez, Baskoien Irufia'ra? Baleike. Zerhait eskiertasunez aldarrikatu aal izateko edestiak eskatzen duan dokumenturik ez dugu, baiña bere etorrera egiazkoa izan daitekeala esateko arrazoiak baditugu: Edestiztiari-buruzko filosofiaren araura indarrrik aski baduten arrazoiak:

Eraspen aundia izan zaio Euskalerrian, Iruña'n bertan bereiziki.

- Egiazko eraspen rnaitekorra izan zioten, "etxeko" egin bait zuten, izena, Saturninus "Satordi" biurtzera ausartu ziranean.

Izen-aldaketa orrek, gaiñera, Donesaturniirenganako eraspina euskaldunen artean zarra dala adierazten digu, orrelako aldaketak astiro egiten bait dira mendeak-zear.

- Eraspen ori zarra ez ez oso zarra ere badala erakusten digu, izen aldatuari "Jondoni" itz onuragarria aurre-erantsi izateak, oso-oso Done zarrei bakarrik ematen bait zitzaien izengoiti bikain ori.

Euskaldunek Iondoni Satordi esan zioten gotzai ortaz, eta, bereiziki, gotzai orrek euskaldunekin izan zezazkean arremagnetaz aski luzaro aiztintxe mintzatuak gera.

Iondoni Satordi beste gotzai ziuurrik ezin idoro dezakegu Tolosa'rentzat III mende osoko epe luze guztian, kondaira beste oiñarririk ez bait du, mende orren bigarren erdirako Iondoni Satordi'z gero aipatu oi dan Onorato Doneak.

Guri ordea, Euskalerrria dakarkigu gogora Onorato Tolosa'ko gotzai izan omen zalako orrek. Zergaitik? Iruña'ko Fermin Donearen kondairari loturik aurkitzen dalako.

"Sapplamo poco di questo personaggio e le scarse notizie conosciute sono incerte. Il suo nome proviene dalla leggenda di S. Firmino martire, 'raconto tra il piu favolosi', secondo il Duchesne'. Onorato vescovo di Tolosa avrebbe instruito e consacrato vescovo a Firmino, figlio dei senatore spagnolo Firmus, lui stesso convertito de S. Satornino" (Bihl. Sanct.)

Oroi dezagun kondaira ori: Iondoni Satordi'k, Tolosa'n, Onesto, Onesto Donea, bataiatzen du; eta apaiz sagaritzen du. Euskalerrria bidaltzen du mixiolari. Iruña'raifio iristen da Onesto. Ikus nolako pitxikeri dotorea esaten digun, Onesto'ren etorrerari-buruz F. Yzurdiaga Lorka'k, opusdeitarrek zuzendutako "GER" iztegian: "Debió de ocurrir esta venida en una de aquellas raras pocas en que los 'vascones' estaban dominados por los romanos"

Bein Iruña'n, Iondoni Satordi bere maixu.ari dei dagio Onesto'k, kristautu dituan irufisemeen eta irufialaben eskariz. Badator Iondoni Satordi Iruña'ra, eta beste askoren artean Firmo Fermifi'en aita bataiatu ondorean, Tolosa'ra itzultzen da, Iruña'ko kristauen zoria Onesto apaizaren eskuan utziz.

Onesto'k bataiatuko du eta bere mixioketakide egingo Fermin Firmo'ren semea. Onesto'k, bera zartzen ari dala ikusiz. Tolosa'ra bidaltzen du Fermin, an, Iondoni Satordi ilda gero bertako bigarren gotzaia dan Onorato'k apaiz eta gotzai egin dezan. Naparéjendeeek ziur uste izan dute beti, Donefermin izan zala beren lenen gotzaia.

---

Andres Duchesne (1584-1640), Frantziarra. Edestilaria. Edestilari frantziarren aita esan oi zaio.

Orra or nola, kondairak adieraztera darnaigunez, Tolosa'ko lenen gotzaiak londen l Satordi'k eta aren ondorengo gotzaiak Doneonorato'k egoaldeko euskaldunekin ere zer-ikusirik izan zuten. Iparraldeko euskaldunekin naitanaiezkoa bait zuten zer-ikusia, euskaldunak, seguruaski bera ere euskaldunez beterik zegoan Tolosa'ren atetaraiño iristen ziran ezkerero.

Gaiñera, euskalduna omen zan une artan Tolosan bertako gotzaia: ainzuzen, aiztintxe oraindik, aipatu dugun Onorato Donea. Ori dio beintzat, seguruaski beste kondairaren batetik aria artuz, Jesus Maria Alday klaretiarak:

"Fermfn procedfa de una noble familia de Iruña-Pamplona; sus padres Firmus y Eugenia eran paganos, pero se convirtieron al cristianismo cuando Saturnino, obispo de Toulouse estuvo predicando por aquella zona vascona. El hijo mayor, Fermfn, fue conflado a los cuidados del sacerdote Honesto, discipulo de Saturnino, que lo bautizd e instruyd en la fe cristiana. Viendo sus disposiciones y dotes naturales, lo envid a Toulouse para que se formara junto al nuevo obispo Honorato, nacido en Navarra y sueesor de San Saturnino. Fermfn prosiguiô su formacidn en la escuela episcopal donde recibió la ordenacidn sacerdotal y poco despues la ordenación como obispo" ("Santoral Vasco". Bilbao 1994. 148 or.).

Orra or beste Done Euskaldun berri bat: Onorato. E'zazula, ordea, aztu, kondaira utsa dala guztia. Alatagutziz, egiazko edestiak uts egiten digunean, pozgarri gertatzen zaigu, kondairek ere geienetan beren barnean egiaren apur bat eskeintzen digutela gogoratzea. Oraingo ontan ordea, kondaira bereizi oni dagokionez, zail izango zaigu egiaren apur ori zertan egon daitekean aurkitzea. Bai beintzat "Bibliotheca Sanctorum" iztegiak esaten digunaren araura. Entzun, berriro, bere mintzaketa:

"Onorato. Vescovo di Tolosa. Sappiamo poco di questo personaggio e le scarse notizie conosciute sono incerte. Egli (berak) figura al secondo posto nella lista episcopale di Tolosa, fra (entre) S. Saturnino, martire verso (gutxi gora bera) il 250 e Rodiano morto nel 358, ma il suo nome proviene dalla leggenda de S. Firmino martire `racconto tra il piu favolosi ('kondairik ipuitsuenetakoa') secondo il Duchesne" (Frantzi'ko eliz-edestilari ospetsua). A detta di questo documento, (kondaira orri zor diogun <sup>g</sup>i-puz) Onesto vescovo di Tolosa avrerbbe istruito e consacrato vescovo

Firmino, figlio dil senatore spagnolo Firmus, lui stesso convertito de S. Saturnino.

Ez du, beraz, eskiertasun geiegirik Alday'k eskeiñi-herri digun albiste alaigarri ark: "Honorato nació en Navarra y fue obispo de Toulouse".

III mendean eta IV'aren lenengo erdian naitanaiez izan zituan noski Tolosa'k gotzai geiago ere, haiñan aien aipurik ezin izango duzu iñon aurkitu. Ez zaitetz arritu. Oroi oso-oso-oso urriak dirala Sarkalde guztian, lenen mendeetako dokumentu kristauak

## ZARAGOZA

Euskaldunen Zalduba ta erromatarren Caesaraugusta, dugu III mendean Euskalerrria urbil-urbil zeukan uria; sarkaldean, Jalon eta Ibero ibaien gainean Baskoia zan Atabon, gaurko Alagon. Eta Ibero beraren ipar-ertzean, Kastellar (kastel-larre?) izeneko larrea" eta sortalderaxeago Alkubierre mendia "Vescitani" edo "Weszitar" euskaldunen muga ziran.<sup>15</sup>

Zalduba bera, Ibero'ren ego-ertzean, Keltiarren lurrean zegoan Strabon'ek dionez. "Edetani"en lurrean, beste idazle klasikoen ustez. Ez zaigu guri orregaitik axolik, jende aiena ez baiña euskaldunen edestia ari bait gera arakatzen.

Baiñan, euskal-leiñuetatik iru, Baskoiena, Uesziarrena ta Ilergetarrena ain alboan zitualako, eta bera ain uri aundi ta garrantzitsua zalako, naitanaiezkua da Zalduba zar artan euskaldunik aski bizi izatea. Salerosketatoki oparoa zan gainera Zalduha, ta egoaldeko keltihertarrentzat bezain azoka egokia iparraldeko euskaldunentzat.

Edestia-zear ez da arremarik peitu izan Zalduba'ko uriaren eta sortaldeko euskaldunen artean. Izan ote zan lenen mende aietan orrelako arrema-

---

An bertako apaiz lagun batek esana dut, izen ori, Castellar, berak idazti zarretan Castellarre idatzirik ikusi duala. 4Castel(u) edo Gaztel(u)-larre? "Vescitania", -- "V" ori "U" irakurri bear da Baskoien sortaldean zegoan euskal-leiñua da; Oska, gaurko Ueska, zuan uri nagusi. Agian orregaitik, "Oscitania" ere esaten zitzaion.

<sup>15</sup> Sortaldeko euskalkian oiturazkoa zan, dirudianez, "R "z bukatzen ziran toki-izenei "E" bat erastea: Gaztelarre, Alkubierre (Arkubierre?, euskera galdutako lurretan "R" oso sarritan biurtzen bait da "L"). Eta, mendi orren iparraldera, uezziarren edo ilergetarren lurretan Jabierre, Benabarre eta abar. Añamendi'ren beste aldean, berriz, Bigorre.

nik kristautasunaren asierari dagozkion gaietan? Noiz asi ote zan ordea Zalduba bera kristau-erri izaten?

Santiago'ren ebangelizaketari ta Zutoitzeko Andramari'ren etorrerari-buruzko kondairak bazter-utzirik, esan dezagun edestiak III mendera arte ez digula bere dokumentuetan Zalduba'ko kristautasunaren berririk ematen. Bat-batean, Irugarren mende orren erdi-aldera, iraizean bezala, Zalduba'ko Felis'en izena agertzen zaigu. Ona nola:

249'garren urtean izan zan agintaritzara igoa Dezio inperatorea. Be-realaxe eman zuan Elizaren aurka zigorketaélege berri bat, Trajano ezkeroraturik zegoan ala-olako pakeégiro aski goxo ura ezabatuz. Lege berri onen bidez, Erroma'ko Sasijainkoak gurtzera beartzen zituan ba inperiolurreko jende guztiak. Eriotza izanen zuten zigor, lege ori betetzen ez zuten guztiek.

Uste gabean arrapatu zituan kristauak giro-aldaketa latz, gogor, arras mingarri onek.

Alatagutziz, atxilotuak izan ziran kristaurik geienek naiago izan zuten bizia galdu sasijainkoak gurtu eta orrela lortu zuten martirien bué runtza. Asko izan ziran ordea fedea ukatuz sasijainkoei intzentsua eskeiñi zietenak; eta geiago, alako intzentsu-eskeintzarik egiteke, epailleengandik eskeintza ura egin zutela adierazten zuan gezurrezko txartel bat lortuz beren bizia salbatu zutenak.

"Libellatici" edo "txarteldunak" esan zitzaizen txartela lortuz bizia gorde zutenei, "txartela" "libellus" bait da lateraz.

Errez ematen zuten epailleek gezurrezko txartel ori, erromatarrak batez ere legiztian izanik yayoak, ondo bait zekiten txartel ura eskatze utsa, legearen aurrean egiazko fede-ukatzeta zala. Bazekian ori Elizak ere, eta ala, "libellatiej" edo "txarteldun" aiek egiazko fede-ukatzailleak zirala aldarrikatu zuan.

Eta orrela sortu zan "txarteldunen" auzi mingarria.

Guri, ordea, auzia bera ez baiña, auzi orrek gure inguruan izan zituan ondorioak ajola zaizkigu liburu ontan". Ondorio oietako bat, aipatu dugun Felis edestiaren orrietan azaltzea izan bait zan. Ikus nola:

---

Auzia bera, txarteldunen auzia, nere "Apostoluen eta Martirien Denborako Elizan aztertu nuan.



Ispanietan ere izan ziran bizia salbatzeko txartel ura eskatu zutenak. Garrantzitsuenak, bi gotzai: Astorga'ko Basilides eta Merida'ke Martzial. Biak izan ziran gotzaigotik kenduak, eta beste bi gotzai berri, apostasira jausitako aien tokirako sagaratuak: Felis, Astorga'rako: Sabino, Merida'rako.

Sarkaldeko kristaudian gizonik ospetsuenetako hat, Kartago'ko gotzaia zan garai artan: Zipriano Donea. Ziprian oni idatzi zioten, txarteldunen auzi artan zer egin galdetuz, Astorga'ko ta Merida'ko Elizek eta baita, Zalduba'tik "Feliz izeneko batek" ere, "un tal Felix de Zalduba" (Risco). Bi eskutitz artu zituan beraz Zipriano'k. Eskutitz oiek galduak ditugu, baiñan Zipriano'ren erantzunean datoz aipaturik galdutako eskutitz aiek bidali zizkiotenen izenak. Ikus:

"Quapropter sicut scripsistis, fratres dilectissimi, ut et Felis et Sabinus collegae nostri asseverant, utque alius Felix de Caesaraugusta fidei cultor atque defensor veritatis litteris suis...":

Euskeraz:

"Orregaitik, anai maiteok, idatzi didazutenez eta bai Felis eta bai Sabino nere eginkizunkideek diotenez, eta sinismenaren langille eta babesle dan Zalduba'ko beste Felis'ek ere bere idaztiaren bidez adieraztera ematen didanez..."

Zipriano'k ainbeste goretzi zuan Felis ori Zalduba'ko gotzai ote zan? Zalduba'ko lenen gotzaia, beraz, dokumentuei dagokienez? Baietz uste dute batzuek. Aita Gams "Series Eiscoporum"en egille beneditar doixtarrak adibidez. Ezetz ordea beste batzuek, Manuel Risco agustindarrak bezala. Ona emen, berak idatzi zituan bezala XVIII mendeko jakintsu onen itzak:

"No me determino a poner a Felix en el catlogo de los Obispos ciertos i indubitables (de Zalduba), contentandome con haber hecho aqui mencion de un tan insigne Cesaraugustano, de quien hablare mas largamente, quando tratare largamente de los Varones ilustres que han florecido en Zalduba" (España Sagrada, XXX, 111).

Nik, ordea, baietz esango nuke. Egia da, Risco'k dion bezala, Zipriaé no'k bere gutunaren asieran "coepiscopos", "gotzaigokideak", esaten diela Astorga'ko Felis'eri eta Merida'ko Sabino'ri, eta, geroxeago baita "collegae", "eginkizunkide" ere. Zalduba'ko Felis'i, berriz, "alius Felix", "beste Felis" esaten diola.

Baiñan gutunaren "coepiscopos" Astorga'ko Felis'i eta Merida'ko Sabino'ri esaten ba'die, gutun ura bi aiei bakarrik idazten zielako da. Gero ordea, gutunaren enborrean Merida'ko Sabino, Astorga'ko Felis, eta beste Felis, Zalduba'koa, aipatzen ditu, eta mailla berean iruak, "alius Felix de Caesaraugusta". Badirudi, beraz, iruak zirala gotzaiak, eta danetan ospetsuena Zalduba'koa, oni egiten dizkion goratarreen araura.

Gaiñera, "alius Felix de Caesaraugusta" ori ez daiteke ba, Riseo'k dagian bezala "un Felix que residfa en Zalduba" gaztelerara biurtu. Ori esan nai izan ba'zuan, "quidam Felix de Caesaraugusta" idatziko bait zuan latinista yayoa zan Zipriano'k. "Alius" esatean, au da aditzera eman nai izan ziena Merida'ko Sabin eta Astorga'ko Felis'i: Beste Felis'ek ere, Zaldubakoa'k, idatzi ziola.

Eta guk jasotako esaldi ortan Zipriano'k "fratres dilectissimi" esateak ez du gure iritziaren aurka baliorik. Itz oiek Astorga'ko Felis'ekin eta Merida'ko Sabifi'ekin bakarrik ari zala bait zituan esanak. Ez zuan ba oraindik Zalduba'ko Felis aipatu. Gaiñera, itz aiek Astorga'ko Felis eta Merida'ko Sabin aientzat bakarrik ez baiña, bi uri aietako Eliz osoarentzat esaten zituan. Bi gotzai aiek ez ezê, Risco'k berak ederki dion bezala, "ei Pueblo y Clero de Wrida, Astorga y Leon" izan bait ziran "al glorioso martyr San Cypriano" idatzi ziotenak (ib).

Ez dakigu Zalduba'ko "beste Felis oni ere Zipriano'k gutunik idatzi zion.

Gotzai izan edo gotzai izan ez, gure Felis ori, Zalduba'n III mendearren erdirako kristautasuna sendo erroturik zegoala erakusten digu Zipriano'ren gutun orrek; eta Ispanietan ospe eta indar aundia zuala ordurako Zalduba'ko Elizak. Berea ez zuan auzi batera sartu bait zan Zalduba'ko Felis!

Txartela lortuz salbatu ziran bi gotzai aien auzia eta auzi ark utzitako ondorio makurra konpontzea Astorga'ko Felis'i eta Merida'ko Sabiffi zegokien eginkizuna zan. Bi uri aietako gotzaiak bait ziran Basilides eta Martzial fedea ukatu zutenean. Astorga'ko eta Merida'ko Elizek eta Eliz oietako bi gotzai berriek bazuten, beraz, arras kezkatu ibiltzeko ziorik aski.

Zalduba'ko Elizak ordea ez zuan zertaz arduratu. Zalduba'ko Eliz au beste bi aien artean auzia konpontzera sartu izateak, eta Zalduba'ko Felis'ek, agian gotzai izan ere gabe, eta Zipriano'ren gutunak aditzera ematen

duala dirudianez beste bi gotzai aiei deus esan gabe Kartago'ra Zipriano'ri idatzi izateak, Zalduba'ko Elizak III mendean zuan itzal aundia adierazten digute.

Gizon au, Zalduba'ko Felis, bera gotzai ez ba'zan, Zaiduba une artan gotzairik gabe aurkitzen zalako gotzaiaren lekua betetzen zuan elizgizon omentsu bat ote zan?

Guri ordea, Euskalerrriaren atari ber-berean ze<sup>g</sup>oan Zaiduba'n kristautasunak alako dizdira ta alako eraginmena zituala ikustea ajola zaigu eta orrek poztutzen gaitu.

Iritxi ote ziran Zalduba'ko Elizaren kemen eta dizdira oiek ain bertan zeukan Euskalerrira? Eta Zalduba'ren barruan seguruaski ugari bizi ziran euskaldunen artean, bai ote zan ordurako, Aitagurea bere euskeraz erreztatzen zuan euskaldunik?

Zaiduba'n, urrengo gotzaia, dokumentuen bidez uri artako gotzaia izan zala ziurki badakiguna, Balerio Donea izan zan. Badakigu baitare Elbtra'ko Kontzilioan izan zala. Kontzilio ori, gaurko Granada'ren albo-alboan ze-goan Iiberis izeneko urian bildu zan; 300'garren urtearen inguruan".

Sartu gera, ordea, Balerio aipatuz IV mendera-ta, utzi dezagun urrengo atalerako Zalduba edo Zalduba'z izketan jarraitzea.

Argi uzten dugu beintzat, uri eder ortan bizkor zebilela III mendean kristautasuna, naiz dokumentuetan bertako gotzairik agertu ez.

---

<sup>17</sup> Olazar'tar Martin izkuntzalari eta Euskerazaintzako Lendakari adiskideari utzia diot atal au, bertara sartutako "errata" edo "akatsen" zuzenpena eskatuz. Eskerrak damaizkiot, egin didan lanaren truke. "Iiberis" izenaren alboan oar au ipiñi dit: "Izen euskalduna. "Iri Berri. Nondik?". Ez dakit, Martin. Euskaldunok ibertarrekin alkartu nai izan gaituztenek, izen ori, Andaluzi'n euskal-itxura duten beste itzekin maiz aipatu oin duten izena da. Baiñan izen baten euskal-itxura utsa ez da naikoa izen ori euskalduntzat artzeko.



## BORDELE

Dakusazunez, Akitani'n III mendean iru gotzai bazirala uste du Griffede estilariak. Egia da, atal guzti ortan, Zesaraugusto ezkerreko Loira-ren uretara iristen zan Akitani aundiaz ari dala, bairian III mende artan, iru gotzai-urri oietako bat, Bordele, Euskalerraren saietsa joz aurkitzen zan oraindik, eta, bearbada, aski euskalduna zan hera ere. Eauze, berriz, gure ELUSA, Ipar-Euskalerraren erdi erdian zegoan.

Iru gotzai-urri oietan gotzaiak bazirala esateko, logikaren bidetik dabil ni bezala Griffede estilari frantziarra ere. III mendeko dokumentuek urri oietako gotzaien berririk ez bai digute ematen. Baiñan 314'ean iru urri oietako gotzaiak (diakono baten bitartez Javols'ekoa) Arelate edo Arles'ko kontzilioan kontziliokide izan ba'ziran, amalau urtetxo leenago ere Eliz aiek nortasun aundiko Elizak zirala, naitanaiez egitzat artu bear dan gauza da.

Eta III mendearen bigarren erdi artan nortasunezko Eliz guztiak beren gotzaia bazuten!

Bordele da 314'ean Arles'ko Kontzilio ark aipatzen duan irugarren urri akitaniarra. An izan omen zan ba Kontzilioak berak dioskunez -- Elusa'ko Mamertino ta Gabali'ko diakono ordezkariarekin batera Orientalis Bordele'ko gotzaia.

Oraingoan ere, egin berria zan. Akitani aundiaren zatiketa zuan gogoan Arles'ko kontzilioak Bordele'ko gotzaiari "akitaniarra" esan zionean. Bordele, naiz Garona'n egon Nobenpopulani'tik at gelditu bait zan.

Alare bere jatorrizko euskalduntasuna ezbaiean ipiñi ez daitekean gauza da: "Selon toute vraisemblance, Bordeaux doit son origine historique aux Aquitains. La ville ne porta jamais que ce nom: Burdigala, forme latinisée d'un nom celtique peut-etre", qu% l'poque de la chute de l'empire et apr6 ont dformé en Burdegala".

Euskeraz:

"Seguruaski Akitaniarrei zor die Bordele'k bere sorkuntza, edestiaren arloan. Burdigala izan da beti bere izena, bearbada, izen keltiar baten

lateraketa", inperioa jausterakoan, eta baita geroago ere, Durdegala okerki biurtua"(Dic. Arch. Chret. et Litur".).

Egia, Akitaniarrek, ots, Euskaldunek, sortu zutela Bordele. Ez da ordea ain egia izen ori, **Burdigala** keltiarra danik, eta askoz gutxiago keltieratik latiñera igaro zalako ori. Izen ori, Bourdigaia, Burdigaia agoskatzeko, idazle elendarrak idatzi bait zuten aurrena.

Ta, jatorriz keltiarra izan daitekeala — peut etre esatea Lez al da askoz sinisgarriagoa jatorriz euskalduna dala esatea, euskaldunek sortutako uri baten izena dan ezkeror?

Anitz zurrago dabil "Die. Hist. et G6ogr. Eceles". *izen* orren jatoeriaz mintzatzerakoan onako au idatziz: "Burdigala est peut-are un mot Aquitain dont la signification reste inconnue": "Baleike, bere esan-naia ezezaguna zaigun itz Akitaniar bat izatea Burdigala". Bai, Jauna. Itz Akitaniarra. Euskalduna, beraz.

Arrigarria da edestilari eta gaiñerako idazle frantziarren euskerari-buruzko ez-jakintasuna.

Euskaldunek Bordele esan oi diote beti Garona ta Dordaña ibaien alkatze-lekuan aurkitzen dan uri ederrari. "Bordele" itzaren aldakuntza ote da idazle elendarrek "Burdigala" idatzi zutena, ala "Burdigala"ren aldakuntza ote dugu gaur-egungo "Bordele"?".

Julio Zesar'ek Akitani irabazi aurretik erri koxkorra omen zan Bordele, baiña 60.000 biztanle izateraiño azi omen zan III mendearen asierako. 276'ean, aipaturik utzi dugun barbaritarren eraso aietako batean porrokatua, bereala izan zan arresiz inguraturik birr-eraikia, baiña len baiño neurri

---

<sup>18</sup> Naiz Bourdigala idatzi, Burdigala agoskatzen zuten elendarrek izen ori. Ezpairik gabe aitortuko nuke nik Burdigala euskal-izen bat daia. "Burdi"-- "Gala" ebaki nai ba'dugu, ona zenbat aldiz aurki dezakegun "gala" Araba bakarrek toponimian: Galatxo, Galain, Galabidarru, Galamutxa, Galamuga-gabi, Galamutza, Galandai, Galarreta, Galarza... Ori, "Gal" utsa, edo "Galar" daramaten izenak gogoan artzeko! "Burdi" k berriz, naitanaiez dakarkigu oroi-menera "Burdin" itza. Ta ez dezagun aantzi, beste atal batean esanik utzi dedan bezala, erromateko edestilariak jakitierazi zigutenez, meatz ugariko lurra zala Akitani, eta meatzari trebeak Akitaniarrak.

txikiagoen barruan: Arresizko kabi ark ez bait zituan iparretik egoara 450 metro besterik, eta 725 berriz sartaldetik sarkaldera.

IV mendean artu zuan izugarrizko garrantzia jakintz-urri bezala, eta mundu guztian ziran goiaipatuak ango ikastetxeak eta arras txalotuak bertako irakasle ta izlari erretolika-aizez <sup>1</sup>.

Guri ordea, ajola zaiguna, Bordele kristaua da; bertako Elizak eraginmen aundia izan hait zezakean ateetaraiño urbiltzen zitzaion Euskalerrriaren ebangelizaketan.

"Ez dakigu deus, ordea, Bordele'ko kristautasunaren lenen urteetaz": "Sur Ies origines du cristianisme a Bordeaux et dans le Sud-Oust, nous n'avons rien nous ne savons rien" (I.c.). Arrazoi osoa du oraingoan H. Leclerq jaunak. "Ez bait dugu deus, berak dion bezala Bordele'ra eta Galietako Ego-Sarkaldera kristautasuna, noiz, nola, nondik eta noren esku-tik sartu zan usmatu aal izateko", kondaira-sorta bat izan ezik.

An ere Bizkai'n eta beste toki batzuetan bezala, arkeologiaren adigarri batzuk arri-oletako idazkiak eta lurregosizko ontzietako marrazkiak --erabilli nai izan dira, uri artako kristautasuna oso-oso goiztarra izan zala aldarrikatzeko, baiñan arkeologi hordeletarraren emaitza oiek ez digute batere ziurtasunik ematen, Bizkai'ko beste aiek ere eman ez ziguten bezala.

Alako gauza arrigarri bat gertatzen zaigu gaiñera Bordele'ko arkeologiari-buruz: IV mendera-arte aski ugariak dirala idazki-duten arri-olak. "Bat bakarrik ez, berriz, IV mendearen luzaro guztian", "Le IV'e sikle tout entier n'a pas une inscription" (ib); ori, ainzuzen Bordele'n kristautasuna ondo erroturik zegoala, ziurki badakigun aroan!

Dokumentuek, IV mendean ematen digute Bordele'ko lenen gotzaiaren aurreneko albistea. 314'e an egin zan Arles'ko kontzilio ura da albiste ori ematen diguna, Bordele'ko gotzaia an izan zala, eta gotzai orren izena Orientalis zala esanez.

Kondairak bai, Frantzi'ko eta Espaiñ'ko eta kristaudi zarreko gotzai-urri guztiek bezala, baita Euskalerrrikoek ere bezala, badu Bordele'k kondaira

---

<sup>19</sup> Itz egokia derizkiot "erretolikalaria" frantzerazko "rhe'teur" euskeratze-ko. "Rh&orieien", "erretorikalari" litzake, "Rheteur", ordea, itz-jario utsa dan izlariari esaten zaio. Ori da, berriz, euskerazko "erretolika"ren zentzua: geie-gizko itz-jarioketa.

politik. Ederki balio du beretzako, M. Labrousse'k Tolosa'z dasaigunak ("Toulouse Antique", 35):

"Comme celles de toutes les grandes cit6 episcopales, les origines chretiennes de Toulouse sont obscurcies de l'egendes, parfois tres anciennes, forgees durant les si6cles du haut Moyen Age.

"Celle qui se veut la plus glorieuse et fut, semble-t-il, unanimement recue jusqu'au XVII'e si6cle (...) n'h6ite pasa faire remonter l'evangeelisation de Toulouse aux temps apostoliques eta en attribuer le mexite a saint Martial".

Euskeraz:

"Eliz aundi guztien sorkuntza bezala kondairez illundua dager Tolosa'koarena. Askotan oso zarrak oi dira kondaira oiek: Erdiario Garaiean tajutuak.

"Danen artean aintzagarriena, -- eta, dirudianez, XVII mendera arte danek egiazkotzat eukia Tolosa'ren ebangelizalceta Apostoluen denborarai6no daramana dugu, ekintza orren merezimendua Donemartziari emanetz".

Gizakume santu arrigarria Kondairen arloan, Akitani'ko anitz Elizen jaiotzakoan agertzen zaigun Marzial Done ori.

Esan bait zuan bein Josu'k "utzi nigana etortzen umeei"..., ba, Marzial mutikoa ikusi zuanean esan omen zuan ori, Palestinarra, ta Martzelo ta Elisabete'ren semea omen zan: Eztebe Deunaren lengusua, eta Kepa Apostoluaren adiskidea --Kepa Apostoluaren aidea, beste kondaira batzuen ustez --, 15 urte omen zituan, Josu'ren jarrailleen artera sartu zanean. Ez ordea zuzenean Josu'ren ikasle bezala; Kepa'ren ikasle bezala baizik. Bai6nan, era ortan, izan omen zuan Josu'ren mirariak ikusi ta itzaldiak entzuteko zoria.

Bera izan omen zan azken-apariaren aurretik Josu'k apostoluei oi6nak garbitu zizkienean, uraren ontzia eskuetan euki zuana, eta geroxeagoko aparian serbitzari lana egin zuana.

Pentekoste-ondorean Antioki'ra joan omen zan Kepa'rekin. Eta Erroma'ra gero Kepa bere maixuarekin. Bein Erroma'n, Kepa'k ber-berak bidali omen zuan Galietan Eliza landatzera. Bi lagunekin abiatu zitzaigun mi-xiolari, bai6nan baita laister ostera Kepa'rengana itzuli ere, lagun aietako bat il zitzaiolako. Donekepa'k, bere makilla eman omen zion, eta berrira galietara bidali.



Makil arekin berbiztu omen zuan ildako lagun ura. Eta ori, makili artaz ildakoaren soin otza ukitu besterik egin gabe. Ekintza arrigarri oriaz gaiñera, ugariak izan ziran makil aren bitartez egin zituan mirariak, kondairek dasaigutenez.

Bere asmoa, mixioketa Limousin edo Limusifi'a ebangelizatzetik astea izan omen zan. Baiñan lurralde artako uriburu zan Lemobize edo Limoges urira iritxi bezain laister atxilotu omen zuan bertako jaurleak. Baiñan baita Jainkoak berealaxe espetxetik mirariz askatu ere.

Antxe bertan, Doneztebe'ren omenez, katedral bat eraiki omen zuan. Esan dugun lez, lengusu egiten bait zitzaion kristautasunaren protomartir edo lenen martiri ura.

Lemobize'ko uria kristau egifnik, bera izan zitzaigun bertako lenen Gotzaia.

Kristau berri aien artean, andre bat ospetsuenetako: Susana. Onen alabak, Baleri neskatiak, neskustasunezko eskeintza egin zion Jainkoari. Asarretu zan ordea bere senargaia, Eztebe Akitani'ko dukea, eta ordurarte bere andregai izandako neska aratz ari ezpatatz Iepoa moztutzeko agindua eman omen zuan.

Martzial'ek, eliz bat eraiki zuan Baleri neskutsaren burua lurrera erori zan tokian. Ta, Eztebe dukeak berak lagundu omen zion, damaturik eta bataioa arturik, bere emaztegaia izanaren omenezko eliz-eraiketa artan.

"Marziale continub l'evangelizzazione dell'Aquitania, raggiugendo Bordeaux, Poitiers, e spingendosi fino in Mauritania": "Akitani'ren ebangelizaketan jarraitu zuan Martzial'ek, Bordele ta Poitiers edo Pictabi kristautu ondorean, bere eginkizun ortan Mauritani'raitio iritxiz"<sup>20</sup>.

Akitani guztia ibilli zuan Martzial'ek, Bazter guztietan, agian kristauak martiritzarako gertutu naiez Doneztebe bere lengusuaren aintzarako elizak eraikiz.

Tolosa'n, Austris erregiña (i,?) Martzelo erregearen (4?) alaba legenetik sendatu, kristau biurtu, eta ixillean bataiatzea, izan omen zuan bere garaitzarik aundiena.

---

20 Bibliotheca Sanctorum. Donemartzial'en kondairak aipatzen duan Akitani ori, Akitani Aundia da.

"Pour ces premieres Martial aurait bati (a Toulouse), comme Limoges (Lemobices), Bourges (Bituriges), Cahors (Cadurci) eta Agen (Aginnurn), une 4lise dŠtliëe a Saint Etienne, et l'aurait dot& de reliques insignes du protomartyr. Inquiet de ces succes, le "roi" Marcellus aurait Uchainë une perscution contre les chr&iens. Saint Saturnin y p&it et Martial serait revenu a Limoges" (M. Labrousse, (I.c.).'

Euskeraz:

"Bere lenengo kristau aientzat Limoges (Lemobi), Cahors (Kadur), eta Agen (Agiño) urietan bezala, Tolosa'n ere egin zion eliz bat Eztebe Doneari, eliz ori Protomartir aren errelikiz aberastuz.

"Urduritu zuten Martzelo "erregea" Martzial'en garaitza oiek, eta kristauak zigortzeari eman zion. Zigorketa artan il omen zan (Tolosa'n) Saturnin Donea, (kondaira batzuen ustez, adiskide aundiak izan ziran ba Saturnin eta Martzial doneak). Orduan, (Saturnino Tolosa'tik Limoges'era itzuli omen zan Martzil".

---

<sup>21</sup> Aapaldi ontan aipatu diran laterazko izen oiek badute noski euskal-usaië ugari. Izenonondoko edo "adjetiboak" dira. "Lernovices"izenondokoak "Lernobitarrak" esan nai du, ots, Lemobi'koak; "Bituriges"ek, "Bituritarrak, Bituri'koak"

<sup>22</sup> Uri oiek danak Akitani aundikoak dira, "Akitania Secunda" esan zitaioneakoak. Agen ordea Adur ibaiean bertan dago. Erromatarrek Aginnum esan zioten, ablatibu-eran Agiano. Edonork daki "o" atzizkia toki-adierazle bat dugula eta baita "agina" zugaitz bat dala ere. Ortaz, Akitani'ko "Agin-o" Gipuzkoa'ko "Agin-aga"ren senide izango genduke. Doneztebe'ren erlikiak aipatu dira. Ona Tolosa'n erakutsiko dizkizutenak: Martiri aren odola ontzitxo batean, buruko ezur bat, eta, arrika izan bait zan illa, arrikatze artako arri borobil bat. Cahors, Dordoña ta Garona ibaien artean dago; antziña euskalduna izandako lurrean. Cadurci, esan zioten erromatarrek. Badu noski Kadurtzi izen orrek euskal itxura. Eta baita bere urak egoaldetik Loira'ra eramaten dituan ibai baten alboan dagoan Bituriges (Bourges) eta Lemoviees (Linioges)ek ere. Itz oiek, nongotasuna adierazten dute ta "Bituriarrak" eta "Lemobiarrak" edo "Lernobitzetarrak" esan nai dute. SEz al dute Letnobi'k Lernona'kin eta Bituri'k Bitori'rekin aidetasun-itxurik?

Nor izan ote genduan ba Tolosa'ko lenen mixiolaria? Donemartzial, kondaira batzuek nai duten lez? Ala Donesaturnin, beste batzuek uste duten bezala? Kondaira-mota auek alkarrekin konpondu nai izan dituzten kondaira-zaleek diotenez, Donemartziarek asi omen zuan Tolosa'ren kristauketa, eta Donesaturnin'ek jarraitu.

Baiñan ori ere, ori guztia, kondaira utsa besterik ez da; edestiaren aldetiko oiñarririk batere ez duan kondaira; X mendearen inguruan sortua. Baiñan alatagutziz ez da zaramategira botatzekoa, esan dugun lez, kondaira oiek izaten bait dute geienek egiazko gunea.

Egia da beintzat Saturnino Donea Tolosan Ibilli zala, eta naiz kondaira oiek esan ez, Tolosa'ko lenen gotzaia izan zala. Kondaira oiek sortu baiño askoz leenago, VI mendean ainzuzen, idatzi zuan Turona'ko Gregorio'ri entzuten ba'diogu, aragi ta ezurrezko mixiolaria izan zan Martzial Donea ere, baiñan ez I mendekoa 11I mendekoa baizik Saturnino bere adiskidea bezala.

Eta Donemartzial bera Limoges'ko gotzaia izan omen zan 250'garren urteaz gero, Gregorio berak dioskunez..

Egia ote da Nobenpopulani'ra, ots, Akitani zarrera iritxi zala, eta euskaldunen artean mixioketan ibilli zala? Erantzunik ez duan galdera.

Ta..., Bordele'k? Nolako eraginmena izan ote zuan Bordele'k euskaldunen artean? Garona'ren egoaldera, naitanaiez izan zuan Bordele'k bere "elizbarrutiko" mugen barruan euskaldunen lurralde-puska bat, esan dugun bezala erromateko "civitas" edo uriak berak ere probintzi txiki batzuk bezalakoak izaten bait ziran. Elizak, berriz, Laterriak egindako lur-eraketa jarraitu zuan bere zabalkundean.

Gaiñera, Bordele'n bertan ere, Tolosan eta Zalduba'n bezala ugari izango ziran euskaldunak. Euskaldun kristaurik bai ote?

Dokumenturik ez dugu-ta, edestiaren aldetik ezin izango diogu galde orri erantzunik eman. Baiñan logikaren aldetik sinistekoa dala dirudi, Tolosa'n, eta ZaIduba'n bezala Bordele'n ere euskeraz otoi egingo zitzaiola kristauen Jaungoikoari "Aita Gurea" euskeraz esanez.

Ta? Kaiagurri'n..., ez ote? Baita Kalagurri'n ere, ezpairik gabe.

III mendeko kristautasunarena indarra beste alde batetik aztertzen asi baiño len, oroi dezagun Borgoria'ko Autum uria, Erromatarren Augustonum. Orduango Eusakalerrri zabaleko euskaldunengandik ez bait zegoan gaurko Euskalerrri txiki ontakoongandik bezain urruti.

"Oso azkar iritxi zan Autun'era kristau-ereintza, Pektorius'en arri-ol-  
idatzi txit aipatuak ezaguerazten digunez, III mendekoa da eta eleneraz  
dago. 1802'an izan zan aurkitua Autun'go Saint Pierre L'Estrier deritzan  
illobiteguian", "The Catholic Encyclopetlia" amerikarrak dioskunez. Ona  
bere itzak:

"Christian teaching reched Autun at a very early period as we know  
from the famous greek inscription of Pectorious which dates from the third  
century. It was found in .802 in the cementery of Saint Peter l'Estrier at  
Aucun".

Bazan ikusi duzunez, kristautasun-lahe indartsu bizkorra Euskalerra  
Zabal aren iparralde ta sortalde guzian. Errez iritxi zitezkean Autun'dik ere  
Jabe guri artatiko txinpartak Euskalerriraiño.

## ELUSA

So-daiogun arreta bereiziz, Garona ta Aturri edo Adur ibaien arteko lurretan Akitani zar euskaldunaren erdi-erdian zegoan auze'ko Eliz euskaldunari. Gaur oraindik Gaskuña esaten zaio len Wascuña (Wasconnia) esan zitzaion lurralde ari bere jatorrizko euskaldutasunari omen egiñez. Oroi, nik euskeraturik, M. Labrousse'k bere "La Gascogne avant Ia Gascogne"n esan ziguna: "Euskalerrria da noski antziñako Erri akitaniarren kulturak oraindik duan azkeneko basbes-lekua, eta, gaurko euskaldunak dira, beren kiulturari leial jarraitzen dioten azkenéakitaniarrak".

"Êauze", gaur frantzeraz ematen zaion izena da, baiñan beste izen asko izan ditu uri orrek, geienak euskal-itxura nabarmeneko izenak: Elusa esan zioten erromatarrek, eta, orduetzker, Elusat, Elosa, Elisona, Elizona ("Civitas Elizona") ere esan oi zaio. Bere egiazko izena, ordea, Pomponio Mela'k eman zion ELUSABERRI ote da? Berak nominatibo eraz latifieratu zuan bezala, "Elusaberris".

---

<sup>23</sup> Dictionnaire d'Histoire et de Geographie Eelesiastiques: "Pendant les premiers siecles da l'oceupation Romaine, Ia ville principale des Elusates s'appeIIait Elusaberris" (Pomponius Mella: `De Sit. Orbis', I<sup>a</sup>, II, 5 eta III, 2)". "Erromateko lenen naendeetan elusatarren uri nagusiak Elusaberris zuan izena"

Ez dut uste Iztegi ospetsu ori oraingo ontan zuzen dabillenik, Pomponio Mela'k ez bait du Elusaberris'ik aipatzen. Auetxek dira damaizkin izenak: "Iliberri", eta "Elimberrum" (II1,2). Iliberri, Auñamendi'ren iparraldeko maldan zegoan. Elimberrun, Bederatziurita edo Nobenpopulani'ren erdian zegoalako, izan daiteke Elusa, uri oni, bai, esan bait zitzaion Elusaberri, naiz Pomponio Mela'k ez. Ortarako, ordea, Elimberrun itzaren nominatibu-erak Elimberris izan bearuko lukeala dirudi. Elusa'ren izen ugarien auzia "Dietionnaire d'Archeologie Chretienne et de Liturgie"n aurkituko duzu oparo landua.

Uri txikia da gaur, baiñan aundiagoa izan zan antziña artan. Bera bai zuten euskaldun akitaniar "Elusitarrek" uri nagusi. "Elusates" izan zan erromatarrek leiñu artako euskaldunei ernan zieten izena.

Crasus izeneko Julio Zesar'en ordezkariak, menderatu zuan Elusa, Krist'aurreko 66'garren urtea baiño pixkaren bat lentxeago, Julio Zesar'en "De Bello Gallico" k dionez.

Kristautasuna gure uri ortara noiz sartu zan ez dakigu. III mendean tinko erroturik zegoala, bai; II mendean kristautasuna bertara ugariki sarturik eta bertakoa egiñik egon ez ba'zan, ez bait zan 314'ean Arles'ko kontziliora Elusa'ko gotzai bat joango. Izan ere, 314'ean ez bait zan Elusa'n gotzairik izango ere. Baiña bazan gotzai bat. Gotzai orrek Mamertinus, zuan izena. Eta Arles'ko kontzilioan egon zan.

Logikaren arau guztiak zintzoki betez aitor dezakegu beraz Eliz euskaldun bat bazala III mendeko Euskalerrian, kristautasuna gure artera aski goiz sartu zalaren adigarri.

\* \* \*

Are geiago, III mendearen erdian ere, kristautasuna Elusa euskaldunearn sarturik egon zitekeala esateko beste "arrazoi" bat ere badugu: Naiz ez osoki ziurra, bai aski itxura politekoa: Paterno izeneko Done batek bere martiritzaren bidez damaiguna.

Bi Done aipatzen dira Elusa'ko Elizaren sorkuntza-arokoak: Luperko eta Paterno Doneak:

Kondaira batek dioskunez Paterno Donea izan zan Elusa'ko Elizaren sortzaillea. Eta Saturnino Tolosa'ko gotzai Doneak, Jondoni Satordi'k, bidali omen zuan III mendearen erdian Tolosa'tik Elusa'ra.

Paterno, Parterniano, Paternuzio ta Paterio izenekoak, 10 Done datozkigu "Bibliotheca Sanctorum" iztegian. 10 oietatik 3'k bakarrik izan zezaketen Elusa'rekin zer ikusirik. Baiñan iru oietatik ere ez digu batek bakarrik balio.

Iruetan aurrenekoa, Abranxes (Abranches)ko Gotzaia, lekaide izan zan aurrena. Gero, orduan lekaide askoren artean oiturazkoa zan bezala, "eskale" biurtu zan, eta kristautasuna zabaldu naiez Skubilione zeritzan lekaidekide batekin bideetara irten zan, erriz erri jbilli zan ia "dana jentilla zan Galietako landa zabalean".

Oroi, kondaira bat dala mintzatzen ari zaiguna. Alare, Galietako base-  
rritarrak, eta Euskalerrikoak, eta Ispanietakoak, ia danak jentillak ziralako  
ortan arrazoi osoa du kondairak. Ori gertatzen bait zan Kristaudi osoan,  
Eliza laugarren mendera sartu arte landetako jendeak ebangelizatzen asi ez  
zalako.

Eskale ibiltze ori orduango lekaide-kera ugarietako bat zan: "Rico-  
nosciamo in questa sua decisione rideale caro ai monachesimo (lekaidetza)  
antico, specialmente d'Irianda: la peregrinazio pro Christo" (Bibl. Sanct.).

Ibilketa aietan                    ote zan Elusa'ra?

Ez. Ibilketa aiek danak Normandi'n egin zituan, gaur "Manche" esaten  
zaion probintzian. Eta an bertan izan zan, lurralde artan dagoan Abranxes  
urirako gotzai sagaratua. Ez digu, beraz, Elusa'ko Elizaren sortzailletzat  
balio.

Aurkitzen da zertzelada polit bat bere bizitzan: Bera eta bere laguna  
apostolu ibiltari ziranean, sasijainko jentillen omenez jai zegian erri batera  
iritxi omen ziran, eta an kristautasuna aldarrikatzen asi jende guztiaren  
aurrean.

Emakume batek, bi mixiolari apal aiek iraindu nairik, bere gona atze-  
tik jasota, ipurdia erakutsi omen zien. Ikus nola ematen digun gertakari  
orren berri Fortunato zeritzan V mendeko gotzai idazle batek:

"Impudica et sine fronte mulier, ut eos pudore afficeret, elatis a tergo  
vestimentis, posteriora illis sua monstravit. Quod impune non tulit Deus,  
quia nates eius statim uleeribus innumeris putruerunt, que sanari non potue-  
runt, nisi petita a servis Dei venia".

Euskeraz:

"Emakumezko lizun purtzil batek, biak lotsagarri utzi nairik, atzeko  
jantzia goruntz jasota, atzekoaldea erakutsi zien. Ori, ordea, ez zan Jain-  
koaren zigorrik gabe gelditu, emakumetxo aren ipur-masaillak zenbatu ezin  
aiñako zauri ustelez bete bait ziran bereala. Jainkoren bi morroien otoitzak  
bakarrik sendatu aal izan zituan zauri aiek" (ib.).

Ori guztia, Normandi'n gertatua da, eta V mendean. Ezin izan zite-  
kean, beraz, V mende ortakoa zan Paterno Done au III mendean Elusa'ko  
Elizaren lenengo gotzaia.

Bigarrena, Bannes'ko gotzaia. au ere. Elusa'tik urruti, Armo-  
rika'n, Galietako ipar-sarkaldean bizitu zan. Eta, V mendearen bigarren  
erdian.

Irugarrena, lekaide utsa izan zan beti. Ta ez dirudi Normandi'tik otoiz atera zanik.

Arras egoki dio beraz "Dictionaire d'Histoire et de G6ographie Ecc&siastique" k "Elusa'ko Eliza Done Saturnino'k bidalitako Donepaterno batek sortu zualako kondaira orrek iñongo aldetik oiñarri sendorik ez duala": "La 14ende d'un S. Paterne &abli par S. Saturnin pour premier 6r&lue d'auze ne m&erite pas crane".

Besterik da ordea Doneluperko'ri dagokionez.

Izan ere beste kondaira batek Paterno ez baiña Luperko edo Lupertzio bat aurkezten bait digu Elusa'ko Elizaren sortzaille bezala. Ikus dezagun kondaira onek izan dezakean balioa.

Beren izenaren errotzat Lupus (euskeraz Otso) daramaten Doneak ere asko dira. Baiñan danetatik, batek bakarrik izan zezakean antziñate artan Elusa'rekin zer ikusirik: Lupizino edo Lupiziano izeneko lekaide batek.

Done au ere, lekaide eskale aietako bat izan zan aurrena, baiña gero, "ad vicum Berberensem qui nunc Lipidaco dicitur": "orain Lipidako eta len Berbera esaten zitzaion baserri batera" bildu zan; eta an etxola txiki baten barruan itxi zuan bere burua. Leiatillatxo batetik ematen zioten jana. Barruan, burugaiñean arritzar astun aundi bat beti zeramala, penitentzigintzan eta salmoak abesten igaro oi zuan eguna (Turona'ko Gregorio. "Vita Patrum", 13 or.).

"Lipida-ko", ala "Lupida-ko" eta "Ber-bera" euskal-usairik aski baduten izenak dira. Baiña..., dirudianez beintzat, Auberni'n zeuden, Dordoña ibaia jaiotzen dan lurralde menditsuan. Ta ez nintzake ni Auberni noizbait euskalduna izan danik esatera ausartuko.

---

Alare, Euskalerrira goiz sartu zitzaigun izena dugu Paterno, Kukulla'ko DonemIIIian'en lekaidetxeko larrukietan agertzen bait da. Ala, adibidez, lekuko edo testigu bezala "Paternus Abba" bat, 11I Gartzia Naparroa'ko erregeak izenpetutako larruki batean. Eta baita leenago 871'garren urtean beste "Paternus" bat, lekuko bezala au ere, gaur Akosta deritzan Okoizta erri araharreko Iondoni Bisintxo'ren lekaidetxeari egindako eskeintza bat legeztatzen duan larruki batean. Araba'ko Balpuesta'n bederatzigarren mendearen asieratik amaikagarrenaren erdiraiño iraun zuan gotzaitegiko dokumentuetan. berriz, 10 aldiz agertzen zaigu Paternus izena.



Gaifiera, Lupertzio esan oi zaion Lupiziano au lekaide eskale izan zanean ere noizbait Auberni'tik Akitard'ra etorri zanik ez dakigu. Baifia errez etorri zitekean, Akitani ez bait zegoan Auberni'tik urruti. Baietz eskierki esateko, ordea, batere ziorik ez dugu. Ez dakigu gainera zer men-dez bizitu zan. Itxuraz. IV'ean edo V'ean.

Orregaitik, arrazoi guztiz, dio "Bibliotheca Sanctorum"ek, Lupiziano edo Lupertzio bat Elusa'ko Elizaren sortzaille egiten duan kondairak ez duala sinispenik merezi.

Alare, ori esan ondorean bi izen aien antzeko beste izen bat aurkezten digu, Luperko, betidanik elusatarrek Doneluperko bat beren zaindari lez agurtzeko izan duten jaiera aundia aitortuz, eta jaiera orrek nolabaiteko sustrai sendo bat izan bear duala esanez, Eta ona zer izan daitekean bere ustez sustrai ori: III mendearen erdian, Dezio Inperatore zala, martiri ildako Lupertzio zeritzan kristau ez-apaiz bat izan zala. Luperko ori omentzen omen zuten elusatarrek. Ikus Iztegi orren aitortpena:

"Sembra (dirudianez) tuttavia (alare) che il Lupercio sempre onorato como patrono della citth. di Eauze (Elusa), Aquitania, sia piuttosto (azkenean) un christiano martirizzato sotto Decid (250-251)".

Ezur eta aragizko Lupertzio bat ziurki izan zala, Elusa'n bertan agertutako arri-ol batean datorren idazki batek aitortzen digu. Orregaitik dio "Dictionaire d'Histoire et Geographie Ecclésiastiques" iztegiak:

"Si la légende d'un S, Paterne établi par S. Saturnin pour premier évêque d'Eauze ne merite pas creance, l'existence d'un S. Lupercus, attestée par une inscription votive au nom d'un curator civitatis Elosatium est un temoignage de la haute antiquité de la Onaration du christianisme dans cette re.gion".

Oraintxe ipiñiko dut euskeraz aitortpen ori. Esan dezadan aurretik, erromatekoan, "curator", uriko azokaren, ots, salerosketen zuzentasunaren ardura zuan udalkideari esaten zitzaioa.

Ta, orain, aitortpenaren euskeraketa:

"Elusa'ko lenen gotzaia Iondoni Satordi'k ezarritako Donepaterno bat izan zalako kondairak sinestua izaterik merezi ez ba'du ere, Doneluperko bat izan zala beintzat elusatarren uriko "curator" baten idazki esker-emaille batek egiztatzen digu. Ta, idazki orren testigutzak, lurralde ontara kristautasuna zeñen goiz-goiz sartu zan erakusten digu",

Elusa'n agertutako arri-oi ori, ordea, "krismoia" daramalako, ezin daiteke III mendeko izan. IV'aren amaierakoa edo V'goa, bai, izan daiteke. Baiñan bere idazkeraren araura VI edo VII mendekoa dala ematen omen du.

Ez liguke beraz balioko, iztegi orrek nai lukean bezala, Elusa'ko kristautasunaren goiztatasuna oiñarritzeko, idazki ori idatzi zanean, Doneluperko naitanaiez askoz leenago jaiera aundiz eraspendua izan bear zuala, kontuan artuko ez ba'genu. Leenagotik orrela omendua izan ez ba'litz, ez bait zan VI mendeko idazki artan santua lez otoiztua izango.

Idazkiak aipatzen duan Done orren izena, "Sanctus Lupercus", doneizen zaarra da, eta bai izen ori eta bai orren antzekoak, "Lupus" itzetik sortutako danak, lurralde askotan aurkitu daitezke<sup>25</sup>.

Arri-ol ortan dakusguna zein izan zan ez dakigu. Ezta, iñoiz Elusa'n izen ortako donerik izan zan ere, naiz done ori aipatzen duan arria Elusa'n aurkitua izan.

Alare, Doneluperko aipatzen digun arri-ol ori Elusa'n agertu izateak... , Doneluperko eskertuz arri-ol ori idatzierazi zuan kristaua Elusa bertako "curator" izateak..., Elusa'ko uriak betidanik Doneluperko zaindari maitetzat euki izateak..., "Bibliotheca Sanctorum"ek elusatarren Doneluperko ori, Dezio'ren zigorraldian ildako kristau ezapaiz bat izan zala aditzera emateak..., eta frantzerazko iztegi ospetsu ura ere aburu berekoa izateak..., guzti orrek bai, guzti orrek badu, batera bilduta aski arrazoi sendoa biuritzen zaigulako, kristautasunaren Akitani'rako sarrera "de haute antiquitC, "antzitiatasun aundikoa" izan zalako ustea sinistagarri biurtzeko aalmenik aski.

"Antzitiatasun aundikoa"! gure Akitani Euskaidunerako sarrera ori, i,III mendekoa? Bai, nere ustez. Bai! Logikaren araura, ezpairik gabe III

---

<sup>23</sup> Nonbait irakurria dut "Lupus" eta izen ortatik sortutako izenak, -- "Luperculus" adibidez --, Auñamendiaren bi aldeetan dirala beste iñon baiña ugariagoak. Auñamendi osoan, garai artan, euskeraz egiten zan. Eta "Lupus" "Otsoa" ren later-itzulpena dalarik, izen oiek danak badaiteke, "Otsoa"tik sortutakoak izatea. "Luperculus" euskerazko "Otxoa" izango litzake: "Otsotti-  
pi 11

mendekoa. Batez ere Arles'ko kontzilioan izandako Mamertino gotzaia berriro gogora badarkigu.

"Sanctus Lupercus" aipatzen duan Elusa'ko Arri-ola bera erdiaroko euskal-kristautasunaz itzegiterakoan aztertuko dugu.

Aski bekigu orain, logikaren araurik estuenen bidetik ibilliz III MENDEAN EUSKALDUNEN ARTEAN AITAGUREA ERREZATZEN ZALA... bildurrik gabe esan oleskatu dezakegun gauza dala aldarrikatzea. Beste arazo bat da euskaldunek Aitagure ori euskeraz erreztatzen zuten jakitea. Saiatuko gera, bere tokian, arazo orri erantzun bat ematen.

\* \* \*

Bestalde, IV mendeko Elusa'n kristauak ugari zirala jakiteko, arri-ol orren bearrik ez dugu. Mende orren asieran, ugaritasun orren adigarri, esan dugun lez gotzaia ere bazutela bai bait dakigu. Eta gotzai ori Arles'ko kontzilioan izan zala: Eta bere izena Mamertinus zala ere bai.

IV mendeko ugaritasun ori ordea, landarea azitik datorren bezala, III mendetik zetorkion Elusa'ko Elizari. Izan ere, Arles'ko kontzilioa IV mendearen asieran, 314'ean ainzuzen gertatu zaiako. III mendearen azken-aldera, 290'garren amarrekoan, Mamertinus Elusa'ko gotzaia bait zan. Eta Elusa'k ez bait zuan III mendearen azken-urteetan gotzairik izango, askoz eta askoz leenagotik Eliza bertan erroturik egon ez ba'litz, eta III mendearen azkenerako oso bizkorturik, sendaturik, eta azirik aurkitu ez Kristautasunerako konbertsioak ez dira bat bat-batean eta multzoka egiñak izaten, banaka-banaka eta epe luzeen astian baizik.

Ori apustu-moduz jarri ezkeru, milla euneri oiukatuko litzake gure pelota-lekuetan, eta ez luke iñork apustu ori azpitik artuko,

Baiñan... galdetuko dit agian norbaitek --, III mendean Elusa'ke kristau aiek zer ote ziran, euskaldunak? ala Elusa'n bizi ziran erromatarrak?

Euskaldunak, ezpairik gabe.

Esan dezagun lendabizi onako gauzatxo au: Elusa'n ez zala sekulan, beraiek bakarrik, gotzai eta guzti, Eliz bat osotzeko aiña erromatarrik bizitu. Ezta askoz gutxiagorik ere!

Gero, oroi dezagun lau mende leenagoko Kalagurri: Erroma'ko laterkide arteko guda batera Sertorio'ren alde ta Ponpeyo'ren aurka ain gogorki sartu zan Kalagurri.

Guda artara sartu ziran kalagurritar aiek ez ziran Kalagurri'n bizi ziran erromatarrak, Baskoiak baizik. Kalagurri'n ez zan, beraiek bakarrik an gertatu ziran borroka ikaragarriak egiteko aiña erromatarrik bizi. Ez dizu, gaiñera, edestilari ala beste edozein erromatar idazle bat bakarrek, borrokalaria aiek Kalagurri'ko erromatarrak izan ziranik esango; Kalagurri'ko Baskoiak izan zirala, esango dizute.

"A pari", ots, "era berean", Kalagurri'ko gudari aiek euskaldunak, Baskoiak, ziran bezala, Elusa'ko kristau aiek ere euskaldunak ziran, Akitaniarrak, "Elusates", Elusatarrak.

III mendean, beraz, egiten zitzaion euskeraz otoi Josulcristo'ren Jainko Aitari: "Aita gurea zeruetan zerana"...

Ez zait agian faltako, III mende artan oraindik euskerak Akitani'n ba'ziraun galdetuko didanik. Ez dut olako orrentzat erantzun ziurrik, dokumentuen bear gorrian aurkitzen geralako. Baiñan, baietz esango nioke nik.

Egia da, dirudianez, agian Akitani Euskalerrriaren beste puskak baiña lenago ta geiago erromartu zala. BaiNa Elusa bezain uri aundi ta oparoa zan Oska, oraingo Ueska, erromateko garai artan eta Akitani bezain erromartua zegoan Aragoiko lurralde zelai zabala. Oskan, ordea, naiz Oska Aragoi'ko zelaiean egon, XIV mendean, 1.349'an ainzuzen, bizirik ziraun oraindik euskerak Oska'n eta erabiltzen oraindik ango kale eta azoketan euskera.

Ori, XIV medeko Oska'n egia izanik, pentsatzekoa da III mendeko Elusa'n ere egia izango zala, ots, naiz XIV mendean ez, III mendean beintzat erabilliko zala oraindik Elusa'n euskera.'

---

<sup>26</sup> 1.349·garren urtean Ueska uriko "Ordenanzas" edo "Arauetan" onako auxe gelditu zan agindurik: "ttem nuyl corredor sia usado que falta mereadeda ninguna que compre ni venda entre ningunas personas faulando en algarvia nin en abraych nin en banscitens". Bernardo Estornes Lasa: "Origenes de los Vascos" III, 36 or. Ego-Euskalerrriaren muga-mugan zegoan Oska amalaugarren mendean. Alatagutziz Euskera erabiltzen zan an, XIV mendearen erdian. III mendean orduango Ipar-Euskalerrriaren erdi-erdian zegoan Elusa'n ere erabilliko zala, dez al da eskierki uste izateko gauza?

## GABALI'ko ANDERITO.

Bituri urinagnusi zuan I Akitani'n III mendearen azken-aldera uri gotzaiduna.

Anderito edo gaurko Javols'eko Eliza da Arles'ko kontzilio artan izan zan beste Eliz akitaniarra. baiñan Zesaraugusto'z geroko Akitani aundia dauka gogoan Griffe'k, Anderito'ko Elizari Eliz akitaniarra esaten diorean. Anderito, "Gallia Narbonensis" zeritzan probintziarekin muga egiten duan lurraldean bait zegoan: Auberni'ren egoaldean: Nobenpopulaniitik aski urruti, orduan Gebale ta gaur G&audan esaten zaion lurraldean.

"Gvaudan" eta "Javols"; izen oiek ez dute noski euskal-itxura aundirik. Euskal-usai geiagokoak dira erromatarrek ematen zizkien eta aiei jarraituz nik ere eman dizkietenak: "Gabali", Wvaudan'eri; "Anderito", Javols'eri.<sup>27</sup> Iristen ote zan III mendean euskera Auberni'ko Anderito eta Gebale aietara?

Arelate (Arles)'ko kontzilioa baiño askoz leenago Gabali'n kristautasuna bizkor zegoala adierazten digun aztarna bat beintzat badugu. Ili mendearen erdian, 257'an, alamandarrak, Kroko erregea buruzagi zutela, Ga-

---

<sup>27</sup> Anderito edo Andereto, "Anderetto", ots, "Anderetxo" irakurri nai izatea parragarrikeri aundia izango da noski; baiña ona emen, "Anda"z asten diranak aipatzeke Araba'n bakarrik "Ande"z asten diran toki-izen euskaldunak: Andetxa, Andetxabidea, Andetxabidegana, Andetxaga, Andetxarrate, Andetxasoleta, Andetxasolo. Andetxasoloeta, Andela, Andelaya, Anderejo (Andeé rexo), Anderitxaldea, Andetfa. "Anderitus", gaiñera, izenondokoa edo adjetibo da: "Anderi'koa", agian "Anderrri'koa" edo, bearbada, "Ander'koa" esan nai du. Ona, berriz, Araba bertako auek ere, Gabaz asten diranak: Gabalaza, Gabalgioleta, Gaba, Gabaibe. Gabaide, Gabaiturri, Gabaño, Gabarana, Gabaza, Gabia, Gabilamendi, Gabilarana, Gabilondo, Gabiña. (Gerardo Lz. de Gereñu Galarraga: "Toponimia Alavesa")

lietara, sartu ziranean, Pribato zeritzan Gabali'ko gotzai bat martiri il zute-  
la, bait diosku Turona'eko Gregorio'k:

"Inruentibus autem Alamannis in Gallias, Sanctus Privatus Gabalitanæ  
urbis episcopus in criptam Menunatensis montis, ubi ieiuniis orationibusque  
vacabat, reperitur" (...) demoniis immolare compellitur. Quod spurcum ille  
tam execrans quam refutans, tamdiu fustibus caeditur, quoadusque putaretur  
exanimis. Sed ex ipsa quassatione, interpositis paucis diebus, spiritum  
exhalavit. Chrocus vero comprehensus, diversis adfectus suppliciis, gladio  
verberatus interiit, non inmerito, poenas, quas sanctis Dei intulerat, lue-  
ns" <sup>28</sup>.

Euskeraz:

"Jausi zitzaizkigun ha Galietara Alamandarrak, ta Prihato Donea Me-  
matimendiko leiza batean arrapatu zuten. Bai bait zuan barau ta otoitz egin  
naiez ara joateko oitura. Deabruak gurtzera beartu nai izan zuten. Pribato'k  
ordea, alako zikinkeru ura gaitzesten eta aren baliorik eza aldarrikatzen asi  
zitzaizkien. Orren ondorioz, makilka zigortua izan zan, zigortzailleek arna-  
sik gabe gelditu zala uste izan zuten arte. Andik egun batzuetara il zitzai-  
gun, jasotako zaurien ondorioz.

"Kroko ere baitua izan zan ordea, eta era askotara oiñazetua eta, azke-  
nean, ezpataz jota erailla. Orrela jasan bear izan zituan berak ere, eta ez  
arrazoirik gabe, Jainkoaren santuei jasanerazi zizkien oitiazee-minak".

Egia da, Turona'eko Gregorio'k ori dana, erriko jendearen agotik  
lasoa zuala, eta, orregaitik, ezin dezaiokegula, zalantzaren apur txiki bat  
gabe siniste beterik eman.

Alatagutziz, ezin azturik utzi dezakegu, Gabali'ko gotzaiaren marti-  
riotza'z idazterakoan, Gregorio'k, bere jatorri-lurreko gertakizunak kontat-  
zen dizkigula, eta, orregaitik, bazekiala noski zer ari zitzaigun kontatzen,  
Auberni'koa bait zan bera ere jatorriz. Auberni, ordea, Gabati'rekin muga  
egiten duan lurraldea da.

---

28 "Historia Francorum" I, 32. "Alamans" oiek, odolez germaniarrak, III  
eta IV mendeetan Erroma'k aurkitu zituan etsai barbaritarrik borrokalarietak  
izan ondorean, beraiek ere IV mende orren azken aldera beste barbaritar ger-  
maniar batzuen mendera jausita ia ezabaturik gelditu ziran.

Gaiñera, Gabali'ko gotzai martiriaren berri ernatean, ematen digu Gregorio'k, baitare, Auberni'n Kroko'ren eraso artan bertan il ziran martirien berri. Eta Auberni'n eta auzoko Gabali'n gertatutakoaz itzegiteko, iñor ez, noski, aubernitar bat baiña egokiagorik.

Izan daiteke, gertakizunen xeetasunak, erriak gertakizunei erantsitako loreak izatea, olertiaren baratzako loreak, baiñan gertakizunak berak, -- martirien nortasuna, eta martirien eriotza erriak ezer-ez-etik sortu zitu... zailki sinistu daitekean gauza da.

Oridalata, ez zait pixu aundikoa iruditzen Auberni'ko eta Gabali'ko martiri oiek Auberni'n eta Gabali'n ez baiña Bretarii'n eta III mendearen azkenean edo IV asieran Diokleziano'ren agintaritzakoan il zirala diotenen ahurua.

Aula derizkiot, aburu ori babesteko ipintzen duten arrazoia: III mendearen azkenean eta IV'aren asieran Bretatia'n Kroko (Chrocus) izeneko jaurle bat izan zuala Kostantzio Kloro inperatoreak. Eta orduan Diokleziana'k Elizaren aurka piztutako zigorketa galda bizian zegoalako, Kroko orrek erail zituala martiri aiek.

Ez nator bat iritzi ori aurkezten duan Mgr. Duchesne edestilari jakintsuarekin. Ez soilki Kroko au Bretafii'n zegoalako, eta Gabali **OSO** urruti dagoalako, baizik eta, bereiziki, Dioldeziano'k agindutako zigorketa artan Kostantzio Kloro'k Galietan martiririk egin ez zualako.

Kostantzio Kloro, Elizari pakea eman zion Kostantino Aundiaren aita izan zan.

Dioldeziano'k, "Tetrarkia" edo "Agintelaukaitza" sortu zuanean, inperio-lurraren jaurketa lau jaurleen artean zatitu zuan: bera, bat; Maximino, bestea; Galerio, irugarrena; eta, laugarrena, Konstantzio Kloro. Oni, Galietako agintaritzat eman zion. Ez zan kristaua, baiñan ez zan odolzalea ere, eta naiz kristauen eliz batzuk lurrera jaurtierazi, ez zion iñori Galietan kristau-odolik ixurtzen utzi.

Beste Kroko bat, Pseudo Fredegario'k aipatzen digu, V mendean Bandaliarren errege izan zala esanez. Baiñan idazle ezezagun orrek, bere nortasuna Fredegario'ren izenaz estali nai izan zuan idazle orrek, ez du

gogora ekartzerik merezi, "ez bait da pixu aundikoa bere lekukotza": "Son témoignage n'est certes pas de grand poids".

Bildur-apur batekin beti, baiñan ar dezagun egiazkotzat, Pribato gotzaiari-buruz eta Kroko'ren erasoan ildako beste martiriei-buruz **Turo**na'eko Gregorio'k idatzi zuana. "On peut continuer, semble-t-il, a les attribuer au III<sup>e</sup> siècle suivant en <sup>s</sup>ela les reinsegnements fournis par Grgoire de Tours".

Euskeraz:

"Jarrai daiteke, dirudianez, Turona'ko Gregorio'k emandako albisteen bidetik, martiri aiek III mendekoak, III mendearen erdikoak, zirala sinistuz<sup>3</sup>.

Ortaz, 314'ean Arles'ko kontziliara diakono bat ordezkari bidali zuan Gabali'ko Eliz arek, izan zuan askoz leenago gotzai bat. Irugarren mendearen erdian ainzuzen.

Erri euskalduna ote zan orduango Gabali ura? Ez dut erantzun ziurrik. Baiñan, zana zala, eta euskalduna ez ba'zan ere, garai artako Euskalerrri zahaletik aski urbil zegoan.

## DIOKLEZIANO. EUSKALERRIKO MARTIRIAK

Aurrera zijoan III mendea. Ikusi dugu, mende orren erdi-aldera nola jausi zan Baleriano inperatorea pertsiarren ankapera katigu. Galiano'k artu zuan agintaritza. Ta, arrezkero, Diokleziano ostera Eliza zigortzen asi zan arte, berrogei t'amar urteko atsedeen-aldia izan zuan berriro Elizak. Ez zan

---

<sup>29</sup> Ê. Griffe. 1.c. 145-146 orrialdeetan. Jaun oni zor dizkiot lau aapaldi auetako xeetasunak.

G. Barda: "Revue d'Histoire de de France" XXI (1935), 5-29 or.



legerik aldatu. Dezio'k agindu zuanaz gero, sasijainkorik gurtzen ez zuan oro, legearen araura, eriotzara zigortua izan bear zuan. Baiñan Berrogei ramar urteko epe artan Erroma'k izan zituan arnar inperatoreek ez ziran lege ura beteerazeraz arduratu.

Inperioak berak ez zuan alako pakerik izan, Asi'n pertsiarrek eta Europa'n barbaritarrek gogor eraso bait zioten ia eten gabe. Euskalerriraiño ere iritxi zan bein beintzat eraso aietako bat: 276'garren urtean Alamandarrak eta Frankiarrak Naparroa'ko Auñamendia igaro zutenean ainzuzen. Badirudi Iruña erre zutela ere. Garai artako kiskalketa baten aztarnak agertu bait dira bertan.

Bearbada, atzerrietako eraso oien aurka Erroma'ren Inperioa sendotzeko asmoz, asi zitzaigun Diokleziano inperio-lur osoan kristauak zigortzen.

284'ean eseri zan Diokleziano Erroma'ko Inperatoreen aulkian, eta aurreneko emezortzi urteetan pakean utzi zuan Eliza. Erroma'ko inperatore ia danak bezala militarra zan bera ere. Baiñan baita politikari yayoa ere. Muga guztietan ekin da ekin ari zitzaizkion etsaiei era egokian aurka egin aal izateko, 286'garren urtean inperatorekide bat artu zuan Sarkalderako: Maksimiano. Beretzako, Sortaldea gorde zuan, Inperio'ko zatirik jendetsuena, aberatsena eta kulturik aundikoena. "Augustus" artu zuan berak agintari-izen bezala, eta izen bera eman zion Maksimiano bere kideari ere: "Augustus".

Zazpi urte geroago, beste bi imperatorekide izendatu zituan. Sortalderako bat, Galerio, eta Sarkalderako bestea, Kostantzio Kloro. "Zesar" izan zan bi inperatore berri auei eman zien agintari-izena. Orrela geratu zan osoturik Diokleziano'k asmatutako "tetrarki" edo "aginte laukoitz" ura: Bi "Augusto" eta bi "Zesar". Lauak, militarrek. eta lauak, agian Maksimiano izan ezik, politikari trebeak.

Erakundetza berri ortatik, guretzat gauzarik garrantzitsuena, Galietako Jaurketa Kostantzio Kloro'ri eman zitzaiola. Galietako ipar-sortaldea zan Germani'tiko barbaritarren aurrean Inperio'ko lurralderik arriskutsuena. Eta, iparraldeko Euskalerra zabal artako kristaudentzat auxe benetan gauza pozgarria zigorrdirik ikaragarriena lertzeaz zegoan unean: Kostantzio Kloro... iez zala kristauen etsaia!

IV mendea jaio bezain laister, 302'tik 303'ra asi ziran Diokleziano Galerio ta Maksimiano gudaroztearen barruan kristauak jazartzen: edo



Agino'ko Donesmismen neskatil martiria

sasijainkoak gurtu, edo gudaroztetik jaurtia izan. Leenagotik oraindio, III mendearen azken-urteetan ari zan bere kasa Galerio, 297'an pertsiarren aurka lortu zuan gurenda ospetsuaz gero, kristautasuna ukatu nai ez zuten gudariak zigortzen, orrela gudaroztea pentsaeraz ere bateratzeko asmoz. Edo Erroma'ko jainko zarrak gurtzea, edo gudaroztetik irtetzea zan Galieno'ren agindua.

Baiñan Erroma'ren inperio-lur osoko biztanle guztientzat, 303 eta urrengo urtean eman zituan Diokleziano'k bere lau agindu izugarriak, orrela Elizak ordurarte jasan bear izan zuan zigorketarik odoltsuena sutan jarriz. Iritxi ziran Euskalerrira ere sugalda orren txinparta mingarriak. Egoaldeko Euskalerrira; iparraldekoa, zorionez, Kostantzio Kloro paketsuaren mendean bait zegoan.

Egoaldean ordea, III mendean bertan, gorritu zuan bi martirien odol santuak Ibero ibaiaren ondoko Baskoien lurra: Kalagurri'ko Emeter eta Zeledon gudari Doneen odolak aizuzen. Ori ordea ez zaigu Diokleziano'ri leporatzerik zillegi. Sortaderako berak aukeratu zuan inperatorekided galieno'k gudarozte osoan kristauen aurka sitako zigorketuaren ondorio izan bait zan.



## AGINO

Garofia'ren uretan oiñak ezetuz, ibai eder orren ipar-iparreko erpiñean aurkitzen zan Agino, frantziarren Agen, erromatarren AGINNUM.

Nork ipiñi zalantzan uri-izen orren euskalduntasuna? "Aginum" akusatibu-eran dago. Itz orren nominatibuéera Aginnus izanen zan: Euskeraz, Agino, edo, bi "NN" oiek "/ ;" agoskatuz, Agiio. Aginaga edo Agifieta, beraz, "O" atzizki ugaritasun adierazlea dalako.

Agino, edo Agiño, Akitani'n dago, naiz Akitani zarraren iparraldeko mugan, Garofia'ren gaiñean eraikirik. Bere elizbarrutia ere Garofia'ren bi aldeetara zabaltzen zitzaion. Iristen zan iparreruntz Dordofia ibaiaren ertze-raiño. Antxe dago ainzuzen euskaldunentzat maitea izan zan izena daraman erri bat: "Sancta Fides" edo "Sinismen Donea": martiri ii zan neskatil kut-tun aren izena. Ba, erri ortaraiño iristen zan Agino'ko elizbarrutia.

Lurralde aiek euskaldunak ziran III eta IV mendeetan ere, nere ustez beintzat, oraindik gaurko toponimiak berak aditzera ematen digunez. Izen bat gertatu zitzaidan arrigarri, eta irrigarri, Agino'ren elizbarrutiko toponimian: "Condom".

Kondon ori, gotzai-uri biurtu zan Agino'ko elizbarrutia bi erdi egin zanean. au ordea, Kondon, euskalduna izan ote daiteke?, galdetu nion nere buruari. Laister zalantza orotik yaretu nintzan. Erromatarrengana jo nuan ba erantzun billa. Ta, bai al dakizu nola esaten zioten aiek uri orri? "Vasconum Condom". Ezin esango dizut Kondon izena bere jatorrizko itxura galdu duan izen euskalduna, ala uri orrentzat erromatarrek asmatutako izen arrotz bat dan, baiñan Kondon izeneko uri artan bizi ziranak ens-

kaldunak zirala bai: "Baskoien Kondom" bait zan ura: "Vasconum Coné dom"<sup>31</sup>.

Aurreneko lan mendeetan, dokumentuek ez digute Agino'rako gotzai bat besterik ematen; au, bai, ospetsua: Phoebadius, Donea. 357'an, 358'-an?, 359'n?, Agino'ko gotzai genduana.

"Il nous est imposible de savoir si ia siege piscopal d'Agen existait avant 357, date on apparait pour la premiere fois l'eve que bien connu Phebade": "Ezin jakin dezakegu, 357an aurretik Agino gotzai-uri izan zan edo ez; urte ortan agertzen zaigu aurreneko gotzaia: ondo ezaguna: Febadio".

Sinistekoa da, IV mendearen erdian Agino gotzai-uri izatera iritxi ba'zan, bere kristautasunaren erroak III mendekoak izango zirala. iri bera adierazi nai digula dirudi Fides neskatiaren eta bere iru lagun martirien kondairak. Martiri oiek aginotarrak ba'ziran, eta IV mendearen lenen-lenen urteetan martiri il ba'ziran, uste izatekoa bait da III mendean sendo ta irmo sustraiturik egonen zala Agino'n kristautasuna.

Guk, ordea, Diokleziano'ren garaiean il ziralako, IV mendea aztertzerakoan emango dugu beraien berri.

---

<sup>31</sup> Alperrikako ekintza derizkiot Kondon'en etimologia biliatez sailatzea. Alare, esan dezadan "Kom" eta "Kon" aurrizkiz asten diran euskat-itxurako toki-izenak Euskalerrian baditugula: Araba'n bakarrik, aipatutako Lopez de Gereriu Gatarraga'ren liburutik artuta, "Kotnipare-aide" (XVII mendt.:an), "Komadura", "Komagro", "Konsunisasi", "Komunon" (Xiii mendearen gaur erri orri "Komunion" esaten zaio, eta "Kornangoni" esaten zitzaion), "Kontxabal", "Kondrestasargafia" (XVIII'ean Kontmsta'ke mendi bat), "Kontrasterregafia", "Konestaperraya"., Gaiñera, itz "Condorn" (Condorn-Condorni?, Condom-Condornis? ote, aa itz deklinakaitza?), neutro edo kunded-gabeko nominatibu-eran da.w. Seguruaski, KONDO izango zan erromatarrek Baskoiei entzun zieten itza.

## EMETERIO ta ZELEDONIO DONEAK

Kalagurri, oraindik III mendearen azken aldera Baskoien uririk aundiena zan, naiz mende ortaz gero Iruña indarrez eta biztanlez aunditzen ari. An zeuden Erroma'ren serbitzura gure bi gudari martiriak. Ezer gutxi dakigu beren nortasunari-buruz. Ez dakigu jatorriz Kalagurri bertakoak ala Euskalerrriaren beste txoko batekoak ziran. Atzerritarrak agian?

Gudari, kristau izateagaitik gudaroztetik jaurtiak izan zitzaizkigun biak, baiñan gudari izateak ez du esan nai euskaldunak ez ziranik. Euskaldunak, eta euskaldunen artetik Baskoiak bereiziki, ugari, asko ta asko, ibilli bait ziran Erroma'ren gudaroztean gudari sarturik. Kalagurritarrak, gaiñera, ederki konpondu ziran Erroma'rekin eta erromatarrek usteon betea izan zieten beti kalagurritarrei.

Eraillak izan ziran une ber-beretik Kalagurri'n bi anai martiriei izan zitzaien izugarrizko jaiera, ederki gerta daiteke biak Baskoiak eta bearbada Kalagurri hertakoak ziralaren adigarri fidagarria.

Danadala, oso gutxi da Zeledonio ta Emeterio doneetaz dakiguna. Eta dakigun pixka, Prudentzio olerkari kristau kalagurritarrak Peristefanon izeneko olerti-lanean dasaiguna besterik ez da:

- Emeterio ta Zeledonio, gudariak ziran. Ez dakigu noiz II ziran martiri. III mendearen bukaerako urte aietan, dirudianez. Aski zabaldu zan ba gudaroztearen barruan, Galerio'k sortaldean zeraman ariketa. Badakigu beintzat Afrika'n martiriak ere izan zirala. Gure bi martiriak beintzat, Kristo ez ukatzeagaitik gudaroztea utziak ziran eraillak izan aurretik. Entzun Prudentzio berari:

Caesaris uexilla linqunt, ei igunt signum crucis  
proque uentosis draconum, quos gerebant, palliis  
praeferebant insigne Iignum, quod draconem subdidit.

Euskeraz:

Kaisaren ikurriña utziz, gurutzearen ikurra artuz,  
Jantzi oi zuten Erensuge arroen kapa baiño geiago  
nai izan dute Erensugea menderatu zuan Egur sagaratua  
\*

Kristautasunik ez ukatzearren, beren gogoz irten ziran beraz guda-  
roztetik: "Beren gogoz utzi zuten gudari-jantzia".

Esan daiteke beraz, Kalagurri Euskalduneko bi martiri ospetsu oiek,  
III mendekoak ditugula, mende orren azken-urteetakoak. Benetan ospet-  
suak: "Un caso ilustre de esta primera persecución es el de los mártires de  
Calahorra Emeterio y Celedonlo a quienes eI insigne poeta Prudencio dedi-  
ca uno de sus mas preciosos hinmos" (Llorente, l.c. 304 or.)

"Bibliotheca Sanctorum"ek ere, bi gudari kalagurritar oiek III mende-  
ko martiriak dirala uste du: "Di queste sintetiche notizie possiamo dedurre  
(atera) che Emeterio e Cheledonio siano periti (iI zirala) alla fine del sec.  
III durante la persecuzione contro i christiani dell'exercito suscitata de  
Galerio".

"Durante la persecuck5n de Diocleciano se señala el m martirio de los  
santos Emeterio y Celedonio de la ciudad vascona de Calahorra que no  
eran otra cosa que soldados"(Estornes Lasa 1.c.).

"Gudariak" zirala diosku Prudentzio'k ere. Erriak ordea, doneentzako  
omenik aundienaren zale dan erriak, "eunkari" edo "centuriones Legionis  
Septimae" biurtu ditu kondairan; eta euntari baten seme dirala aitortu,  
orrela biak anai egiñez. Baita bien aitaren izena asmatu ere: Martzelo:  
"Donemartzelo euntaria".

Kondairaren bide ortatik dabil Iparramerikako " The Catholic Encyclo-  
pedia" ere: "Acorning to Prudentius a christian poet of the fourth century

---

Itz-joku bat egin digu Prudentzio'k aapaldi ontan: "Erensuge" itza,  
atsegin izan zaio beti izkillu-jendeari: Batez ere zaldundi-taldeek erabilli dute  
"draeones", "dragones" izena. Erroma'n arranoak bezala erensugeak, guda-  
rozteko taideen ikurrak ziran. Bestalde, "erensuge", Luzifer deabruari esan oi  
zaio kristauen artean. Ala, gure bi martiri aiek, erensugearen ikurra utzi, eta  
Erensugea menderatu zuan ikurra berenganatu zuten.



the brothers Emeterius et Celedonius, soldiers of the legio VII Gemina, suffered for the Faith at Calahorra, but the exact Bate of their martyrdom is unknown. In the fourth century pilgrims from distant lands came to pray at the tomb of these saints, whose relics are yet preserved in the cathedral of Calahorra".

Euskeraz:

"Prudentzio zeritzan IV mendeko olerkari kristauak dionez, Emeterio ta Zeledonio anaiak, biak VII Lejio "Gemina"ko gudariak, fedea gordetzearren jasan zuten Kalagtirri'n nekalduak izatea. Ilketaren urtea ta eguna, ezezagunak zaizkigu. IV mendean, leku urrutietatik etortzen ziran erromesak aien illobiaren alboan otoitz egitera. Bien erlikiak Kalagurri'ko katedralean gordetzen dira oraindik ere.

Erromesei-buruzko albiste ori Prudentzio'gandik artua du, berak dionez martiriotza artako "akta" edo "agiria" zigortzaille beraiek ezahatuak izan ziralako. Onako au idatzi bait zuan Prudentzio'k IV mendean bertan:

Exteri nec non et orbis huc colonus aduenit  
fama nam terras in omnes precucurrit proditrix  
hic patronos esse mundi, quos precantes ambiat.

\*

Euskeraz:

\*

Badatoz onera lur urrutietako biztanleak ere,  
otoizka santuon obiak inguratzeraz, munduaren zaindariak  
emen daudelako otsa zabaldu bait da ludi osora.

Gaiñerako guztia, bi martirien aita San Martzial izan zala, eta iruak VII Lejio "Bizkia"n egonak ziralakoa, ipui utsa da guztia. Martiriak ilda eun urte geroago idatzi zuan Prudentzio'k, bi doneen ereserkia, eta orduan Kalagurri'ko erri kristauak ez zituan xeetasun oiek ezagutzen.

Erriak ezagutu ba'litu, aipatuko zituan Prudentzio'k ere, ereserki ortan dion guztia erriaren agotik jaso zuan ezkerero. Prudentzio'k berak dioskunez, Martirien eriotzako "atta" edo "agiria, ots, eriotzaren berri ematen zuan idatzia, "jentillek ezereztua izan bait zan"! Entzun berriro olerkariari:

\*

O uetustatis silentis obsoleta obliuio!  
Inuidetur ista nobis fama, et ipsa extinguitur,  
cbartulas blasphemus olim nam et satelles abstulit".

Euskeraz

O! Bi martirien kemena, zigortzaillek bekaizten digute.  
Ta kemen ori betirako azturik gel dedin,  
aspaldi ostu zizkiguten berari-buruzko idazkiak.

\*

Oartu zera, aapaldiaren zentzua eman dutala euskeraz; bestela, bertso oiek beren ingurukoetatik at daudelarik, itzez-itz itzuli ba'nitu, iruzur egingo bait nion idatzi zituan Prudentzio'ren asmoari. Ona, nola jarraitzen duan berak "alcta" desegiña izate orren zioa emanez:

Ne tenacibus libellis erudita saecula  
ordinem, tempus, modumque passionis proditum  
dulcibus linguis per aures posteriorum spargerent.

Euskeraz:

Etsaiek ez zuten b nai izan,  
datozen mendeek, "akta" ori ezagututa, martirioketa  
noiz, zergaitik eta nola izan zan ondorengoei esan aal izaterik".

- Nola izan ziran eraillak jakiteko, ez digu Prudentzio'k itz ziurrik ematen, itzneurtu ugari darabilzki bi martiriek jasandako neke ta oniazeak agertzeko, baiñan ez digu eriotza beraren nolakotasunarik aipatzen. Sinistekoa da, Emeterio ta Zeledonio biak gudari izanik, gudarien eriotza emango zitzaiea, ezpataz lepoa moztuz. Ori adierazi nai duala dirudi Prudentzio'k

---

" Egia, Prudentzio'k diona. Martirien oroitza ezereztu naiez, aien eriotzaz mintzaten ziran idatzi guztiak erreak izan bait ziran: "Diocleciano y sus ministros en el año 303 destruyeron cuantos archivos y actas de tnrtores encontraron" (J. Guillen: "Aurelio Prudeneio. Obras Completas", 482 or.).

ere, zerutik agiri ziran siñale miragarriak ikustean, une batez eraillea zailantzan gelditu zala esaten digunean:

"Vidit hoc conuentus adstans, ipse vidit carnifex  
et manum repressit haerens ac stupore obpalluit,  
sed tamen peregit ictum, ne periret gloria."

Euskeraz:

"Badakus ori jende-multzoak; erailleak berak badakus,  
eskuari geldi ezbaiean eutsiz, aurpegia bildurrez zuri.  
Badamaie ordea azkenik kolpea, aintzarik gabe geldi ez zitezen".

Ez dakigu Kalagurri'ko martiri aiek euskaldunak ziran edo ez baiña euskaldunetaz mintzatzen da Prudentzio, era aintzagarrian batzuentzat, arras era makurrean ordea beste batzuen iritiz. Ikus eztabaidazko aapaldi ori:

"Iamne credis, bruta quondam Vasconum gentilitas  
quam sacrum crudelis error immolavit sanguinem?  
credis in Deum relatos hostiarum spiritus?"

Euskeraz

Siniste'al duzu orain,  
Baskoien antziñako jentilkeri zipotz orrek,  
okerkeri makur batek ixuritako odolaren donetasuna?  
Siniste'al duzu martiriak Jainkoarengana joan dirala?

Badira, aurreneko bertso ortan Kalagurri'ko Baskoiak bi martirien zigorketan eta erailketan eskua sartzan argiaski agertzen dirala uste dutenak. Adibidez, nonbait irakurria dut onako au: "La imprecación sobre los mártires de Calahorra, santos Emeterio y Celedonio, implica una participación de los vascones gentiles en el martirio".

Badira orrela oldozten duten edestilari euskaldunak ere. Ez dakit nondik jaso dedan esaldi au. P. Narbaitz'engandik agian?: "La imprecación sobre los mártires de Calahorra, Santos Emeterio y Celedonio, implica una

participación de lo vascones gentiles en el martirio que no se fecha con seguridad: *Iamne credis Gruta (sic) quondam nun (sic) Vasconum gentilitas, quam sacrum crudelis error immolavit sanguineum* (sic)? Akats oiek irar-kolakoak dira ezpairik gabe.

Prudentzio'k, ordea, ez du esaten "odol sagaratu" ura Baskoiek isuri zutenik. Ez bait du esaten "odol sagaratua ixuri zuan "error" edo "okerkeri" ura "Baskoien okerkeria" izan zanik. Ori, euskalerra osoko kristautasunaren "atzeratzaille" bat edo bestek esaten dute.

Gaiñera, Prudentzio'k, "Baskoien jentilkeri aberekoi" ura aspaldikoa, "olin"go gauza, zala diosku. Ezpairik gabe, Prudentzio, aapaldi ortan, Emeterio eta Zeledonio martiri il ziranen garaieko Baskoiekin ari da mintzatzen. Aiei, III mendearen azken-aldeko kalagurritar aiei esaten die, olertizko irudimen-izkera erabilliz, orduan ere, ots, III mendearen azken-aldean, "aspaldikoa" zala, "olin"go gauza zala, "Baskoien jentilkeri aberekoia". ("Aspaldikoa", Kalagurri'ko lurraldean, noski; esan dugun bezala, III mendeko kalagurritar aiekin ari bait zan mintzatzen)

Ez da beintzat bera bizi zan garaiekoekin izketan ari. V mendekoei "martirien odola "odol sagaratua" dala sinisten duten galdetzea, zentzurik ere ez zuan galde bat egitea izango bait zan, ordurako Kalagurri'ra, martirien illobian otoi egin-zale, alako jendetzak erortzen ziranez gero.

Ikus, baitare, Kalagurri'ko Baskoiek martirien odoletan eskuak zikindu zituztela adierazi naiez, Prudentzio'ren aapaldi oso orri Jose Guillen'ek egiten dion gazteleraketa:

"Crees ya, gentilidad de los vascones, tan ruda antiguamente, qt5 sangre tan preciosa derramó el cruel error? i,Crees que los espíritus de las victimas fueron devueltos a Dios"?

Gazteleratzaille onen ustez, bi jentiltasun mota zeuzkan Prudentzio'k buruan itzneurtu oiek idatzi zituanean: bata, aro zarrekkoa, ankerra; bestea, leguna, goxoa, bera bizi zan denborakoa. Ori, adierazteko, gure gazteleratzaille onek bi kakotx sartu ditu Prudentzio'ren aapaldi ortako lenen lerroan ("...", tan ruda antiguamente, ..."); kakotx oiek, noski, bere aurre-iritzia oiñarritzearren sartuak ditu. Ez bait dira Prudentzio'renak.

Aurre-iritzi ori ordea, ots Prudentzio'k aapaldi ori idaztean, buruan bi jentiltasun-mota zeuzkala uste izatea, Prudentzio'ren oldozkeraz tutik ez jakitea da.

Prudentzio'rentzat ez da jentiltasun bikoitzik: ankerra bat, goxoa bestea. Prudentzio'rentzat jentiltasuna bat bakarra da beti, eta beti berdiña: Makurra beti, zikiña. Beti ankerra ta iguingarria; odol santu kristauez orbandua. Batez ere, Peristefanon deritzan poema ontan, Prudentzio'rentzat, zenbat eta txukunagoa agertu, orduan-da nazkagarriagoa jentiltasuna, ardi-Iarruz jantzitako otso ala aingeru-itxura artutako deabruen antzera. Poema guztiaren luzaroan sasijainkokeria da munduko gauza gaiztorik aundiena; are geiago, munduan benetako gauza gaizto bakarra.

Jentiltasun ori dauka buruan Prudentzio'k Baskoien sasijainkokeria aipatzerakoan, eta antziñakoa zala, dio, Baskoien artean sasijainkokeri ori oles egiten du: oso antziñakoa, darabilzkian itzei adi jartzen bagera:

"Iamne credis bruta QUONDAM Vasconum gentilitas...."

Esaldi ori, lateraz txukun eta bikainki eraturik damaigu Prudentzio'k, baiñan, euskeraren sena gordez gure izkuntzara biurtzeko izugarri zaila da.

"Quondam" itzak antziñatasuna adierazten du. Euskeraz, "garai batean", eta, gazteleraz, "en un tiempo", da itz orren itzulpena, baiñan itzulpen legor ori ez da naikoa iaterak berea dun senaren araura esan nai duan guztia jasotzeko. "En un tiempo lejano", "aspaldiko garai batean" esan bearko litzake. Gogoeta ori itz batez emateko badu euskerak itz egokirik: "antziña", adibidez; edo "aspaldi". Itz auetako bat erabiltzeak ordea, ni ere aurre-iritzi baten eragiñez ote nabillen kezka sortu dit.

Alatagutziz, argi dagoela dirudi Prudentzio'ren izkeran, ez dala, bera, bere denborako eusko-sasijainkotasunaz ari. Ezta, dirudianez, bi martiri kalagurritar aien denborako sasijainkotasunaz ere. Leenagoko sasijainkokeri batez baizik.

Orregaitik ez nago osoro bat Pierre Narbaitz'ekin. Okerra iruditzen zait ba, "quondam" "nagure", ots, "aiztintxe arte", (gazteleraz "hasta hace poco") biurtuz, aalpaldi orri egiten dion itzulpena:

"Vouz rendez-vous compte, Vascons livres naguère a un grossier paganisme..." "Oartzen aI zerate, aiztintxe oraindik jeltikeri zarpail bati emanik zeundeten Baskoiok..."

"Quonclam" ez da "oraintxe arte" ("nagure"), "antziña" baizik, "bruta" ere "zarpail" (grossier) ez baiña "anker" dan bezala.

Azpimarratu dezadan ordea, Narbaitz'en itzulpena zuzena balitz ere, Prudentzio'k, naiz Baskoiak lentxeago jentillak izan, bere idazte-denboran beintzat, kristauak zirala esaten duala idatzi zuan aalpaldi ori itzez-itz ulertu

nai ba'da: "Aiztintxe arte, hai, jentillak; orain ordea (Peristefanon idazterakoan), ots, laugarren mendearen azken-aldean, kristauak"!34.

Eta beste onako au ere utzi dezadan argi: "Ankerra" esatean, Pudentzio'rentzat, "ankerra", ez dala euskaldun jendea, "sasiainkokeria" baizik: Baskoien aspaldiko sasiainkokeria, eta baztar guztietako eta denbora danetako sasiainkokeria.

Bai bait da Prudentzio'ren "gentilitas" ura "gens", ots, "jende" irakurri nai izan duana. Baiñan bein edo beste izan ezik, ez elertian, ez legedi ta legiztian, ez filosofian, ez zuten erromatarrek "gentilitas" "gens"en ordez erabili. Kristau-idazle eta lege-emailleek berriz, 11 mendeko Minuzio Felis'ek bein izan ezik, gentilitas itza esatean edo idaztean "jentiltasuna", ots, sasiainkokeria adierazi nai izan zuten. Prudentzio'k beintzat, beti! Arazo au, bein betirako erabat argiturik utzi zigun Mañarikua ikerlari ospetsuak<sup>35</sup>.

Alatagutziz, bai orixe, III eta IV mendean jentillak baziran eta ugari gaiñera orduango Euskalerra zabal osoan. Ori esan aal izateko dokumenturik ez dugu, baiñan ez dugu dokumentu-bearrik ere. Logikaren araura ori esan aal izateko naikoa bait dugu Españi'n eta Frantzi'n eta Itali'ra ere jenderik geiena, askoz gaiñera geiena oraindik jentilla zala gogoratzea.

Agian Baskoien lurraldeko jentilkeri ori zeukan gogoan bere anai jentil oiek kristautasunera ekarri naiez, aapaldi ori "Iamne" itzez asten duanean: "Iamne credis... "Orain bai..., ontara ezkerero..., iadanik..., sinisten aI duzu..."?"

---

<sup>34</sup> Pierre Narbaitz: "Le Matin Basque", 370 or. Nere ustez garrantzi aundiegia damaio Narbaitz'ek Julio Caro Baroja'ri.

Prudentzio'k Peristephanon izeneko poema noiz idatzi zuan, ez dakigu. IV mendearen azken-aldera, esan dut nik, V'aren asieran bertan, 405'ean argira eman bait zuan.

"Vaseonum Gentilitas" en Prudencio. Estudios de Deusto, XV, 1967, 255-270.

Alatagutziz, bada Narbaitz'ek bezala pentsatzen duanik: J. Fontaine, bat. Jaun onen iritziz, Prudentzio'k berak aitortzen ornen du ba "Contra Symmachum" izeneko poeman".

Ikus ditzagun Prudentzio'ren itzneurtu oiek, eta azaldu dezagun zergaitik izan ziran idatziak eta zer dan beraien bidez Prudentzio'k adierazi nai izan ziguna, nere ustez poema ori bait da bere olerti-lanik bikaiñena.

IV mendeko azken urteetako batean, 395'garrenean, il zan I Teodosio Aundia, bere agintaritza guztian sasijainkoen aurka ibilli ondorean. Berebi semeek artu zuten inperatoretzat: Arkadio'k Sortaldean eta Onorio'k Sarkaldean. Kristau sendoak ziran biak, baiñan inperio lurra ez zan oraindik kristaua. Alderantziz indar aundia zuten une artan bertan jentillek, batez ere aundiki eta aristokrazikumeen maillan. Baita ziran Senatuan ere.

Senatari jentil aietako bat, Simako, arras izlari bikaiña zan. Erroma'ko izlaririk bikaiñenen artean, onena. Izlari trebe onek, Teodosio'ren bi semeei azalpen luze bat idatzi zien, berriro Erroma'ko jainko zaarren gurdeta babesteko, eta, Senatura, Garaitza jainkemearen irudia itzultzeko eskatuz.

Ta, gertakizun mingarri batetik aria artuz, urte artan Erroma'ren lurretan gertatutako gosetea, Vesta jainkemeak bere "monja" "vestalei" Jaurlaritzak urteroko diru-laguntza ukatu zielako, asarreturik bidalitako zigorra zala, oiu egiten zuan lotsarik gabe izlari izentsu ark.

Poema luze txit eder baten bidez erantzun zion Prudentzio'k, eta txukuna ta apaiña ba'zan elertiaren aldetik Sirnako'ren "agiria", txukunago ta politagoa da, bai orixe, Prudentzio'ren olerkizko erantzuna. logikaren aldetik sendo eta elertiaren aldetik "satira" edo olerki "zirisartzaille" eran jite gozo eta zorrotz eta, maiz aski, irrigarriz idatzia.

Ainzuzen, Vesta'k bidalia izan omen zalako gosete ari dagozkio, J. Fontaine'k aipatzen dituan poemaren II abestiko 1007'garrenetik 1010'era dijoazen itzneurtuak.

Ikus ditzagun Prudentzio'ren "exametro" edo "seiurratseko" itzneurtu oiek, bere zentzua zuzen ulertu aal izateko lentxeagotik, 996'garrenetik asi, eta 1015'garreneraiito luzatuz. Askotan, bere ingurutik ateratzen diralako, itzak oker ulertzen bait dira:

---

" Albiste au A. Azkarate'ri zor diot. Aipatu dutan bere liburuaren 44'garren orripeko oar batean dago.

Semper, crede pollus uariis prouentibus annos  
texuit: hos multa ditauit fruge fluentes  
quosdam infelices astris damnauit iniquis  
spe cassa et sterili curam frustratus agrestem.

"Sed si vestales ulciscitur ista puellas  
pestis, ah infido quae gignitur improba mundo,  
cur non christicolum tantum populatur agellos,  
per quos uirginibus uestris stata dona negantur?"  
\*

"Vtimur et ruris reditu et ratione colendi  
exercere munus non paenitet: et lapis illic  
si stetit antiquus quem cingere sueuerat error  
fasceolis uel gallinae pulmone rogare,  
frangitur et nullis uiolatur terminus extis,  
et, quae fumificas arbor uittata Iucernas  
seruabat, cadit ultrice succisa bipenni".

"Nec tamen idcirco minor est aut fructus agelli  
aut tempestatis clementia laeta serena,  
temperet aut pluuiis qui culta noualia uentus  
\*"

Euskeraz

Sinistu eidazu denborak ezberdinki iruten duela urteen aria:  
Agorrak batzuk, izar gaiztoen eragiñez itxaropen oro ezereztuz  
eta nekazarien lana antzua biurtuz.  
\*

Bañan mundu aldakor ontako gosete au, zuen "vestaleei"  
oiturazko dirua ukatu izanaren zigorra ba'da,  
zergaitik ez ditu gaitz orren egille geran kristauon  
alorrak bakarrik zigortu?

"Jasotzen dugu ordea gure uzta, egindako lanaz alaitsu.  
Ez dugu damurik jasandako nekez. Ta, auts biurtzen dugu,



oraindik an ba'dago  
siniskeriak eraginda girgillez ornitu ta oilloen birikaz  
eta odolez gantzutu oi zenuten arria.

Eta ez ditugu alor-mugak siniskerizko abere-erraiez  
igurtzitzen. Ta, aizkora zuzentasun-gilleak ebakita,  
lurrera doa zuzi ketsuz ornitzen zenuten zugaitza.

"Orregaitik ordea ez da motzagoa gure soroetan uzta.  
Ez da giro gozoaren emankortasunarik urritzen.  
Ez zaigu legorragoa gertatzen, ondo landutako gure alor oro  
erneerazten duan aize on euritsua".

Orrela, Fontaine'k kezkatu etsitzen zituan itzak bere inguru guztian  
aztertuz, argi agiri zaigu Prudentzio itzneurtu oietan ez dala euskaldunetaz  
ari, aipatzen dituan oitura jentil oiek ez dirala euskaldun jentillen oiturak,  
Erroma'ko jentillen oiturak dirala; euskaldun jentilletaz ez baiña Erroma'-  
ren inperioko jentilletaz ari dala mintzatzen Prudentzio; Simako'ri, euskal-  
dunen izenean ez baiña inperio guztiko kristauen izenean erantzuten diola.

Beti uste izan da, gaiñera, "Contra Symmaeum" Kalag-urri'n ez baiña  
Erroma'n idatzi zuala Prudentzio Baskoiak. Ez da, beraz, poema bikain  
ortako itzneurtu oietan Baskoia bezala mintzatzen; kristaua bezala baizik,  
mundu guztiko kristauen ordezkari lez, mundu guztiko jentiltasunaren  
txorakeriak Erroma'ko Senataririk ospetsuenari salatuz.

Ez dute berak itz neurtu oiek Prudentzio'k Baskoiei buruz beste olerki  
artan Baskoien jentiltasunaren antzitiatasunari-buruz esandakoari indar-apur  
txikienarik kentzen.

Kezkarik gabe gure-egin dezakegu, Azkarate'ri kezkarri egiten zaion  
Mafiarikua'ren aitopena: "La difusión del cristianismo es tal que en la  
segunda mitad del siglo IV (Prudencio) puede calificar de pasado (quon-  
dam) el paganismo de los vascones" (ib. 44).

Gure-egin dezakegu ori guztia, baiñan Prudentzio'ren mintzaera go-  
goan artzen ba'dugu: Prudentzio'k illik agertzen bait du jentiltasuna, kris-  
tauak ugari diran tokietan. Orrela, adibidez, Zalduba'n, uri ontako marti-  
riak abesten dituanen. Orrela, Erroma'n ere, aztertzen ari geran poema  
ontan "Erroma beraren izenean bere abotsa artuz", "uox Romae eius sub

nomine promarn" 1 Teodosio Andiaren semeen goratarrea egiten duanean (Contr. Sym. 11, 649'tik aurrera. Eta, batez ere, I, 468'z gero, abesti orren amaiera guztia).

Ez du orrek esan nai Prudentzio'k ori idatzi zuanean Erroma'n eta Zalduba'n oraindik, agian, jenderik geiena jentilla ez zanik. Aregutxiago esan nai dugu gure Euskalerra zabal artan jenderik geiena jentilla ez zanik, edota Euskalerrian jentiltasunezko oiturak bizirik jarraitzen ez zutenik; baiñan, bai, argi ta garbi esan nai dugu Prudentzio'k aipatu dizkigun oiturak ez dirala euskaldun jentillen oiturak. Erromatarrenak dirala. Orregaitik ainzuzen oroitzen dizkio Prudentzio'k Simako senatari erromatar jentillari.

\* \* \*

Beste gogoetatxo bat ere piztu zait oraintxe bertan buru-barrengo txokoren batean. Ez da garrantzi aundikoa. Ez dakit, gaiñera, ontara ezkerero masmordoa geiegi estutzen ez ote naizen ari. Askotan, estutu ta estutu, ez bait jakiten masmordoa estutzen duan eskutik ixurtzen diran tantak, matsaren urarenak ala matsa estutzen duan eskuaren izerdiaren tantak diran?

Noan ordea nere asmoarekin aurrera, irakurleen baimen onaz baliaturik.

"Bruta" esaten dio Prudentzio'k Baskoien jentiltasunari. "Brutus", lateraz, "pizti" da; "abere". "Gruta", "aberekola". Euskaldunak, jentillaé roan "animistak" ere izan zirala esan dugu. Ortan, beste gauza askotan bezala, munduko beste errien senide zan gure Euskalerra:

"La concepción animista del mundo era general entre los antiguos. Todo era sagrado. Tardfarnente entra en escena lo profano, cuando los fendmenos naturales empiezan a recibir una nueva explicación, sin recurso inmediato a las divinidades".

"Anirnistek", gauza guztiak animadunak dirala sinisten dute: "EI animismo pone un genio o una divinidad al frente de cada función, de cada fendmeno y detras de cada misterio. Todo se balla penetrado por la divinidad, las cosas son divinas, sagradas, sin que haya lugar a la acción de las causas segundas" (ib). Barandiaran'ek "causal segundas" dion lekuan zuk

---

' J. M. Barandiaran, "Mitología Vasca", Lan Guztien Bilduma. I, 401.

"eausas profanas" jartzen ba'duzu, errez esaldi guztiaren zentzua ulertuko duzu.

Euskalerriko "oroanimakeri" zaarrea toki berezia izan zuten piztieki eta beste abereek: erensuge, zaldi, aari, aker, suge, bele, ta leize-zuloetako izaki miresgarriek... Eraspen berezia zitzairen orrelako pizti ta abere guzti oiei. Ta aberei geiegizko almena uste diotenek eta neurritz kanpoko eraspenera gordetzen diotenek, errez biurtzen dira abereen gurtzaille. Euskalerrian aurkitu diran erromateko sasijainkoei eskeiñitako arri-ol hatzuetan ere, abere-izena duten jainkoak ugari agertzen zaizkigu: Abelion, (Abere-on?); Aherbeltze (Aker-beltz); Arixo (Aaritxo?); Asto Illuno; Baigorriko (Bei-gorritxo?); Bei-siris; Belix-ama (Beletxo-ama?)

Baskoien jentitutasunari "bruta", ots, "aberekoa" esatean, Prudentzio'k, Baskoien jentiltasun animista abere gurtzaillea zala, edo beintzat, abereei jaiera aundiegia zion oroanimakeriaren mota bat zala, esan nai ote zigun? Ez du, danadala, arazo onek garrantzi geiegirik.

Bai ordea beste onek. Baskoien jentiltasuna oroanimakeria izan edo ez, jentiltasun ori antziñakoa zala diosku Prudentzio'k. Ta bere esakizun orrek azalpen bat bearrezkoa duala derizkiot. Zer esan nai ote zuan Prudentzio'k?

Kalagurri'ko bi martirien egunetan Baskoien artean kristautasuna arras zabaldurik aurkitzen zala? Ez, noski, ez! III mendearen azkenean eta IV'aren asieran baso, mendia eta landak zearo jentillak bait ziran oraindik.

- Kalagurri uri Baskoia, bai, garai artan kristaua zala? Ori da nik uste dutana. Baiñan mugatu dezadan bear bezala nere iritzi au:

- Garai artan, naiz Kalagurri'ko Baskoien artean kristautasuna erroturik egon, ba'ziran Kalaguri'n oraindik Baskoi jentillak. Nola ez? Baziran Erroma'n bertan ere-ta!

- III mendearen azkenean eta IV mende osoan Kalagurri'n Baskoi kristauak Baskoi jentillak baiña geiago ba'ziran, naitanaiez aitortu bearko dugu Erroma'n baiño obeki aurkitzen zala Kalagurri'ko Baskoien artean Eliza. Erroma'n jentillak geiago bait ziran oraindik kristauak baiño.

Ta, esan dezadan, azkenik, puntu guzti oien laburpen bat egiteko, Prudentzio'ren aapaldi ori aurre-iritzi ta aurre-asmo eta aurre-etsaigorik gabe irakurtzen ba'dugu, au izango dala noski, nere uste apalez, aapaldi ortatik atera bearko dugun ondorioa:

Garai artan, "Baskoien sasijainkokeri aberekoa" edo "bruta Vasconum gentilitas" ura antziñako gauza zala.

Ez dut orrekin esan nai, garai artan Baskoni guztia "Ager Basconum eta "Saltus Basconun" ots, "Baskoien baso ta landetako" jendeak danak kristauak ziranik. Ori esatea astakeririk aundiena esatea izango bait litzake, kristaudi osoko landa ta baso guztiak oraindik luzaro sasijainkokerian murgildurik jarraituko zuten ezkeru.

Ez dut esan nai Kalagurri'ko uri Baskoia oso-osoa kristaua zanik ere. osoki kristaua zan uririk, ez bait zan oraindik kristaudi guztian.

Au da esan nai dedana: Kristauak, Baskoien Kalagurri'n, geiago zirala jentillak baiño.

Eta, baita, esan nai dut beste onako au ere, len esan dedanaren ondorioz: Garai artan "Ager Baseonurn" edo "Baskoien Landako Kalagurri'n, Erroma'n bertan ez bezala agertzen zaigula Eliza euskaldunen artean garai-ile". Erroma'n oraindik geiengoa jentilla bait zan lez ere aitortu dedan bezala.

Ta, garai artan, Kalagurri'ren inguruko "Ager Basconum" edo "Baskoien Landan" ere, geiengoa kristaua ote zan? Ez, ezpairik gabe. Ez beintzat III mendearen amaieran. Kristaudi osoan, landetako biztanleen kristautasunaren astapena ez bait dugu III mendekoa, IV baizik, ikusiko dugun lez. Esan daiteke ordea kristauak bazirala Ibero ibaieko Baskoien artean eta Berondarren artean, eta ugari zirala **IV mendearen azkenean** --, V mendeko gotzai kalagurritar batek sortu zuan arazo nasi batek aditzera emango digunez".

"Garai artan" ari nauzute esaten da birresaten. Baiñan badut zerbait argitu-bearra: Baskoien sasijainkotasunari "antziñakoa" esan zionean, noizé ko sasijaikotasunaz ari ote zan gure Prudentzio? Galde ori beste era batera egiñez, noiz zan Prudentzio'rentzat "antziñakoa" aapaldi ortan aipatzen duan "Baskoien jentilkeri aberekoia"? Berak aapaldi ori idazten zuanean bakarrik, ots V mendearen lenen urteetan? Ala, baita, III mendearen azkenekoetan, ots, Emeterio ta Zele, donio eraillak izan ziran unean ere?

Nere ustez, aapaldi guztiaren senak eta etorriak, erritmoak, adieraztera damaigutenez, Emeterio ta Zeledonio martiri i1 ziranean "Baskoien jentiltasun aberekoia" "antziñakoa" zala esan nai izan zigun Prudentzio'k, irudi-

---

"Berones", gaurko errioxatarrak ziran; euskaldunak orduan

menez martirien eriotzako garaiera aldaturik agertzen bait zaigu aapašdi eder ontan.

Alatagutziz, mendearen amaieran ala IV mendearen iraute guzian Kalagurri'ko Elizak kanon-legearen araura egiazko Eliza izateko goté zairik bazuan ez dakigu. Dokumentuak peitzen zaizkigu.

Alatagutziz, "cabrfa observar en este punto, que Ia ausencia de sede episcopal en un area mas o menos extensa pero bien conthntrada, si bien es por lo general el sfntoma de una insuficiente implantaciOn del instituto eciesiastico en la misma, no significa sin mas que no se den otras formas de presencia sea esta embrionaria la que induce una inicial acciÓn misionera u organizada en torno al ministerio de unos presbfteros y diaconos, que dependen del obispo de la sede mas prOxirna".

Ederki esana. Prudentzio'ren olerkiak adieraztera eman digunez, ordea, kristautasuna ez zegoan Kalagurri'n "en forma de presencia embrionaria que induce una presencia inicial misionera", askoz eta askoz aurreratua goa baizik. Uste izatekoa da, beraz, "en forma organizada al ministerio de unos presbfteros y diaconos que dependen del obispo mas cercano" zegoala Kalagurri'ko kristaudia. Ori, IV mendean beintzat beraiek bertan gotzairik ez ba'zuten!

Garai ontakoa da, gaiñera, Kanon-legearen edestian parrokien sor-kuntza.

"On sait que le christianisme c'est établi d'abord dans les villes. A l'origine, la communaute chrétienne était group& auprès d'une seule eglise que deservait l'éveque:

"Badakigu kristautasuna lendabizi urietan errotu zala. Eliz bat baka-rean biltzen ziran kristauak, Gotzaia zan eliz artan sagaratu oren egille bakarra".

"Lorsque le nombre des fi&les eut augrnté, il fallut creer dans la même ville plusieurs lieux de culte qui furent desservis par des pretres appel6 presbyteri cardenales, ou prêtres pivots:

"Kristauen kopurua azirik, urian eliz berriak egin bear izan ziran. presbiteri eardinales, ots, bereter erroak esan oi zitzaien eliz auen parroko ziran apaizel".

---

<sup>3</sup> K. Larrañaga: "Veleia" aldizkaria. 1.989. 179 or.

"Ces presbyteri cardinales habitaient la ville episcopale et formaient le presbyterium ou conseil de reveque. Telle es l'origine des paroisses urbaines": "Bereter erro" oiek gotzai-urietan bizi oi ziran, eta gotzaiaren aolku-lari-batza osotzen zuten. Ortik sortuak dira urietako parroki ezberdiñak".

Au dehut du IV'e siMe, le christianisme s'etant repandu dans les campagnes il devint necessaire d'y creer des centres religieux, a l'intention de la plebs": "IV mendearen asieran, kristautasuna zabaldu ala ari bear izan zan, landetan elizak irasten landatarren serbitzurako".

IV mendearen asieran, ori, gure Euskalerrri zabal aren inguruko lurretan "egiten asia" ez eze "egiña" ere bazegoala, 314'ean Arles'en ospatutako kontzilio ospetsu ark bere 19'garren kanon edo erabakiaren bidez ziurtatzen digu:

"L'anne de 314 se tint d Arles un concile qui porta ce canon: "Que les ministres du culte ordonnes dans une localité restent attachés a cette localité": 314'ean Arles'en egindako kontzilioak, kanon edo agindu au eman zuan: "Toki batean sagaratutako elizgizona, bertan bizi bedi".

Kanon orrek bi gauza adierazten dizkigu:

- IV mendea jaio aurretik, gotzaiak, egun bat edo birako, erri txikietara apaizak bidaltzeko oitura amaitzen zegoala. Apaiz aiek, erritxoetan beren eginkizuna bete bezain laister itzultzen ziran gotzai-urira.

- Ordurako, "toki batzuetan" sortu zirala parrokiak, beren parroko ta guzti. Are geiago, apaiz batzuk erri oietako apaizak izateko izaten zirala ain zuzen sagaratuak. Ta, apaiz oiei, bakoitza bere parrokian bizitzeko agintzen zitzaiea.

Esan dezagun berriro, Kalagurri ez zala garranzirik gabeko "toki bat". Ezta ala-olako "erri bat" ere. Uri txit ospetsua baizik; Erroma'k uriei legez ematen zien duintasunik aundienaren jabea.

Zuzenki esan aal izango dugu beraz logikaren argira, uri batek Sarkaldean III mendearen amaierako gutxienez parroki bat izatekotan, uri ori, ezpairik gabe, Baskoien Kalagurri izan zala.

Ots, kristautasuna erroturik zegoala III bukatu aurretik Euskalerrriko Kalagurri'n.

---

"Dictionnaire de Droit Canonique", vl, 1.236 or.

Itzez-itz ori esaten digun dokumentu ziurrik ez dugu. Logika ordea bai. Ziurki, gure alde dugu logika.

Martiri beraiek ordea... bai Emeterio eta bai Zeledonio... euskaldunak ote ziran? Euskalerrian eraillak izan zirala badakigu, baiñan jatorriz euskotarrak eta izkeraz euskaldunak ote ziran?

Elenerazkoak zituzten izenak: "Emeterios"; "Cheiedonios". Orrek ordea ez du esan nai sortaldetarrak ziranik, elenerazko izenak oso zabaldurik bait zeuden orduan sarkaldeko kristauen artean ere'. Ez du esan nai euskaldunak ez ziranik ere, orduan ere edonongo kristauek atsegiñak bait zituzten elizkideen artera sarturik zeuden izenak,

Gudari izateak *ere* ez du euskaldunak ez ziranik esan nai. Euskaldun gazte askok eta askok jo bait zuten Erroma'ren lejiotara, beren lurraldean zertaz bizirik aurkitzen ez zutelako. Euskalerrriak beti izan du bere jendearen geiegitasunaren arazoa. Irteera eroso gertatu zan euskoéleñuetako mutillentzat lejiolaritza.

Ez du arrazoirik A. Azkarate'k, aipatzen ez dituan idazle batzuek esana bere-egiñez, onako au idazten duanean: "No conocernos su procedencia (gure bi martiriena alegia), pero el hecho de su condiciön de militares destacados en Calagurris, ciudad por donde, segdn algunos autores, debfa pasar el limes contra los vascones, invita a pensar que no eran, desde luego, nativos de la ciudad donde fueron martirizados".

"Limes", gudariz eskiertutako mugari esan oi zioten erromatarrek. Emeterio ta Celedonio martiri il ziran garaiean, ordea, ez zuan Erroma'k

---

<sup>41</sup> Esana dedala uste dut, erromatekoan inperio-lurraren sortalde guztiak eleneraz egiten zuala, eta sarkaldea zala lateraz mintzatzen zana. Bi izkuntzen muga, gutxi-gora-bera Oraingo Yugoslabrren erdian zegoan.

<sup>42</sup> Agustin Azcarate, i.c. 43 or.

Baskoien aurka "limes"ik, iru mende t'erdiz leenagotik adiskidetzat bait zeuzkan Baskoiak, ortaz len ere mintzatu geranez<sup>43</sup>.

Erroma'k atsegin izaten zuan gaiñera, aspaldidanik pakean zeuden lurraldeetan tokian tokiko gudariak ezartzea, baldin gudari oiek konfiantza osokoak ba'zitan. Euskalerrriak, berriz, bazerarnazklan ia lau mende Erroma'rekin pakean. Ta konfiantzari dagokionez berriz, non aurki zezazkean Erroma'k, ainzuzen leialtasunagaitik idazle guztiek lumaz ain goraiapatua izan zuten Kalagurri zar artako gazteen artean baiño gudari leialagorik?

Bildur aundirik gabe uste izan dezakegu, beraz, baleikwla bi gudari martiri aiek euskotarrak izatea. "BaIeikeala", bakarrik. Geiago esateko ez dokumentuen ez logikaren aldetik adigarri ziurrik ez bait dugu.

Bai ote ziran euskaldunak ere? Zaillagoa gertatzen zaigu, berriz, galde orren erantzuna.

Danadala oso laister eta ugari zabaldu zala dirudi bi martirienganako eraspena Euskalerra zabal osoan. Ugari agertzen dira beintzat gure larrukirik zarrenetan Emeterio ta Zeledonio'ren oorezko elizak eta elizetako alda-reak.

\* \* \*

Atal au amaituéaurretik, Latxaga nere adiskide aundiak aurre-ipintzen didan eragozpen bati erantzun nai nioke. Prudentzio'k, ain gogorki "Iamne credis bruta quondam vasconun gentilitas" ura Baskoiei aurpegira jaurti zienean, bere burua Baskoiengandik bereizten zuala omen dirudi. "Zuek, Baskoiok, or. Ni, ez-Baskoia, emen". Eta orrela mintzatuz, itxuran beintzat, bera Baskoia ez zala adierazten omen digu.

Ez da indar astunik gabea Latxaga'ren arrazoiketa. Alatagutziz, nik, apalki, berekin bat ez natorrela esango diot emen:

- Prudentzio'ren gogortasuna ez da Baskoien aurka. Baskoien antziñako jentiltasun aren aurka baizik, eta Prudentzio beti izan zan gogorra, izugarriki gogorra, jentiltasunari erasotzen zionean. Jentil bat bere jentilta-

---

Badu A. Garcia Belido'k gai ortaz idazlan polita: "Los vascos en el ejereito romano". *Fontes Linguae Vaseonum*, I (1.969), 97 or.



sunean fede onez egon zitekeanik pentsatu ere ez dirudi sekulan egin zuanik.

- "Gure Kalagurri", "nostra Calagurris" esaten dio Prudentzio'k ibero-ondoko uri orri. Egia, "nostra" ori ez dala naikoa, bera kalagurritarra izan gendala uste izateko, beste bi uriri ere esaten bait die "nostra": Erroma'ri eta Zaiduba'ri eta Tarrako'ri. Errorna'ri orrela deitzea, ez da arritzeko gauza, ain kristaua izanik Erroma Prudentzio'rentzat Kristaudi orokorraren uriburua bait zan, eta bera ain erromar-inprio-zale izanik, Inperioaren Uri Nagusi lez arras maite bait zuan Erroma.

Era berean izan zuan Zalduba maite. An bizitua zalako noski, eta bere olerki batzuk, dirudianez, an bertan idatzi zitualako.

Tarragona'ri, ordea, zergaitik? Zalantzarik gabe, Tarragona bere Eliz-Probintziaren eta, era berean, bere Inperio-Probintziaren Uriburu nagusia zualako. Eta, agian-agian, baita Prudentzio'k bere ereserkiak erriak kantatuak izateko idazten omen zitualako ere.

Baiñan zearo ez berdiña da, beste uri guztien gaidik, Kalagurri'z mintzatzerakoan uri onentzako azaltzen duan kuttuntasuna.

Orregaitik:

Gaur, idazle guztiek aitortzen dute, ago batez, Prudentzio ia ziurki Katagurri'n jaio zala. Krist'aurreko 71'an il zan Sertorio'ren gudaz idatzi zuten idazle erromatar ugariek, ordea, danek, ago batez, Krist'aurreko I mende artan, ots, Prudentzio'k bere liburua argitaratu baiño seireun urte leenago, Baskoiak zirala ordurako Kalagurri'ko biztanleak, idatzi ziguten. Itzegingo dugu ontaz berriro.

Bertso ori idaztean Prudentzio'k erabilli zuan erari erretorikan "a-postrofe" esan oi zaio. Jendeari pulpitutik-edo itzegitera bearturik gaudenok maiz erabilli oi dugun era.

Baiñan era orrek, ots, "apostrofeak", ez du beñere izlari ta entzuleen artean iñolako bereizketarik ezartzen danik esan nai".

---

Go gora datorkit apostrofe-eredu bikain bat. Araba'ko erri kozkor batean ejertzizioak. Izlaria, an oso ezaguna. **aldareko maillataraiño betea.** Sermoiaren erdi-aldera, izlaria, Kristo'gaitik mundu ontan lan egiteko, kristauok lotsa oro galdu bear dugula, ari zaie esaten. Ta, arabar bat, Zumarraga'tar Tomas Doatsua eredutzat azaldu ondorean, une batez zer esan pentsatzen

A!, ta, nere ustez, Prudentzio Baskoia ez izateak askoz ere antziñatasun aundiagoa emango lioke, edo bai beintzat askoz ere eskiertasun aundiagoa "quondam" arek berez baduan antziñatasunari. Atzerritarra izanik eta Baskoien aurka ain asarre ari zalarik mintzatzen, Baskoien gaiztotasuna nabarmenago agertzeko aien jentiltasuna antziñaratzea ez baiña gaur-eguneratzea bait zitzaion konbeni. Antziña, kalagurritar aiek ez ezë Prudentzio bera ere, antziña, beren aitonen edo aitonen <sup>s</sup>iten garaiean danak izan bait ziran jentillak.

---

egon da, apostrofe au botatzen die erderaz esanen dut entzun nuan bezala -- aal izan zuan oiurik mardulenez: **i,veis apoeados alabeses, veis** hasta donde podrfaís llegar si os quitarais de eneitna ese triste complejo de inferioridad que tenefs metido hasta los mismisirnos ritiones"? Gero, zakar xamar ibilli zala esan nionean, "ez zak uste erantzun zidan --; `hasta los ritiones' esaterakoan `ritiones' ez itz orrek bezala, bukaera `ones' duan beste itz bat etorri zaidak burura, baiña ainzuzen zakarregi ez ibiltzeagaitik, emakumezkorik ere ugari neukala aurrean-da azkenean. milla aldiz txepelagoa dan 'rifiones' mixeable ori erabiltzera makaldu nauk". Esan dut apostrofea jaso zutenak arabarrak zirala. Apostrofea jaurti ziena ere aiek bezain arabarra zala esatea falta zait.

ALF10, FILADELFO, ZIRINO ta LAGUNAK  
DONE EUSKALDUNAK?

Badira, bi martiri kalagurritar aiek bezala, III mendean bizitu ziran eta euskaldunak izan zitezkean beste martiri batzuk ere. Baiñan, Diokleziano'-ren zigorketan, ots, IV mendearen asieran eraillak izan zirako, mende au aztertzerakoan aipatuko ditugu. Alare, geldi bedi emen esanik, IV mendearen lenen-lenen urteetan martiritzatuak izanik, jaio ta bizi III mendean egin zutela, eta, ori, III mendean Euskalerrian kristauak baziralako adigarri dugula.

Baiña IV mendeko Martiri Done oietaz gaiñera baditugu, agian, leenagokoak ere: III mendearen erdikoak. Naiz kondairan laiñoz erdi ezabaturik agertu, mende ortakoak bait dira, Dezio inperatorearen zigorketakoan baituak izanik, gero Baleriano'ren denboran fedearen alde bizia eman zuten iru anai martiri. III mendearen barruan oso goiz jaiok, beraz.

Iru anai oiek, Alfio, Filadelfio eta Zirino, ez dira gure artean ezagué nak. Ez da ori arritzeko gauza. Katigu Sizili'ra eramana eta an eraillak izan ziran ezkerro, aienganako jaiera gugandik urruti Sizili'n Itali'n jeta Sortaldean! bait dago zabaldua, VI mendean Sizili'z bizantzitarrek jabetu ziran ezkerro.

Izena, elendarra dute, Kalagurri'ko bi gudari martiri aiek bezala. Orrek, ordea ez du ezer aundirik esan nai; III mendean oraindik kristautasuna bereiziki sortaldetarra zalako, elenerazko izenak, nonnaiko kristauen artean, arras bait ziran oiturazkoak. Naiz izena euskalduna izan ez, gure Alfio, Filadelfio, eta Zirino, anaiak omen ziran eta Euskalerrian jaiok omen ziran.

Ikus dezagun "Bibliotheca Sanctorum"ek iru martiri auetaz dioskuna: "Secondo la "Passio", i tre fratelli, originari de un ignoto paese dei Vasconi, e d'una non meno cith dei Prefetti, furono convertiti da Onesiino insielle con il Zoro cugino (lengusu) Erasmo:

Dakusazunez, jatorriz "Baskoien lurralde batekoak"; ta Baskoien lurralde ez ezagun ortako Prefektoen urikoak" omen ziran gure martiri auek. Baiñan Baskoien lurralde ori zein izan zan ez omen dakigu. Ezta zein izan "prefektoen" uri ori ere. Onesimo izeneko norbaitek kristautu omen zituan. Eta aiekin batera, bait Erasmo aien ezkon anaia ere. Ori dana, "Passio" edo martirien "Nekaldia" kontatzen duan liburuak dioskunaren araura.

Eta onela jarraitzen du Iztegi orrek:

Fedea ukatu nai izan ez zutclako, atxilotuak izanik, beren lurraldean oifiazetuak izan ondorean, iru anaiak, Erasmo ta Onesimo, eta auen 14 adiskide, Erroma'ra eraman omen zituzten, an Baleriano inperatoreak berak epaituak izan zitezen.

Erroma'n, berriz, gogor oiñazetuak izan ondorean, Napoles'en ondoko Puzzuoli urira aldatu zituzten eta emendik, ez dakigu zergaitik, Sizill'ra eraman, Baiñan iru anaiak bakarrik izan ziran **ugartera eramanak**. Onesimo, Erasmo eta beste 14 adiskide aiek Puzzuoll'n bertan izan ziran epaituak, eriotzara galduak, eta martiri eraillak.

Iru anaiak, Alfio, Filadelfio ta Zirino Sizili'ra iritxi bezain laister, Messina'n izan ziran berriro epaituak eta Katani'n aurrena eta gero Lentini izeneko uriskan gero, espetxera jaurtiak. Epailleak, Tertulius omen zuan izena

Xeetasun oiek eman ondorean, erotu egiten dala omen dirudi "Passio" edo gure martiri auen nekaldia kontatzen duan liburua:

- Tekla izeneko andre kristaua batek ezaguna omen zuan Aleksander, Tertulio epaillearen idazkaria, eta Aleksander onen bidez lortzen omen du iru anaien askatasuna.

Andre onen etxean izugarritzko mirariak egiten ornen dituzte iru anai yaretu aiek.

Aleksander idazkaria, ikaraturik, leiza batera omen dioa, Tertulio epaillearen bildurrez.

- Leizaren barruan an izkutaturik bizi zan Agatone Lipari'ko gotzaia aurkitzen omen du.

Gotzai onek, bataiatu, apaiz egin, eta gotzai sagaratzen omen du Aleksander idazkari igeslea: Lentini'ko gotzai.

- Ta bereala "Passio" liburua "20.000 gudari kristauen", eta "zenbatuezin aiña judu kristauen" martiriotzaz mintzatzen omen da.

Ez zaio "Bibliotheca Sanctorum" iztegiari arrazoirik falta, "Passio" liburuaren zati au aztertzekoan norbaitek esan zituan itz auek bere-egiteko: Zati au, alegia, "fabularum consarcinatio" edo "ipuien naaspilla" besterik ez dala, alegia.

"Finalmente i tre fratelli furono giudicati e decollati (lepo egiñak) in un luogo (Ieku) poco distante dalla città e il loro (aien) corpi gettati (jaurtiak) in un pozzo vicino" (ib.)

Zer esan?

Baietz. Antziñako gure iru martiri eta beren laguneroitza kondairen orri ugariz beterik dagoala, untzez estalitako zugaitz zarraren emborra bezala. Baiñan untza oien barruan beti enbor bat egoten dan era ber-berean, kondairen barruan ere egoten dala beti egiaren puxkaren bat.

Saia gaitezen ogiaren puxka oiek billatzen:

Gure martirien aipurik zaarrena VIII mendeko Basilio Porfirogenito'eren "Menologio"n aurkitzen omen da. "Vi (or) figurano i tre fratelli Afflo, Filadelfio e Cirino, Onesimo loro (aien) catechista, Erasmo e i 14 compagni anonimi" (ib). "Menologio" ortan esaten omen da, baitare, danak Erroma'ra eramanak izan zirala, Onesimo Erasmo eta 14 adiskideak Itali'n izan zirala eraillak, eta iru anaiak, Sizili'n.'

Santuetaz geien dakiten jakintsuak, "bolandistak" dira`. **ikerle** auen ustez, iru anai auek egiazko pertsonak omen dira, ezur-aragi-talarruzko gizakumeak, ez ipulariek sortutako ametsezko mamuak. Egiazkoa omen da, baitare, beraien martiritza, "che non potrebbe (daiteke) razionalmente negarsi, essendo grantita dall'antichissimo culto e da altre (beste) memorie" (ib). "II supplizio di questi martiri sarebbe (izanen zan) secondo il dottissimo bollandista (bolandista txit jakintuaren ustez) nel 251, al tempo di Decio; secondo altri al tempo di Valeriano (254-259)" (ib).

Ar dezagun beraz egiazkotzat, martiri 11 zirala.

---

<sup>45</sup> "Meno logio n", illero egunez-egun banatutako "martirologium" edo "martiritegiari" esaten zioten Sortaldetarrek.

<sup>46</sup> Bolandista edo Bolandarrak, Josulagundiko azterlari-talde bateko jakintsuak esaten zaie. Beren eginkizuna, Doneen bizitzak aztertea da. Bolandar izena, XVII mendean Jean Bolland josulagun flandetarrek Amberes'en asi zuan lana jarraitzen dutelako eman oi zaie.

Eta jatorriz euskotarrok ziralako ori? Nik ez dut, ori ukatzeko, arrazoirik ikusten. Ez du orain artean inork ukatu. Gaiñera, egiazkoa dalaren itxura osoa du, iru martirien euskalduntasuna aipatzen digun esaldiak berak. Apalki aitortzen du "Baskoien zer turraldekoak" ziran ez dakiala. Apaltasun ori ez da oiturazkoa kondairetan!

Era berean eta apaltasun berdiñez aitortzen du martirien jatorrizkoa zan Prefektoen uriaren izena" ez jakiña duala. Apaltasun arrigarria kondaira-sortzaille batentzat.

Badirudi beraz iru martiriak euskotarrak ziralako ori, kondairak bere esku "edertzaillea" martiri auen edestian sartu baiño lenagokoa dala.

"Praefectus" itzak, zuzenean, "Aintzindari" esan nai du, eta gaur gaztelerazko "comandante" bezala, gudari talde baten aintzinean zegoanari ematen zitzaion izena zan. Maiz aski, eta lurralde irabazi-berrietan beti, prefecto oiek probintzietako jaurle edota urietako alkate izaten ziran. Zein ote zan iru anai martiriekin zer ikusirik izan zuan "prefektoen Uria"? Aitor dezagun, apalki guk ere, galde orrentzat erantzunik ez dugula.

Iru martirien 14 adiskide "anonimi" aiek ere, izenik gabe gelditu zaizkigu. Izenikgabetza orrek ere, -- kondaira sortzailleen artean pentsatu ere egin ez daitekean gauza izanik guri, egiazkoak dirala adierazten digu, kondairen orri ta loreen azpitik atera ditugun albiste bi auek: Iru anaiak, eta aien lagun guztiak martiri il zirala; Eta iru anaiak, eta baita agian beren adiskide guztiak ere, agian, euskaldunak zirala.

\* \* \*

Alfio, Filadelfio, Zirino eta auen adiskideetaz lenen-albisteak damaizkigun Basilio Porfirogenito'ren Menologio deritzan elenerazko idaztia, VIII mendekoa da. Baiñan ango albiste legorak ez ziran kristau sortaldetarren biotz-goxotasunarentzat naikoak eta, asi zan an eta Sizili'n, sizilitarren irudimen beroaren eragiñez, kondaira politten sorketa. Kondairatxo oiek danak, berreunen bat urte geroago, X mendearen inguruan, norbaitek, Sortaldean, eleneraz idatzitako "Passio" edo "Nekaldia" izeneko, ezaguna dugun, liburu artan bildu zituan.

"Fabularum consarcinatio" omen dan "Passio" orrek, ez digu martirien amaren izenik ematen. Kondaira, ordea, beta luzerik gabe asi zan utsune ori bete naiez lanean. Izan ere, nola egon zitezkean ixillik emakume biotz-

berak martiri maiteentzako aona bat asmatu gabe? Asmatu zuten ama ori. Eta Benite eman zioten izena: "Benito Donea". Ta, ama asmatuz gero, aita bat ere asmatu bearra bait zan, Bidal izendatu zuten Donebenite'ri asmatu zioten senarra. Oni ordea, donetasunik opa gabe: "Zorioneko Bidal, Donebenite'ren senarra, eta iru martirien aita".

Amaika Benite'ren artean, bi Benite damaizkigu "Bibliotheca Sanctorum" iztegiak guretzat ajolagarri izan daitezkeanak:

- "Santa Benedetta di Bordeaux" (Bordele). Bolandisten ustez ez da emakume oni-buruz, albiste ziurrik aurkitzen. Kondairek, beste leku batean aztertu dugun Donemartzial'ek kristau egiña izan zala dioskute eta, gero, Donemartzial'i lagun izan zitzaiola Bordele'ren inguruko lurraldea kristautzen. "Quindi, (ortaz) Benedetta andrebbe (bearko litzake) collocata nel sec. III" (ib).

Ta, kondaira geienek egiaren puskatxo hat izaten bait dute, baleike Bordele'ko Benite onek, eusko-landetako artzai ta nekazarien kristauketan lan egin izatea.

Kondairetako batek, gure Donebenite'ren itxura edertzeko, Kontesa izan zala dio. Konte ta kontesak, ordea, ez dira III mendeko izakiak. Feuderrien arokoak baizik.

- Benedetta, santa, martire di Lentini. Au izan omen zan, kondairak dionez, Alfio, Filadelfio eta Zirino'ren ama, eta bere semeekin batera martiri il omen zan. "Beti kondairen araura", "de lei (beraz) se dice che, nata da nobili genitore, fu sposa di Vitale, ottimo e cristiano, e cbe educò i figli (semeak) al desiderio del martirio. Col (lorturik) il consenso del marito si presentò al tiranno, redarguendolo per le sue crudeltà. Mori di spada" (ib).

"tiata di nobili genitore", ots. "aitorren alaba", au; "kontesa", bestea; ez ote dira bi Benite auek Benite bat bakarra?

Gure Benite orren senarra eta iru martirien aita izan ornen zan Bitaren berririk ez digu ematen, eskuetan darabilkigun Iztegi orrek. Idazle espainiarren artean, aipatzen duten gutxiek, "el bienaventurado Vital" esan oi diote.





## LORENTZO DONEA

Badugu beste Done bat ere, ez gaiñera nolanaikoa, jaiotzaz euskotarra izan daitekeana: au ere Baleriano inperatorearen zigor-arroan martiri Erroé ma'n il zana: Donelorentzo diakonoa ainzuzen.

II Sisto Aitasantuaren esanera egin zuan lan Erroma'ko Elizaren goi-diakono bezala: Eliza artako txindien erabilketan bereiziki.

Sisto Aitasantua baiño egun batzuk geroago irabazi zuan martirien gurenda.

Ondo ezagunak dira bere nekaldiaren zertzelada guztiak. Onela damai-gu Ambrosio Doneak IV mendearen azken-aldean, bere sermoietako batean zertzelada aietatik polittenaren albistea, Donelorentzo'k txiroenganako izan zuan karitate aundia gogoratuz:

- Epaille jentiliak Elizaren aberastasunak eskatu omen zizkion.
- Aurkeztuko zizkiola Donelorentzo'k, berriz, erantzun, baiña iru eguneko epea bearrezkoa izango zuala aberastasun aiek biltzeko.
- Pozik damaio epailleak bere baietsia, aberastasun aiek bait ziran bere gurari guztia.

Irugaramonean, ordea, Erroma'ko txiroak eraman zizkion Donelorentzo'k epaildegiaren aurrera.

- "Arlote-sail bat ez baiña Elizaren aberastasunak ikusi nai ditut nik emen", oi u egin zion epailleak.

- Eta, "auek dira, Jauna, Elizaren aberastasunak", Donelorentzok'k erantzun.

Sutan il zan gure martiria. Ori, Ambrosio Doneak ere badio. Baita Donedamaso Aitasantuak ere IV mendearen bigarren erdian.

Matxarde batean errea izan omen zan Donelorentzo. Au, ordea, kondairaren asmakizuna izatea badaiteke. Kondaira utsa da, berriz, ziurki, Donelorentzo'k matxarde artatik epailleari oi u egin omen ziona: "Alde

ontatik erre naiz, Jauna, eta asi zindezke jaten. Itzuli nazazu, beste aldetik ere erre nadin".

Baiña 405'ean badakar ori Prudentzio'k ere ("Peristephanon". II, 397-408):

\*

Posquam uapor diutinus  
decoxit exustum latus,  
ultro e catasta iudicem  
compellat affatu breui

\*

Conuerte partem corporis  
satis cremata iugiter  
et fac periculum, quid tuus  
Vuleanus ardens egerit.

\*

Praefectus inuerti iubet,  
tunc ille: Coctum est, deuora,  
et experimentum cape,  
sit crudum an assum suauius

\*

Euskeraz

\*

"Lurrifiak etenke saiets guritua  
erre zuanez gero  
matxardetik, gogo onez, Epailleari  
laburki dasaio:

\*

Itzuli soñaren alde au  
aski errea bait dago.  
Ta orrela ikusi al izango duzu  
zure Bulkano'k (suak) egin duan lana".

---

<sup>47</sup> ulkano, suaren eta suaren bitartez egiten diran lanen sasiainkoa zan erronatarrentzat, Ta sua bait zan Bulkano'ren lanabesik garrantzitsuena, suak egiten zuan guztia, suaren bidez Bulkano'k egiten zuala esan oi zuten.

Itzultzeko agindua epailleak ematen du;  
Ta Lorentzo'k: Erre nauk, eta jan nazak.  
Eta saia adi asmatzen,  
Erreta ala gordiñik, nola nauken atsegin.

Kristaudi guztian ain omendua izan dan Done aundi ori ¿euskalduna ote genduan?

Ezetz dio opusdeitarrek zuzendutako GER iztegiak: CHabfa (Lorenzo) nacido en Huesca o al menos en España"? Parece que hay que responder negativamente a esta pregunta, al menos no hay ningim testimonio antigua que lo recuerde. Por otra parte serfa muy extraño el silencio de Prudencio, tan dispuesto siempre a cantar las glorias martiriales españolas".

"Itxuraz, ezetz esan bear dala", dio Iztegi orrek, baietz esateko arrazoirik ez dagoalako. Logika ororen aurkako esakizuna. "Baietz esan daitekealaren" aurka ere arrazoirik ez bait dago. Ta. beti ere, baietz esan aal izateko arrazoi bat badago: kondaira kera, naiz kondaira utsa arrazoi sendoegia izan ez. Alatagutziz ezer ez baiño geiago bada.

Ezezkoaren alde GER'ek damaigun arrazoiak, berriz, alegia "Oska'koa izan Prudentzio'k ziurki ori esango zualako" orrek, ez du batere balio. Donelorentzo goratzen duan Peristefanon deritzan poema berean Donebixente'ren goratarrea egitean, Done au ere nongoa izan zan esan gabe utzi baġt zuan Prudentzio'k!

Baiezkoaren aldekoa dugu Espasa Iztegia:

"Que San Lorenzo fuera español no se puede poner en duda después de los muchos trabajos que ban aparecido para probarlo". Kordoba'n?, Balentzi'n?, Tarragona'n?, Zalduba'n? Non jaio ote zan Lorentzo Donea? Oska'ren alde agertzen zaigu, sendo, Espasa Iztegia: "Tambien parece cierto que nacid en Huesca y que sus padres fueron Orencio y Paciencia a los que se venera como santos en dicha ciudad".

Ta, guk zer pentsa Donelorentzo'ren jatorriaz? Oska'koa ote zan?

- "No se puede poner en duda" eta también parece cierto" oiek geitxo esatea dirala iduritzen zait neri. Guztia zalantza utsa eta batere ziurtasunik eza, Nait da Donelorentzo'ren jatorriari-buruzko arazoa.

Alare, ezezkoaren aurka arrazoi bat bakarrik ez dagoalako eta haiezkoaren alde bat beintzat bai, kondaira ainzuzen, badugulako, naiz eskiertanunik gabe, uste izan dezakegu haietz: Oska'n jaio zala gure Donelorentzo.

Orixe da, ainzuzen, gure Orixe aundiak uste izan zuana ere. Ona zer dion bere "Meza-Bezperak" liburuko 1067'garren orrialdean: " San Laurenti martiria Oskan jaioa zan, orduko Euskalerrian; izena ere bear ba'da euskalduna du *Lauren* (Laurden), latiñ erara *Laurentius*. Ez da beintzat latiñezko itza".

Oska, "Vescetani" euskaldunen uriburua, euskalduna zan III mendean eta euskalduna izaten jarraituko du erdiaro osoz, XIV mendearen azkenarte.

Oska'n jaio izateaz gaiñera, jatorriz ere euskotarra ote zan ala Oska'n bizi ziran erromatarren semea? Ta jatorriz euskotarra ba'zan ere, euskalduna ere bai ote zan? Gutxi-gora-bera, bera Erroma'ko matxarde artan il eta eun urte geroago jaioko zan Oska'n Enola izeneko nexka bat, emazte gazte zalarik beste Done oskatar ospetsu baten ama izango zana: Donebixente diakono martiriaren ama, ainzuzen.

\* \* \*

Donelorentzo ere, naiz agian aitaren aldetik atzerritarra izanda ere, ama oskatar euskaldun baten semea ote zan? Baleike, baiñan erantzun ziur bat ematerik ez dago.

Orentzio eta Pazientzi izan omen ziran bere gurasoak: Ona, bi seme hizki, Lorentzo eta Orentzio, izan zituzten senar-emazte aiei-buruz "Bibliotheca Sanctorum" iztegi italiarrak diona:

"Sancti martiri venerati a Httesca" (..) "Secondo notizie favolose, ebbero (izan zituzten) duo figli gemelli: Lorenzo e Orenzio. Sarebbero stati (izan omen ziran) visitati da San Sixto II Papa che avrebhe portato (eraman omen zuan) con se, a Roma, Lorenzo, piu tardi diacono e martire. Morta Pazienza a Huesca, Orenzio si trasferf in Francia insieme al figlio che portava il suo stesso nomine (bere izena zeramakian semearekin batera), diventato (billakatua) poi (gero) vescovo de Auch."

Auch Akitaniko uri bat zan. Lenen eukal-gotzai-uri jzandako Elusa'ren ondoan zegoan. Ainzuzen uri artara igaro zan, aundiagoa zalako, Elusa'ko gotzaiagoa IX mendean.

Ez dut uste senar-emazte auen kondairatik ezer garbirik atera daitekeanak. Guztia ipui utsa dala bait dirudi. Baiñan, guzia ez bait da kondaira guztietan gezurra izaten, senar-emazte aien semea, Donelorentzo, gure Oska'n jaio zala egia ba'litz, orrek, Euskalerraren sortaldera, "Vescitani" euskaldunen artera, III mendean kristautasuna oso goiz sartu zitzaigula adieraziko liguke.

Esakizun orren aurka ez da arrazoi bat ere. AId e, ordea, bat beintzat bada: Kondaira bera. Kondairatik artua izanik, arrazoi onek ez du balio III mendean kristautasuna Oska'ra sartu zala esateko. Baiña sartu izan zitekeala esateko, bai.

\* \* \*

Aztertu dugu III mendekoa izan daitekean beste Done bat ere, au, edestiaren aldetik ederki ziurtatua: Luperko Donea, agian III mendearen erdikoa.

Aipatzen da beste Doneluperko edo Lupertzio bat ere: Elusa'ko laugarren gotzaia. Baiñan au geroagokoa da.

Kondairak utzita, itzuli gaitezen edestira: eta euskalerria-zear kristautasunaren zabalkundea aztertuz, jgaro gaitezen III mendetik IV'era.

Lur onean ereiñik uzten dugu kristautasunaren azia, III mendean. Lur onean, naiz oraindik ia Euskalerrri guzia jentiltasunean murgildurik egon, Euskalerrri ia-oro-jentil ortan ez bait zuan Elizak martiririk izan. Eta ez bait du geroan izango ere.

Alatagutziz, Euskalerrrian eraildako bi martiriei-buruz Prudentzio'k idatzi zuana dugu, kristautasuna III mendean euskaldunen artean eritlik eta aski azirik zegoala esateko.

Baiñan bi martiri aiek, Emeterio ta Zelcdonio gudariak, ez ziran euskaldunek eraillak izan. Aien eriotza ez zan Euskalerrriaren eta Kristautasunaren arteko arazoa izan, Erroma'ko gudaroztearen barrengo arazo militarra Bi martiriak, sasijainkorik gurtu nai ez zutelako, inperatorearen agindua jarraituz epai-mai militar batek izan ziran epaituak, ertotzara galduak eta ezpataz eraillak.

Prudentzio'k esanari jarraituz, badakigu Euskalerrriaren egoaldeko muga. Kalagurri'n tinko ta indartsu bizi zala kristautasuna. Egoaldetik gora, noraiño sartu zan ez dakigu. Baiñan Iparraldetik beera, aski barrura

sartu zala, bai; ori badakigu. Mendearen azkenean, gotzai ta guzti, osoki eraturik utzi bait dugu Akitani'ren erdi-erdiko Elusa'n lenen Euskaldun-Eliza.

Sortaldean, "Ueszitar" euskaldunen artean ere, III mendearen azkeneko kristautasuna eraturik zegoala, bereala, Donebixente'z mintzatzekoan ikusi aal izango dugu. Ori, III mendearen erdian martiri il zan Donelorentzoren "oskatartasuna" kontuan artzekel

III mendean, beraz, Euskalerrriaren ertzetan, euskaldunen ezpaiñetatik bazijoakion zeruetako Jainko Aitari, Josu bere Semeak munduari irakatsi zion otoitza, euskera zarraren doiñu goxoan bildurik: "Gure Aita zeruetan zerana..."

\* \* \*

Ori guztia, III mendean, bereiziki Bordele, Tolosa, Zalduba, eta, agian, Narbona eta Tarragona'ko Elizei zor diegu Euskalerrriko kristauok. Eliz oietatik etorri bait zitzaigun Berri Ona.

Esan dezagun berriro, orrek ez duala esan nai Euskalerrri zabal artan jentilkeria bukatu zanik. Alderantziz, jentillak ziran orduango euskaldunik geien-geienak, Europa guztiko jenderik geien-geienak bezala. Nekazariak, artzaiak eta basauerrietako jendeak batez cre. IV mendea arte ez bait zan Eliza landetako jendea ebangelizatzen asi.

III mendeko Euskaldunak aztikerian yayoak izateagaitik izan ziran Erroman bereiziki mirestuak. Dirudianez, "orneoskopi" edo "txori-begiraketan", ots, egaztien erraietan etorkizuna igartzea zan euskaldunen aztikeririk ezagutuena. Alexander Sebero inperatoreaz esan oi zan Erroma -ko aundikien artean, gauza aundi arrigarria bezala, "Baskoiak bezain trebea zala egaztien errai-azterketa ortan".

"Es un arte que conservaran los bascones, segIn retlejan textos medievales, dio Bernardo Estornés Lasa'k49.

---

". ikus nere "Apostoluen eta Martirien Denborako Elizan Alexander Sebero'ri dagokion atala.

"Historia General del Pais Vasco", 130.

Ta IV mendearen azkenean ere, naiz urietan kristautasuna nagusi izan, jentilla jarraituko du Europa guztian Eandetako jendeak.

Eta, nola ez? Baita Eukaterrian *ere*.

Akitani'ren erdian dago Adur edo Atur ibaiaren ertzean Akitze, gaur Dax izeneko uria. Osoro orduango Euskalerrriaren barruan, beraz.

III mendea izan zala, esan oi da, gotzai-uri biurtua, eta Donebixente bat izan zala bertako Lenen gotzaia, baiña ori, edestia baiño geiago, kondaira utsa dala dirudi; dokumentuek darnaiguten Akitze'ko lenen gotzaia 506'-garren urtean Agde'ko kontzilioan egon zan Graziano bait da.

Orduan aztertuko dugu Akitze'ko Elizaren ekintza.





## KALAGURRI'KO PRUDENTZIO OLERKARIA

Aipatu bear izan ditugu yadanik Prudentzio'en bertsoak. Eta emendik aurrera ere orixe bera egin bearrean oso maiz aurkituko bait gera, naiz Aurelius Prudentzius Clemens, IV mendeko gizona izan eta olerkari bezala V'aren lenen bost urteetakoa, egin dezaiozun toki bat ementxe bertan, III mendearen azterketa amaitzerakoan.

Euskotarra zan Klemente. Baskoia. Kalagurri'n jaioa. Bere jaiotzerriari dagokion puntu ori, gaur mundu guztiak ontzat artzen duan puntua da. Euskotarra izan zan, beraz. Baiña euskotarra izateaz gaiñera, kalduna ere bai ote zan? Ez dakigu. Baietz uste izatekoa da, III mendean euskera itzegiten bait zan Euskalerrriaren ego-alde artan. Berak, ordea, Prudentzio'k, ez digu galde orri erantzun ziur bat eman aal izateko kirtenik eskeintzen.

Eskier esan daiteke sendi kristau baten altzoan sortu zala, ez bait du beiñere bere konbertsioaz itzegiten. Ta jakiña da Elizara kanpotik etorriek beren fede-aldakuntzaz itzegiteko izan oi duten leia. Prudentzio, ordea, sekulan aldaketarik jasan gabeko gizaseme kristaua agertzen zaigu beti bere idazti guztietan.

Badu orrek guretzat garrantzi portitza.

Kristautasuna III mendearen erdirako Euskalerrriaren ego-aldeko lurretan, Kalagurri'n bereiziki, sendo erroturik zegoala uste izateko adigarri bat geiago bait dugu.

348'an jaio zan bera. Ortaz, bere gurasoak, IV mendearen lenen-urteetan jaioak izan bear zuten, eta seguruaski sendi kristauen ume, aien konbertsioaz ere ez bait duzu Prudentzio'ren idazlanetan ezer aurkituko.

Zalantza geiagorekin, bai noski, baiñan Prudentzio'ren isiltasun orren kerizpean ibilliz urruti joan gindezke, urteak-zear, Kalagurri'ko kristautasunaren sorkuntz-aroren billa. 11 mendera ainzuzen. Bildur aundiz. Eta kezkaz beterik..., baiñan, bai: II mendera. Ta...zergaitik ez?

V mendera sartuta 405'garren urteaz gero il zitzaigun Prudentzio, Kalagurri'n bertan seguruaski. 405'az gero, bai noski. Urte ortan eman bait zituan argitara bere olerkiak liburu batean, liburu orri, itzneurtuz, "Sarreira" bat aurretik eta "Azken Agur" bat atzetik ipifliz.

Ongi ezia izan zan gaztaroan: Gramatika, erretorika, eta legitzia. Ala, erri-gizon bezala ere ez zitzaion osperik peitu. "Legiztilari izan zan eta, abogadu bezala, aski yayoa": "He practised law with some success" (Catholic Encyclopedia).

Damutu ere egin zitzaigun zartzaroan, legiztilaritzari ardura geiegi eman omen ziolako": "In later life deplored the zeal he had devoted to his profession" (ib).

Bi aldiz izan zan Prohintzi'ko Jaurle. Bere probintzian ote? ots, Tarracensis Probintzian? Gero, Teodosio inperatoreak Erroma'ra deitu omen zuan, an deduzko titulo goren bat eman nai izan ziotako.

Bein zaturik, "munduko aundinaikeri guztiei agur eginda", "he renounced the vanities of the world" lekaide baten erako bizitza eramaten asi zitzaigun, "egun osoan arratsera arte harau egiñez", "fastin until evening"; A!, ta, "okela jatez erabat utzita!", "and abstaining entirely from animal thod" (ib).

Bere bizitzaz mintzatuz idatzi zuan "Praefatio" edo "Sarrera" artaz eta "Azken Agurr"eko poernatxo artaz gaiñera, iru motakoak dira Prudentzio'ren olerkiak:

- Liriku edo biotzkoiak, batzuek. Adibidez, egun bakoitzeko ordu ta eginkizunetan eta jai-egun nagusietan errezatzeko "Cathemerinon" edo "Egunerokoa" deritzan bilduman sartu zituanak.

Olerki auen akatsik aundiena luzeegiak izatea da. Ala moztu bear izan zituan Elizak, Orduetako Otoizliburura sartu zituan zazpiak: Errez oroituko dituzte apaiz jaun zar-xamarrek "Ales diei nuntius" ("Egunaren aintzindari dan egazia"), "Nox et tenebrae et nubila" ("Gau ta illunbe ta laiño"), "Lux ecco surgit aurea" ("Orra non jeikitzen dan urrezko argia"), "Quicumque Christum quaeritis" ("Kristo'ren billa zabilztzen danok")...

Ambrosio Donearen "metrik-eran" edo "neurkeran" jdatziak dira batzuk, "baiñan Prudentzio'k Ambrosio'k baiño ertitasun geiagoz idatzi omen zituan", "Prudentius displays more art than Ambrose" (ib). Beste olerki oietako batzuen bidez, Orazio'ren elerti-era sartu nai izan omen zuan kristau-elertira.

Prudentzio omen da, "Erroma'ren azken-arogan, latin-elerti-edestian lirik'olertiaren abes-neurririk guren dotoreenak egoki erabiltzen jakin zutenetako bat": "Il est dans l'histoire de la litterature latine un des derniers a savoir correctement utiliser les mares les plus savants de la poésie lyrique" (Dictionnaire de ThMogie Catholique).

Ala, "hymn X contains the two celebrated stanzas "Saluete Flores Martyrum" characterized by profound feeling united to the purest art": "X ereserkian dagoan "Agur, Martirien Lili Oiei" esanez asten diran bi aapaldiak unkimen sakoneko ertirik aratzenaren ereduak" omen dira (Cath. Enc.).

Ezagunak dituzte bi aapaldi oiek orduen liturgia lateraz erreztatzen zuten apaiz jaunek. Lateraz ipiñiko dizkizuet nik ere aurrena, Prudentzio'k berak idatzi zituan bezala; eta, Orixe'k, bere "Meza-Liburu"rako euskeratu bait zituan bi aapaldi oiek, Orixe'ren itzulpena emango dizuet gero.

Ta, Orixe'ren bertsoak Prudentzio'renak baiño motelagoak eta aketsagoak iduritzen ba'zaizkizute, artu ezazute gogoan, apaiz jaunok, Prudentzio'renak oso-oso politak dirala, hai noski, baiñan Orixe'k izan zuala bere lan ontarako Prudentzio'k izan ez zuan eragozpen bat: lanerako askatasuna arras moztutzen zion esi neketsu bat: musikaren esia: bere itzulpeneko bertso auek, Prudentzio'renak abesteko Elizak erabilli duan doiñura naitanaiez sartu bear izatea. Bertso oiek elizetan arratsaldeko Bezperetan erriak abestu zituan, egin bait zuan Orixe'k bere itzulpen ori. Ta, olerkia itzultzea beti ba'da nekagarria, pentsa ezazute, bearkizun orren pean itzuli bearra zer izango dan. Ona, orain, emen bi olerkarien bertso-lana:

"Saluete flores martyrum  
quos lucis ipso in limine  
Christi insecutor sustulit  
ceu turbo nascentes rosas

Vos prima Christi uictima  
grex immolatorum tener  
aram ante ipsam simplices  
palrna et coronis luditis.

Orixe'k

\*

Martiri loreak, agur,  
argira lortu orduko  
etsaiak moztu zinduten  
erauntsiak arrosa antzo

Kristoren lenen bildotxak  
agur eñez il-maiari  
zuen buruntzak eskuan  
ari zerate dantzari

Prudentzio'k, XII ereserki ortan, Errege-Eguna abesten du, eta, "en su expresiÓN ¡qué pompa y qué magnificencia despliegal Contrasta luego con la ternura del episodio de los Inocentes. Es una joya preciosa este cantar a los niños protomrtires de Jesucristo. La musa dura y la lira f&rea del poeta celtibero tiene a veces delicadezas fmas, cuerdas muy blandas"  
I.c. 155).

Bapo! Karpetobetonitar espailizale orrek gure Prudentzio Baskoia nola keltiberiar biurtu digun i, oartu al zerate?

Alare, ez dabil oker Prudentzio'ren giartasun gogorregia gogoratzean. Ori ordea Prudentzio'ren akatsa aña da Prudentzio bizitu zan aro guztiaren akatsa. Aro legorra, giarra, mami geiegirik gabea, gogorra, eta, agian orregaitik, baita erretorikalarien aroa ere. Gauza aundia da idazleentzat erretorika, "ars bene dicendi", "egoki itzegiteko ertia", baiña erretorikaren geiegikeriek ez dute irudimenaren gurin legunaren tokia artzeko

---

<sup>51</sup> Bazekian alare Prudentzio'k bere izkerari noiz beinka grazi ttanttoeren bat ematen. Mexikotarren arteko izkirimiria da: -"Ttl eren Pantxo"? -"Sf. Lo soy". -"Lo eras"; (pum-pum, tiro-otsa). Ori, Prudentzio'k asmatu zuan, ez ordea parregarrikeri lez milla t'erdi urte leenago. Ikus: Emiliano epailleak: "Gaitzetsi ezazu, gauza ba'zera, atsokerizko erlijio ori" ("Damnes, si sapias, anile dogma"). Jondoni Murtuts martiriak: "Kristo gurtzen dut; bere morroia naiz, eta Nere artaldearen artzaia" ("Colo...Christum... cuius sum famulus gregisque pastor"). Emiliano epailleak irriparez: "Ziñan!" (subridens ait ille:

Kutsutu zan Prudentzio erretorikakeriz, eta agertzen da bein baiño geiagotan gaitz ori bere olerkietan. Alare ez akats orrek ez zion, ez orixe!, bere irudimenaren blzkortasunik ala bere biotzaren galda guririk agortu.

"Prudencio es el mayor poeta Ifrico de la Antigüedad cristiana. Rompl€s la metrica littlrgica de sus dfas, tan cultivada por San Ambrosio, para darle nueva inspiraci3n y nuevos vuelos" (Diccionario de Historia Eclesistica de Espa1a).

Gure Prudentzio'ren beste lirik'olerkia, "Peristephanon" edo "Koroiaketa" deritzan poema, berak maiteenak zituan martirien gorai-puz idatzitako olerti-lana dugu. Ederra. Naiz ezberdinki, geienetan goi-atsez legunki gantzutua.

Poema ontan martiriek jasan bear izan zituzten oi1azeketak azaltzera-koan gordi1egi mintzatzen dala leporatu oi zaio Prudentzio'ri eta, dirudia-nez, ikaragarrikeri zaleegia3edo izan zala bere lanketa ortan. "Su predilecci3n por los detalles terrorlficos" leporatzen dio aipatu berri dugun Iztegi espa1iar orrek ere.

Bai1an "zertzelada ikara-emaille" oiek, Prudentzio'k martirien "Passio" liburuetan aurkitu zituan.

Alatagutziz baleike "Passio"etan aurkitzen zituan oi1azeketa aiek, geiegizko xeetasunez aurkezten naita ibilli izatea, bere poema luze ura irakurleentzat aspergarriegin gerta ez zedin: aski berdi1ak izaten dira martiri guztien edeskiak. Ainzuzen arrisku ori ezereztearren erabilli zituan poenia ontan klasikoen olerki-neurri ezberdi1etatik atsegi1enak iduritu zitzaizkion guztiak. Nolako dotoretasunez gai1era!

"Prudencio se muestra un gran poeta en la expresi3n pintoresca, en el colorido de su imagen, en su talento versificador, en su eloeuencia impresionante. Maneja con facilidad los ritmos mis variados, inspirando su versifieaci3n, sin servilismo, en Luereeio, Virgilio y Horaclo" (ib).

Poema osoaren akatsik nekagarriena? Martirien eta epailleen ezpai1e-tan ipi1i oi dituan itzaldi luze amairik gabeak. Bai1an ori ere garai artako idazleen oitura zakarra da.

---

Iam fuisti"), Indoni Murtuts eta bere bi diakonoak sutan erriak izateko zigorra izenpetuz. (Peristephanon, Vi ereserkia, 37-58).

- Didaktiku edo irakaspen-olerkien landan bi poema ditu aipagarrienak: "Apotheosis" edo "Garaitza-Jaia" Irutasun Deunari-buruz, eta "Hamartigenia" edo "Obenaren Sorkuntza", jatorrizko obenaren edestia azalduz.

Poema auek dirala-ta, salaketa au jaurti izan oi zaio Prudentzio'ri: Ordurako illik zeuden erejiak gogor astintzen dituala, baiña bere denborakoa zan arianikeririk ez duala aipatzen. Ezta priszilikeririk ere.

Ori ordea, Prudentzio "Tertuliano'ri jarraituz eta aren mintzatzeko erara moldatuz ibilli izatearen ondorioa omen da. lite-laztastmez bai omen dute ha biek alkarren antza": "It is clue to the fact that he closely follows and imitates Tertullian, whose rugged genius resembles his own" (Cath.-Ene.).

Poema bi oietako teologiari dagokionez, Donezipriano, Doneanbrosio eta, baitik-bat, Tertuliano izan zituan iturri. Alare, ez zan beñiere Tertuliano'ren estukerira jausi.

Tertullano'ri, batez ere "Apotheosis" deritzan poeman jarraitzen dio. Irutasun Doneari-buruz ura izan bait zan lenenetako teo/ogilaria. Zintzoa gaiñera: eta argia. Poema ortan bai omen daki Prudentzio'k "en verses sonores illustrer, par des imagen souvent tres heureuses des ides abstraites", ots, "doiñu ederreko itz neurtuetan zentzuen gaindiko gogapenak, sarri aski bikaiñak diran irudipenez argiagotzen" bai omen daki Prudentzio'k (ib).

Anbrosio Deunari, bereiziki "Contra Syrnmaeum" izendatutakoan jarraitzen dio. Olerki-lan ontaz ordeaa beeraxeago mintzatuko gera.

\* \* \*

Polemiku edo eztabaidazko olerkietan, "Psychomachia", "Dittochaeum", "Contra Symmachum" azkeneko au du, olerki-mota ontan, izenik aundiena lortu diona. Poema guzti oietan ortodoksia, ots, fedearen garbitasuna du arreta nagusia.

"Yet he is not always free from error", "alare ez dabil beti okerkeritik yare". "He believes that only a small number of souls are lost", "bere ustez anima-talde txiki bat bakarrik galtzen bait da".

Ez dut uste zuzen mintza danik oraingoan Iztegi eder ori. Inpernura jende gutxi joaten dalako ustea, ez bait da sekula santan erejitzat artua izan! Alare inpernura joaten diranak asko diralakotan bizitu da kristaudia. Danok

entzun izan diegu mixioetako sermoilariei Terese Doneak esan omen zuana:

"Udazkenez orria lurrera bezala jausten dirala animak inpernura""

Inpernura joan daitezkeanei-buruz, ona Prudentzio beraren izkera,  
"Cathemerinon" poemaren VI ereserkiko 85 eta 86'garren aapaldietan  
Josukristo Azken-Epailleaz ari dalarik:

Quaesitor ille solus  
animaeque corporisque  
ensisque bis timendus  
prima et secunda mors est  
\*

Idem tamen benignus  
ultor retundit iram  
paucosque non piorum  
patitur perire in aeuum

Bera da gorputz-animen  
Epaille bakarra.  
Bi aldiz bildurgarria bere ezpata:  
gorputzaren eraille, animaren eraille  
\*

Baiñan, onbera izaki berez-ta,  
bere baitan gorroto apentzalaria baretzen dualako,  
onak izan ez diranetatik ere  
gutxi izanen dira betiko galtzen diranak.  
\*

---

<sup>s2</sup> Esakizun orren "teresiartasuna" jakin naiean ibillia naiz. Galde izan diet praille karmeldar batzuei ere. Ez zekiten, edo ez zidaten erantzun nai izan. Alare, arazo ortan ez legoke Terese Donearen omenik arriskuan, naiz esakizun ori Terese'rena izan, eta bizitu zan aroan bizitu zalako baleike berea izatea -

Terese'ren oldozkera ez baiña aro guzi artako eliz-gizon guztien oldozkera bait da. Aldizkari au, karmeldarrena da. Ez ote da, Aldizkari ontako idazleen artean, auzi ori argituko digun bat agertuko?

Soilki bi aapaldi oiek idatzi ba'litu ere, ongi irabazia luke Prudentzio'k teologiaren eskerra. Gaur, dirudianez, Prudentzio'rekin bat egiñik aurkitzen da Eliza bera. Bada Erroma'n "Ez-Kristauentzako" ofizialki eraturako Sekretaritzak bat. Ona ba Sekretaritzak orrek frantzeraz argitaraturik daukan azalpen batetik artutako itz auek: "Jainoak bakarrik daki nor galdu dan eta galdurik izan dan": "s'il y en a".

Gaur bai. Gaur ez zaigu izketa ori arrigarria geratzen. Baiñan Prudentzio'ren aroan benetan zan arrigarratasun ororen sortzaille. Irakurri aal izan duzunez, gaur bertantxe "The Catholic Encyclopedia"ri arrigarria ez eze gaitzesgarria ere iruditu bait zaio gure olerkari Baskoiaren aapaldi ori.

Origenes'ek bai, esan zuan orrelako zerbait Origenes aundiak: Aro guztien azkenean, inpernura galdutako guztiek, baita Luzifer berak ere Jainkoagandiko grazi utsez barkapena lortuko zutelako, izadi guztia -- gizakume ta gotzon izpiritudun izadi guztia salbatuko zala, eta orrela oben oro eta obenen ondorio txar oro ezerezturik, "asieran zuan araztasu-

---

<sup>53</sup> Zeruaz mintzatuz gero, onela dio dokumentu orrek: "La Revelation parle d'une autre possibilite" aprs la mort: l'enfer et la damnation. Celui qui, en plaine connaissance de ce qu'il fait, refuse la parole de Christ et le salut qu'il offre, ou qui, apr'es l'avoir accepte, se comporte obstinement de faÇon contraire a sa loi; ou celui qui vit en oposition avec sa conscience, celui-la manquera son destin de bonheur et restera, pour son malheur, toujours loin de Dieu. La Sainte Ecriture appelle cet etat du terme angoissant de `deuxietne mort'. Evidemment, aucun homme ne peut juger si quelqu'un a encouru un tel malheur. Dieu seul sait quels sont ces hommes et s'il y en a". (Secretariat pour Ies non-Chretiens. "L'Esperanee qui est en nous". Breve Presentation de la Foi Catholique". La Documentation Catholique. Numero 1491: 2-1V-1967; 595-626 or.).

' Beste aalpen bat ere aipatzen du Jainkoagandiko jakintzak: inpernurako gaitzespena. Zer dagian argi jakiñik Kristo'gandiko itzari eta osasunari uko dagiena; naiz bi oiek onartu, Aren legea bein-da-berriro naita urratuz dabillena; eta bere kontzientzia zapalduz bizi dana; orrelako oiek, zorionerako zuten deia galdurik, beren ondamenerako, betikotasunean Jainkoagandik urrun geldituko dira. Egoitza orri Idazti Doneak, ikaragarritzko itzez, `bigarren erioa' esan oi dio. Ez da ordea gizonik, norbait ondamen ortara jausi dan jakin dezakeanik. Jainkoak bakarrik daki orrelako oiek nor diran, eta iñoiz orrelakorik izan dan".



nera itzuliko zala izaki oro". "Oro leenera-Itzultze" ori dala-ta esan zitzaion "apokatastasis panton" Origenes'en aburu ausarta gordin orri.

Ori, seguruaski, lanerako ipotesi moduan idatzi zuan Origenes'ek. Ez sinispeneko egi bat ba'litz bezala. Alare erejiaren orbana leporatu nai izan zitzaion.

Beste gauza bat zan ordea Prudentzio'k esaten zuana: Ez zuan inpernuaren betikotasunik ukatzen: Josukristo'ren erruki neurrigabea aal daitekean guztia goretsi naiez, gutxi izango dirala, **esaten zuan betirako** inpernura galduak.

Elizaren aurreneko mende aietan, gogorkeri beltzera jo zuten ereji ugarien erruz, Elizako giroa ain latza ta zailla zan aro gogor artan... non? nola? norengandik? ikasita idatzi ote zuan ori gure Prudentzio'k? Iñoren-gandik ez. Nere ustez Prudentzio bera bait dugu Josukristo'ren errukitasuna goretsiz orren aurrera joatera ausartu zan leengo pentsalari kristaua. Ez bait da bere aurrekoen artean orrela pentsa zezakean teologilariren izenik eza-gutzen.

Aurrelari dugu beraz ortan Prudentzio. A!, ta mintzatu naiz nere aburu ontaz irakasle ospetsuekin, idatzi dutana idatzi baiña len.

Badakit ameskeri utsa dala, Prudentzio Baskoia zalako esatera noana. Baskoia zalarik, naitanaiez ezagutzen zuan Baskoien jentiltasuna, naiz Kalagurri neurri aundian kristauturik egon, oraindik Kalagurri'ren lurraldeetatik kanpo Baskoirik geienak jentillak bait ziran. Maskoien jentiltasun zaarraren auzoko giro biguiña ote zebillen Prudentzio Baskoiaren kontzientzipea, Azken-Epaiketako Epaillea ain biotz-gozoko epaille aurkeztu zigunean?

Ameskeria izenen da esan dutana, baña oroi Prudentzio'ren denbora arte, liburu onen I atalean argi utzi dugun lez idazle erromatarrek ez zietela euskaldunei ankerkeri zakarrrik eta gorrotokeri makurrik leporatu. Ezta batek bakarrik ere! Ta idazle aiek zuzen zebiltzalaren adigarri dugu Kristautasunak Euskalerrian euskaldunek eraildako martiririk ez izatea. Euskaldunek ez zuten, heren sinispide zarra babestearren sinispide berri bat zekarkien mixiolari kristaurik il.

Baskoi batzuei, sojki Baskoi hat edo besteri. kr;stauren bat erailtzea leporatzen dieten kondairak, geroagokoak dira, frankiarrenak, eta orixe

besterik ez dira: kondaira utsak. Edestiaren aldetik indarrak batere ez duten kondairak.

Oroi gaiñera laterazko eta elenerazko idazle klasikoek euskaldunen aurka beiñere itz zakar bat esan ez zuten bezala, frantziarrek eta frantziarren oldozkerako idazleek, V mendetik asita, ez dutela sekulan, euskaldunetaz ari diralarik, itz garbi bakar bat erabiliko. Ezta euskaldunen ekin-tza zuzen bat ere aipatuko. Euskaldunak biurriak dira danak, eta euskaldun-ek egiten duten guztia, gaiztoa".

Baiñan iñork ezin ezabatu dezakean gauza da, edestia lekuko, euskaldun-ek ez zutela beiñere martiri kristau bat bakarrik erail. Ezta beren erlijio zarra babesteko ere. Pakean entzun zietela atzerritik zetorzkien erlijio berri atzerritar aren mixiolari atzerritarrei.

Non da, eta zein da, beste orrenbeste esan dezakean Erririk?

Ez bezait iñor, Prudentzio'k Zeledon eta Emeterio Doneen aintza abesterakoan Baskoien jentilkerak "biguiria" ez baiña "bruta" izendatu zuala esanez etorri: "Bruta quondam Vasconum gentilitas", "Baskoien antziñako jentiltasun aberekoa" (Perist.I,94), ori esanez datorkidanari onela erantzun-ngo bait diot:

- Prudentzio'rentzat, jentiltasunak,      naiz izan daitekean jentiltasunik biguiñena, goxoena, ta txukunena izan      naitanaiez "bruta" izan bear zuala beti, aren stez jentiltasun oro deabrukeri utsa besterik ez zalako.

- Beraz, Prudentzio'k Baskoien jentiltasunari erasten dion epiteto edo izengoiti orrek ez duala Baskoien jentiltasunaren nolakotasunik adierazten.

- Prudentzio'k eta orduango kristau guztiek jentiltasun oroz izan zezaketen iritzian ez baiña erromateko idazleek euskaldunen izate-eraz idatzi zutenetan oiñarriturik ausartu naizela ni euskal-jentiltasunaren biguintasunaz mintzatzeraz. Erri baten erlijioa nolakoa, alakoa izaten bait da erri orren nolakotasuna ere.

- Gaiñerako guztia, ots, euskaldunen jentiltasun arek Prudentzio'ren kontzientzipean izan zezakean eraginmenari-buruz esan dutana, ipotesi utsa bezala izan dala esana.

---

Jardunkera zipotz arrazoa? Izugarri gogorak izan zirala Akitani'ko lurraldeetan guduak.

- Alare, bada beste zerbait esateke laga nai ez nukeana: "Bruta", euskeraz, "aberekoa" biurtzen da: Euskaldunek aberea jainkotzat nola gurtzen zuten esan dugu liburu onen lenen atalean: 4Ez ote zuan abereenganako gurketa ori adierazi nai Prudentzio'k Baskoien erlijioari "jentilkeri aberekoa", "bruta Vasconum gentilitas", esan zionean?

\* \* \*

- "Contra Symmacurn". Symmako, Erroma'n senatore zan. Orduango izlaririk onena. Jentilla. Jentiltasunaren alde Lanean jarraitzen zuana. Orduantxe ainzuzen, V mendearen asieran, birrezarri nai izan zuan Erroma'n jentilkeri zaarra, ortarako Sortaldeko Arkadio eta Sartaldeko Onorio inperatorei idatziz. Ez zuan ordea Prudentzio'rik ikaratu eta aurpegi eman zion onek bi zatitan ebakitako poema luze dotore baten bidez.

Poema ori idazten asterakoan, Errorna'n dago Prudentzio. Erroma'n Simmako. Oridalata, txit erromazale agertzen du bere burua Prudentzio Baskoiak. Erroma kristauaren maitale: "Trouve des accents d'une vraie eloquence pour chanter la gloire immortelle de Rome, la mission providentielle de l'empire, le renouvellement du monde par le christianisme" (Ib): "Erroma'ren aintza illezkorra; Jainkoaren ardura done berak emanda Inperioak izandako zentzu izkutua; eta kristautasunaren bidez munduak lorturiko eraberritzea olerkera egokiz abesteko, aurkitu zituan mintzo benetan eder dotore baten otsak".

\* \* \*

Aurrelari izan zitzaigun Prudentzio elertiaren esparru ospetsu batean ere: Alegori-elerti-esparruan ain zuzen. "Alegori" itza irudimenari dagokio. Zentzu asko ditu itz orrek. Emen "irudimen utsezko jokuz eraturako elertia" adierazi nai digu. "Psychomachia" edo "Sikomakia" izeneko poeman erabilli zuan elerti-kera ori Prudentzio'k. "Psycho-Machia" izenak "Animagaitiko Borroketa" esan nai du.

Ba, poema ortan, nortasunez, ots, pertsonalitatez jazten ditu onbideak, birtuteak, eta gaizbideak, bizioak, eta pertsona biurturik, gizakumearen anima irabaztearren batzuek besteen aurka borrokan ipintzen ditu. Arrakas-

ta aundia izan zuan Prudentzio il ondorean ere, arek moldatutako elerti-kera bitxi orrek. Ala, erdiaroko antzertia neurri aundian alegori-antzertia izan zan, eta bizkor iritxi zan baitare Prudentzio'ren itzala CalderOn de la Barca'gana eta Calderdn de la Barca'ren garai artako beste olerkari españiarren "Autos Sacramentales" izeneko antzerkietara.

Ba, gure Prudentzio izan zan elerti-mota ori eratu zuana, aren aurretik era orren aztarnatxo batzuk besterik ez bait dira elertiaren edesti osoan aurkitzen. Ederki "The Cath. Encyclopedic" k: "Before Prudentius only the merest traces are found in such authors as Apuleius, Tertulian and Claudian": Euskeraz:

"Prudentzio'ren aurretik soilki elerti-kera orren zantzu utsak aurki daitezke Apuleio, Tertuliano edo Claudiano bezalako idazleengan.

Onbideei neskatil-itxura ematen zien Hermes aipatzea aztu zaio Iztegi eder orri; baiñan, alatagutziz, bildur gabe esan dezakegu Prudentzio Bas-koia izan zala alegori-elertiar bere bein-betirako tankera eman zion elerti-/aria.

"Al querer Prudencio cantar las luchas Intimas que en el alma de todo cristiano se desarrollan entre las virtudes y los vicios, crea un mundo moral esplendido y vigoroso. Tipos hay como el de la Soberbia, el de la Molice o la Lascivia, el de la Avaricia, el de la Humildad y el de la Paciencia, de un valor descriptivo insuperable,

"Quiz6 la variedad de reeursos épicos no sea muy abundante, pero la descripción de la lid entre la Soberbia y la Humildad y la del mÓrbido letargo que siembra la Molice en el ejército contrario son cuadros plsticos de primera cualidad" (Guillen, l.c. 301 or.).

Egia da ekintz-olerkiaren agerpide edo errekurtsoei-buruz, beste olerkiak baiño txlroxego azaltzen zaigula zati batzuetan kalagurritarraren poema luze au. Baiñan, alatagutziz, "this first completely allegorical poem in European titterature enjoyed immense influence in the Middle Ages" (Encyelopaedia Britumica): "Osoro alegorik'olerki lez Europa'ko elertian aurrenekoa dan poerna onek, neurtu ezin aiñako eraginmena izan zuan Erdiaroan".

"Le Moyen Age l'a beaucoup lue et beaucoup goUte. Elle a été pendant des une des sources oti allerent puiser l'anvi moralistes, lettrés et artistes, et les chatédrales gardent encore les marques de l'influence exercée par Prudence sur leurs sculpteurs" (ib).

Euskeraz:

"Erdiaroan asko, eta atsegin aundiz, izan zan irakurria poema au. Bera izan da, mendeak-zear, multzoan edatera joateko, moralista, jakintsu, eta ertilarien iturrietako hat; eta katedraletan dager, oraindik, Prudentzio'k jauretze aietako arri-Iantzailleengan izan zuan eraginmenaren aztarnarik ugari".

Bestela ere, "El poeta de Calahorra fue uno de los grandes educadores de la edad media, como lo prueban sus más de 300 manuscritos (Dic. Hist. Eccl, Esp.).

- "Ditrokeon", bi bertso-parez osotutako olerkitxo bati esaten zitzaion. Eta ori dala dirudi eta ez "ditokeon" Prudentzio\*k orrelako 49 olerkitxoen sorta bati eman zion izena. Olerkitxo oien gaiak? Itun Zarreko eta Berriko gizakume eta gertakizunak. Eliz batean edatu bearrak ziran margo-lan batzuen oiñetan ipiñiak izateko idatzi zituan Prudentzio'k, an margo-lan bakoitzaren zentzua adieraz zezaten.

Ikus olerki-lan orren adigarritzat onako olerkitxo bi auek: Itun Zarrekoa bata, Itun Berrikoa bestea:

#### I. De Adam et Eua

Eua columba fuit tum candida, nigra deinde  
facta per anguinum malesuada fraude uenenum,  
tinxit et innocuum maculis sordentibus Adam:  
dat nudis ficulna draco mox tegmina victor,

Euskeraz

\*

Uso zuria, Ebe; gero, beltza,  
suge maltzurraren aolku edentsuak atzipeturik,  
zikindu zuan orban nazkagarriz Adan iflozoa ere.  
Sugearen garaitzaren adigarri: aien larru gorrietan pikondo-orriak

\*

#### XXXIV. Passio Johannis.

Praemia saltatrix poscit funebria uirgo  
Johannis caput abscissum quod lance reportet  
incestae ad gremium matris; fert regia Bonum  
psaltria respersis manibus de sanguine iusto.

Eriogarria, neska dantzariak eskatzen duan saria:  
Jon'en buru moztua, aspil batean,  
ama aidekeriz enastuaren gelara eramateko. Badaramakio  
printzesa dantzariñak odol zintzoz zikindutako eskuetan.

Amai dezadan atal au Encyclopaedia Britannica'ren eskutik, asko atsegin zaidan eta maiz erabili oi dutan iztegia bait da:

Prudentius gives classical literary form tu christian content without any eiement of travesty": "Elerti klasikoaren eraz jazten ditu gai kristauak, ez ordea soiñeko-aldaketa utsa bakarrik egifiz".

- "In vocabulary he uses many neologism to express Christian concepts, which became part of the common stock of medieval poetry": "Kristautasuneko gogapenak aditzera emateko itz berri asko erabili oi ditu, gero erdiaroko elertiaren itz-altxorrera igaroko ziranak".

" A tasteful metrician be not only uses bexameters, iambic trimeters, and many of the lyric metres of Horace, but freely introduces new lyric metres of his own": "Ago goxoko itz-neurle, atsegin zaio eksame troak edo sei-oiñeko-bertsoak, 'ianbiar' esan oi zitzaien iru-oiñekoak, eta Orazio'ren lirik-neurkeretatik asko erabiltzea; baita berak yareki asmatutako beste batzuk ere".

- All the techniques of ancient rhetorik are at his comand": "Aro artako erretorikaren teknika guztiak eskuetan ditu menderaturik, bere serbitzurako".

Ez zan noski gure Aurelius Prudentius Clemens basikoi kalagurritarra nolanaiko gizona izan!

Tamalez, euskotarra izan zan bezala, euskalduna izan zanik ezin dugu jakin.

---

<sup>ss</sup> Au esan nai du: Prudentzio'k egiten duana ez dala, soilki, jainko zarrak eta antziñako gizadjak erantzita, aien soiñekoz Jainko kristaua eta Done kristauak jazte utsa, ots, aiei ematen zitzaizkien izenak eta izengoitiak elerti kristaueko Jainko ta Doneei emate utsa. Alderantziz, klasikoen estiloa edo elertikera daia, elerti kristauari dakarkiona.

#### IV MENDEKO GIROA

Era bildurgarrian asi zan Elizarentzat IV mendea.

„Nork uste Kristaudian, ain arriskutsu asten zitzaigun mende ura izan bear zuala, Elizari pakea eta erabateko garaitza ekarri bear zizkion mende alaigarria?


Diokleziano'k asmatutako Tetrarki edo Aginte Laukoitza zegoan Erroma'ren inperio-lur zabalaren jaurketan. Sarkaldean Maximiano ta Kostantzio Kloro; Sortaldean Diokleziano bera, eta, batez ere guda-arazoetarako bere laguntzaille bezala, GaI erio.

Euskalerritari dagokionez, Iparraldea, Kostantzio Kloro pakezalearen agintepean gelditu zan; Maximiano Eliz-etsaiaren mendean berriz Egoaldea. Inperioaren sortaldean, bai Diokleziano eta bai Galerio, biak ziran Elizaren etsaiak, eta asiera artan Galerio geiago Diokleziano baiño. Uste oi danez, Galerio'k eraman bait zuan kristau-zigorketara, 298'a arte kristautentzat paketsua izan zan Diokleziano.

Ainzuzen, III mendearen azken-urteetatik zetorren Galerio gudaroztearen harruan gudari kristauak zigortzen. Gudarozte osora zabaldu zan zigorpen orren ondorioz izan ziran Kalagurri'n eraillak gure Emeterio ta Zeledonio martiri Doneak, Euskalerriko "Protornartiri" edo "Lenenmartiriak".

Zer ikusi aundia izan zuala dirudi, esan dugunez, Galerio'k, laister Diokleziano'k eta Diokleziano'rekin batean Maximiano'k asiko duten kristautasun-porrotkatze amorratuan.

"Gudalburu yayoia" izan zan Galerio, baiñan "k-upidarik gabeko jauriea": "An able general but a ruthless ruler" (Ency. Brit.). Gaiñera. "he was and always remained a fanatical pagan", "jentill amorratua izan eta izanen zan beti" (ib). Borroka-zelaietan irabazitako garaitzen ondorioz, "he gaine4.1 increasing intluence over Diocietian, at it was probably he who persuaded Diocletian initiate the persecution of the Christians" (ib).



LA GAULE CHRETIENN <sup>c</sup> VERS 395

IV mendean, Euskeraren ipar-muga Garona'ren ibarretan. Eta baso ta mené diei dagokienez, itzeginen zan oraindik, agian, Dorrkfia'ko lurretan. Sortalé dez, iritxiko zan, bearbada, Auñamendiko aranak• ar Mediterran-Itxaso-raiito.



Euskeraz:

"Aundia izan bait zan artu zuan eraginmena, uste izatekoa da berak bultzatu zuala Diokleziano kristauen jazarketara".

Danadala, 298'az gero, sartu zitzaigun Gaierio'ren bidetik, ordurarte amalau urtez kristaue bezala arduratu ere egin ez zan Diokleziano, eta ala asi zan gudarozte ta jaurlaritzako karguak kristau oroz garbitzen. Au izan zan, Galerio'ri jarraituz, berak ere kargu bat izan zezaketen guztiei ipintzen asi zan aukeraketa: "Erroma'ko jainko zarrak gurtu, ala izan zezaketen kargu guztiak laga".

Diokleziano ere eta Diokleziano'rekin Maximiano Dezio'k asitako bidetik sartu izate orrek argitzen digu zergaitik III mendean, eta Sarkaldean, izan ziran eraillak Emeterio ta Zeledonio kalagurritarrak; Inperi-lur guztiko Elizaren aurkako zigorketa gogorra 303'an eta 304'ean gertatu bait zan.

Ez du alare argitzen zergaitik, sasijainkorik ez gurtzeagaitik gudaroztea utzi zuten bezala gero izan ziran eraillak. Agian i, gudaroztean lagun izandako gudari jentillen artean, eta Kalagurri ta Kalagurri'ren inguruetako jentil ugarien artean, kristautasuna aldarrikatuz jarraitzen zutelako? Baleike. Prudentzio'k ez digu deus esaten.

IV mendearen barruan, eman zituan Diokleziano'k Kristautasunaren aurkako bere iru aginduak: 303'an eta 304'ean. Aurrenekoaren bidez. Bibliak erretzea, ta elizak istea agintzen zuan, kristauei nonnaiko billera oro galeraziz. Illabete batzuk geroago emandako bigarrenaren bitartez, arrapatu zituan elizgizon sagaratu guztiak espetxeratu zituan. Laister, urrengo urtean, inperio-lurreko biztanle guztiei, eriotzeko zigorraren truke,, jainko zarrak gurtzeko agindu zien.

Ondorio latzak izan zituan Ego-Euskalerrian Diokleziano'ren zigorketa orrek, emen agintzen zuan Maximiano inperatorekideak ere, gogor eraman bait zuan aurrera kristauen aurkako zigorketa. Iparraldean ordea, Kostantzio Kloro pakezaleak agintzen zualako, lasai jarraitu zuten kristauek, an, elizak desegin besterik ez bait zuan egin arek, eta ori ere, seguruaski, beste inperatorekideekin borrokan asi bearrik ez izateko,

Akitani'n edo, orduan esaten zan bezala Nobenpopulani'n, kristauak bazirala gauza jakiña dugu. Elusa'ko urian gotzai bat bazala ere bai. Nobenpopulani artan Kostantzio Kloro'ren aginduz elizik erre zan ordea ez dakigu.

Baiñan Iparr-Euskalerriko kristauen ibillera oraingoz utzita, ikus dezagun nolakoa zan Ego-Euskalerrikoena. Donebixente diakonoaren martiriotzatik asita.

## IONDONI BIXINTXO

Orain gazteleraz "Huesca" esaten dioten eta orduan erromatarrek Oskan esan zioten urian jaio zan Bixente Donea. Ori da gauréegungo edestilari guztien iritzia.'

Ez dira beti danak, len, aburu ortakoak izan. Adibidez, oraindik, "Catholic Encyclopedia"k, "Vincent was born at Saragossa" diosku, "Espasa"ri jarraituz. Iztegi onek ere Bixente Zaragoza'n jaio zala bait dio. Aburu oker ori, i, Prudentzio'ren bertso bat gaizki ulertu izatetik sortua ote dugu?

Onela bait dio Prudentzio'k, bere "Pertstephanon" poemaren barruan, Zaragoza'ko 18 martirien aintza gorestekoko idatzi zuan IV ereserkian:

"Inde, Vincenti, tua palma nata est,  
clerus hie tantum peperit triumphum,  
hic sacerdotum domus infulata  
Valeriorum:

Saeus antiquis quotiens procellis  
turbo uexatum tremefecit orbem,  
tristior templum rabies in istud  
inudit tras.

---

"Ion" ori "Jaun itzetik dator. Nere ustez, "Yon", idatzi bearko litzake, euskalki batzuetan "J"z agoskatzen diran itzak, "jaun" adibidez, izki ori legunzten duten euskalkietan "I" ez baiña "Y" biurtzen bait dute: "yaun", ez, "Yaun". Yondoni Bixintxo, beraz, eta ez Iondoni Bixintxo. Baiña Euskeraé zaintzak, ain xaraurki gogoratzen dugun Gaztañaga'tar Jexux'en eskariz, ez dakit oraindik zergaitik "I" erabiltzea erabaki zualako, Euskera gaixoaren ortografian arazo geigorik ez zortzearren, "I" erabilliko dut nik ere. Alperperrik arazo ta zailtasunik aski sortu bait digute beste batzuek.

Nonne, Vincenti, peregrini necandus  
martyr his terris tenui notasti  
sanguinis rore speciem futuri  
morte propinqua?

Euskeraz:

\*

"Emen sortu zan, Bixente zure aintzazko palma-orria,  
emengo elizgizondiak erditu zinduan gizandi,  
Emengo apaizdiak sortu zuan Balerio'tar Jauparien  
sendi aipagarria.

\*

Len ere eraso ankerren jasak  
kristaudi zigortua astintzen zuanetan,  
Eliz onen aurka irauli oi zuan anker  
gorrotorik zakarrena.

Ez al da egia, Bixente, naiz emendik at nekaldua izan  
zure odolaren intzaz busti zenduala lur au  
izanen zenuan eriozkeraren adigarri?

\*

Argi dago, Donebixente ta Donebalerio Zaragoza'ko gotzaia goraipatu idatzitako itzneurto oietan, ez dala Prudentzio Donebixente'ren jaiotzaz ari, aren martiriotzaren astapenaz baizik, Zaragoza'n baitua, ta bertan zartailluz zigortua izanik, Zaragoza'n ixuri bait zuan aurrena Bixente'k Kristo'gaitik bere odola, Balentzi'ra eramana izan aurretik.

Gaur ez da Bixente Ueska'n jaio ez dala esatera ausartzen danik.

"Vicente nació en Huesca, de padres cristianos en la segunda mitad del siglo III" (GER).

Ori bera dio geroago Garcfa Villada'k ere: "Sobre la vfa militar que ponfa en comunicaci3n a Tarragona con Galicia, estaban L3rida ganada probablemente para la fe en el siglo IV por lo menos, Huesca, de donde

procedfa la madre de San Vicente, y las Iglesias de Calahorra Nassica..."(Ib, I, 177)2.

Oska, Baskoien eta Ilergeten artean zeuden eta erromatarrek "Oscitani" ala "Vescitani" "V" ori "U" irakurri bearra dalako, "Uescitani" **esan** oi zieten Ieiñu euskaldunetako baten uriburua zan. Eta, naiz bertan, segu-ruaski, atzerritiko lateradunak bat baiño geiago izan, euskalduna zan bera, oso-osoan, eta euskalduna izenen zan geroago ere gutxienez XIV mendea-aren azken-aldera arte, edo, agian, XV'a sarturik egon arte.

Bixente Donea ordea euskalduna ote zan? Baietz, diote batzuek --, amaren aldetik beintzat. Narbaitz<sup>1</sup>ek adibidez. Ona zer dion II mendeko Donelorentzo Ueska'n jaioa izan zitekeala esan ondorean: "Vincent, l'illustre Bixintxo des navarro-labourdines, lui aussi originaire de Huesca par sa rrire": "Bixente, Benaparro ta Laburdi'ko elizetako Bixintxo ospet-sua, bera ere amaren aldetik Ueska'koa jatorriz" (Pierre Narbaitz; "Le Matin Basque", 370 or.).

"Bibliotheca Sanctorum"ek dionez, gaur ez du iñork ezbaiean ipintzen gure Bixente Ueska'n jaioa zanik. Kotsulen sendikoa omen zan; Eutikio eta Enola'ren semea.

"Descendfa de una familia ilustre, pues su abuelo Agressus llegd a la dignidad de consul<sup>3</sup>. Su padre se llaniaba Euticio y su madre era natural de Huesca" (Zacarfes Garca Villada, S. J. "Historia Eclesiástica de España". 1,279.). "His father was Eutricius (Euthicius) and his mother, Enola, a native of Osca": "Bere aita, Eutzio; bere ama, Enola, Oska'n jaioa" (Cath. Enc.)

III mendearen bigarren erdian jaio zan. Urtearen berririk ez dugu.

---

Lerida, "probablemente" zala kristaua, esan digu. Kristaua zala, "en el siglo IV por lo menos", gaiñera? Lerida, orduango Ilerda, "Ilergetes" edo "Ilergetarren" uri nagusia zan. Ilergetarrak berriz euskaldunak ziran. Poztutzen gaitu, naiz gauza ziurra izan ez, alderdi artako euskaldunen artean ere, kristau-tasuna gutxienez IV mendean, eta, agian, baita leenago ere sarturik zegoala, benetan egiazko gauza izan daitekeala jakiteak.

Ez omen da bere izenik "Fasti" deritzan aundikien zerrendan agertzen, baiña izan omen zitekean "suffeeti" edo "deduzkoak" esaten zitzairen kotsule-tako bat.

Alatagutziz, naikoa bere sortzeaz dakiguna, III mendean kristautasuna "Vescitani" euskaldunen artera sarturik zegoala jakiteko.

Garai artan Zaragoza zan lurralde aietan kristau-laberik beroena. "Uescitarrak", ordea, iristen ziran iparraldetik ia Zaragoza'ren atetaraiio. Uste izatekoa da beraz Zaragoza'ko iturrietatik artua izango zutela kristautasunaren ur donea.

Balero, Donebalero, zan III mendea iltzer zegoalarik, Zaragoza'ko Elizaren gotzaiia. Zaragoza bertako semea, esan oi danez.

Kondairari sinistu nai ba'diogu, Oska'ra joan omen zan Balerio, Bixente'ren gurasoengana; eta, andik ekarri omen zuan berekin Zaragoza'ra Bixente gaztea.

Ez da arritzekoa, Bixente'ren aita ain mailla gureneko zalduna ta, gaiñera, kristaua izanik, Balerio gotzaiak Oska'ra egindako ibillaldia. Oska seguruaski bere elizbarrutiko uri bat bait zuan gaiñera.

Danadala, egia dugu beintzat Zaragoza'n azi zala, an apaiz egin zala, eta Balerio gotzaiak bere Goidiakono edo "Artxidiakono" izendatu zuala. Kargu orren ondorioz, gaur-egungo Ordezkarri edo Bikario Orokor baten antzeko eskubideak zituan Bixente'k; Eliz-barrutiko ekonomi guziaren zuzendaketa, batez ere. Badakigu gaiñera, bere ardurapean izan zuala, ebangelizaketaren lan garrantzitsua. Ori, Balerio gotzaiak "defectum linguae" bat bazualako. Mintzatuko gera "mingairiaren gaitiko eragozpen" ortaz.

Lenen mendeetan, Eliz bakoitzak 7 diakono izaten zituan eta zazpitan lendakari zanari "Archidiakonos" eleneraz, "Arcedianus" lateraz, esaten zitzaion. Zazpiko zenbaki ori dauka Prudentzio'k Bixente'ren aurkezpen au egiten digunean:

\*

"Vincentius,  
leuita de tribu sacra,  
minister altaris Dei,  
septen e columnis lacteis".

Euskeraz:

\*

"Levitarren leiñu sagaratukoa;  
aldarean Jainkoaren serbitzaria"

zazpi zutabe zurietao bat;  
Bixente"!

Zaragoza egoaldetik bezala, euskalerriaren muga-mugara zegoan, ipaé rraldetik, Bordele ere. Ta Bordele'ko semea zan, olerkari lez ondo ezaguna dugun Donepaulino "Nolatarra". Au izan zuan Bixente'k, Prudentzio'rekin batera, lenen goratzaillea V mendearen asieran. Garai artan Sarkaldeak zuan irakaslerik onenetakoa" esan bait zion Paulino'k bere orlerkietako batean.

Onela dio olerki berean Doneziprian'en Afrika'n kristautasunak lortutako aurrerapena abestu ondorean ("Carmen" XIX, 149é154.):

"Ideo dudum iam fertilis Africa Christo  
multiplicat largas tanto de semine fruges  
et parit egregios uerboque fideque magistros,  
nec minor occiduis effulsit gratia terris  
Amhrosius Latio, Vincentius extat Hiberis.  
Gallia Martinum, Delphinum Aquitania sumpsit.

Euskeraz:

Kristo Jainkoarentzat eman berria du Afrika naroak  
ain azi oparotik alako uzta aberatsa,  
eta fedearen iragarketarako maixu ospetsuak sortu,  
ez da sorkaldeko lurretan ere grazia illunago gelditu:  
Ambrosio Itali'ra bezala or bait dago Bixente Iherietan.  
Galia'k Martin bat izan du. Akitani'k Delfino".

\*

Itzez bakarrik ez laister izango zuan, era ortan Paulino Nolatarrak goraiapatutako gure Bixente'k, bere odolez ere fedea aldarrikatzeko egokitasun garratza. Aldatzen ari bait zan Elizarentzat politikaren giroa.

Bazuten noski, bai Balerio gotzaiak eta bai Bixente bere goidiakonoak, kezkatzen asteko, zio latzik aski, Sorkaldean Galerio'k asitako Eliz-zigor-keta Sarkaldera iristen asi zala ikusi zutenean. Ta, nola ez, Alboko Kalagurrri baskoien Emeterio ta Zeledonio eraillak izan ziralako berria iritxi zitzaionean bereiziki.

Naitanaiez oartu bear izan ziran, oraindik gudaroztearen barrengo auzia zan zigorketa ori, laister zabalduko zala inperio-lur osoko kristaudi guztira; pentsatzekoa bait zan Galerio ez zala gudaroztearen barruan kristauak zigortzen jarraitzeko gauza izango, ortarako Diokleziano Inperatore Nagusiaren onespentk izan ez ba'lu.

Ta, ala gertatu ere zan. 303'an eta 304'ean odoletan genduan Kristaudi guzia, Diokleziarto'k emandako lau agindu ankerren ondorioz. Ispani'n Datianus izeneko Epaille Nagusi bat dakusgu Diokleziano'ren aginduak beteazteko eginkizunean buru-belarri sarturik.

Ez dakigu zergaitik joan zan Jaun au Zaragoza'ra, baiñan an, Balerio gotzaia eta Bixente goidiakonoa baitu, ta Balentzrra eraman zituan berekin katigu,

Bein Balentzi'n, bere epai-gelara deitu zituan Daziano'k. Bixente izan zan epaille aren aurrean mintzatu zana. Ez omen zuan h Balerio'k ezer esan. "Totela zalako", diote edestilariek.

Ezberdiña izan zan bieburuz Daziano'k artu zuan erabakia. Balerio, agian agure zarra zalako, erbestera jaurti zuan. Askoz gogorragoa izan zan Bixente'rckin: oni fedea ukaerazteko asmoa arturik bait zeukan.

Balerio'k iparraldera jo zuan, eta Galietara, eta an Eure ta Loira ibaien lurraldean aurkitzen dan Anet errira baztertu zitzaigun, Eta il ere, an bertan ii zitzaigun.

Baiña izan zuan, aurretik, gaurko Granada'ren alboan zegoan Iliberris edo Elbira'ko kontzilia joateko adiontasuna, eta, baita, Aneren Donebixente'ren omenez, aren eriotz miresgarriaren herri jakin zuan bezain laister, eliz bat eraikitzeke betarik naiko.

Istillu gorriak izan zituan bitartean Donebixente'k.

"Habfa en la tortura de los martires diversos grados, que se iban aplicando sucesivamente con el fin de hacer vacilar su constancia. A todos precedfa el potro o eedleo, En el extendieron a Vicente, descoyuntando sus miembros y desgarrandolos con garfios de hierro. Luego se le coloc6 sobre un lecho incandescente, supremo grado de tortura" (Garcia Villada.Ib, 279).

Bazekian Bixente'k ori dana zetorkiola gaiñera, eta onela itzegiñerazten dio Prudentzto'k, Daziano'k fedea ukatzeko eskatzen diorean:

"Tormenta, carcer, unguiae,



stridensque tlammi lammina,  
mors, christianis ludus est".

Euskeraz:

"Jostaketa alai dira kristauontzat  
oñaztapenak, kartzela, burnizko oiriazegailluak,  
ta azkeneko zigorra, ots, eriotza bera".

Bizirik bait ziraun oraindik Bixente'k, alde guztietatik oiñazegarri izateko bereizi gerturik zeuden arzulo aietako batera izan zan jaurtia. Ikus nola damaigun Prudentzio'k leku izugarri aren berri:

"Est intus imo ergalinguaestulo  
locus tenebris negrior  
quem saxa mersi fornicis  
angusta elausum strangulant.  
Aeterna nox illic Iatet,  
expers diurni sideris,  
hic carcer horrendus suos  
habere fertur inferos".

Euskeraz:

"Espetxe aren azpi-azpian bada  
illunbea bera baiño illunagoko toki bat,  
arri estugarrien arteko zoko labur motza.  
Gaua da beti an nagusi,  
Egun-argi-printzarik gabeko gaua.  
Espetxe ikaragarri artan,  
egiazko inperua".

Ta, orrela jarraitzen du Prudentzio'k, Donebixente'k "en aquel calabozo estrecho que Prudencio lo debi(J visitar" (Garcfa Villada) jasandako oiñazeketak abesten.

Orrelako espetxeak, bertan baituei al zan samintasunik geiena emateko bereiziki antolatutako zulo ikaragarriak erromatarrek bazituztela, jakingo duzu noski.

Orrelako osin-zuloetan izan ziran itxiak Perpetua ta Felizitas Doneak Afrika'n; Lyon'en, 177 ta 178"garren urteko martiriak; Pionio Donea Asi Txiki'ko Esmirna'n...

Erroma'ko idazte jentillek ere aipatu oi dituzte orrelako leku tamalgarri oiek; Salustio'k adibidez.

Zulo oietako lurtean etzinda ipiñi zuten Bixente ere. "En ese calabozo de la carcel de Valencia fue pues metido Vicente, introduciendo sus pies en unos cepos de madera, de modo que sus piernas estuvieran violentamente separadas una de otra; y a tin de que la vfetima no pudiera encontrar reposo, sembraron el suelo de cacharros puntiagudos. suplicio que aplicaron también a San Felix de Nola, según San Paulino, y a San Eutiquio, en testimonio de San Damaso" (Id. Ib.)

Bixente'ren goratarrea egiñez amaitzen du Prudentzio'k arentzat idatzitako ereserkia.

Erromateko martirien nekeek ez gaituzte gaur-egun, orain dala irurogeiren bat urte aiña arritzen, eta orduan ez bezala egiten zaizkigu sinesgarriak. Gure egun "argitsu" auetan, kulturik gabeko lurraldeetan bezala zibilizaziorik dizdiratsueneko Laterrietan ere, diktatoreek eta ciiktatore oien ertzaiñek nolako izugarrikeriak egin dituzten ikusi bait dugu. Baita Diktatore katolikoek ertzain katolikoek ere. Arritzekoa al da erromateko diktatore jentillen ertzain jentillek bcste orrenbeste egin izatea?

Alare, arreta aundiz ibilli bearra dugu, gure martirien "Acta" edo "Agiriei" siniste osoa eman aurretik. Badira gure uste osoa merezi dutenak, baiña geienak, berandu idatziak dira eta egiazko albisteen faltaz asmakizu-

---

"Est in carcere locus, quod Tullianurn appellatur, ubi paululum ascenderis ad laevam, circiter XII pedes hurni depressus; eum muniunt undique parietes, atque insuper camera lapideis fornicibus vincta; sed incultu, tenehris odore foeda, atque terribilis eius facies".

Euskeraz: "Bada espetxean Tulonio deritzan toki bat, gora-bidean ezker-raidera, 12 oin lurpean, orma ziurrez inguraturik, arrizko sapaia duana. Ez da an iñor bizi. Ikaragarria bere itxura, hertako illunhe ta usai nazkagarrieri ondorioz" ("De Beilo Catilinae, 55).

nezko gertakariz beteak. Askotan gertakariak egiazkoak izaten dira, egiazko "Agirietatik" artuak, baiñan bigarren idazleek beren irudimen beroen aizez arras arrotuak, puztuak, anpatuak: Ameskeriaren lahe gurian erretako opil bedeinkatuald

\* \* \*

Gure idazti onen asmoari jarraituz, gelditzen zaigu oraindik arazo anitz garrantzitsu bat ikertu bearra. Done Bixente euskalduna izan ote zan, alegia. Oska'n jaio izanik euskotarra zala badakigu. Baiñan hai ote zan euskalduna ere?

Eskiertasun osoz erantzuterik ez dugu, dokumentu egokirik ere ez dugun ezkeror. Baiña baietz esango nuke ezetz baiño ziurrago.

Lendabizi, bere ama Oska'ko alaba izanik seguruaski euskalduna ere errez izan zitekealako, euskera bait zan lurralde artako izkuntza.

Eta, bigarren, ainzuzen Oska'ko kaleetan euskera egiten zalako, ama euskaldun baten mutikoak, adiskide euskaldunen artean jostaketan euskeraz ibilli ezkeror, euskera betirako ikasi izatea naitanaiezko gauza zualako.

Ori ziurki ontzat artua izateko, ordea, Bixente'ren ama jaiotzez oskatarra izateaz gaiñera, jatorriz ere "Ueszitarra" eta, beraz, euskalduna ere bazan jakin bearko genduke. Baiñan ori dokumentuen bidez jakiterik ez dugu. Alatagutziz, ori adierazi nai duala dirudi, edestilariek andre ura "Oska'n jaioa zala" esateko ipiñi oi duten ardurak.

Bestalde ez da arritzekoa andre aren euskalduntasuna; euskera Oska'ko urian txit sendo errotutako eta harra-barra erabillitako izkuntza bait zan, dirudianez. Ez ban zuan bestela mendeak-zear iraun zuan bezain luze Uri artan iraungo.

Erabilli oi da beste arrazoi bat ere, Donebixente'ren euskalduntasunaren alde: Balerio gotzaiak, bere "defectum linguae" arengaitik egin zuala diakono Bixente, elizbarrutiaren ebangelizaketa aren eskuetan utzi nairik.

Ori esanez datozkigunen ustez, "defectum linguae" orrek, Baleriano gotzaiak euskerarik ez zekiala, esan nai omen du. Eta ainzuzen orretxegaitik eman ziola mixioketako lan ura Bixente oskatarrari: au bai, euskalduna zalako.

Beste askok ordea, españiarren artean danek "defectum linguae" ori, Balerio totela zalaren adigarri dala esan oi dute: "Dio la casualidad de que Valerio era tartamudo y no pudiendo por sf mismo instruir al pueblo, encomend6 la tarea a Vicente" (Id.fb).

Ona emen bi aburu oiei dagokienez gure iritzia logikaren bidetik, dokumenturik ez dugun ezkeru:

- "Lingua" itza, geien-geienbat, "izkuntza" adierazteko erabiltzen da laterazko literaturan.

- Lateraz, "totel", "haibus" esaten da. Baita "blaesus" ere. Beraz, ori izan ba'litz Baerio'en izketarako oztopoa, "quia blaesus eraz", edo orrelako zerbait esango zuan, aurrena Balerio'ren eragozpenaz mintzatu zanak.

Ta...,toteltasuna ez baiña beste zerbait izan ba'litz Balerio'ren eraé gozpena, "propter defectum dictionis", esango zuan seguruaski: baita "propter defectum loquela", "propter defectum locutionis", "propter eius in loquendo defecturn", "propter defectum loquendi" edo orrelako beste zerbait; ez ordea, noski, "propter defectum linguae".

Ta, naiz egokia izan ez, itz ori erabilli nai izan ba'zuan ere, "propter impedimentum linguae" esango zuan, "mingarieko eragozpenagaitik"; "defectum" itzak, izan bear dan zerbaiten falta adierazten bait du; eta ez bait da sinistekoa Balerio gotzaiari mingairia falta zitzaionik.

Gaiñera, ez da sinistekoa Balerio totela izan zitekeanik. Totela izan ba'litz ez bait zan gotzai jzango. Bere Elizako igarle ta maixu bezala erriari itzegitea zuan ba bere eginkizunik garrantzitsuena ta naharmenena. Sakramentugintzarako, toteltasunak ez zion eragozpen larriegirik sortuko. Bai ordea, itzaren bidez bere Elizaren profeta, apostolu, eta maixu izateko. Batez ere ta bereiziki bere toteltasuna ain... ain... ain... aundia ba'zan!, ots, Balerio gizagaixoa erriari itzegiteko gauza ez izatera eramateko aiñakoa ba'zan!

- Agian, toteltasunak mintzoa zearo eragozten ez ziolako, katedralean bere erriari itzegin aal izateko yayotasunik aski geldi zezaiokeala? latinez itzegitea ez ba'zion eragozten, era berean ez zion euskeraz itzegiterik galeraziko... euskeraz jakin ba'lu.

Orrexegaitik aukeratu bait zuan, seguruaski, Jondoni Bixintxo, itzaren ereintzarako bere ordezkari: Euskerarik ez zekialako.

tutela izatea baifio askoz akats aundiagoa zan Zaragoz,a'ko gotzai batentzat euskeraz itzegiteko gai ez izatea. Bere elizharrutiaren erdia, inere ibaiaz gora Auilamendi'raiño gaurko Aragoi guzia, euskalduna bait zuan.

Badakit gaur egungo eUzbarrutiei-buruzko eraketak ez duala IV mendearen asierarako balio, baiñan Zaragoza'tik at Zaragoza'ko "elizbarrutiak" uri kristauak mendearen bigarren erdian bazitua/a badakigu: Donebixente'ren Oska ber-berbera bat, adibidez. Bazuan, beraz, Zaragoza'ko gotzaiagoak, gaurko elizbarrutien antzeko "esparru" bat. Eta, gutxienez, esparru orren erdia, euskalduna zuan.

Ori, denbora aietan Zaragoza'ko urian bertan era, naitanaiez biztanle euskaldunak, -- "Ueszitarrak" eta "Baskoiak" ugari izango zirala kontuan artzeke!5.

Badakit, baitare, Elizaren edestia-zear gotzai askori lurreko izkuntza jakitea ez zaiela oso kezagarria iduritu. Euskaldunok badakigu ortaz zer-bait baiño geixeago. Ez dira ordea gotzai guztiak orrelakoak izan.

Ez beintzat kristaudiaren lenen mendeetan; orduango gotzaiak kristautasuna, dana jentilla zan mundu batean erein bearrean aurkitzen bait ziran; eta gaur-egun ere, beren esparruetako jenderik geienek tokian tokiko izkuntza bakarrik egiten dutenean, saiatzen dira gotzaiak, naiz beraiek izkuntza ura ikasi ez, izkuntza ura itzegiten duten mixiolariak billatzen. Ta, orixe zan ainzuzen Balero gotzaiaren arazoa.

\* \* \*


Kristaudi osora zabaldu zan Donebixente'renganako jaiera. Oso goiz gaiñera. IV mendearen asieran il zan Donebixente. IV eta V mendeen artean bizitu zan Augustin Doneak ber-berak egin zituan lau sermoi Donebixente goratuz. Ederki dio "Bibilothea Sanctorum iztegiak": "Vizenzo

---

Oraindik ezagunak ez ditugun iru leiñu edo tribu euskaldun aipatu ditugu, Oska'ren inguruko "Ueszitarrak" ("Vescitani") ezagunak bait ditugu. "Suesiones" edo "Seusitarren" gaztelera *Sos del Rey Catdllico* eta euskeraz *Souse* esaten zaion uriskaren inguruko lurralde txiki batekoa zan. Aundiagoa zan "lazetarrena". laka, (Jaka), zuten auek uri-nagusi.

z

f



SALUSINO CERNINI, vescovo di Tolosa, santo martire - 777, ora del martirio, raffigurata sul reliquiario del santo (sec. XIII).  
Tolosa, Tesoro della chiesa di S. Sernini.

senza dubio uno dei martiri della Spagna che ottenero (lortu) ii pill splendido culto fin dai tempi piri remoti (denborarik zarrenetik).

Ispanietako bi martiri bakarrik agertzen dira "Santuen Letanietan": Donelorentzo ta Donebixente; Bat ziurki eta bestea seguruaski, biak "Veszi-tani" edo "Ueszitar" euskaldunen Oska urian jaiok; beraz, euskotarrak biak; eta, agian, biak euskaldunak.

Zer esanik ez gure dokumenturik zarrenetan agertzen dirala hai bati ta bai besteari opaldutako elizen aipuak: euskaldun kristau zarrek bieie izan zieten jaiaren adigarri sendoak.

Baleike, baiñan ez dut uste, Narbaitz'ek dion bezala iparreuskaldunen IONDONI BIXINTXO Donebixente au danik. Beste bat baizik. Ta, euskalduna beste au ere seguruaski, laister ikusiko dugun lez.

Amai dezagun Donebixente'ri eta Donelorentzo'ren oroitzari -- eskeiñitako ataltxo au; eta agurtu ditzagun, agian errikide izatez jaiotzak alkartu zituan eta gero Elizak Santuen Kirieleisonetan alkartu dituan bi Done aundiok, ortarako Elizaren mintzoa bera erabilliz:

Sancte Laurenti, ora pro nobis.

Sancte Vincenti, ora pro nobis.





## BI NESKATIL DONE

EUSEBI DONEA.- Beste Done euskaldun bat ere aipatzen digu Bernardo Estornes Lasa'k garai ontakoa dala esanez: "Eusebia santa Bascona decapitada en el Valle de Aran": "Aran ibaiean lepa-moztua izan zan Eusebi neskatil donea".

"Este valle de Aran, situado en los extremos occidentales de la Aquitania vasca, estaria probablemente apenas poblado de algunas escasas gentes pastoriles pobres y miserables que jamas habrian oido todavia ni noticia de la nueva doctrina, pero es interesante consignar la existencia ya de una cristiana en su seno" ("Hist. Genl. de los Vascos", 88 or.)

,"Pobres y miserables"? Zergaitik? Artzaiek ez dira beñere gose izaten; eta beren kultura badute: agozko kultura zarra.

"Interesante" dala, Aran'en, garai artako neskatil kristau bat aurkitzea? Bai, Eusebia izeneko neskatil ori sekulan mundu ontan jaioa ba'litz. Nik ez dut beintzat bere aztarnik aurkitu. Ez dator "Bibliotheca Sanctorum"en, eta Bolandistek ere ez dute bere izenik aipatzen.

Pozik oi u egingo nuke nik Bernardo'rekin batera, "Eusebia ilustra los orfgenes del cristianismo en los mas fragosos valles de la vieja Euskalerria", baiñan esan dedan bezala, ez det iñon Eusebi izeneko neskuts done orren aztarnik aurkitu.

\* \* \*

SINISMEN IZENENKO NESKATIL DONEA.- Esan dugun lez, ezdugu Eusebi Donearen aztarnik aurkitu. Bai ordea Fides edo Sinismen izeneko Done batenak.

Aitor dezagun, ordea, Fides Donearen berri damaigun iturria ez dala garbienetakoa: gure aurtzaroko bertso-paper saltzailleen antzera, erdiaroan erriz erri bertso-kantaketan ibilli oi ziran "bardo" edo bertso-kantari zar

aietako baten poematxo bat bait da: "La Chanson de Sainte Foi d'Agen"  
"Agino'ko Siniste Deunaren Abestia" esan oi zaion bertso-lana.

Bertso-lan ori ez dago frantzeraz, probentzeraz baizik, au bait zan erdiarohan bardo eta trobalari aien izkuntza: Frantzi'ko Mediterran-itxaser-tzean dagoan Probentza'ko izkera gozoa.

Tamalez, oso uste on gutxi merezi digu "Agilio'ko Sinismen Donearen Chanson" edo Abesti onek. Zergaitik?

- Lendabizi, kontatzen dituan gertakizunak baiño askoz geroagokoa dalako. Sinismen Donea, 111 mendearen azkenean edo IV'aren asieran izan zan martiri erailla. Abesti au ordea, XI mendekoa da!

Egia, Abesti au, Abesti onen mamia beintzat ez dala Abestia idatzi zuan trobalariak sortua, bere gaia besterengandik artu zuala, berak aitortzen bait digu:

"Eu l'audi Iegir a clerezons  
et a gramadis, a molt bons".

Euskeraz:

"Ori irakurtzen entzunak ditut nik  
Elizgizon, ta gramatikalari txit onak"

Elizgizon eta eliztilari txit on aiek irakurtzen zuten liburu ori zein zan badakigu. Leide de Vasconcellos ikerlari portugaldarrak aurkitu zuan 1902-'an, eta "Sinismen Deunaren Bizitza" izen-darama: "Vita Sanctae Fides". Bañan X mendekoa da! Au ere Sinismen Donea bizitu zan aroa baiño askoz geroagokoa!

- "Bizitza" orren iturria berriz, kondaira izan zan, zazpi mende luzez agoz-ago zetorren kondaira. Nork jakin ago ugari oiek kondairari zenbat aldaketa bitxi egin zizkioten?

- Kondaira bat zintzo gordetzeko, olerkia da ontzirik makurrena, ondo jakiña dan bezala, neurrigabea bait da olerkarien irudimena gauzak itxuraz aldatzeko. Erri-olerkarien irudimena batez ere!

Ikus, adibidez, Diokleziano eta Maximiano inperatore gudara, Kostantino'ren (4?) aurka zeramaten gudaroztearen berri ematerakoan, gure "trobagilleak" nola dantzatzen digun bere irudimena:

Bi inperatoreak Martsella arrapatzera dijoaz, an bait dago babesturik, laister bera ere inperatore, baiñan inperatore kristaua, izango dan Kostanti-

no. Edestiaren eza <sup>s</sup>ule ba'zera, irakurle, naiz oso ezagule txikia izan, oartuko ziñan orrelako borrokarik ez dala sekulan izan. Ez zaitetz larritu. Ori dana olerkari errikoi aren asmakizun utsa da-ta. Arrazoi aundiz dio D'Argain'ek:

"Pour raconter comment Dieu fit mourir les auteurs de la p&secution en Aquitaine, l'auteur de la `Chanson de Sainte Foi' nous fait assister a des combats hom&iques entre guerriers appartiennent aux peuples les plus divers el les plus extravagants".

Euskeraz:

"Akitani'ko zigortzailleak Jainkoak nola eriotzez zigortu zituan erakusteko Sinismen Doneari-buruzko Abestiaren egilleak, Omero'k asmatutakoen antzeko borrokaldietara garamatza, errialde ezberdin ugarietako ta lurralde parregarrietako gudarrien artean gertatutako borrokaldietara".

Ikus, ordea, zer jende-mota zeramakiten Diokleziano'k eta Maximiano'k beren gudaroztean:

"Jebuseoak, Arabitarak, Phariseoak, Armenitarak, Amazonak, Pigmeoak, Ermafroditak, Ebreoak, Korbarindarrak, Amorreok, Dinamarkatarak, Beltzak, Moroak, Bulgariarrak, Greziarrak, Kaldeatarak, Marco-mandarrak, Makorbitak, Satiroak, Idumeatarak, Inglanderriarrak, Eskoziarrak, Kananeatarak, eta...Naparrak!".

- Ortik ikusi dezakezu, erri-bertsolari ameslari aiek asmatutako erri-poematxoek, eta gure onek aien artean zenbateraiñoko konflantza merezi duten.

Kontuz, ordeal Erri-elertian esaten dan orok bere arrazoa badu. Trobatzaille ark, orrenbeste jende aipatzerakoan, Diokleziano'ren eta Maximiano inperatore jentillen gudaroztea izugarriki aundia zala adierazi nai izan zigun, Jaungoikoaren indarraz entzuleek ederki jabetu zitezzen. Ainbesto lurraldeko ainbeste jendek osotutako gudarozte izugarri ura, askoz jende gutxiagorekin menderatu bait zuan Kostantino kristauak Jainkoaren laguntzarekin.

---

H.D. D'Argain:"La D&apitation de Ste-Foi d'Agen par les Basques". "Gure Herria". 1926. 431&437 eta 449-457. Euskalerrriaren maitale ta Frantzi'ren miresle aundia agertzen zaigu D'Argain idazlan ontan: Euskalduna, baiña prantxexa.

Ta, kondairarik geienek, bere egiazko muiña izaten bait dute irudi-menkeri oparoen barnean..., ikus dezagun gure itz neututzeko kondaira onek ere muin ori ba'duan.

Ona kontatzen digun edestitxoaren aria:

Agiño, (frantzeraz Agen) uri aundi bat da, arresiz eta arresipeko zangaz inguratua. Bertako biztanleak sasijaikogurtzailleak dira danak, "Gaskoi jentil oso gaiztoak". Agiño'ko agintaria ordea, kristaua da. Kristautasun orren saritzat, alaba bat damaio Jainkoak: "Fides" izenekoa. "Eder eta polita soñez, baiñan ederragoa eta politagoa zentzumenez".

Neskatil onek, zituan ondasun guztiak txiroen artean banatu, ta Jainkoari eskeñi zion bere burua. Orduantxe piztu zan ordea Elizaren aurkako zigorraldia Diokleziano'ren aginduz, eta zigorraldi artan il zan martiri gure neskatxa. Obeki esanez, "gure nexkatoa"; amabi urte besterik ez bait zuan, sugaiñeko matxarde hatean erretzen jarri zutenean, eta oraindik zegoala andik aterata ezpataz lepoa moztu ziotenean.

Fides neskatilla agiñotarra ba'zan, eta bere erailketa ere Agifio'n gertatu ba'zan, zergaitik aipatzen dugun bera, euskaldunen arteko kristautasunaren sorkuntza aztertu nai duan liburu ontan?

- Lendabizi, Agiño Aturri ibaiean, Akitani'ko uria zalako, eta izkeraz euskalduna oraindik seguruaski III mendetik IV'erako igaro-unean. Agiño, "Gaskoien" uria zala diosku XI mendean ere Fides Donearen kondairak. Ta, "gaskon" eta "baskon" gauza bera adierazi nai duten itzak dira: euskalduna. "Vascon", "Wascon" idatzi zuten erdiaroan frankiarrek "Guaskon" agoskatzeko, eta "Guaskon" ortatik sortu zan "Gaskon".

Eta bigarren, gure kondaira onek dionez. Fides neskatillari Iepoa moztu ziona, baskoi hat izan zalako. Ona orain, gaskoifieraz, <sup>s</sup>ure "Chanson" ortan Euskalerriarekin zer-ikusirik baduten bertsoak:

"Tota Basconn'et Aragonis,  
a l'encontrada delz Gascons  
sabon quals es aquist canezons,  
et ss'es ben vera'sta razons.  
Eu l'audi legir a clerezons  
et a gramadis a molt bons".

Euskeraz:

" Lurralde osoko Baskoiak eta Aragoitarrak  
eta aien alboko Gaskoiak  
badakite Abesti au  
ta daraman mezua egi-egiazkoak dirala"  
Nik, ori irakurtzen zuten elizgizon  
eta irakasle txit yayoei diet entzuna."

" Cisclant bascon, que son d'Aran  
Dizon: `Por ren viva nonn an'!  
Levanla'n pes del fog tiran.  
Erss l'uns la spada flameian;  
tal li doned el cab del bran  
tota la testa'n mog tallan  
con fez Heros far saint Johan"

\*

Euskeraz:

\*

Asten dira txistuka Aran'go Baskoiak, eta onela diote:  
`Ez da, ezergaitik ere, emendik bizirik irtengo'!  
Sutik altxatuta oiñen gainean zutik ezartzen dute.  
Atera du batek ezpata chzdiratsua.  
Eta alako zartakoa damaio goitik bera-ta...,  
lepoa moztuz, burua kentzen dio,  
Herode'k Jon Deunari egitea agindu zuan lez".

"le corps truncs et rezis  
Aissi col gladis ra aucis.  
De ranma son l'angel gavis,  
asb gaui ran portan et ab sis;  
Totz n'es alegres Paradis.  
Non dig menczonga, czo m'es vis,  
si per oblid non i mespris.  
Q'a savis homens o requis,  
e de gramadis o apris  
Autor vos en trag saint Daunis"

Euskeraz:

Moztu ta ehakia datza gorputzak  
ezpataz illik gelditu dan lez.  
Anima ikustean ordea poztu dira aingeruak;  
atseden aundiz eta parrez daramate.  
Alai aurkitzen da Paradisu dana.  
Ez diot gezurrik, irudiz zaidanez,  
Zerbaitetan, aztuta uts egin ez ba'dut beintzat.  
Guzti oni-buruz gizon jakintsuei galde-egia bait naiz  
eta irakasle yayoengandik ikasia!  
Lekuko dakartzuet Dionisio Donea".

\*

Aztertu dezagun laburki kondaira trakets au, ea bere barrendik zerbait atera dezakegun

Egillea probentzarra da, baiñan frantzizalea benetan. Ortik lekuko lez, Probentza'ko done bat ez baiña, Paris'ko zaindaria dan Donedenis aurkeztea. Poemaren asieran ere, argi esaten du, berak "bere abestia, frantziarren erara egin nai duala"

Fides edo Sinismen izeneko neskatil ori nor dugu? Ezin izango dizut erantzun. Entzun "Bibliotheca Sanctorum"ek dioskuna: "Fede (Iat. Fides, fr. Foi, Foy), santa martire di Agen. Veneratissima nel Medioevo in Francia e altrove, purtroppo (zoritxarrez) conosciuta solo attraverso documenti Ieggendar ",

Dakusazunez, soilki kondaira utsen bidez zaigu ezaguna erromatarrek Aginnum eta frantziarrek Agen izendatutako neskatil donea.

Fides edo Sinismen Donearen berri dakarkiguten Kondaira oiek zein diran badakigu: Probentzerazko "Chanson" ori, ta ori asmatu zuan bertsolariak oiñarri izan zuan X mendeko "Vita Sanctae Fidei" ura.

- Noizko ote dugu Agirlo'ko neskatx maitagarria? Ez dakigu. "La `Passio' primitiva e oggi (gaur) perduta". "Le recensioni (birridazketak) posteriori de la `Passio', non più antiche del sec X, affermano che Fede etori durante la persecuzione di Dioklezian (l'anno 303). Probabilmente, però (ordea), il suo martirio deve porsi (jarri) im una delle persecuzioni del sec III" (Ib).

- III mendekoa ote genduan gure Sinismentxu Donea, amabi urteko neskato maitagarria? Ori uste du, ikusi duzunez, "Bibliotheca Sanctorum" iztegiak: "Seguruaski irugarren mendeko zigorraldi aietako batean 11 zala esan bait digu. Zoritzarrez, Iztegi orrek ez digu ematen arrazoi bakar bat esaten duan ori egiztatzeko.

- III mendean, Sinismen Donea arrapatu zezaketen zigorketak bi izan ziran, mendearen erdian biak, Dezio'k agindu zuana aurrenekoa eta Baleariano'k agindutakoa bigarrena, mendearen erdian gertatuak, biak; irugarrena, mendearen azken-azkenean Galerio'k asia, gudaroztearen barrurako bakarrik izan bait zan.

- Daziano agertzen da oraingoan ere, Agnio'ko Sinismen neskatoaren epaille ta zigortzaille. Beti bezala, sasijainkoak gurtzeko eskatzen dio, eta neskatoak ezetz erantzuten bait du, beti bezala neska gaixoa eriotz ikaragarri zigortzea erabakitzen du: txingar bizien gaiñean ipiñitako matxarde batean etziña izatera; bertan, Donelorentzo bezala, astiro-astiro erre ta kixkalia izanez il zedin.

- Daziano epaille zipotz ankerra garai artan Ispanietako kristau-zigortze guztietan agertzen zaigu. Sortaerazten du egiazko gizakumea izan ote zalako kezka ere. Alatagutziz baietz dirudi. Baiñan zer egiten zuan Maximiano'ren mendekoa ez baiña Kostantzio Kloro pakezalearen mendekoa zan Akitani'ren iparreko Agiño urian? Ta, ,zer zebiltzan Kostantzio Kloro'ren lurretan Maximiano ta Diokleziano indarrez Martsella arrapatu naiez?

Kondairaren amesketa, guztia! Kontatzen danari garrantzia emateko bearrezkoa bait du kondairak, kontatzen duanaren barruan bere garaieko pertsonarik aundienak agertzea: Oraingo ontan, Diokleziano, adibidez, Inperatore Nagusia, Maximiano, Itali'n, Afrika'n eta **agintzen** zuan Inperatorekidea, eta laister Inperatore izanen zan Kostantino Aundia: Konstantinus Magnus.

- Daziano, Diokleziano'k agindutako zigorraldian agertzen zaigu beti. Beraz, gure Sinismen neskati donea ere, Daziano'ren garaiekoa izanik, IV mendearen asierakoa izan zala dirudi, eta 303 edo 304'ean izan zala, "bi-liutzik, bai noski, baiñan zeruko aingeruak bezain aratz eta garbia" matxarde kiskalgarri artan etziña. Orregaitik ez nuan nik III mendeko Doneen artean sartu.

- Orain arte aztertu dugunetik au egizat atera dezakegula deritzait: Kondaira onek damaigun Donea, egiaz mundu ontan bizitutako emakumez-

koa dala; ia ziuurki Agino urikoa dala, neskutsa izan zala, martiri il zala, eta, agian seguruaski izena "Sancta Fides" zuala. Orrela izan bait da beti ezagutua, onestua, eta doneei dagokien gurkeraz gurtua.

- Bere izena Fides, "Sinismena" izate orrek kezkatzen nau ordea zer-bait. Kondairak dionez, zearo jentilla bait zan Axen'go uria. Ta, uri jentil artan, soilki gure neskatiaren aita bait zan kristaua. Jainkoak fede edo "fides" orren saritzat eman omen zion alaba bat: "Fides" izeneko alaba ainzuzen. Alaba ori izateko aitaren merezimendu bakarria Fedea, "Fides", izan zalako, ez ote dio alabari "Fides" izena kondairak berak asmatu?

Alare, beti, mendeak-zear, izen ori duala agertu zaigulako, ar dezagun ontzat Fides izan zuala bere izena Agirio'ko neskati xaloak,

Gaiñera, erne ibilli gaitezen, alabari izena aitaren fede aundia oroitzu kondairagilleak sortu zezaiokian bezala, alderantziz, "aitak fede aundia izan zualako Jainkoagandik Fides izeneko alabatxo bat lortu zualako ori", alabaren jena gogoratu kondairagille berak asmatua izan bait daiteke.

- Zer zala-ta zabaldu ote zan Europa guztira Sinismen Donearenganako jaiera? V mendean Dulzizio zeritzan gotzai batek Agirio'n, Sinismen Donearen illobi-gaiñean basilika bat eraiki zualako, gero, XIII mendean basilika ori eraberritua eta XV'ean aunditua izan zalako. X mendean gero, Konpostela'ko Donejakoba'rengana erromes joateko oiturak alako indarra artu zuanean Agirio'tik igarotako millaka eta millaka erromesek, atsedenerako, eta otoizketarako, Sinismen Donearen basilika artan gelditzen bait ziran.

Bâ, erromes-talde zenbatuezin ark eraman zuan herekin, eta aruntzakoan ta onuntzakoan bideko errietan zabaldu gure neskati Donearenganako jaiera.

Ta, neskati ura euskaldunok il gendualako ori... i.,egia ote da? Utzi dezagun beintzat gauza bat argi. Sinismen Donearen erailketan eskua txistu-joka ari omen ziran aiek, eta azkenean Sinismen neskatoari lepoa moztu zion beste ura, Aran'go baskoiak zirala danak, eta danak jentillak zirala, diosku "Sinismen Donearen Abestiak".

Bapo! Aran'go baskoiak, IV mendea asi zanean, danak jentillak zirala, zalantzarik gabe aitortuko dut nik ere edozeiñen aurrean. Ez ordea Aran'go baskoiak bakarrik, baizik eta baita Frantzi'ren erdiko mendietakoak, takoak, eta Erroma beraren gaiñeko Apenin-mendietakoak ere.



baiñan... Sinismen Donea ez zan Aran'en erailla izan, Aran'dik aski urruti haizik, Akitani'ren iparéiparreko Agirio urian. Zer zebiltzan an, ta egun artan ainzuzen Aran'go baskoiak beren arantetik ain urruti?

Bai, "Abesti" oni ta "Abesti" onen atzetik dagoan kondairari sinisten ba'diogu.

Baiñan, bai "Abestia" onen, hai Kondaira aren sortzailleak frantziarrak ziran. "Frankiarrak". Franks! Eta Frankiarrak izugarrizko gorrotoa izan zioten Euskalerrinari. Ez zitzaien arrazoirik peitzen. Frankiarren mendera ez erortzearren, gogor borrokatu bait ziran euskaldunak aien aurka.

Batez ere Orreaga'n Karlomagno Frankiarren Errege Santuak 778'an jasandako ondaniaren izugarria ezkeror, izugarri anpatu zala dirudi, gure aurka, Frankiar guztien aierkundera.

Ala, erromatekoan elenerazko eta laterazko idazleek, - ezta batek ere!

Euskalerriarren izena zimaurtzeko euskaldunen aurka itz laidogarri soit bat esan ez zuten bitartean, naikoa izan zan V mendean Barbaritarrak Inperio-lurretara sartzen astea, iparraldetik idazleek euskaldunen aurka gogorkeriak esaten asteko.

Ain zuzen, naiz bera frankiarrak ez baiña galitarra izan, Done bat izan genduan euskaldunen izena zikintzen aurrena asi zitzaiguna: Bordele'n jaioa gaiñera: Donepaulino Nolatarra.

Baiñan frankiarrak Euskalerririk ezin-ikusitako ori, Orreaga ezkeror izan zan mugarik gabea. Ta, ez dezagun aztu gure "Chanson" edo "Abesti" onen egillea, eta berak erabili zuan "Vita Sanctae Fides" aren idazlea, X eta XI mendekoak dirala, Orreaga'ko ondamera baiñan berreun eta irureun urtez geroagokoak. Euskalerrinari begi okerre bezin begiratzen ziotenetakoak, beraz. Ez dute, noski, uste-on aundirik merezi!

Alatagutziz aitor dezagun kondaira onek ez duala euskaldunen aurka deus erdeñugarririk esaten. Au besterik ez bait da esaten duana: Aran'go baskoiak jentillak zirala, eta beste edozein jentillek eginen zuten gauza bera egin zutela: Epailleak eriotzara galdutako kristau bati lepoa moztu.

Esan ere, esan bait daiteke, matxardearen gaiñean kiskaltzen zegoan neskato gaixoari mesede aundi bat egin ziotela, matxardatik aterata lepoa moztutzearekin, une berean, lepoarekin batera, oiriazeketa izugarri ura ere moztu bait zioten.

- Donesinismen neskatx maitagarria euskalduna ote zan? Naiz erantzun eskerrik izan ez, baietz esango nuke nik; ederki izan zitekeala euskalduna

Agiño'ko neskuts martiri donea. Bere erria, zegoan tokian zegoalako, Akitani'ko Dordofia'ren ertzean, cta IV mende aietan euskalduna izan hear zualako, eta erri aren izenak berak ere aren euskalduntasuna adierazten digulako; Aginnum esan zioten erromatarrek; ablatibu-eran Aginno, ta bi "N" oiek "51" agoskatuz, Agiño. Agina, edo agiña, gaztelerazko "tejo", zugaitz bat daia gauza jakiña da. Ta, "o" atzikia atzizki toki-adierazle bat dalako, Sinismen Donearen jaioterria, Akitani'ko Agino edo Agiño ura, gure arteko Aginaga eta Agifieta'ren senide dugu, izenari dagokionez.

\* \* \*

Emen amaituko zan Sinismen Doneari maitasun aundiz eskeiñi diogun ikerketa labor au, bere kondairak, arekin batera eta Agifio'n bertan ainzuzen Kaprasio izeneko gizaseme bat ere martiri erailla izan zala esango ez ba'ligu.

Alare, ez bedi esateke gelditu, Sinismen Doneari-buruz, onako pitxikeri polit au: Sinismen Donearen omenezko parroki bat badala Gipuzkoa'ko Aralarpean: Zaldibi'n ainzuzen: "Parroquia Saetae Fidei". Izen ortako leengo eliza, Zaldibi'n, noren omenez izan ote zan eraikia? Maitasunarekin eta Itxaropenarekin teologizko iru birtuteeko bat dan Sinismenaren omenez, ala, apalki, Agifio'ko gure neskato donearen omenez? Kezkagarri da beintzat, parroki orri, Iruña'ko katedralaren dokumentutegian aurkitzen dan 1.134'ko dokumentu batean "Parroquia de Santa Fe en Champayn" esaten zaiola jakitea. "Champayn" orrek, argi-argi, Frantzi-aldeko lurralderen bat adierazi nai duala dirudi. Zeri esaten ote zion "Champayn" larruki orren idazleak?

Danadala, parrokiei hirtuteen izenak ematea ez da oiturazkoa Elizaren edestian

\* \* \*

KAPRASIO, PRIMO ta FELIZIANO DONEAK.é Itzuli gaitezen Kaprasio'rengana. Sinismen neskati Doneaz oso gutxi ba'dakigu, gutxiago dakigu oraindik eriotzean lagun izan zuan Kaprasio oni-buruz:

Beraz mintzatzen zaizkigun dokumentu guztiak IX mendez onontzakoak ditugu; X mendekoa garrantzitsuena; arras berandutarregiak danak,

gure uste ona errez irabazteko: "Legende nelle quali arduo distiguere vero dal falso" (ib). Ona bere bizitzako gertakizunik jakingarrienak:

Diokleziano'ren zigorraldia asi zanean, leiza batera iges egin omen zuan. Bañan Sinismen neskuts gaztearen atxiloketaren berri jakitean, urira jetxita, Daziano'ren aurrera agertu omen zan, bere sinispena aitortuz. Daziano'k, ala etorri zitzaion "lotsagabe" ura sasijainkoen gurketara iñolaz ere ezin eraman zezakeala ikusi zuanean, eriotzara galdu omen zuan.

Ta, ertzaiñek Kaprasio nola oiñazetzen zuten begira zeuden bi gizaseme, Primo ta Feliziano, anaiak biak, martiriaren apaltasuna ta kemen paketsua ikusirik, antxe bertan kristau egin omen ziran, eta bertan izan omen ziran Kaprasio'rekin batera ezpataz eraillak.

Azkeneko bi oien bat-bateko kristautze ori, martiri askoren kondairetan datorkigun gauza da, eta danetan ez ba'da ere, geienetan beintzat kondairagilleen asmakizuna dala ematen du.

Danadala, biak, kondairak dionez, Kaprasio'rekin batera, Sinismen Deunaren illobi-ondoan izan omen ziran eortziak.

Ta ez bi anai oiek ez Kaprasio bera nongoak ziran eta nor ziran ez dakigun ezker ezin izango dugu aien kondairatik ezer jakingarrikerik atera.

Euskaldunak ote ziran? Bai seguruaski Kaprasio bera. Eta baita beste biak ere. Baleike ordea bi auek kondairagillearen asrnakizun utsak besterik ez izatea: Ez ezur ez aragi, kondaira utsaren zeruko mamu doneak.



## ENGRAZI eta EULALI DONEAK

Gure Euzkadi zar aren ipar-iparretik, goazen jauzi batez bere egoal-deko eta sortaldeko muturretara, batzuen ustez euskaldunak izan omen zitezkean bi neskatil martiriz mintza gaitezen.

Ondo ezagunak eta omenduak izan ziran beintzat beti bi neskuts done martiri aiek: Engrazi Donea bat. Eulali Donea, berriz, bestea.

Engrazi neskutsa, Prudentzio'k Peristephanon poernan Zaragoza'ko 18 martiriekin batera abesten duan Done bat dugu. Zaragoza'n izan bait zan erailla bera ere, Diokleziano'ren zigorraldian.

18 martirien illobia aipatuz gero, onela dio Prudentzio'k poema orren IV ereserkiaren 110'garren bertsoan:

"Hic et, Enerati, reurnbant tuarum  
ossa virtutum, quibus efferati  
spiritum mendi, uiolenta virgo,  
dedecorasti"

Euskeraz:

"Emen dautza zure ezurak, Engrazi, eriotz santuz  
munduko izpiritu aberekola garaitu zenun  
neskatil bizkorra.

Gero, Pnidentzio'k, Engratzi, izugarritzko oiñazeketen ondorean, bizirik irten zala esaten digu, eta oiñazeketa aien ondoreko bizitza, martiriotza bera baiño azkoz mingarriagoa izan zala, era ortan Engratzi gaixoa aski luzaro bizitu zalako.

oiñazeketa aiek beraiek ere gozoak izan ez ziral! Entzun Putt-dentzto'ri:

"Barbarus tortor latus omne carpsit,  
sanguis impensus, lacerata membra,  
pectus abscisa patuit papilla  
corde sub ipso".

Euskeraz:

"Oiftazelari ankerrak saietsa iriki zizun,  
ta gorpuzki guztiak zauritu, odolketa ikaragarrian,  
Eta titiak moztu, biriak agirian utziz  
biotzaren alboan."

\*

Geiago ere esaten digu Prudentzio'k. Adibidez, kurrikaren ortza-artean gelditu zala Engratzi'ri kendu zioten gibel-zati bat, eta Engrazi'k berak ikusi zuala, bizirik iraun zuan asti luzean, bere gibelaren zati ura, kurrikan nola gelditu zan. "Bizirik zaudela, badu eriotzak berekin zure puska bat, guk ere ikusi bait dugu nola egon dan zure gibelaren puska denbora luzez kurrikaren ortzetan Iegorturik", abestu zion Prudentzio'k: Ikus bere bertso-keta txukuna:

\*

"Vidimus partem iecoris reuulsam  
ungulis longe iacuisse pressis;  
mors habet pallens aliquid tuorum  
te quoque ulua."

\*

Baiñan Prudentzio'k esaten ez digun gauza bakarra, guk geienik esker-tuko geniona da, ainzuzen: Engratzi nongoa zan.

Ez dugu beraz eskubiderik neskatil bikain ura euskalduna izan zanik esateko. Euskalerrria iparretik eta sarkaldetik Zaragoza'raitio iristen zalako Engrazi neskutsa errez izan zitekeala? Bai, baiñan euskalduna bezain ederki izan zitekean erdalduna ere, jatorriz Zaragoza bertakoa edota Zaragoza'ren egoalde ala sortaldekoa ba'zan.

Engrazi'k, Euskalerrri zar osoan, bere izenera jasotako eliz eta baseliz asko izan duala? Bai, asko ta asko. Baiña ez da ori naikoa euskalduna izan zala esateko.

Euskalerrriak izan zion maitasunaren adigarri dira noski gure iparraldeko jendeak sortu zizkion izen goxo biguiñak: Graxi, Garaxi, Gaxi, Geaxi, Gaxux, Gaxuxa. "Parmi les seice autres noms, comment ne pas Uta-cher la jeune `Engracia' dont le souvenir se conserve dans le nom si joli de nos Gaxuxa... et dans una ravissante glise romane de la montagne souletine"? (Orri ortan Prudentzio'k aipatutako) "amasei izenen artean nola ez guk bereiziki aipatu Engratzi gaztearena? Badirau bere oroitzak, gure Gaxuxe'n izen polittean" (Narbaitz: "Le Matin Basque", 370). Baiña ez da ori naikoa.

\* \* \*

Gauza bera esan bear dugu beste neskatiillari-buruz ere, ots, Eulali Doneari-buruz, Diokleziano'ren zigorketa ontan martiri ildako bi Neskuts Done jaitzen ditu Elizak izen ortakoak: Bat, ziuarki ezur-aragizko pertsona izan zala badakiguna: Merida'koa, Prudentzio'k Peristephanon olerkilanaren III ereserki osoa opaldu ziona.

Au beintzat, Lusitani'ren uriburu zan Emerita edo Merida'koa izanik, ez daiteke iñolaz ere euskalduntzat artua izan.

Bestea, Bartzelona'koa, kondairagille baten asmakizun utsa ez ote zan kezketan erabillia izan da. Gaur ordea, edestilari danak uste dute, au ere bai, egiazko ezur-ta-aragi dun emakumea izan zala:

Merida'koarena bezala oso polita da Bartzelona'ko onen kondaira: "Bambina (neskato) seria e modesta non ancora (oraindik) tridicenne vine portata da suo padre fuori della cittk in campagna, por allontanarla (urrundu naiez) dai pericoli della persecuzione" (Bibli. Sanc.)

Gauetz, ordea, iges dagi aitaren ondotik, eta epaillearengana doa bere kristautasuna aitortuz.

Au ere, gaixoa, gogorki oiñazetua izan zan il aurretik: "Dilacerato (oro zauri corpo con ferri, (da) atormentata con fiaccole (zuziz) fino a morir bruciata (sutan errea il zan arte)" (ib).

Au bai, Ilergetarrak eta Auñamendi'ko zerretiarak Bartzelona'tik ain urruti ez zeudelako, izan zitekean euskalduna, baiñan ori aitortzeko arrazoi bat bakarrik ez dugu, era berean izan bait zitekean Bartzelona bertako ala Bartzelona'ren egoaldeko erdaldun bat.

Eulali Donearen izeneko eliz eta basilizak ugari ditugu EuskalERRI zarrean, eta, baita, izen ortako errixka batzuk ere, Ez dakigu ordea Bartzelona'koaren ala Merida'koaren omenezkoak diran. Nere ustez, Merida'koarenak seguruaski. Prudentzio'ren ereserki ederraren eragimenez erai-kiak.



AKIZE'KO DONEBIXENTE. ¿BESTE DONEBIXENTE BAT?  
LETO DONEA

Edestia ta "erdi-edestia" utzita sartu gaitezen berriro kondaira mardulen laiñopeetara. Ez noski gure iritziak kondairetan oiñarritzen ditugulako, ez: kondairek, erriaren abotsa izanik garai artako giroa ulertzeko lagun egokiak gertatzen zaizkigulako baizik.

IV mendearen asierakoa da seguruaski Akitze edo Dax'ko, eta beste batzuek Xantes'ko, esan oi zaion Bixintxo donea. Euskalerrriaren iparraldean ibilli omen zitzaigun mixiolari.

"La Région de Dax semble avoir bénéficié de bonne heure (dès le IV<sup>e</sup> siècle?) de l'apostolat de St-Vincent de Xaintes dont on se demande encore s'il venait de Saintes... Et il n'est pas exclu que sa prédication se soit étendue jusqu'à Lapaurdum et les Pyrtynes": "Akitze'ko lurraldeak izan zuala dirudi Xantes'ko Donebixente'ren itza entzuteko zoria, naiz Xantes'tik etorria zan oraindik ziurki jakin ez. Ez ziran noski bere ekintzatik kanpo gelditu Baiona (Lapurdum) eta Auñamendia arteko lurraldea (id ib).

Polita litzake guzti ori, Donebixente au nor izan zan jakingo ba'genuke. Baiñan berari-buruz deus ez dakigu.

"Bibliotheca Sanctorum"ek ez du aipatzen Done au. Bai ordea beste bat, bere Iagunarekin: "Vicenzo et Leto, sancti martiri in Spagna (?)".

Ona, zalantzazko ikur orren zergaitia: Erroma'ko Martirologium edo Martiritegi berriak omen dakar "in Hispania sanctorum martyrum Vincentii et Leti". Ori, ordea, 1.502'an Cisneros Kardenalak birrargitaratutako "Mozarabeen Brebiario"tik jaso omen zuan. Baiñan ez omen iñork bi done oien berri geiagorik ematen: "Ma (baiñan) ne (ez) questo breviario ne (ez) Calendari mozarabi indicano la patria d'origine de Vicenzo e Leto.

Gero, ustez aski egoki, Bixente au eta Xaintes'ko Bixente ura, biak bearbada, Bixente bat bakarra dirala diosku: "Si tratta sicuramente dei santi martiri venerati a Dax, nel cui breviario si trova una leggendaria `Passio

seu Revelatio (azalpena) sancti Vicentii martyris et Laeti socii eius qui passi sunt in Aquensi (Akitzu) civitate'

"Io stesso autore (idazleak berak) confessa onestamente di ignorare tutto sull'epoca, la vita, il nome del persecutore, il modo del martirio e la dignità dei martiri"

"Martiritegi Jeronimiarrak", ordea, Bixente gotzaia zala esaten du.

Narbaitz'en iritiz ere bat dirala omen dirudi Xaintes'ko Bixente eta beti Leto'rekin batera aipatu oi dan beste Bixente au; eta au dala, ainzuzen, Iondoni Bixintxo esaten zaiona ("I Semana Est. Hist. Ecles. del País Vasco", 67), naiz Narbaitz'ek berak beste liburu batean Iondoni Bixintxo, Ueska'n jaio ta Balentzi'n martiri ildako diakono ura dala esan. Ikus:

"Mais il est d'autres témoins dont les nones viendront un jour frapper les oreilles des Basques: Laurent (Laurenx ou Laurendi), le diacre romain mort sur un gril en 258, devant l'empereur Valerien et que l'on dit originaire du pays de Huesca, encore alors sans doute de parler vascon, ainsi que Vincent, l'illustre Bixintxo des églises navarro-labourdineses, fui aussi originaire de Huesca par sa mère":

Euskeraz:

"Iritxiko dira euskaldunen belarritarra (Emeterio ta Zeleclonio'ren izenak bezala) beste martiri batzuen izenak ere. Ta martiri oietatik hi, aintzazko "Iondoni" izena irabaztera ere iritxiko dira: jatorriz Ueska-aldekoa zala esan oi dan Lorentzo (Laurenx edo Laurendi), Baleriano'ren aurrean matxarde baten gainean erretako diakono erromatarra eta Bixente, eliz benapar eta laburditarretako Bixintxo alpagarria, au ere jatorriz amaren aldetik, orduan ezpairik gabe euskalduna zan Ueska urikoa" ("Le Matin Basque", 320).

Nere ustez, ezpairik gabe Oska'ko Bixente da, euskaldunen artean Iondoni Bixintxo esan oi zaiona.

## ARKEOLOGIAREN AZTARNAK

Buztiñ-egosizko ontzi zarretako marrazkietan ere ikusi nai izan da Euskalerriko kristautasunaren sorkuntza goiztarra.

Emen, Bizkai'ko Berriatu'n eta Foru'n agertutakoak aztertuko ditugu. Beste guztiak, Eskorlatza'koa izan ezik, gure ekintzarako Foru eta Berriatu'ko aien antzekoak bait dira.

Maria.rikua'tar Ander Eliseo izan zan ontzi auei iñork baiño lenago kristau-balio apur bat ernan ziena.

Onela dio, apalki, Berriatu'koei-buruz. "Aunque una simple decoración de cruces no sea por si sola un argumento (...) es un indicio digno de mencionarse la cedmica de barro lino, como el saguntino, decorada con cruces en relieve hallada junto a restos humanos en la cueva de Goiko-laua (Berriatua). Segtin su descubridor M. Barandiaran es de tipo de la Edad de Hierro y parece ser de los primeros siglos del Cristianismo en el país, desde luego anterior al siglo V: mas cedmica de este tipo y con la misma decoración de cruces dentro de cfreulos ha sido hallada en Forua"

Atzipeturik dabiltz, bai mañarikua eta bai Barandiaran. "De los primeros siglos del eristianismo", bai, badira, eta baita leenagokoak ere, bearbada. Baiñan de los primeros siglos del eristianismo en el país, ez.

Gurutzea, erromateko gure arri-ol eta buztiñ-egosietan, askotan, bakarrrik agertzen da; beste batzuetan, obo edo zirkulo baten barruan, orrela kurpil baten itxura emanaz.

---

Aipu au Azkarate'ren liburutik jaso dut. L.e.57 or. Arkeologiari dagozkion gaietan, bereiziki Azkarate'ri jarraituko diot, bera bait da arlo ortan, orain arte beintzat, geien eta ongien lan egin duana. Alare, argi esango dut noiz ez natorren bere iritziekin bat, orrelakorik gertatzen danean.

Gurutze bakarra eta baita oboan sartutako gurutzea ere edestiau-  
rreaz gero mundu guztian agertzen omen da, ugari gaiñera, Txina'tik Es-  
kandinabi'ra, eta Eskandinabi'tik Iberiar-Erdiugartera. "Erromatearen azken  
aldian bereiziki eta sarritan gaiñera": "constituye un motivo muy frecuente  
en la ikonografía tardorromana" (Azkarate, I.c.62).

Asmatzeko gai izan diran esannai guztiak ezarri oi dizkiote gurutze  
soillari eta obo-barrengoari. Bereiziki bai bata eta bai bestea, eguzkiaren  
irudiak omen ziran, eta, **Lenen-Elizak "sol invictus"**, ots. "eguzki  
menderakaitza" esaten omen ziolako, bere-egin omen zuan Elizak antziñako  
ikur ain zabaldu ori: gurutzea.

Eta, ainzuzen, orregaitik izan omen zan lau beso berdiñeko gurutzea,  
Lendabizi erabilli zuana, begien aurrean obo-barrengo gurutzea zeukalako.

Arritzekoa da, beste aburu batzuen aurrean, batez ere kristautasunaren  
gure errirako etorrera goiztar egitearen aldekoak diran aburuen aurrean ain  
zorrotz eta estua dan Azkarate, orrelako oiñarririk gabeko aburuen aurrean  
ain onartzaille gertatzea. A! Jokaera ezberdin ori, ez da Azkarate'rena  
bakarrik. Euskalerrira kristautasuna oso berandu etorri zalaren alderdiko  
guztiena baizik.

Zerbait esan nai nuke Eliza-eta-Gurutzea aipatu dizkigun aburu ortaz.

"Sol Invictus" orren erlijioa, naiz monoteista izan, erlijio jentilla  
zala. Ain zuzen Kostantino'k, agian I Kostantzio Ktoro bere aitarengandik  
jasota, Kristau egin aurretik gurtzen zuan erlijioa.

Kristauek ez ziotela beiñere Kristo'ri "Sol Invictus", edo "Eguzki  
Menderakaitza" esan. Ez "Eguzki Menderakaitza" ez "Eguzki", metafora  
edo "itxurazko" bezala izan ezik. Adibidez, gero Miren Neskutsari "Roca  
Mystica" esan zioten bezala. Ain zuzen eguzkia Kristo izan zitekeanik  
galdetzen zutenei adarra joz onela mintzatu zan Augustin donea:

"Manichaei solem istum oculis carneis Nijsibilem, expositum et publi-  
cum non tantum hominibus sed etiarn pecoribus ad videndum, Christum  
Dominum esse putaverunt".

Euskeraz:

"Aragizko begiz ikusi daitekean, eta gizonak ezezik abereek ere ikusi  
izan dezaten, danentzat agertzen dan eguzki au zala Kristo gure Jauna,  
manizaleek uste izan zuten".

- Elizak aurrena erabillitako gurutzeak lau beso berdiñak izatea, Elizak gurutzearen ikurra obo-barrengo gurutze jentillatik artu zualako dala, dion aburu ori oso aburu motza ta zentzurik gabea dala:

Elizak agerian erabillitako lenen ikurra, ez bait zan gurutzea izan, Kostantino'ren ikurriñako krismoia baizik. Krismoi ortako "X" izkitik sortu zan, bere tokian esan dugun bezala lau besoko gurutzea. Azalpen geiagoren billa ibilli gabe, izki orren bi besoei bultzaketatxo txikienik txikiena naikoa bait da Xristos'en ikurra zan izki ori ("x"), Xristos il zan gurutzearen antzirudi biurtzeko ("+").

Ez da beraz egia, Azkarate'k arazo orri-buruz dioskuna: "estamos por lo tanto ante un ejemplo sobresaliente de sincretismo entre un símbolo preexistente y la nueva religión" (ib). Elizak, bere apostolutza erreztzeko, erabilli izan zuan sinkretigintza. Baiñan gurutzearen erabilketa, ez zan sinkreti bat izan.

- Elizak ez zuala kanpotiko laguntza bearrik, gurutzea, bere Kristo'ren Gurutze Donea, maite izateko, eta eraspenik aundienarekin erabiltzeko. Beraz, gurutzea erabiltze ori ez zala sinkreti edo "bateratze" baten ondorio izan.

Sinkretitza baten ondorio izan ba'litz ezin ulertu daitekeala zergaitik Eliza, Kostantino'k pakea eman zion arte, iru mende luzez gurutzerik erabilli egon zan. Zer dala-ta ibilli bear zuan "crux dissimulata" edo "izkutzuko gurutze" aiek erabiltzen?

Izan ere, alako sinkretiketa ori egin aal izateak, Elizak, gurutzea, orokorki erabillia ikusten zuala esan nai du. Baiñan gurutzea orokorki erabillia ba'zegoan, "parregarri agertzeko" eta, orregaitik, "mixioketa zearo eragozteko" bildurrik gabe erabilli zezakean edozeiñek erabiltzen zuan gurutze ori. Ez zuten kristauak ere, beren buruak kristau agertuz, eriotzara epaituak izateko arriskurik ere. Ez da ulertzen Elizak eta elizkideek zergaitik ez zuten gurutzerik erabilli. Ez bait zuten erabilli? Ezta katakunbetan ere.

Sinkretitza'ren aburu ori ontzat artuko ba'gendu, istillu gorriak izango genituzke gure arri-oletan eta buziñegosizko ontzietan agertzen zaizkigun gurutze oiek kristauak diran edo ez erabaki aal izateko. Gurutzea, krist'aurretik ere, Euskalerrian gauza-edertze-lanetarako apaingailu lez, anitz zabaldurik zegoala dirudi, ezpairik gabe. Nola jakin dezakegu lenen

euskaldun kristauak, kristau eginda gero, beren illarrietan gurutzea marraztuz jarraitu zuten edo ez?

Izan ere, kezkarik gabe egin zezaketen ori, ez-kristauak ere ikur ori erabiltzen zutelako.

Baita bildurrik ere gabe, emen eriotzaren arriskurik ez zutelako. Orain arte dakigunaren araura esan daitekeenez, ez bait zan Euskalerrian martiririk izan.

Nola jakin orduan gure arri-ol eta buztñ-ontzietako gurutze oiek kristauak diran edo ez?

Jentillak dirala, daramazkiten idazketa jentillak, geroago, gurutzeen gaiñean idatziak izan ziralako? Baiñan, badaiteke ori alderantziz izatea. Aurrena, idazkiak, eta gero, gurutzeak: aurrena, I mendean, edo Kristo jaio aurretik bearbada, jende jentil batzuek, jentillen illobietarako idazki aiek egin izatea, eta, geroago, beste jende batzuek, kristauak aiek, III edo IV mendean, idazki jentillen gaiñean gurutzea ziriztatzearen bidez arri bakoitza kristaututa, beren illobi kristauearako birr-erabilli izatea.

IV mendekoa dala esaten duan idazki bat badugula? Bai, baiña idazki orrek, ainzuzen, jentillek ere bai, baiñan batez ere kristauak erabilli oi zuten esari bat dakar!: "Posuet memoria". Itzegin dugu esari orretaz.

Badira gaiñera idazkirik gabeko gurutze-duten arriak.

Zer pentsa beraz gure arri-ol oietako gurutzeetaz?

Gurutzeari dagokionez Elizak ez zuala sinkretizarik egin. Beraz, alde ortatik, gure gurutze oiek ezin daitezkeala gurutze kristauak izan.

Beste alde guztietatik so-egiñez ere ezin daitezkeala kristauak izan, esan dugun lez, IV mendera arte Elizak gurutzerik erabilli ez zualako, eta IV mendean erabilli zuan "gurutzea" ere ez zala gurutzea izan, krismoia haizik. Eta krismoiarenean "monogramatiarra" esan oi zaion gurutzea, ots, krismoia bera, baiñan "X" idazkia kenduta, ala X izkiari "P" izkiaren kizkurra erantsiz.'

Gurutzea, gure denbora auetako gurutzea, bat edo beste izan ezik, ez da V mendearen azkenaren aurreko kristau-aztarnetan agertzen, eta VI mendea iritxi arte ez du Elizak oparo erabilliko.

---

"P" izkiari "RO" esaten zioten elendarrek, "R" bezala agoskatzen zutelako. "n", berriz, "X"eri, gaztelerazko "J"ren antzeko doña ematen ziotelako.

Gure buztin-egosiak, geienak, IV mendekoak diralako, askoz arreta geiagorekin ibilli bearrak gera beren edergaillu ugarien arteko gurutzeen jentiltasuna ala kristautasuna erabakitzerakoan. Ez bait dira auzi orri-buruz argiegiak. Alderantziz "de oscura y significacio'n" dirala diosku Azkarate'k (1.c.66). Bere ustez Illuntasun ortan ezarri bear omen dira "Ia mayor parte de los motivos cruciformes, debiendo ser relacionados, por tanto, más con un resurgimiento de tradiciones decorativas indígenas que con simbolismos de naturaleza cristiana"(ib) Azpimarraketak bereak dira.

Bai, badaiteke Azkarate'k arrazoi izatea, eta ala izango du seguruaski; baiñan, ontzi oiek IV mendekoak diralako baleike arrazoirik ez izatea ere. Alare, ni, bat nago berekin. Nere arrazoa, VI mendera arte ez zuala Elizak gurearen antzeko gurutzerik erabat erabilli.

Orregaitik, bat nago berarekin bere beste iritzi onetan ere:

Gure ontzi oietan sarri agertzen diran "la cruz inscrita en cfrculo o exenta el aspa, los cfrculos radiados etc., cumplen la misma función compositiva que las rosetas, los puntos, bastoncillos, angulos, guiraldas y barras verticales, no parecinnonos Ifeito la extrapolación de esta dinamica decorativa para defender su significacidn cristiana. Pertenece, obviamente, a un corpus de motivos decorativos de tradición añeja, que en un proceso y unas circunstancias que nos resultan desconocidos emergen de nuevo en el mundo de las producciones ceramicas a partir del siglo IV d.C".

Batera nator berarekin bere asmo ta jardunbide auekin ere: "No cabe duda de que los motivos cruciformes de las ceramicas tardorromanas de nuestro ambito son, en la casi totalidad de los casos, excesivamente ambiguos cuando menos" (id. Ib).

Orregaitik "en esas circunstancias en las que ante un tema difícil y oscuro la prudencia es la mejor consejera, Ia actitud mas valida para nosotros serfa la de actuar según el siguiente principio: un motivo decorativo en un resto material de época tardorromana solamente sera cristiano cuando inequfvocamente lo parezca" (id.Ib).

Ederki esana. Ez daiteke irudi bat kristautzat artu, irudi ori kristaua dala ziurki jakin arte.

Orrelako estutasun larria zergaitik?

Egiaren billa gabiltzalako.

Oridalata ezin izango dugu kristautzat artua izan, Foru'n aurkitutako buztin-egosiak dagerkian gurutzea. Beste edergaillu batzuen erdian eta bi palnn'ostoen artean agiri da gurutze ori. Bera bakarrik balego, zalantzarik gabe izango litzake kristaua, palm'osto arteko gurutzea baztar guztietan kristautasunaren ikurra izan zalako. Baiñan bere inguruko edergaillu danei so-egiten ba'diegu, argi azalduko zaigu ustezko bi palm'orriak, ez dirala palm'orriak.

Gaiñera, argin kristauek, zerbait irudi kristauez ornitu nai zutenean, argi eta garbi, zalantzarako biderik gabe, ezartzen zuten irudi kristau ori.

Ala, adibidez, Gipuzkoa'ko Aretxabaleta'n Iruaxpe izeneko leize-zuloan krismoier eder batzuk burdiri-egoszko ontzi batean marraztu zituan argin kristau arek.

Iruaxpe deritzan leizatxo ori Aretxabaleta' ren sortaldeko mendi-katean dago, 700 metrora itxasoaren gaindik, Oñateko mugaren alboan, Araba'tik urbil, eta, ainzuzen, au bai garrantzi aundiko gauzatxoa **Gipuzkoatik** Araba'rako bide zar baten ondo-ondoan. Oroi Gipuzkoa zaarrean, bideak ez zirala gaur-egun bezala beeko ibar-zokoetatik ibiltzen, goi-aldeetatik baizik mendi-lepoak eta mendi-saietsak-zear.

M. Urteaga'k idoro zuan pitxi eder ori, eta I.965'ean eman zuan idoroketa aren berri "Revista de Arqueologfa" (VI,48) itz auen bidez: "Primer hailazgo paleoeristiano en la provincia de Guipuzkoa". Gipuzkoa'n ez ezê Euskalerrri osoan zan ura antziñako kristautasunaren lenen idoroketa.

"Las eeramicas de Iruaxpe III constituyen, hasta el presente, los unicos restos materiales, entre los analizados, que resultan de simbologfa Inequifvocamente eristiano" (Azkarate, I.e.74).

Oso txikia da Iruaxpe'ko leiza: 9 metro ditu luzean, eta 2 bakarrik zabalean. Ala ta guztiz, laugarren mendeko buztin-egosi asko aurkitu da bere barruan. Baita meazkiak ere. Eta ikatz biurtutako lastoa, ugari!; noiz-bait sute galanta jasana bait da leize zulo ori.

Idoroketa guzti oien azpian, beste beeragoko mailla batean, edestiau-rrerearen azkeneko eta edestiaren asierako tresnak ere agertu ziran.

Leizaren atarian, guretzat garrantzirik gabeko gauzak geiago. Baiña baita garrantzi aundiko beste zerbait: an bertan jendea bizitu zalaren adigai-livak.



Guri, Intxauspe'n aurkitutako guztitik, iru buztiñegosi-puska zaizkigu bene-benetan axolagarri: iruetatik bi, kristauak izan daitakealako; eta, irugarrena, ezpairik gabe kristau dalako.

Bi aietan gurutzearen zatiak agiri dirala ematen omen du: bi zati, batean; bestean, bat. Eta gurutze-zati oiek antziña kristauek marraztu oi zituzten gurutzeen antzekoak diralako, izan omen daitezke gurutze kristauen zatiak.

Esan bearra dut ordea, -- eta nerekin bat izango dut ontan Azkarate bera --, IV mendea goitzo dala, guretzeko aiek, kristauak ba'dira, mende ortakoak izateko. Beranduxeagokoa izango dirala seguruaski.

Esan bearra, baitare, iru gurutze-zati aiek gurutze-zatiak diran edo ez, argi ez dagoan gauza dala. Beste edozein edergailluen zatiak izan bait daitezke, naiz itxuraz bai, gurutze-zatiak dirala eman.

Irugarren zatiak ez du zalantzarako biderik uzten: puntu beltzez inguratutako bi oboen barruan bi krismoi dakartz, eta irugarren baten ertza. Krismoi oietako bakoitza "monogramatikoak" esaten zaien oietakoa da: Lau beso berdiñeko gurutzea, eta bere ezkerreko beso etziñaren eta goiko beso zutiaren muturrean, eskubiruntz begira "RO" izkiaren kizkurra. Edo, berdin dana, eskubiruntz begiratzen duten bi "Ro"z eratua.

Krismoiez apaindutako buztiñegosi-puska bat ez da naikoa, bertan edo an inguruko txoko batean erri kristau bat izan zala uste izateko. Lekuko bakarrak ez bait du ez baiezkorik ez ezezkorik erabakitze eskubiderik ematen.

Nork egin ote zuan bide zar aren ondoan, krismoiez dotoretutako buztiñegosizko ontzi ura?

Bidea, Deba'ko kaiatik Araba'ko Iruña'n-edo beste bide ospetsuago batekin, ots, Bordele'fik Astorga'rako bide zabalarekin alkartzera zetorren. Deba'ra zijoan edo Deba'tik zetorren salerosle batena ote zan ontzi ura? Ala, Erroma'ren lejoetan gudari ibillita, bere sendiarekin bere errira itzultzen zan bardulitarren batena? Bizi ote zan an bertan sendi kristauren bat?

---

<sup>9</sup> Eleneraz gure "P"ri esaten zaio "Ro", gure "R" bezala agoskatzen dalako. "X"ri berriz, "Ji", izki onen solluz irakurtzen dalako.

Baietz dio M. Urteaga, Iruaxpe aztertu duan arkeologilariak: an, "un grupo social cristianizado" bizi zala. (1.c.58).

Bere alde duala dirudi an ainbeste buztñ-egosi, eta ainbeste meazki billaiu izatea. Orrek toki ura soilki igaro-leku bat bakarrik ez zala adierazten bait du: an jendea bizi zala.

Kristaua ote zan jende ura? Ez dirudi iru ontziépuska iruetatik bat bakarrik gaiñera ziurki kristaua galde orri baietz erantzuteko naiko arrazoa diranik.

Alatagutziz, kistau bat beintzat izan zan IV mendean Iruaxpe'ko mendean, Kristau ura an bertan bizi zala dirudi. Ez zala noizbait andik igarotako ibiltari bat. Ibiltarien artean ez bait zan oiturazkoa bideetara buztifiegosizko ontziz orniturik irtetzea. Bazituzten ba, ortarako, tupikizko ontzi bereziak. ¿Bakarrik bizi ote zan Iruaxpe'n kristau ura? ala bere sendi guztiarekin? Zentzu osozkoa dirudi, an, bere sendi osoarekin bizi zala uste izatea. Ez du ematen ba anakoreta izan zanik ere, auek, hideetatik urruti, basoetako bakartasunean izkutatzen ziran ezkerok. Iruaxpe'k, berriz, ez dirudi bakartasuna zanik, jende geiago bizi zan tokia baizik, eta, Araba-zearko Astorica-Burdigala bide nagusitik Tritium Tuboricum izeneko kai bardulitarrera zijoan bidearen alabo-alboan zegoan.

Bizi ote zan an sendi kristaurik geiago? Ez dakigu. Danadala, an bizi zitezkean guzti aiek karistiarrak ziran, orduan ere jendea gaur bezala luérralde artan bizkaieraz mintzatzen zala egiakotzat artu bearra dala bait dirudi.

## ARIANIKERIA.

Kostantino'k 313'an askatasuna eman zion ezkeru, IV mendearen luzaro guztian Eliza pakean bizitu zala, esan dugu. Ori ordea, ongi ulertu bearra da.

Egia da Elizak ez zuala, inperatore jentillen aldetik ordura arte bezalako zigorketa gogorrik jasan. Kostantino'z gero, inperatore guztiak kristauak izan bait ziran, Juliano Fedeukatzaillea (361-363) izan ezik. Baiñan naiz onek Eliza zigortu, zigorketa orrek, laburra izan bait zan gaiñera, Elizari on geiago egin zion gaitza baiño, kristauen sinismena berbizkortu ta sendotu egin zualako.

Baiñan politikaren aldetiko pake-giro artan, izugarrizko ondamenak izan zituan Elizak, erejiek eta ereji guztien artean batez ere arianikeriak bere barrengo pakea zearo urratu ziotelalco.

Erejia betiko landare gaiztoa izan da Eliza-baitan, Apostoluen denbora ber-beretik asita. Elizaren altzoan noiznai jeiki izan bait da Eliz-salbatzaille berririk ugari. "Kepa", ots, Aitasantua oker dabilrelako, Elizak bere jatorrizko donetasuna galdua duala uste izaten dute, eta Eliza zarra garbitu ez baiña Eliza zarraren sinispidea txikiturik sinispide berriak, ots, erejiak, eta ereji oietan oiñarritutako Eliz berriak sortu oi dituzte.

Erejei-buruz badu Idazti Doneak esakizun kezagarri bat: "Opportet haeresis ense". "Bearrezko gauza, erejiak izatea".

Esakizun orrek, erejiak beti izango ditugula gurekin, esan nai omen du, bibliliarien ustez; baiña beste zentzu bat ere izan dezake: Erejiek bere alde ona badutela ere adierazi bait dezaiguke: Egiatzko Eliza, Kristo'k sortutako Eliza zein dan erakusten bait digute: Ereji guztien gaindik, Kristo'ren Apostoluen egunetara, eta Kristo'ren Apostoluak-zear Kristo berberaraiño iristen dana.

Badute guretzat ere garrantzi berezia, IV mendeko bi ereji aundiri eskerrak irikitzen bait zaigun ainzuzen, mende artako euskaldunen kristautasunari begira aal izateko zirriku txiki egoki bat.

\* \* \*

Elizaren edeski osoan gutxi izan dira, IV mendean agertu zan arianikeria bezain gogorrik. Ez beintzat aurreko III mendeetan. Eta gero ere, soilki Martin Lutero'ren ostelaritzak, ots, protestalaritzak egin dio Elizari kalte geiago: kendu zizkion zati aundien erruz, saminki urratua utzi bait zion soiña. Eta orrela urraturik eta zatiturik dirau oraindik Kristo'ren Eliz Donearen Soin Doneak. Noiz arte? Jainkoak daki.

Arianikeriak bere sortzaillearen izena darama. Aria, (gaztelerazko Arrio), Ejito'ko Alexandri'n parroki bateko apaiza zan. Aski adintsua omen zan, Irutasun Doneko Bigarren Pertsona Jainkoa ez zala erakusten asi zanean. Ori besterik ez bait da arianikeria.

Baiñan arianikeriaren aurka Nizea'ko Kontzilioak erabillitako izkera gotzai askok ondo ulertu ez zutelako, izugarrizko arrakasta izan zuan "arianikeriak" inperio-lurraren sortaldean. Baita politikaren arloan ere. Inperatore kristaurik geienak buru-belarri "arianikeriaren" orren alde sartu bait ziran beren indar guztiz.i°

325'garren urtean ospatutako Nizea'ko Kontzilio artan izan zan gaitzetsia Ario apaiz aleksandritarraren dotriña. Kontzilio au dugu kristauok Lenen Kontzilio Ekumenikoia.

Kontzilioak, Semea Aita bezain Jainkoa zala adierazteko, Semea Aita-ren "homousios", edo "consubstantialis", ots, "zertasunkide" dala erabaki zuan.

Itz orrek, ordea, kezka bizia sortu zuan laister Sortaldeko gotzaien artean, Semea Aita'ren "zertasunkide" egitean, Kontzilioak, Aita'ren "nor-

---

' Arianikeria, goi-kakotxik gabe, egiazko arianikeriari esaten diot: Semearen jainkotasunari uko egiten zion erejiari. Goi-kakotxen artean idazten dedan "arianikeriari", berriz, Efeso'ko Kontzilioak erabillitako izkeraren aurka zeudenen aburuari. Auetatik geienak siniskeraz katolikoak ziran; Semea Jainkoa zala sinisten zuten, baiña Kontzilioaren izkera ez zitzaien atsegiña gertatzen.

tasunkide" ere egiten zuala uste izan bait zuten. Eta, orregaitik, Nizea'ko Kontzilioaren aurka jarri ziran. Eta gotzai oien atzetik, baita inperatoreak ere.

Ez da arritzekoa "zertasuna" ta "nortasuna" itzei dagokien zentzu ta esannaia ez bait zeuden oraindik eskierki eraturik. Eta, gaiñera izan-berria bai zan ain zuzen ori, Aita bakarrik zala Jainkoa, eta "Semea" eta "Gogo Deuna" Aitaren beste izen batzuk besterik ez zirala esanez Irutasun Donea ukatzen zuan ereji bat: Sabelitarren erejia.

Bestalde, naiz egiazko arianikerizaleak oso gutxi izan, oso yayoak irten ziran teologizko arazo ura illunagotzeko. Lortu zuten gotzaien eta inperatoreen zalantzak, bildurrak eta kezkek egunetik egunera aundiago ta kezkgarriago biurtzea.

Inperatoreek, sinistu zuten Nizea'ko Kontzilioak kristaudia zatitzen zuala, eta, orregaitik, Kontzilio aren dotriña inperio-barrungo pakearentzat arrisku aundia gertatzen zitzaie. Ta Nizea'ko Kontzilioaren aurka jarri ziran.

Gotzaiak, berriz, alde batetik arazoa argi ikusten ez zutelako, eta bestetik inperatore kristauei zieten eraspenak aiengan arras eraginmen aundia zualako, inperatoreekin batera Kontzilioaren aurka jeiki ziran.

Ez da erreza nor noren atzetik zebillen jakitea: gotzaiak inperatoreen atzetik ala inperatoreak gotzaien atzetik. Orduan Erroma'ko Inperioaren uri-buru zan Kostantinopla'n bizi ziran inperatoreak; Sortaldean beraz. Inperatore auek Sortaldeko gotzaidi ia-ia osoa "arianikerizalea" ikusten zuten. Ez da beraz arritzekoa beraiek ere "arianikeriaren" alde ibilli izatea. Gotzaiak berriz, ikusi zuten "arianikerizaleen" aldera biurtu zala azkenean Kostantino bera, eta ala jarraitzen zutela aren ondorengo inperatore kristauak ere, inperatore kristau aiei zieten maitasunak eta uste on osoak eraginda, kezkarik gabe jarraitu zuten aien bidetik.

Ala, IV mende guztia naspildu ta zabartu zuan "arianikeriak". Alperrik egin zuan lan Doneatanasio Alexandri'ko gotzaiak adimenetara argia eta biotzetara baretasuna zabaltzeko. Aurka jeiki bait zitzaion Sortalde guztia. Bera izan zan, Kostantino inperatorearekin batera, IV mendeko gizonik aundiena. Baiña baita era berean gorrotatuena ere. Ta zigortuena!

Bera il zanean asi zan kristaudia begiak irikitzen: "Esnatu zan mundua ta arriturik ikusi zuan bere burua ariotarra biurturik", idatzi zigun egun aietan bertan Jeronimo Doneak. Ez zan ordea arras zuzenki mintzatu. Jero-

nimo'k, ariotar, Nizea'ko Kontzilioaren aurka zeuden guztiei esaten bait zien."

Arianikeria, ordura arteko erejirik geienak bezala **Sortaldeko** arazoa izan zan, antziñatik bait zetorkien sortaldetarrei alkarrizketarako ta eztabaidarako gurari bizkorra. Alare, iritxi ziran Sartaldera ereji aren txinparta mardulak, eta Galietan ere piztu zuten sute kezagarririk aski. Baña "arianikeriaren" Sarkaldera sartze ori, inperatoreen erruz gertatu zan batez ere. Eta emen sortu zituan zalapartak, bereiziki, gotzaiak inperatore kristauei izan zieten maitasunarena baiño geiago izan zirala dirudi, era berean izan zieten bildur aundiaren ondorio makurra.

Sartu ote zan euskaldunen artera?

Ezetz, eskierki esan daitekeala dirudi.

IV mendean euskaldunen artean kristautasuna sarturik zegoala badakigu. IV mendean Sarkaldeak izan zuan gizonik garrantzitsuenetako batek, Poitiers'ko Ilario Doneak "Akitani'ko ta Nobenpopulani'ko eta Tolosa'ko gotzaiak beti zintzoak izan zirala" idatzi bait zigun "Liber de Synodis seu de Fide Orientalium" izeneko idazkian.

Ilario'k aipatzen duan Akitania, Zesaraugusto'z gero aundiagotu zan Akitani zabala zatitu ondorean Garona eta Loira arteko lurraldez osotutako "Akitania II" ura da. Ta naiz IV mendean "Akitania II" ortako Dordofia'ren lurralde batzuetan oraindik euskerak bizirik irautea badaitekean gauza izan, egoalderago bete-betean euskalduna zan beintzat Nobenpopulani edo III Akitania, ots, Garona eta Añamendia arteko lurraldea.

Akitani euskaldun ontan Elusa'ko Eliza, IV mende orren asieratik sendoturik zegoala dokumentuen bidez eskierki dakigun gauza da, bertako gotzaia, Mamertino, 3 14'e an Arles'ko kontzilioan izan zala ere badakigun ezkeru.

Ez dakit Ilario'k Agifio'ko elizbarrutia, Nobenpopulani'kotzat zeukan edo ez. Agiña, erromatarren "Aginnum" eta frantziarren "Agen", Garona ibaiaren bi aldetara zegoan eraikia, eta IV mende artan izan zuan, ain zuzen arianikeri ooren aurka bere izena ospetsu egin zuan gotzai bat: Febadio

---

Arianikeriaren arazoa, nere "Eliz-Edesti-Sortako" "Elizak eta Estaduak Bat Egin Zuten Denborako Eliza" izeneko liburuan aurkituko duzu, 220'garren orritik aurrera, oparo aztertua.

Donea: "Au IV'e sicle d'Agén brille d'un incornparable eciat gr'ace a son immortel eveque Saint Phebade, le tieau des ariens": "IV mendean argi bereiziz dizdiratsu agertzen zaigu Agifio'ko Eliza, ariotarren zartailu izandako Donefebadio bere gotzai aantzi eziñari eskerrak" (Dic. d'Hist. et Geog. Eccésiastiques).

Nobenpopulani'n beste gotzaigorik ba'zan ez dakigu, naiz, ikusiko dugun bezala, baietz iduri, Elusa, Akitani'ren erdian goigotzai-uria bait zan orduan.

Tolosa, berez Akitani'ko uria izan da beti. Doneilario'k Akitani'tik at aipatzen ba'du, garai artan "Galia Narbonensis" izeneko probintzira sartua izan zalako da.

Euskalerrira ez zan beraz iñolako arianikeririk sartu. Ezpairik gabe sinistu dezaiokegu ori ziurtatzen digun Ilario Doneari. Poitiers'ko gotzaia izan zan, IV mendean, Sarkaldeko gizonik bikaiñenetako bat. Arianikeri ororen aurka, atertzeke borrokatu zan gizona, eta orregaitik Kostantzio Kostantino'ren seme inperatoreak (337-361) Beziers'ko kontzilioaren ondorean erbesteratua<sup>12</sup>.

356'ean egin zan kontzilio ori, eta bertan bildu ziran gotzaiak, lentxe-ago II Arles'ko (353) eta Milan'go (355) kontzilioetan bildutakoen antzera, "enregistrerent docilement ia volonte impériale; seules quelques ames fortes resistant a l'asservissement et ossent proclamer leur fidelité a Nicee: ils sont prontement exiles; ainsi Luzifer de Cagliari, Hilaire de Poitiers, le pape le vieil Osius de Cordoue"<sup>13</sup>.

Euskeraz: "Kontzilio oietara joan ziran gotzaiak, mottelki jardun ziran eta onartu egin zuten inperatorearen guraria; soilki gogo sendoko gotzai gutxi batzuk agertu ziran zindo morroikeririk gabe eta, leialki, Nizea'ko Kontzilioak erakutsitakoaren alde": Laister izan ziran danak erbesteratuak: Ala, Kallari zerdeñatarreko Luziferus, Poitiers'ko Ilario, Liberio Aitasantua, eta Kordoba'ko Osio zaarra".

---

<sup>2</sup> Be'ziers, Narborna'tik oso bertan dago. Biterra izen-eman zioten erromatarrek.

H. I. Marrou. L. J. Rogier, R. Aubert, eta M. D. Knowles'ek zuzendutako "Nouvelle Histoire de l'Eglise". I. 300 or.

Bearrezkoa da lau oiei beste zazpi gizon bikain alkartzea: Milan'go Dionisio, Treberis'ko Paulino eta Berzelli'ko Eusebio, Tolosa'ko Rodanio, Agiño'ko Febacie eta Tongres'ko Serhazio. Arnaika gotzai bai beintzat guztira. Ez dira asko. Orregaitik du alako garrantzia Doneilario'k berak idatzi zigunak: Akitani'ko, Nobenpopulani'ko eta Tolosa'ko gotzaiak Nizea'ko Kontzilioak erakutsitakoari leialak izan zirala beti.

Alare... alare... geldi gaitezen unetxo batez, Doneilario'ren esakizun ori pittin bat ikertzen. II Akitani'ko gotzaia bait zan Donellario'rentzat Paterno Petrocorium edo Krigueux'eko gotzaia.



## PATERNO GOTZAIA ARIANIKERIAREN ETSAIA

Esan-berri dugun bezala, Perigueux'ko gotzaia izan zan Paterno. gueux, berriz, Dordoña Aranean, ibaiaren iparraldean, ibai ortatik eunen bat kilometrora dago, eta gaur-egun ere Dordoña deritzan departamentuaren barruan aurkitzen da. Orduan, II Akitani'ko uri bat zan.

Erromatarrek emandako izenak bein baiño geiagotan etorri zaizkigu ederki, uri bat antziña artan euskalduna izan zitekean edo ez jakin nai izateko. Orain ez digu jardunkera orrek balio. "Besunna" eta "Petrocorium" bait dira Pereigueux'ek latíñez izan dituan izenak."

Seguruaski, bearbada, galdurik zegoan ordurako Dordoña-araneko iparralde artan garai bateko euskera, baiñan Krigueux IV mende artan ez zegoan oraindik agian euskeraz mintzatzen ziran artzai, nekazari eta basagizonengandik ain urruti.

---

' "Petrocorii", uri ortako gizakumeei esan zieten erromatarrek. "Petro" k" itzak "nekazari", "baserritar" esan nai du, "Corium", berriz, "azala" da, "larrea. "Petro", "arri" ere izan daiteke, "petra", ots, "arria", aurrizki bezala "petro" biurtzen bait da. Ortaz, "petrocorii", "arri-laruzkoak" izango litzake. Izen ori ematen ote zitzairen ango biztanleei? Ezdut uste. Geiegi biurritu bait dugu "petrocorii" itza, esannai ori emanerazteko,

Dana dala, ez digu balio bertako uritarren bai-edo-ezezko euskalduntasunik igarri aal izateko.

Beste izen bat ere bazuan ordea uri orrek, BESUNNA, eta onek bai onek geixeago balio dezaiguke, batez ere bere bi "N" oiek "Ñ" agoskatuz jzen ori BESUÑA biurtzen ba'dugu; ba'ditugu ba Araban "Besafia" bat Gazteizen egoaldeko mendipean eta "Besio" hat Aramaiona'n. Egia da alare antz-kidetetasunak ez duala bat-beratasunik esan nai; baiñan azturik laga bear ez dugun gauza da, uri ura Protobaskonik-Kulturarerena izandako lurraldean aurkitzen dala.

Akitani'ko gotzai guztiak katolikotzat eman dizkigu Ilario'k bere "Liber de Synodis seu de Fide Orientahum" go esakizun ortan.

Paternus ordea, Perigueux'ko gotzaia, ariotarra izan zala badakigu.

Ez ote zekian ori Doneilario'k aztertzen ari geran itz oiek bere "De Synodis seu de Fide Orientalium" atzerrian idatzi zuanean? Edota, Ilario'k liburu ori idatzita gero jausi ote zan Paternus "arianikerira"?

Ilario'k, 358'aren azkenean edo 359'aren asieran idatzi zuan liburu ori. Béziers'ko kontzilio 356'ean izan zan. Kontzilio ortan egon omen zan Gams beneditarrak dionez15.

Geiago dana, "Dictionnaire D'Histoire et de Gographie Ecelésiastiques" iztegi mardulak, Nrigueux'eko Paterno au izan zala dio, Arles'ko Saturnino'rekin batera, Frantzi'ko gotzaidia bultzatu zuana, eta, "mené par Saturnin d'Arles et Paternus de Nrigieux", ots, "bi oiek eramanda jausi zala "Galietako ia-ia gotzaidi osoa", "la quasi-totalit de l'pisopat gatdois" inperatorearen naikeriari baiezko autarkia ematera.

Baiñan gertakizun oietako edestilaririk onenak, denbora artan bertan idatzi zuan Sulpizio Sebero bordeletarrak dioskunez, iru gotzai bakarrik Izan omen ziran kontziliokideak "arianikerira" eraman naiean gogor ibilli ziranak: Ezagunak ditugun Ursazio eta Balente, ta Aries'ko Saturnino (Chronique, II,40).

Iru oiek bakarrik aipatzen ditu arazo aietan danetan partaide izan zitzaigun Doneilario'k berak ere "Contra Constantium" liburuan (Contr. Cons., 2).

Ez batak ez bestek ez dute Paterno'rik aipatzen. Alare badakigu, 360'garren urtean, Paris'ko Kontzilioan, bera ta Aries'ko Saturnino bakarrik izan zirala Nizea'ko Kontzilioari uko egiñez jarraitu zutelako, ariozale bezala eskomikatuak. Ederki dio Griffe'k, istillu oni-buruzko azken-itza emanez, "Paterno'z deus ez dakigu, bere gaitzespen ori izan ezik", "Quant a Paterne nous ne savons rien d'autre a son sujet que sa condamnation".

Ta, Frantzi'ko arianikeriaren edestia idazten ari ez geran ezkeror, naikoa bedi ori, guk, emen, Perigueux'ko Paterno'ren auzia amaitutzat emateko. Alatagutziz, zail egiten zaigu, apaiz jaunen atsegiñerako Sulpizio

Sebero'k bi gotzai aien gaitzespena nola damaigun esan gabe bertan-bera gelditzea. Ain bait da txukuna bordeletar aren idazkera! Ikus:

"Saturninus, Arelatensium episcopus, vir sane pessimus et ingenio malo pravoque, verum etiam praeter haeresis infamiam multas atque infandis criminibus convictus Ecclesia ejectus est. Paternus etiam a Petrocoriis aequae vecors nec detrectans perfidiam profiteri sacerdotio expulsi, caeteris venia data",

Euskeraz:

"Saturnino, arlestarren gotzaia, arras gizon gaiztoa, ta izkera txar okerrekoa, erejizko gaiztakeriaren errudun izateaz gañera beste okerkeri asko ta txit makurren errudun agertu zalako izan zan Elizatik jaurtia. Era berean Petrokoritarren Paterno, gizon maltzurra au ere, erejian jarraitzeari ukorik egin nai izan ez ziolako, gotzaigoaz erantzia izan zan. Beste guztiei barkapena eman zitzaien" (Chronica II, 45)16.

Alare, bi gotzai auek, Saturnino eta Paterno, egiatzko ariotarrek, ots, Semeari jainkotasuna ukatzen ziotenetakoak ziran edo ez, ezin esan dezakegu.

Danadala, ez dezagun uste, Kostantzio inperatore "arianikerizaleak" ala agintzen zuelako, "morroiki ta koldarki" beren autarkia Nizea'ko Kontzilioa'k erakutsitakoaren aurka eman zuten gotzai aiek danak, Kontzilio ark erakutsitakoaren aurka zeudenik. Atzipetuak izan ziran

Gotzai aiek ez ziran beraiek teologilariak, eta teologia bera ere aski sakondurik gabe zegoan oraindik. Ortaz gañera, ez ziran, sortaldetarren pentsaerako zurrunbilloak ulertzeko gauza, eta Nizea'ko Kontzilioan zer gertatu zanaren berririk ere ez zuten, Doneilario'k berak aitortzen du "eré

---

Griffe'k (1.e.262) "Paternus", jatorriz, Dordoña-aldeko izena dala diosé ku. Barkatu bezait, baiña izen ori maiz aski agertzen da Ego-Euskalerriko dokumentuetan ere. 4 aldiz Kukulla'ko Donernillan'en Lekaidetxeko larrukietan: "Johannes Paterne", "Johanne Partiernez", "Johannes Patiernez", "Paterno Abba", "Paternus Abba... Balpuesta, Leire eta Albelda'ko larrukibildumetan ere ugari aurkitu izan dut izen ori. Baita emakeraz ere: Paterniana. Aitana, zuan izena Atapuerka'n Naparroa'ko V Gartzia'ren alboan, gaztelarren aurka borrokan il zan Naxera'ko buruzagi bikaiñak. Askotan galdetu izan diot nere buruari, latiñezko gure dokumentuetan agertzen zaizkigun Paternus oiek euskerazko "Aitanaren" itzulpenak ez ote diran.

besteratua izan zan arte ez zuala sekulan Nizea'ko Kontzilioan onartutako "kredoa" ezagutu": "Fidem Nicaeanam nunquam nisi exulaturus audivi" (De Synodis, 91). Ala, atzipetuak izan ziran. Errez atzipetuak: Sortaldetik etorritako bi gotzai maltzurrek atzlpetuak: Singidunum'go Ursazio'k eta Mursa'ko Balens'ek atzipetuak.

Ariotar gogorak ziran bi gotzai balkaniar auek, eta erretolikalari arras trebe ta yayoak. Une artan, gaiñera, Kostantzio'ren aolkulari nagusi eta, Ario 11 zanez gero, arianikeriaren zuzendari".

Inperatoreaganako bildurak egin zuan gaiñerakoa.

Izan ere alakoa izan bait zan Kostantzio'ren zipozkeria! "La violencia imperial lleg6 al extremo de que por medio de un edicto pbdlico se llegd a colocar a los obispos reunidos ante la alternativa o de firmar la condena-ción de Atanasio o de ir al destierro" (Llorca, 1, 410).

Atanasio Alexandri'ko gotzai ospetsu donea ondatu nai zuten ariota-rrek. Bai bait zekiten arek borroka zegien artean, garaitzan pentsatzerik ez zutela.

"Constance (...) pretend imposer partout ses conceptions arianisants en eliminant Athanase. La quasi-totalite de l'piscopat gaulois, mené par Saturnin d'Arles et Paternus de Perigueux ceda a ses exigences".

Euskeraz:

---

Singidunum, gaur, Belgrado da. Mursa, berriz, orain Esseg esaten zaion Yugoslabl'ko uritxo bat. Ursazio eta Valens, Ario'k berak egin zituan ariotar, Balkanetara erbesteratua izan zanean. Ara jaurti bait zuan Kostantino'k Nizea'-ko Kontzilioa amaituta bela. Eman zion ordea berririo askatasun osoa, ark bidalitako "sinispide" maltzur batek iruzurturik. Garaille itzuli zan Aria erbes-tetik, len bezain "ariotar". Ursazio ta Balente, berriz, beti ariotar gogorak izan zirala dirudi. Baiña ariokeriak itxura ta era ezberdin asko artu bait zituan bere edestian, itxura ta era aiek danak onartu zituzten bi aiek ere. Are geiago: 346'ean Atanasio'k Kostantzio'rekin itzegin ondorean, Kostantzio Nizea'ko Kontzilioa'k erakutsitakoaren alde jarri zan, naiz asti laburrean. **Kontzilio** ark erakutsitakoaren alde jarri ziran bereala Ursazio ta Balente. Geiago dana, Aitasantuari idatzi ere idatzi zioten, Eliza Katolikoaren altzora itzuli aal izateé ko, aren onspena eskatuz.

"Atanasio zanpatuz ezarri nai ditu Kostantzio'k bere asmo arianikoiak, eta Arles'ke Saturnino'k eta I<sup>3</sup> rigeux'ko Paterno'k bultzata, ia-ia gotzaidi galitar osoa makurtu zan aren eskarrietara" (Die. Hist. G6a. Eccl).

360'garren urtean jeiki zan izkilluz Juliano Galietan, Kostantzio garaitunairik. aurka.

urtego urtean il zan, aren aurka Kostantinopla'tik borrokalari zeterren Kostantzio, eta Juliano gelditu zan inperio-lur osoaren jaun eta jabe. Juliano au izango da, laister fedea ukatuta, ostera Erroma'ren inperio-lurrean jentiltasuna ezarri naiez, Eliza zigortzen asiko dana, baiñan bere agintaritzaren asieran, aurreneko bere ekintzetako bat, erbesteraturik zeuden gotzai guztiei askatasuna ematea izan zan.

Juliano'ren baimenez baliatuta bildu zuan Ilario'k Paris'en kontzilio bat, eta kontzilio ortan egin zituzten Elizarekin pakeak, Kostantzio'ren aurrean ain ustel ibilli ziran gotzai frantziar guzti aiek, bik izan ezik: Arles'ko Saturnino'k eta I<sup>3</sup> rigeux'ko Paterno'k ez bait zuten bururik makurtu. Eskomikatuak izan ziran biak, eta gotzaigotik kenduak.

Paris'ko kontzilio ortan amaitu zan Galietako "arianikeria", eta kristaudi osoan ere erabat gelditu zan ezabaturik, I Teodosio'k (378-395) "Damaso Aitasantuak erakusten zuan sinispidea", ots, katolikotasuna, Inperioaren legezko sinispide izendatu zuan ezkerero.

Aitortu bearra da ordea, ordurako, oso auldurik eta anitz pusketan zatiturik aurkitzen zala arianikeria. Soilki, Gotiarren eta auen bidez "arianizatutako" beste barbaritarren batzuen artean bakarrik jarraitu zuan bizirik.

Arianikeriaren atal au erabat amaitzeko, ereji aren aurka jardun ziran Akitani'ko b<sub>j</sub> gotzaien aipamena egitea peitzen zaigu: Tolosa'ko Rodanio eta Agiño'ko Febadio'ren aipu ongi merezia.

Rodanio tolosarra, Doneilario'ren adiskide ta lagun aundia, "natura lenior" edo "izakera gozoko" gizona, Sulpizio Sebero'k dionez, Kostantzio inperatore "arianikeri" zaleari ezezkoa eman zioten beste gotzai danak bezala erbesteratua izan zan. Eta, amorru biziko garaia bait zan ura Tolosa'ko, gotzai ark ez ezê, Tolosa'ko apaizdiak ere izan zuan Kostantzio'ren ertzaifien aidetik zertaz negar Kostantzio berari leporatzen dizkio Ilario Doneak, ondo izkera gogorrez gainera, uri artan egin ziran izugarrikeri guztiak:

"Quos tu deinde in ecclesiam tolosanam exercuisti furores! Clerici fustibus caesi, diacones plumbo elisi, et in ipsum, ut sancti mecum intelli-

gunt, in ipsum Christum manus missae": "A nolako gorrotokeri beltzak zuk Eliz tolosarraren altzoan egin dituzunak! Apaizak, zartailluz zigortuak, diakonoak berunezko zigorgailluz oiftazetuak, eta kristau zintzoek jakiñerazi didatenez, Kristo ber-bera ere esku gaiztoz erabilia"! (Contra Constantium, II).

## PRISZILIKERIA

Euskalerrian arianikeria ez zan beñere Galieta bezain arazo larria gertatu. Bai ordea bertan españiar batek, Priszililiano'k zabaldu zualako, bere izena daraman ereji illun bat: "Priscillianismus": "Priszilikeé ria"

Priscilianus: Bere izena darama Españi'n sortu dan erejirik ezagutuenak. Euskaldunon artera sakonki sartu zitzaigun erejia!

Prisziliano bera, 345'an jaio omen zan; Galizi'n, seguruaski.

Ederki damaigu Sulpizio Sebero'k gizaseme urduri aren berri; baiña, lendabizi garai artan Españi'n zabalduzik zegoan gnosikerizko igikunde erejikoi batez mintzatzen zaigu'g.

I<sup>g</sup> ikunde trakets ori, Markos zeritzan ala-olako gizaseme batek ekarri omen zuan Ejito'tik. Markos orren ikasierik bizkorrenak, emakumezko bat,

---

Gaztelerdun utsak, irakurri beza Menendez Pelayo'ren "Historia de los Heterodoxos Españoles". Or ikusi dezake nolakoa zan erejia eta nolakoa Mz. Pelayo'ren abertzalekeri cspailiarra. Ainzuzen onela asiera damaio bere idazlanari: ; "Ustima que la autoridad casi unica sea el extranjero v retcirico Sulpicio". Zozoak beleari ipurbeltz! Ona, Mz. Pelayo'ren erretolikakeriaren aztarna batzuk (azpimarraketak, nereak): Priszilikeria, il omen zan, "por la tendencia unitaria y catolica de nuestra generosa raza". Toledo'ko I kontzilioan amore eman zuten erejeek. Kontzilio ori, 589'an bisigotak katoliko biurtu zituan II/ kontzilio ura baiño garrantzi aundiagokoa omen, "porque si en conellio de 589 vemos a una raza Mrbara e invasora,(...) rendirse al predominio civilizador de ia raza hispano-romana, de la verdadera y (ínica raza española (emen azpimarraketa berea), "I'go artan batasuna" eman omen zitzaion "a la Iglesia Española modelo de todas las occidentales en sabiduria y virtud". Arrapa'-zak!

Agape, aitorreen alaba, eta Helpidius erretorikalaria izan omen ziran. Laister Agape eta Elpidio auengandik ikasiko ditu Prisziliano gazteak igikunde aren izkutukiak.

Ez zan noski Prisziliano ura nolanaiko gizasemea! "Familia nobilis, praediues opibus, acer, inquires; facundus, multa lectione eruditus, disse-  
rendi ac disputandi promptissimus; felix profecto, si non prauo studio  
corrupisset optimum ingenium: prorsus multa in eo animi et corporis bona  
cerneret, uigilare multum, famen ac sitim ferre poterat, habendi minime  
cupidus, utendi parcissimus, sed idem uanissimus et plus iusto inflator  
profanarum rerum scientia, quin et magicas artes ab adolescentia eum  
exercuisse creclitum est".

Euskeraz:

"Aitorren sendikoa, ondasunez anitz aberatsa, azkarra -- ezpairik gabe  
esan daitekean lez --, mintzo oparokoa, jakintza askoz ongi jantzia, jardun-  
keta ta eztabaidetarako txit azkarra, alde guztietatik bikaiña baiki, jatorriz  
zuan buru argi-argi ura ikasbide gaiztoetan illundu ez ba'lu. Alatagutziz  
aurkitu daiteke arengan gorputzeko eta adimeneko edertasunik aski: Ala,  
bazan lo egin gabe luzaro irauteko ta goseari ta egarriari eusteko gauza; eta  
ezenen jabe izateko batere gogorik gabea, eta bizitzeko oso gutxi bear  
zuana; Baiña baita artoa ere, eta ezagutzen zituan jakintza mundukoiak  
zirala-ta, neurriz gaindi puztua. Esan ere esan oi da, bere gaztaroen majia  
edo izkutuzko artezietan ibillia zala" (Chronica II, 46).

Gizaseme gazte aski eldua zala egin zitzaigun kristau; eta bataio artu  
ondorean sartu zan Markos'ek Sortaldetik ekarritako igikunde artara eta  
laister zan talde guztiaren buruzagi. "En estas circunstancias juntdseles  
Prisciliano. Incansable en el trabajo, soñador de grandezas, no falto de  
habilidad y talento natural, entregdse en cuerpo y alma a la propaganda de  
la secta, gandle gran ndmero de adeptos y didle con su persona mayor  
consistencia" (Llorente, 1.c.I,444)".

Ez zan erriko jende arrunta bakarrik Prisziliano'k talde artara bildu  
zuana; aundikien artetik ere, "multos nobilium", ugari jausi bait ziran aren  
izkera yayozko sarera, emakumezko aitorkumeak batez ere, "emakume  
brrikerizaleak, sinismen motelekoak eta arrigarrikeri ororen maitaieak",  
esaten die Sulpizio Sebero'k, "mulieres nouarum rerurn cupidae, fluxa Pide  
et ad omnia curioso ingenio": "Cateniatim", "pillaka" etortzen omen zit-



zaizkion emakumeak, Ez da arritzekoa, Adimenez ez eze", soifiez ere giza-senne ederra ta atsegiña omen zan bir Prisziliano.

Alkartu zitzaizkion apaizak ere. Eta <sup>s</sup>otzaiak? "nonnulli episcoportnn deprauati", "gotzai biurri batzuk" Sulpizio gure adiskidearen esaeraz.

Gotzai oien artean bi izan ziran beti berekin sutsu ibilli ziranak: Instantius eta Salvianus. Ziurki ez dakigu nongo gotzaiak ziran, baiñan gogor egin zuten bizi izan ziran artean Prisziliano'ren alde borroka.

Bi gotzai izan zituan etsairik amorratuenak ere, Hyginus Kordoba'-koaz gaifiera: Ossonoba'ko Ithatius eta Merida'ko Idatius. Ossonoba, gaur Faro, Portugal'eko egoan Algarbeetako uri nagusia da. Merida, berriz, orduan, Lusitani'ren uriburu bikaiña.

"Ces deux derniers (Itazio'k eta Idazio'k) le firent avec une fougue tout espagnole, ce qui attisa l'ineendie, qu'on aurait pu peut-être éteindre": "Azkeneko bi auk espaiñarrek oizkoa duten garrez ekin zioten, eta, agian itzalia izan zitekean suari, indar geiago eman zioten" (Griffe, l.c. 318).

Ez da arritzekoa bi gotzai auen etsaigoa, Prisziliano Galizi'tik Lusitani'ra joan bait zan, bere dotriña lurralde artatik Espaiñi'ko egoalde jendet-suan zabaldu nairik. Baiña gogorregi jardun zuten, gotzai aiek, Merida'ko Idazio'k batez ere, eta on baiño gaitz geiago egin zuten, Ez zuan noski gaizki idatzi Sulpizio Sebero'k, Ossonoba'ko gotzaiak "sute galant artara errekin geiago jaurti zuala": "Facern quendam nascenti incendio subdidit" (l.c. 46).

Baztar guztietara zabaltzen ari zitzaien sute ura itzali naiean, kontzilio batean bildu ziran Ispanietako gotzaiak Zaragoza'n, 380'garren urtean. Egia da Ispani osora edatu zala priszilikeria. Laister Ipar-Euskalerrira zabalduko zitzaigun bezala, sartu ote zitzaigun ordurako, **Kalagurri ta Iruña** zear, Ego-Euskalerriko lurretara ere?

Danadala, Zaragoza'ko kontziliara "deituak izan ziran Akitani'ko. gotzai auzotarrak ere", "on invita les év4ues voisins d'Aquitaine". Bi etorri ziran: Bordele'ko Delfin eta Agino'ko Pebade. Seguruaski zarrena zalako, au izan zan kontzilio artako lendakaria.

Akitani'n ez zuan oraindik Prisziliano'k oñik ipiñi. Zergaitik izan ote ziran ba ango gotzaiak kontziliara deituak?

Bi uri aien eta ia Zaragoza'ko arresien bitartean Euskalerrri osoa zegoan. Orregaitik, badu deipen orrek euskaldunentzat egiazko garrantzia.

- Lendabizi, Garona eta Ibero ibaien arteko arremanak ugariak eta sarritsuak zirala esan nai du. Auñamendia ez zala bi mundu bereizten zituan orma iragan eziña. Mendi eder orren egoaldeko eta iparraldeko jendeak ez zirala alkarri bizkarra emanez bizi, aiek eta auek, mendia- zear, era adiskie detsu paketsuan alkarri eskuak emanez baizik.

Iparraldeko euskaldunen artean kristautasunaren indarra uste dan baiño aundiago zala. Egia, ez zala Elusa'ko gotzai etorri. Agian, gotzairik gabe zegoalako urte artan Elusa. 314'ean Elusa'ko Gotzai bat, Mamertinus, Arles'ko kontzilioan izan zala hadakigu, kontzilio ark emandako erabakiak izenpetu zituzten gotzaien zerrendak dasaigunez. Baiña IV mendeko beste gotzaien izenik ez dugu ezagutzen. Ez dakigu, beraz, Zaragoza'ko kontzilioa bildu zanean, Elusa'n gotzairik ba'zan.

- Zaragoza'ko kontzilioa Prisziliano Akitani'ra iritxi baiño lenago egin zan. Prisziliano bera baiño lenago iritxi ote ziran Akitani'ra aren aburuak? Badakigu Kontzilio ura amaitua izan zanez gero, Akitani'n eta bereiziki Elusa'ko kristaudian erarik goxeanean izan zirala onartuak, ainzuzen Zaragoza'ko kontzilio aren gaitzespena gaiñetik kentzearren Erroma'ra zijoazen Prisziliano ta bere lagunak. Akitani-zear egin zuten bidaldi ura. Akitani'ra iristean, berriz, "ils furent accueillis avec sympathie par de nombreux fiMes sp6:..iakment dans la r4ion d'Eauze": "Adiskideak bezala izan ziran onartuak kristau ugariaren artean; batez ere Elusa'ko lurraldean". Euskaldun jator-jatorren artean, beraz (Griffe, 319).

"FieWes" itzak, berez, "leialak", "jarraille zintzoak", esan nai du. De nombreux fidNes", nik, "kristau ugari", euskeratu diot Griffe'ri, geienetan zentzu ori izaten bai du "fid&s" orrek besterik gabe erabiltzen danean. Baiñan Griffe'k "de ses fidèles" "bere jarrailleak" onartu zutela Prisziliano esan nai ba'du, eta jarraille oiek "nombreux", "ugari" zirala dion ezker, zalantza orotik kanpoko gauza da edestilari orrentzat Prisziliano ara joan baiño lenago, Ipar-Euskalerrira sarturik zegoala priszilikeria. Eta, jakíña, Ipar-Euskalerrira sarturik ba'zegoan uste izatekoa da leenago sartuko zala Ego-Euskalerrira.

Orrela bai. Orrela badu zentzua Akitani'ko bi gotzai aiek Zaragoza'ra deituak izateak. Prisziliano'ren dotriña aztertzerakoan bearrezkoa bait zan bere elizbarrutietan ordurako dotriñ ura sarturik zeukatzen bi gotzai aiei ere dei egitea.

Beste gauza bat ere erakusten digu gertakizun onek: Naiz legez Bordele Akitani zarretik, ots Nobenpopulant'tik, bereizirik egon, ederki gordezen zuala euskaldunengan izandako itzala.

Egia da, Sulpizio Sebero'k, akitarianarren priszilikeriketa Prisziliano'k berak, Istantzio'k eta Salbiano'k egiña izan zala, idatzi zigula. Ikus bere itzak berberak:

"Ac tum Istantius, Saluianus, et Priscillianus Romam profecti, ut apud Damasum, urbis ea tempestate episcopus, obiecta purgarent. Sed iter eis praeter interiorem Aquitaniam fuit, ubi t-um ab imperi,tis magnifice suscepti sparsere perfidiae semina. Maxime Elusanam plebem, sane tum bonam et religioni studentem, prauis praedicationibus peruertere. A Burdigala per Delphinum repulsi, tamen in agro Euchrotiae aliquantisper morati infecere nonnullos suis erroribus. Inde iter coeptum ingressi, turpi sane pudibundoque comitatu, cum uxoribus atque alienis etiam feminis, in queis erat Euchrotia ac filia eius Procula, de qua fuit in sermone hominum Priscilliani stupro grauidam partum sibi graminibus abegisse" (Chron. 48).

Euskeraz, zatika emango dut:

"Orduan, Erroma'ra abiatu ziran Istantzio, Salbiano ta Prisziliano, garai artan Aitasantu zan Damaso'ren aurrean jaurti zitzaizkien salaketak zuritu naiez.

"Bidea, Akitani'aren barrua-zear eraman zuten aurrera. An, (Akitani'n), erein zuten beren gaiztakeriaren azia, oso ederki artu zituan jende ezjaikiñaren artean.

"Batez ere, ordura arte benetan ona ta erlijio-jakintza-zalea izandako erriko jende Elusatarra okertu zuten, beren itzaldi makurren bitartez.

"Bordele'tik Delfino bertako gotzaiak uxatu zituan. Bañan alditxo batez Eukrozi'ren landa-etxean bizitu ziran eta an kutsatu zuten beren okerkeriz bat edo bat baiño geiago.'

"Andik irten ziran bidera, lagun lizun lotsagarriz inguraturik, ezkonduekin eta gaiñerako emakumeekin; Eukrozi zan auetako bat, eta Prokula,

---

Eukrezi au, ospe aundiko emakumea Bordele'n, Delfidio legiztilari ta erretorikalari aundiaren emaztea izan zan, eta arengandik izan zuan Prokula izeneko alaba bat.

aren alaba. Jendeak esaten zuanez, Prokula au, Prisziliano'k izurratua gertatu omen zan. Eta belar batzuk erabilliz galdu omen zuan untea"ron a uno y otro lado de los Pirineos" (ib 487).

Gauza eder asko esan nai dizkigute gertakizun oiek. Adibidez:

III mendearen amaierako Akitani euskaldunean kristautasuna sarturik zegoala, bagenekigun gauza da; IV mendearen asieran Elusa'ko gotzaia Arles'ko kontzilioan izan zala dokumentu-bidez argi dagoan gauza bait da. Baiñan Iendik bagenekigun ori, geiago eskiertzen digu, IV mendean priszi-likeria Elusa'ren lurraldean zabaldu zala jakiteak.

"Elusa'ren lurraldea", Akitani euskaldun guztia zan, Akitani iru zati egin zanean Nobenpopulani edo III Akitani'ko uriburu egin bait zuan Erroma'k Elusa.

- Are geiago, goigotzai-uri zan orduan Elusa. Orrek esan nai du Akitani'n gotzai geiago bazirala, bestela, Elusako gotzaia goigotzaia egiña izaé teak ez bait luke zentzurik izango. Ez beintzat garai aietako oituretan.

- Gotzai geiago baziran, beraz, IV mende artako Akitani euskaldunean. Eta, gotzai geiago ba'ziran, baziran baita kristauak ere ugari Akitani guz-

---

Prokula, "stupro grauidarn" gelditu zala dio Sulpizio Sebero'k. Legiztiko izkeran, "stuprurn" legezko adin nagusira iritxi ez dan emakume bat aragikeri-rako erabiltzeari esaten zaio. F.7 dezagun aztu legiztilari zala Sulpizio Sebero. Neskatil gazte izanen zan, beraz, Prokula, Sulpizio Sebero'k erriaren esamese-tatik jaso zituan albiste oiek egiak ba'dira beintzat. Baiñan ziur esan daiteke egiak ez dirala, Egiak izan ba'lira, agertuko bait ziran Prisziliano eriotzara galdu zuan epaille gurenaren sententzian neskatil aren "stuprozko" izurra bera, eta batez ere ondorengo a:ur-galtzea; okerkeri aundia zan ba "stuproa", eta izugarritzko gaiztakeria berriz orduan abortoa. Baiñan ez zan Prokula eriotzara galdua izan. Eta Prisziliano'ren aurkako epaiketan ere ez da ezer orrelakorik agertzen. Gaiñera, Prisziliano' ren izakeraren aurka doa zikinkerori guztia: "Oso jakintsu eta izlari arras yayoa izateaz beste iñor gutxi bezala bait zan oituraz gizon garbia": "il joinait a beaucoup de savoir, a une grande quence, une rare austerite" de moeurs" (Grand Larousse). Bere irakasketak, sortu ziran bezain laister iritxi ziran Euskalerrira "y echaron rafces en Aquitania y en el valle del Ebro, a juzgar por los concilios condenatorios que se celebraron en Burdeos y Zaragoza" (A.Azkarate Garai-Olaun: "Eremitismo Epoca Visigot". "Codex Aquilarensis, 3, 1991". Aguilar de Campdo)

tian. Ez bait zaigu zillegi, gotzai aiek, ardirik gabeko artzaiak izan zirala uste izatea.

- Orrek ez du esan nai Akitani'ko jende guzia kristau zanik. Ezta askoz gutxiagorik ere! Akitani'n mundu osoko probintzi danetan bezala, jenderik geien-geiena oraindik jentilla zan; zer esanik ez, ianda izkutu, baso illun eta mendi garaietako nekazari, artzai, egurgille eta ikazkiflen artean. Birresan dezagun, ordea, ori aldi artan kristaudi osoko kontua zala. Orixe bera gertatzen bait zan Espafli'n, Fran121'n eta Aitasantuaren Itaii'n bertan.

- Prisziliano, Zaragoza'ko kontzilioaz gero, adiskide bezala artu zuten akitanian askok. Orrek, akitanian aiek lendik ere priszilikeria ezagutzen zutela, esan nai duala dirudi. Prisziliano ez zan Akitani'ra bere dotriña zabaltzera joan; EspaiWtik Erroma'ra joateko andik igaro bear zualako baizik. Alare ain ederki izan zan onartua. Akitanianrek lendik ere aren ekintzak ezagutzen zituztelako, iñolaz ere.

- Baiñan, Ipar-Euskalerrira iristeko, ote zan priszilikeria leenago Ego-Euskalerrira sartu? Espafit'tik bertago bait dago Ego-Euskalerrria! Eta Ego-Euskalerrria bait da Ipar-Euskalerrirako bidea!

- Danadala, Zaragoza'ko kontzilioaren aurretik ere, priszilikeria gure artera sarturik zegoala esango nuke nik, Orren adigarri dirala ematen bait du, kontzilio ura non eta Euskalerrria ukitzen zegoan Zaragoza'n egiña izateak, eta kontzilioa artara nori eta, Españi'ko gotzaiei ez **Akitani** euskalduneko gotzaiei ere dei egin izateak.

"O felix culpa", "zorioneko obena", esan oi dio Elizak Adan'en pekatuari, ondorio lez Jainkoa gizon eginda gure artean bizitzera ekarri zigulako. Orrelako zerbait oiukatu genezake guk ere: "o zorioneko priszilikeria", antziñate artako euskal-kristautasunari begiraldi bat emateko, zirriku aski eder bat iriki digulako

Izan ere, ereji batek alako indarra artu izateak, Euskalerrrian kristautasuna ordurako zarra zala esan nai du. Aski zarra, ta urduria, kezkatia, kementsua: "Fait caracteristique, car l'heresie, ce sous-produit de la eration théologique, est toujours un symptonie d'activitC (Marrou 1.c. 334) "Zantzu emaillea, erejia! Teologiaren ondakiña izanik, bizitasun baten adigarri bait da beti": kristau-bizitasun baten adigarri.

Ori, ereji-sortzaille izan daitekean erriaz esaten du Marrou'k. Baiñan berdin balio du alako sendotasunaz erejia onartzen duan erriarentzat ere.

Baiñan Kontzilio batean gaitzetsia izan zala esan dugun ezker, naita-naiezkoa izango dugu noski, Prisziliano'ren oidozkeraz ere zerbaitxo bat esatea.

Ez da erreza. Ez bait zuan berak beñiere argi eman bere oldozkeraren albiste zeatzik.

Priszilikeriaren muiña gnosikeriz eta manikeriz oreturik zegoala esan oi da, eta egia da esaten dan ori --.

- Gnosikeria, ereji zarra zan. Kristautasuna mundura agertu aurretik, juduen artean sortua. Bi dogma edo irakaspen nagusi zituan gnosikeriak:

1<sup>2</sup>: Aszetikaren arloan, "zertitiko jakintza jainkotiar bat" sinistea. "Gnosis" itzak berak ere "Jakintza" esan nai bait du. Gizakumearen eginkizun nagusia, "jakintza" Jainkoak bakarrik eman dezakean "gnosi" edo jakintza ori merezimenduz lortzea da. Eta "gnosiarekin", zoriona.

2<sup>a</sup>: Teologiaren arloan, Izadiak bi egille izan dituala sinistea: Egille oietako bat Jainko ona da; bestea "demiurgo" izeneko jainko gaiztoa. Jainko ona, izpirituen egillea da. Jainko gaiztoak sortu du, berriz, "materia", ots, gorpuzki dan oro. Gizakumeok, gorputz eta izpiritu geralako, jainko onaren eta jainko gaiztoaren ekintza gera.

Jainko-bikoiztasun au, gnosikeriak, sortaldetik, batez ere Pertsialdetik jasoa zuan.

Manikeria, ainzuzen, Pertsialn sortua da. Mani esaten diote batzuek, Manes beste batzuek, bere sortzailleari. Agian orregaitik, gnosikeriaren jainko-bikoiztasuna da bere ezaugarri nabarmenena; teologiaren aldetik mito-sorta nasi zorabio garri bat besterik ez bait da.

1<sup>o</sup>: Bere teologiaren aldetik, manikeriarentzat gauza gaiztoa da materi oro, gizonaren gorputza adibidez, jainko gaiztoak egiña izan dalako. Ortik gora, mito-sail nasi zorabio garri bat besterik ez da Manikeria.

2'n: Aszetikaren aldetik, gizakumearen *egin* bearra, gorpuzkiek eta batez ere bere gorputzak eman dezaketan atsegiñetatik iges egitea da. Ezkontza bera gauza gaiztoa dala uste izango dute manitarrak zintzoenek. Gnosikeriak ere esan zuan ori manikeriaren aurretik, emaztei senarrarengatik bereiztea aolkatuz.

Gnosikerizale ta manitarrak izateaz gaiñera beste akats batzuk ere aipatzen ziran Prisziliano eta Prisziliano'ren jarraileen aurka:

- Penitentzi gogorregien naitaleak zirala;
- Gotzaien zaintzapetik urrun bizitzearen zaleak zirala;
- "Apokrifo" edo "sasi-bibli-liburuei egiazko bibli-liburuei baiño garrantzi geiago ematen zietela
- Beren siniskera eta biziera izkutuan gordetzea atsegiñegia zitzaiera, eta orregaitik beren billerak basoetan-da egiten zituztela;
- Berez duan baiño balio aundiago ematen ziotela lekaidetzari;
- "Elerti a Deo", ots, "Jainkoak berak aukeratuak zirala" esanez, gaiñerako kristauek gutxiesten zebiltzala;

Aztikeritan eta majigintzan ari izaten zirala.

Oso-oso arriskugarria garai artan azkeneko saiaketa au, majikeria Erroma'ko legez, batez ere garai artan, eriotzara zigorturik bait zegoan. "Erroma'ko Inperatore jentillek beraiek ere izugarrizko bildur-ikara izan zioten majikeriari eta neurriak artu ere artu zituzten gaitzakeri orren aurka": "The pagan Roman emperors lived in terror of sorcery and took measures against it" (Ency.

Ala zegoan manikeria ere, Diokleziano'z gero, eriotzez zigortua. "287'garren urteaz gero sutara jaurtitzen bait zituan aren lege batek manikeriaren zabaltzailleak, buruzagiak eta liburu nardagarriak": "D6' 287 une loi de l'empereur Diocétien condamnait a feu les organisateurs et chefs du maniquisme, avec leurs abominables critiques"(Dic. Theol. Cat.)22.

Merida'ko idazio'k Damaso Aitasantuari idatzi zion, Prisziliano'ren gaitzespena eskatuz. Ederki erantzun zion Aitasantuak, Elizak ez duala iñor gaitzezten, aurretik gaitzetsibearrari entzun gabe.

---

<sup>21</sup> Erroma'ko inperatore jentillen bildur ura ulertzeko, majikeria eta aztikeria bata bestearengandik bereizi bearrak dira. Aztikeria, etorkizuna ezagutu nai izatea da. Inperatore jentil guztiak izan ziran aztikerizate porrokatuak. Ez zizuten beñere deus asiko, aurretik aztiei iritzi-eskatu gabe. Besterik da ordea majia, izkutuko jakintzen bidez ednzeiñi gaitz egiteko aalmena.

<sup>22</sup> Lege orren berri zeatzagorik jakin nai ba'duzu, liburu ortan bertan, ots "Dictionnaire de Theologie Catholique"ren Manieheisme itzean, I.852'garren zutikakoaz aurrera aurki dezakezu.

Ortik sortu zan Zaragoza'n kontzilio bat egiteko erabakia. 12 gotzai bildu ziran kontzilio artan: 10 españiarrak, 2 akitaniarrak. "EI concilio anatematiz(5 muchas prLticas en bega entre los priscilianistas, sobre todo las reuniones secretas y ciertos excesos de fairsa. piedad. El tiro iba dirigido aI corazdn de la nueva seeta" (Llorca, 1: 445) Baiñan badirudi ez zuala Prisziliano bera gaitzetsi.

Danadala, Abila'ko gotzai sagaratu zuten Istantzio'k eta Silbiano'k, ordurarte kristau utsa besterik ez zan Prisziliano. "Con ello se quebrantaron los c&lones y la costumbre existente; pero todo eso les preocupaba a ellos muy poco. Con la misma falta de eserdpulos se dieron entonces a consagrar obispos y a consagrar presbfteros sobre todo en las regiones de Leon y Galicia. El resultado fue una verdadera confusidn, con la duplicidad frecuente de parrocos y obispos en multitud de iglesias y didcesis" (id.ib.). Geitxo esatea da noski.

Merida'ko Idazio'k Graziano inperatorearen aurrean salatu zuan Prisziliano, eta Graziano'k erbestera jaurti zituan Prisziliano ta bere gotzai lagunak.

Orduan jarri ziran auek, Prisziliano, Istantzio eta Silbiano **Erro-**ma'rako bidean eta orduan iritxi ziran Akitani'ra eta izan zuten emen, Elusa'ren lurraldeetan bereiziki, alako onarpen maitetsua.

Lasai ta batere eragozpenik gabe i<sup>g</sup>aro zituzten Auñamendiko bideak, paketsu urbildu diranentzat, beti izan bait dira edestiaurre berberaz gero bide paketsuak, lasaiak eta kezkarikge ibilli daitezkeanak, naiz ongi ezagutzen dugun Nola'ko Paulino'k erretolikazko jostaketa txoro batean eta laister ezagutuko dugun Aymeric Picaud'ek asarraldi txoroago batean Auñamendi'ko jendeaz batere oñarririk gabeko txorakeri iñozoak asmatu.

Ederki idatzi zuan Julio Caro Baroja'k:

"Por muy desiertas que imaginen los poetas las faldas del Pirineo y por muy infranqueables que los pinten en aIKun momento de libertad verbal (azpimarraketa, nere), hay que considerar que sus pasos también



fueron usados una y otra vez por masas de hombres de carácter distinto y aun de origen lejano".

Ez ziran ordea Prisziliano, Istanzio ta Silbiano bakarrik izan, ifiondiko jendeen aldetiko nekerik gabe Auñamendia igaro zutenak. Prisziliano garaitu nairik iru aiek egindako bidea egin bait zuten Auñamendia-zear Galieta-runtz Idazio'k eta Itazio'k.

Ez zuten bi auek ere Baskoi basati lapur ankerrik bidean aurkitu, eta beste iru aiek bezain paketsu ta alai ibilli ziran Euskalerriko oian, mendate ta arrupe-bideetan.

Zenbat denbora egon ote ziran Euskalerrian Prisziliano ta bere lagunak? Ez dakigu. Ez, ordea, illabete batzuk baiño geiago.

Zer izan ote zan Akitani'ko euskaldunei priszilikeritik atsegiñena izan zitzaien gauza?

- Priszilikeriak gnosikeritik artua zuan "gnosi" edo zeru goitik bakarrik etorri zitekean sasimistikazko "jakintza" miresgarri ura? Ez, seguruaski. Euskalduna berez geiago da aszetika-zalea mistika-zalea baiño. Mundu ontako bizitzari dagozkionetan ere naiago izan bait du gauzak zerutik erori zai egon baiño gauza oiek bere Janez irabazi.

- Prisziliano'k gnosikeriari eta manikeriari zor zien jainko-bikoiztasun ura? Ez dut uste. Euskalduna, gaurko euskalduna beintzat, ez da orrelako ipuien maitale. Bai ote zan orduangoa? Urtzi jainkoa gurtzen zuan euskaldun zar ura? Ez dakigu, baiñan etnologiak ez digu orrelakorik uste izateko kirtenik ematen.

- Egia da, erromatekoan sartu zitzaigula sasijainko-gurketa eusko-lurretara, Akitani'ra bereiziki, bertan aurkitutako sasijainkoen aldareek adierazten digutenez. Orrekin bai ote du zer ikusirik Priszilikeria batez ere Akitani'ra sartu izateak? Ez dut uste. Priszilikeria sasijainkokeritik milla leguaz urruti bait dago.

Manikeritik artuta Prisziliano'k erakusten zuan zorrozkeri latza izan ote zitzaigun euskaldunak arenganatu zituana? Baleike. Euskaldunak bai

---

"V fas de Comunicacido Antiguas" ("Historia General del País Vasco", II. 101'garren orrialdetik aurrera), guztia da irakugarria), naiz Caro Baroja'k bere lan guztietan Euskalerraren kristauketa berandutuzaleei garrantzi geiegi eman. Ez da ortan bakarra.

bait du zorrozkerirako joera. Joera orren ondorioa izan zan, bereala Euskal-lerrian sortuko zitzaigun lekaidetzarako zaletasun sinista-eziña. Euskaldunak ez du beñere zorrozkerirako zaletasun ori galdu. Ez dezagun aztu, XVII mendean jansenikeria jaio zanean, jansenikeriaren morala eta aszetika ez zirala Jansenio olandarrak sortuak izan; Euskaldun batek sortuak izan zirala, Jon Duvergier de Hauranne, aurrena Baiona'ko kanonigo eta gero Saint Cyran'go abatak sortuak.

- Euskaldunak aztikerizaleak izan zirala badakigu. Orixe bera jaurtitzen zioten Prisziliano'ri ere lepora bere arerioek. Aztikeria izan ote zan M Prisziliano eta onen aldera urbildu ziran euskaldunen arteko zubia? Ez dut uste. Ez bait zait, ortarako, aski zubi sendoa iduritzen. Alderantziz, zubi orrek, gure erri-abesti batek dionez, "Kaitano'k egiñ omen zuan lastozko zubi aren" antza aundikoa dala esango nuke nik's.

Badakigu emakumezkoen artean izan zuala Prisziliano'k arrakastarik aundiena. Gure andre eta andereñoak ere, "catervatim", "pilloka" joan ote ziran arengana?

Ez dezagun alare, kristau euskaldun guztiak priszilikeritarrak egin ziranik uste. Españi'n bertan ere ez bait zan orrelakorik gertatu. Alatagutziz badakigu zabaltasun aundia izan zuala priszilikeriak an. Pentsatzekoa da beraz orrelako zerbait gertatuko zala gure Akitani'n ere, batez ere Elusa'ko lurraldeetan "nombreux", "ugari", izan zirala bait diosku Griff'e'k Sulpizio Sebero'ri jarraituz, Prisziliano "avec sympathie", "begi onez", artu zutenak.

Ez zuten ain begi onik aurkitu Erroma'n eta Milan'en. Milan'en sartu-atera bat egitea bearrezko gauza zuten, an bait zegoan gotzai, orduango elizgizonik jakintsuenetako eta, orregaitik, eraginmenik aundienetako bat: Ambrosio Donea. Baiñan, Prisziliano ta priszilianotarren kalterako, Donambrosio gotzaia Milan'en eta Donedamaso Aitasantua Erroma'n, Zaragoza'ko kontzilioak erabakitakoarekin bat egiñik zeuden.

---

<sup>24</sup> Kaitano'k egiñ omen du - lastozko zubia  
andikan pasatzeko - bera ta nobia;  
pasatzen asi eta, - puskatu zubia,  
Kaitano'k artu omen du - sentimentu aundia.

Ez da arritzekoa ere Delfidio Bordele'ko gotzaia Prisziliano, Instatzio ta Salbiano iritxi-berrien aurka jeiki izatea, bera bait zan Zaragoza'ko kontzilioan egon ziranetako bat.

Adur ohea izan zuten Erroma'ko Jaurlaritzaren aurrean, iruzurketa bidez Sulpizio Sebero'k dionez lortu bait zuten Espatii'ra yare itzul tzeko baimena. Saibiano'k ez zuan, Erroma'n il zalako, baimen ortaz ha-liatzerik izan. Bein Prisziliano ta Istantzio Españi'n, aien aide jarri zan orain Prokonsul edo Jaurle Nagusia, ta Ossonoba'ko Itazio espetxeratzea erabaki zuan. Onek ordea, aurrea artuz, garai artan Sarkaldeko inperato-rearen egoitza zan Treberis'era iges egin zuan.

Ori izan zan Prisziliano'ren ondamera, gertakizunen ibillera bere etsaien alde jarri bait zitzaion.

383'garren urtean, Britani'ko lejiok Inperatore egin zuten, ordura arte Probintzi artako gudaroztearen buruzagi zan Maksimo. Kale (Calais) derit-zan itxas-lepoa igaro, ta borrokarik gabe sartu zan Galietako uriburu zan Treberis'era garaille, bere aurka zi Joan Graziano Lyon'en Andragothius zeritzan gudarozteko buruzagi barbaritar batek azpikeriz erailla izan zalako.

Seguruaski bere onespenik gabe egindako erailketa koldar aren ondo-rioz, Britani, Gali, eta Ispani'ko jaun da jabe billakatu zitzaigun Maksimo.

Ez zan legezko inperatorea. Indarrabidez agintaritzaz lapurtu zuan sasiinperatore bat besterik ez zan. Baiñan lurralde aietako jendeak atseginki artua izan zala Egiatzko inperatoretzat euki zuan, beintzat, Sulpizio Sebero'k. Eta baita Turona'ko Martin Doneak ere; eta Galietako beste gotzai guztiek. Izan ere, Erroma'ko inperatoreak maizenik gudarozteak jarriak izaten ziralako, ez bait zan erromatekoan gauza erreza, legezko agintaria nor zan eta nor ez zan ziurki jakitea.

Sarkalde osoan, soilki Itali eta Afrika gelditu ziran II Balentiniano egiazko inperatore herriarentzat.

Bereala sartu zan Maksimo sasiinperatorea priszilikeriaren istilluetara, lagun egin zitzaion Itazio'k eraginda. Bordele'n kontzilio bat egiteko agindu zuan, eta kontzilio ortarako deia egin zien Prisziliano'ri ta Prisziliano'ren lagunei.

Kontzilioa asirik, Istantzio mintzatu zan aurrena, bere burua zuritu naiez. Alperrik. Gotzai goz erantzia izan bait zan.

Prisziliano'ren garaia izan zan gero. Onek, bere irakaspideen aurka, eta bere burua ber-beraren aurka, kontzilioko gotzaiei jurisdizioa, ots,

epaiketa artarako almen oro ukatuz, auzi guzia Maksimo inperatorearen eskuetara eramana izan zedilla eskatu zuan.

Eskari ori, berak ordura arte irakatsitakoaren aurka egin zuan, len bere "Kanon"etan "quia eclesistici non debeant ob suam defensionem publica adire iudicia sed tantum ecclesiastica", idatzi bait zuan, ots, "elizgizonek, eliz-epaitza baztertuta, beren buruak babesteko, erri-epaitzara ez zutela jo bear".

- Eta, bere buruaren aurka..., berak iñolaz ere itxaro ez zezakean ondorioak izan bait zituan inperatoreaganako dei arek. Bordele'ko kontzilioan bildutako gotzaiek, ontzat artu zuten ba Priszillano'ren dei ura. Asarre gelditu zitzaien Sulpizio Sebero, len ere Idazio'ri onek Prisziliano Graziano'ri salatu zionean asarre gelditu zitzaion bezala.

"Con razdn censurd ya Sulpicio Severo a los sinodales de Burdeos, los cuales en lugar de pronunciar sentencia como jueces ecelesiisticos competentes incluso sobre un Prisciliano recalcitrante o transferir sus facultades a otros obispos si Prisciliano les acusaba como parcia.les, dejaban asf libre el camino para un proceso civil" (H. Jedin. II, 196).

Treberis'era erarnanak izan ziran Prisziliano ta bere lagunik nahar-menetak.

An, "los obispos Itacio (osobonatarra) e Idacio (meridatarra) reemprendieron con renovada vehemencia su campafia difamatoria, presentando tambiM sin vacilar como sospechosos a todos los adeptos o discfpulos de Priseiliano que se ocupaban con alguna seriedad en la lectura de escritos religiosos o Ilarnaba.n la atencidn por su disciplina asc&lca. Esta sospecha alcanzd a San Martfn de Tours, que durante una estancia en Trveris requirid insistentemente tanto a Itacio como al emperador a retirar la acusacidn ante el tribunal secular", sinismenari dagozkion auziak ez omen ziran ba, Donemartifl'en ustez, laterriaren epaigeletan epaituak izan bear, soilki ta beti Elizarenetan baizik (Ib.196-197).

Bere auziak aztertu ta epaitzeko Elizaren burujabetza orokor eta "iñoren eskuetan utzi ezifiaren" babesle aundia izan zan Turona'ko Martin gotzai Donea. Elizak berea zuan eskubide ori; berea bakarrik; ez zezakean beste iñoren eskuetan utzi, naiz "beste iñor ori" inperatorea ber-bera izan.

AIa, ez zan deus egin Donemartin Treberis'ko urian egon zan bitartean, baiña gero, ura bere Turona'ra itzuli zanean, bi gotzai galitarren aolkua jarraituz, Ebodio "viro arri et seuero" (id) "epaille latz eta zorrotza-

ri erran zion inperatoreak Prisziliano, Istantzjo eta beste priszilitarren aue ziaren azterketa.

"Tras un doble interrogatorio, fue declarado Prisziliano culpable del delito de magia ("malefium"), afirmandose ademas que tampoco habla negado otros delitos morales, como la participaciOn en negocios de lascivia" (Llorca ib.).

Ikusi dezakezunez, epaiketa artan Prisziliano'ren erejirik ez zan aipatu ere egin. Beste okerkeri batzuk leporatu zitzaizkion, eta leporatu zitzaizkion okerkeri oiek garai artan geiago ziran Laterri-legearen aurkakoak, Elizako kanon-legearen aurkakoak baiño:

- "Aztikeri ta majikerietan ibilli oi zala";

- "Lizunkeria erakutsi zuanik, ez zuala ukatu": "nec diffitentem obscenis se studuisse doctrinis";

- Eztare, ez zuala ukatu "gauzez emakumezko lizunekin alkartu oi zala, eta billutsik otoitz-egin oi zuala": "Nocturnos etiarn turpium feminarum egisse conuentus nudusque orare sofiturn" (Sulpizio Sebero, II, 50).

- Gnosikerizale omen zalaren aldetik leporatu zitzaion, agian, Prisziliano'ri lizunkeritasuna. H mendeko gnosizale batzuek ala, adibidez, Epifanes idazleak, Karpokrates izentsuaren semeak gauza danak, baita emakumeak ere, gizaseme guztienak zirala erakusten bait zuten. Esan dugu naspilkeri aundia izan zala gnosikeria. Orregaitik, batzuek laztasunera jotzen zuten bitartean, lasaikerira murgildu ziran beste batzuk.

- Sulpizio Sebero'k damaizkigun Prisziliano'ren aurkako salaketa oiek, Bordele'n erriak Prisziliano'ren aurka karriketean esandakoen eta, bearbada, ertzaingietan priszilitar baituek aitortutakoen oiartzuna besterik ez dira. Eta orduango ertzaingietan aitopenak nola izaten ziran atereak eta gaurkoetan ere nola atereak izan oi diran, ederkitxo dakigun gauza da.

Alare salaketa oiek, aurrenekoa batez ere, naikoak ziran orduango Erroma'ko legearen araura edozein eriotzari galdua izateko. Eta orregaitik ain zuzen eta ez ereji-erakusle zalako Ebodio "gizon zorrotz eta latzak" (ib) eriotzara galdua.

Ez da beraz egia, ainbat aldiz esan dan eta esan oi dan bezala, Prisziliano izan zala erlijiozko auzi batengaitik eriotzez zigortutakolenen gizakumea.

"Despuas de todo lo dicho uno se pregunta cual fue el crimen que present6 el tribunal para motivar una sentencia tan rigurosa. SegtIn. todos

los indicios no fue el crimen de herejia sino el de maleficio (utilizaci6n de la magia). Efectivamente, examinando la sentencia dada por el trihunal de Tréveris, no aparece mas que ese crimen. Los demas que se expresan en la sentencia, es decir, 'doctrinas obscenas y reuniones nocturnas con mujeres torpes' fueron únicamente circunstancias agravantes. En realidad la magia era uno de los crfmenes que ni fi detestaron los emperadores cristianos" (Llorca, I, 447).

Egia. "Sententzi" artan ez bait da aipatu ere egiten ez Prisziliano'ren manikeririk ez gnosikerik, ez beste iñolako ereji-motarik. Dirudianez, Ebodio epaille "latz eta zorrotzak" ez zituan gai oiek ukitu nai izan.

Ez da arritzekoa. Itazio'k berak Prisziliano'ren aurka "crimen" edo "gaiztakeri" orixe ainzuzen, eta, orrekin batera, soilki beste lizunkeri aiek, aurkeztu bait zituan epaillearen aurrean gaiñerako salaketa guztien aurretik: "Mucho tiempo exigid en Tréveris la tramitaci6n de este proceso erimlnal, puesto que de tal proceso se trataba, ya que Itazio habfa hecho pasar a primer término los presuntos actos criminales de Prisciliano" (Jedin, ib.). Ala, Ebodio "latz eta zintzo" arek, ortaz bakarrik eman zuan bere epai-itza erejia bera ta erejiarekin zer ikusirik izan zezakean guztia epaitu gabe lagaz.

Alare, epaiketa arek "izugarrizko zirrara sortu zuan eliz-gizonen artean", "Cette condamnatiom provoqua une profonde émotion parmi les hommes d'Eglise" (Griffe, 321). "Fue enorme el eco que suscit6 la pena de muerte; los obispos más destacados de la epoca la enjuiciaron con términos muy negativos. Segtin parece, también el papa Siricio habfa solicitado del emperador un informe sobre los sucesos de Treveris ..." (Jedin, II, 194),

Jaso zuan oiva, nola ez, Turona'ko Donemartirie'k berriro. Eta Done-martift'ekin bat egin zuan Milan'go Ambrosio Doneak ere. Prisziliano espet-xean gordea izan zan, baiñan azkenean aren etsai ziran gotzai aien aolkua jarraituz, inperatoreak eriotzazko zigorra betetzeko agindu zuan, eta ezpataz lepoa moztuta kendu zioten Prisziliano'ri bizia. Ambrosio Doneak, asarre ta nazkaturik, ez zuan arrezkero, eriotz artan nolabait zer ikusirik bazezaketan gotzaiekin, "Communio" edo "Alkarterik" izan nai. Era berdiñean jardun zuan Donernartirl'ek ere, berealaxe ikusiko dugun lez.

Prisziliano'rekin batera izan ziran eraillak beste elizgizon asko, eta baita Eukrozia zeritzan Bordele'ko andre alargun ura ere. Beste batzuk, ala

Instantzio gotzaia (Bordele'ko kontzilioan gotzaigoz erantzia izan zan ura).  
erbestera jaurti zituan Maksimo'ren justiziak.

Prokula neskatiillari gertatu zetzaiokenaren berri jakin naiko du irakurleak, batez ere emakumezkoa ba'da. Ta ezer ziurrik ez dakigula, esan bearko diot.

Aipatzen ditu, ("Commemoratio Professorum Burdigalensium", V,35-38), Ausonio olerkari bordeletar ospetsuak Eukrozi ta Prokula arna-alabak, 40 urterekin ildako Delfidio Eukrozi'ren senar eta Prokula'ren aitari eskeiñi zion "oda" batean. Oda ortan Prokula'ren ibillera makurra, bai, aipatzen du Ausonio'k; ez, ordea, neskatil doakabe aren amaiera. Ona legegizon ospetsu eta erretorikalari yayoa izan omen zan Delfidio adiskidearentzat Ausonio'k idatzitako azken aapaldia:

" Minus malorum munere expertus Dei  
Medio quod evi raptus es:  
Errore quod non deviantis filiae  
Poenaque laesus conjugis.

"Jainkoa lagun, zure bizitzaren erdian joan zeralako  
ez duzu (zetorkizun) zoritxar osorik sufritu:  
ez zaitu zauritu alaba bide-galduaren oldozkera makurra  
ta emaztearen zigorketa (ikusitako bearrak).

\*

Esan dezagun, Prokula gaixoaren izena garbitzeko, Ausonio'k ez ziola, Prokula'z erriak marmariz esaten zuanari, Sulpizio Sebero'k añaiko uste onik eman, neskatil aren aurka darabilkian, "error" itzak oldozkera okerra adierazten bait du zuzenean, eta ez pekatuzko ekintza gaiztoa: adimenkeriari geiago bait dagokio "error" itza, aragikeriari

Ta? Prisziliano bera, bizikeraz garbia izan zala dirudian bezala, garbia izan ote zan oldozkeraz ere? Erejea ote zan? Bai noski, Treberis'ko epaiketan ez zan Ebodio epailea punttu ori ukitzera ausartu, agian bai bera eta bai Maksimo ere, ori egiteak, ots, inperatorearen epai-maia norbait erejiz epaitzen asteak, gotzaien artean piztuko zuan asarreaz oartzten ziralako. Baiñan eliz-edestilari geien-geienen ustez, gnosikeriz eta manikeriz orban-dua egon zan Prisziliano'ren dotriña.

Ez zan zigorketa aiekin, ez Frantzi'n ez Españi'n pakerik lortu. Euskalerrian?

- Españi'n, len bezala jarraitu zuten priszilitarrek, eta ugari ziran oraindik aien artean gotzaiak ere. Martirienak izan balira bezala artu zituzten Treberis'en eraildako aien gorputzak, eta santuen izenak bezala izan ziran omenduak erbestera jaurtitakoen izenak. Ta, Prisziliano'ren izenean egiten zan ziña, balio bereizizko ziña omen zan aientzat. Bizirik iraun zuan priszilikeriak IV mendearen azkenera arte. Orduan, 397'tik 400'era Toledo'n ospatutako sinodo baten ondorean galdu zuan bere indarrik geiena.

- Frantzi'n, Prisziliano'ren erailketaren ondorean herebiziko asarrea piztu zan Itazio'ren aurka onen jardunkerarekin bat egin ez zuten gotzaien artean. Baiñan bereala bildu zuten inperatorearen lagun ziran gotzaiak kontzilio bat Treberis'en bertan, eta erru orotik zuritu zuten an Itazio. Alperrik. Bereala kendu bait zitzaion oni Osobona'ko gotzai-aulkia. Idatzio'k, bere borondatez utzi zuan berea. Alare, 400'garren urtera arte bi zati egiñik egon zan Galietako gotzaidia: Itazio'k erabillitako jardunkeraren etsaiak alde batetik, Itazio'ren eta inperatorearen lagunak beste aldetik.

Gertatu ziran zalapartak erriko jendeen artean ere. Ala, "Bordele'ko karriketan sortutako zalaparta batean Prisziliano'ren etsaien eskuetan arrikatua izanik galdu zuan bizia emakume priszilitar setatsu batek": "Bordegalae quaedam Prisciliani discipula nomine Urbica, ob impietatis pertinaciarn per seditionem vulgi lapidibus extincta est".

Euskalduna ote zan emakumezko gaixo ura?

Urbika zuan beintzat izena, eta baleike euskalduna izatea, Euskalerriarren mugan zegoalarik Bordele seguruaski euskaldunez beterik egongo zalako, eta Prisziliano'k here jarraillerik geienak emakumezkoen artean eta

---

<sup>25</sup> Prospero Akitaniarra: "Cronicum Integrum", II, 736: Honorio et Evodio Consules izenburu duan ataltxoan. Dakusazunez, naiz asko *izan* Akitani'n eta inguruetan priszilikerira jausi ziranak, elizkiderik geien-geienak Elizari zintzo gelditu zitzaizkion. Katoliko zintzo auek ordea emakume arrikatu ori eta geroago etorriko diranak lekuko ez ziran erejeak baiño zintzoago ibilli. Okerrago baizik, or gure lotsa ez bait zuten Priszilitarrek iñor erail!



Elusa'ko elizbarruti euskaldunean ainzuzen, ots, emakumezko elusatar euskaldunen artean bildu zitualako.

- Ta, Euskalerrian? Nola ta noiz bukatu ote zan euskaldun akitaniarren arteko priszilikeria? Deus ez dakigu arazo oni-buruz: Iparraldeko euskaldunen albisteak jakiteko, Bordele'n Sulpizio Sebero bat izan genuan bezala, Egoaldeko euskaldunenak jakiteko, ez bait genuan Kalagurri'n edo Zaragoza'n aren antzeko edestilaririk izan.

Baiñan bada, laister Araba'ko mendietan agertuko zaigun lekaidetza indartsu miresgarriak priszilikeriarekin zer ikusirik izan dezakeala-edo uste izan duanik. Baiñan ez dago pulamentuzko arrazoi bat bakarrik ere, ori pentsa aal izateko.

Atal au amaitu aurretik, galde bati bearko diogu erantzun: Prisziliano'-ren aurkako epaiketa, soilki aren aztikeri ta majikeriaren aurka izan ba'zan egiña, zergaitik ainbeste asarretu ziran Donemartin, Doneambrosio ta Doneririzio Aitasantua?

- Lendabizi, elizgizon bat Elizaren aurrean ez baiña Laterriaren aurrean salatua izan zalako. Ala "esaten zion eten gabe, orduan Treberis'en zegoan Martin Doneak Itazio'ri, egindako salaketa ura ezereztu zezala. Maksimo'ri, berriz, gizagaixo batzuen odoletan bere burua ez zikintzeko eskatzen zion, naikoa ta naikoa baiño geiago ere bai omen zan ba gotzaiek epaituta ereje aurkitzen zana Elizatik eskomikatua izatea; gogorra ta sekulan entzun gabeko gauza gaiztoa zala Elizari zegokion auzia Laterriko epaille batek epaitua izatea".

Entzun, nik euskeratu dizkiodan Martiñ'en itz oiek, Sulpizio Sebero'k dakarzkigun bezala:

" Namque tum Martinus apud Treueros constitutus non desinebat increpare Ithacium, ut ab accusatione desisteret, Maximumque orare, ut sanguine infelicium abstineret: satis superque sufficere, ut episcopali sententia haeretici iudicati ecciesiis pelierentur: saeuum ese et inauditum nefas, ut causam ecclesiae iudex saeculi. iudicaret" (Ib. 50).

Ez zan Donemartin asarretuko, lendabizi gotzaien epaiérnai baten aurrean Prisziliano egiaz majikerigille zala ikusi ondorean, gero, Inperatoreak beregana deituta, berak autatutako epai-mai baten aurrean bir-epaiturik inperioko legeen araura zigortu ba'lu.

- Eta bigarren, salaketa ura, egiaz eta benetan, — Donemartiñ'ek adierazi digun lez Prisziliano'ren dotriñen aurka egiña izan zala bazekitelar-

ko, naiz epaiketa artako sententzian dotrin aren aipurik ere agertu ez: "Ese gesto de agarrar um her&ico con o bravo secular para o castigar com a morte provocou grande sensacão, e os acusadores de Prisciliano foram excomungados por Ambrósio de Milão e pelo Papa Siricio", diosku H. Chadwick edestilari inglandar yayoak'.

Oker ibilli zan Lamberto Etxeberria apaiz kanonlegelari gazteiztarra itz auek idatzi zituanean: "Un episodio habfa de ocasionarle grandes remordimientos y aumentar al mismo tiempo su celebridad: Martfn logr6 salvar la vida de Prisziliano y sus seguidores condenados a muerte por el Emperador. Con eIllo a Martin se le consider6 en cierto modo responsable del posterior desarrollo de la herejfa priscilianista. Sin embargo su inter6 por Prisciliano fue evidentemente fruto de su caridad y de su tesis de que no es la violencia el mejor medio de combatir las herejfas" (GER iztegian).

Asteko, ez da egia Prisziliano eriotzetik salbatu zuala. Martin Treberis'tik irten zanean, bi gotzai galitarren aolkua jarraituz, eriotzarako sentetzia beteerazi bait zuan inperatoreak. Prisziliano'k eta bere sei lagunik adiskideenek, ezpataz lepoa mozturik galdu zuten bizia.

Bigarren: Egia da, kontzientzian izan zuala samitnik aski Treberis'tik joan zanean. Ez ordea Prisziliano ta onen lagunak eriotzetik salbatzeko aal guztia egin zualako. Martitn'ek bi gotzai eriotz-zale aiekin elizkizun batean partaide izango zala agindu zion inperatoreari, onek Espaitn'n priszilitarren aurka epaiketan asiko ez zala eman zion itzaren truke. Ba elizkizun artan parte artu zualako, izan ziran Martitn'en damu-min guztiak.

Irugarren: Aundia zan Martitn'en karitatea. Ziur zegoan erejien aurka ez zala beinere Laterrietako agintarien indarkeririk erabilli bear; orregaitik egokiagoa izango litzake "su tesis de que no es la violencia el medio de combatir la herejfa" esatea "el mejor medio" esatea baitno.

Eta laugarren: Martin epaiketa aren ain aurka egotearen arrazoirik aundiena auxe da: Sinismenari dagozkion arazo guztiak, soilki Elizari dagozkion auziak dirala, Elizak bakarrik esan eta epaitu dezakeala zer

---

<sup>15</sup> Nik jaun orren "The Early Church" liburuari Maria Helena Albarran de Carvallio'k portugalera egin dion itzulpena eraballi dut: "A Igreja Primitiva". Prisziliano'ren epaiketari-buruzko aipua 186 'garren orrialdean dago.

dagoan eta zer ez dagoan zuzen, zer dan eta zer ez dan pekatu, eta Late-  
rriak ez dezakeala beñere Elizaren auzi oietan eskurik sartu uste izatea.

(Atal au, Olazar'tar Martin Euskerazaintzako Lendakariari irakurtzeko  
emana dut, ea gizon jakintsu orrek akatsik aurkitzen ote zion; eta benetan  
eskertzen diodan oar au ipiñi dit emen, priszilikeriari-buruzko orri auen  
azkenean):

"Bixente: Ez dakit nondik baiña entzun dot nik antxiñatik, Prisziliano'-  
ren jarrailleak Durangon izan zirala. Ori orrelan balitz liburu ontan agertu  
bearko litzake".

Bai noskil Ori egia ba'litz, IV mendean kristautasuna Bizkai'n Karis-  
tiarren lurreko erdi-erdiraifio Prisziliano'ren aurretik ere sarturik, eta Pris-  
ziliano'ren denboran sendo erroturik zegoala, eskier adieraziko bait luke.

Eta ez litzaioke egia izan daitekealako antzaren apurtxo bat beintzat  
faltako, era berean egia ba'litz, gure aldi auetan norbaitek esan duan beza-  
la, VI, V, eta agian IV mendean Araba'ko gure "Gaba" eta "Gobi"etako  
eremita bakartasunean-bizi-zaleak priszilikeriz kutsatutako lekaide-lekai-  
meak izan zirala egia ba'litz. Ezin daiteke, ordea, orrelakorik sinistu aal  
izateko arrazoi sendorik aurkitu.

Alare, J. Fontaine edestilari frantziarraren ustez, iritxi-edo zan, agian,  
priszilikeriaren kutsua autrigoien altzora ("L'art Préromaine Hispanique",  
Zodiaque, 1.973, 104 or.) eta Kabriana'n Burgos eta Araba'ren mugan,  
Autrigoitarren lurrean, beraz, "abraxa" izeneko gostizaleen ikurra duan  
eraztun bat aurkitu-berria da (A. Azkarate: "Arq. Crist". 487 or. 983 oar.).  
Oroi dezagun gnostikeria izan dala Prisziliano'ren aurka salatu izan dan  
errurik makurrena.

Araba'ren sortaldeko "Goba" aiek Bardulitarren lurrean zeuden, eta  
Autrigoitarrenean berriz Araba'ren Sarkaldeko "Gobiak" Baldegobia edo  
Gobiaran'en. "Goba" eta "Gobi" aietako lekaideak priszilikeriz orbandu-  
xeak egon zirala egia ba'litz, eta J. Fontaine'ren ustea era berean ba'litz  
egiazkoa, eta Kabriana'ko eraztun gnosikoaren aurkikuntzak aburu ziur bat  
sortarazteko aiña baliorik ba'lu, uste izan daitekean gauza izango litzake,  
priszilikeria, barduliar eta autrigoitarren arteko karistiarrengana ere iritxi  
izan zitekeala noski.

Baiñan nere ustez, agian eraztun ura izan ezik, esan dugun beste guztia  
oiñarri ziurrik gabeko uste utsezko oldozketa besterik ez dalarik, ez dugu  
Durango'ko priszilikeriaz zerbait esan aal izateko bear aiñako arrazoi sen-

dorik. Eraztunak berak ere, nondik eta nola Kabriana'ra iritxi zan ez daki-gulako, eta, batez ere, testigu bakarra dalako, ez digu auzia erabaki aal izateko balio.

Gaiñera, Españi'ko eliz-elesti-idazleek, Lafuente'k, eta Garcfa Viliada'k adibidez, edo Menedez Pelayo'k eta Llorca'k ez dute Durango'ko prisziikeririk aipatzen. Ez gai ortaz ari diranean, ez XV mendean Durango'n izandako ereje goiéargitu(Tiliuminati") ta "quietista" edo "zai-egonzaleetaz" mintzatzen diranean. Ezta, nik, batez ere aldizkarietan, aztertu ditudan gaurr-egungo edestitarietatik beste iñork ere.

Ez du Durango'ko priszilizaleetaz deus esaten, priszilikeriaz itzegiten duanean, "Diccionario de Historia Eclesiastica de Esparia" k ere. Iztegonek "Suplemento" edo "Geigarri" bat argitaratua du. Geigarri ontan anitz ederki ari izan zaigu Goñi XV mende artako ereje zaratatsu aietaz. Bazuan, bere aurkezpenaren atari lez antziñako priszilizale aiek aipatzeko adiontasun egokia; eta eginen zuan ori, Durangoko priszilikeri zar aren aztarna bat edo baten ezaguerarik izan ba'lu. Ez du ordea orrelako deusen aipaketarik egin".

\* \* \*

---

"Alper-egonzale" esan diet nik ereje durangoar aiei, bai bait dute XvII mendean Miguel de Molinos'en jarraille españiarren itxura pixka bat. Askoz aurrerago jo zuten ordea erejiaren bidetik durangotarrek. Zuzenki dio J. Go-  
"ereji bereizia" izan zala españiar batek, Fray Alonso de Mella frantziskotar biurriak Itali'tik etorrita I.442'ean Durango'ko jende euskaldunari txertatu zion oldozkera: mamiz, anarkikeri utsa. Ona pentsaera aren credoa: "Zerutik jetxitako Graziaren aroan gagoz"; "Amaiturik dago Legearen aroa"; "Ez da yadanik autoritaterik"; Amaitua da Aitasantutza ber-bera"; "Oro da guztiena, baita emakumeak ere". Ori euskaldun ugarik onartu zuan Mella frantziskotarrak sermoiketean ibilli zituan Durango-inguruko lurretan. **esan dezake** euskaldunak kanpotik datorkien guztia ontzat artzeko buruz zerraldo itxiak diranik? Ori onartu eta azken unera arte aldeztu zuten ereje aiek: "Fueron muertos e quemados mas de ciento omes e mujeres e moÇas" ("Quarta CrOniea General". 1.460'ren inguruan idatzia).

Euskaldunon artera ainbeste sartu zitzaigun priszilikeriak sortutako iskanbillei-buruzko atal au amaitzeko, arras egokia iduritzen zaigu Suipizio Sebero'ren iritzia: "Berari, salatuak bezain gutxi atsegin omen zitzaizkion salatzaileak". Eta "Itazio'k eta Idazio'k erejeen aurka erabillitako jardunkerarik ez omen zuan oker-ikusiko, garailie irtetzearen atzetik, bearezkoa zan baiño lei aundiagoarekin ibilli ez balira":

Bere itzak (ib. 50): "Ac mea quidem sententia est, in<sup>8</sup>i tam reos quam accusatores displicere". "Ydadius et Ithacius episcopi, quorum studium super expugnandis haereticis non reprehenderem, si non studio uincendi plus quam oportuit certassent". Ederki esana!



## TURONA'KO IONDONI MARTI (Tours'eko Martin Donea)

Naitanaiez dugu Done maitagarri au aipatu bearra, eta eraspen aundiz gaiñera, euskaldunen artean irabazi duan arrakasta ain miresgarriki aundia izan dalako.

Turena deritzan lurraidearen uri nagusi dan Tours, erromatarren Turon uriko gotzaia izan zan Martin Donea, ikusi dugun bezala Laterria Elizako auzietan sartzearen arerio sendoa.

Ez duzu gure landa ta mendietan Donemartiffen baselizatxo bat ez duan txoko askorik aurkituko. Eliz asko ta askotan ikusiko dituzu done orri eskeñitako aldareak. Aregeiago, ez dira gutxi Martin Donearen izena daramaten erri edo urietako auzoak ere: San Martin. Eta ori, ez orain bakarrik, beti baizik, gure Erriaren edestiak oroitzen dituan garairik zarrenetatik asita,

Maiz irakurri izan dut Konpostela'rako erromesek ekarria dugula euskaldunok Turona'ko Martiii'enganako eraspina. Ez da egia. Askoz zarragoa bait da.

Konpostela'rako erromesketa XI mendean asi zan indarra artzen ta XII'ean eta XII'az gero iritxi zan bere arrakastarik aundienera. Euskalerrian Donernarffenganako eraspina ordea, askoz zaarragoa da. IX mendeaz aurrerakoa, mende ortako dokumentuek erakusten digutenez.

Ikertu berriak ditut Kukulla'ko Donemilian'en lekaidetxeko dokumentuetan zarrenak, VIII mendeko bakarra eta IX mendekoak. Oiek baiño dokumentu idatzi zaarragorik ez dugu, garai ortakoak bait dira, zaarrenak, orain aztertzen asi naizen Balpueta'ko gotzaidiaren larruki-sortakoak ere. Maiz ikusi daiteke dokumentu oietan Donemartiri'en izena. Baita toponimo

edo toki-izen bihurturik. Ain maiz ere! Bera bait da, askoz, beste guztien gaindik IX mendean geien aipatutako Donea".

Donemartin, Pannoni'n jaio zan; gutxi-gora-bera gaurko Ungari'n, guraso jentillen seme. Laister kristau egiñik, Erroma'ren lejiotara sartu zan, bere aita "tribuno" edo "koronel" zalako. Ortara beartzen zituan orduango lege batek militarren seme nagusiak.

Martin legiolari zan denborakoa da kondairak gorde digun gertakizun pitxia: beartsu bat urbildu zitzaiola, eskean, *negu* gorriaren egunsenti batean billutzik. Martifie'k, ezpata zorrotik atera, bere kapa erditik ebaki, eta kapa aren erdia eman ziola. Geroago kapa-erdi artaz jantzirik Josu bera agertu zitzaiola, "eskerrikasko, Martin, beroki au eman didazulako" esanez.

Gudaroztetik irten da oso goiz asi zan Martin bakardadean bizitzen. Lekaide-bizitza asi aurretik ordea, egin zuan ibillaldi bat Pannoni'ra. An, kristautu aal izan zuan bere ama. Ez ordea bere aita, tinko jarraitu bait zuan onek jentiltasunean murgildurik.

Guri ordea, San Martin Iekaide bezala eta gotzai bezala zaigu ajolagarrri. Aren bizitza osoa jakin nai duanak jo beza Sulpizio Sebero'ren "Vita Martini" deritzan liburura, liburu ortatik edan bait dute, gero Donernartifi'ez idatzi duten guztiek<sup>29</sup>.

Poitiers'ko Doneilario'ren adiskide aundia, uri artatik bertan jarraitu zuan Donernartiirek, bere burua etxola batean itxiz, ordurako asia zuan lekaidetza, bakartasun osoan. Laister inguratu zuten bere santutasun-usaiak erakarrita, ikasle ugarien etxolek.

371'garren urtearen inguruan il zan Litorio Turona'ko gotzaia. Turondarrek, jakiña, beraiengandik ez-urruti bizi zan Martin lekaideari eman

---

<sup>28</sup> Iondoni Martti, Turona'ko gotzaia izan zan. Turona, (Tours), maku egiten duan Loira ibaiaren tokirik iparrekoienean dago. Autrigoni, berriz, andik euskal-alderik urrutienean. Kukulla'ko larrukiek, Balpuesta'koek zer esanik ez ia-ia soilki Autrigoni'ko gizakume, arazo, lur, eta gertakizunetaz itzegiten digute. Orregaitik da, Iondoni Martti'ganako euskal-eraspenaren alde ain balio aundikoa, Autrigoni urrutian, noiz eta IX mendean, bere izena ain aipaturik agertzea.

<sup>29</sup> Liburu ortaz gaiñera, Donematiñi buruz idatziak ditu Sulpizio Sebero'k bere "Alkarrizketak" eta "Gutun"etik 3.



zioten beren uriko gotzaitza. Sulpizio Sebero'k dionez, ia-ia indarra erabili bear izan omen zuten. Martin bere bakartasunetik Turona'ra ekarri izateko.

Alare, izan zituan, sagaraketara etorri zitzaizkion gotzaien artean, begi gaiztoz so-egin ziotenak: "Ez omen zan gotzai izateko duin alako gizon kupigarri gizagaixo gaizki jantzi eta okerrago orraztutako ura": "De si piteuse mine, mal vUu, mal peigne" (Id Ib, 9).

Gotzai izanik ere, lekaide bezala jarraitu zuan bizitzen. Elizaren alboan eraiki zuan etxola batean aurrena, gero uritik urrunago, Marmoutier'ko bakartasunean eratutako lekaidetxe batean.

Laister egin zan Galietan ospetsu Marmoutier'ko lekaidetxearen izena, eta, nola ez?, lekaidetxe artako gotzai abatarena. Eta, nola ez?, Galietan eta Turona'tik aski bertan bait zegoan gure Euskalerra zar ura..., iritxi zan euskaldunen artera ere Gotzai eta Abata miresgarri aren izena.

Erriko jende xearegan ez eze, itzal aundi-aundiko eraginmena izan zuan Martiñ'ek Agintariengan eta Inperatorea berarengan ere. Baita, adiskide izan zituan bordeletar bi Nola'ko Paulino olerkari gotzaia eta Sulpizio Sebero edestilariaren — antzera Martin bera baiño askoz jakintsuagoak ziranengan ere. Eta, eraberean, arras aundia euskaldunegan, geroxeago ikusiko dugunez,

Azaldu dugu zeñien ederki jokatu zuan Priszillano'ren auzian. Abata izateaz gaiñera ez bait zuan beiñere gotzai izateaz utzi. Baiña ezta mixiolari izateaz ere, "ain lekaidetza-zale izan zitzaigun gotzai ura mixiolari aundia ere izan bait zitzaigun": "Cet ev&lue, si épris de vie monastique, fut pourtant un grand apâtre" (Griffe, 284).

Ikus nola jarraitzen duan edestilari onek: "Il a été un év'equé missionnaire comme l'étaient plus ou moins tous les eveques de cette époque, mais il a été le plus grand de son temps et de son pays; son prestige était tel que son apostolat s'est exercé non seulement dans son diocèse, mais aussi en bien d'autres régions où les circonstances **al** — ter": "Gotzai mixiolaria izan zan, geiago-edo-gutxiago garai artako gotzai geienek izan ziran bezala. Bera, ordea, bere garaieko eta bera lurraldeko aundiena izan genduan. Ain itzal aundiko gizona izan zalarik, bere apostoladutza zabaldu zan gertakizunek eramane zuten lurraldeetara ere".

Bordele'raifio iritxi zala idatzi zuan VI mendeko Turona'n Martiñ'en ondorengo izan zan Gregorio Doneak "De virtutibus Sancti Martini" liburuan (IV, 31). Iritxi ote zan Akitani'ren barnerago? Iritxi ote ziran, ainzuzen mixiolariak prestatzeko ere sortu zuan Marmoutier'ko lekaidetxean ezi zituan lekaide mixiolari aietatakoren batzuk?

Ez dakigu. Baña bai badakigu, ikusiko dugun lez, Euskalerra zabal artan izugarriki aundia izan zala DonemartiiVenganako eraspina. Baita Ego-Euskalerriko zokorik urrutien eta baztertuetan ere.

Iondoni deitua izatea merezi zuten Done urri aietako bat izan zitzaigun bera: JONDONI MARTI.

Euskalerraren ebangelizaketan seguruaski zer ikusirik izan zulako adigarri portitza.

## VIGILANTIUS. APAIZ EUSKALDUN EREJEA?

Izan genduan VI mende artan Iparraldeko Euskalerra zabalean ala-ola-ko apaiz jaun mingain luze bat. Ez zuan Prisziliano'rekin zer ikusirik izan. Baiñan lortu zuan bere izena ereji-sortzailleen zerrenda-barruan ipintzea. Bigiliano esan oi diote gazteleraz, Vigilantius esan izan zaio latinez gure apaiz ari.

Euskalduna zan. Bat egin du mundu guztiak bere jatorrizko euskalduntasun ori zalantzarik gabe onartzeko, Bijilantzio'ren garai artakoa eta bere etsai gogorra izan zan Jeronimo Doneari jarraituz. Auñamendipean jaio omen zan: "Originare, semble-t-il, de la Gaule mthidionale et fixé a Calagurris, dans le Cominge, au pied des Pyrh&s (cf. Mrôme 'Contra Vigilantiurn' I et VI)": "Dirudianez, Ego-Galietan jaioa, eta Auñamendiaren oiñetan Cominge'ko Kalagurri'n bizitua" (Dic. Theol. Cath.).

Euskotarra zan, beraz. Euskalduna ere bazanik, ziur ez dakigu, baiña ala izanen zan seguruaski, IV mendean Auñamendi guzia euskalduna zan ezkerro.

Aipatu berri dan Kalagurri ori, Auñamendiaren oiñetan zegoala esan digu Iztegi eder orrek, baiñan ezaguna dugun Antonino'k bere "Itinerarium" edo "Bide-Liburuan", askoz gorago ipiñi zuan : Tolosa eta "Aquae Tarbellicae" edo gaurko frantziarren Dax eta euskaldunon Akize'ren artean'.

---

<sup>30</sup> Oroi 4 Kalagurri ezagutu dirala edestia-zear: Euskaldunak, aurreneko iruak, eta orduango Euskalerra zabaletik ez urruti laugarrena: Baskoien Kalagurri. Calagurris "Nassica". Izengoiti au, dirudianez, Ibero ibaiaren uren ondoan zegoalako eman zitzaion; "nassus" ura bait da eleneraz. Kalagurris Akitani'koa. Weszitarren Kalagurris "Fibularenis", Ueska'ren iparraldean aurkitzen zana, agian gaurko Loarre dagoan tokian. Eta azkenik Domingo Guzman'dar

Apaiza izan zan Bijilantzio eta bere bizi guztia Akitani'n igaro zuan, Palestina'n Erroma'n eta Bartzelona'n igarotako asti ez oso luzeak izan ezik. Nola'ko Paulino bordeletar Donearen adiskide zalarik, Palestina'ra joan zan aren eskariari erantzunez. Bere eginbearra, Beien'en bizi zan Jeronimo Doneari, Teodosio inperatorearen omenez Paulino'k idatzi-berria zuan idaztitio bat eramatea.

Jeronimo Donea, mende artan izan zan latin-idazlerik txukunena eta dotoreena zan, kultura aundi ta zabaleko jakintsua, ia gaur-gaur arte Bibliikerlerik yayoena, teologilari bikaiña... eta izugarri jenio biziko gizakumea.

Jenioari zegokion guztian bazuan agian Bijilantzio'k Jeronimo'ren antza pittin bat. Antza osoa berriz egia zala uste zuan oro bizkorki babesteko. Bestela, aski ezberdiñak izan ziran bi apaiz aiek. Bijilantzio gizartearen bee-mailla bateko zitua bait zan jatorriz, ostalari baten semea; eta oso kultura gutxiko gizona.

Berealaxe asarretu ziran biak. Zer-zala-ta? Origenes'en liburuak zirala-ta!

Origenes Aleksandritarra Elizak izan duan teologilaririk onenetakoa dugu. Ipona'ko Augustin, eta Akino'ko Tomas Origenes'en garaitasun berean daude, bai noski, ez ordea goorago. Badu gaiñera, Origenes'ek, beste aiek ez duten merezimendu bereizi bat: besteen aurrelaria izan zala III mendean, oraindik teologia aski zailki ta kulunkaka eratzen ari zan aroan.

Aurrelari dalarik, bein baiño geiagotan ez du bear bezain argi agertzen bere oldozkera; beste batzuetan, berak ere esaten duan bezala, egi eskierrik aurkitzen ez dualako ipotesiak eratzera sartzan da. Gero, IV mendean ainzuzen, kristau ameslari batzuek, batez ere Ejito'ko lekaideen artean, ez ziran oartu ipotesi aiek egi ziurrak ez zirala, egi ziurra billatzen saiatzeko asmatutako oldoz-bide batzuk besterik ez zirala. Ez ziran ortaz oartu, ta Jainkoagandiko dogmak bezala artu zituzten ipotesi aiek.

Ondorioz, IV mendearan azkenerako kristau askorentzat ereje borobilla zan Origenes, eta ereji utsa bere dotriña. Orrela pentsatzen zuan Bijilantzi-o'k ere.

---

Donea jaio zan KaJeruega'ri ere Kalagurris esan zion Plinio'k.

Ez ordea Jeronimo Doneak. Au, Origenes'en miresle aundia izan zan asieran. Gero, aren liburuetakoa atal batzuek nolako gaitza sortzen ari ziran ikusi zuanean, gogor jardun zan berak beti oi izan zuan bezala **atal** aien aurka, haiñan beti gorde zion Origenes'i gaztetikan izan zion eraspena.

Iritxi zan Bijilantzio Belen'era, eta ara non aurkitzen duan an Jeronimo biblilari ospetsua, gozoki Origenes'en liburuak irakurtzen!

Zer esanik ez! Berealaxe asarretu ziran biak. Alare, egia esan bearra da-ta, ederki jardun zan etxejojaun zabal bezala Jeronimo bere arrotzarekin, ots, Bijilantzio'rekin, au aren lekaidetxean bizitu bait zan naiz epe aski laburrean; eta Bijilantzio, bere Akitani'ra itzultzeko, andik irten zitzaionean, laburtasun aren arrazoirik ez diola eman "iñor mindu nai ez dualako", idatzi zion txukunki Jeronimo'k Paulino nolatarrari (Epist.LVIII-.11).

Donejeronimo jite latzeko gizakurtea zala esan dugu, eta ala izan ere izan zan. Baiñan ez dirudi Bijilantzio akitaniarra askoz biguñagoa zanik, Belen'en Jeronimo'ren lagunekin ere asarretu bait zan: Pauliniano Jeronimo'ren anaiarekin, Bixente, aren laguntzaillearekin, eta Kremona'ko Eusehio'rekin.

Akitani'rako bidean zetorrelarik, Erroma'n gelditu zan, eta an Jeronimo'k Origenes'eri zion geiegizko zaletasunaz asi zan ozenki itzegiten. Jakin zuan ori Jeronimo'k eta bereala ekin zion lumaz bere burua babeste-lanari.

Iruroigei ta bat garren eskutitzean, oso txukuntasun urriz erasotzen dio Bijilantzio gizagaixoari, aren bibliari-buruzko ameskeriak, kulturik eza, jatorri arlotea eta "mingarri izan zezaiokean oro aurpegira jaurtiz": pargnat *rien* pour lui "etre desagable" (ib).

Ez zion Bijilantzio'k erantzun, agian ortarako gauza ez zala ederki oartzen zalako. Galietara itzuli zan. Eta an, Akitani'n, "apaiza zalako parroki baten zuzendaritza artu, edo birrartu, zuan": "comme &ait pretre ret,;ut ou reprint l'administration d'une paroisse" (ib).

(Garrantzi aundiko gauza parrokiei dagokien ori, laister agertuko dugun lez).

Ez zan bere parroki-lanean norbaitek oartua izateke gelditu. Ona zer itsusitzen zioten bere etsaiek:

- Santuak gurtzeko era batzuen aurka mintzatzen zala.

- Palestina'ko lekaideei "diru ugari" ("d'abondantes aurnftes") bidaltzeko oitura gaitzesten zuala. Oitura ori "en vigueur parmi les saintes gens de son pays": "lurralde artako jende onen artean sarturik omen zegoan ba".

(Garrantzi aundiko albiste au ere guretzat, bereala ikusiko duzunez).

Bazuan Bijilantzio'k bere alboko parrokian asko nai ez zion apaiz bat, Riparius, eta apaiz onek Jeronimo'ri salatu zion bere auzoko Bijilantzio'ren mintzaera.

Erantzun zuan arek, Jeronimo'k, Bijilantzio "ederki astinduta utziz", "seeoué de belle faeon", eta sakonkiago eta gogorrago idatzi aal izateko albiste geiago eta albiste ziurrak eskatuz (Epist CIX).

Andik bi urtera, eskuetan zuan Jeronimo'k Belen'en, eskatu zuan guztia. Sisinio izeneko diakono baten bidez Akitani'ko bi apaizek, aipatu dugun Ripario'k eta Desiderio izeneko beste batek bidalita.

Ez zaigu iritxi bere irakasketar-buruz Bijilantzio'k idatzi zuan Iiburuska. Orregaitik, aren "erejia" Jeronimo'ren idaztien bidez bakarrik zaigu ezaguna. Ikus zer leporatzen zitzaion:

Martirien illobietan ospatzen ziran "vigilia" edo "otoitzezko gau-pasen" aurka eta illobi aien gaiñean argi-zuziak piztutzeko oituraren aurka oles-egiten omen zegoan.

- Eta santuen erlikiei eman oi zitzaien garrantziaren aurka.

Santuek beste munduan gure alde otoitz egin zezaketela ere ukatzen omen zuan.

Kristauen biziera "latzaren" "l'austérite de la vie chrétienne" eta apaizen zelibatoa edo ezkontzeziña gaitzesten omen zituan. Ezin ezkondu izate ori erejia zala uste omen zuan eta aragikerizko obenerako bidea iruditzen omen zitzaion.

- Bere ondasun guztiak salduta lortutako dirua txiroei ematearen aurka omen zegoan, ori egiten zutenak azkenean Elizaren kontura bizitzera bear-turik aurki ez zitezen. Orrelakorik gerta ez zedin, piskaka- piskaka banatu bear omen ziran diru aiek txiroen artean.

- Azkenik, len aipatu dugun, Palestina'ko lekaideei diru ugari bidaltze ori.

Dakusazunez, izan zuan Lutero'k euskaldunen artean aintzindari bikain bat. IV mendean gaiferial Ori, Bijilantzio'ren aurka egindako salaketa oiek egiazkoak izatekotan, jakifial

Salaketa oiek, ordea, ez dirudite egiazkoak diranik.

Lendabizi, Jeronimo Donea, edestilari lez oso fidagarria ez dalako, jite latzegiko gizona izateaz gaiñera iperbole edo izkera anpatuaren laguna ere bai bait zan.

Bigarren, auzi guzti ontan, Jeronimo'k salaketa oiek danak, iraisean, gauez, bigaramon-goizean Ejito'ra joateko Belen'dik irtetzekoa zan Sisinio diakonoarentzat idatzia izan zan eskutitz batean agertzen diralako.

Irugarren, Ripario'k eta Desiderio'k Jeronimo'ri Sisinio Diakonoaren bidez bidali zioten eskutitz arek ere uste on geiegarik merezi *ez* dualako. Galdua da gaiñera eskutitz ura ere.

Salaketa oien erdiak bakarrik egiazkoak izan ba'lira, Bijilantzio'k Galietako gotzaien gaitzespena gaiñean bereala izanen zualako. Galietan ordea ez da Bijilantzio'ren aipurik. Jeronimo'ren idaztiak izan *ez* ba'lira, ez genduan Bijilantzio bat izan zanik ere jakingo.

Bordele, Elusa, eta Tolosa'ko gotzaien isiltasun orrek beste gauza bat ere esan nai duala dirudi: Ripario'k eta Desiderio'k, gotzai aiek ezer jakin gabe salatu zutela Jeronimo'ren aurrean gure Bijilantzio, ortarako Sortalde-runtz zijoan Tolosa'ko diakono bat erabilliz.

Tolosa'ko diakono zan bâ Sisinio. Eta ainzuzen Exuperio Tolosa'ko gotzaiak bidalita zijoan Sortaldeko Elizetara. Bidaldi ortaz baliatu ziran Ripario ta Desiderio beren ekintz illunerako. Exuperio gotzaiari ezer esan gabe? Orrela dirudi. Gotzai ark, salaketa astun aien berri jakin ba'lu, eta egiak zirala ikusi ba'lu, ez bait zuan Bijilantzio zigorrik gabe bere parro-kian ain lasai utziko.

Ikus Jeronimo'k idatzitako gutun ari-buruz aipatutako Iztegi orrek diona:

"Naikoa dugu (c'est assez), gutun ura, bat-batean, gauzak pentsatu gabe, eta hear bezala neurtu gabe, iraduz idatzia izan zala oroiteraztea" duan baiño garrantzi geiagorik iñork eman ez dezaion.

"Entzun oi ez dan ankerkeriz (avec une brutalité inouïe) astintzen du gutun ortan Jeronimo'k bere burua babesteko gauza ez dan etsaia. Aurkeztu zitzaizkion salaketa aiek osoan egiazkoak zirala uste izan zuan, baiki, bai-ñan alatagutziz, "ez zuan zergaitik etsaiaren jatorri arlotea eta idazteko estilo edo idazkeraren txukuntasunik-eza arrotu bearrik, bere etsai arek ez zuan ba ortan errurik".

\* \* \*

Gure Bijilantzio'ren auzi amaitu?

- Esan dezagun asteko, seguruaski, ez zala beñere erejira jausi". - Bere salaketa aietatik asko, egiazkoak eta zuzenak eta zintzoak zirala. Ortan arrazoi ematen zion oitura okerren aurka berak bezala pentsatzen zuan eta orduantxe ainzuzen idazten zuan Sulpizio Sebero edestilari bordeletar ain goraiatuak.

- Oiturak beraiek ez baiña oituren inguruko geiegikeriak salatzen zituela bere itzaldietan.

- Salaketa oiek egitean, seguruaski, zentzunezko neurriak ausiz bein baiño geiagotan iges egiten ziola mingaiñak zintzotasunaren esitik kanporuntz, batez ere santuen bitartekotasunari eta kastitateari-buruzko auzietaz mintzatzen asten zanean.

Izkeraren geiegitasun orrek larritu-bide zituan Ripario ta Desiderio bereterrak (presbiteroak) eta auen salaketa Jeronimo'ri eraman zion Sisinio diakono tolosarra.

Zintzotasunaren esitik aruntz bera oartzeke seguruaski **noraiño** iritxi zan jakiterik ez dugu. Baiñan aren aurka benetako dokumenturik ez dugulako, ereje izan zala uste izaterik ere ez zaigu zillegi.

Bijilantzio noiz il zan ez dakigu. Ezta noiz egon zan Bartzelona'n ere. Albiste au damaigun Gennade edestilari rnartsellatarak ez bait digu noizkotasunik esaten. Bartzelona'n ere Parroki batean egon zala, hai. Eta puntu onek ere badu bere garrantzia.

Iru gauza azpimarratu ditugu Bijilantzio'ren bizitzan guretzat ajolagarri daidezkeanak:

Bedi aurrenekoa Bartzelona bera. Bigarrena, Bijilantzio parroko izatea, eta, irugarrena, Palestina'ko lekaideei dirua bidaltzeko oitura.

---

Alare, esan dezagun baitare, ereje esan ziola Jeronimo Doneak 406'en Sisinio diakonoaren eskutik aren aurkako salaketak jaso zituanean, eta ereje esan ziola 80'ren bat urte geroago deroninto'k esana birresanez? Gennade apaiz marsellatar "De Viris illustribus" izeneko liburuaren egilleak. Martsella'ko edestilari au 494'ean il zan. Jeroninw'ri 406'ean bidali zizkioten Ripario'k eta Desiderio'k Bijilantzio'ren aurkako salaketak.



Bijilantzio'ren "erejia", esan dugun guztiaz gero, ez zaigu ontara ezkerok aipagarri daitekeanik iruditzen. Ez bait zuan Euskalerrriak batere arrakastarik izan.

É Bartzelona'ri dagokionez, azpimarratu bearra dala iduritzen zait, oraindik orduan Auñamendian euskera itxasoraiño iristen zalako, Euskalerritik aski bertan aurkitzen zala uri bikain ori. Orregaitik ez da batere arritzeko gauza, aldi batez Bijilantzio Bartzelona'n parroki-lanean egon izatea. Bera Auñamendi'ren azpikoa bait zan eta aski sortalderakoa, irakurri duzun bezala "Comminge"n jaiok ba'zan.

Lurralde ori, non aurkitzen zan esateko abiatu gaitezen Zuberok'tik sortaldera. Aurreneko lurraldea, Pabe (Pau) uriburu duan Bearne oinkatuko dugu, gero Bigorre, Tarbets eta Lurdets'en lurraldea; eta, aruntzago, "Comminge" ori, erromatarrek "Convenae" edo "Enkarterri" esan ziotena.

Bartzelona'k 343'an izan zuan dokumentuz ziurtatu daitekean bere lenengo gotzaia, Ossio aundiarekin Sardika'ko kontzilioan izana: Pretestato, izenez. Bigarrena, gutxigorabera 360'tik 390'ra, Pantziano Donea, "vita et doctrina clarus" "bizitzaz eta irakaspidez goresgarria" (Gams).

Irugarrena, 393'tik 400'garrenera Lampidio, Nola'ko Paulino bordeletarraren adiskidea, esan dugun bezala, au ere bizitu bait zan Bartzelona'n.

Azkeneko bi gotzai oien esanera, Pantziano Donearen eta Lanpidio Donepaulino'ren adiskidearen esanera eginen zuan lan Bartzelona'n Bijilantzio'k, eta bearbada Donepaulino bere adiskidea antxe hizi zala. Urrengo gotzaia, 465'ean il zan Nundinario, askoz beranduagokoa bait da.

Ba, ez Paulino'k ez bi gotzai aiek itxuraz ez zioten ereji usairik usmatu.

Parrokiei dagokienez, berriz, txit garrantzi aundi-aundikoa da Gennade edestilariak eman digun albistea. Lzan ere, Euskalerrri IV mendearen erdian Eliza sendo erroturik ez ezê kanon-legeren araura eraturik zegoala adierazten bait digu: Iru mailla ditu Elizak erakunde bezala: Aitasantua, gotzaia, eta parrokoa. Laugarren mendearen asierarako sartzen asia zan Sortaldetik asita Aitasantua eta gotzaien artean egiazko jurisdizioarekin goigotzai edo metropolita bat ipintzeko oitura.

Orra ba: III mendearen azkeneko euskaldunok Euskalerrriaren harrian gotzai bat bagenuala badakigu: Elusa'ke gotzaia Akitania'ren erdian. Gero, VI mendearen barruan metropolita bat bagenuala ere bai. Elusa'ko gotzaia bera, metropolita bihurturik. Eta, ori, Elusa gotzai-uri izaten asi zan

une berberetik ango gotzaiak metropolitak izan ez ba'ziran! "Archiepiscopi de Elusa" esaten bait die Gams'ek bere "Series Episcoporum" mardu/ean, IV meendean ago Aulkian eseri ziran gliztiei ere.

Orain ordea, Sortaldera joan aurretik Bijilantzio Akitani'n parroko zala esaten zaigu, eta Sortaldetik itzulita ere, lengo parrokira edo beste berri batera joan zala berriro.

Albiste aundia da ori guretzat. Euskaldunen artean parrokiak sorturik zeudela esaten bait digu. Ainzuzen, orduango sorkuntza ziran landa-urietako parrokiak: IV mendeko sorkuntza. Ordurarte urietako erlijioa izan zan kristautasuna. IV mendean asi zuan Elizak urietatik kanpoko jendeen ebanjelizaketa, eta IV mendearen azken aldera, 371 edo 372'an Turona'ko gotzai sagarututako Donemartin izan zan landetako jendearen ebange/izaketa orri indar berria eman ziona. Euskaldunek ain benetan maitatu duten Iondoni Martti!

Egia, ordurako uri batzuetan, oso-oso uri aundietan eta arras kristau ugariko urietan parroko batzuen aipua entzuten dala. Garai artan Erroma'z gero uririk aundiena eta aberatsena eta kristauena — Erroma bera baiña kristauagoa — zan Ejito'ko Aleksandri'n adibidez. Orrela esan oi da Ario Aleksandri'n, IV mendean aurren-erdian, eliz bateko parroko zala. Ori ordea, gaur-egungo izkera da. Edestiak eliz baten arduradun izan zala esaten digu.

Erroma'n ere orrelako zerbait gertatzen asia zan. Entzun opusdeitarrek zuzendutako GER iztegiari: "En la Iglesia local primitiva es siempre el Obispo, rodeado de su presbiterio o equipo sacerdotal quien tiene la responsabilidad jerarquica local. Con todo hacia el siglo IV, debido al gran ntimero de cristianos, y a que Roma era ya una gran ciudad, no cabfa en la iglesia laterana dei papa toda la reunión cristiana para la Santa Misa dominical. Se crean entonces diversos lugares de culto con diferentes titulos, que dan origen a las parroquias".

Baiñan parroki itzak ez zuan oraindik gaur ematen zaion zentzurik. "Parrokia" -- latinez "parrochia" eta eleneran "paroikeia" itza, kristautalde bat adierazteko erabiltzen zan; batez ere, gotzai baten "artalde" osoa adierazteko.

IV mendearen bigarren erdian irtetzen da uriz kanpora benetan Eliza. "In fourth century we find in the villages groups suticiently large to be served by a resident clergy" ("The Cath. Encyclopedia): "IV mendean aski

kristau-alde aundiak aurki genezazke uritxoetan; aien serbitzura bertan bizitzeko apaizak bidali bear izateko bezain aundiak".

Gennade'k IV menderen bigarren erdiaz ari dalarik, Bijilantzio'ren parrokiak aipatzeko, "parroki" itz ori ain lasai eta batere kezkarik gabe erabiltzea, Ipar-Euskalerra Zarreko euskaldunen artean kristautasuna sakonki sarturik zegoala adierazten digu.

Euskalerra ez zebilela kristaudiko beste lurraldeak baiño atzerago; aien parera zebilela; eta, bearbada baita beste lurralde aietako asko baiño aurrerago ere!

Ta Gennadio'k gure konfiantza osoa ederki merezi du: "Jeronimo Donearen "De Viris Illustribus" jarraituz, izenburu berarekin 467'an asi zan bere liburua idazten; Bijilantzio il da laister, beraz. Martsella'koa zalarik, ez zeukan urruti orduango Euskalerra. Bazekian beraz zertaz idazten ari zan, Bijilantzio'z idatzi zuanean. Zintzo idatzi ote zuan, ordea, Bijilantzio'z idatzi zuana?

Bai. Eskierki, bai! Ez zala, jakiña, Jeronimo bezain estilista dotorea diosku "Dictionnaire D'Hist. et de Gêogr. Ecelësiastiques" deritzan iztegiak, baiña edestilari bezala ark baiña uste ohea merezi duala: "moderë, consciencieux, impartial" zala, eta izan zuala "un sens trs grand de précision dans l'information". Ez du itzulpen-bearrik.

Esan dezagun ba bildurrik gabe, euskaldunak beste jende asko baiño azkarrago zebiltzala beren kristautze-bidean.

Ori adierazten digu Palestina'ko lekaideei dirua bidaltzeko oiturak ere. Kristautasuna iparreko euskaldunek, biotz-barren-barreneraifio sarturik euki ez ba'lute ez bait ziran Palestina'ko lekaideei dirua bidaltzen ibilliko. "Mardulak", "abondantes aumônes" omen ziran gaiñera bidaltzen zizkieten limosnak.

Jaso dezagun gogoan euskaldunek IV mendean bertan lekaidetzarako erakusten duten eraspenna, ainzuzen laugarren mende orren erdiaz gero asi bait zan Sarkaldean lekaidetzaren ezaguera zabaltzen, Erroma'ra erbesteé ratua izan zan Atanasio Alexandri'ko Patriarkaren eragiñez. Lekaideen adiskide aundia izan zan Atanasio. Lekaideek izan zuten aundiena.

341'an iritxi zan Atanasio Erroma'ra arianikeriaren alde zebillen Kostantzio Sortaldeko inperatoreak erbesteratuta. 345'a arte egon zan Erroma'n eta lau urte oietan bere itzaldien, eta, batez ere, berak idatzi zuan "Anton Deunaren Bizitzaren bidez izugarrizko leia sortu zuan Erroma'n basamor-

tuko bizitza bakartiaren aide. Ejito'ko basamortuan bizitu zan eta Atanasio'-ren adiskide miña izan zan Anton ura artu zuten kristauiek bizitzarik santuenaren eredutzat.

Erroma'tik zabaldu zan Sarkaldeko kristaudira. Ta, euskaldunen adimenera ain azkar IV mendearen erdi-punttua igaro ta belaxe iritxi ba'zan, eta aien gogoetara ain benetan, dirutza ugariak Sortaldeko lekai-deai bidaltzeko guraria euskaldunen biotzetan sortarazteko bezain sakonki -- sartu bazan, inork zalantzan ipiñi dezake euskaldun aiek III mendearen barrunbe ber-beraz gero zindo kristauturik zeudenik?

Euskaldun danak? galde egingo dit norbaitek.

- Ez. Euskaldun danak ez. Akitani'n bertan ere, oraindik, seguruaski, euskaldunik geienak jentillak ziran. Ori gertatzen bait zan kristaudi guztian ere.

- Ta? Ego-Euskalerrian?

- Ego-egoko Euskalerria, ibero ibaiaren aran guztia, bai, Akitani bezain ongi kristauturik zegoan. Ori adierazten digute Prudentzio'ren olerkietako "Baskoien antziñako jentiltasun aberekoi" arek, eta, Prudentzio berak ziurtatzen digunez, Kalagurri'n egiñik zegoan baptisterio edo bataitegi zar arek. Baitare, ori adieraziko digu bereala, V mendearen erdian Silbano Kalagurri'ko gotzaiaren jardunkerak.

Ta... Kalagurri eta Elusa'ren arteko Euskalerrian?

- Erantzun ziur bat eman aal izateko, oiñarriztat ar dezakegun arrazoi-izpitxo txikienik ere ez dugu. Euskalerria zearkatzen zuten bideetan jendea asko ibiltzen zala badakigun ezker, sinistekoa da Euskalerraren gerrialdeko mendi ta arantara kristautasuna sartzen asia izango genuala, baiñan seguruaski, an, ezpairik gabe, jenderik geien-geienak eusko-jentiltasun zaarrean jarraituko zuan.

Ez zaitez, arren, orregaitik samindu. Ori bera gertatzen bait zan orduan Kristaudiko bazter guztietan.

## KALAGURRI (KALAORRA)'KO KRISTAU-ERRIA

Iparraldeko euskaldunen artean bezain ongi erroturik aurkitzen zan IV mende artan kristautasuna egoaldeko euskaldunen artean ere. Eta Ipar-Euskalerriko kristaumentzat uri nagusia Elusa izan zan bezala, Kalagurri izan zan Ego-Euskalerriko kristaumentzat

Santiago aurrena ta Donepaul Kalagurrrn ibilli ziralako ori..., esan genduan batere baliorik gabeko kondaira dala. XVI mendean asmatua.

"Les prenières tanoignages certains du christianisme Calahorra datent du milieu du IIe siècle. Nous avons en effet dans sa province le martyr de saint Fructueux et de ses compagnons à Tarragone vers 259, puis l'apostolat de Félix de Saragosse, attesté par saint Cyprien qui appelle cet évêque en 259 'Fidei cultor ac defensor veritatis'. Peut-être aussi celui de saint Fermin, s'il est vrai qu'il prêcha à Pampelune vers 259.

"Quoi qu'il en soit, la fin de ce Ier siècle devait y être solidement enracinée dans certains milieux puisque vers 295 deux soldats, portebannière de leur cohorte, y subirent le martyre.

"On sait comment ces deux saints Émère et Césario ont été exécutés, un siècle plus tard, par leur compatriote Prudence" (Dic.Hist, Eccl. XI, 269).

Euskeraz:

"III mendearen erdikoak dira, kristautasuna Kalagurri'n sarturik zegoala egiztatzeko diguten lehen gertakari zurrak. Izan ere Probintzi ortan il bait ziran Tarragona'n Donefruktoso eta bere lagunak 259'garren urtean, eta ibilli bait zan mixiolari Zaragoza'n, urte ortan bertan Donezipriano'k 'sinispidearen langille eta egiaren babesle' izen-ernan Nait zion Felis gotzaiari; eta, lekuko da eraberean, urte orren inguruan Iruña'n mixioketan aritu zala egia ba'da, Donefermin ere".

"Danadala, III mendearen azkenerako sendo errothurik egon bide zan sinismena Kalagurri'ko gizarte-sail batzuegan, 295'garren urtean, bi gudari beren taldearen ikurrifi'eramaille martiri il ziran ezkeru.

"Gauza jakiña da, nola bi Done auek, Emeterio ta Zeledonio, eun urte geroago urikide zuten Prudentzio'k gorai patu zituan".

Egia da idazle orrek dioskuna: Kristautasuna bizirik zegoala III mendearen erdian kalagurritarren artean. Ori esateko ordea, ez dute batere balio eman dizkigun arrazoiek:

Tarragona'ko Fruktuoso'ren martiri otza, eta Zaragoza'ko Felis'en apostoladutza ez dira haliozko arrazoiak III mendean Kalagurri'n kristautasuna sarturik zegoala esateko, askoz gutxiago ziurki sarturik zegoala esateko. Egia da Tarragona, Zaragoza ta Kalagurri Laterri-probintzi ta Eliz-probintzi hat berekoa zirala, "Tarraconensis" zeritzan probintzikoak, baiñan Zaragoza'ko ta Tarragona'ko jendea kristaua izateak ez du ziurki esan nai Kalagurri'koa ere kristaua zanik, naiz Zaragoza, Tarragona ta Kalagurri iruak probintzi bat berekoak izan. Gaiñera, Felis gotzai izan zanik ez daki-gu.

Alare zerbait arduragarri esan nai nuke Tarragona'ko Fruktuoso Doneari-buruz: bere izenak bizirik dirau ba oraindik gaur-egungo ipar-euskaldunen artean. Gaiñera, amabi Done zar eta txit mirestuei bakarrik eman izan dioten goratzarrerik aundieneko izengoitia eman diote: "Iondoni", eta, baitare, zearo aldatu diote, erarik maitetsuenean noski, bere egiazko izena, Fruktuoso, "Murtuts" biurtu bait diote. Ta orrek, alegia, Iondoni Murtuts euskaldunen artean oso maitatua izan dala esan nai du, eta oso goiz sartua dugula arenganako eraspenna. Zerretiarren eta Ilergeten bitartez? Bi oiek Nait ziran Tarragona'tik urbillen aurkitzen ziran leiñu euskaldunak.

- Fermin Donearen aipuak ordea, ez digu ziurki ezer esateko balio, kondaira utsa besterik ez bait da Done ortaz dakigun guzia. Asko gutxiago balio dezaiguke, III mendearen erdian kristautasuna ziurki Kalagurri'n errothurik zegoala, ziurki esan aal izateko.

Zeledonio ta Emeterio ere ez ditugu lekuko ziurrak, III mendearen azken-aldera Kalagurri'n kristautasuna jende mota batzuen artean "solide enraeinee", "sendo errothurik" zegoala esateko. Ez beintzat bear aiñako ziurtasunez esateko. Biak gudariak ziralarik, kristautasuna izan bait zite-

kean, Kalagurri'n, soilki gudaroztearen barrengo arazoa. (Azpimarraketak nik egiñak dira).

Alare, esan dezakegu noski, ez ziurki baiñan bai logikaren araura eskiertasun askiz --, III mendearen erdialdera, kristautasuna sarturik zegoala Kalagurri'ko Baskoien artean.

Bi dira ori aldarrikatzeke erabili dezazkedan arrazoiak, naiko balio-soak gaiñera — nere ustez biak: Emeter eta Zeledon bi martir aien nongotasuna, bat; Prudentzio'ren olerkietatik jaso dugun bertso bikain ura, bestea.

Martirien nongotasuna: Gure kristautasunaren etorrera atzeratuza-leek, bi martiri aiek, gudariak bait ziran, iñolaz ere euskaldunak ez baiña atzeritarrak izanen zirala esango digute erromatarren oitura, tokian tokiko jendeaz ez (atzea izan oi zalako).

Atzipeturik dabiltz. Tokian tokiko jendez osoturiko gudari-taldeak erabiltzen bait zituan Erroma'k erri-zainketarako, tokian tokiko jende aietaz fiatu zitekeala ziur ikusten zuanean. Eta euskalduna zearo izan zuan Erroma'k fiagarri, liburu onen lenen atalean aztertu ditugun idazle erromatarrek erakutsi diguten lez.

Batez ere Kalagurri'ko Baskoiak izan ziran Erroma'rentzat, **aien** leialtasuna zala-ta bereiziki on-ikusiak, eta, oraindik geiago dana, baita eraspentsuki mirestuak ere! idazle zar aien aipuetan ikusi aal izan dugu-nez

Izan ere, i"imperatore beraiek, beren buruaren zaintzarako ez zituzten ba, Suetonio'k dioskunez, gudari baskoi kalagurritarrak "D'aé pres Su&one (II,XLIC) des empereurs auraiet eu parmi leur garde une cohors ealagurritana" XI,268).

Nik Suetonio'ren "Vita XII Caesarum" Bartzelonako "Editorial Juwendud" ek 1978'an argitara emandako "Vida de los 12 Césares"en aurkitu dut. Ona nola gazteleratzen digun E. Ldpez Soto'k, guri orain ajola zaigun esaldia: "Augusto distribuyd entre las provincias, de las fuerzas militares, las legiones y las fuerzas auxiliares; establecid una flota en Mesina y otra en IUvena para la defensa de los mares Adriatico y Tirreno; el resto de los efectivos lo asignnd, parte a la custodia de Roma, parte a la de su propia persona, una vez que hubo licenciado la tropa de los calagurritanos, a los que habfa tenido consigo hasta la derrota de Antonio, como guardias de corps" (I.c.85).

Esan dezagun ba bildurrik gabe, III mendeko Emeterio ta Zeledonio Kalagurri'ko martiri done biak, endaz ia eskier -- eta agian elez ere bai --, Euskaldunak izan zirala; eta zerbait esan nai digula, itxuraz beintzat, bereala Kalagurri'n bertan aienganako eraspenak lortu zuan arrakasta miresgarriak: III mendean Euskalerrri'ko egoaideetan ere ederki sustraiturik aurkitzen zala kristautasuna.

Ori ez dala erabateko gauza ziurra?

Ez, ez da. Baiñan ¿ez al zaizute iruditzen gutxienez milla laureunda-marrerrakoa izango litzakela aburu orrek gure frontoietan egingo lukean dirua?"

- Gauza bera, ots kristautasunaren gureganako etorrena goiztarra, adierazten bait digu gaiñera, IV mendearen erdia-aurretik Kalagurri'n bertan jaio zan Prudentzio olerkariak ere, "Baskoien jentiltasun aberekoia aspaldiko gauza" zala esaten digunean.

Ainzuzen "baskoien jentiltasun aberekoia aspaldiko gauza" zalako jaio zan bera, antziñateko kristau-olerkaririk onena, sendi kristau baten altzoan, IV mendearen erdian.

Baskoien, -- bai beintzat Kalagurri'ko Baskoien --, jentiltasuna aspaldiko gauza izate orrek badamaigu eskua, beñere "portebanniëre" edo "ikurrifi'eramaille" izan ez ziran Emeterio ta Zeledonio seguruaski Baskoiak bai, Baskoiak izan zirala sinistu aal izateko. Esanik utzi genduan lez, eraillak izan ziranean, Galerio inperatoreak agindutakoaren araura gudaroztetik at bait zeuden kristautasunarik ukatu nai izan ez zutelako. Ta, naiz gudaroztetik jaurtiak izan ondorean ain era arriskugarrian gelditu, Kalagurri'n bertan bizitzen jarraitu zuten ezkeru, sinistekoa bait da

---

<sup>32</sup> Suetonio, Caius Suetonius Tranquillus, I mendean jaio zan; 70 garren urtearen inguruan. Aski zarra dugu beraz, Erroma'k Baskoienganako izan zuan usteon arrigarriaren lekuko bikain izateko. Adrian inperatorearen idazkari izan zitzaigun, aren emaztea, Sabina inperatemea asarretu zitzaion arte. Lenen mailleko estilista edo era txukuneko idazlea, asko idatzi zuan, naiz gaur geiena galdurik egon. "Amabi Inperatoreen Bizitza" du bere lanik garrantzitsuena. Liburu ortan ez ditu inperatore aien ekintzarik zakarren eta zikiñenak ere aipatzeko lagatzen. Orregaitik esan oi da, iñolako kezkarik eta lotsarik gabeko askatasun bera erabilli zutela, Bizitza ura, Suetonio'k, idazten, eta, amabi inperatore aiek, bizitzen.



kalagurritarrak zirala, eta, an, aideen artean aurkitzen zirala, eta, agian, baita senideen artean ere.

- Egia da Prudentzio'k gauza miresgarriak abestu zituala ain maite izan zituan bere bi erritar aiei-buruz, eta pozik agertzen digula bi Done ,baskoi? aiek kristaudian irabazirik zeukaten eraspena, eta nola etortzen zan pilloka jendea aien illobiaren albora.

Eraspen ori ez diote, beraz, bi Doneek Prudentzio'ri zor. Irabazirik zeukaten Prudentzio ain gorazarrea egiten asi aurretik ere. Nori zor ote zioten ba...? Ezpairik gabe, IV mendean Kalagurri'n bizi ziran euskaldun kristau ugariei! Beren "jentiltasun aberekola" aspaldi uxaturik zeukaten Kalagurri'ko Baskoiei!

Bada beste zerbait ere Prudentzio'ren olerkietan, IV mendeko Kalagurri'n kristautasuna ugari ta bizkorra zala adierazten diguna: Kalagurri'n IV mendearen amaierarako "Baptisterium" edo "Bataitegi" bat bazala alegia.

Bataitegi oiek elizatik at arriz sendo eraikitako etxola yareak izaten ziran. Bazuan ba IV mendeko Kalagurri'k bataitegi oietako bat. Emeterio'k eta Zeledonio'k odola ixuri zuten tokian bertan eraikia. Prudentzio bera dugu lekuko. Ainzuzen izenburu au bait darama bere Peristephanon deritzan olerki-lanaren VIII abestiak:

"De Ioco in quo Martyres passi sunt, nunc Baptisterium est Calagurri": "Martiriek eraillak izan ziran tokian orain Bataitegi bat Kalagurri'n".

Baiñan IV mendean Kalagurri'n alako Bataitegi bat bearrezkoa iza-teak ordea garrantzi aundiko gauzak esan nai ditu:

- Lendabizi, IV mendean Kalagurri'n kristau asko ta asko zala.

- Eta, are geiago, Kalagurri'n IV mendean gotzai bat bazala; bataioa, orduan soilki gotzaiek ematen zuten sakramentua bait zan.

Dokumentuetan agertzen dan lenengo gotzai kalagurritarra, V mendearen erdialdekoa da, Silbano, 457'garren urtearen ingurukoa. Orrek ordea ez du esan nai leenago Kalagurri'n gotzairik izan ez zanik. Au besterik ez bait du esan nai: Ez zaigula gotzai aien izenik larrukietan agertzen. Kalagurri'ko bataitegiak ordea, baietz, esaten digula dirudi: IV mendean izan zala gotzairik Kalagurri'n.

Ori argumentu ziurra ez dala badakit, baiñan naiz ziurra izan ez, bada beintzat balio aundikoa, gure pelotalekuetako jokaeran gutxienez milla zortzireuni egingo lukeana.

Are geiago! Milia bosteuni ere egingo lukeala esateko bai bait dut beste arrazoi bat: "Peristefanon" poemako XI ereserkia ainzuzen. Olerki ortan Prudentzio'k Kalagurri'ko gotzai baten izena damaigula bait dirudi. Izenburu au darama olerki orrek Prudentzio'ren olerkien liburuetan: "Ad Valerianum Episcopum de Passione Hippolyti Beatissimi Martyris": "Balerio Gotzaiari. Ipolito Martiri Txit Donearen Nekaldiarena"

Baleriano ori...Lnongo gotzaia zan? Kalagurri'koa seguruaski, erantzungo dizute edestilari geienek. Eta, ez noski batere arrazoirik gabe. Ikus:

Prudentzio Erroma'n egon da Teodosio (379-395) inperatoreak berak bere jauregizaiñen buruzagi izendatuta. Bere erriaganako zaletasunak eraginda, ordea, erriruntz dator itxasoz olerki au idatzi zuanean. Teodosio il ondorean?

Erroma'n, kristau zintzoa izaki gure Prudentzio martirien illobiak sarri ikustatzea izan du bere zorionik aundiena.

Innumeros cineres sanctorum Romula in urbe  
uidimus, o Christi Valeriane sacer.

Incisos tumulis titulos et singula quaeris  
nomina: difficile est ut replicare queam.

Plurima litterulis signata sepulcra loquuntur  
martyris aut nomen, aut epigramma aliquod.

Sunt et multa tamen tacitas claudentia tumbas  
marmora quae solum significant numerum.

\*

Euskeraz:

Zenbatu ezin aiña Doneen illobi Erroma'n  
ikusi ditugu, o Baleriano Kristo'ren apaiz.

Illobi aietako idazkiak eta martiri bakoitzaren izena  
eskatzen dizkidazu? Ezin izango dizut errez erantzun.

\*

Illobi askok ematen digute idazkiño ala epigrama baten  
bidez martirien izena.

Beste asko ordea illobi mutuak dira  
soilki zenbat gorpu dituzten esaten dutenak.

Martiri guzti aietatik bat izan zan Prudentzio'ren biotza era berezian  
unkitu zuana: Ipolito Donea.

Ez dakigu zergaitik, baiñan Balerio gotzaiari, Ipolito'ren jai eguna  
ere bere Elizan ospatzen asteko eskatzen dio. Zipriano, Zeledonio ta  
Eulali'ren egunak ospatzen dituan bezala, ospatzeko Ipolito'rena ere:

Inter sollemnes Cypriani uel Cheledoni  
Eulaliaeque dies currat et iste tibi.

Sic te pro populo, cuius tibi uita credita est  
orantem Christus audiat omnipotens

Sic tibi de pleno lupus excludatur ouili  
agna nec ulla tuurn capta gregem minuat.

Sic me gramineo remanentem denique campo  
sedulus aegrotam pastor auen referas

Euskeraz:

Zipriano, Zeledonio ta EulaIrren egunak bezala  
ospa'zazu aundikiro Ipolito'rena.

Ala, emana izan zaizun erriaren salbapenaren alde otoitz  
dagizunean entzun zaitzala Kristo alguztidunak.

Uxa beza otsoa zure artalde narotik, ark ebatsitako  
bildots batez ere zure artalderik laburtu ez dedin.

Zuk, artzai on orrek, ar nazazu ni, ardi gaixo erdigaldu au

zure larre oparo orren barruan.

Argi dakusgu itz neurtu oien bidez, benetan gotzai zala Prudentzio'-ren Baleriano ori.

Nongo gotzaia? Zaragoza'koa? Kalagurri'koa? Beste nonbaitekoa?

Ez digu Prudentzio'k erantzunik ematen. Soilki gotzai ura bere lagun aundia zuala adierazi nai digula dirudi:

Quod laetor reditu, quod te, uenerande sacerdos,  
complexi licitum est...

Euskeraz:

Au bai nere poza itzultze ontan, zu, apaiz agurgarri ori  
besarkatu aal izango zaitutalako.

\*

Baiñan, ezpairik gabe, gotzai adiskide asko izango zituan Prudentzio'k. Nongo gotzaiak kristaudiko eta agian orduan latín-erri guztiko olerkaririk onenaren adiskide izan nai ez?

Baiñan adiskidetasun berezia da Prudentzio'k gotzai oni erakusten diona. Are geiago, olerkiaren doiñu guztiak gotzai ura Prudentzio'k bere gotzaia zuala adierazten du. Eta bere elizbarrutia zuala, baitare, gotzai ark zaintzen zuan elizbarrutia. Gauzak orrela, gotzai ura ez zitekean Zaragoza'koa ala Kalagurri'koa ez beste uri batekoa izan.

Zaragoza'koa, aski epe luzez Prudentzio an bizitu zalako eta, orregaitik, ango elizbarrutia berekotzat euki zezakealako.

Kalagurri'koa, Prudentzio an jaioa eta an bereiziki bizitua zalako, eta bere olerkietan maiz agertzen duan lez, Kristaudia-zear ezagutu zituan uri eder ugari guzien artean beti Kalagurri bakarrik izan zualako bere uri maite kuttun laztana.

Bein auzia bi uri oietara mugatu, badakigu, eskier, Prudentzio'k goraltzen duan Balerio gotzaia Kalagurri'ko gotzaia zala.

;Ez bait zitekean Zaragoza'koa izan!, dokumentuen araura Zaidubak'k une artan gotzairik ez zualako; edo, bat izatekotan, gotzai ori 380'-ean Zaiduba bertako sinodoa zuzendu zuan Balerio izanen zalako.

Bi Balerio izan zituan gotzai Zalduba'k: Aurrenekoa, Iondoni Bixintxo uezsitarra diakono izan zuana eta 300'garren urtean-edo Illiberis-Elbira'ko kontzilioan izan zana; eta, bigarrena, beste Balerio au, Garns'en ustez Prudentzio'k beste itz neurtu batean abestu zuana "Balerio'tarren sendi gotzai-emaillearen sendikoa" zala esanez: "Ex gente Valeriorum infulata". "Ad quam familiam episcopatus caesaraugustanus devolverat", ots, "bigarren Balerio orren bidez sendi artara Zaiduba'ko gotzaigoa berriro itzuli zalako" esan omen zion Prudentzio'k "sendi gotzai-emaille", "infulata", Balerio'tarren sendiari ("Series Epis". Caesaraugusta itzean).

Orregaitik ez du Gams'ek Prudentzio'ren Baleriano ori Kalagurri'ko gotzaien artean aipatzen. Ezta, orrelakoetan oiturazkoa duan bezala, zailantza-ikurrez orniturik ere.

Danadala Kalagurri'ko gotzaia izan zala uste izan zuan jendeak beti, XVIII mendean Ruinat'ek, seguruaski Zaiduba'ko gotzaia zala esan zuan arte:

"Hic videtur esse Valerius caesaraugustanus episcopus qui in 381 interfuit concilio caesaraugustano contra priscilianistas haereticos in Hispania pullulantes" ("Acta Martyrum Sincera", Amsterdam, 1.731. 170 or.).

Euskeraz:

"Onak, Españi izurriturik zeukaten ereje priszilitarren aurka 381'ean Zaiduba'n egindako kontzilioan egon zan Balerio gotzai zaldubatar ura bera dala dirudi".

Ez Ruinat jauna: Balero ta Baleriano ez dira izen bat beraren era ezberdin bi; bi izen zearo ezberdiñak baizik. Eta garai artan asko erabiliak biak.

Badirudi beraz Kalagurri'ko gotzaia izan zutela gure arbasoek Prudentzio'k ain oparo gorestu zuan Baleriano. Aburu ontakoak dira bi "kodigo" edo larruki-bilduma" zaar: Albelda'koa eta Kukulla'ko Donemilian'en Lekaidetxekoa. Bietan irakurri daiteke ba onako esari au: "Valerianus Calagorritane urbis Episcopus": "Baleriano uri kalagurritarreko gotzaia".

Ona zer dioskun Jose Guillen'ek ("Aurelio Prudencio. Obr. Compl." 12 or.): "En ambos cddices, `Albeldensis' y 'Aemilianensis'--, en la secciÓN de los `Nornina Uirorum Illustrium' terminada la enumeraciÓN de escritores de los cuales habla San Jerónimo se lee: 'Ex hinc Gennadius

Massiliensis episcopus: I Valerianus Calagorritane urbis episcopus. II Prudentius Calagorritanus uersificator insignis muEta contra ereticos et paganos diuerso edidit metro nostrumque dogma locutentissime cecinit". (Ondorean, izen-zerrenda bat dator).

Euskeraz:

"Emendik aurrera Gennadio gotzai martsellatarraz: I Baleriano Kalagorri'ko gotzaia. II Prudentzio Kalagorritarra, olerkari ospetsua; asko idatzi zuan olerti-era ezberdiñez erejeen eta jentillen aurka, eta txit oparo abestu zuan gure sinispidea".

"Por donde consta claramente que ya en el Siglo X, y probablemente antes, Prudentzio era tenido por calagurritano y que Valeriano fue obispo de aquella ciudad".

Bi "codex" oiek diotena, Prudentzio'ren olerkiak aditzera damaigula dirudiana, eta Kalgurri'n "baptisterio" bat ordurako eraikirik egotea, alkarrekin ederki konpontzen dira noski IV mendean ego-euskaldunen artean ere Eliza erakunde billakaturik aurkitzen zala esan aal izateko.

Ez naiz, orrela uste ez dutenekin, eztabaidan asiko. Ez dut asi beaé rrik ere, nere asmoa Kalagurri'n mende artan gotzairik bazala adierazten baiño geiago, Kalagurri'n IV mendean kristauak ugari zirala egiztatzea dan ezkeru.

- Bedi, jaun oiek orrela nai ba'dute Kalagurri'n ez zala IV mendean gotzairik izan. Bedi, Zaragoza'ko gotzaia etortzen zala hataiaketara baptisterio artara. Besterik gabe, ori, ori bakarrik, IV mendeko Kalagurri'n kristaudi bat bazala esateko beintzat naiko arrazoi mardula bai bait da.

- Ta, arrizko bataitegi bat egin izatea ber-bera ere, Zaragoza'ko gotzaia bataiketara maiz etorri bearrean aurkitzen zalaren siñale portitza dugu noski, ezipairik gabe.

Orrek ordea Kalagurri'n kristauak asko ta asko zirala adierazten digu. Aspaldi azturik zegoala an, "Kalagurri'ko Baskoien jentilkeri aberekoia".

- Kalagurri'n IV mendean kristauak ainbeste izanik..., garai artako kanon-lege ta oituren araura..., Kalagurri'ko kristau euskaldun aiek beren gotzairik gabe bizi zirala, zailki pentsa daitekean gauza da.

Ez dut esan nai Kalagurri'ko baskoi guztiak kristauak ziranik. Ez bait zan orrelakorik iñon gertatzen. Baiñan, garai artakoa dugun Prudentzio'-

ren lekukotza jarraituz, pozik esango dut kristaudiko beste urietan bezain ongi aurkitzen zitzaigua kristautasuna Kalagurri'ko euskaldunen artean. Bai beintzat Erroma'n bertan baiño obeki.

Kalagurri'tik at ez dakigu noraiño iristen zan Ego-Euskalerriko kristautasuna. Donebixente Diakono Doneaz ari izan geranean, esanik utzi dugu Ueszitarren Oskan beintzat sarturik zegoala III mendean bertan. Aretxabaleta-gaiñeko Aitzorrotz'en aurkitutako krismoidun lurregosi-puskak ez digu IV mendeko euskal-kristautasunaz itzegiteko balio, geroxeagokoa bait da seguruaski.

Orregaitik, nik, Euskalerriko lurralderik geienean -- V mendea iker-tzerakoan aipatuko ditugun Errioxa'ko "Beroien" artean izan ezik --, euskaldunak, IV mendean, jentillak zirala esango nuke. Baiñan geldi bedi argi ta garbi, ori ziurki esateko arrazoi baikor bat bakarrik ez dutala.

Logikaren argiz, ordea, utsegiteko bildurrik gabe birresan dezaket, IV mendeko Euskalerritik geien-geiena jentilla zala, beste lurraldeetan gertatzen zanaren araura.

Gauza jakiña bait da gaiñera, IV mendera arte ez zala Eliza landa ta mendietako jendeak ebangelizatzen asi. Zalantzarik gabeko gauza dugu, beraz, jentilla zala IV mendean Euskalerriko jenderik geien-geien-geiena.

Ez zaitez, ordea, lotsatu. Ez zaitez larritu. Ori bera gertatzen bait zan Frantzi'n, España'n, Itali'n eta mundu "kristau" guztian. Euskalerria ez zebillen, ortan, Euskalerritik ateko mundua baiño atzerago. Bearbada..., aurreraxeago zebillen.

Mundua jentilla zan oraindik IV mendean. Jentilla zan Erroma. Jentilla zan Erroma'ko Inperioaren Senatua. Ainzuzen IV mendearen azkenaldera, ezaguna dugun Graziano inperatorea izan zan Erroma'ko Senatuaren gela nagusitik Garaitza (Victoria) jainkemearen irudia kenduerazi eta aren omenez eraikitako aldarea ezereztea agindu zuana. Zipoztu ziran Senatari Jaunak. Joan ziran Graziano'rengana, asarre. Alperrik. Ez bait zien onek amorerik eman.

Graziano ori bera izan zan "Pontifex Maximus" edo "Apaiz Nagusia" izendatua izateari uko egin zion lenengo inperatorea. Goi-izen ori, "Pontifex Maximus", Erroma'ko jentiltasunaren Apaiz Nagusiak bakarrik erabili zeakean izena zan. Ta ordurarte, Kostantino'z geroko inperatore kristau guztiek eraman zuten goi-izen ori, naiz beraiek benetako kristauak izan. Jentilla bait zuten beren mendeko jendetzarik geiena.

Gaiñera, Sortaldean bertan ere oraindik gutxiengo edo minori bat zan kristautasun zer esanik ez, Sarkaldean oso era ezberdiñean zegoan banatua kristaudia-zear. Ordurarte bezala, oraindik, "batez ere Mediterran-Itxasoaren lurraldeetako arazoa zan IV mendean ere kristautae suna": "G&Igraphiquement le christianisme est avant tout un ph nomne rn&literranen" (Nouv. Hist.  gli. 265).

Ala, mende orren asieran Elbira'ko kontzilioan gotzaien edo apaizen bitartez ordezkaturik egon ziran 33 elizbarrutietatik, 27, Andaluzi baka-rrekoak ziran; gaiñerako Espa ni guztikoak, 5 besterik ez.

"Il est de m me pour la Haute Italie"(ib): "Orrelaxe aurkitzen zan Itall'ren Iparralde guztia ere" Rabena uritik gora. 2 gotzai-uri besterik ez bait zituan III mendearen erdialdera: Milan eta Akileia, azkeneko au Adriatik-Itxasoaren ipar-iparreaan.

"Era berean aurkitzen zan Frantzi", "La Gaule pthe a une observa-tion analogue"(ib): 16 elizbarruti izan ziran, mendearen asieran, Ales'ko kontzilioan bilduak. Aietatik 12 Frantzi'ren ego-sortaldean aurkitzen dan Probenzakoa'k. Frantzi osoko beste lurraldeetakoak, 4. Lau oietatik, 3, AkitanrkoakI: Bordele, Gabali eta Elusa; au beintzat bai, Akitani euskal-dunaren erdi-erdikoa. Ikusi dezakezunez, ez zebillen ain gaizki gure Eus-kalerri zarra!



## EUSKALERRIAN ELIZA ERAKUNDE

Gure Eliza, Kristo'ren Eliza, Erakunde bat da, Kristo'k berak orrela nai izan zualako.

IV mendearen azterketan murgildurik gabiltzan ezker, ikus dezagun nola zegoan Eliza gure artean eta gure inguruan ERAKUNDE lez antolatuturik.

Akitani zarraren erdian Elusa izan zan Euskalerriko Eliz-Erakundearen oiñarria, Elusa bait dugu gotzai bat izan zuan lenen euskal-uria. Baita lenengo goigotzaia izan zuana ere.

Nere lagun aundi eta txit jakintsu bati, arriskutsua-edo iruditu bide zaio, IV mendeko Euskalerrian Eliza erakundetarik aurkeztea. Baptisterioak aurkezteko eskatzen zidan. Bataitegiak. Garai artako Euskalerrian, Bataitegiak, Baptisterioak.

Ta, ez noski arrazoirik gabe. Antziñako lenen mende aietan, batailaria gotzaia izaten zalarik, uri zar aietako batean IV mendeko baptisterio bat agertzen ba'zaigu, naikoa arrazoi bait dugu bataitegi ori, alako uri ark IV mendean gotzaia bazuala ziñeztatzeko: Baptisteri duan uria, uri gotzaiduna.

Bi izango dira, IV mendeko Euskalerrri zarrean Eliza Erakunde billaturik aurkitzen zala egiztatu naiez erabilliko ditudan zio bereziak:

- Kalagurri'ko Baptisterioa;

Elusa'ko goigotzaigoa.

Kalagurri'ko bataitegiaren aztarnik ez zaigu gure aldi auetaraiño iritxi. Ez beintzat arrizkorik. Baiñan arrizko aztarnarik gogorrena bezain sinesgarria zaigu, eta baita geiago ere, V mendea asi bezain laister Prudentzio olerkari kalagurritarrak bere uriko bataitegi ari opaldu zion olerkia. Arrizko aztarnak galde zalantzarri asko sortarazi dezazkete: Arri au IV mendekoa ote da? Bataitegi batena? Ez ote da beste toki batetik ekarria? Prudentzio'ren olerkiak ez du iñolazko zalantza-biderik ematen. Argi

dio bataitegi batez ari dala eta bataitegi ori Kalagurri'n dagoela. Olerki ori "Peristephanon" deritzan poemaren VIII da, eta auxe izan du betidanik ipiñi oi zaion izenburua: "De loco in quo martyres passi sunt nunc haptisterium est Calagurri"; "Bataitegi bat dago gaur Kalagurri'n, martiriak illak izan ziran lekuan".

Elusa'ko Goigotzaigoa, Kalagurri'ko bataitegiak adierazten digunari indar ematera datorkigu. Toki batean gotzai bat naikoa ba'da, toki ortan Eliza erakunde billakatu dala esan aal izateko, zer esanik ez gotzai ori goigotzaia ere baldin ba'da. Goigotzaiak bere lendakaritzapeko gotzaiak eskatzen bait ditu.

Elusa, frantziarren Eauze, Nobenpopulanrren erdian, au da, orduan oraindik euskalduna zan III Akitani'ren erdian zegoan, Adur eta Garona ibaien arteko Gaskuiña'n. Noiz goigotzai-uri egiña izan zan ez dakigu: Pius Bonifacius Gams beneditarrak bere "Series Episcoporum" izeneko liburu mardularen 496'garren orrian Elusa'ko gotzai guztiei esaten die "Archiepiscopi de Elusa": "Elusa'ko Goigotzaiak". Baita, oso ziurki ango gotzaiak izan ziran ez dakigun, III mendeko aiei ere.

Noiztikotasun ori E. Griffe'k argituko digu zerbait: "Riev crétonnant qu'Éauze soit porvoue d'un évêché. Cette petite ville etait devenue, vers la fin du III'e siècle, la capitale de la Novempopulanie, lorsque l'Aquitaine fut divisée en deux provinces" (Griffe, op.c. 125),

Euskeraz: "Ez dugu zertaz arritu Elusa gotzai uri agertzen ba'zaigu, III mendean, Akitani bi probintzitan erdibitua izan zanean bera izan bait zan Nobenpopulani'ren uriburum egiña".

Laterri-Probintzi baten uriburu izateaz gaiñera, Eliz-Probintzi baten uriburu bazala (eta, beraz, goigotzaiak zirala ango gotzaiak), diosku L. Gallar'ek "Dictionnaire d'Histoire et de Géographie Ecclésiastiques" deritzan iztegi ospetsuan (XIV, 1267 or.). Ortan bat dator B. Gams'ekin. Ez dator ordea Griffe'rekin bat noiztikotasunari-buruzko arazoan, IV mendearen azkenean ipintzen bait du Elusa'ko goigotzaigoaren astapena:

"A la fin du IV'e siècle la cite d'auze etait norrune la tête de la province de Novempopulanie. Sa province ecclesiastique dut a l'origine correspondre exactement a cette organisation".

Euskeraz:

"IV mendearen azken aldera, Nobenpopulani Probintziaren uriburu egiña izan zan Elusa. Bere Eliz-Probintziak ere. bete-betea, bere Laterri-probintziaren neurri berak izango zituan asieran beintzat".

Elusa, Nobenpopulani'ko uriburu, IV mendearen azken aldera izan zala esan digu L. Gallar'ek. Ez du arrazoirik. III mendearen azken aldera gertatu bait zan ori. Griffere'na da, beraz, arrazoia. Akitanrk, iru muga aldaketa izan zituan: Aurrenekoa, Kriseaurreko 37'garren urtean, Zesaraugusto'k ipar-muga Garona'tik Loira'ra jaso ziotenean. Bigarrena, Akitani zarra, Akitani Zabaldu ortatik bereizi zanean eta ostera lengo bere mugetara biurtu zanean. Orrela, Akitani Zabaldu ura bi puska egiñik gelditu zan: Akitani.

Zarra, Garona ta Auñamendi'ren artean; eta Akitani Berria, Garona ta Loira bitartean. Erdibiketa orri esan oi zaio Akitani'ren leengo zatiketa. Bigarren zatiketa IV mendearen azken aldera gertatu zan. Orduan iru pusketan izan zan ebakia Zesaraugusto'ren Akitani Zabala: "Aquitania Prima", Nobenpopulani'ren iparretik gora gelditzen zan Akitani Zabal aren sortaldea. Bituri, gaurko Burges, eman zitzaion uriburu". "Aquita-

---

"Bituriges", ots, "bituritarrak", "Bituri'koak", izen-eman zien Errorna'k "eivitas" artako biztanleei. Izen herheraz deitu zien Bordele'ren egoaldeko leiñu bateko biztanleei ere: "Bituri'koak". Bi uri oiek eta Araha'ko Bitori'k, beren artean izen-aidetasunik aski hadutela dirudi. Ez bekit ifior. Bitori izena Araba'koari, Santxo VI jakintsuak ipiñi ziola esanez etorri. Errege ark, lateraz mintzatuz, "Victoria" ez baiña "Nova Victoria" esan bait zion, "Gasteiz" izeneko baserriari, arresiz inguratuz, uri biurtu zuanean. Eta orrela gero ere amar urtez bere erregetza guztian, arrezkero irasi zituan ut-i arresiduner "Nova Victoria"ren foruak ematen zizkiela esanez. Bearbada, "Gasteiz" izeneko baserri aren alboan beste Bitori bat ezagutzen zualaren siñale; bere erregetzaren azken alderako, "Gasteiz" aurkitzen zan lekuan berak irasitako "Victoria" ura, ez bait zan adifiez ain "nova". Araba'n badugu Bitorita edo Bitorieta bat Laudion. Baita Bitoriako QBitoria'ko?) bat ere Zuya'n. Bada Biloria bat ere. Beste bigarren Biloria hat, Naparroa'n dago. Eta, irugarrena, Errioxa'n. Bilori oiek eta Bitori'k aidetasunik izan dezaketela dirudi. "Ori", "oria", atzikia beintzat, benetan euskalduna dugu. Bañan Bituri ez ezê "Abari" edo "Abariko" ere, (akusatihu- eran "Avaricum") esan zioten gaur-egunao Bourges'erj. Euskal- izenak idazterakon erromatarrek "R" eta "RR" maiz nasten zituztelako,

nia Pirna" orren sortaldean, Loira, eta Garona'ren artean, Atlantik-Itxasoaren ertzean, "Aquitania Seeunda", Bordele uriburu zuala. Egoan, Garona'tik Autiamendrra, "Aquitania Tertia" betiko Akitani zaarra, Nobenpopulani. Elusa izan zuan uriburu.

Seguruaski, zatiketa bikoitz orrek egifierazi zion oztopo, bera oartzeko, Gallar edestilariari.

Naikoa zuan Elusa'k gotzai-uri izatea, ez zuan goigotzai-uri izan bearrik, guk, IV eta V mendeetako Euskalerra Zarrean Eliza Erakunde izatera eldurik zegoala esan aal izateko. Ez genuan, ortarako, beste gotzai uriren bearrik ere. Ez zitzaigun ordea, zorionez, beste orrelako uririk peitu:

- 358'an, Agino'n gotzai zan Febadk, Donea, arianikeriaren aurka ain egoki idatzi zuana. Eta 374'an Galietako Balentzi'n eta sei urte geroago Ispanietako Zalduba'n kontzilio biren lendakari izandako uraxe bera. Agino, berriz, Garona ibaiaren ertzean, euskalduna izanen zan noski -- bai beintzat elebiduna eta euskalduna izanen zuan zati aundi batean bere elizbarrutia 358'garren urtean.

---

errez izan zitezkean izen oiek euskeraz "Abarri" eta "Abarriko".

Ez da erreza Galietako euskal-lurretan euskera noiz galdu zan igartzea. XVIII mendeaz gero ainbeste ta ainbeste idatzi dute frantziarrek beren lurraldea goratuz-eta, atzipetu dute mundua, atzipetu gaituzte danok. Baiñan nere uste apalez, erromatekoan, Galietan baiño aundiagoa izan zan ispanietan kultura, Nabarmenki aundiagoa. Oroi gure Kintiliano, gure alboko Marzial olerkari bilbilitarra, eta gure Prudentzio bera, lateraz IV mendeko oierkaririk onena; oroi Eliberri (Elbira)'ko ain kontzilio goiztarra, Prisziliano'ren gogoeta makurren indarra; oroi iru Betika-sume ospetsuak; Seneka filosofilaria, Trajano inperatorea, Osio kordobatarra, Atanasio aleksandritarrarekin IV mendeko Elizaren gotzairik

Oroi gizandi oietako batzuk, Prudentzio Euskalerrairen barruan, Kalagurri'n jaio zirala, eta beste bat Jalon ibaiaraiño iristen zan Euskalerra zaar artatik oso bertan, bera era Jalonibarrean aurkitzen dan gaurko Kalatayud orduango Bilbilis'en. Oroi izugarrizko arrakasta izan zuala emen Prisziliano ereje ispaniarrak. Alatagutziz, Aragoi'ko zelaiean, "Caesaraugusta"tik urbil aurkitzen zan Ueska' n, kulturazko itxaso orren ertza-ertzean, eta naiz bere arresien barnean Krist'aurreko

V mendearen asieran, 405'garren urtean, Agino'ko gotzaia zan Dulcidius ere.

395 baiño lenago, urte ortan il bait zan Akitani'n bertan, Eliberri'n (Auch)'ko gotzai zitzaigun Orientius Donea.

V mendean, 451'an, Armentarius genuan Eliberri'ko gotzai. Aitasantu, Erroma'n, Atila'ren denborako I Leon ura bera. Ba, Aitasantu orri Galietatik idatzi zioten gotzaien izenen artean, Armentarius batena ere agertzen da. Seguruaski, Eliberri'ko gotzai arena.

- V mende ortan --urtegarrenik ez dakigu bi gotzai agertzen zaizkigu bata bestearen atzetik Eliberri'ko aulkian: Monervius bat, Justinus, hestea. Azkeneko onek Eurika Tolosa'ko errege bisigotaren aldetik nekeak izan zituala badakigu.

- V mendean, 451'an, Donebalerio, Akitani'ko Konserandarren gotzaia zan, Turona'ko Gregorio'k dioskunez ("Glor. Conf". 80'gn. atala).

IV mendean, Akitani'n, Konbenetarren uri nagusia ere, "Lugdunum Convenarum", Nobenpopulani'n urigotzaiduna zala esaten digu mende ortan idatzitako "Notitia Dignitatum" izenez aipatua izaten dan liburuak. Eta izpar orri indar ematera datorkigu, Galietako lenen parroko ezaguna konbenatar bat izatea: ainzuzen 347'ko arri-idazkian agertzen zaigun Patroklo bereterra. Badira an beste bereter bat, Seberino, eta bi kristau aipatzen dituzten IV mende artako arri-idazkiak ere. "Guzti orrek eta uritik at ere elizak izateak, IV mendean konbenetarren uri artako Eliza jendez ugaritsua zala adierazten" digula, diosku frantzeraz Ch. Higounet Bordele'ko unibersitateko irakasleak: "Les deux grandes inscriptions fun&aires aunci que l'existence des basiliques extra muros montrent l'existence d'une glise (1 » nombreuse dans la "civitas convenarum" dès le IV'e (Dic.Hist. GŠog. Eccl. XIII, 391).

---

79'aren inguruan Sertorio'k ango gaztediarentzat ikastetxe erromatar bat irasi izan 1362'an oraindik euskera bizirik ba'zegoan, uste izatekoa da noski Erroma'ko inperioa jausi zanean Euskeraz egingo zala noski Akitani'ko lurraldetan, eta baita, bearbada, Akitani'z aruntz Garona ta Dordoña arteko lurralde batzuetan ere. Ori, nere ustea besterik ez da. Dokumenturik ez dut. Ez zait, ordea, logikarekin asarre nabillenen iduritzen.



ordea, iñolako-dokumentuen-aztarna-txkienarik-ezak sortzen digun illunbea.

Alatagutziz, iruzurturik ibiltzeko bildur aundiz, eta ia- ia aztien erak erabilliz, ausartu nai nuke argi-izpi xume batez illunbe ori urratzen saiatzera. Badakit aztiek ez dutela zer-egĩnik edestiaren barrutietan. Nere aztikeri onek, ordea, izanen du oiñarri ziurrik: Ueska, Ueszarren urinagusia.

Esan- berri dugunez, eskierki dakigu Ueska'n XIV mendearen erdi-erdian itzegiten zala euskeraz. Ori, uka ezin daitekean egia dugu. Ta egi ortatik indar- artuz, oker aritzeko kezkarik gabe erabaki dezakegu Aro Berriaren asiera- arte beintzat iraun zuala Euskerak gure uri zar artan. Ta, ikusi dugun lez ain leku ta ain era arriskutsuan aurkitzen zan uri artako biztanleak euskaldun iraun ba'zuten orrenbeste mende luzez, **XIV mendearen** erdian beintzat euskaldunak zirala ziurki bai bait dakigu ango udalaren dokumentu baten bidez      uste izatekoa da orain aztertzen ari geran mendeetan, III, IV, eta V mendeetan euskaldunak izango zirala Euskalerra Zarreko beste "civitas" aietako biztanleak. Euskaldunak... edo, gutxien- gutxienez, elebidunak.

Ueska'ko udalaren erabaki ura azokaren gobernaketarako bakarrik emana izan zala? eta, orregaitik, azokara joaten ziran inguruko baserritarak bakarrik izango zirala Ueska'n euskaldunak?

Ez da gutxi, alajaña, Aro Berriaren sarreran, Birjaiotzaren atarian Ueska'ren inguruko baserritarak euskaldun jarraitzen zutela jakitea!

Ueska'en inguruko baserritar euskaldun aiek, ordea, Ueska uriaren barrengo azokara joaten ziran beren euskerarekin.

Beraz azoka- barruan, ordea, naiz baldarki. erromantzez mintzatuko zirala?

Ez      Ainzuzen, euskeraz azokan mintzatzea bait da udalaren agindu arek debekatzen duan gauza.

Beraz euskaldunak ziran an, bai saltzailleak- bai erosleak, ots, bai Ueska'ren inguruko baserritarak, bai Ueska'ren barrengo uritarrak.

Agindu ark, euskeraz ez ezé, eberkeraz eta arabieraz mintzatzea ere debekatzen zuala?

Egia. Baiñan kinkak ez ziran iru izkuntza aientzat berdiñak. Judutarak eta arabitarak, uriko biztanle guztien alboan oso gutxi izateaz gaiñera      "atzerritarak" ziran, eta erlijioz ere etsaiak, Urien barruan,

arresiz inguratutako "geto" esan oi zaien auzoetan ertsirik bizi oi ziran. Orrela zeuden tajutuak Bee- Erdi- Aroan Ispani kristaueko uri geienak, eta, latinez, jakintsuek izan ezik, inork itzegiten ez zualako, irueledunak izan oi ziran.

Ez, ordea, gure Ueska. Ura, jakintsuen latiftarik aipatzeke, laueleduna izan genuan: erromantzea, eberkera, arabiera..., eta euskera.

Baiñan esan dugun lez, ez zan berdiña izkuntza guzti aien kenka, Juduek eta arabitarrek, endaz beintzat, atzerritarrek ziran; eta erlijioz etsai gorrotatuak. Euskaldunak ordea, erromateko "Veseetani" edo "Ueszitar" aien jatorrikoak, bertako semeak, eta osoki kristauak. Bai aragoitar-erromantze jaio-berria Laterriaren Izkuntza izaki-ta, geroagoko beste Laterri-Izkuntza danen antzera asirik genduan 1349'an euskera zapaldu naiez legegintzan. Ueska'n, agian, ber-beraien euskera zapal-tzen! Seguruaski euskaldunak izango ziran ba odolez Udaleko agintari aiek, eta, bearbada, ibaita izkuntzez ere! Orrelako alukeririk ugari... iikusi bait dugu Euskalerrian!

Logikaren bidetik ibilli nai dutala esan dut. Logikaren zati bat da, arrazoiak nola tajutu erakusten duan Dialektika. Dialektikak, berriz, badu "a fortiori", "indar geiagoz", esan oi zaion argumentu-kera bat.

Argumentu ortaz baliatuz, ikus zer esan dezakegun:

Ueska'n bertako agintarien borondatearen aurka, eta beste iru izkuntza aien artean euskerak bizirik eta indartsu jarraitzen ba'zuan, ez bait zan bestela legez debekatua izango "a fortiori", "aretageiago" izanen zan euskera izkuntza bizia ta indartsua gure III, IV eta V mendeetan.

Badu Dialektikak beste argumentu-mota bat ere, "a pari", ots, "kide-tasunaz", esaten zaiona. Ona zer damaigun:

III, IV, eta V mendeetan euskera Ueska'n bizirik eta indartsu al zegoan? Ba, "a pari", "kidetasunari orrela dagokiolako", eta aurkako arrazoi benetako arrazoi sendorik ez ba'da, bildurrik gabe esan daiteke mende oietan bizirik eta sendo egonen zala Euskalerriko beste "civitas" aietan ere.

I, II, III, IV, mendeetan gaiñera gure "civitas" aietan, jakiña, ez zan arabitarrik. Ez eta judurik. Erromatarrek berriz ez oi ziran tokian-tokiko izkuntzen etsaiak izaten. Ez zuan beraz alde oietatik euskerak "civitas" aietan, Bee-Erdiaroan Ueska'n agertu zitzaion arriskurik izan... Ondorioz,



esan daitekeala dirudi gure "civitas" zar aietako jendeak, euskera ta latera elebidunak izan zitzaizkigula".

Inguru-bideetatiko ibillaldi luze xamar onen ondorean, zai daukagun galde nagusiari erantzun bat emateko gai izango gera zai daukagun galde nagusiari erantzun bat ematen saiatzeko:

Erromatean, Lurralde Euskaldunetako Eliz Eratu aren Erakundea ¿Erakunde Euskalduna izan al zan?.

- Bai bere eiiztarrei dagokionez. Esan dugun lez euskaldunak, edo beintzat elebidunek bait ziran, ematen duanez, "civitas"etako biztanleak. Ez du balio, itxuraz beintzat Erroma'tiko atzerritarrik izan zitezkeala esateak. Elusa'n adibidez, uri ura goigotzaidun egiña izateko, ez bait zan an, iñolaz ere, ainbeste atzerritarrik sekulan bititu.

- Baleike, Eliz-agintariei, ots, gotzai, bereter, eta diakonoei dagokionez. Beraien izenak elenera edo laterazkoak izateak ez bait du ezer aundirik esan nai. Gaur mixio-lurretan gertatzen dan bezala, orduan ere, euskaldun jentillek, bataiorakoan, beren "izen ofizialak", Elizan oiturazkoak ziran izen kristaueetatik artu izatea, arras itxurazko gauza bait da ezpairik gabe.

- Ez ordea izkuntzari dagokionez. Ez beintzat liturgian erabillitako izkuntzari dagokionez. Erromatekoan, elenera izan zan Sortaldean liturgiaren izkuntza, eta latera Sarkaldean. Bi oiek bait ziran, gaiñera, Erroma'ko Inperioaren izkuntza ofizialak.

Ezta, itxuraz, liturgiatic-kanpoko izkuntzari dagokionez ere. Lenen mende aietan ez bait zan Eliza-baitan, gaur-eguneko "errosarioaren" eta "bederatziurren" antzeko ospakizunik.

- Liturgi beraren barruan ere, euskera ote zan erriari egiten zitzaizkion oarren eta omilien izkera? Ez, noski, ez; latera baizik. Alde bateatik, esan dugun lez, "civitas" aietako biztanleak elebidunak izango zirala-

---

<sup>35</sup> Ueska'n erromatekoan judurik ez zala esan dugu. Dokumentuen bitartez dakigunaz beintzat, X mendera arte ez zan Euskalerrian "juderi" edo "judutegirik" sortu. Zarrena, Iruila'koa dugu, X mende ortakoa ainzuzen. Ueska'n, X mendearen azkenean agertu omen ziran juduak: aragoitar kristauek mauritarrei 1096'ean uria kendu baiño lenxeago. Albiste auek "Encyclopaedia Judaica" iztegitik artuak ditut (Jerusalen, 1972. "Pamplona" eta "Huesca" itzetan)

ko, et beste aldetik, latera, Elizarentzat izkera sagaratu zalako. III mendean gero "Vetus Itaia" izeneko itzulpenean Idazti Doneak bazituelako, sarkalde osora kristautasun-ereintzaren erreztasunerako Jainkoak berak eratutako izkuntza omen zalako, eta Kostantino'z gero Inperio Kristau Sagaratuaren izkuntza ere ba'zalako.

- Eta jauretze ta otoiztegietatik at, etxe-barrenetan? Baietz esango nuke nik. Zergaitik?. Naiz elebidunak izan eta aski portizki erromarturik egon, "civitas" aietako euskaldunek beren artean euskeraz egiten zutela uste izatekoa dalako. Ez zuan ba Ueska'n euskerak iraun zuan bezala iraungo, orrela izan ez ba'litz.

Antziñate artan gaiñera aunizki orokorra zan bertsolaritza izkuntza guztietan. Zorionez, Euskaldunok, eta gurekin batera eta Saara-barrengo edo munduan beste zoko bazterturen bateko Leiñu txikiren batek edo bestek bakarrik gorde omen dugu Erri-Literaturaren pitxi zoragarri ori bizirik. Eta iñork ez, euskaldunok bezain sendo eta bizirik. Sinistekoa da gure Euskalerra Zar Zabalean antziñateko gure bertsolari zar aiek ez zutela Josu'ren ekintza eta irakaskintzarik iñoiz bertso bikain ugariz abestuko?

Ama euskaldun kristauak beren aurtxoei Jesus Aurtxoaz mintzatzerakoan, ain maitea zutela dirudian euskera bazterrera jaurtiz, lateraz itzegiten zietela... ,uste daitekean gauza ote dugu?

Eta illetak!!! Euskaldunak badu bere illeta-kera Bereizia. Edestiaurretik ietorkiokena, eta mendeak geroago ere, erdiaroan, Alostorre'ko etxejoaunaren illetetan bizirik eta sendo dakusguna. Zerbaitxo baiño geixeago artu zuten jentillen illetetatik lenen kristauak. Euskaldunak ere, aurka arrazoirik ez da ezagutzen-da, uste izatekoa da, ildakoaren etxe-barruan ospatu oi ziran illeta bikain dotore aiekin jarraituko zutela noski, illetariet txandaka, bata bestearen atzetik, ildakoaren gorazarrea bertsoz egiñ eta abestuz. Ala izan ez gaiñera, gure euskal-illeta ez bait zitzaigun agertuko, erdiaroan, ain bizirik eta ain sendo.

Amai dezagun itz bitan, Lenen Eliza ta euskerari-buruzko atal au: Nere ustez, Erromateko Euskalerra Zar Luze Zabalean,

- Liturgia osoki lateraz eginen zan.
- Jauretzeetatik at, kristau-bizitza eta bizitz orri dagokion otoiketa, euskeraz.

- Baiñan liturgiatic buruz ikasitako otoitzak eta abestiak lateraz izango ziran esanak eta abestuak jauretxeetatik at ere.

- Otoitz oien artean, oiek bezalaxe, hai noski, lateraz esana ta abestua, Aitagurea bera.

- Aitagurea euskeraz... Lnoiz?

Erreza da noiz euskeraz erreztatzen zan esatea. Naikoa bait da ortarako gure lenen "dotriña" noiz argitaratu zan ikustea. Baiñan ordurako ere Aitagurea euskeraz erreztatzen zanik ez dizu iñor ukatuko.

Gauza eziña da ordea noiz Aitagurea euskeraz erreztatua izaten asi zan esatea. Erromatekoan? Baleike. Neri beintzat oso zail egiten zait mundu guzia bertsolari zan aro artan, gure bertsolaririk onenak Aitagurearen esaldi miresgarriak euskaiébertsoz abesten, ez zirala len-bait-len asi uste izatea.

Aitor dezadan, berriro, gai oni-buruzko azterketa au amaitu aurretik, bertan esan dedan guzia, nere iritzi utsa dala. Alare, ez zait iduritzen aitzurrean logikaren esparrutik at ari izan naizenik. Aitzurra beintzat uste on guztiak merezi dituana izan da: 1349'an lieska'ko udalak euskeraren aurka emandako erabaki ura. Ikus bere mamia:

"Item que nuyl corredor non sla usado que faga mercaderfa ninguna que compre ni venda entre ningunas personas faulando en algaravfa nin en abraych nin en bascnens" ("Ordenanzas de Huesca de 1349)'

\* \* \*

Orain, Euskalerra Zar artako elizbarrutiak banan-banan aztertzen asi aurretik so dagiegun euskaldunon ebangelari izan zitezkean inguruko Eliz ospetsuei.

---

<sup>36</sup> "Ordenanzas" aietatik artutako itz auek euskeraren edestiaz mintzatzen diran edozein liburuetan aurki dezazkezu. Nik, Bernardo Estornês Lasa'ren "Origenes de los Vascos" deritzanetik artu ditut 36). "Corredoreak" ots "artekariak" bakarrik aipatzen zituan Ueska'ko Udalaren erabaki arek. Artekariatzat bakarrik izan ote zan emana? Eta, soilki euskeraz egindako salerosketak, aien liburuetan ofizialki euskeraz idatzirik jasotzea bakarrik debekatzen ote zan? Orrela izan ba'zan, aundia benetan gure zoritxarra, idaiki aiek gaurko egunotara iritxi ez zaizkigulako.

Gure inguruan iru ziran kristautasunaren aurreneko lau mendeetako Euskalerrian, seguruaski eraginmen aundia izan zuten Elizak: Zaragoza, Tolosa ta Bordele, eta, agian, luzea bait zan orduan sortalderuntz Euskalerrria, baita Tarragona ta Narbona ere.

Gure barruan, berriz, orduangoak ditugu Elusa, Agino, ta Konbene, iparraldean; eta, egoaldean, Kalagurri.

Garona'tik aruntz, Garona eta Dordoña artean erromate-aurretik euskaldunak ziran seguruaski Albiga (Albi), Erruteni (Rode), Kadurtz edo Kadur ¿Kaduri?-é (Cahors), Gabale (Gvaudan)'go Anderito (Javols), eta, agian, baita Beterre (Beziers) ere.

Ta, apika oraindik IV mendean ere uri oien inguruetakoko baso ta mendietan euskerak bizirik jarraitu!

Asi gaitezen lendabizi Euskalerrriaren kristautze-lanetan eraginmenik geiena izan zezaketen Elizarik zarrenetik azterketa-lanean:

## ZALDUBA

Erromatarren lateraz Caesar Augusta. Erromatarrek ber-tara iritxi aurretiko ZALDUBA edo Salduba'. Edetani izeneko jendeen uriburua zan.

So dagiogun IV mendeko uri eder oparo artako Elizari. Ta, bere lenen gotzaien zerrenda azterzen asi aurretik, ez zaigu alperrikakoa gertatuko opusdettarrek zuzendutako GER iztegiak lenengo gotzai aietaz dioskuna gogoratzea: Diokleziano'ren denboran bizitu zan, eta londoni Bixintxo martiri oskatarraren gotzaia izan zan, eta ondo ezaguna dugun Balerio izan ezik, beste gotzaiaetaz ezer ez dakigula: "Una ndmina hipot&ica de prelados, parte de ellas tomados de falsos cronicones, nos lleva hasta San Braulio" (A. Canellas. Dic. Hist. Ecl. Esp. IV, 2806)

---

Izen ori, Zalduba, euskalduna ote da? "Ba" beintzat, "Be" eta "Pe" bezala, "azpia" adierazten, duan atzizkia da. "Ba" eta "Be" errez alkar-aldatzen dira. Baita "Be" eta "P" ere. Adibidez, "Arriba" eta "Arribe", Naparroa'n Araiz'ko erri bat beraren izenak dira, eta, bertakoei, izen oiek zer esan nai duten galdetzen ba'diezu, "Arripe" esan nai dutela erantzungo dizute. "ZALDU" eta SALDU, berriz, tokiizen eta abizen askoren enhor-itz bezala errez aurkituko dituzu edozein iztegiatan. Alare, izena euskaldunek eman ziotela egia gertatuko balitz ere, ziurki egia da beintzat Zaragoza bera ez dala sekulan euskalduna izan, naiz euskaldunak bere arresietatik urbil euki; ogei kilometro baifio bertago sarkalderuntz, Jalon-Aranean, Baskoiak eta ogeitamarraren batera Alkubierre mendietan Ueszitarrak.

Ez da ba gutxi esatea! San Braulio, VII mendekoa bait da! VII mendearen erdikoa gaiñera! 631'aren ingurukoal"

Kristautasunaren sorkuntza aztertzerakoan, bost mendeko epe luzean, Zalduba "Caesar Augusta" -- bezain uri garrantzizko, aundi, eta dizdiratsu batean orrelako illuntasunak eta utsuneak aurkitzen ba'dira, nor arritu daiteke Euskalerriko lenen mendeak ikertzerakoan ere illuntasunak eta utsuneak aurkitzen ba'ditugu?

Gaiñera, zearo atzipeturik ibilli da oraingo ontan Iztegi ori, ikusiko dugun bezala.

Asi dezagun beintzat guk, euskaldunen artean naitanaiez eraginmen aundikoa izan bear zuan uri ortako gotzaidiaren azterketa.

Esan dugu kondaira utsak dirala Santiago'ren etorrera, eta Miren Neskutsarena. Kondaira da, era berean, Santiago'ren atzetik 1 mendean bertan Zaragoza'ko lenen gotzaiak aren bi ikasleok, Atanasio eta Teodoro, izan ziralako ustea ere.

Kristautasunaren Ienen bi mendeetan ziurki ezagutzen dugun aurreneko elizgizona, Felis da, 254'garren urtean Kartago'ko Zipriano'rekin eskutitzen arremanetan egon zana. Gotzai bezala ipintzen du Gams'ek Felis ori bere "Series Episcoporum" izeneko liburu mardulean, baiñan gotzai izan zan edo ez, eskier ez dakigu.

Urrengoa bai, urrengoa, berrogei hamar urte geroago, ziurki izan zan Zaragoza'ko gotzaia, 304 urtean, londoni Bixintxo bere diakonoarekin Balentzi'ra katigu eramana. An il zan martiri Iondoni Bixintxo Ueszitarra. Bere gotzaia, Balerio, erbestera jaurti zuan Balentzi'ko epaille jentillak.

---

Alare, aitortu bearra dugu, aski baidartxo ibilli zitzaigula A. Canellas, idatzi zuan ori ain borobilki idatzi zuanean: III mendearen azkeneko Balerio eta V/I'aren erdiko Braulio'ren artean ziurki ezaguna bait zaigu Zalduba'ko gotzai bat: VI mendekoa: 516'ean, Orontzio Eliberri'ko gotzaiarekin ("Orontius episcopus Elliberritanae eivitatis") eta beste zortzi gotzaiarekin Tarragona'ko kontzilioan izan zan "Vineentius in Christi nomine episcopus caesaragustanae eivitatis", ots, Bixente, "Kristo'ren izenean Zalduba'ko gotzaia" **Vives**, op.c. 38). Altaguztiz, VII menderen epe luzean, bi gotzai bakarren berri besterik ez jakitea... ez da noski geiegi jakitea!!! Batez ere, Zalduba txit garrantzi aundiko uria zala gogoan artzen ba'dugu!

305'ean iI zan. Izan zuan, alare, Elbira'ko kontziliaora joateko adiontasu-  
na.

A. Canellas edestilariak (Dic. Hist. Ecl. Esp.) londoni Bixintxo'ren  
gotzaia izandako Balerio onen aurretik, -- "Balero" esaten dio berak --,  
beste Balerio edo Balero bat, III mendekoa, sartzen du Zaragoza'ko got-  
zaidian, eta izen bereko beste bat, atzetik, IV'eko 324'ean; eta au uste du  
izan zala Elbira'ko kontziliaora joan zana. Baiñan seguruaski berak sartuta-  
ko bi gotzai oiek ez dute kondaira beste oiriarririk. Gams beneditarrak ez  
ditu aipatu ere egiten, eta ezta GER opusdeitarren iztegiak ere.

Apostoluek I mendean Jerusalem'en ospatutako "Kontzilio" aren  
ondorean Elbira edo Iliberri'ko kontzilio au bait da Eliza-baitan egindako  
lenen kontzilioa, ez da ganorabako gauza izango, berari-buruz len esana  
dugunez gaiñera beste zerbaitxo bat geiago irazean lez esatea:

300'garren eta 314'garren urteen bitartean ospatu zan. Gaur Grana-  
da'ko Albayzin auzoan zegoan Iliberri'n (Elvira, geroagoko izena da,  
arabitarrek sortua). An izan zan ondo ezaguna dugun Osin kordobatarra.  
Gotzaiek, eserita egoten omen ziran batzarretan, Apaizak, diakonoak,  
beste eliz-serbitzariak eta kristau arruntak, zutik.

Oso kontzilio gogorra eta Iatza izan zan bere aginduetan. Bertan  
aipatzen dira aurreneko aldiz "iru pekatu aundiak": sasijainkoen gurraketa  
(idolatria), giza-erailketa (homicidium), eta ezkontzaren loiketa (adulte-  
riurn). Oben oietara jausiei, ez die eriotzako orduan ere Jaunartzerik  
uzten. Elizen barruko margo-lanak debekatzen ditu, ez omen da gauza  
egokia izpirituz gurtzen dana gorputz-itxuran agertzea.

Protestalariak, bera izan zala, esaten dute, apaizen zelibatoa aurrena  
ezarri zuana. Ez da egia. Kontzilio ark, soilki, gotzaiei, apaizei eta diako-  
noei, eta gaiñerako eliz-serbitzari ezkonduiei, "positi in ministerio", ez-  
kontza erabiltzea debekatzen die.

Ez omen da erreza "positi in ministerio" orrek zer esan nai duan  
jakitea. Ez da, ez, erreza. Nik, soilki "beren serbitzua egiterakoan" esan  
nai duala pentsatuko nuke; "positi in ministerio" "serbitzuan" jarriak" bait  
da. Adibidez, debeku ura, urrengo egunean meza eman edo orrelako  
zerbait egin bear zutenentzat zala. Bestela ez bait luke zentzurik izango,  
antziña artan beñere Elizak ezkontzeke gelditzera beartu ez dituan "gai-  
ñerako serbitzariei" ere, ots, ordena txikietako eliz-gizonei ere, debeku  
ura bera ipintzeak.

Gogorkeri orren erruz, ereji usain artu izan zaio Elbira'ko kontzilioari. Baiñan orduan ez zuan iñork aren aurka ezer esan. Bereala ospatu-ko zan Arles'ko kontzilioak beintzat ontzat artu zuan.

Egokiak iduritzen zaizkit, kontzilio ari-buruz, Vega Rodrguez'en itz auek: "Aunque la Iglesia se ha negado a dar una aprobaci6n expresa de 6, jamas lo ha condenado, ni aun siquiera desautorizado, aunque en su disciplina posterior no haya seguido su rigor y su dureza con los pecado-res" (GER).

Elbira'n izan zan Balerio aren ondorean, Klemente bat damaigu "Diccionario de Historia Eclesiastica de Espalia"k, 326'garren urterako, Zaragoza'ko gotzai-aulkian, eta gotzai ori izan zala dio Ales'ko H kontzilioan. Gaizki dabil iztegi ori, urte oietan ez bait zan Arles'en kontzilorik izan. Aurrenekoa, Elusa'ko gotzaia partaide izan zuan ura, 314'ean egin zan: bigarrena, 353'an.

Gams'ek gaiñera Klemente ori ez du aipatu ere egiten.

ifilun dabiltzala Zaragoza'ko gotzaidiari-buruzko albistek!

Urrengo gotzaia, au, bai, ederki ezaguna, Kasto izan genduan, 343'-an Sardika'ko kontzilioan egon zana. (Sardika, gaur, Sofia da, Bulgari'ren uriburua). Arianikeriak sortutako istillu zakarra konpontzeko Julio Aita-santuaren eraginenez bildu zan kontzilioa artara, Sortaldeko gotzai arianikerizaleak eta Sarkaldeko gotzai katolikoak joan ziran. Ez zan pake-rik egin, Sortaldekoak, asarre, Sardika'tik joan da, Bulgari'n bertan da-goan Filipopolis'en beste Batzar bat egin bait zuten, Julio Aitasantua bera eta onen aldeko gotzai guztiak beren Aulkietatik kenduz, "... y lo que constitufa el coimo del atrevimiento, declararon solemnemente depuesto al Papa Julio, a Osio de C6rdoba y a todos los defensores de la ortodoxia" (Llorca, I, 406).

Gauzak zeñen oker zeuden ikusi dezazun, eta orrenbeste albiste lego-rran artean atsendengarri gerta dezaizun, gertakizuntxo irrigarri bat kontae tuko dizut:

Sardika'ko kontzilioa bukatuta bela, pake-mezu bat bidali zitzaion Kostantzio inperatore arlanikerizaleari bi gotzaien bidez: Bi aietako hat, Koloni'ko Eufhratas. "Il arriva une &range aventure ce dernier a son arrive a Antioche. Une fille de joi fut introduite dans la maison oi u lo-geaient les deux evèques. Elle devait compromettre le viell Šv4ue de



Cologne. Le complot avorta et l'enquete établit que l'instigateur était l'évêque même d'Antioche, qui fut aussitôt déposé".

Euskeraz:

"Gertatu zitzaien azkeneko oni Antioki'ra iritxi zanean berealdiko komeri nunttuna! Neska lizun bat sartu zuten ba gotzaien etxera, Koloni'ko gotzai zarra zirikatatu zezan. Ez zuan, jakiña, neskamotz arek deus lortu. Berealaxe egin zan ikerketak, Antioki'ko gotzaia bera izan zala, -- aditzera eman zuan txatxukeri aren eragillea. Noski, gotzai-aulkitik kendua izan zan bereala".

Ikusi aal izan duzunez, oso gutxi dakigu Zaragoza'ko lenen gotzaie-taz VII mendearen erdiko Braulio'rengana iritxi arte; dokumentuek ez bait digute albiste geiagorik ematen. Lenengo bost mende oiei dagokienez, Britani, Gali eta Ispani'ren arazoa ere bada dokumentu-falta mingarri ori. Ez gaitezen beraz arritu Euskalerrinari-buruz orixe ber-bera gertatzen ba'zaigu. Ez da beintzat ori, norbaitek naiko lukean bezala, Euskalerrria lurralde basatia zalako siñale edo adigarri.

Ez zitekean basati izan ere, Erromateko bi lurralderik aundi ta garrantzitsuenen artean, ots, Rin ibaiaren beste alderaifio iristen zan "Galia" osoaren eta "Ispani" zabal guziaren artean zegoan ezkerero. Europa'ko sarkaldearen erdi-erdian, Auñamendiaren bi aldeetara, ia Mediterran-Itxasoraifio, edo agian oraindik itxaso berberaren ertzaraiño --Euskalerrria bait zan iparralderuntz joateko edo egoalderuntz etortzeko naitanaiezko bidea. Sarkaldeko Euskalerrria gaiñera, ezpairik gabe egokiena, nagusiena, eta erahilliena. Aruntz eta onuntz, sarri ta jende ugarik ibillitako bidea!

Ainzuzen, gaurko Euskalerrriariéburuz idatzi zituan Julio Caro Baroja'k liburu onen beste toki batean aipatu dizkiogun itzak: " Dejemas el adanismo, el tubalismo, el primitivismo a un lado. Dejemos el cliché del perpetuo aislamiento que explica facil pero engafiosamente la conservación de una lengua, que, sin duda, es lo mas peculiar del vasco. Porque en la Europa Occidental tal aislamiento es, y ha sido, ffsicarnente imposible y EL PAIS VASCO ESTA EN UNA DE LAS MAS COMPLICADAS ENCRUCIJADAS DE OCCIDENTE. Para repetir lugares comunes no vale la pena estudiar" (Sobre la Religión y el Calendario del Pueblo Vasco". Donosti'n 1980'ean. (8'garren orria).

Dokumenturik ez izateak, emen, Galietan, Itali'ra eta Ispanietan, ez du ori besterik esan nai: Dokumenturik ez dugula.

Ez dugu dokumenturik, euskaldunen artean Zaragoza'ko Elizak nola-ko eraginmena izan zuan jakiteko ere. Baiñan eraginmen ori, bai bere iparralderuntz eta bai bere sarkaiderruntz aundia izan zala uste izateko, naiko dokumentu sendoak ditugu Iondoni Bixintxo ueskatarra, eta Prudentzio olerkari kalagurritarra,

Bixintxo bezain Done martiri aundi bat Ue, ska'n eta ama ueskatar batengandik jaio izateak, IV mendean "Vescetani" edo, "U" irakurri bear bait da latindarren "V" ori "Ueszitarren" lurralde euskaldunetutan kristautasuna ederki sustraiturik zegoala esan nai du. Lurralde oiek Alkubierre izeneko mendi-katean asten ziran, Zaragoza'tik ogeitamarrenbat kilometrora. Pentsatzekoa da, beraz, Zaragoza'tik iritxiko zitzaie la kristautasuna.

Sarkalderuntz berriz, ogeirenbat kilometrora aurkitzen ziran Jalon ibaiaren bi aldeetara Alabon uri Baskoiaren lurrak. Baskoia zan Prudentzio kalagurritarra. Zaragoza'n bizitu zan, eta bertan idatzi zituan bere olerkietako batzuk. Aundiak izan ziran noski Zaragoza ta Kalagurri arteko arremanak, eta uste izatekoa da Zaragoza'tik etorriko zitzaie la egoaldeko Baskoiei kristautasunaren lenen albistea.

Bedi ba Zaragoza'ko Elizarentzat euskaldunon esker ona.

\* \* \*

Itzuli gaitzen unetxo batez Balerio gotzai zaldubatarrengana: 300 garren urtean, esan oi da, egin zala Iliberri edo Iliberi'ko kontzilioa. Bil, urte ortan oiñarriturik ederki damaigu Risco'k, gutxigorabera, Donebalerio'k Zaragoza'ko gotzaigoa artu zuan urtearen berri:

"Este Santo Prelado (...) subscribi6 en sexto lugar (...) Y precediendo en la firma por la antigüedad de su ordenacion a Osio que se lee undecimo, y que el año de 294 era ya Obispo de Cordoba (...) se deduce que Valerio gobernaba la Santa Iglesia de Zaragoza cerca de los años 290" (Ib).

Baleike ordea kontzilio ura geroxeagokoa edo lentxeagokoa izatea. Zalantzaketa ortik ateratzeko urte bat aukeratzekotan, 306'garrenak dirudi Kontzilio arentzat urterik eskerrena. Danadala, kezka aundirik gabe uste izan daiteke 300'garren urtearen aurretik, III mendean beraz, gotzai zala

Balerio. Zergaitik esaten dugun ori? Orrek, II/ mendearen bigarren erdian Zaragoza'ko kristautasuna oparota ta sendoa zala adierazten digulako.

Eibira'ko Kontzilliora 19 gotzai eta 24 bereter edo "presbitero" bildu ziran. Ez dakigu bereter auetako batzuk beren elizbarrutien ordezkari ziran edo ez. Baietz uste du Llorca'k: danak izan zirala beste ainbeste ellzbarutien ordezkari: "Aunque estos presbiteros traían la representación de otros tantos obispos, según todas las probabilidades, los que tenían voz y voto eran los 19 preladados, a cuya cabeza estaba el de Guadix" (Historia de la Iglesia Católica", I, 341).

Bi kakotx edo "conna" oietako batek alperrikakoa izanik esaldia-  
ren zentzua illundu besterik egiten ez dualako, ez dakigu Lloreka'k zer  
esan nai izan zuan. Danadala, bereter aietako bakoitza elizbarruti baten  
ordezkari zala esatea, geitxo esatea derizkiot. Gaiñera kontzilio artan  
diakonoak eta kristau utsak ere eseri ziran. Egia da diakonoei ere elizba-  
rrutien ordezkari izateko eskubidea eman zitzalela, baiña Arles'ko kontzi-  
lioan. Arles'ko kontzilio au ordeka geroagokoa da: 314'ekoa.

Alatagutziz ez dut nik ukatuko bereter aietako batzuk elizbarrutien  
ordezkari izan zitezkeanik: "Les souscriptions des évques présents sont  
nombre de 19; mais il est possible que le nombre des participants ait été  
réellement plus élevé et qu'un certain nombre d'absents aient été repre-  
sentés par des pretres": "19 dira an izan ziran gotzaien izenpenak; Ba-  
daiteke ordeka gotzai kontzilioideak geiago izatea, eta apaiz batzuk ere  
joan ez ziran gotzaien ordezkari izatea" (Die d'Hist. et Geogr. .Ecl.).

Bai, noski. Badaiteke ala izatea. Baiñan ala izan zanik ezin esango  
dugu, zorioneko dokumentuen faltaz.

Danadala, Elbra'ko kontzilioak Euskalerriaren egoan ere Elizak III  
mendean artua zeukan indarra erakusten digu. Ez noski Euskalerriaren  
iparrean zeukana baiña txikiagoa.

Bere iparraldeko eta Egoaldeko kristautasun indartsu orren erdian,  
nola aurkitzen ote zan Euskalerrria bera?

\* \* \*

Berriri III mendeko Euskalerrria gogoratu, naiz esatera noana  
ziurtatzeko dokumentu idatzirik eskuetan izan ez logikaren bideetatik  
sartuz, oker gelditzeko arriskuaren bildur aundirik gabe esango nuke nik,

bedi Tolosa'n bedi Zaragoza'n, eta agian Bordele'n eta bearbada baita Euskalerrriaren barruan ere, III mende artan, batez ere mende aren bigarren erdian errezatzen zitzaiola euskeraz kristauen jainkoari.

Ori esateko, aztertzen ari geran IV mende ontan Euskalerrrian bertan euskaldunen artean kristautasunak bazuan sendotasuna artu nai dut oiñarritzat:

"La vaste région de l'Aquitaine avait été peu atteinte par la predication chrétienne avant l'année 260. Nulle part nous ne pouvons fixer avec certitude un siege episcopal. L'effort d'evangefisation s'y fit naturellement sentir pendant toute la periode qui va de l'année 258 a l'année 313".

"Kristautasunaren zabalkundeak ez zuan asko ukitu Akitani'ko lurralde zabala 260'garren urtearen aurreko denboretan. Ezin dugu ziurtasun osoz bertan gotzai-uri bat izan zanik aitortu. Noski, 258 eta 313'garren urteen arteko ebangelizaketak, egin zuan an ere bere lana, baiñan, alare, ortaz berri askorik ez dugu".

Ori dio Griffé edestilariak (i.c. 124-125 or.), bereala beste onako au esateko:

"Les signatures du concile d'Aries de l'année 314 nous fournissent trois noms de villes pour cette région: Bordeaux, Iauze et Javols (Gevaudan). On ne saurait être surpris de trouver, i cette date, un évêque a Bordeaux, la grande cite occidentale, une des capitales de l'Aquitaine. De turne, rien d'étonnant qu'Eauze soit pourvue d'un évêché. Cette petite ville etait devenue, vers le fin du III<sup>e</sup> siècle, la capitale de la Novempopulanie, lorsque l'Aquitaine fut divisée en deux provinces. Le Gevaudan etait une cite toute secondaire, mais il etait en communications faciles et directes avec la Narbonnaise et cete proximite peut expliquer la presence d'un évêque dans ce pays ou au commencement du IV<sup>e</sup> siècle".

Euskeraz:

314'ean egin zan Arles'ko kontzilioan, (Akitani'ko) iru gotzai-urien izenak agertzen dira: Bordele, eta Javols (Gevaudan deritzan lurraldean, azkeneko au).

"Ez daiteke iñorentzat arrigarria gertatu, (Galietan) sarkaldeko uririk aundiena izateaz gaiñera Akitani'ko uriburuetako bat zan Bordele'k garai artan bere gotzaia bazuala jakitea.

"Era berean, ez da inoiz ere arrigarria, Eauze ere bere gotzaigoaz orniturik egotea. Uri txiki au, Akitani bi probintzitan zatitua izan zanez gero, III mendearen azkenaldera "Novempopulara" edo "Bederatziurietak"ko uri buru izatera iritxi bait zan<sup>39</sup>.

"Gévaudan'go Javols, oso bee-maillako uria zan. Baiña bide zuzenak eta errezak zituan Narbonaldearekin, eta erreztasun ori izan daiteke uri artan III mendeaz gero edo beintzat IV mendearen asieraz gero **gotzai** bat izatearen arrazoia" (id.ib.)

---

<sup>39</sup> "Bederatzi arieta" esan zitzaion probintzi ari, baiña ez ziran beti 9 izan probintzi artako uriak. Bere azken-arroan, adibidez, IV mendea amaitzerakoan, 12 ziran. Probintziko lur guztia bertako "eivitas" edo urien artean zatitzen zuten erromatarrek. Orrela, "eivitas" edo "uri" aiek probintzi aundiaren barruan probintzi txiki batzuen antzekoak ziran, eta bertako jendearen izena ipiñi oi zitzaien. Ona Bederatziurietak sortu zuten 9'en izenak: "Civitas Tarbellium" edo Tarbele-tarren Uria, Boioétarrena, Basate-tarrena, Auszi edo Auski-tarrena, Elusa-tarrena, Oski-tarrena, Bigerri-tarrena, Konbene-tarrena ("Covenae" k, Bizkai'ko Enkaterrak gogoratzen ditu, "konbenetarrak" ere itun baten bidez alkatutako jendeak bait ziran), eta Konsora edo Konsori-tarrena. Asieran, uri aiek, "civitates" baiña geiago, "oppida" edo arresiz inguratutako gudaritetiak ziran, bertako gudalburuen agintepean. Eta gudalbururik nagusia zan **BEDEÉ RATZIURIETA** probintzi osoko Jaurle gurena.



## AKITANI-ALDEKO ELIZAK. TOLOSA....

IV mende guzian gotzai ziur bat besterik ez dugu Tolosa'ko gotzai-aulkian, Rodenio; bestea, Ilario, aipatu-berri dugun Onorato bezala, kondairaren larreakoa geiago bait da edestiaren baratzakoa baino.

"La `Passio Saturnini' signale, a Toulouse les 6/éques saint Hilaire et Saint Silve qui furent de zWs promoteurs du culte de Saint Saturnin. Ces deux ev ques appartiennent certainement a la seconde moitiA du IV'e siécle. II furent sans doute les suceeseurs de Rhodanius" (Griffe, 305).

"Passio Saturnini edo Saturnino Donearen Nekaldiak bi gotzai, Doneilario eta Donesilbio ipintzen ditu Tolosa'ko gotzai-aulkian. Saturnino Deunarenganako jaiaren bizkortzaille sutsuak izan ziran. Biak, eskierki, IV mendearen bigarren erdikoak dira, eta, zalantzarik gabe, Rodanio'ren ondorengoak ditugu".

"Zalantzarik gabe" eta "eskierki" itzak erabilli ditu Griffe'k, baiñan bi gotzai oien ezagupena, soilki "Saturnino'ren Nekaldi"tik datorkigu, eta "Nekaldi" ori ez da oso iturri eskierra.

Rodanio bai, ongi ezaguna dugu. Bera da Iondoni Satordi'z gero lenengo gotzai ziuerra Tolosa'ko elizbarrutian. Eun urteren epean bera bakarrik! Poitiers'ko Ilario'ren adiskide izan zan. Arekin batera egon zan Beziers'ko Kontzilioan 356'garren urtean, eta ura bezala izan zan erbesteatua, kontzilio artan arianikeriaren alde gogor aritu zan Kostantzio inperatoreen eskariei uko egin zielako.

Erbestean il zan bi urte geroago.

\* \* \*

## BORDELE

Dokumentuetan bere lenen gotzaia, Orientalis izeneko bat da; 314'e-an Elusa'ko Mamertinus'ekin Arles'ko kottztlío artara joan zala ikusi duguna.

IV mende guztian, ez zaigu Bordele'n beste gotzairik agertzen 380'-garren urtera arte. Orduan Delfino zan Bordele'ko gotzaia, Agino'ko Febadio'rekin Zaragoza'n Priszilikeriaren aurka bildutako kontzilio artan egon zana.

Urrengoa, V mendekoa da, 404'e-an Delfino il da bela, Bordele'ko gotzaitza artu zuan Amando.

Dakusazunez bi gotzai besterik ez digute ematen dokumentuek IV mende guztirako. Geiago ere izan ziran noski, egokiago mintzatuz, naita-naiez izan ziran geiago, baiñan dokumentuetan beren izenik utzi gabe igaro ziran.

Dordoña ta Garona artean baziran beste iru gotzai-uri, Albi, Rodez, eta Cahors. Baiñan ez dut uste, aztertzen ari geran aldian gure arbasoen kristauketaro eginkortasun aundirik izan zutenik.

\* \* \*

## ALBIGA

ALBI'K ez zuan noski, IV mendera arteko epean gure Asaben eban-gelizakean eraginmen aundirik izan. Erromatarrek Albina esan zioten uri orrek V mendera arte ez bait zuan gotzairik izan. Kondairak, bai, — espariarrak bezain kondairazale aundiak edo aundiagoak izan dira frantziarak eta kondairak ematen dizkio bi: "Sanctus Clarus de quo nihil certe invenitur (Gams), "beraz ziurki deus ez dakigun Klaro Donea", eta aren ikasle izan omen zan Antinus. Ikasle oni-buruz ere irakasleariéburuz aña dakigu: ezer ez.

Albina, erromateko uri orren izena, ederki izan daiteke euskalduna: Arbina. Aundia bait da erdaldunek gure toki-izenetako "R" a "L" biurtze-ko duten grña ezaguna. Albina esaten zaie Araba ta Bizkai'ren arteko mendi bati eta bertan jaiotzen dan errekatxoari. Errekatxo ortatik ere artzen du Gazteiz'ek edateko ura. Mendi ta erreka oien izen ori ARBINA agertzen da, bost edo sei aldiz, Elorrio'n ikusi nuan XV mendeko dokumentu batean (1408). Eta ederki ikusten da bertan, XVIII mendeko luma



batek, tinta nabarmenki ezberdiñez, "L" biurtzeko nola Arbina'ren "R" guztiak luzatu nai izan zituan.'

\* \* \*

## KADUR (CAHORS)

"Divona Cadureorum" esan zioten erromatarrek". Izan omen zuan uri onek III mendean ere gotzai bat: 250'garren urtearen inguruan ainzuzen: Genulfo Donea. Eta beste bat IV'ean, Eksuperio, 339'garrenaren inguruan. Baiña...

Genulfo ori kondairen barrundik iritxi zaigun Donea dugu. Ikus bere bizitzaren atalik nagusienak kondairetatik jasoak dirala aztu gabe, eta "Gallia Christiana"n datozen bezala:

Itali'n jaioa, II Sisto Aitasantuaren ardurapean ezia, eta ama II zitzaionean gotzai sagaratu, bera eta bere aita Galietara mixiolari bidaliak izan omen ziran. Bein Galietan, Dioskoro jaurleak, eriotzara epaitu ondorean, ez makilka ez sutara jaurtita ezin erail izan zituala ikustean, arriturik, bataioa eskatu omen zuan.

Gure Donea, bere eriotzéeguna aurre-iragarrita il omen zan Jaunaren pakean.

Eksuperio bera ere, geiago dugu kondairako izakia edestikoa baiño.

Sinisgarriagoa dugu, Eksuperio orren atzetik 370'ean etorri zitzaikigun Florentzio. Alare ezer ez dakigu gotzai onen bizitzaz.

---

Araba'n bakarrik, 19 toki-itzen aurkitu ditu Lopez de Guerefiu'k (l.c.) Albi aurrizkiz asiak. 47, berriz, Arbi'z asten diranak. Oien artean 14, Arbina-ga eta Arbifiaga'k bezala, Arbina edo Arbiña aurretik daramatenak.

<sup>4</sup> Izen bikoitza. "Divona", Ausona olerkari bordeletarrak aipatzen duan Bordele-ondoko iturri baten izena ere bazan. Ez da itz **Ezta euskalduna** ere, oso aldatu ez badago beintzat. "Cadurcorum"ek euskeraz "kadurtarrena" esan nai du. "Kadur" eta "Adur" itz bat bera ba'dira beintzat eta ederki izan daitezke, ipar-iparreko euskalkia galdurik dugulako bere euskalduntasuna zalantzan jartzetik ez dago.

## ERRUTENI (RODEZ)

"Civitas RUTHENORUM", erromatarren izkeraz; euskeraz ERRUTENI'koen Uria? IV mendearren azkenekoa izan bear du Donekinziano, dokumentuetan lenen agertzen dan bertako lenen gotzaiak.

Aurreneko gotzaia. Amando Donea izan omen zuan; kondairako gotzaia. Amaika Done damaizkigu izen ortakoak "Bibliotheca Sanctorum"ek. VII mendekoa bat, baiña ori mende artara iristen geranean aztertuko dugu. Astiro gaiñera, euskaldunekin zer-ikusirik ugari leporatu nai izan bait diote batek baiño geiagok. Zer-ikusirik ugari! eta ez gure arbasoen onerako.

Rodez'ko Amando Doneaz zer esan? Aipatutako Idazti orrek diona: Bearbada ez zala sekulan uri ortako gotzaia izan.

Rennes'ek bai; izan omen zuan izen ortako gotzai bat Rennes'ek; ta Rennes eta Rodez izen berdin-samerreko uriak diralako, gerta omen daiteke kondairak Rodez'ek *ere* Amando zeritzan gotzai bat izan zuala uste izatea.

Alderantziz, beste kondaira batek dionez Amando ez baiña Amanzio bat izan omen zan Rodez'ko gotzaia IV mendean, eta Amanzio onen bizitza ekintza arrigarriz beterik omen dago; baiñan kondaira-itxura nabarmena omen du ori kontatzen digun liburuak, ots, "Amanzio Donearen Bizitzak": "Ha un carattere eminentemente legendario".

Rodez bertako semea omen zan eta umetan hataiatua. Rodez'ko gotzai bezala gizon paketsua izan omen zan mundu ontan . Ilda ondorean ibilli zan bere ondorengo gotzaiarekin asarre gorrian, bereala kondairen eskuetatik jaso aal izango duzun hezala:

Bere ondorengo ori, Quinziano Donea, afrikarra omen zan jaiotzez, eta Rodez'ko gotzaia 506'garren urterako, urte ortan Agde'ko kontzilioan eseri bait zan. Bisigotiarrak iritxiak ziran ordurako Galietako ego-sortal-

---

' "Errutenitarren Uria". Erruteni edo Erroteni zer izan daitekean ez dakit baiñan euskal-itxura galanta duala bai. "Erro"z eta "Erru"z, asten diran itzak 35 badira aipatutako López de Gerefíu-ren liburuan.

dera eta aien mendean zeuden gotzai guztiak bildu omen ziran kontzilioa artan.

Ordurako, Amanzio bere aurrekoaren gorputza illobiz aidaturik zeukan, eta ez noski Amanzio zar aren gustora:

Entzun Turona'ko Gregorio'ri ("Vita Patrum", 4): "Auctam beati Amantii antestitis hasilicam sanctum corpus in antea transtulit, sed non fuit sancto acceptabile hoc opus": "Aundiagotu zuan Amanzio Donearen basilika, baiña aurretik aren gorputza tokiz aldatuta. Ez zitzaion, ordea, aldaketa ura Amanzio'ri atsegiña gertatu". Eta asarretu zan.

Entzun orain aipatu-berri dugun Iztegiari:

"Quinziano vescovo (gotzaia) di Rodez et di Clermont. Il predecessore, San Amanzio, gli serebe apparso (azaldu omen zitzaion) per rimproverargli di avere spostato la sua spoglia (gorputza tokiz aldatu ziola zakartzeko) e per annunciarli che l'esilio avrebbe punito tale atto temerario" (erbestua izatearekin garbitu bearko zuala ekintz oker ura).

Ala gertatu ere gertatu zan. 511 urtean Klodobeo frankiarrak Orleans'en bildutako kontzilio batera joan zalako, bisigotiarrek Rodez'tik -erbesteraturik Klermont'era joan bearrean aurkitu zan, eta, an, bertako Eufrazio gotzaia bera aukeratu zuan erriak Klermont'eko gotzai.

Baiñan VI mendera sartuta gabiltz liburu oni ipiñi diodan esia urratu z. VI ori, berriz, ta VI mende ortatik XII mendearen arteko gaia, urrengo libururako utzirik daukat.

Jenio txarreko santua benetan, beste Santu bati alako ikustaldia egitera agertu zitzaion San Amanzio. Konponduko al ziran onoizkero biak zerruan!

Ona gotzai-uri oietaz eta Akitani zabal osoaz ("Aquitaine proprement dite", esaten dio berak) Griff'e'k damaizkigun berria:

"Argi ikusi dezakegu, 3445'garren urtearen inguruan Galietan eta baita Germani'n ere gotzai-aulkiak nola ugaritu ziran. Kostantino'ren garaiean Elizaren erakundetza bizkortzen eta zabaltzen nola ari zan adierazten digu orrek. Badakigu, adibidez, IV mendearen lenen erdian sortu ziralda Senlis'ko ta Beauvais'ko gotzaigoak.

"Baiñan, alatagutziz, Gali osoari dagokionez "d'une facon generale nous sommes tres mal renseign6" (ezer gutxiren jakitun gera). Oso gutxi da, Rouen eta Elusa'ren probintzietaz eta Armorika'ren lurralde osoan ezagutzen duguna. Poitiers'ko Elizaren astapenari dagokion gutzia zaigu

ezezaguna. Ez dakigu ha, IV mendean 350'ean Poitiers'ko gotzai egiña izan zan Ilario Doneak bere aurretik uri artan gotzairik izan zuanik ere.

"Il nous est de m me impossible de savoir si le siége episcopal d'Agen existait avant 357, dato oÛ apparait pour la première fois l'év'equé bien connu Phebade. Notre ignorance est galernent complte en ce qui concerne Rodez et Cahors, anciennes capitales des RutMes et des Carduques".

Euskeraz:

"Era berean ezintasun gorriaren menpean gaude 357'aren aurretik Agino'n gotzairik izan zan aldarrikatu aal izateko. Urte ortan agertzen Nait zaigu ango lenen gotzaia, ain ezaguna dan Febadio. Berdiña gure ezagupenik eza Errutiarren eta Kadurtarren uri buru izandako Rodez eta Cahors'ei dagokienez" (1.c.182 or.).

\*\* \*

#### KONBENERRIA (LUGDUNUM CONVENARUM: ST.BERTAND DE COMINGES)

Akitani euskaldunean zegoan uri ontaz mintzatuak gera. Auñamendia-  
ren maldan zegoan, mendi-gaiñean Urgel'ko ilergetiar euskaldunekin  
muga egiten zuala. naitanaiez izan bear zituan III mendean kris-  
tauak, ugari gaiñera, bertan agertu zaigun IV mendeko basilika ain ederra  
dan ezkerre. Nik itzegitea baiño egokiagoa izanen da seguruaski itza Elie  
Griffe'ri ematea. Entzun zer dasaigun Frantzi'ko erderaz. Bereala itzuliko  
dizut euskerara, frantziarren izketara oiturik ez ba'zaude:

*"A Lugdunum Convenarum, les fouilles archéologiques, qui nos restituent peu d peu le plan de la ville (...) ont permis de retrouver en entier les substructions d'une importante basilique chrétienne complètement oubli&".*

"Lugdunum Convenarum urian egiten ari diran lur-arroketa-  
ren ondorioz agertu zaigu uri zar aren itxura. An agertu zaizkigu baitare azturik  
zetzan basilika kristau garrantzitsu baten oiñarriak ere".

Gero "basilika aren abside edo aurre-buruaren Iuzaroa (9'50) aipatu  
ondorean, aldare-aurreko jendearren tokiak 18'60 luze eta 12'40 zabal  
zituala diosku, ta, basilikaren aurreko "naktex" edo atari zabalak (zimito-

ria esaten zaio gure errietan) 45 metro zituala luze bere barruan. Entzun ori, bere frantzeran:

*"L'abside mesure dans oeuvre 9'50 m environ; la nef avait 18'60 m de long sur 12'40 m de large; elle était precedee d'un narthex qui ne mesurait moins de 12 metres dans oeuvre. L'ensemble de redifice avait 45 metres de long hors oeuvre"*

Garrantzi aundikoa dala derizkiot basilika kristau ura zegoan tokiaz dioskuna:

*"Cette basilique chretienne n'est nullement d l'ecart des grandes edifices de la ville romaine d laquelle elle appartenait manifestement: le temple du fortim eta d mois de deux cent metres au nord-ouest: c'est la meme distance pour la basilique-marche qui a ete degagee au nord."*

Basilika kristau ori ez zegoan itiolaz ere uriko beste etxe nagusietatik bereizirik. Alderantziz, argi-argi ikusten da uriaren gorputzaren zati bat zala. Ipar-sarkalderuntz, enparantza nagusiko jauretxe jentilla berreun metro laburrera zeukan; eta beste orrenbeste metrora iparrerutz, aurkitua izan dan azoka-basilika."

*"Il setnble bien qu'on est en prersence d'une construction du N sie-cle"*

"Zalantzarik gabe, IV mendean egindako eraiketa baten aurrean gaudela dirudi.

*"Les dimensions de l'edifice conviennent bien pour une eglise epis-copale de cette poque".*

"Basilika orren neurriak, aro artako gotzai-eliz bati dagozkion neu-rriak dira bete-betean".


Iru gogapen jaso eta bi ondorio atera nai nituzke Griff'e'k eman digun irakespen ortatik:

Gogapenak:

Aurrenekoa: Euskalerrria zegoan basilika ori IV mendekoa dala.

---

Erromatarrek "basilika", euskaldun zarrek "ola" bezala, gauzak gordet-zeko edo naiz abere naiz jendea biltzeko eraikitzen ziran etxeei esaten zieten. Erromateko basilikek era laukoiean egiñak izaten ziran eta, binaka berdiñak zituzten luzeroko eta zabaleroko orma biak.



7254. — Plan de la basilique de Lugdunum à Concarneau.  
 D'après *Comptes rendus de l'Acad. des* 1914, p.132.

Puisqu'on signale le prêtre Patrocius à Lugdunum Convenarum en 3-17, il devait s'y trouver des fidèles, un baptistère, un martyrium, une basilique plus ancienne, dont il ne servirait de rien de conjecturer les dispositions et la date.

Ceile dont les vestiges subsistent dura probablement disparu en 585; nous avons vu par le texte de Cirigoire de Tours que rien ne fut parvenu. Elle pouvait durer un siècle et demi environ, vers 430, l'époque où la domination des Wisigoths donna une période de splendeur et de prospérité.

Bigarrena: ezpairik gabe diruadianez beintzat, seguruaski, hasilika ez zala <sup>s</sup>otzairik gabeko basilika izan. IV mendean, beraz, Konbenerriak gotzaia bazuala noski.

Irugarrena: basilika eder ura, IV mendean, Uriaren barru-barruan zegoala eraikia.

Eta ona emen orain ondorioak:

Aurrenekoa: Alako basilika eder bat Uriaren barruan egote utsa, uri artan, IV mendean kristauak asko eta asko ziralako siñale mardula dugula:

Bigarrena: IV mendean kristauak ain ugari baziran, eta urian erdian alako basilika eder bat egiteko gai izan baziran, eta seguruaski basilika ark bere gotzaiak ere izan ba'zitan. NAITANAIEZ III MENDEAN ERE AN KRISTAUAK BAZIRALA

Gauza jakiña da, barbaritarrak Europa'ra etorritz gero, uri arresidunak eraiki ziranean, arresien barruan egin zituztela gotzaiak ere beren katedralak, eskiertasunaren amorez. Ori gertatu omen zan Konbenerrian ere, eta IV mendeko basilika eder ura arresitik at gelditu omen zan, illobitegi bihurturik. Garai ontakoak omen dira bere barruan eta bere zimitorioan agertutako ainbat ata ainbat illobi. "V mendekoak omen dira, ematen duanez": "*Ces sarcophages paraissent dater de la fin du V sikle*"

Lenago, IV mendean, gaur Balkabrere esaten zaion eta uriaren alboan zegoan erri batean eortzen omen zituzten ildakoak: "*c3 Valcabrere ou se trouve un vieux cimitWe chrMen qui a fourni deux inscriptions chrMenrzes du IV siecle dont l'une dat& de 347*":

"Balkabrere'n, an illobitegi kristau zaar bat agertu bait da: IV mendeko bi idazki eman dizkigun illobia; eta bi aietako bat, 347'garren urtekoa"

Ez dut uste, esaldi artatik zitu au atera nai ba'dut iñor asarretuko zaidanik:

Auñamendi euskaldunaren txoko artan, IV mendearen erdirako, 347'garren urterako kristautasunak alako indarra artu ba'zuan, logikaémo-ta orenen araura bildurrik gabe aitortu daitekela, txoko euskaldun artan, ziurki, III mendean ere krIstautasuna ondo erroturik zegoala."

---

lie Griffe'ren aapaldi ori, maiz aipatua dugun bere "La Gaule Cbr-tienne" liburuan aurkituko duzu: (111, 17-18 orrialdean).

(Sopra e sotto) Particolari  
del mosaico dell'absidia di sinistra

Errorna'ko S. Kostantzi'ko au omen, krismoirik zarrena.





## ELUSA

Elusa, gaurko frantziarrentzat Eauze. Jarrai dezagun uri orri-buruz III mendea aztertzerakoan esanik utzi duguna:

"A la fin du IV'e la citë de Eauze aait nommë en tête des cits de la province de Novempopulanie; sa province ecclesiastique dut l'origine correspondre exactement a cete organisation de l'administration (Dic. Hist. Gogr. Eccl.).

Euskeraz:

"IV mendearen azken aldera Elusa'ko uria Nobenpopulard'ko beste urien buru izan zan egiña. Asieran, bere eliz-probintziak ere laterri-probintziaren neurri ber-berak izango zituan".

Garrantzi izugarri aundiko esakizuna, iztegi ospetsu orrek damaigun ori. Aztertu dezagun laburki:

- "Nobenpopulani'ko urien uriburu, Elusa". Erroma'ren inperio-lur-rean, "uriek", uria beraz eta inguruko lurraldeaz osotutako probintzi txiki baten antzekoak ziran. Orrelako uri-sail batek osotzen zuan probintzi aundia. Beraz, Nobenpopulani'ko urien buru egin zutenean, Nobenpopulani'ko Probintzi osoaren uriburu egin zuten Elusa. Bederatzi ziran "Nobenpopulani" edo "Bederatziurietari"ko probintzia egiten zuten uriak.

uri oietan bai ote zan Elusa'z landa beste gotzai-uririk? Baiezkoa dala dirudi, ikusi dugunez, "Dictionnaire D'Histoire Ecclésiastique et de Liturgie"k damaigun erantzuna. Baiñan saia gaitezen galde orri erantzun zeatzago bat billatzen,

- Nobenpopulani, Laterri-Probintzi bat izateaz gaiñera, Eliz-probintzi bat ere bazala diosku Iztegi orrek berak. Gaurko izkeraz eta laterazko itzez, "Archidioecesis" bat zala: "Goi-Elizbarruti" bat zala alegia, eta Elusa'ko gotzaia zuala bere goigotzaia.

Nobenpopulani'ko Laterri-Probintziak eta Eliz-Probintziak biek muga beréberak zituztela noski. Ori, ez da arritzeko gauza; ezta garrantzi aundi-

koa ere; Elizak antziñate artan, Laterriaren probintzien erara antolatu bait zituan bere probintziak; eta Laterriak eratutako uri-mugen araura bere elizharrutien mugak..

- Garrantzi aundi-aundiko gauza, Nobenpopulani Elizak IV mendean bere Probintzi egin izatea da. Orrek, Nobenpopulani'k Elusa'koaz gaiñera beste gotzai batzuk ere bazirala esan nai bait du. "Uri-talde batek Laterriko Probintzia egiten zuan bezala, gotzai-talde batek egiten bait zuan Elizaren Probintzia. Gotzai oiek gabe, ez zan orduan Nobenpopulani Eliz-Probintzi egiña izango.

- Garrantzi aundiko gauza da, baitare, Elusa'ko gotzaia goi-gotzaia izatea, aro artan bere "mendeko" gotzai-talderik gabeko goigotzairik ez bait zan. Gotzai oiek gabe, goigotzai izenak berak zentzurik ere ez du. ¿Noren gaiñeko goigotzai bere mendeko gotzairik ez ba'du?

Nobenpopulani'n IV mendearen azkenerako gotzai-talde bat izateak berriz, Nobenpopulani'n ordurako kristautasuna ederki eta zabalki erroturik zegoala adierazten digu, bestela, orduango legeen araura, ez bait zuan izateko arrazoirik ere izango bertako gotzai-talde arek.

Nobenpopulani, ordea, "Aquitania Tertia", egiazko Akitania da, Zesaraugusto'ren denboran iparreruntz luzatua izan aurreko Akitania, Julio Zesar'ren Akitani, oso-osoan euskalduna zan Akitania, erromatarrek Baskoni ere esaten ziotena, (ikusi dugu Akitani'ren ipar-iparrean dagoan Kondom erriari nola "Baseonum Condom" esaten zioten), laister frankiarrek "Wasconia" idatzita "Guaskonia" esanen ziotena, eta azkenean frantziarrek Gaskuña esaten diotena. IV mendean, ezpairik gabe euskaldun lurraldea.

Euskaldunok, beraz, Akitani'n beintzat kristauak giñan, kopuru aundian, IV mendearen azkenerako.

Baiña baita IV mendearen asierako ere, aski era ugarian gaiñera, Gams'en iritzia ontzat artzen ba'dugu. Azterlari beneditar orrentzat Elusa'ko gotzai guztiak izan bait ziran goigotzaiak. Baita 314 ean Arles'ko kontzilio artara joan zan Mamertino ura era. Izenburu au ipintzen dio bâ Elusa'ko gotzaien zerrendari: "ARCHIEPISCOPI de ELUSA" (Series Epis. 497).

Beraz, Gams'en ustez VI mendearen asierako, bazan goi-elizbarrutire Akitania.

Eta Elusa "Dictionnaire de TWlogie Catholique" esan digunez, Akitani'ren zatiketakoan izan ba'zan Nobenpopulani Laterri Probintziaren eta Eliz-Probintziaren uriburu egiña, Garns'ek arrazoi duala esan bearko dugu, "zatiketa ori III mendearen azken-aldera egin bait zan": "Cette petite ville etait devenue, vers la fin du <sup>si</sup> Me, la capitale de la Novempopulanie, iorsque l'Aquitaine fut divisée en deux provinces" (Griffe, 125).

Arrazoi guztiz galde egin dezakezu: "Au zer da, ordea? Aiztintxe Akitani'ren zatiketa IV mendearen azken-aldera e<sup>g</sup>in zala esan digu Iztegi izentsu batek. Orain, berriz, zatiketa ori III mendearen azkenera egin zala diosku, bera ere izen aundikoa dan Edestilari batek. Egiaazko zatiketa - zein ote da"?

Bata eta bestea dira egiazkoak, Akitani'ren zatiketa bi aldiz egin bait zan:

- Aurrenkoa, III mendean, bi zati egin zan Akitani: Ipar-Akitani, Garona eta Loira arteko lurraldeekin, eta Nobenpopulani, Garona eta Auñamendi arteko lurrekin. Euskaldunek eskatuta egin zan zatiketa au, gure arbasoak ez bait ziran gustora gelditu, beren lurraldea, betiko Akitani zaarra, Erroma'k Loira arteko lurralde zabal aiekin naasi zuanean.

Bigarrena, IV mendean, Garona'z aruntzko Akitani ura bi zati -- "Akitania Prima" eta "Akitania Secunda" egin zutenean. Nobenpopulani'ri noizbeinka "Akitania Tertia" esanen zaio arrezkero, baiñan bere izaeran ez zuan bigarren zatiketa onek ukitu ere. Nobenpopulani'k bere nortasun osoa III mendeko zatiketa artan bir-lortu bait zuan.

Orduan, III mendean, izan zan gure Akitani zarra Probintzi yare <sup>a</sup>egifia, eta orduan irabazi zuan Elusa'k Probintzi berri orren uriburutasuna.

Orduan izan ote zan Eliz-Probintzi ere egiña gure Akitani zaarra? Eta orduan igo ote zan Elusa'ko gotzaia Nobenpopulani edo Akitani zarreko goigotzai izatera?

Bai: 111 mendeko zatiketa ortan, Gams'en ustez. Ez: IV mendeko bigarren zatiketa artan baizik, "Dictionnaire d'Histoire Ecclesiastique et de Liturgie"en ustez.

Nere iritzia? III mendea aztertzerakoan esan dutana: III mende ortan Akitani'ko euskaldunen artean kristauak bazirala, eta aski ugari zirala, ezpairik gabe aitortu daitekean gauza dala. Baita, III mende orren azken-

aldera Elusa gotzai-uri zala ere, IV'aren asieran, 314'ean ainzuzen, Marmertino Elusa'ko gotzaia Arles'ko kontzilioan izan zala eskierki badakigun ezkerok. Baiña azkarregi iduritzen zait III mendea gure Akitani artan beste gotzai batzuek bazirala, eta Elusa'ko gotzaia aien goigotzaia zalazaia zala esateko.

IV mendearen azkena ber-bera ere iaski goiztarregia iduritzen bait zan ortarako!!!

Ala ere... ez naiz ezetz esatera ausartuko, Akitani jende asko bizi zan Probintzia bait zan III eta IV mendean. Ain zuzen, mende ortan bertan, 380'garren urtearen inguruan Ammiano Marzelino zeritzan gudari edestilari batek, Akitani "opidum" edo uri-gaztelu ugariz orniturik zegoala diosku.

Ez zan Euskalerrria, askok uste duan bezala, jenderik gabeko lekaro basatia. Dokumentuak peitzen zaizkigu. Baiñan dokumentuek aipatzen dituzten eusko-lurrak, Akitani adibidez ala Baskoien egoaldea, jendez ongi beterik aurkezten zaizkigu. Baskoien iparraldean ere ari dira III mendeko txindi erromatarrak agertzen. Akitani'ari dagokionez gaiñera, esan dugu liburu onen aurreneko atalean, jende ugarizko lurra ez eze jende apain txukun eta dotorezko lurra zala

Zuk ordea, irakurle, irakurri didazunaz gero, baduzu zure iritzia eratzeko eskubide guztia.

So dagoigun orain IV mendean Elusa'n euskaldunen gotzai izan ziranen zerrendari. Ortarako, Garns'en "Series Episcoporum" izeneko idazti mardulari jarraituko diogu. Oroi, berak, Elusa'ri dagokion zerrenda itz auekin asten duala: "Archiepiscopi de Elusa".

Aurrena, III mendeko omen ziran, eta kondaira beste oiñarririk ez duten iru gotzai auek damaizkigu (Doneak iruak):

Paternus, Servandus, Optatus, eta, zalantza-ikurrez, Pompidianus. Oien atzetik, IV mendearen asierakoa lez, Taurinus. Gero dator Arelate'ko kontzilioan eseri zan Marnertinus.

## ELIZ ELUSATAR ZARREKO DONEAK

- **BESTE PATERNO DONE BAT.**- Tolosa'ko Iondoni Satordi'ren garaiekoa diosku Gams'ek. III mendearen erdikoa beraz. Ori ordea kondaira utsa da guztia. Gaiñera, "Bibliotheca Sanctorum"ek izen ortako hi done bakarrik damaizkigu, baiñan bietako bat Fondi'ko gotzaia, italia-rra, eta Itali'n martiri illa Diokleziano'ren garaiean. Bestea, galitarra, Galietan bertan Vanes'ko gotzaia, haiñan VI mendekoa. Ederki, beraz, "Dictionnaire d'Histoire et de Gêographie Catholique" k: "La legende d'un Saint Paterne & abli par Saint Saturnin pour premier évNtie d'Ëauze ne merite pas creance": "Elusa'ko lenen gotzai lez londone Satordi'k jarritako Donepaterno'ren kondaira orrek, sinisgarritasunik ez du".

- **ZERAZIO DONEA.**- Paterno onen aurretik Zerazio izeneko bat ipintzen digu "Dictionnaire d'Histoire et Gi&)graphie Ecclesiastiques" iztegiak, baiñan Zerazio au, seguruaski kondairak nasketa baten ondorioz egin zuan Elusa'ko gotzai. Zeratio, Grenoble'ko gotzaia izan bait zan. Ariotarren zalaparta ugarietako batean bere gotzai-aulkitik jaurtia: "Si riftigiÒ nella Guascogna, a Simorre, dove (eta an) morl. A Euaze, -- ots, Elusa'n e nella abbazia di S. Maria di Simorre Elusa'tik ez urruti -- sono reperiti tracce di un culto tributato a San Cerato, culto que è stato conferinato nel 1.903 da Pio X" (Bibliotheca. Sanet).

Elusa'n ematen zitzaion eraspen ortan oiñak ezarri zuan seguruaski kondairak Donezerazio Elusa'ko gotzai aulkian. Zerazio, III mendekoa ez baiña V mendeko izateak ez zion kezkarik eman. Axola gutxi bait zaie aldien ziurtasunagaitik kondaira-sortzaillei.

**SERBANDO DONEA.**- Bat bakarra izan da izen ortako gotzaia, baiñan ez Elusa'koa, ezta III mendekoa ere, IV'aren azkenekoa baizik,

"Gallia Belgica"n zegoan eta gaurko Belxika'n dagoan, Tongres'ko gotzai, gure Febadio Agino'ko gotzaiaren laguna. Aipatu dugu bera, Febadio'z itzegin dugunean. Zerzalata, mende batez aurrera Elusa'ko gotzai-aulkian kondairek jarri zuten, ez dakit. Agian Febadio Agino'ko gotzaiaren laguna izan zalako. Agino ta Elusa, biak Akitani'n bata bestearengandik bertan bait daude. Kondairen gauzak!

- OPTATO DONEA.É Ez dakit nola sartu zuan kondairak Done Optato au Elusa'ko gotzaien artera. Optatus bat. Auxerre'ko gotzai izan zan, baiñan VI mendean. Izan zan beste bat IV mendean, baiñan, au, afrikarra oraingo Arjeli ta orduango Numidi'ke uri bateko gotzai. Kondairak nondik eta nola sortu zuan Elusa'rako izen ortako gotzai done bat ez dakit.

- PONPIDIANO DONEA? Orrela, zalantzazko ikurraz dakar Gams'ek ¿gotzai? onen izena. Eta ez noski arrazoirik gabe. Ez bait dakigu ez iñongo gotzai izan zan, ez sekulan iñon iñoiz bizitu zan. Dirudianez kondairagille bat edo bateren asmakuntza bait da.

"Bibliotheca Sanctorum"ek ez dakar. Dakarzkian izenetan Pornpidiano'ren antzik geienekoa Pompeiano da. Iru aipatzen ditu izen ortakoak: Bi, Zerdefia'koak; Ueska'koa irugarrena. Baña ez ziran gotzaiak izan. Ezta martiriak ere, naiz jendeak martiri lez omendu, iruen illobietan B. M. izkiak ikusi zitualako. Bi izki oiek, "Bonae edo Beatae Memoriae", ots, "Orolpen Oneko edo Zoriontsuko" esan nai dute, baiñan jendeak "Zorioneko Martiriak" irakurri omen zituan.

Danadala, i,iruetatik nor ote zeukan erri kristauak buruan Elusa'ko gotzai egin zuanean? Ueska'koa seguruaski, bai Elusa eta bai Ueska uri euskaldunak bait ziran biak.

- LUPERKULO DONEA. "Orrelako izen auek, Lupus, Luperus, Lupercus, Luperculus oso atsegiñak omen zitzaizkien Auñamendiaren bi maldetako jendeei": "Les vocables Lupus, Luperus, Lupercus, Luperculus & aient en grande faveur sur les deux versants des Pyr&lees" (Dic. Arch. Chrt. et Litur). Egia esan, izen oiek lateraz mintzatzen zan kristaudi guztian zeuden zabaldurik, baiñan Auñamendi'ko bi maldetan --izen oiek beste iñon baiño geiago erabilli izateak ez du arrigarririk ezer. Auña-

mendiko bi maldetako gizakumeak euskaldunak bait ziran: Izen oiek eusko-izenen lateraketak besterik ez bait ziran emen, seguruaski. Lupus, Otsoa da; Luperus, Otsoti, Otsokoi; Lupercus, Otsotto; Luperkulus, Otxoa.

Ederki dio Elusa'ko Luperkulo oni-buruz Gams'ek: "Patronus civitatis, martyr, sed non episcopus": "Uriaren zaindari, ziñopa, baiñaN gotzaia ez".

TAUIRINO DONEA. Onekin sartzen gera IV mendera iñoiz Elusa'ko gotzaia izan zala egia ba'da. Izatekotan Luperkulo baiño lenago izan zan Elusa'ke gotzaia, naiz Gams'ek Luperkulo'ren atzetik agertu. Bi gotzai? auen izenak bata bestearekin alkarturik dakarzkigu kondairan. Eta bietan garrantzitsuena Luperkulo dugu: Otxoa. Zillegi bezait, Done au aipatzerakoan, seguruaski bere egiazko izena zuan ori, Otxoa, erabiltzea:

Aztertu dezagun arreta pitin batez onen kondaira, Done euskaldun baten aurrean egon gindezke-ta.

Elusa'n bertan jaio omen zan, eta "gaztetatik eman omen zituan bere kemen eta tinkotasunaren aztarnak": "S'y fit connaltre, tout enfant, par son courage et sa fermete. Gudari sartu zan aurrena, baiñan laister egin zan apaiz.

260'garren urtean sarrera gogor odoltsu bat egin zuten germaniar basatiek Galietara. Eta iritxi ziran Taurino zan bertako gotzaia.

Elusa, Akitani'ko Probintziaren uriburua, etsai orotik urruti zegoalarik ez zuan orrelako gauzarik itxaroteko arrazoirik-eta, uri irikia zan, arresi eta gaiñerako guda-babeskirik gabea. Bertan, ordea, kilometro t'erdira, Berus izeneko "opidum" edo uri-gaztelu zar aundi ta sendo bat zeukan, zingiraz eta lur busti loitsuz inguratua, gaiñera.

Elusa'n zegoan Otxoa, germaniarrak urbiltzen ari ziranean. Ikaratu ziran uritarrak. Otxoa'k ordea, gudari izan zala oroitzuz, eman zien bearezkoa zuten kemena, eraman zituan danak Berus izeneko opidum artara eta, an, danen buruzagi egin da, gorde aal izan zuan germaniarren erasotatik babeséleku zar ura, eta, baita bertan bildu zituan jendeen biziak salbatu ere.

Taurino gotzaiak ez zuan alako bikaintasunik izan. "Saint Taurin, s'en fuit a Auch emportant l'autel, les reliques de la Vierge el les

corps de ses prédécesseurs, sans oublier le trésor de reglise": "Taurino Donea'k Auch'era iges egin zuan. Berekin eraman zituan aldarea, Miren Neskutsaren erlikiak eta bere aurreko gotzaien gorputz illak. Ez zuan eztare azturik utzi Elizaren altxorra".

Ikus nola damaigun igesketa orren berri Iparramerika'ko "The Catholic Encyclopedia" k: "A local tradition that dates back to the beginning of the twelfth century tells us that Taurinus, fifth bishop of Eauze (Elusa), abandoned his episcopal city, which had been destroyed by the Vandals, and transferred his see to Auch". "Vandalitarrek ezereztu zuten Elusa'tik Auch'era alde-egin omen zuan Taurino uri ortako bosgarren gotzaiak, Elusa'n bertan XII mendearen asieran agertzen zaigun agoz-agozko albiste batek esaten digunez".

Germaniarrak beren lurraldeetara itzuli ziranean, elusatarrek gotzai egin zuten Otxoa, Taurino iges-egiña bere buruaren berri ematera ta askoz gutxiago Elusa'ra itzultzera ausartzen ez zalako": "Taurin fugitif n'osant plus se montrer et encore moins revenir a Eluse" (Dic. Arch. Chrét. et Litur. Eauze).

VII mendean Elusa'ko goigotzai aulkia Auch'era aldatua izan zanez gero, "Lupere (Luperculus) fut considere come un g&teur, et nul ne songea a le revendiquer; son courage devant l'invasion était plus qu'une accusation contre la poltronnerie de saint Taurin, dont raureole risqait de s'assombrir":

Euskeraz:

"Nekagarri biurtu zan Otxoa'ren oroitza (auchetarrentzat). Ez zuan iñork aren izena babesterik pentsatu. Arek germaniarren aurka erakutsi zuan kemena, salaketa bat baiño geiago ere hai bait zan, Taurino Donea'k erabillitako nagikeriaren aurka, eta onen izen ona ezabaturik gelditzeko arriskuan ipintzen bait zuan" (ib).

"On imagine de lui retirer ses insignes épiscopaux. Dom Brugèles vit d'anciennes peintures et sculptures qui representaient le saint vetu de la dalmatique des diachres dans les églises d'Eauze, de Rimbes, de Gavarret, de Tournus-Darre et de Lomchamp".

"On lui a depuis restitué mitre et crosse"(ib):

Euskeraz:

Otxoa'ri "gotzai-ikurrak kentzea pentsatu zan. Dom Brugeles beneditarrak ikusi zituan aren margo-lanezko eta eskulturazko Luperkulo'ren



irudiak diakonoen dalmatikaz jantziak Elusa, Rinbe, Gaberret, Tournus-Darre eta Lonchamp'eko elizetan.

"Gero, ordea, itzuli zaizkio mitra ta gurutzea".

Au, gotzai izan omen ziralako bi doneei-buruzko kondaira. bere egiazkotasunaz zer uste genezake?

Nik bai Otxoa eta bai Taurino, egiazko gizakumeak izan zirala esango nuke.

Taurino'k egiazko gizakumea izan bear du naitanaieiz, bere izena estuki Otxo'arenarekin txirikordaturik dagoalako.

- Otxoa elusatarra, berriz, egiazko gizakumea izan zala eta, baita santu izan zala ere ziur badakigun gauza da. Lekuko, alboan duzun arri-olako idazkia.

Elusa'ko gotzai izan zala ere, egia ote da? Baietz esango nuke nik, bestela ez bait da ulertzen Auch'eko eliztarrek izan zioten bekaizkeria. Kondairak xeetasun geiegi aurkezten digu bekaizkeri ori egia ez izateko; adibidez, xeetasun oien artean auchetarrek Otxoa gaixoari bere gotzai-ikurrak kentzeko artu zuten erabakia. Ta, guzti orren lekuko dira Dom Brugeles'ek ikustatu zituan eliz aiek danak. Danetan, Otxoa Donea, gotzaien ikurrik gabe ikusi bait zuan.

Bnigeles heneditarra, akitaniarra bera ere, Simorre'n jaioa, XVIII garren mendeko edestilari zintzoa da, "Chroniques Ecclesiastiques de la Diocese d'Auch"en egillea. Bildurrik gabe ontzat ar dezakegu bere itza.

Diokleziano'ren zigorketan il zan martiri, seguruaski euskalduna zan Otxoa edo, lateratutako izenez, Lupercus zeritzan Donea ura. Dagiogun agur, ongi irabazia duan eraspenez:

Sancte Luperce, ora pro nobis.

Otxoa Donea, gure alde otoitz egizu.

MAMERTINO GOTZAIA, ongi ezaguna dugu. Bera bait da 314'-ean Aries'ko kontzilioan izan zana. "Bera da gaiñera Elusa'ko lenen gotzai ziurra": "Le premier eveque connu d'Éauze (Elusa) est Mamertinus qui assista dès 314 au concile d'Aries". Kontzilio artan, Euskaldunen gotzai orrek, bere kontziliokideekin batera, gudaroztera sartzeari uko egitea eskomikatu zigun. Aurreneko III mendeetan aski begi kezkatiz begiratu zion Elizak gudarozteari.

Asko izan ziran gudari kristauak Erroma'ren lejiuetan. Gure Done-meterio ta Donezeledonio adibidez. Ebangelioan eta Bidalien Egiñetan ere, ez ziran gaizki konpondu lejiuetako eunkari edo zenturoiak Josu'rekin eta Apostoluekin.

Alatagutziz, arrisku aundiegia ikusten zuan Elizak gudari kristauen sinispidearentzat Erroma'ren lejiuetako bizitzan. Lejio aiek sasijainkoei opaldurik bait zeuden, eta sasijainko aien inguruan eta aien izenean egiten bait ziran lejiolarien bizitza bera eta ekintzak oro.

Gaiñera, Elizak, belarrietan entzuten zituan oraindik Josu'ren itzak: "Ezpataz iltzen duana, ezpataz ilko da", eta leenagotik oraindik zetorkion bosgarren Mandamentuaren oiva: "Ez duk iñor ilko".

## ELUSA GOIGOTZAI-URI

Ta? Elusa'ko Goigotzaigoari-buruz zer esan? Neri zail egiten zaidala esan dut, IV mendean Elusa goigotzai-uri izan zala sinistea, orrek Akitanian<sup>1</sup> gotzai-uri geiago bazirala esan naiko lukelako, baiñan ez da nere iritzikoa aipatu dutan "The Cathoic Encyclopedia" iparramerikatarra. Ona zer dion Taurino gotzaiaz mintzatu ondorean:

"Eauze (Elusa), in fact, probably remained a metropolitan see about the middle of the ninth century, at which time, owing to the invasions of Northmen, it was reunited to the Diocese of Auch":

"Elusa, izatez, goigotzai-uri izanez jarraitu zuan IX mendean erdira arte. Orduan alkartu zuten, "Normando" edo "Ipar-Gizonen" erasoaldien ondorioz, Auch'ko elizbarrutiarekin"

Noiz utzi ote zuan Elusa'k Nobenpopulani<sup>1</sup>ko "metropoli" edo goigotzai-uri izatez? IX mendean, iztegi onek esan digun lez? VII mendean? Uste ontakoa da Gams: Eta baita "Gallia Cristiana" ere (I, 968), idazti oparo oni jarraitzen bait dio arek. Uste ortakoa da Griffe ere. Danadala, ez da erreza "noizko" ori ziurki jakitea. Zaillagoa da berriz, noiz metropolita izaten asi zan jakitea.

III mendean azkenean? IV'aren asieran? Mende onen azkenean?

Taurino eta Luperko III'aren erdialdekoak ziran. 260'garren urtearen inguruan izan zan, Taurino iges egin bearrean ipiñi zuan germaniarren eraso. Orduan Elusa'k, "The Catholic Encyclopedia" k esan digunez, "seguruaski goigotzai-uri izanez jarraitu zuan, "in fact, probably remained a metropolitan see" --; baiñan goigotzai-uri izanez jarraitzeko naitanaiez izan bear zuan lendik ere goigotzai-uri.

Alare, naiz noiztikoa ta noizartekoa eskier jakin ez, bada beintzat eskierki badakigun zerbait: Elusa, Akitanian'eren erdian Goigotzai-Uri izan zala, eta ondorioz Akitanian zarra, ots, Nobenpopulani guzia, Goielizhae

rruti, Archidioecesis, izan zala. Naitanaiezko ondorioa: Akitani'ko euskaldunen artean, Elusa'ko goigotzaiaz gaiñera, beste gotzai batzuk ere Lzan zirala.

Orren alde dago gure Akitani'ko soziologi edo gizartekerari-buruz elenerazko eta laterazko idazleei orain arteko orrialdeetan entzun dieguna:

- Akitani lur aberatsa zala bertako meatz ugariei eskerrak.

- Akitani, lur jendetsua zala. "Oppidurn" edo uri babestu ugari zala bertan. 4Uri babestu oietakoak ote ziran Akitani'ri Nobenpopulani izena eman zioten bederatzi uriak?

Akitaniarrak oso meatzari yayoak zirala.

- Oso gizonezko ta emakumezko txukunak, garbiak, dotoreak zirala. Bertako jenderik txiroenak ere, poliki jantziak agertzen zirala. Ta, ori, beste errialdeetan ez bezala.

- Soiiiez bezala buruz ere oso ongi jantzitako jendeak zirala adierazten digu Prisziliano'ren oldozkeraren eztabaidetan ain kementsu sartu izateak.

Esan dut, bildur aundia ematen didala IV mendean Akitani Archidioecesis bat izan zala ago betez oiukatzen asteak; baiñan, alare, aipatu-berri dedan guzti ori gogoan artuz, ez nintzake, ez tare, ez nintzake ezetz esatera ausartuko.

## FEBADIO DONEA.

Febadio, garrantzi aundiko elizgizona dugu gure edestian:

Lendabizi, euskotarra zalako eta, agian, euskalduna ere bai "Akita-ni'ko semea zalako": "Originaire d'Akitaine" (Die. Theol. Cath.): "Naque (jαιο) in Akitania e probabilmente en la stessa Agen" (Bibl. Sanct). Bere bizitzari-buruz xeetasun geiagorik ez dugu, 357'garren urtera arte. Urte ortan azaldu bait zan kristauen begien aurrera, gure Febadio zearo asarretu zuan "Sirmio'ko Bigarren Formula", ots, "Bigarren Sinistaraua".

Gauzak ulerterrezak gerta daitezen ager ditzagun nola ibilli ziran garai artako arazo larriak:

Ario'k eta arek sortutako arrokeriak, eta ondorean agertu ziran ariani-keri ezberdiñek zearo naasi ta zalapartatu zuten kristaudi guztia, inperatoreak zurrunbillo artan muturrez aurrera murgil sartu ziran ezkerok.

Gaur ezin ulertu dezakegu nola piztu ziran, Sortaldean batez ere, baiña baita Sarkaldean ere bereiziki Kostantzio'k Sortaldea ta Sarkaldea bere agintaritzapean artu zituan ezkerok mende-erdi oso bat iraun zuten, alako borroka, ainbesteko ondamen eta ain itxuragabeko gorroto beltz aiek.

Nizea'ko Ekumene-Kontzilioan sinistarau-katolikoa era egokian mugatua eta aldarrikatua gelditu zanez gero, pillaka izan ziran ospatu ziran kontzilio ta sasikontzilioak, inperatoreen aginduz ospatuak geienak. Kontzilio batetik irten eta beste batera sartu. Orrela ibilli ziran gotzaiak mendearen azkenaldera I Teodosio Aundiak inperaretza artu ta erabat katolikotasuna babestu zuan arte.

Kontzilio aiek, bakoitzak bere Sinistaraua argitaratuz amaitu oi ziran. Sinistarau auek, "kre,clo" baten antzera tajutuak izaten ziran geienak. Orregaitik izen onen bidez ere izan oi dira ezagutuak: "Nizea'ko Kredoa" adibidez.



7253. - Cluisine et sarcophage de la Basilique.  
D'après *Comptes rendus de l'Acad. des Inscriptions*, 1911, p. 65.

Konbenerriko krismoia, eta 12 ilkutxeetako bat.

Kontzilio aietan, geienetan beintzat, jaun da jabe ibilli zitzaizkigun arianikerizaleak: Eta askialdi luzez, auen gidari, ezagunak ditugun Balente ta Ursazio izan ziran: Iliritarrak biak; gaur, orain arte Yugoslabi izan dan lurraldekoak zirala esango genuke. Auekin ibilli zan Potamio Lisboa'ko gotzaia ere.

Kontzilio aietako batzuk Sirmio'n egin ziran. Sirmio, Iliri'n, ots, aipatutako Yugoslabi ortan, Ursazio ta Balente gotzai oro-nasi-zaleen lurraldean zegoan uri txiki bat zan.

Sirmio'ko bigarren sinistaraua izan zan bereiziki borroka-sortzaillea; eta bada oraindik ere eztabaida bizkorren iturria. Zearo ariotarra dan sinistarau ura katolikotasunaren aitzindari izan genduan Kordoba'ko Ossio'k izenpeturik agertu bait zan!

Gauza mingarria izan zan katolikoentzat zearo erejea zan sinistarau ariotar ura nabarmenki Ossio agurgarriaren izenez sendoturik agertzea. Zer gertatu ote da Sirmio'n?, galde zegieten beren buruei.

Oso agure zarra zan ordurako Ossio: larogeitamar urtekoa! Milan'en zegoan, eta orduantxe bertan katolikotasunaren alde Kostantzio inperatoreari eskutitz gogor ausarta bat idatzi-berria zan.

Kostantzio'k, asarre gorrian, Sirmio'ra eramenerazi zuan erdi-baiturik, eta agure gaixoa Sirmio'n egon zan urte betez, bakarrik, soilki ariotarrez inguraturik. Gaiñean izan zituan baitare Ursazio ta Baiante, beragandik izenpeketa ura lortzearren, goxoki ala zakarki jo-ta-ke.

Izenpetu ote zuan zerbait Ossio'k? Bai, bearbada, baiñan ez bi gotzai trakets aiek kristaudiari aurkeztu zioten sinistarau ura, beste zerbait baik, berealaxe ikusiko dugun 1ez45.

Sirmio'ko Bigarren Sinistarauak onako au esaten zuan: Semea ez zala Jainkoak egindako beste egintzak bezalako egintza. Esakizun orren idazkera gogorra gertatzen da, euskaldunen begi eta belarrientzat, baiñan bere zentzu osoa gorde nai izan diot.

Laister ulertu zion Febadio'k bere zentzu ori: Semea, Irutasun Doneko Bigarren Pertsona, Jainkoak "egiña" dala alegia, ("creatura"), naiz Jainkoak egindako beste gauzak bezalakoa ez izan. Poitiers'ko Ilario

---

<sup>45</sup> Ossio'ren gurutz-bidearen berri zeatzagorik jakin nai ba'duzu, irakurri ezazu nere "Estadua eta Eliza bat egin ziran denborako Eliza".

erbesterau berria zan, eta urruti zegoan: Asi Txiki'ko Friji'n. Norbaitek erantzun bear zion sinistarau oker ari, ta berak artu zuan luma, eta liburuxka txit dotore bat idatzi zigun: "Contra Arianos"

Bere Gotzaikideak zeuzkan begien aurrean Febadio'k, Iiburutxo oiek idazten asi zanean, "S'il prend la parole, c'est pour denoncer a ses collègues dans repiscopat les machinations des hérétiques: on voudrait faire passer l'h&esie pour la foi orthodoxe et condamner la foi orthodoxe comme heretique. Il faut dévoiler les perfidies el les sophismes d'un adversaire qui cherche tromper les gens non advertis en trtIant le miel au poison" (Griffe, I.c. 241).

Euskeraz:

"Luma artu ba'zuan ere, gotzaigoan kide zituan lagunei erejeen azpilanak azaltzeko artu zuan: ereje aiek, sinismen zuzentzat erejia sartu, eta erejizat sinismen zuzena gaitzesierazi nai zuten: Bearrezko gauza zan, beraz, aien maltzurkeri ta azpikeri guztia argira ateratzea: erriko jende xea atzipetu nairik, pozoitari ezitia nastuz bait zebiltzan". Ikus zeñen ederki esaten dituan Febadio<sup>s</sup> k berak azkeneko itz oiek: "Veneni poculum mella commendant": "Eztiz estalita eskeintzen dute eclenezko pozoia".

"L'ecrit est sans pretention, mais il nest pas sans merite", dio Griffe'k (I.e. 241): "Arrokeririk gabeko idazkia, ez ordea merezimendurik gabekoa". Merezimendu aundikoa! Teologilari yayo, zintzo ta argia, argia betez, agertzen bait zaigu Febadio. Eta, ori, oraindik teologia egiten ari zan aldi artarako, oso merezimendu arras aundia da.

Egia, bai noski, irakasle ona izan zuala Poitiers'ko Ilario bere Iaguna, Griffe'k esaten digun ori, alegia, Febadio Ilario "Poitiers'ko gotzaia- ren ildotik", "dans le sillage de rév4ue de Poitiers" ibilli zala egia ba'- da. Agian ezagutzen zuala omen dirudi ba Ilario'k ordurako idatzirik zeukan "Adversus Valentinum et Ursatium" izeneko liburua. Orrek ordea, egia ba'litz ere, ez lioke gure Febadio'ri merezimendurik gutxituko, teolo-

---

<sup>46</sup> Migne: "Patrologia Latina", XX liburua, 11. Beste liburutxo bat ere eman zigun Febadio agiflotarrak. Migne'k lengo orren jarraian dakarkiana: "De Fide Orthodoxa contra Arianos, alias de Filii Divinitate et Consubstantialitate": "Ariotarren aurka Sinispide Zuzenaz, edo Semearen Jainkotasun eta Zertasunkidetasunaz".



giaren aldetik arras egoki eta elertiaren aldetik oso izkera            lau, eta apalez baiña era berean txukun, apain eta dotorez Semearen "nortasuna ta zertasuna agertzerakoan, Ilario bere maixu ustekoa bezain yayoa, edo yayoagoa, agertzen Nait zaigu.

Ori, laguna izateaz gaiñera, Ilario maixu ere izan zuala egia ba'da, idazterakoan darabilzkian eskiertasunak eta argitasun dizdiratsuak, eta ondoriozko ulert-erreztasunak, bera ere beste edozein aiñako teologilari bikaiña bazala, aditzera ematen bait digute.

Kultura aundiko gizona ere bazan noski Febadio, bere idazkietan argi bait dago Tertuliano ere ongi ezagutzen zuala.

Bazekian gatza erabiltzen ere bearrezkoa zala iruditzen zitzaionean. Adibidez bere "Contra Arianos" idazkiaren azkenean, Ossio aundiak ere Sirmio'ko Bigarren Sinistaraua izenpetu zuala esaten zietenei erantzuten dienean.

Bere arrazoiketaren mamia onako au izan daiteke: Osio orrenbeste urtez gure aitzindaririk bizkorrena, yayoena ta gogorrena izan da. Osio'k orain, larogitamar urtez sinistu izan duana sinistu dualako atzipeturik ibilli dala uste ba'du, eta atzipeturik zebillela oartzeko larogitamar urte bear izan ba'ditu, Osio tontoa da, eta nik ez dezaket tonto baten itza baliozko arrazoitzat artu.

Ona, nola esaten duan berak izkera txukunagoz:

"Non potest eius auctoritate praescribi, quia aut nunc errat aut semper erravit. Nam si nonaginta fere annis male credidit, post nonaginta illum recte sentire non credo. Novit enim mundus quae in hanc tenuerit aetatem, qua constantia apud Sardicam et in Nicaeno tractatu assensus sit et damnavit Arianos.

"Quid si diversa nunc sentit, et quaecumque ab eo retro damnata fuerant defenduntur? Rursum dien, non nihhi ejus auctoritate praescibitur. Ergo ut supra diximus, praejudicatae opinionis auctoritas nihil valebit, quia contra semetipsam ipsa consistit. Et sane legimus: Justitia justii non

salvabit eum in quacumque die exerraverit (Ezech, XXXIII, 12). Amen" (i.c. 50)47.

Euskeraz:

"Ez dit Osio'ren autoritateak (oraingo ontan) ezer egiztatzeko balio: Izan ere, orain dabil oker Osio..., edo len ibilli da larogeitamar urtez oker; ni, berriz, larogeitamar urteren ondorean Osio'k lorain ainzuzen! ongi pentsatzen duala sinistekotan ez nago. Badaki ba mundu guztiak larogeitamar urtez zer sinispide sinistu duan eta nolako kemen aldakaitzez babestu duan bere betiko sinispide ura Sardika'n eta Nizea'ko Kontzilioan eta nolako indarrez gaitzetsi izan dituan ariotarrak.

"Ez dit ajolik orain beste era batera pentsatzen ba'du, eta orain arte gaitzetsi duan guztia onesten eta orain arte onetsitako dana gaitzesten ba'du. Orregaitik diot berrero, neretzat ez dula bere autoritateak balio, esan bait dut baliorik gabea dala berak bere burua arrazoirik gabe uzten duan autoritatea, ots, era ortan jokatzuz, bere autoritatezko izatea bera ezerezten duan autoritatea. Gaiñera Idazti Donean irakurtzen dugu onako au: Zintzotasunak ez du zintzoa salbatuko, noizbait zintzotasuna galtzen ba'du".

Badirudi, ederki usmatzen zuala Febadio'k, Osio'ri txakurkeri aundi bat egin ziotela Sirmio'n, ariotarren menpeko katigutza artan. Berari ere laister eginen zioten txakurkeri bera.

358'an batzar batean bildu ziran Frantzi'ko gotzaiak Ursazio'k eta Balente'k eratua izan zan "Sirmio'ko Bigarren Sinistarau" ura gaitzesteko. "An izan zan seguruaski gure gotzaia": "11 assista sans doute au concile des ev&lues gaulois, célébré en 358, qui Uclara repousser avec clgotit la profession de fai d'Ursace et de Valens "(Dic.Theol.Cath).

---

Badakizu noski, irakurle, "Auctoritas", erretorikan, jakintsu aundi batek bere jakintza audiagaitik duan sinisgarritzari esaten zaiola. Izkuntza jakintsu guztiek onartua dan itza dalako ez naiz "Auctoritas"entzat euskal-itx bat sorzzen saiatu. Euskaldunok kulturazko eta teknikazko itzei dagokienez zearo zabalak izan bear dugula derizkiot.

Ordurako irakurria ote zuten gotzaiek Febadio'ren "Contra Arianos" idazkia? Ala izatekotan, garaitza orokorra benetan gotzai euskaldunak lotu zuana!

Luzaro gabe beste kontzilio batean zan Febadio akitanitarra: 359'an Rimini'n ospatutako kontzilio mingarrian. 400'dik gora Sarkaldeko gotzai bildu ziran bertan. Aurretik, Kostantzio'k, aietako bakoitzaren gastu guztiak bere kontura artzen zituala jakifieri zien, orrela aien naimena aurre-irabazi nairik. Sulpizio Sebero bordeletarrak ederki damaigu bere "Chronica" liburuan kontzilio artako xeetasunen berri.

Liburu ortan dionez "Ori, (Inperatorearen dirua artze ori), .gure gotzaiek, (au da, Akitaniarrek) eta Galitarrek eta Britanitarrek zuzentasunaren aurkakoa uste izanik, Laterritiko diru orri uko egiñez, naiago izan zuten beren kontura bizi": "Sed id nostris (id est Aquitanis) Gallis ac Britannis indecens visurn, repudiatis fiscalibus, propriis vivere maluerunt". Bi gotzai bretafflar txindirik gabeko batzuk bakarrik jaso omen zuten laguntza ura, beste gotzaiek eskeintzen zieten artzea baiño inperatorearen kontura bizeitza egokiago iduritu zitzaielako. (Azpimarraketak nereak, baiñan makoak eta makoartekoa, "(id est Aquitanis)", Sulpizio Sebero berarenak dira).

"Ori gaizki ikusten zuan gure gotzaietako bati, Gabidio'ri, entzun omen zion berak": "Hoc ego Gavidium episcopum nostrum quasi obtrecantem referre solitum audivi" (I.c. II, 41)

Esan dutan bezala, azpimarraketa oiek danak nereak dira, eta garrantzi aundikoak derizkiot, beste gotzai euskaldun baten aurrean gaudelaren adigarri izan daitezkealako. Izan ere, aurreneko esaldian "gure gotzaiak" = "Goztai Akitaniarrek" badira, ekuazio edo berditzari jarraituz, "Gabidio gure gotzaia" k ere Gabidio gotzai Akitaniarra" izan bear bait du naitanaiez. Bildurrik gabe uste dezake, beraz, Griffe'k Gabidio akitaniarra zala (1,c. 249).

Tamalez, ez diosku Sulpizio Sebero'k Gabidio zer uriko gotzaia zan. Euskalduna ote zan? Ez da erreza erantzuna. Iru Akitani ziran orduan: "Aquitania Prima", "Aquitania Secunda" eta "Aquitania Tertia". Azkeneko au bakarrik zan euskalduna, Orkoa ote zan Gabidio? Orkoa izan baltz, ez ote zuan Sulpizio Sebero'k gotzai ura Nobenpopulani'koa zala esango?

Sulpizio Sebero bordeletarra zan; Bordele berriz Akitania Secunda'-ren uriburu izan zan erromatarrek egiña, naiz bera Garofia'ren egoaldean egon. Ikusi dugu aapaldi guzi ortan "gure" esatea Sulpizio Sebero'rentzat "akitaniarra" esatea dala. Ba, orrela mintzatzean Sulpizio Sebero'k gogoan zeukan Akitani, Bigarren Akitani ori ba'zan ere, euskalduna izan zitekean "gure" gotzaia, Bigarren Akitani orren egoaldean, Garona ta Dordoña ibaien artean orduan oraindik euskera bizirik egotea gerta zitekean gauza bait da. Arras gertagarritasun urria, baiña gertagarritasuna, alatagutziz.

Itzuli gaitezen Rimini'ko Kontzilio negargarri artara, garai artakoa dugun Sulpizio Sebero'k dioskunari jarraituz:

Tauro izeneko gudalburu baten bidez zuzendu zuan kontzilio ura Kostantzio inperatoreak. Gogor billi zan au, losintxa bidez orain, zemaiketa bidez gero, gotzaiak inperatore arianikerizalearen aginduetara makurtu naiez.

Gure gotzaia, Febadio, "izan zan ainzuzen Tauro gudalburuaren zemaiketa guztiei azken unera arte aurka egin zieten gotzaien buruzagia", "le protagoniste de ceux qui résistèrent le plus longtemps aux sollicitations et aux menaces du préfet du prétoire Taurus; il finit cependant par se soumettre", dio "Dictionnaire de Théologie Catholique"k (XII, 1369), eta orixe bera dio Gan-is'ek ere: "Arimini in synodo cessit nimis Arianorum", "Rimini'ko sinodoan geitxo eman zien amore ariotarren eskariei (1.c. Agen").

Ikus dezagun ordea zer dioskun Sulpizio Sebero'k. Bera, ainzuzen orduan bizi zalarik, beste iñor baiño era egokiagoan bait zegoan Riminis zer gertatu zan jakiteko:

Ikus dezagun ordea nola zeuden une artan gauzak:

---

Gaiñera, Gavidius ez da done-izena. "Bibliotheca Sanctorum"ek ez dakar. Ez dakarre Bolandisten "Acta Sanctorum"ek ere. Gabidio izenak euskal itxura aundia du. Done-izenik ez jartzea, oiturazkoa izan zan euskaldunen artean geroxeagoko erdiaro garaiean ere. Aztertutak ditut Kukulla'ko Donemillan'en Lekaidetxeko larrukietan IX mendekoak. Agertzen dira done-izena ez daramaten gizakumeak. Guzti orrek ordea ez du deus aundirik aitortu aal izateko balio.

Kostantzio'k, erlijioari zegozkion arazoetan ere inperio-lurreko batasuna nai zuan, iBazuan ba une aietan batasun eta baretasun-bear galantikI Arrisku-ekarle izugarriak bait zituan mugaz aruntz, pertsiarrek Asi'n eta germaniar basatiak Europa'n.

Batasun ori lortzearren berak aurkezten zuan sinistarau arianikeri-tarra gotzai guztiek izenpetzea nai zuan.

- Sinispide ura ez zan ariotarra, arianikerizalea baizik, ots, zentzu katolikoan ere ulertu zitekeana.

- Izenpetu zioten Sortaldekoek. Sarkaldekoek ordea, sinistarau arek zentzu okerra ere izan zezakeala ederki ikusten zuten, alderantziz Nizea'-ko Ekumene-Kontzilioak aldarrikatutako ura, zalantzaketarako biderik emateke oso-osoan katolikoa zala ikusten zuten bezala. Gotzai aietatik batzuk, gaiñera, zentzu txarra besterik ez zioten ikusten Kostantzio'ren sinistarau ari. Orregaitik, Nizea'koaren alde egon ziran, eta ez zuten iñolaz ere Kostantzio'k eskeintzen zien beste zalantzakoi ura izenpetu nai izan.

Aia, Rimini'ko Kontzilioan 400 gotzai sarkaldetarretatik, Kostantzio'ren sinistarau aren alde %20 bakarrik agertu ziran, auen artean Balente ta Ursazio, iliritarrak, jakiña, Beste guztiek, irmo jeiki ziran Nizea'n erabakitakoaren alde, beste %20 aiek exkomikatuz.

- Inperatoreak asarre gotzai menderakaitz aien tinkotasuna ezereztu naiean, katigu utzi zituan Rimini'n ezertarako uritik irtetzea debekatur.

Illabeteak joan eta illabeteak etorri, zazpigarren illabeteaz gero, asi zan biguintzen, aski txirotasun larrian eta zer egiteko gauza ez zirala asperturik eta akiturik aurkitzen ziran gotzai baituen kementasuna, eta makurtu zuten burua, Kostantzio'ren sinistarau ura izenpetuz.

- 15 gotzai gelditzen ziran makurtzeke. Gure Agino'ko Febadio zuten 157 oiek buruzagi, gaur Belxika'n dagoan Tongres'ko Sulpizio'rekin batera.

Entzun, orain Sulpizio Sebero'ri:

"Ez zituan ezerk Febadio ta Sulpizio ikaratzen. Febadio'k, erbesteratua izateko gerturik zegoala esaten zien bildurrik gabe (Ursazio'ri ta Balente'ri).

Orduan, eskeintza au egin zitzaien Febadio (Fegadio idazten du Sulpizio'k) eta Serbazio'ri: Aurkezten zitzaien sinistarau ari zerbait peitzen zitzaiola iduritzen ba'zitzaien, peitzen zitzaion ori erantsi zezaioketela,

kontzientziko kezkarik izan ez zezaten. Eta orrela beraiek konpondutako eta izenpetutako sinistarau ori danek onartua izango zala.

"Ori guztia, ordea, zakurkeri izkutua besterik ez zan.

Bereala asi ziran Febadio ta Serbazio sinistarau zuzen bat erutzen: Bertan, Ario eta Ario'ren okerkeri guzia gaitzesten zuten; gero, "Jainkoaren Semea, Aita'ren berdiña, denbora oroz aurrekoa eta astapenarik gabekoa zala aldarrikatzen zuten": "Del Filius pronuntiatur Patri aequalis et sine initio, sine tempore".

Ikus orain Balente'ren deabrukeria:

"Orduan Balente'k bi gotzai aiei lagundu naiean ari ba'litz bezala, bere barruan iruzur-bide izkutua zeraman esaldi au sartu zuan aien sinispide zuzenean: Jainkoaren semea ez zala Jainkoak egindako beste gauzak bezalako Jainkoaren egintza": "Tum Valens, tanquam nostros adjuvans, subjecit sententiam cui inerat occultus dolus: Filium Dei non esse creaturam sicut caeteras creaturas" (Cron. II, 44).

Ikus nola eratu zuan Balente'k bere esaldi iruzurlari trakets ori, Jeronimo Doneak gorde digun lez: "Si quis dixerit creaturam Filium Dei, ut sunt creaturae ceterae, anatema sit": "Norbaitek esango ba'lu, Jainkoaren semea egiña, beste egiñak diran bezala, gaitzetsia bedi". Era ortan, batez ere lateraz, milla aldiz iruzurgarriagoa gertatzen da Balente'ren esaldia; agoskera aldatzea naikoa bait du beste zentzu baten, **zentzu** zuzenaren itxura artzen duala emateko'.

Orrela atzipeturik Rimini'ko 400 gotzai aiek danek izenpetu zuten sinistarau ori. (Agian Osio agure zaar gizagaixoari ere, orrelako zerbait egin bide zioten Urtazio'k eta Balente'k, aren izenpena lortzeko, ark zerbait izenpetu ba'zuan beintzat).

"En realidad parecfa Ilegado el señorío universal del arrianismo moderado. En este ambiente se explica pudiera excIamar San Jeronimo

---

Donejeronimo: "Adversus Luiciferianos", 17. "Luzifertar" oiek, Luzifero Kallari zerdefiatarreko gotzai baten jarraileak ziran. Gotzai ura erejitik iges egin naiean ereji orotik al zuan guztia urrundu nairik, erejira jausi zan bera ere. Otzetan ez izoztearren, berotan erre zan.

<sup>50</sup> "Beste egiñak diran bezala" es da gramatikaren aldetik esaera zuzena, baiñan lateraz Balente'ren idazkerak daraman maltzurkeria gorde nai izan dut.

al referir esos hechos: Gimid el orbe entero y se quedd sorprendido al contemplarse arriano". (Llorca, 419).

Beste kontzilio bitan ere izan zitzaigun, il aurretik, gure Febadio agiñotarra, eta lendakari bezala gaiñera bietan: 374'ean Galietako Balentzi'koan; eta 380'ean Zaragoza'koan.

Balentzi'ko artan 22 gotzai bildu ziran, galitarrak danak, bi aldiz ezkondukoen apaiz sagaraketa ukatuz, neskustasun-eskeintzari uko egin da ezkonduko lekameekin zer egin, eta jentilkerira edo erejira jausitako ei nola barkapena eman erabakitzeke etabar.

Zaragoza'koan, badakigu, Bordele'ko Delfino'rekin batera, Priszifia'noren erejia aztertzen ari izan zala.

Kontzilioetan Lendakari izate orrek ez du, besterik gabe, ezer aundirik esan nai, ekumentarrak ez ziran kontzilioetan, inperatoreak edo Aitasantuak lendakaria autatzen ez ba'zuten, lendakaritza gotzairik zarrenari ematen bai zitzaion.

Alare, "eraspen aundiz artua izan omen zan beti arianikeriaren aurkako borroka zarren txapeldun ura": "on entoura toujours d'une grande v ~ ~ ~ ration ce v&éran des vieilles luttes (Griffe, 312).

Eraspen aundi ta zabal orren adigarri da Donanbrosio'k Milan'dik berari, eta Bordele'ko Delfino'ri, egindako eskutitza. Anrosio'k "Segazio" esaten dio, "Ambrosius Segatio et Delphino Episcopis" baiñan "zalanztan jarri ere ez daitekean gauza omen da Segazio ori Agino'ko Febadio dala": "On ne peut gure douter qu'il ne s'agisse de Phoebadius d'Aggen" (id.ib).

Eskutitz ortan, Anbrosio'k adiskide baten bidez bi eskutitz bidaliak dizkiela, jakiñarazten die Febadio'ri, eta onen lagunari. Zoritxarrez, bi eskutitz oiek galduak ditugu. Guzti orrek ordea, gure gotzai aren ospea noraiño iritxi zan aditzera damaigu.

Mende ortan, Eliza-baitan, eta Elizatik at idazlerik dotoreenetako bat, dotoreena agian, Jeronimo Donea izan genduan. Ba, Jeronimo Doneak ere, 392'an, badagi Febadio'ren goratzarrea urte ortan birr-argitaratu zuan "De Viris filustribus" edo "Gizon Ospetsuak" izeneko liburuan; (138'garren orrialdean). "Phebadius, Agenni Galliarum episcopus, edidit contra Arianos librum. Dicuntur et eius alia esse opuscula quae necdum legi. Vivit usque hodie, decrepita senectute": "Febadio Galietan Agino'ko gotzaiak badu ariotarren aurka idatzitako liburu bat. Esaten

danez, bereak dira oraindik irakurri ez ditudan beste liburuska batzuk. Naiz oso agure zarra, gaur arte bizirik dirau".

Gure Febadio'ren idazlanetaz zer esan?

"Contra Arianos" XVI mendean argitaratu zan aurrena. Argitaratzai-ilea, Teodoro Beza: Kalbino'ren adiskide aundia, lagunik egokiena, eta, Kalbino kalbindarren buruzagia izan zan ura bera. Ona zer dion, Beza orrek Febadio'ren liburuari ezarri zion itzaurrean: "Brevis quidem ille, sed mea juditio egregius libellus": "Txikia baiki, baiñan nere ustez liburutxo bikaiña" (Dic. Theol. Cath).

Argikuntza-aroa, XVII eta XVIII mendeetan, azturik gelditu zan Febadio'ren lana. XIX mendean asi zan berriro Febadio'ren izena ixiltasunetik irtetzen.

"Draesake attribue a Phebade une acuite intellectuelle peu commune, ainsi qu'une grande viguer dialectique, et il voit en lui un théologien de premier plan: Draesake'k uste duanez, gutxik izan oi duten adimen-zorrotzaren jabe izan zan Febadio, alkarrizketarako trebetasun aundikoa gaiñera, eta lenen maillako teologilaria" (Die. Theol. Cath).<sup>51</sup>

Guri ordea, liburutxu txiki bat oiñarri kaxkarra iduritzen zaigu iñori "lenen mailleko teologilari" esan aal izateko. Egokiagoa deritzagu gure Febadio'z aipatutako iztegi orrek diona: theologien de second ordre qui se meut dans le sillage de Tertullien et de saint Hilaire, mais qui, a un moment critique, a su presenter, d'une manière alerte, vive et penetrante, la these traditionnelle de la théologie latine sur les rapports du Pre et du Fils dans la sainte Trinite"

Euskeraz:

"Bigarren maillako teologilaria, Tertuliano'ren eta Doneilario'ren ildotik ibilli zana, baiña, une larri batean, Irutasun Deunaren altzoan Aita'ren eta Semea'ren arteko arremantaz latindarren tedogia era ernean, bizikorrean eta sarkorrean aurkezteko gai izan zana".

Ez da gutxi esatea. Naikoa, baiki, Febadio'ri, geiago idazten jarraitu ba'lu, "lenen mailleko Teologilari" izengoitia eman aal izateko.

---

<sup>51</sup> Draesake, (1.774-1.849), alemaniarra, teologilari, idazle, eta batez ere, izlari ospetsua. Ta gotzaia. Lutertarra beti.



Noiz ii zan ez dakigu. 392'an?, galde dagio bere buruari Gams beneditarrak. Agian iltzer zegoan Jeronimo'k "naiz oso agure zarra, oraindik bizi zala" idazten zuanean.

Febadio Donea dugu Euskalerrian gure lenen teologilaria, eta Elusa'ko Mamertino'ren atzetik Euskalerriko gure bigarren gotzaia. Gu bezala euskotarra, eta, agian, baita euskalduna ere bearbada: IV mendeko elizgizon bikaiña. Egin dezaiogun agur, berak euskalduna ezagutu zuan Euskalerra zabalaren alde eta oraindik euskaldun diraun Euskalerra txiki onen alde otoi dagigula eskatuz:

Sancte Phebade ora pro nobis.

Febadio Donea, gure alde otoitz egizu.



## AZKEN-BEGIRALDIA IV MENDEARI

Eman dugu Euskalerriko lenen gotzaien zerrenda.

III mendean, ziurki gotzai izan zala esan dezakegunik, bat bakarrik ez. IV mendean, bat bakarra, Elusa'n ain zuzen, eta mende orren asieran: Mamertino. Eta beste bat Agino'n, mende orren bigarren erdian: Febadio Donea. Guztira, bi bakarrik.

Euskaldunontzat lotsagarria? Ez. Orrek ez bait du esan nai, bein baiño geiagotan aditzera eman dugunez mende oietan, bai Elusa<sup>i</sup>n eta bai Agino'n, gotzai geiago izan ez zanik. Soilki, izan zirala egiztatzeko, dokumenturik ez dugula esan nai du. Oroi Tarragona'ko gotzaigoaz esan genduana; orrelako utsuneak, Tarragona'ko goigotzaigoan ez ezê beste gotzaigo ta goigotzaigoetan ere berdin gertatzen bait dira. ¿Goratzen al zera, Zalduha bezain uri garrantzitsu bati, IV mendearen asieran izan zuan Balero Doneaz gero VII mendearen erdiko Braulio Donera arte gotzai ziurrik ez zaiola ezagutzen?

\* \* \*

Laugarren mende ontako Euskal-Kristautasunari-buruzko aztarnen ikerketa amaitzeko, gurekin bat etorriko ez diran guztiei zor zaien eraspena eskeñiz, aurkeztu dezagun, azken batean, gure iritzia:

- Zintzo Logikaren bidetik ibiliz, oker gelditzeko bildurrik gabe esan dezakegu, III mendearen erdiaz gero, Europa'ren sarkaide ontan Euskaldun Kristauak bazirala; eta, IV mendean Euskaldun Kristauak, uste oi dan baiño askoz geiago zirala.

- Ori uste izateko, gure logika, onako oiñarri auetan tinkatzen dugu:

- Elusa'ko gotzaigoaren goiztasuna. IV mendearen asieran Elusa'n ziurki ezagutzen dugun gotzai bat izateak, ordurako Elusa, gotzai-uri beintzat egiñik zegoala esan nai du, eta orrek, ordurako gotzai uri egiñik

egote orrek, kristautasuna Elusa'ko euskaldunen artean aspaldi sarturik zegoala, ta ederki erroturik eta aski ugariturik zegoala esan nai du: ibai beintzat elusatarren uria, gutxienez, gotzai uri egiña izatea merezi izateko aña!

- Pozik oroituko dugu Konhenerrian agertu zaigun laugarren memdeko basilika ederra, eta uri aren albeko erritxo batean agertutako bi idazkiak, IV mendekoak auek ere. Guzti orrek, aiñera, IV mendean uri artan gotzairik faltatu eza zala adierazten digu.

- Guzi ori sendotzera datozkigu, iparrean Agino, egoan Kalagurri'ko eta sortaldean Ueska eusko-uri zaarrak. Ez, sendotze ori, era berdiñean egitera, baiñan bai ondo era gogoan-artugarrian.

- Era ziurrean Agino, IV mendearen erdi-erdian Febadio Donea bertako gotzaia zala bai bait dakigu ziur. Ta, Elusa'z mintzatzerakoan esan dugun bezala, Agino'ko uria ez zan ordurako gotzai-uri izango, aurretik Agino'n kristautasuna sendo sustraiturik eta ugari zabalduarik egon ez

Gaiñera, Febadio'ren ariketa berberak ere adibidez liburu idazketarr, eta kontzilioetako jardunketan erabillitako jardunketak ere ez dio gure uste orri batere kalterik egiten; alderantziz indar ematen dio, Febadio'ren ariketa guzti orrek Agino'ko Eliza Eliz sendoa bezala agertzen bait digu.

- Kalagurri gure egoaldeko uri nagusiari dagokionez, gauza bat ez dakigu ziur, baiña beste bat, bai, ziur dakigu:

- Ez dakigu ziur IV mendean Kalagurri'n gotzairik izan genduanik, baiñan ziur dakigu IV mendean Kalagurri'n bataitegi bat bazala. Ta, logikaren argira, baietz, IV mende ortan Kalagurri'k bere gotzaia ere bazuala adierazi nai digu Prudentzio'k aipatzen digun bataitegi arek. Bataitegi ori, Zeledonio ta Emeterio'k martiriotza irabazi zuten tokian bertan eraikia izan zala diosku Prudentzio'k.

Bataitegi orrek ordea gotzaia eskatzen du. Gotzaiak bait ziran orduan Bataio ematen zutenak.

- Ziur dakigu Kalagurri'n IV mendean kristauak bazirala eta aski ziur III mendearen azkeneko ere bazirala. Baziran IV mendean eta ugari gaiñera. Ugari, oso ugari, izan ez balira ez bait ziran Bataitegi bat eraiki bearrean aurkituko.

"Peristefanon" poemako ereserki oso bat, VIII'a, eskeintzen dio Prudentzio'k Kalagurri'n, bi martiriak odola ixuri zuten tokian Bataitegi bat eraikia izate orri. Au da ereserki orrek daraman izen-burua: "De loco in quo martyres passi sunt, nunc baptisterium est Calagurri": "Martiriak eraillak izan ziran tokian, orain, Bataitegi bat Kalagurri'n". Eriotz ura gogoratuz asten du Prudentzio'k bere ereserkia:

Electus Christo locus est, uhi corda probata  
prouehat ad Caelum sanguine, purget aqua.

\*

Euskeraz:

Toki au aukeratu Kristo'k, odolez garbitutako  
biotzak zeruratzeko.  
Urez garbiturik eramanen ditu emendik aurrera.

Kristauen ugaritasun aundi ori adieraztera damaigu Prudentzio'k ere "Baskoien Jentiltasuna aspaldiko gauza zala" esaten digunean. Baskoi... **u**zuztiena? Ez noski, ori uste izatea logikaren aurka pentsatzea izango bait litzake, kristaudi guztian oraindik jentillak geiengoa ziralarik, baiñan bai beintzat Kalagurri'ko eta Kalagurri'ren inguruko Baskoiena.

- Euskaldun Baskoiak Kalagurri'ren inguruan, eta baita Ibero ibaiia gora Euskaldun Beroiak ere IV mendean oso-oso-oso ugari zirala adieraztera emango digu berrogeirenbat urte geroago Silbano Kalagurri'ko gotzaiak, bere tokian ikusiko dugun lez.

"Baskoien jentiltasuna aspaldiko gauza zala" esan zigun Prudentzio'k. "Aspaldikoa"..., Lnoiz? ¿Noiz zan aspaldikoa? Bait beintzat, eskier, IV mendearen azkenaldera edo V'aren asieran Prudentzio'k ori idatzi zuanean. Eta, baita, seguruaski, III mendearen amaierakoan bi martiriak eraillak izan ziranean ere. Eraiketa aren garaieko Baskoiei mintzatzen bait zaie Prudentzio aapaldi ortan!

Baiña Prudentzio'k Emeterio ta Zeledonio martiriei egindako ereserkian esaten digu ori. Martiri oiek III mendearen azkeanean il ziran. Badi-rudi, beraz, III mendeko euskaldunekin ari dala izketan euskaldun aiei "aspaldiko baskoien jentiltasuna" gogoratzen dienean.

Orrela pentsatzen duana, ez litzake logikaren aurka ibilliko. Beraz, esan daiteke, logikaren araura, III mendearen azken-aldean "aspaldiko gauza zala Baskoien jentiltasuna. Ots, III mendean ugari zirala, Kalagurri'n eta Kalagurri'ren inguruan euskaldun kristauak. Ori aitortzen duana logikarekin baterago ibilliko litzake ori ukatzen duana baiño.

Laguntz'emantzaille datozkigu Ueska'ko euskaldunak, Ueszararak, ere, Iondoni Bixintxo'ren bitartez. Ueska'koa bait zan IV mendearen asieran bizia eman zuan martiri bikain ori, eta IJeska'ko emakume Ueszar baten semea bait zan gaiñera. Iondoni Bixintxo III mendean jaio zan, 270"aren inguruan. 250'ren inguruan berriz bere ama. Tolosa'ra Iondoni Satordi etorri zan garaiean gabiltz, dakusazunez; Frantzi kristautzen asi zan garaiean; Tarragona'k ere oraindik gotzai ezagunik ez zuan garaiean, geroxeagokoa bait da Iondoni Murtuts bere lenen gotzaia.

Esanik utzi dugu, euskaldunen artean priszilikeria, Prisziliano bera Euskalerrira etorri aurretik gaiñera seguruaski ain azkar eta ugari zabaldu izatea ere kristautasuna IV mendean ederki sustraiturik zegoalako siñale zorrotza dugula.

Orregaitik seguruaski egin zan Zaragoza'n *eta ez* Galizi'n edo Betika'n edo Lusitani'n Prisziliano'renlenen kontzilioa, eta Bordele'n bigarrena, seguruaski Euskalerrian priszilikeria indar aundia artzen ari zalako.'

Orregaitik izan ziran Zaragoza'ko kontziliara deituak Bordele'ko eta Agino'ko gotzai biak: Akitani'ko euskaldunen artera Priszilikeria sarturik

---

<sup>32</sup> Bada arrigarria kontzilio ori Zaragoza'n egiña izatea! Prisziliano Galizi, Betika, Lusitani eta Gaztela'ren barruan ibilli zan. Bere areriorik aundienak an izan zituan: Kordoba'ko gotzaia (Ijini) eta bereiziki Lusitani'ko bi gotzai (Itazio eta Idazio, au Lusitani'ko Metropolita gaiñera). Zergaitik ez zan kontzilio ori, ortarako milla aldiz erosotasun geiago zuan egoaldeko lurralde artan egin? Prisziliano ez zan oraindik Tarrakonense probintzira agertu. Bai ordea, dirudianez Priszilikeria... euskaldunengana beintzat. Ta Zaragoza, egoaldetik eta sortaldetik izan ezik, euskaldunetz inguraturik zegoan, eta euskaldun aietatik asko Zaragoza'ko gotzaiaren ardurapean egongo zirala uste izatekoa da.

zegoalako, eta bi gotzai aiek Akitani Zarreko lurraren zati bat bakoitzak bere elizbarrutian zeukalako, dirudianez."

\* \* \*

Done-sail eder bat aipatuak gera IV mendeko euskaldunen kristautasunari-bunako atal luze ontan: Emeterio ta Zeledonio, londoni Bixintxo uezitarra, Balerio zaidubatarra, Leto ta beti Leto orrekin batera aipatu oi dan Bixente bat, Akitze'ko (edo Xaintes'ko) beste Bixente bat, Lorentzo, Eulali, Eusebi, Fides, Kaprasio, Primus, Feliziano, Engrazi, Tolosa'ko Ilario eta Silbio, Genulfo (III mendekoa, au), Eksuperio, Kintziano, Amando rodeztarra, Amantzio, Febadio, Paterno elusatarra, Zerazio, Sebando, Optato, Pupidiano, Luperkulo, Taurino...

Done oietatik, batzuk, kanpotik etorritako gotzaiak dira, beste batzuek, naiz beraiek euskaldunak izan ez, euskaldunen gotzai izan ziran, beste batzuk, IV mendean euskaldun jarraitzen zuten ziur ez dakigun urietako gotzaiak. (Alare, uri oiek seguruaski oraindik euskaldunak zirala, eta, batez ere, beren inguruko lurra euskalduna zala bildur aundirik gabe esan daiteke).

Zerrenda naro ortako Done batzuk ziurki dokumentuen bidez ezagunak ditugu. Beste batzuek ordea, kondairaren lañuz inguraturik agertzen zaizkigu. Baiñan auek ere badute beren garrantzia. Batek bakarrik ez du indarrik izango, baiñan danak batera alkaturik, ari aul gogortasunik gabekoe bezala, lokarri sendo mardul indartsua osotu dezakete.

Ta aurkeztu dugun zerrenda ortako guztiak berriz, danek gorputz bat egiñik, naiko arrazoi sendoa ditugu erronka au jaurti aal izateko:

IV MENDEAN  
ELIZA BIKAINKI ERATURIK ZEGOALA  
EUSKALDUNEN ARTEAN.

\* \* \*

---

<sup>53</sup> Ez dakit lenago esan dedan: Erroma'k Galietako probintzien eraketa egin zuanean, Akitanrtik at utzi zituan Bordele, Agifio eta Tolosa, naiz beren jatorriz uri oiek akitaniarrak izan.

Irakurriak dituzu noski liburuaren axalean agertzen dira galde kilikagarri aiek. Idatzi dugun guztiaz gero, errez eta laburki eman dezaiekegu erantzun egokia:

## EUSKALERRIRA KRISTAUTASUNA

### NORK?

Atzerritiko salerosleek, gudariek, lejoetara sartuta gero Euskalerrira itzulitako edozeiñek. Aro artan kristau oro bait zan mixiolari.

### NOLA?

Ixil-ixillik, adiskidetasunezko giroan; Zigorketa-aroa bait zan ura, eta kristautasuna oiuka aldarrikatzen ibiltzerik ez bait zegoan.

### NONDIK?

Galietako kairik garrantzitsuena zan Narbona'tik, Ispanietako uri nagusi zan Tarragona'tik (Iondoni Murtuts'en Tarragona'tik, Bordele'tik, Ireneo Donearen Lyon'dik, Tolosatik (Iondoni Satordi'ren Tolosa'tik), Iondoni Martti'ren Turona'tik...

### NOIZ?

II mendean, agian-agian-agian lenen izpiak;

III mendean ziur zegoan sarturik euskaldunen artera;

IV mendean, euskaldunen artean Eliza, ziurki, erakunde zan.



**GEIGARRIA**



# ESTRABOYEN ATAL BAT

G6Dgr. III, 3: 7-8; 111,4:16-18

<sup>d</sup>ATICCVTEç 8' 07. Opktot xITOL, UpOTt&TOtl, xigtO,LEOVIXt., 13«-BEZav KetToocExulthvot TI)v K6 tiv y1JVCZLICCV 8COCTV' EitTpoaadgEvot (SETCOTTC1 çickX0VT111.. Tpayocr.myo0at 8k çút.to-ra, Kect Tş; 'ApEL Tp&yov 0'601JOI. Kat TOitç CtX111X)16T01.)ç KOLL I.TrrrouÇ ' 1101.01301. 8k KIXI kKaT61113aÇ kKdcaTou ykvouÇ 'EXXivtKESÇ, wc Kal n LV&OC-P<sup>6</sup>ç 41)Tlc".

OUktv kKaT6v.

TEX0001. 8k Kçit dcyçZvaÇ yuv.vtKoi)Ç KOEI BTIÄLTl.K0Iç Kat çITELK01:ç Ttuugfi Kat 8p6gcp Kat 8LQIKpof3oAtaExc<sup>3</sup> KIXL Tfi aTrEtrp18bv ot 3' Bpktot TCL Suo Etkpr) TOD TOVC 8puoBaX<Scvcp xpc3vTat, T<sub>i</sub>-pdtvavTEÇ KoLl K6HCCV"CEç, EtTa &XkaavTEÇ Kat OpToTrotriadgikvot, 40" T' defTOT(BECCOOLi. EtC, XpOvov. xpcZvTat ak Kat 41:38EL' 0', Cp 8k oTtavtovTai., TOV 8k ykv6p.Evov Tax15 &VCCXLCKOUOL KaTELjCOXOLEVOL fIET& TC)v avyyEvcZ<sup>y</sup> &VT' kXatou 8k (ouT6p9 xpi5vTat. K01-811gEvoi TE Skenvoflat, TrEpt TO15ç ToLxouÇ Ka0k8paÇ otKo8ogriTaÇ X0VTE, TtpOK&611VTat 8k Me<sup>1</sup> TPtLKLIXV KOtt LLElll V• TrEptcpopiTbv Sk Tb 6EITIVOV. Kat Ttapei Tc6Tov 6pxo0vTat Ttp6Ç airX0v Kat a&X-TtLyva x0pE6OV"TEç, &XXii Kat &VCCXX6tIEVOL Kat 61(XigOVTEç• BacrrriTavLa 8& Kat yvv(aKşç CtvatitE, ilv8p&at TrpoaavTiXa çL13a-v6 çkvat rföv xktpc2w. ELEXavEttlovEÇ aTTCCVTEç Tb TT)t ov V crtlyotÇ, lv otaTtEp Kat aTtf3a8oKowtoOat. \*E;uXtvoLÇ 3k ckyyELotÇ xpWV-T111., KOLEUTEEp Kat ot KEXTot. at yuvatKEÇ 8' iv KVSULLOECTI. KOLL tiv8tvaIÇ kaet;crkat 8tdcyouatv. avzt && vot-itamtToÇ ot [8i1 XLav v fŞaElki c?opTtcav ktotrifi xpiiiivTat, i To0 ?cpyupo0 kÄflalkotToÇ &TIOT4LVOVTEç 8L860.01.. TObç eavaTouEtkvouÇ KaTomETpoflat, TO' .)ç 8& Turrpecko(aÇ k'E,co Taiv tSposv T.5I/ TI6XE0)V KOLTOLXE1501.lal. mio0aL 8' 6crTrEp ot "EXX-r;vEÇ. ToUS 8& (ipp6aTouÇs <:ScrnEp ot Atyirr<sup>y</sup>ttot Tb naXat6v, TrpoTLEkaaLv EtÇ TdcÇ 6801<sup>j</sup> ç TOtç TtE-

TtEipaElvok..Ç To0 TratiouÇ 8T[o8fper<sub>1</sub>Ç xtitpt.v. ÓtcpeEptvolÇ TE rxXo(ot.Ç xp<sup>ti</sup>). ro wc kut Bpoxi<sub>Tou</sub> 8Lcit TaÇ Tt)trui.p.uptiSaÇ Ka TEvayii, vuvi Kal Ta liov6E,uXec 18<sub>9</sub> crnavta. &XEÇ Ttop- cpupot, TpLcpeivTEÇ )LEUKOL. <sup>2</sup>a**TI. 8i Tsj** 8pEtcau & 13Loç 00T0ç, &SaTIEp Xkyc) T01.1ç **156pEt0V** TrXEupdev &cpopt4ov- Taç Tijç 113r1p(ocÇ, Ka)t.XcalcoiJÇ Kal <sup>3</sup>Aa**T01./p01ç Kai** KavTMS̄pouÇ jthxpL WCIGIC6V(OV **Kai Tfiç** flupThirŠÇ· 8t.icrEL8EZÇ yap IITr&v-mv ot 8Kvc-5 S **T0tç 6V6t,10(al TtÄEOV(gELV, cr)E15yww Tfiç ypac:Pfiç, Et Etfj TIVL Tc**pbÇ fiSov9Ç** laTor dtKoi)Ei.v MtEuTaV- pouÇ Kal Bap8ut;TaÇ Kak <sup>3</sup>A**XX6-rptyaÇ** Kal &»1C1 xEtpc.) Kat ticni .t6TEpa TOUTCOV 6v6ticera.**

Td S Sticrf<sub>i</sub>gEpoV Kai dcrypt.Ô8EÇ [8} oi.)K K **TOO TIOÄEHEtV aUg3EISTIKE 1.46V0V**, ti.Xck. **Kat 81.li 'TOV KTOTILat.16V. Ked. yrip** 7TX00ç airro.ÔÇ 1.4121Cpbç Ked. at 88ot, SuctETtiji.i.KToc bvTEÇ **drnOr5E(3XfilMOL Tò ICOLVCOVLK6V Kett Ta cpLX&v8pconov. 't.'rov vfl<sup>y</sup> TOOTO TL&GXOUaL 8t.tX Ti)v Etpf<sub>i</sub>vr<sub>i</sub> v Kett TtiV TC.7)1/ (PC.)- gatov kTrusivLatv' 8a01..ç 8' t TTOV TOOTO CWOOLLVEL, XOEXE- TI6TEpOt EtaL KOL er.pt.c,>8 crrEpoL. TOLCCUTLç 8' 0 Tiç **Kat 8errò TZI3V T6TICOV X1Yrrp6THIT0Ç VtOtg KOCI T1,t** EtKitÇ kTzvrE(vEa8al. Tt<sup>h</sup>)v TOLCCI)TnV &TOTaOLV. &ÄÄ.C11 VOV, cSC Etn0V, TZETICtUTCt 7ToA.Ego0v-rec TidICVTOE' ToÇ TE **rip** auvxovTaç kTL. v0v gaXtaTa Ta XnaTt<sub>i</sub>ptcc Kaw-cdtiSpouÇ KOL **TO1ç yELTOVE130V**Taç CCISTOIç KOETXUCTEV o Zef3ccaT8Ç Kato-ap, Kat dcw t1. To0 TTOQBEZV **T01.ç TG<sup>v</sup> 1<sup>sh</sup> C.O.LOLLCOV** crrpaTEI:Jouat v0v irrthp TWV `PLOGaic<sup>y</sup> ai TE KCOVLOLK0t **Ked. ot** Tr;DOÇ zait; Trlyor.IÇ To0 IfŠ'gpoÇ OtiCOOVTEç nXr<sub>i</sub>v-rouLcroL. iKET.vov St.cx8EE,dq.t.EvoÇ TL(?)kpt.oÇ, TpL,C)v Tay<sub>i</sub>laTc.)v aTpOtTLCOTLKOV .TtLOTTla<sup>h</sup>lq To7.Ç **TO-notÇ, Tb** Cerc08El.x£1v örrö zati **ZEÍ3acarro0** KalCrapoÇ, y.0V0V EtpI**VIKO'U**ç, &XXii Kat **ITOXI.TLKOL./ç 118T] TtViç CUSTWV** tiTtEpyot- aagEvoÇ Tuyx&vEL.**

Kod 'rav ,St4v Tian EtC fŠci.g<sup>y</sup>ilv XpriaLL.twv Tr2k. 8oÇ. k?1/4.aLaÇ  
 111.1.TtEXOU Kai auic Ç Kai "CC7)1, TlapotTrXnaLov cplfrEs  
 tj K018<sup>1</sup> fw.aç IfSr<sub>i</sub>puçT) TtccpctX6x Tr&I.tGIV EISTtopEI, cruxvil be Kat  
 \*[thwrot. Tut.pcorcEavt-tiç j Tcp6aBopoÇ SL0r.  
 4,16xn, j 8' laXr<sub>i</sub> Tb 1'12 0V OXtywptccv TC7n/ Ce.velp&nc..)v  
 Kai Tb L<sub>fj</sub> TIpòÇ &ctycuyilv, c1XXck tAXkov Ttpbç &v&yieriv Ked. Op-  
 lll V er<sub>i</sub>pt681<sub>1</sub> gETC1 801.1ç CpetiOtOlu 45v ' Et [J,1 Tlç OtETcri, ItpbÇ  
 Sutycorr)v Zf<sub>v</sub> v TovC ol pw X01.10[thvouÇ 4.v SEE,oLgEvatÇncc?ta.Loup.v4f)  
 Kai TovS 3uv.rotç *cr<sub>14</sub>i* xopÌvoliÇ K'cd. ceirroirÇ Kcd. Tiiç y<sup>tivea</sup>KetÇ  
 CCISTC)V, KatedeTTEp Tous KorvT&IspouÇ cpaal Kai TauC 6g6pouÇ oti)—  
 Totç. Kod\_ n-o0To b Ked. Tb XOE[IEUVEi.V KOLV6V aTt Toic 'IBripat  
 TtpbÇ Tovc KE.X-roxiÇ. vloL b Touty KOEXXcatcoi)Ç CceouÇ cpctal,  
 'tOus a KEX-ri.-r<sub>i</sub>pcxÇ Ko. Tous -rtpocr Upoi..)Ç TE:W bi.i6pcov airroI.Ç  
 devcovij t.9 t3Et.? (815ELV) -C'extç TravaEX#IVOlç winc tcap Trpk, Ttav  
 7TUX(2)V 1'tecVOLICOUÇ TE xopEiJELv Ked. netvvuxt4Etv.

TfiÇ S f3apf3opucflç tSct.Ç Ked. Tbv ti4v yUVotLICZ6V kvicav  
 KOol.lov 8aLri 'TLÇ &v, Ov Epr<sub>i</sub> rcEv 'Ap-rEiltScopoÇ · b-nov yd9  
 TtEpttpecxlPuce aLST-<sub>1</sub>0 cpopElv cpriatv, xov-reic K6paKerÇ Kocg-  
 Turogevouc, ii rtEp Kopucpflç, Ka.I. TCpOTTi.TrtOVTa Ttpb z003 1ETC.:YTIou  
 TroX-U, Koz 'r« Toirrcav aE TWV KOOKCJV, /STE BOUOvtall, Kcciacrniiv  
 .TO KOEX1.4t1.lcX, 4.)CYTE "I-TETCCOBEV CK1.6.61.0V TFp Ttp0C6TIC. TlapEXELV,  
 Kat vol.U.4ELV IC6C11.10V ' STIOU b Top..n&vLov TicepuOEia8aL, Ttp'tSÇ kJiìv  
 "tèp ivLC.? 1TEpLIDepE", KUL olDLyyov KEdpoi.X1)V 1.1Expt nap-  
 TI:caOcali, Etç hq)0Ç a Kai 'riXdrroÇ .E,x/7"Utt.acri,tivov 6M.yov-  
 &XXecÇ 3 -rdc Two zi\_cx. 4.itXo0v kTd. oao0-rov, derrocr-rafSELv  
 Tou .ILE-rc<sup>y</sup>rrou k<sub>i</sub>&XXov' -rciÇ (3' baov TloaLctiov -c6 tRpoÇ '-rtd3ct.th  
 va.C; C'TUXLCTKOV TIE9111XEKELV auTC3 TTjV xod-rnv, Etroc Kockirrrrptx t<sub>1</sub>E-  
 l.a.(vr<sub>i</sub> **TrpOC** \*6.710ELod Tfl -roLai)-rD TtoÄXtk  
 L'apa.rraLKed TIEpt "TirXvTCOV KOLVfi 'thv BripucC3v 9vE.Sv,

.3taci)Ep6vTuaÇ Trpooof36pww 0ö 1,16V0V Ta TrpOÇ av,SpELccv,  
dr.X.? 1 Kat Ta. TtpdòÇ 61..LOTTITa, Kat tZHOVOUXV Kal. yap  
k'K'rELVOEV Tcptv GIAWVaL ICOTa TOv  
**TI6XE.I.Lov** Tbv **KuvTexi3pol.Ç**, Kat TTIXI.SLOV 2>k SESE-  
vcaV atx l aX6Tc.av Ta v yovci)v Kai a.3EX,cl) 6'v 'KTELVE  
Tc6ct,TaÇ, **KEX€66CLVT0ç** To0 TraTp6Ç, aL8fi pou KupLE-  
Ocrav, yuvi<sub>1</sub>Toi.)Ç 0/VIXXISVtaç. **KX710Ek Tiç Etç**  
**1.1E0UCrK0k.LEVOUç** '13CICXEV ax5Tbv **Etç TrUp&V. KOLVa** ß  
Kat Tai3Ta iipòÇ Ta **KEXTLICiL** evr<sub>1</sub> Kat Ttic OpaKia Kai  
2:Kui:..Ktfc, KoLva Sk Kat (Ta) TcP6Ç aviSpEi.av Tfv TE  
**TLJV &V8p43V** Kat 'TfiV Tifo'v yuvaLK4)v. yEcopyoDatv  
TEKoOaaL TE aLOCICOV01313"1. kKEivouÇ  
clvEr airriSt# KaTaKXLvaaa... v **T8 TOtç** pyotÇ rcoX-  
X&KLÇ **COSTat (TLKT01.)CrIXL** Ked. **k01:101.101.** Kat aTEapya-  
vol3att), **iertoKXLvioxott**, Ttp6Ç **TI PEZ8p0V. v S** Tfi Ai-  
yucrtucfi Imat.v a rioaELblatnoÇ 3Lr<sub>1</sub>rjaao-Bat. Tbv E,vov  
Xapp.6X.E0v, Maacrakk.c5Tr<sub>1</sub>v fiv8pa<sub>1</sub> STL gi.a8c:.)aatTo avSpexÇ 81.1.o0  
Kat yuvostKaÇ Tt1aKacip<sub>1</sub>TOv, 6Uvaaoc TCt) yuvaucc.2)v  
derrb To0 k"pyot. TrXicsLov, **TEIC00Ciet 3' kTECIVX801 Ttt Totipov**  
crisTLKa,751-EwÇ (.1.1) jamoXo-ELE T6v 1.1.10-86v• aiirtbÇ 111.TC6VCilç t.SWv  
a&pya4og <sup>y</sup> riv, 01<sub>1</sub>llc. Et3r:'),ç atTLav Trp6TEpov obra **flck801.** Kat  
&-y+)Ç T6v F.k.a66v• T<sub>1</sub> (3' kKKogLaacra T6 vt<sub>1</sub>lit.ov TrpaÇ TL  
Kor<sub>1</sub>viov, X0i.)00CaCt KOC1. oTiapyav6aaaa 0T.ÇÍtxe..3LCCI:\$60-Ei-EV 01:1Ced,E.  
<sup>3</sup>CSLOV Sa Te3V '1 UŠpov ouSa To0To, 4)"1:7T-  
Ticov Ko<sub>1</sub>d4EcrElat., KaTffi Sa TckÇ Tbv <sup>g</sup>-rEпов TIE.L;bv aywvt-  
,Ecrtak.. of)8i Tb Tu")) ITA. E1Cfç 7.3Lov, tftcp' ois KOLL Xol+LKai.  
vOcrot. TtoXXcicKt.Ç f<sub>1</sub> KoXotifirlaav. av v (5 f<sub>1</sub> Tfi KavTa(3p Lix  
Tot3To **TOT.ç °PCill,la(oLÇ, taTE** Kat t.i.i.creo.)Ç &pxtuaBaL  
guoer<sub>1</sub>pot3vTaÇ TtpdòÇ .1..rpov (KaL) 8LE-  
**0440V'TO Elt5XLç'** TzPocTEX4triavE **KOE1. (1XX0V aTcauLÇ**

**Kai CILTOU' kTIECILT(.40VTO iSk iK Tfiç AKULTOEVCILç xec-**  
**XETTC,Zç 6Lek Tekç § vcrxwpLaÇ. 't Ç 8<sup>1</sup> CCTIOVOLCCç KOIL T00-**  
**TO Xkyc-rcti. Tfiç Kcovr&IŠpwv, bTL OLV6VTEç TLvq,**  
**ctiVCCTIETThly6TEç kiti.T3V c raupT5v, kT[C(16V140V. TO1**  
**01! V \*TOLCCOTOL T6V fla(;)V dcypk..6-uryr6Ç TLVOç Trapfx€l :y-**  
**iacT<sup>i</sup>Etri"rck S TOLOLOTOL tt kv icrcoÇ ITOXITLKIŠt.,**  
**enpLi.Ariotov Td Ttapa TO?..ç KavT6,(3poLÇ TOI:Jç**  
**av8paÇ SL86voLL -cxtxÇ yvvottE,1 TipOIKOL, TÒ 'Taç 8uyet-**  
**K?ulpovOgovÇ (ITIOXELITECTBOit, TOI:Jç TE s3LSEXçilOifç**  
**'STIÒ TotiviCOV kK8taoaElocL ruvaLE,Cv ` 'xEk. y&p TLVIX \* yu-**  
**vaLttoKpattccv''toOTo 6<sup>1</sup> OU Tr&APU TtOXLTlK6V. IfŠripk.-**  
**scòv TÒ ESEt. napatiSEci8a.k. TOE,l,K6V B cruv-ri-**  
**OOLOLV kK Bo thvi-1Ç aEkC<sup>y</sup> cp Ttpocrot.LoLaÇ &TIOVOV,**  
**IxEtv npdÇ T'i iliŠoiAryta, Kat rb KCCTIX-**  
**o-rrkvi3ELv etirol5Ç, o'tÇ Trpocri3C)v-ra1, luzE ciTtofl-**  
**vti crKELv çd..PTOiJç l5 'r kp cci. •r v.**





## ESTRABON'EN ATAL OIEK GAZTELERAV

Toso los 'montafieses (son) sencillos, aguabebedores, duermen en el suelo, y dejan crecer una larga cabellera como las mujeres. Pero antes de pelear se ciñen la frente (con una faja). La mayorfa de las veces comen carne de cabrôn; sacrifican al Ares' cabrones y caballos y los botines de guerra (tambi& puede significar prisioneros) de acuerdo con lo que Pfindaro dice:

"Sacrificar de todo un centenar".

Practican tarnbib luchas tanto cuerpo a cuerpo como armados y a caballo, pugilato y carrera y escaramuza (=simulacro de batalla) y luchas

---

Itzulpena Ander /bafiez Arana biblilari ta Gazteiz'ko Teologi-Fakultatean Itun Zarr-irakasleak egiña. Naiz gaztelerari dagokion txukuntasunari-buruz oso polita irten ez, Estrabon itzez-itz jarraituz egindako itzulpen bat nai nuala esan nion. Ederki bete du nere eskaria.

Nik elenaraz ez dakit itzulpenak neronek egin aal izateko aiña. Apaizgai giñanean, Itun Berria eleneraz irakurtzeko gai izatera iritxi giñan. Baiñan aztu zaigu ikasi genuanetik geien-geiena. Bait beintzat neri: Agian. **sortu**—tako guda madarikatu aren erruz Seminariotik at egon bear izan nualako.

Orregaitik, ez dizut EUSKERAZKO ITZULPENIK emango. Eleneratik ez baiña gazteleratik egiña izango,bait litzake, ots itzulpen batetik egindako itzulpen bat. Eta, TRADUTTORE TRADITORE izaten ba'da, ni, bir-TRADUTTORE IZANIK bir-TRADITORE gertatuko bait nintzake.

<sup>19</sup> Ares, elendarrentzat, jainko gudu-zuzendaria, Zeus edo Jupiter jainko nagusiaren eta jainko ark arreba zuan Juno jainkemearen semea. Erromatarrek, Marte eman zioten *izen*.

de batallones (lit.: en espiral). Los montañeses se nutren los tres tercios del año de beilotas, después de haberlas secado y machacado, y luego molido y hecho pan, de modo que se conserva por (mucho) tiempo, También beben cerbeza. Escasean de vino, pero el que ohtienen lo gastan pronto festejando con sus familiares. Emplean mantequilla en lugar de aceite. Comen sentados, teniendo asientos construidos a lo largo de las paredes, y se sientan segiin la edad y la dignidad. La comida se sirve dando vuelta (ots, i,ormaren inguruko esertokiaren bira jarraituz?)'. Y con la hebida bailan danzando en corro a la fiauta y a la trompeta pero tambien saltando y dobiando (las rodillas). Pero en Bastetania también las mujeres mezcladas con los hombres agarrandose mutuamente de las manos. Todos por lo general van vestidos de sayas negras, y también con ellas duermen sobre paja. Usan recipientes de madera como los celtas. Pero las mujeres se distinguen por sus ropas y vestidos floreados (o: bordados). En lugar de moneda, los muy en el interior emplean el intercambio de mercancfas, o dan de una lgrnina de plata que cortan. A los condenados a muerte los despeñan y a los parricidas los apedrean fuera de los lfmites y de las ciudades. Se casan igual que los griegos. A los enfermos, como los egipcios antiguamente, para los que consultan la causa del mal (?)<sup>21</sup>. Usaban barcos de cuero hasta los tiempos de Bruto por causa de las inundaciones y tierras bajar, pero ahora ya también (las embarcaciones) de una sola pieza de madera, escasas. Las sales, rojizas, pero machacadas son blancas. Esta es la vida de los montañeses como he dicho: quiero decir los que marcan el lado septentrional de la Iberia, CaKicos y Astures y Cantabros hasta los Uascones y el Pireneo: porque las vidas de todos son enteramente iguale,s. Me resisto a abundar *en* los nombres, huyendo de los desagradables a la escritura, a no ser que a alguien le guste oír hablar de los Pletauros y Bardyetas y Alldtrigas y otros nombres peores y menos significativos que esos (Geogr., III, 3, 7).

---

<sup>20</sup> Maku-tarteko azalpen auek, erderazkoak, On Andres'enak; euskerazkoak, nereak.

<sup>21</sup> Zaiant'ikur bat ipiñi du or On Andres'ek itzultzaille zintzoen eraz. Baña errez oartu daiteke irakurlea Estrabon'ek idatzitako itz oien zentzuaz: gaixoak bideetara ateratzen zituztela, gaitza bera jasandako bidazleengandik nola sendatu ikasi zezaten.

A lo indómito y salvaje se llegó no solo por el guerrear sino también por el apartamiento. Porque el navegar hasta ellos y los caminos son largos, no estando mezclados (no teniendo relaciones con nadie) han perdido la sociabilidad y la filantropía (o: afabilidad). Pero ahora están menos afectados de ello por la paz y la presencia de los romanos. Pero aquellos a los que les sucede menos esto (erromatarren urbiltasuna), son más difíciles y más salvajes (o: brutales). Siendo tal para algunos la pobreza de los lugares y los montes, probablemente aumentó esta extrañeza (carácter extraño). Pero ahora, como he dicho, han cesado todas las guerras. Porque a los Cantabros y a sus vecinos que mantenían hasta ahora mayormente las tropas de bandidos (o: ladrones) los ha destruido (o: derrotado) el Augusto César, y en lugar de hacer daño a los aliados de los romanos, combaten ahora a favor de los romanos los también los Coniacos y los Plentuisos que habitan junto a las fuentes del Ebro. Y Tiberio que ha sucedido a aquel, habiendo puesto en esos lugares un ejército de tres legiones, el preparado por Augusto César, ha conseguido ya hacer a algunos de ellos no solo pacíficos sino también sociables. (Ib. III, 3, 8).

Hay cantidad de rálces de las que son útiles para teñir. Y del olivo y de la vid y de la higuera y de las plantas semejantes, la costa ibérica de nuestro lado abunda en todo, pero también gran parte de la de fuera. Pero la oceánica septentrional carece por el frío, pero el resto de la mayoría por la negligencia de los hombres y el vivir no según formas de convivencia (?) sino más bien según la necesidad y el instinto bestial con groseras costumbres. A no ser que alguien crea que viven según forma de convivencia (?)<sup>23</sup> los que se lavan con orina envejecida en las cisternas y se enjuagan los dientes tanto los de ellos como los de sus mujeres, como se dice de los Cantabros y de sus limftrofes. Tanto esto como el dormir en el suelo es

---

<sup>22</sup> Berriro zaiantz'ikurra. Bañian berriro ere argi dago Estrabon'ek esan naitzan ziguna: basati aiek ez zirala gizabide txukun baten araura bizi.

<sup>23</sup> Oraingo zalantz'ikur orren bearrik ez zan. Argi bait dago Estrabon'ek "según forma de convivencia *civilizada* esan naitzan zuala.

comiln a los Iberos hacia (?) los celtas.<sup>24</sup> Algunos dicen que los Calaicos son ateos, pero que los Celtfberos y los que son sus vecinos hacia el Norte (sacrifican) a un cierto (tisltin6s = quidam en latin) dios anOnimo en los plenilunios durante la noche delante de las puertas y que bailan toda la familia y pasan toda la noche (lit.: todanochizan). (Id, III, 4, 16).

Se podr3a considerar de aspecto barbaro tambi3n el adorno de ciertas mujeres, del que habl3 Artemidoro. Porque dice que en algunos lugares ellas llevan collares de hierro, que llevan unos cuervos doblados sobre la cabeza y cayendo mucho por delante de la frente: que debajo de estos cuervos, cuando quieren tienden hacia abajo el velo, de modo que desplegado proporciona sombra al rostro, y que creen que es bonito. Y que en otros sitios se pone alrededor un tamborcillo, en torno a la nuca, sujeto a la cabeza hasta las orejas, ampliandose poco a poco en altura y anchura. Que otras se rapan las cabelleras hasta el punto de que brilla (buru-gaifia) mas que la frente. Que otras, habiendo colocado una estatuilla de un pie de altura, sujetan a ella en torno la cabellera (se entiende: cabellera abundante). (Au da esaldiaren zentzua: Buru-gaiñean zutik iruditxo bat jartzen dute, eta orren inguruan, jiraka, illedia bildu), y luego la envuelven con un velo negro'. Adem3s de estas cosas extrañas, se han visto y se han contado (la

---

<sup>24</sup> Esaldi ortan Estrabon'ek Keltiarren aldera, ots, Keltiarrengandik urbil, bizi ziran Iberiarrak, aipatu nai ditu.

<sup>25</sup> Ikus noa datorren esaldi ori dana Estornes Lasa'ren liburuan (Hist. Gen. Pais Vasco, 305): "... en algunas regiones las mujeres llevan collares de hierro con unos cuervos (ganchos en forma de picos de cuervo) doblados sobre la cabeza y extendidos bastante por delante de la frente. Y sobre estos cuernos cuando les gusta ponen el velo de manera que, extendido, da sombra a la tara, y esto les parece ser un adorno. En otros sitios pomen sobre el cogote una pequeña pandereta redonda que cubre la cabeza hasta las orejas aumentando poco a poco de altura y anchura. Otras mujeres se quitan el pelo de la parte anterior de la cabeza, tanto que esta luce mas que la frente. Otras ponen por encima de la cabeza una columna de un pie de altura y trenzan alrededor de ella el pelo y lo cubren con un velo negro".

palabra tiene cierto matiz de leyenda) muchas cosas de todas las razas de los Ibéricos, especialmente de los septentrionales, no sólo las que se refieren al valor, sino también las que se refieren a la crueldad (o: dureza, inhumanidad) y a la sinrazón bestial (o: salvaje). Porque incluso mujeres han matado a sus hijos antes de ser hechos prisioneros durante la guerra con los Cantabros, y un niño mató a sus padres y a todos sus hermanos, porque se lo mandó su padre, habiéndose apoderado de una espada, y una mujer a los prisioneros. Y uno, llamado por unos (soldados) borrachos, se echó a una hoguera. Estas cosas son comunes a las razas Celtas y a las Tracias y a las Escitas, son también comunes las que se refieren al valor tanto de los hombres como de las mujeres. Estas labran la tierra, y habiendo parido sirven a los hombres acostándolos en lugar de ellas. Y muchas veces ellas mismas (habiendo parido) lavan y fajan (al recién nacido) inclinándose a un riachuelo. Dice Poseidonio que Jarmoleos, extranjero-huesped cuyo varón de Massalia, contó que en la Liguria, habiendo alquilado varones igual que mujeres para cavar, una de las mujeres, teniendo dolores de parto, se apartó un poco de la labor, pero habiendo parido se volvió en seguida a la labor, para no perder la paga. Pedro el, viendo que trabajaba penosamente, no sabiendo la causa al principio, más tarde se enteró y la apartó (del trabajo), fíjole la paga, Y ella, llevando al niño a una fuente-cilla, lo lavó y lo enfajó con lo que tenía y lo llevó salvo a su casa. (Todo esto de los Jarmoleos lo dice en optativo, como indicando que Estrabón no responde del contenido). (Ib. III, 4, 17).

Tampoco es peculiar de los Iberos que se trasladan dos juntos sobre los caballos, pero que en la batalla uno luce a pie. tampoco es peculiar la multitud de ratas, de la que han seguido también enfermedades contagiosas. Esto sucedió en la Cantabria a los Romanos, hasta el punto de que recibían pagas los que cazaban ratas según la medida (nímero) mostrada, y (alare, erromatarrak) se salvaban difícilmente. Se añadía la escasez de otras

---

Estrabon'ek aipatzen duan "euervo" orrek bai ote du neskatoek eta neskatillak huru-gaiznean egin oi duten "TXORI" izeneko txilibistarekin? Danadala betea ere egazti bat bait da. Ez zan, dirudianeaz, nolanaiko lan erreza emakumezko aien ille-apainketa.

cosas y de trigo. Se proveyeron de trigo de Aquitania con dificultad por lo abrupto del terreno dificultad del lugar). De la sinrazón de los Cantabros se dice que algunos prisioneros, estando clavados a la cruces, entonaban un Asf pues, estas cosas serfan (optativo!) muestra de un cierto salvajismo de las costumbres. Pero cosas tampoco son mas civilizadas, pero no son bestiales, por ejemplo, el que entre los Cantabros los hombres dan doce a las mujeres, el que las hijas reciban herencias y que los hermanos son dados a las mujeres por ellas. Porque vige una cierta gynaicocraicia (no exactamente "matriarcado" sino "mando de mujeres): (emakutnezkoen agintaritzaren antzeko zerbait), Esto no es precisamente civilizado. Es tambien costumbre en Mrica el usar un veneno, que "sintetizan" de una planta parecida al perejil, de modo que la tienen preparada para las contrariedades (cosas que ocurren contra la voluntad), y el derramar (una libación)<sup>26</sup> sobre aquellos que pelen por jefes, de modo que mueren por ellos. (Ib. III, 4, 18).

---

<sup>26</sup> Itz orrek bazuan zentzu sagaratua, eta bereiziki jainko-jainkeineen ome-  
nez egindako edariketei eta aiei eskeiñitako edariei esan oi zitzaien "libatio".

## IZTEGIA

Aalmena, almena = poder, capacidad.  
Aapaldi = pftrafo, estrofa.  
Abagune = oportunidad.  
Abateme = Abadesa.  
Abata = abad.  
Aburu = opiniÓn.  
Adiketa = Comprensidn.  
Adi = atento.  
Aditu = entender. Se emplea tambien como escuchar.  
Aditz verbo.  
Adiontasun = oportunidad.  
Adiontsu afortunado.  
Aditu = significa entender, aunque se emplea también corno oir.  
Adur = suerte.  
Agian, bearbada = quizzes.  
Agiango = posible; ("agian"="tal vez"; "agiango"="de tal vez").  
Aginmena, (agintze-mena) = capacidad de mandar.  
Aginte = mando. Agintepean = bajo el mandato.  
Agoskatu, aoskatu, aboskatu = pronunciar.  
Aierkunde = inclinación, rabia, inquina. Venganza.  
Aintza = gloria. Aintzaldu, glorificar.  
Aintzinean = aurean.  
Aintzindari = el que va por delante, precursor, jefe.  
Ainzuzen = precisamente.  
Airian, aiñean = a medida que.  
Aitorrenserne = noble, aristkrata.  
Aitzkordi = Roquedo, conjunto de rocas.  
Aldarrikatu oiukatu, proclamar.

Alderantziz al contrario, por contra.  
 Alderantziketa = contraposición, acto de oponerse.  
 Alderantzipena contraposición.  
 Alderik-eza, Alderdirik-eza = neutralidad.  
 Alderrai vagabundo.  
 Aldeztu defender. Aldezle = defensor.  
 Alegia = precisamente. Amarrukeri = artimaña. Se usa en mal sentido.  
 Alu = Es un adjivo de sentido despreciativo; v. gr. estúpido, tonto...  
 Anitz = mucho, muy.  
 Aldeztu = defender. Aldezle defensor, partidario.  
 Aldikide = contemporáneo.  
 Almena = poder, autoridad.  
 Antetsu = acertado, atinado.  
 Antzerki = obra teatral.  
 Antziflizti = arqueología.  
 Antzirudi = retrato.  
 Antzoki = sala teatral.  
 Antzerti = teatro (en cuanto género literario). Antzerki, obra de teatro.  
 Antzoki = teatro (sala).  
 Aolku = consejo.  
 Apentza = venganza.  
 Apetatsu = caprichoso, antojadizo.  
 Apezpiku = Obispo. Pero es palabra empleada sólo por el 9% de los euskaldunes. Además "piku" tiene mal sentido para el resto de nosotros.  
 Por eso yo empleare siempre la palabra Gotzai, totalmente aceptada ya en toda Euzkalerria.  
 Ararteko, bitarteko = intermediario.  
 Arakatu = analizar.  
 Ardail = gresca, barullo.  
 Ararneiera = Arameo, orduan Palestina'n juduen izkuntza.  
 Arau = norma. Araudi = conjunto de normas.  
 Ardangela = taberna.  
 Ardietsi = alcanzar.  
 Ardura = cuidado, diligencia, interés.  
 Aregeiago = más aun.  
 Argitaletxe = casa que publica un libro. (Neologismo).



Ario = iniciativa. Bere arioz: por iniciativa propia.  
Arlo = campo.  
Arrai = alegre, jovial.  
Arrandi = alarde, bravata.  
Arras = muy.  
Arre = gris.  
Arremanak = relaciones.  
Arrenkura = cuidado, pena, queja.  
Arri-ola = lapida, tabla de piedra.  
Arrunt = comtln, ordinario.  
Artekari = intermediario, corredor de apuestas.  
Arteka = galerfa, pasillo,  
Artega = inquieto, conturbado. Artegaerazi = conturbar.  
Asaba Doneak = Santos Padres.  
Asaldatu = alborotar, incomodarse.  
Askabide = soluci3n.  
Askatasun-sari = rescate, precio de rescate  
Askitasun = suficiencia.  
Astapen = asiera, comienzo.  
Aste-une = principio, momento del comienzo.  
At fuera de. Etxetik-at = fuera de casa.  
Ataka, ateka = brecha. Ateka gaizto = embrollo, dificultad.  
Ats Deuna = Gogo Deuna, Espiritu Santua.  
Atx en Bizkfno Aitz en Gipuzkoano, roca.  
Atxilotu = apresar.  
Atzarrerazi = despertar. Atzarri = despertarse.  
Aunitz = Mucho, abundante.  
Aurk'ekintza = contra ataque.  
Auñamendia = Pirineo.  
Aurreikusi = denboraz aurretik ikusi. Prever.  
Aurreiritzi, aurreuste, aurreaburu = prejuizio.  
Ausarmen = audacia, temeridad.  
Auzi-gela = Sala donde se dilucidan los pleitos.  
Azkurri = alimento.  
Azoka = mercado.  
Aztaga = lanza: (azta-aga).

Azti = adivino.  
Aztiatu = pronosticar.  
Badoi = velo de religiosas.  
Baietsi = aprobar,  
Baiki = ciertamente.  
Baikor = positivo. Puede significar también, optimista.  
Baioteko = posible,  
Baitipat = especialmente, sobre todo.  
Bakaldun = monarca, errege bakarragintzaillea, rey absoluto.  
Bakalduneme = reina absoluta.  
Bakaiduntza = monarquía.  
Bakarti = solitario, anacoreta.  
Baldarxe = torpecillo.  
Baldintza = condición.  
Barbaria = la región de los Bárbaros.  
Barbaritarrak = los Bárbaros.  
Barreiatu, barreatu = esparcir, publicar  
Baretu = amansar, apaciguar.  
Basamortu = eremu, lekaro: desierto.  
Batza, batzar = asociación, reunión de personas para algo.  
Bazkun = asociación.  
Bearbada = cada tal vez.  
Bederen = al menos.  
Begiramen = atención, respeto.  
Beinbitarteko = provisional,  
Belaunaldi = generación.  
Berebiziko, biribiziko = enorme, muy grande.  
Berekoa = egoista, "muy de sí mismo".  
Ber-eratu = extender o extenderse de nuevo.  
Ber-eraiki = reconstruir.  
Ber-eratu = disponer de nuevo, reformar.  
Ber-esan = decir de nuevo. Bir-esan = decir por segunda vez.  
Berondar = tribu euskaldun situada en la Rioja central.  
Betizu = ganado salvaje.  
Bezero = cliente.  
Bidalia = apóstol, enviado,

Billakatu = devenir, convertirse en, llegar a ser.  
Billuts = desnudo.  
Bipil = decidido, resuelto.  
Bir-esan = decir por segunda vez. Ber-esan = decir de nuevo.  
Birgaztekunde = rejuvenecimiento.  
Biribiziko, berebiziko = enorme, muy grande.  
Bitarte bateko, bitarte baterako = provisional.  
Bultzi = tren.  
Buruñurduna = kaputxinoa.  
Buztiñegosa = certhnica  
Dakus = ikusten du,lo ve.  
Dakust = ikusten dut. Lo veo.  
Dakusgu = ikusten dugu Lo vemos.  
Dakuskezuna = lo que puedes ver.  
Dana dan = dan-dana, dana-dana, totalmente.  
Dasaiot = eskatzen diot.  
Dedu = honor. Deduzko honorffico  
Derizkiot = me parece.  
Deus = Algo.  
Dio, diot = lo dice, lo digo.  
Diosku = nos lo dice.  
Diru-uzta = ganancia.  
Doai = dones, regalos.  
Doakabe = desgraciado.  
Doan, duan = gratuitamente  
Doi-doi = justamente.  
Doixtar = alemaniar.  
Doixkera = lengua alemana.  
Duan, doan = de balde.  
Dukeme = duquesa.  
Ebasle = ladrón.  
Eberkera, (ebreo-era) = lengua hebrea.  
Ebatsi = robar.  
Edatu, zabaldu = extender.  
Edakera = desarrollo, manera de exponer algo.  
Ederrikusia = bien visto, favorito.

Edatu = extenderse, extender.  
 Eden = veneno, Edentsu, venenoso.  
 Edatsu= extensa.  
 Edeski = historia como hecho o conjunto de hechos históricos.  
 Edesti = historia como arte narrativo. Ede,ski, historia objetiva; la historia vivida; conjunto de acontecimientos sucedidos.  
 Edesti-era = manera de concebir, de presentar de contar la historia.  
 Edesti-iztia, edestiztia= historiograffa, ciencia de la historia.  
 Edestu = historiar, escribir la historia.  
 Egoskor = tozudo. Diffell de ser convencido.  
 Egitarau, egitamu = programa, plan.  
 Eia = moler. Eiotzea = la acción de moler.  
 Ekandu = hahito, cosumbre. Ekivale en Bizk. al Gip. "oitura".  
 Elenera = lengua griega.  
 Elerti = literatura. Elertizti, ciencialiteraria. Elerki, obra literaria.  
 Elertizti = ciencialiteraria. Elertikera, estilo literario.  
 Elikatu = alimentar.  
 Elizaurrea = anteiglesia, Organizackin politica vasca equiuvalente a alde.  
 Elizgizondia = clero.  
 Elizkid'arte = comunidad eclesiastica.  
 Elizkide = miembro de Ia Iglesia.  
 Elizkidego = cargo de miembro de la comunidad eclesial.  
 Elizkidetza= comunidad eclesial, en abstracto.  
 Emari = fruto, don.  
 Enda = raza.  
 Eortzi = enterrar.  
 Epaildegi = "Lugar de jueces, palacio de justicia.  
 Epaille = juez.  
 Epaitu = juzgar. Epai-Batza = tribunal. Epai-Gela = Sala del tribunal.  
 Era, Kera = manera, modo.  
 Eraberritu = reformar.  
 Eraiki = eonstruir. Eraikille, constructor.  
 Eralgi = cerner, gastar.  
 Eragozpena = impedimento, obstaculo.  
 Eraiki = construir.

Erail = matar, asesinar.  
 Eraille =asesino.  
 Erakunde = institution.  
 Erakuntza = disposicidn, orden, mandato.  
 Erantzukizuna = responsabilidad.  
 Erasoaldi, zigorraldi = persecución.  
 Eratu = instituir, poner en forma.  
 Erbeste = destierro (sitio). Erbestegi = lugar de destierro.  
 Erdirakoia = centralista.  
 Erdirakuntza, erdirakoikeri = centralismo.  
 Eremu basamortu, lekaro: *desierto*.  
 Ereserki = himno.  
 Eresi = mdsica.  
 Erio-gela, Erio-labe = celda u horno mortales.  
 Erkala = demokrazia, (erri-aala).  
 Erlijiokoi = aficionado a la religidn.  
 Ernemin = a punto de germinar.  
 Ernetu, ernatu = espabilar.  
 Erpiña = la curnbre.  
 Erretxindu = irritarse. Erti = arte.  
 Erretolika = retórica.  
 Erraldoi = gizandi, gigante.  
 Errautsi = asolar, reducir a cenizas.  
 Erregagai = candidato a rey, prfncipe heredero.  
 Errege-naia =aspirante a rey.  
 Erro = quicio (de una puerta), raiz, causa.  
 Erromatekoan = en los tiempos de Roma. Véase "Te".  
 Erro = rafz, causa.  
 Errotu = enraizar, enraizarse.  
 Erti = arte.  
 Etikera, erti-era = estilo artfstico.  
 Etzana = tumbado. En geometria, horizontal.  
 Ertzakoi (ertza-koi) = extremista.  
 Eskas, exkax = poco.  
 Eskier = seguro. Eskierki = con certeza.  
 Eskutitz = carta.

Etzana = horizontal; tumbado.  
Eule = tejedor.  
Euntari = centurkSn.  
Euntze-ola = fabrica textil.  
Euskerizti = Euskerologia.  
Ezabatu = aniquilar, convertir en nada.  
Ezagunmen = capacidad de conocer.  
Ez-apaiza = no-sacerdote, seglar, laico.  
Ezetzta = negativa  
Ezgizakoi = inhumano.  
Ezilkortasun = inmortalidad.  
Ezkillla = la campana.  
Ezkongetza = celibato.  
Frankiar = franco.  
Gaillen = importante.  
Gaitzespen = condenacidn.  
Gaizkatu (gaitzetik askatu) ,- salvar.  
Galdu = perder. Analdgicarnente, condenar.  
Galikeri = galicanismo, galicismo.  
Gandu = niebla.  
Ganorabako = persona insustancial, cosa sin importancia.  
Gantzuketa = uncidn.  
Garai = tiempo. Como adjetivo, alto.  
Garaille, garaipena = vencedor, victoria.  
Garaitza = victoria.  
Garbai = penitencia. Garbaigille, penitente.  
Gaztiatu = aconsejar, recomendar.  
Geiegizko = excesivo.  
Geltokia = estacidn.  
Gentza = paz.  
Geron = de nosotros mismos.  
Gerkeria, greziera = lengua griega. Igual que "elenera".  
Gertakari = gertakizun, suceso.  
Gertutu = aprestar.  
Gibel = detr<sup>gs</sup>. Anatdmicamente, higado.  
Gidari, gidatu = gura, g-ular,

Gizakoi = humano. Gizakoitasun = humanidad.  
 Gizandi = gigante.  
 Gizarte = sociedad.  
 Gizartizti = sociología.  
 Gogabide = manera de pensar  
 Gogaeta, gogoeta, gogapen = idea, pensamiento.  
 Gogo = deseo, alma, espíritu. Gogoeta, gogaeta, gogapen = idea.  
 Gogaikarri = fastidioso.  
 Gogapen = idea.  
 Gogo-eginkizun = tarea espiritual. Gogo-otoitza = meditación.  
 Gogoeta = idea.  
 Goi = alto. Como prefijo = "archi", "arz", "super".  
 Goiaipu = buena fama.  
 Goidiakono = archidiacono  
 Goigotzaitegi = arzobispado.  
 Goi-izen = título.  
 Goiztarregia = demasiado temprano.  
 Goldari = arador. Golde = arado.  
 Goraipatu, Goraldu = ensalzar.  
 Gorespen = alta estima, alta valoración, alabanza.  
 Gorri = rojo. Pero puede significar también "puro" en el sentido de "solo:  
     "arrigorriaga", "lugar de sólo pierdas", "aste-egun gorrian", "en  
     puro día de semana"), y, también "grande" ("gose gorria", "gran  
 harnhambre", "gorroto gorria", "odio muy grande").  
 Gotar, gotiar, got-tar = godo.  
 Gotor, gogor = fuertemente.  
 Gotzai, (gogo-zain) = obispo.  
 Gotzaigoa = el episcopado. "Go" es sufijo que indica cargo u oficio. Asf,  
 Ertzaintza, es la policía en abstracto. Ertzaingoa, el cargo de policía. Er-  
     tzaindia, el cuerpo de policía. Ertzaindia, cada uno de los cuarteles o  
     puestos de los policías.  
 Gotzonizti = angelología, ciencia sobre kigeles.  
 Guda = guerra. Más bien parece ser batalla.  
 Gudalburu = general, caudillo.  
 Gudarozte = ejército.  
 Gudu = guerra.

Gune = centro.  
Gura = nai. Gurari veleidad.  
Guraso Doneak = Santos Padres.  
Guren, Gurena = supremo, Inximo.  
Gurenda = victoria.  
Gurtu = adorar. Gurketa = adoracidn. Gurtzaille = adorador.  
Gutun eskutitza, carta.  
Gutxiespen = baja valoracidn.  
Gutxigoraberaketa = a poco mas o menos  
Guztialdun= todopoderoso.  
Guztientasun = capacidad para ser de todos.  
Iagole, yagole = protector.  
Iaiotasun, yayotasun = destreza. (Debe escribirse yayotasun).  
Iardetsi = lortu, alcanzar.  
Iare = libre, independiente.  
Ibildeun = procesidn; (de ibilli = andar y deun = santo).  
Ibilte = andanza, viaje.  
Idazkidi = archivo, conjunto de escrituras.  
Idazki = idatzitako gauza.  
Idazti = libro.  
Idoro = encontrar.  
Igaroaldi = transicidn, tiempo de paso.  
Igesle = fugitivo.  
Igakunde = movimiento.  
Igarri = enviar.  
Iguingarri = repugnante.  
Ikara = miedo.  
Ikerle = investigador. Lur-ikerle = explorador.  
Ikerpen = inspeccidn.  
Ikur = simboio, emblema, insignia, escudo.  
Ikurr-oiva = Grito simbdlco, grito-lema.  
Ikurpen = significacidn.  
Ikuspen = visidn, acto de ver, visita.  
Ikuzi = purificar, lavar.  
Ildo = surco.  
Ilgora = cuarto creciente lunar.



Illeta = funeral. Illetari = asistente al funeral.  
Iltzer, Iltzear = a punto de morir.  
Ingi = papel.  
Inperatoreme = emperatriz.  
Iñakitar = jesuita.  
Iradu = prisa, urgencia. Idaruz = apresuradamente.  
Iraizean = de paso.  
Irarkola = imprenta.  
Irasi = fundar.  
Irastle = fundador.  
Irazar, irazartu = despertar.  
Iren = castrado, eunuco.  
Iruzur = engaño.  
Irmo = firme.  
Irugaramonean = al tercer día.  
Iruten = hilando.  
Iurden = tereio.  
Irun = hilar.  
Iruzur = engaño.  
Isilkari = silencioso, reticente.  
Iskamil, ixkamil, iskanbil = harullo, alboroto.  
Isuria, ixuria = derramado. Figurativamente, "inclinado a".  
Itaun = pregunta, preguntar.  
Itun = trato, pacto. Itun Berria = Nuevo Testamento.  
Itzar, Itzartu = despertar.  
Itzneurtu = verso.  
Itzondoko = adjetivo.  
Izakera, izaera = manera de ser.  
Izaki = ser.  
Izanen = sed. "En" es sufijo de futuro para los verbos terminados en

Equivale al "go". Joanen da = joango da.  
Izankor, izan daitekeana = capaz de existir.  
Izartegi = lugar de los astros, firmamento.  
Izenburu = tfttdo.  
Izkelki = dialecto.

Izkeretan = en lenguas.  
 Izketecler = elocuencia  
 Izki = lera. = abecedario, alfabeto.  
 Izkillu = arma.  
 Izpar = noticia. "izparringi", "newspaper" "papel de noticias", periddico.  
 Izparringi (izpar-ingi) noticiario impreso, periddico.  
 Izpi = rayo, por ejemplo, de luz.  
 Iztegi = diccionario.  
 Izorlari = fornicario, fornicarja.  
 Izorratu, izurratu = fornicar. De suyo, significa prefiar.  
 Jaiera = devocidn.  
 Jainkolario = aficionado a dioses. Tiene sentido despectivo.  
 Jainkotiar = divino.  
 Jakigazitu = salazdn.  
 Jasan = soportar, aguantar, ilevar.  
 Jasankor = soportable.  
 Jardun = ejercitarse en.  
 Jardunbide = m&odo, tactica.  
 Jarki = perseguir. Oponerse.  
 Jaupari = sacerdote.  
 Jauretxe (jaurtze-etxe) = templo.  
 Jurerri = reino.  
 Jaurleri gobernante. Jaurlaritza = gobernu.  
 Jaurle = gobernadore.  
 Jaupa = sacrificio. Jaupari = sacerdote.  
 Jaurketa = adorackin.  
 Jaurtu =adorar.  
 Jaurtze = adoracidn (en abstracto).  
 Jazarri = persegir. Jazarle = persegidor.  
 Jazo = acontecer.  
 Jopu = esclavo.  
 Kako = angulo. En ortografia, parntesis.  
 Kakotx = corna. Goi-kakotx = tilde.  
 Kalonje = candnigo.  
 Kapar = tienda de campaña. Kapartegi = campamento.  
 Karrika calle.

Kasa = iniciativa, cuenta. Bere kasa = por su cuenta, a su manera.  
 Katigu, katibu = cautivo  
 Ke = gabe. Es sufijo negativo. Esateke = esan gabe.  
 Kide = igual; colega, compailero.  
 Kidetu = igualar, igualarse.  
 Koi = sufijo equivalente al "ar" y al "co" castellanos. "Errikoi",  
 "popular". "Zismakoi", "cismfico".  
 Kondaira = leyenda.  
 Kirio = nervio.  
 Komondu = componer, arregiar, arreglarse.  
 Konte = conde.  
 Konteme = condesa.  
 Korritua = la cuenta corriente.  
 Kunde = sexso.  
 Kundegabeko, (mejor Bizk. Kundebako) = neutro.  
 Kuria Agintarien inguruko jende laguntzaillea, euria.  
 Kurrika = tenaza de hierro.  
 Laidogarri = afrentoso, ignominioso.  
 Landa = campo. Como adverbio, "fuera de",  
 Landua = cultivado.  
 Lario = aficionado a. Es sufijo de sentido despectivo.  
 Latera = latin.  
 Laterri = estado.  
 Laterkide = ciudadano.  
 Lau = llano.  
 Lazkatu = soltar, aflojar, desvigorizar.  
 Legedi = derecho, código, conjunto de leyes.  
 Lege-erabilketa = jurisprudencia.  
 Legen = lepra. Legenetik = de la lepra.  
 Legizti = Derecho, como ciencia.  
 Leiza, = cueva. Leizezulo = interior de lacueva.  
 Lekaide = monje.  
 Lekaidetxe = monasterio masculino.  
 Lekaima monja. Lekaimetxe = monasterio de monjas.  
 Lekuko = testigu. Lekukotasun = testimonio.  
 Leñu = tribu.

Lepo egin = degoilar, matar, acabar con.  
 Lertu = reventar. Ler-zori = a punto de reventar.  
 Lez como, a manera de, (Bizkaiera). Equivale a "bezala" (Gipuzkera).  
 Lilluratu = embelesar.  
 Liran = fueran. Bait liran = como si fueran.  
 Liskar = pelea.  
 Lur-ikerie = explorador geogrffico.  
 Lurpedi = conjunto de subterrneos.  
 Lurregosia = terracota, cerlmica.  
 Lutelesti = geograffa.  
 Maiz = sarri, a menudo. Maizko = frecuente.  
 Maizenik = tas de las veces.  
 Maku = arco,  
 Malgua = flexibie, suave.  
 Mardul = grueso.  
 Margo = pintura,  
 Margo-lan = pintura, cuadro.  
 Maiz, maizki = a menudo. Maizenik lo mis frecuentemente.  
 Maizegi = demasiado a menudo.  
 Maitekiro = amablemente, amorosamente.  
 Masail = mejilla. Masaillezurra, quijada.  
 Matxinada = motfn, sublevact6n.  
 Meatz = mina.  
 Medar = delgado.  
 Mende = siglo. Dependencia  
 Mendizaruntzakeria = ultramontanismo.  
 Mende = siglo.  
 Mintu = injerto, la parte que se injerta.  
 Min = esqueje. Tambien, dolor.  
 Minsor = impffirido, insensible al dolor.  
 Mintzatu = hablar.  
 Minsor = sordo al dolor, impasible, sin quejas.  
 Mintzo = habla, charla.  
 Mordo = mont6n.  
 Mota, moeta = clase, especie.  
 Mugabetasun = infinitud.

Ivlundukoi = mundano.  
 Murgil = de bruces. Murgildu = hundirse, lanzarse de bruces.  
 Naas-maas revoltijo, confusi6n.  
 Nabarmen = manifiesto, aia vista. No tiene porque tener el sentido des-  
 pectivo que en algunos pueblos se le da. En este libro no lo tee.  
 Naroa = opulento.  
 Narrazka = a rastras.  
 Nasma = laherinto.  
 Naspil, Naaspil = ifo, enredo.  
 Nardaskatu, nardasketa = enredar, enredo,  
 Nardagarri = repugnante.  
 Nekaldi = pasi6n. Nekaldua = atormentado.  
 Nekazaitxe finca agr(cola. Palabra corriente en la montaa navarra.  
 Nondikoa = la menci6n de "de d6nde" se ha sacado algo.  
 Nonnaiko = de cualquier parte.  
 Norengandikoa = la menci6n de "de quien" se ha sacado algo.  
 Nortasun = personalidad.  
 Oi = radical de costumbre. Oi dut = acostumbro. Como sufico equivale  
 al sufijo castellano "ar" y sus equivalentes: Errikoi = popular.  
 Ameskoi = soaador. Ertzakoi = extremista.  
 Oieza = Raro, desacostumbrado.  
 Oizkoa = acostumbrado, de costumbre.  
 Oizkanpoko = de, sacosturnbrado.  
 Odolkari = sangriento.  
 Okin, okiña = panadero, el panadero.  
 Ola = contracci6n de "orrela" = asf, de ese modo. Significa tamWn,  
 fabrica y tabla.  
 Oldoztu = pensar. Oldozbide = modo de pensar. Oldozkun = pensa-  
 miento. Oldozle = pensador.  
 Onarmena buena aceptaci6n.  
 Ondare = herencia. Ondaregai = heredero  
 Onespena = bendici6n.  
 Oniritzia = aprobaci6n.  
 Onturre = beneficio.  
 Onuragarri = loable, digno de honor.  
 Opaldu = dedicar, ofrecer.

Orban = mancha, suciedad.  
 Ordoki = llano.  
 Oreka = equilibrio.  
 Oro = todo, todos. Gizon oro = todo hombre.  
 Oroi = recordad.  
 Orokor = que abaroa todo, general. Barkapen orokorra = absoiticiOn  
 general.  
 Orrilia = mayo.  
 Orritsu = frondoso, de mucha hoja.  
 Ortzi, urtze, ost = firmamento.  
 Osakuntza = euracidn.  
 Osin = pozo, sima. Tambin, ortiga.  
 Ospetsu = famoso.  
 Oste = Parte trasera, detrs.  
 Osteketa, = protesta.  
 Ostelari = protestante.  
 Ostera = de nuevo.  
 Ostots = trueno. (De "ost" = firmamento; "ots" = ruido.  
 Ots = es decir. Como substativo, sonido, ruido.  
 Otxan, diminutivo de otzan = mansito.  
 Otzandu = aplacar.  
 Ozen sonoro; Como adverbio, sonoramente.  
 Ozenki = sonoramente  
 Peitu = (altar.  
 Portitz = Hermoso en sentido de fuerte. Portizki = fuertemente.  
 Puska = pedazo. Puskatu = hacer pedazos.  
 Sagara-ordua = hora de la consagración,  
 Sagaratu = consagrar.  
 = grupo  
 Sarri = a menudo. Sarritsu = frecuente.  
 Sarkorra = penetrante.  
 Seiurden = sexta parte.  
 Senitarte, senide arte = fraternidad  
 Seta = carkter.  
 Setakeri = obstinacidn.  
 Sinestun, sinesle = creyente

Siniskera = manera de creer, conjunto de creencias, fe.  
 Sinislario = cr&lulo. El sufijo "lario" tiene sentido despectivo  
 Sinisle, sinistun = creyente.  
 Sinispide = fe, manera de creer, conjunto de cosas crefdas.  
 So-egin = begiratu.  
 Soinki = miembro.  
 Sortorra (Bizk), Satorra (Gip) = topo.  
 Sorzain = partera, comadrona.  
 Taju = traza, aspecto.  
 Tajutu = ordenar, organizar.  
 Talka = topetazo, enkontronazo.  
 Te = sufijo que significa "tiempo de". Erromate, tiempo de los romanos.  
 Tolestu = doblar.  
 Tsar = Zar. Errusi'ko inperatorea.  
 Tsareme, tsariñe = zarina.  
 Txanpon = moneda menuda.  
 Txantxa = broma.  
 Txautu = limpiar, gastar.  
 Txikordatu = trenzar.  
 Txindi = dinero.  
 Txiro = pobre.  
 Txolin = bobo, insustancial.  
 Ubide = canal de agua.  
 Ueszitar = tribu euskaldun cuya capital ere Oska, la actual Huesca. Los  
 romanos escribieron "Vescitani" para leer Uescitani.  
 Ugalde = riada.  
 Ugazaba = amo, patrön.  
 Ukan = tener, poseer, haber.  
 Une, une oro = momento, en todo momento.  
 Umotze = maduración.  
 Une-uneko = instandneo.  
 Urbil = cerca. Urbilla = cercano.  
 Urdanga = ramera. Literalmente, cerda.  
 Urduritasun = inquietud.  
 Usmo = barrunto, sospecha.  
 Urrats = paso.

Urre-aro = edad de oro.  
Usteke. Uste gabe = inconscientemente.  
Usteontsu = optimista.  
Ustiatu = aprovecharse de.  
Utsezintasuna = infalibilidad.  
Uzta = cosecha.  
Xalo = afable.  
Xautu = limpiar, gastar  
Xea = menudo, sencillo.  
Xee = menudo. Jende xea = gente sencilla.  
Yayo = habil.  
Yagole = protector.  
Yayotasun = destreza  
Yare = libre, suelto, independiente.  
Yori, Jori = abundante.  
Zailki = diffeilmente.  
Zalantza = duda.  
Zalaparta = barullo.  
Zalegarri = apetitoso.  
Zalpurdi (zaldi-gurdi) = coche de caballos.  
Zama = carga.  
Zamari = bestia de carga.  
Zanazala = fuese quien fuese, fuese lo que fuese.  
Zanga = fosa, foso.  
Zanpatu = aplastar.  
Zarama = basura. Zaramategi, basurero (lugar de).  
Zauli = brioso.  
Zegiten = egiten zuten, lo hacfan.  
Zeken = avaro, tacaiio.  
Zekusan = ikusten zuan. Lo veia.  
Zearo = totalmente.  
Zemaiketa = amenaza. Zemailari = amenazador.  
Zerrenda = lista.  
Zerukoi = celeste.  
Zesar = Agintari oro. Todo Jefe de Estado. Los romanos llamaron Zesar a todo sus ernperadores.



Zerretiar = tribu euskaldun cuya capital era la actual Seo de  
Zertasuna = substancia, esencia.  
Zertzelada = detalle.  
Ziape = mostaza.  
Zigorraldi = erasoaldi: época de persecución  
Zillegi = permitido.  
Zindo = noble, horrado, generoso.  
Ziñegozi = concejal.  
Ziñopa = martir.  
Zipotz, = desabrido testarudo.  
Zipozkeria = desabrimiento, testarudez de mal gusto.  
Ziriztatu = grabar.  
Zitu = fruto.  
Zutoitz, Zutikako, Zutabe = columna.  
Zurrumbillo = remolino, agua revuelta. Zurrubillatua, arremolinado.  
Zuzi = tea encendida.